



Iturria: *Gipuzkoako kondaira*, Juan Ignazio Iztueta (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/I/IztuetaGipuzkoa.htm>

GIPUZKOAKO PROBINTZIAREN KONDAIRA EDO HISTORIA

Juan Ignazio Iztueta

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**GIPUZKOAKO KONDAIRAREN
AURRENENGO ZATIA**

**ZEÑETAN IKUSIKO DIRAN ARGIA ETAR GARBI, PROBINTZIA
TXIT ANZIÑAKO ONEN ASIERA NOIZTIK ETAR NOLA
IZANDU ZAN, ETAR BERAREN LENDABIZIKO ETORKI TAR
GEROZKO JAIOTARRAK, ZER ITZKUNTZA IZAN DUTEN
BETI**



LENENGO KAPITULUA

Gipuzkoako Probintziaren asiera noiztik eta nola dan

Lau milla ta geiago urte dira Noeren billoi Jafeten bostgarren seme Tubal bere etxetarrakin Armeniatik Españara etorri izan zala; Ujola andia izan zanetik eun ta berrogei eta irugarren urtean, Jesukristo jaio baino, bi milla eun ta irurogei ta amalau urtez lenago, esaten duten bezala Flabio Josepho, San Jeronimo, San Isidoro, Don Rodrigo Lenapezpiku Toledokoak, eta beste askok beren egitade gogoangarrietan.

Zori oneko Aitalenen Tubal maitagarri au leorreratu izan zan bere jendearekin Gipuzkoako itsas bazterretan, eta ikusi zituen bezin laster emengo toki, lur, mendi ta aitzak, ezagutu izan zituen arkiroki, guztiak zireala, Armeniakoen antz berperekoak. Beragaitik abiatu izan zan gogoz ta fite bertako ta Nafarroako Oianetara janari billa: eta irten zitzaizkan txit bete osoak, bere gogoko uste ta asmoak.

Gizonaren laguntzarik orduraño, eta askoz geroago ere, artu bageko aitzondo ezadetsu oetan arkitu izan zituen ugari, izakiak doaindurik bereenez ematen dituzten garau eder gozoakin ondo janzitako Gerixa, Aran, Udare, Txermen, Muixika, Albertxigu, Sagar, Masusta, Baixaran, Mats, Irasagar, Urki, Piku, Intxaur, Laranti, Zidroina, Almendra, Gaztaña, Mingrana, Mizpira, Marrubi, Onto, Gibelurdin, Gibelori, Kurinto, Ziza, eta beste anitz Ezkur mueta gozo, iturri garbi on, eta berar osasungille askorekin. Zer gisatan ordea? Aiñ eroso, aixta ta iori, non, neke andirik egin bage errazkiro txit biribillatzen zituen nai ordu guztian, bera ta bere jendadi andia bazkatzeko laina ta askoz geiago.

Ikusirik, bada, bere begiaz argiro, eta eskuz artu ta gozatu ere egiazki, toki arrotz ustez ustekabekoan zoriontasun aiñ maitagarri doatsueraz betea, Jaungoikoari esker onak eta asko emanaz autatu izan zeban Oian oetan berarekin bere jendearen bizilekua pozkida gozo bete batean.

Gure lendabiziko etorki doatsu oen bizilekua, mendietan izan zala, inork ere ezin uka dezake bada, zergaitik gaurko egunean ere beretan arkitzen diran, Euskaldunen sustrai ta zain garbi pin guztiz iraunkorrak, zeintzutatik sortuak diraden Españako Uri ta Erri txiki ta andi guztiak.

Armeniatik etorri bezin prest mendi ondoetan txabolatxoak egiñik, jarri izan ziran beretan gure asaba maitagarriak, euren bizi modu berriari jarraitzen, guztiz naitasun andian alkar maitatzen zutela. Modu onetako

bizitza gozatsuak oi dakartzien seme ta alaba askoren bidez, jendea ugaritu zan denpora laburraren epean, sinistu ere ezin leikean ainbateraño. Bereala asi ziran zabaltzen aldamenetako ingurumaietara, ez alkarren arteko aserre ta gorrotoz, ezta ere bata bestea ikusi ezin zabalako, baizikan lasaitasun geiagorekin era obean bizituaz, beren neke izerdizkoaren bidez kanpoa txukunki landu ta apaindurik, egunen batean lurbira guztia Tubalen jatorriz ondo betea ikusteagaitik. Esan ta egin; urte asko baino len ikusi izan ziran egiztatuak euren asmo zuzen bide onekoak.

Tubaltar doatsu oek asi izan ziran, bada, tokiak adierazten zeban erako izen egokiak emanaz etxeak egiñik, Erri txiki bilduak ifinten, ibai andietatik aldendurik, begietaratzen zitzaiztelako argiro, denpora gutxiz aurretik izandu zan Ujola andi izugarriak, zeñaren beldurra zeukaten sartua ezurretaraño. Bañan denpora nola joan, gauzak alan aztu oi diran bezala, Ujolaren beldurra gitxituaz, eta beste alde, ordeka zelaietako lur guri ezadetsuen gizentasunaz zaleturik, abiatu zan jendea mendi ondoetatik ibar zabaletara jesten; non landa luze mardul galantak ederki landu ta ondo prestatuak bete izan zuten laster, Tubalen jatorri txau garbiak, España guztia osotero. Tubalen etorreran ez ezik gerozko aldi bitan ere, aitzarte oei zor die Españako Erresuma andiak bere izate guztia.

Jesukristo jaio baino milla, ogeita amar urtez lenago izandu zan España guztian leorte bat ain ikaragarria, non ogei ta bederatzirteren epean euri pitin bat ere ixuri izan etzan; zeñaren bidez bertako biztanleak al-zuten tokietara joan izan ziralako gelditu zan España utsa, menditarte oezaz osterontzeko guztia. Aitz goititu oetan izakiaren doaiatz jaiotzen diraden iturri ugariak batean, mendi koipatsuai ixurten zaiezkatzen berenezko izerdi ezadetsuen bidez, gordairutu izan ziran bertako jaiotarrak, eta oen babesera España barrutik etorritako asko; zeintzutatik bete izan zan bigarren aldian España guztia osotero.

Irugarren txanda gertatu zan Arabeak Españan egondu ziradenean. Oekin batean España barruan gelditu izan zan bertako jende apur bat, ez andizki ta aurrenengoetakoa, ezpada gauza errazen zale izan oi diran aietakoa; gañerontzekoak biribillatu ziran, Españaren zaintzalle ta gordeleku beti izan ta izango ere diran, mendi goititu latz gogor bizar-beltz oetara; nondik asi izan ziraden, bertako jaiotarrakin batean, Mairu itsusai erasotzen portitzkiro, eta astin-aldi gogorak sarriro emanaz, etziezaten utzi pakean, alik eta arraza gaizto hura osotero kanpora botarik, España guztia garbi garbi ifinia izan zan arteraño.

Aipatu ditudan iru aldi oetan España izan da, Tubaltar garbi Euskaldun leialen bidez osotero janzia bertako jaiotarrakin. Egia onen



argi-bidea ikusi nai debanak begiratzea dauka, D, Pedro Salazar Mendozako Jaun Irakasleak azaldu izan zeban Españaiko Monarkiaren 33garren orrikan arkitzen dan kapitulu XXIIgarrengoa.

*Tubalen etorrera txit anziñakoa
Izandu zalako ain zorionekoa,
Oroitutzen ere pozturik gogoa,
Naierara bizji da beti Gipuzkoa.*

BIGARREN KAPITULUA

Españara lendabizi etorri izan zan itzkuntzaren errazioia

Gauza jakiña ta egiazkoa da txit Euskara dala, zorioneko gure Aitalenen Tubal gogoangarriak bere etxetarrakin Españara ekarri izan zeban itzkuntz eder jakintsun leun guri gozoa, beraren etsai ospindu txar txoriburu puztu anitzek eztanda ler gaizto badagite ere. Euskaldun garbi garbia zan, bada, Tubal; baita beraren aita Jafet, asaba Noe, eta are lenagokoak ere. Ezin uka dezake, bada, iñork bide onez, Tubalek bere gura-soai ikasitako itzkuntza Españara zebala ekarri; ez eta ere, gizon doatsu onek ekarritako itzkera dala Euskara; zergaitik, Españara etorri ta bereala Euskarazko izen egokiakin Armeniako erara deiturik, ezagungarritu izan zituen, mundua mundu dan arte iraungo duten mendi, aitz, muno, munaiska, lur, berar, iturri, erreka, ibai, aintzira, zuaitz, garau, abere, pizti, arrain, egazti, eta osterontzeko gauza guzti guztiak. Eta zer gisatako ize-nak dirade oek? Ez, aizeak ustekabean nondik ezdakiela arturik, airean jira-bira oi darabiltzkien geldo illaun, ta litxen antzekoak; ez non nai billa-tutako zerrenda saretu ausikorrakin moldakaitzkiro arabatuak; ez non jaiok, noren odolekoak, eta zer txertutatik datozen ez dakiten itsu moten illun eta garratz saminduak; baizikan, beren lenengo jarlekuetan irme ta sendo, zintzo ta ernai beti daudenak; beren txukuntasun garbi ederrean apaindurik non nai agertzeko, ezertxuren ere eske iñora joan bearrik ez dutenak; non sortuak, norgandik jaiok, eta zeñen jatorriak diraden, beñere aztutzen etzaiotenak; zergaitik, berak dauden esanaz argi eta garbi, nor norenak eta zertarako jarriak diraden; ain dira bada, argiak, egokiak, zuzenak, ezagunak, eta eztitsu gozoak, nola oen parekorik arkitzen ez dan, Euskaraz laudarako itzkuntza guztietan.

Esan al guztiaz ere andizkatu ezin leizke bear ainbat, Euskarazko izen miraritsu maitagarriak; zeintzuk lau milla ta geiago urteren buruan ere, adierazten dituzten beren esakariak aiñ zuzen ondo ta garbi, nola jaiotako egun berperean. Amarik zintzoenak bere erraietatik ateratako seme-rik maiteena bezin aixta ta ondo, Euskarak bere zatirik txikarrenak ezagut-zen ditu edozein tokitan. Amarik ernaienari gerta lekiok, bada, iñoz edo berriz bere semeaz ezeztatzea, dala denpora luzean ikusi bagez, lenagoko antzik arkitzen ez diolako, edo beste edozein gertakariren bidez gorpu-tzeko jonturetan gaitzbiderik izan badu, atzeren bat dala iduritzen zaiola-



ko. Bañan Euskara jakintsun argiak bizi dan arte guztian ezagutuko ditu bere zatiak, munduaren araurrunean ere.

Jakinduria andiko Menaskindari batek, urre, zillar ta beste edozein menasta, zaborraz ta tortikaz naspillaturik egon arren, erdoi tartetik garbiro bereizten dituen bezin ondo, edo obeto ta are garbiago Euskararen zañetik datozen izen guztiak Euskaldun on batek ifiniko ditu, beren distiazio ederrakin adierazten dutelarik arkiroki, norgandik jaio izan ziran, zertarako jarriak diraden, eta zer gauzari dagozkan.

Ez da, bada, ezagutzen munduan lurbira osorik, zeri edo ari Euskarazko izen garbi egokia arkitzen etzaionik. Ez ordea alferrikako izen geldo deus balio ez dutenak, ezpada, guztiz goi me diranak, eta gizonaren serbitzorako bearren diradenak, zein beren toki jakiñetan ezarriak, laster ikusiko dituzuten bezala.

Aspaldiko urteetan egon bada ere gure Euskara jakintsua ta esan al guztien gañean guretzat beti gozoa, aitzarte oetara bazterturik loak artua bezala, geroenean ere irazarritu ta mendi zuloak utzirik agertuko da mundu osoaren aurrera arpegi garbi alaiarekin bere zati eder baliosoen billa, eta toki guztietan or emen arkituko ditu ugari ta errazkiro, zergaitik agiri agirian dauden ojuz deadarka esaten diotelarik beren Ama maiteari, bizi gera, emen gaude, zureak gera, atoz lenbait len laztantzera aspaldiko partez, eta gorde gaitzatu ordu onean, zure kolko zabal mardul gozo indartsuan sekula betiko.

Gure guraso maitagarriak beren itzkuntz ederra, etsai portitzak lurraren azpiraño sarturik arras ezkutatu naiean darabiltela ikusi badute ere denpora luzean, gaurko egunean arkitzen da, beraren seme prestu leial argien bidez auziak irabazirik, eder ta galant, pizkor ta sasoikoa txit, erdaldun mingain latz arroak onelakorik gertatzea uste ez bazuten ere.

Euskarazko itzkuntz jakintsu maitagarri au Españaren kaltarki ta lotsagarri balitz bezala, nork daki nolako nekeak eta zenbateraño buro ausitzeak egin izan dituzten gizon andi usteko askok, bera bidebagekiro desondraturik, beñere agertuko ez dan tokira aintzeko asmoan?

Beste anitzen artean Euskarak izan dituen etsairik indartsuenak dira Mariana, Maians, Armesto, Osorio, Nikolas Antonio, Marti, Belazkez, Ledesma, eta Don Joakin Traggia. Guztiak aomen andikoak; bañan Euskara azaletik bedere ezagutzen zebanik, ez bat bakarra ere. Berai arkitzen zitzaioten utsune andi onezaz batere oroitu bage, ekin zitzaiozkan goien beean Euskara zintzo gaitz bageari erasotzen, beren luma latz lodi amutsakin asmatu al guztia lotsabagekiro esaten, ondoreari begiratu bage. Azkenik ifinten zuten beren zirri borroetan txit gauza anditzat eta segu-

rutzat, ezen, Euskara ez dala beste gauzarik, ezpada, Eguzkiaren jaiotaldean diraden itzkundeetatik artutako zerrenda banaka batzukin, moldakaitzkiro antolatutako itzkera farragarri bat; etzebala gramatikarik eta itz-tegirik, eta izan ere ezin zezakeala, zergaitik etzeban gairik bear bezala neurtu ta zuzen-bidean ifinteko.

Bidebageko josi askatu iraingarri oek, eta beste onelako asko esan bage uzten ditudanak entzutean, mindu ziran lazki Euskaldun prestuak, eta asi ziran berpertatik Euskara garbi gozoaren doai ederrak zabaltzen mundu osoaren jakiunderako. Aita Larramendi gogoangarriak azaldu zituen zuzenki ta garbiro Euskarazko Itztegia, eta gramatika, zeñari izena jarri izan zion *El imposible vencido*; non adierazten zeban argiro, Euskararen maixiatzalle guztiak direala itz-jario erausle motel ez-jakiñak.

Larramendi doatsuaren ondoren, Astarloa jakintia, eta Erro ernaia irten ziran plaza agirikora, Euskara illezkor zintzo maitagarria janzi aberatsakin ederki apaindurik, mundu osoari begien aurrean ifintera, ikusi zezaten donarioz ondo, oraındaño ezagutu diran itzkuntza guztien artean bera dala bakar bakarrik, munduaren lenbiziko asieran sortua. Beragaitik arkitzen zaiozka, bada, Euskarari bere kolko zabalean ondo gordeak, guztion Egille andiak gizonaren izatearekin batean eman izan ziozkan doai maitagarri ain gain gañekoak. Gizon itsutu bat bere itsu-aurrekoak, nora nai ta ara, eramaten deban bezin zuzen, edo are zuzenago ta bide erosoagoetatik Euskara zintzoak eskua gogoz emanik, oi daramazki seme egiazkoak, beraren sustrai pin ta zain iraunkorrek arkitzen diran tokietara.

Gisa berperean igo dirade, bada, Astarloa, ta Erro beren Euskara maitagarriarekin biderik galdu bage zuzen zuzen, munduaren lenengo adiñera; non billatu dituzten Euskararen jaiotzako argibide egiazkoak zuzenkiro, baita agertaratu ere beren izen garbiakin mundu osoari, Euskararen bere berekiak direala iñork ezin uka dezakean moduan.

*Sinistmen osorikan ezin artu oni,
Euskara ezagutzen ez debanak ongi;
Bañan antortuko du gogoz eta garbi,
Bera ikasitzera nai debanak jarri.*



IRUGARREN KAPITULUA

*Non azalduko ditudan argi eta garbi Mundu guztiak lendabiziki-
kotzat ezagutuak dauzkan Probinzia, Uri, Mendi, Aintzira,
Ibai, Ugarte, eta beste gauza gogoangarri askoren izenak;
Zeintzuk jaiotako egunean bezin ondo gaur ere, ezagutzen dituen
Euskara zintzo ernaiak, bere seme ta alaba egiazkotzat.*

PROBINTZIA AURRENENGOEN IZENAK

ASIA

Anziñako gauzen gañean itzkidatu izan duten Ipinle guztiak batera esaten dute, ezen, gizakiaren lendabiziko seaska, azitoki, eta bizilekua izan zala Asia deitzen zaion Probinzia. Euskaldun baserritar motzen motzenak ere, ondo daki, bada, zer esan nai deban Asiak. Izen egoki Euskarazko garbi au, Erri edo Lurbira oso bati ezagungarritzat ifintek, adierazten du argiroki, asierako erria dala, edo gauza agirikoren batek toki artan izan zebala lendabiziko asiera. Munduaren lenengo adiñetan aiñ argi ta garbi ezagutzen dan izen ots andiko au, ezin ukatuko diote bada Euskarari, beraren etsairik andienak ere.

ASIRIA

Asiaren izena bakarrik etzan bear adinbat aiñ Aderri zabal ta luzea garbiro erabakitzeko, zeñetan artu izan zuten lendabiziko jaiotarrak beren izate guztia, baita argia ikusi ere berekin beren ondorengo guztien patu onerako. Denpora au zan aiñ doatsua ta balioso gizonarentzako, nola zorientasun au zor zaion Erria duin ta gogoangarri sekula guztirako. Miragarritzko gertaera onen bidez deitu izan zitzaion, bada, *Asi-iri-a*; au da esatea, ezen, toki onetan izan zebala *asiera* mundua jendez betetzeak, edo auzotutzeak. Asiriak zer esan nai deban, eta izen egoki au nor-gandik jaioa dan, ezagutuko du aixa ta garbiro, Euskararen barri dakien edozein gizonek.

Gisa berperean dirade, bada, Euskarazkoak eta Euskararen bere berekiak, mundu osoan aurrenengotzat ezagutzen diran Probinziarik gogoangarrienak izen oekin.

Senaar.
Arabia.
Siria.
Zilizia.
Armenia.
Albania.
Palestina.
Fenizia.
Zelesiria.
Persia.
Ejipto.
Mizarain.

Orobat lendabiziko Uriai ifinitako izen oek.

Ur.
Txabala.
Osika.
Goaria.
Simira.
Arzama.
Suma.
Zama.
Txolua.
Txolu-ata.
Baraza.
Damasko.
Kolarina.
Jerusalem.
Betel.
Betel-em.
Betania.
Nazaret.
Geriko.
Ger-ara.
Betulia.
Ai.
Iope.



Aurrenengo ezagutu izan ziran mendien izenak.

Amana.
Ebal.
Garizim.
Gordeia.
Kaokaso.
Korax o Gorax
Kormelo.
Libano.
Oreb.
Tabar.
Zinai.

Lendabizi arkitutako Aintziraen izenak.

Bebeis.
Euxino.
Fuzino.
Genizaret.
Kaspio.
Zoroanda.

Munduaren asieratik ezagutzen diran Ibai andien izenak.

Araxes.
Eufrates.
Ganges.
Indo.
Nilo.
Tigris.

Toki urrutikoetan arkitu izan diran Ugarteen izenak.

Emaoa.
Jeturoa.
Jiokea.
Maitea.
Marua.
Mopelia.
Oana.
Ohetea.
Ohetirioa.
Otaba.
Oura.
Ulietea.

Izen oekin deitu izan dira beti, mundu osoak aurrenengotzat ezagutzen dituen toki gogoangarri aipatu ditudan guztiak; eta gaurko egunean Euskaragandik urrun bizi badira ere, bereak daude esanaz argi eta garbi, Euskararen bere berekiak diradela.

Egia onen argibidea zearo ikusi nai debanak, begiratzea dauka oarrez ta artezaz Don Juan Baupista de Erro Jaunak milla zortzi eun, ta amabostgarren urtean, munduaren asierako izenarekien (el Mundo primitivo) agertaratu izan zeban liburuaren berreun ta zortzigarren orrikatik aurrera; non arkituko dituen bat banaka egiztatuak garbiroki, nola ta zeren bidez diraden Euskararen bere berekiak.

Gure Aitalenen Tubal doatsua nola baitzan jatorriz izendatu ditudan toki aetakoa, beretan jaio, azi, ta bizitua, eta bere gurasoi Euskara beste itzkuntzarik entzun bagekoa; nai ta naiezkoa zan, bada, Española etorri izan zanean ere, Euskarazko izenak ifintea emen arkitu zituen mendi, ibai, ugarte, aintzira, muno, lurbira, uri, erri, etxe, eta gañerontzeko gauza guztiak. Ikust ditzagun bada nolakoak, eta zer bidetatik datozenak diraden Española Erresuma andiari, eta beraren mugapeko toki zabal aberatsai, Tubalek eta bere ondorengoak ifinitako izenak.

ESPAÑAREN IZENA

Noiztik, nondik, eta norakoa dan argibidea

Agertaratzeko asmoa artu dedan izen gogoangarri guztien lendabiziko iturburua da, España; zeñari gizon aomen andiko etorki arrotzak eman izan diozkaten izen mueta asko. Batzuk deitu izan diote *Hispania*, besteak *Spania*; zenbaitek, *Hesperia* H-ekin; askok *Esperia* H-bage; badira deitu izan diotenak *Iberia*; baita *Zeltiberia* ere; bañan bertako jaiotarrak oroitezkarrik denporatik deitzen diote beti bere izen egokia deban bezalaixen *España*.

Izen gozo erazko au bere adigarri egiazkoarekin, letratxo bat bakarra ere ez kendu ta ez erantsi, arkitzen dalarik argi ta garbi España barruko itzkuntz eder Euskarazkoan, nork daki nolako aztalka, zilipurdi, eta itzulamilkak egin izan dituzten Euskararen etsaiak, Euskarari izen bereki au opa eziñik, zenbat letra ainbeste josi-askatu eta iraulketa egiñaz, Zelta, Hebreo, edo Arabe biurtuko dutelako uste oso betean? Bañan

*Azaleko irudiña,
Denbora gitxiko diña.*



Esaera oi dan bezala, ez dute balio izan pelapat, Españaren izen mai-tagarri au atzerritarrai eman naiean, gizon andi usteko askok egin izan dituzten azka, puzka, ixarre, eta aztarrika guztiak; zergaitik, Euskara indartsuak purrustada batekin aienatu izan dituen aixa, alderatu izan zaiozkan estalki, ta lilluramendu guztiak, bere kolko eder zabalean ondo gordeak dauzkalako, iñon diran etsai itzontziak ixiltzeko bear diraden argibide zuzen egiazkoak. Goazen bada ikustera ezagungarri oek zer nola-koak diraden.

Españako Erri lendabizikoen izenak.

Atx'eta.
Auts'eta.
Bas'eta.
Bol'eta.
Ed'eta.
Jatz'eta.
Karp'eta.
Kos'eta.
Lax'eta.
Le'eta.
Lob'eta.
Nem'eta.
Or'eta.
Sues'eta.
Turd'eta.
Zerr'eta.

Izen oek zer gisatan ezarriak dauden ikustean, benturaz esango du nork edo ark, ezen, guztiak bear dutela bukaeran *Nia*, au da, Akzetania, Basetania, Auts-eta-nia, zeintzubei bertatik erantzuten diotedan, ezik, begira dezatela ondo Astarloa gogoangarriak milla, zortzi eun, ta irugarren urtean Euskararen pozkarri, eta onen etsai guztien illgarri, agertaratu zeban libruan berreun ta zortzigarren orrikatik aurrera, non arkitzen dan garbiro egiztatua, nondik eta nola izandu zan Latin itzkuntzako *Nia*.

*Euskarari ifinia,
Ez puska berekia,
Baizik arabakia,
Eta arrotz etorkia.*

Españako Uri anziñakoen izenak.

Ara'uriga.
Arko'uriga.
Augusto'uriga.
Bolo'uriga.
Deo'uriga.
Flabio'uriga.
Julio'uriga.
Kata'uriga.
Koteo'uriga.
Lakko'uriga.
Lanko'uriga.
Mero'uriga.
Miro'uriga.
Nesto'uriga.
Sego'uriga.
Tala'uriga.
Tunto'uriga.
Zelio'uriga.
Zelto'uriga.

Izen oek zer gisatan ezarriak dauden ikustean, orobat esango dute Euskararen barri ez dakiten askok, ezen, bukaerako itza iñoiz ezagutu izan zaiotela berai, *Briga*, eta orain irakurten dala, *Uriga*. Zer da ansi orde, legez ta bidezkoa ez ezik, zor dana ere baldin bada nori bere gauza iraultea?

*Jarri ezkerro begira,
Arras ezagunak dira,
Uriga eta Briga;
Astarloak ditu jira,
Nor bere Amaren titira.*

Jarraitzen dute Urien izenak.

Arta'uria.
Bruto'uria.
Flabio'lam'uria.
Kanta'uria.
Lando'uria.
Sara'uria.
Tene'uria.



Tere'uria.
Zeto'uria.
Zezim'uria.

Lengoak bezala oek ere izan lezateke nork maixiatu, bañan ez da zer ikaratu. Geienaz ere esango dutena da, ezik, izen oek ere bukaeran zute-la *Bria*.

*Eta guk diogu dala, Uria,
Astarloak esaten du egia,
Euskaraz kanpora, Bria,
Txit dala soil eta urria;
Bañan Españan guztiz ugaria,
Eta arras Euskara garbia.*

Badiraute aurrera ere.
Anziñakoak emen. Gaur ezagutzen ditugunak oek.
Bekuria. Busturia.
Asturia. Joruria.
Asturika. Gojuria.
Beruria. Lemauria.
Kau'ria. Goikouria.
Onobalistoria. Ata'uri.
Bardulia. Obekuri.
Turdulia. Ollauri.
Turia. Zeanuri.

*Izen oentzako zer esanik,
Izango ez dutela uste det nik,
Urrengentzako ain gutxi,
Euskal-errian diralako bizji,
Ta maitatzea dutelako merezi.*

Ikusi ditzagun bada orain, Uriaren izenarekin ezagungarritzen diran tokiak, zein garbiro erabakitzen dituen Euskarazko itzkuntzak.

Uri'arte.
Uri'barri.
Uri'be.
Uri'belarrea.
Uri'Bezar.

Uri'en.
Uri'goen.
Uri'goiti.
Uri'ñuela.
Uri'ona.
Uri'ondo.
Uri'zar.

Euskararen barri etzekiten gizon andi usteko askok, beren obra gogoangarrietan ezarri izan dute *Bria*, *Uriaren* ordean, biak bat dirala iduriturik, modu onetan; Kanta'brias Poltio'bria; Selim'bria o Seli'bria; Mene'bria, o Mesenbria:

*Bañan Astarloak oen tokia,
Arkitu izan zeban txit egokia;
Beragaitik dakigu dala, Uria,
Españatar Euskara garbia:
Eta agertu izan zala, Bria,
(Aurrena)
U bokalaren lekuan V berria,
Eta gero, onen ordean B jarria.*

Españako beste zenbait Uri eta muno gogoangarrien izenak.

Abarum.
Alaba.
Albonika.
Arandi.
Aritium.
Ariza.
Arriaka.
Arsa.
Artigi.
Astigi.
Aszerri.
Ausa.
Balda.
Bedunia.
Berurium.
Beturia.
Biskargi.



Grakurris.
 Ilarkuri.
 Iliberri.
 Ilipula.
 Iliturgi.
 Iria-Flabia.
 Laberris.
 Lakurris.
 Lapatia.
 Mediolum.
 Murgi.
 Muru.
 Obukola.
 Olon.
 Onoba.
 Oska.
 Turbula.
 Turiaso.
 Ulia.
 Urbikua.
 Urbona.
 Urgia.
 Uria.
 Urium.
 Urzesa.
 Urzi.
 Uzia.

Españaiko Ibai anziña anziñakoen Izenak.

Ana
 Barbesola.
 Bazi.
 Beti o Betis.
 Dorium.
 Duraton.
 Ibero o Iberus.
 Minium.
 Orbea.
 Saduze.
 Sanga.

Szizen.
 Urbona.

Españaan ezagutu izan diran Izengaiñ aurrengoak

Auso, Lope, Marti. Izen oetatik datoz beren seme ta ondorengoak; zeintzuk diraden, Ansorena, Ansorenas, Loperena, Loperenas, Martiena, Martirena, Martikorena, Martienas, Martirenas, Martikorenas.

Auso da Euskara garbia, eta nai du esan, zabala, edo toki andia dala txit. *Lope* orobat da Euskarazkoa, eta adierazten du dala lodia, gizona, lotua edo sortatua. *Marti* gisa berperean da Euskararen bere berekia, eta argitaratzen du dala, Gudaria, Disidaria, Auparia edo obeto ahaikaria. *Marti ez* da naspillatu bear *Martin*'en izenarekin, zergaitik biak banaitak diraden.

Euskarak itzegiteko izanik aĩn ere egoki gozoa, Matxin deitzen dio *Martini*, *Mitxel Migeli*; eta oetatik ditugu *Matxinena*, *Matxiandiarena*, *Mitxelena*, *Mitxeltorena*, *Mitxelenas*. Baita ere, *Juanena*, *Juantorena*, *Juantxo*'ena eta beste guziago oei darraizkiotenak.

Orobat dira Euskararenak, *Lariz*, *Ortiz*, *Urtiz*, *Santx'ez*, *Nuñ'ez*, *Muni'oz*, *Alba'rez*, *Sa'ez*, *Garz'ez*. *Lark* esan nai du sasitua edo Sasien barnaria; eta *Lariz* da beragandik datorrena edo jatorri artakoa; bañan ez, askok uste deban bezala, *Larizen* semea. *Orti* da toki goitituen barnaria edo garailaria. *Urti*, Urtsua edo ibaien barnaria. *Santxo* gozaindetxoa. *Muño*, mendiska goititua. *Munio*, mendiska txata. *Albar* toki lauban asko dezakeana, edo beretan aberatsa. *Garzi* azkarra ta ariña bere egikeractan.

Euskarari iñork ezin kendu degiozkake, bada, Españaiko Erresuma andiaren jaiotzatik argiroki ezagutzen diraden izen bereki oek; eta oraindik are gitxiago oen senide egiazko anitz, Lurbira guztian zabaldurik dauden Izengaiñ ondra andikoak; zeintzuk diraden *Mendoza*, *Gebara*, *Naba*, *Zuñiga*, *Arana*, *Ibarra*, *Ribera* edo *Erribera*, *Zalazar*, *Ugarte* eta beste asko, beren aipamena kondairarik anziñakoenak egiten duten bezala. Eta baldin izengaiñ gozo oek oroitezgarrizko denporatik ezagutzen badira España guztian, norañoko anziñatasuna izango ote dute *Bera*, *Arandia*, *Aritio*, *Beruria*, *Uria*, *Iria*, *Edeta*, *Baseta*, *Luzeta*, *Urdeta*, *Zaldibar*, *Lazeta*, *Arze*, *Burdua*, *Orobio*, *Abaroa*, *Iriberrri*, *Oropesa*, *Laberri*, *Aruzi*, *Astigi*, *Astegi*, *Artijio*, eta beste geiago, zeintzubeekin eraztu ta egiñaka arkitu izan zituzten lendabiziko kondairatzalleak Lurbira zabal eta Uri gogoangarri asko, ainbeste etxetar presturekin ondo beteak?



Ez du, bada, inork ere zer uste izan, Izengaiñ oek diradela edozein gisatakoak, eta aizebelaskiro nola nai ifiniak; baizikan, guztiz miraritsuak, txit ondragarriak, eta begiramen andiarekin jarriak.

Gure asaba zintzo ernaiak izena ifini bear ziotenean tokiren bati, aurrenengo lana egiten zeben beraren egoitzari begiratzea oarrez ta artezaz, non ta nola zegoen eta zer ditzaki ta griña arkitzen zitzaiozkan. Baldin tokia bazan ordeka luze ta zabala, izena jarriko zioten *Naba* edo *Nabia*, ezperen, *Arandi* edo *Arandia*; baldin ordeka bazan medarra, deituko zioten *Ibarra*; baldin bazan tartea, esango zioten *Arrua*, baldin arkitzen bazan goikoen azpian, deituko zioten *Orobio*; baldin bazan burkaitz edo jaust beldurrekoa, esango zioten *Amilaga* edo *Amileta*; baldin bazan laprastkorra edo limurikorra, deituko zioten *Amilategi*; baldin arkitzen bazan zulo-ondoren baten gañean, esango zioten *Amilubia*; baldin tokia bazan gaña, deituko zioten *Oar*, *oiç*; baldin bazan gañean artean esango zioten *Oka*; baldin bazan mendiskaren bat bukatzen zana musturrean, deituko zioten *Mugia*, baldin bazan txata esango zioten *Munia*; baldin bazan pitina edo txikitsoa, deituko zioten *Muñua*.

Modu onetan dirade bada, begiramen ezin geiagorekin ifiniak, Euskaldunen Izengaiñ guztiak. Ain egoki eta zuzenbide onean jarriak arkitzen dira, ezik, izena entzun bezin laster dakigu, Urliaren jatorriak lendariziko asiera norgandik eta zein tokitan izan zeban.

*O Euskara gozatsu zintzo jakintia!
Ez agun da zu bizji zeraden tokia;
Izan ta izango da beti maitatia,
Gogoz edan debana zedorren titia.*

BIGARREN ZATIA

ZEÑETAN JARRIKO DITUDAN GIPUZKOAKO PROBINTZIAREN LUR, MENDI, BERAR, ARRI, MEATZE, ITURRI, IBAI, ZUAITZ, GARAU, ABERE, EGAZTI, ARRAIN, ETA BESTE ZENBAIT GAUZA GOGOANGARRI ZER TA NOLAKOAK DIRADEN



LENENGO KAPITULUA

Gipuzkoako Probintzia non arkitzen dan, zenbat leku betetzen deban, eta bere mugak nondik nora ta norekin dauzkan.

Gipuzkoako Probintzia guztiz Argidotar, eta txit Leiala arkitzen da European, Españako Erresuma andiaren zatirik aurrenengoa; zeñak betetzen deban, Erresuma luze onek ifarralderontz daukan bukaerako muga inguru. Bere goiendea dauka berrogei ta lau mallatarano, gauberdintzatik polo artikora. Sort-aldetik mugatzen da Franziaeren zerrenda bategaz, eta Nafarroarekin. Eguerdi-aldera, Arabako Probintzia, eta Bizkaiko Jabedarekin. Sart-aldera ta ifarraldera bukatzen ditu bere mugak Kantauriako itsasoa.

Probintzia onen luzetasunik andiena da, eguerdi-aldeetik ifarralde-
rontz, Gatzagako mendi gañetik, Ondarribiako Higerren buakerarano; eta dauka amabost legua Españakoak. Bere zabalatasuna du bederatzi legua, sort-aldeetik sart-aldera, Alleku menditik Motrikorano. Beste bederatzi legua luzatzen da itsastarra, Olearso, edo Jaizkibelko mendiaren munoko erpiñetik, Ondarroako mugaperaño, zeña dagoen Bizkaian. Gipuzkoako inguru guztia da ogei ta amairu legua gitxi gora beera.

Probintzia onetako aizetorkia guztiz da sasoi onekoa eta gozatsua. Egoi-aldeko bero andiak, ifarraldeko otz gogorakin adiskidetasunean ezituri zabalitzen dira emekiro biztanleen osasungarri. Mendi tarte oetan geienean da, egurastutzeko aize edendu ezetxoa. Zeru me eder garbi alaia, eta beraren izarkida aiñ da egikari onakikoa, non obeagorik ezin arkitu leikean. Ez udako berorik andienak makaltzen gaitu arras, eta ez neguko otzik gogorrenak kikildu geiegi. Ain toki goixoa, garbia ta osasuntsua da, ezik, ez da beintxu ere ezagutu izan emen, beste leku askotan sortu oi dan bezalako izurrite likits gaizto erioitsu aietakorik batere. Itz batean, gai guztietara da Probintzia labur au, izakiagandik doatsueraz ondo betea.

BIGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako Orube gogoangarria zer gisatakoa dan; beraren mugapean nolako nekazaritza egiten dan, eta zer labore mueta artzen diraden.

Gipuzkoako mugape guztia da arkaitzez josia, eta aldapatsua; bañan geiegiko latztasun bage izakiak ondo doaindurik egoki ta erara ezarria, muno goituiari dariozkaten koipe guri txit gozatsua, erriberaetara emekiro ixurtzen diraden moduan. Begiratu batean idurin badute ere aldats oek, amiltzeko zorian daudela zinzilika erori naiean, aiñ irme ta sendo arkitzen dira alkarri laztandu ta itsatsiak, non, ez diran aspertzen beintxu ere, batak bestea naitasun andiarekin leialkiro maitatzeaz. Erribera, ibar, ta ordeka zelaiak; aldapa, egi, muno, ta malkorak; gizen, argal, lodi ta meak; zail ta samur, biguñ ta gogorak, ezadetsu ta elkor, azal ta mami, barru ta bazter, guzti guztiak dira Probintzia onetako lurak, bakotzak bere gaiean, gizonari serbitzo andiak egiten diozkatena, eta ondo begirtea merezi dutenak.

Egiazki, non billatzen da Lurbira bat osoa, Gipuzkoako Probintzia bezalako txukuntasunean landu ta ongarritua? Lanbide onen gañean izkribatu izan duten gizon arrotz jakinti guztiak autortzen dute, bada, Gipuzkoako nekazaritza arkitzen dala goienengo mallara igoa. Eta alaxen da izatez ere. Beraren mugape guztian ez da arkituko oña bete leku, alper dagoanik. Edozein aldetara begiratu eta ikusten da ederki apaindua. Beragaitik esan izan dute askotan Probintzia onetan igaro izan diran gizon kanpotar andizki anitzek, ezen, galaren gala janzitako baratza zoragarri bat dirudiela Gipuzkoako mugape guztiak.

Esan-al guztiak esan ta ere ez luke, bada, inork bear ainbat andizkatuko Gipuzkoako nekazaritzaren garbitasuna eta txukundadea. Nork bere menpeko alor guztiak dauka arreta andiarekin egoki ta zearo esituak, dala esolaz, arantzaz, arriz, edo lubakiz, tokiari nolako gaiak eraritzen zaiozkan alanberean. Ordeka zelaietan errolla andiak iriki ta urai igesbidea emanaz, eta goi amilkorretan euskarri orma leortxoak unetik unera egiñaz, guztiz ikuskarriro prestatua arkitzen da Lurbira osoa.

Gipuzkoako Probintzia laburraren zatirik geientsua arkaitzez josia bada ere, laboreta andiak egiten dira beraren mugapean, nekazari bako-
txak bere soro ta alorak ondo landurik, guriro ongarrituak dauzkalako.



Garia, Artoa, Zikiroa, Oloa, Baba, Baberruna, Illarra, Patata, Artatxikia, Txirta, Arbia, Allorbea, Pagatxa, Zalka, Liñoa, eta beste gauza asko egin ta biltzen dira Gipuzkoako lurreen, Españaoko Erresuma andiaren ordeka zelairik mardulenetan bezin bikañak eta ugari, edo are obea-goak eta geiago kanpoz kanpo, edo neurritz neurri.

Don Gaspar Meltxor de Jovellanos jakintiak nekazaritzaren gañean agertaratu izan zeban libru gogoangarrian, gauza anditzat esaten du, ezik, Gaztelan badirala lurrak, anega bat gari erein eta ogei anega ematen dituztenak, zeñari nik erantzuten diodan, ezen, Gipuzkoako mugapean badirala alor asko ta asko, anega batekin ogei ta amar artzen dituztenak. Egia garbiro onen ezagungarritzat nai det izendatu toki bat, bikañenetakoaren billa ibilli bagetanik alere. Bazter Erri txiki Zaldibikoan arkitzen dan baserri-etxe, Mugerza deitzen zaionaren lurretan biltzen dute, esan dedan bezala, batekin ogei ta amar, urtabe ona dan guztietan. Badakit Donostiako mugapean Etxazar izendatzen dan baserri-etxearen lurretan, bertako nagusi Don Jose Ramon de Elosegik, milla, zortzi eun, ogei ta amairugarren urtean lakari bat gari txuloka artoa bezala erein, eta bildu izan zituela irurogei ta lau lakari gari.

Gipuzkoako mugapean egiten dan gari guztia da txit bikaña, garbia, pisu andikoa, ore onekoa, eta jate gozarotsukoa. Sarritan ikusten dira emen, larogei ta amabost libra pisatzen duten anega gariak, eta iñoiz bai eun librakoak ere. Gaztelatik datorren anega gariak ozta ozta pisatzen du larogei ta bi edo iru libra. Zertan dago au? Ez bestegan, ezpada, Gaztela eta beste toki askotan ereiten dutenetik batutzerano dagiana dagiela, bere modu lagatzen diotelako, eta berriz Gipuzkoan, erne orduko jorran asirik aretuaz berar zakar itsaskin kaltarkitsu guztiak arras galdu, eta ale garbi garbi txaua etxeratzen dutelako.

Probinzia onetako nekazariak gariaganako baino ere, begiramen andiago dute artoarekiko langinzara, zergaitik au duten beren bazkarik aurrenengoa, eta premiazoena; izatez bera dalako aiñ gose-iltzalle ona, indartsua, iraupen andikoa, eta osasungarria txit. Bizikai maitagarri au España barruko jendeak ostikoperatzen badu ere, esanaz, guztiz lela eta txit pisua dala, indarririk ez debala, abereen janaria dala, eta beste onelako anitz astakeria; Gipuzkoan artoa ugari jaten dutenetatik agertzen dira, Gaztelako errietan bezain aztal eder galant ariñak, arpegi zuri gorri piñak, eta larmintz leun me guriak dituzten mutil ta neskatxa mardul lirain alaiak.

Probinzia onetarako bear dana da txit janari oneretsu naigarri au, batez ere artzain, ikazgin, eta beste langille mendietan ari bear dutenentzat. Askotan ikusten dira, bada, oek, neurri ta balio bardiñean ez ezik,

geiagotan ere naiago dutela artoa, garia baino; zergatik ondo dakiten oituraz, talo bero guria obea dala, bera bakarrik jateko, ogei erre zar elkortua baino. Beragaitik dute Gipuzkoako nekazariak guztiz arreta andia, artoarekiko langintzari gogoz jarraitzeko. Egiazki, zer izango da beste bizikai bat artoa bezin laster kanpoak ematen dabenik, ain ugaririk, gose-iltzalle oberik, indar geiagokorik, eta bera bakarrik jateko, guriago, gozoago eta obeagorik? Ereiten danetik bostgarren illabeterako arkitzen da eldurik. Ematen ditu oparo orria, gara eta zorroa aberentzako janari, makilla ongarritarako, koskola su egiteko, eta ale gozo indartsua ugari jendea naierara bazkatzeko.

Ez da erraz izango billatzen beste landare bat, gai guztietara artoari alderatzekorik. Azal ta barru, lasto ta mami, oso ta bizi, apurrik txikarrenañoiko guztia du oneretsua, eta gañera guztiz aberatsa. Nere jaiot-erriko soro batean billatu izan det, beste askoren artean, arto landare bat lau buru ondo beteakin, et oetan kontatu izan ditut bi milla irureun ta zortzi ale, guztiak ondo elduak, eta obetandezkoak. Orra zenbaterañoiko ondarena ematen deban, Gipuzkoatarrak beren gogokoa duten landare maitagarri onek!

Garagar gitxi egiten da Gipuzkoan. Ez emengo lurrak emango ez lukealako, baizikan gari artoakin obeto baliatzen diralako.

Zikiroa, Baba, eta Baberruma biltzen da ondotoxo, bañan ez gari artoak bezin ugari, zergaitik oekin kontu obea duten aekin baino.

Oloa egiten da zertxo bait, bañan ez okuntzaetan, ez bada labakietako galondoetan; batetik okuntza-lurrak begiko ninia bezin maite dauzkatelako arto gariantzat, eta bestetik doarikako mendi lurretan labakiak, lenengo urtean garia artu, eta ondorengo bietan olo zartaratxo onak biltzen dituztelako.

Batataren geiena ere artzen dute oloaren gisa berperein.

Beingoan guztia esatekotz, Gipuzkoako lurrak berenez ezadetsuak eta aro onekoak izateaz gañera, arkitzen dira txukunki landuak, guriro ongarrituak, eta ondo prestatuak, zer nai gauza mueta aiñ oparo eta ugari emateko, nola beste edozein lekutakoak.

Gizon jakinti ustekoai entzun izan diotet bein baino geigotan, ezik, Probinzia onetako mugapean ezin batu leikeala txitxirioa. Jakin bezate, bada oek, eta osterontzeko guztiak, ezen, Don Franzisko Ignazio de Urretabizkaia Zaldibiako Bikario jaunak bere etxeko baratzen txilla erdi bat txitxirio erein, eta artu izan dituela zazpi lakari; zeñean batekin berrogei ta amasei biltzera datorren. Txitxirio onetatik neurk jan izan det, Gaztelatik ekarten dan oberenari ezertxu ere zor ez diona, ez anditasu-



nean, ez biguñtasunean, ez guritasunean eta ez gozarotasunean. Izendatu dedan Bikario jaunak urte guztietan artzen du bere lurrean, etxerako bear deban ainbat txixirio, eta esaten ere du, ezik, zenbat eta leorte andiagoa izaten dan, orduan are geiago eta obeagoa biltzen debala.

Gipuzkoako mugapean biltzen diran laboreen gañean izkribatu izan duten gizon guztiak ezarri izan dituzte uts-aldi andiak; eta oek agirian garbiro ifinteko, billatzen det ispillu bat ezin argigokoa.

Badarauskite bada kanpotar guztiak, ezen, ez dala batutzen Probinzia onetako lurretan bertarako bear dan laborearen erdia ere, eta ezin bildu ere leikeala toki ain labur eta arritsuan. Bañan ez da ori egia.

Begiratu bedi bada ondo milla, zortzi eun, ogei ta amairugarrenetik emeretzirañoko sei urteetan, Gipuzkoako mugapean zenbat gari, arto, ta aragi ezkutatu izan dan bertako jaiotarras landara, kanpoko soldadu talde anitz, eta abere samalda andiak bazkatzen. Eta suertez ere; esan ote dezake inork Probinzia onetara ekarri izan zala urte aetan kanpotik labore eta aragirik? Ez, ez dezake esan orrelakorik egia maite dabenak; bañan edozeñek segurutu dezake, sei urte aetan eraman izan zituztela Gipuzkoatik Nafarroara gari, idi, eta bei samalda andiak martiztiak bazkatzeko.

Izanik badu au, geren begiaz argiroki ikusitako

*Egia zierto garbia,
Ez da gauza mingarria?
Billatzea paperean jarria,
Balitz bezala fedeko egia!
Gipuzkoan biltzen dan arto ta garia,
Ez dala bertan bear danaren erdia
Eta nork daki zenbat onelako astakeria?
Jakín beza mundu osoak,
Gipuzkoako lur gozoak
Ematen dutela maitaro,
Bertan bear dana ta geiago.*

IRUGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako mendi gogoangarren azaldurea.

Gipuzkoako mendi gogor latz goitituak, beren izen egoki Euskarazkoetatik dira txit ezagunak gizon jakintsuen artean, anziña anziña eta are lendabiziko Ziazaldari zintzoak, ondorengo argibiderako, izkribuz ezarriak utzi izan zituztelako.

Zorioneko mendi maitagarri oezaz izakiak ondo doaindua arkitzen da Gipuzkoako Probinzia. Mendi gogoangarri oetan izan zeban Gipuzkoak bere lendabiziko asiera ona; mendi oparo oei zor die gerozko bere izaera gozatsua; eta mendi illezkor oetan dauka bere uste oso bete, gordeko dutela oraindano bezala aurrera ere, jaiotzako garbitasun parebagekoan, etsaien atzapar garratzetara erorten laga bage.

Gipuzkoako mendi goitituen babesaren zenbaterañokoa dan ez da bear bezala ezagutzen begiratu batean. Beragaitik irten izan dira gaizki, Probinzia labur au beingoan ta aixa menperatzeko ustean etorri izan diran etsai samalda andi izugarriak.

Itsasoz ta leorrez, Gipuzkoako mugape guztia osotoro arkitzen da mendi goititu zorrotzakin ondo esitua; ain egoki eta alako eran, ezik, datorrena datorrela nondik nai Probinzia au asaldatzera, mendi gogorrean izango du, nai ta nai ez, lenengo aztapoa; baita igaro bearko ere, jasa andiarekiko ekaitz portitza.

Espanako Erresuma andiaren zaintzalle, eta gordeleku beti izan, ta izango ere diran Gipuzkoako mendi gogoangarri oek, ain dira itzal andikoak, bizar latz gogorrez janziak, eta buruak zuti goraturik dauzkatena, non idurin duten, kiñatzen dutela zerua bera.

Ikust dezagun bada argi eta garbi, zein mendirekin, non ta nola esitua arkitzen dan Gipuzkoako mugape guztia osotoro. Ondarribiako Igerren muturretik asi, eta Ondarroarañoko mugapean, Gipuzkoak itsasorontz zaintzalle ta murrutzat dauzkan mendi ta aitzak dira, Olearso edo Jaizkibel, Ula, Arando andia, Arando txikia, Arenga., Mirail, Ulia, Urgull, Arrobi, Igeldo-mendi, Txubillo, Ulamendi, Mendi-zorrotz, Txalin, Munioeta, Zubai, Talaiamendi, Garate, Malkorbe, Indo, Anduz, Tiziar, Elorriaga, Aranza, Arbe, Laranga, Arrikante, Zaturran, Miixemendi, Menditriku, Herminian, Burumendi, Iriburu, Leoiriz, Aranzamendi, Isasimendi, Olaz, Gorostolamendi, Eskilantxarri, Arribinieta.



Franzesen sarrera zaintzen dute zintzoro San Marzialko mendiak, Aldabeko aitzak, eta Higerren musturrak.

Nafar-alderontz dauzka Gipuzkoak kontu artzalle ernai eta murru irmeak, Aiamendiko aitzia, Urdan, Bidandi, Anbidegi, Lazarain, Lagarte, Zaria, Ortinzun, Magdalena, Irurdita, Anaikoz, Albizungo, Anzieta, Zuarzaieta, Bagoz, Usoko, Larburu, Loizta, Freza, Altxurru, Arbuza, Añoa, Mugon, Estuiza, Gartola, Amarola, Antxiota, Legarralde, Grino-suburu, Mendabio, Gorastarbe, Oberan, Usabaratzta, Bimendi, Bidaburu, Adarra, Beleadí, Gardel, Artobi, Iporino, Ulimendi, Sarazain, Asketa, Enzingo, Lizarregi, Lizarrandi, Sagarminaga, Igorin, Akola, Erratze, Mugatz, Antxista, Esteiza, Osabia, Laparra, Urri, Iztupain, Galar, Lanuze, Langeta, Aralar, Ausoko gaztelua, Larrunarri, Ganboa, Oidogi, Arratebeltza, Pagabe, Onzanburu, Beraskin, Oniturrita-azpikoa, Oniturrita-garaikoa, Arrizaga, Igaraza, Errenagako-gaña, Puiterrí, Alleku, Akaitz-andia, Akaitz-txikia, Laredo, Nafar-iturri, Martxaneta, Urzulota, Arrastaran, Insinsaro, Urruzti, Orabel, Koarre, Gorostinzu, Irisoro, Ataburu, Mendibil, Arransaro, Sastarri, Inzarzu, Berrenoa, Aganz, Leizari, Malkorburu, Askoa, Irumugaeta, Insusburu, Izozkoa, eta Alzania.

Arabako Probinziaren mugaetan dauzka Gipuzkoak kontu-artzalle ernaiak, San Adriango mendia, edo Aitzulatua, Olaza, Aitzgorri, Iturbegieta, Urbia, Aranzazumendi, Zaraia, Aloña, Artia, Anzuabar, eta Iruerregeta.

Bizkaiko Jabedearen alderontz dauzka gordetzalle Gipuzkoak, Arno, Bakue, Arrasate, Arranbizkar, Muru, Bedoñalarra, Iturritxipi, Udalatxa, Inzorta, Eguaspe, Larrabillburu, Azkonobietta, Larraluze, Elejamendi, Galdamuño, eta Murkaizu.

Izendatu ditudan mendi, sarobe, eta aitz oek dira Gipuzkoako Probinziaren gordegarri, beraren muga-inguru guztian izakiak jakintsuro apropos ifiniak. Eta oraindik, Maisu guztien gañeko Irakasle andi onek begiramen geiago ere izan zeban Gipuzkoarentzako. Ara nola eta zeren bidez.

Baldin inoiz edo berriz gertatzen bazan suertez ere Gipuzkoako mugaren batean etsaiak atakaren bat edo beste irikitzea, jarri izan zituen Probinzia barruan ere, unetik unera, murru sendo eta gaztelu irmetzat, lenago aipatu ditudan mendiaz landara, berritri ezartera noan oek; zeintzuk diraden Irun-aranzundik asi, ta Gatzagarañoko Errietan arkitzen diran ezagutuenak.

Arbitarte, Urteta, Oberan, Suerrin, Gorostegi, Bizarain, Aitzbitarte, Urdaburu, Artxipi, Santiago-mendi, Galaur, Ula, Santa Barbara-mendi,

Andalza, Azkorbe, Buruntza, Loazu, Amasamendi, Garaño, Arremillosoro, Eskui-iturri, Eskarga, Mugarrizpe, Usturra, Izazkun, Osoribar, Mugaga, Madariaga, Urili, Azkuendaran, Aldaba Zelaitxo, Zangainburu, Laarte, Astotagaña, Otaza, Erdoza, Urkidi, Txinkintxurru, Leizeaga, Larraiz, Erekonta, Pikueta, Albitzeta, Gaintzola, Urdanarrobi, Arkaka, Urrizti-ederra, Aitzarte, Insusti, Andurio, Urbarandia, Azkondagieta, Atxurburu, Amilleta, Murumendi, Arzate, Iurre, Barbaria, Hoa, Elustizain, Otañu, Aizpuru, Apasdoza, Oarrea, Aizpea, Meatzamendi, Kizkitza, Beloki, Argisano, Irimo, Ipinarrieta, Deskarga edo Eskarka, Itxumendi, Gorostiaga, Usarraga, Elosu, Apozaga, Zarimus, Murugain, Eguzkitza, Arizmendi, Aldaia, Atxoroz edo Aitzorrotz, Arratemendi, Garatorbe, Epelde, Gerizaeta, Muskurrutxu, Aitola, Eguarte, Arnikolatza, Izarriz, Izazpe, Pagotxoeta, Arauntza, Oñatzmendi, Aiagelu, Andutxa, Ertxina, Endoia, Mauria, Iromendi, Iturriotz, Loteburu, Aitzgorria, Urkizu, Azkuendaran, Hernio, Pagoeta, Irumendi, Zarate, Andatza, Azarain, Oriamendi, Ametzaga-gaña.

Izendatu ditudan toki anitz oetatik txit gitxi izango dira len edo gero, eta oraindik gure egunetan ere, Gipuzkoatarrak beren etsaien kontra jazarra gogor portitza egin bagekoak; eta ez bakarra ere, garaipendurik lenagoko bere oñ ta garbitasunean gelditu izan ezdanik.

Gipuzkoako mendi ta aitzak guztiz dira miraritsusak, eta maitagarriak txit. Udalako aitzaren erpiñetik ikusten dira argi Kantauroko Erri anitz, beraren itsasoa, eta an dabilzan ontziak; Idubeako mendien zati asko; Franziaiko Erribera, eta Itsasaldeak beste gauza geiagorekin.

Izarraizko aitzaren gañetik agiri dira Araba, Asturias, ta Errioja; bai ta Franziaiko lur asko eta itsasoak ere.

Zaraiako mendiaren txuntxurretik ikusten da itsasoa garbi sei leguako bidastian; baita Santo Domingoko aldamenen dagoen arkaitzerra San Lorenzokoa ere.

Aralarko aitz goititu Larrunarri deitzen zaionaren musturretik ikusten da argi eta garbi Gipuzkoako mugapearen geiena; Nafarroako mendi ta Erriak; Arabako, eta Bizkaiko toki asko; bai ta zenbat, eta nolako ontziak Donostiako kaian arkitzen diran ere, zortzi legua bide dagoelarik batetik bestera. Aitz goititu onen erpiñera beste egiteko bage igorrik, egon izandu naiz neur bein baño geiagotan, kanpo zabal ikusgarriak begira ezin aspertuz.

Gipuzkoako mendi zoragarri oek, beren Probinziaren gordegarri sendo, eta Españaren zaintzalle zintzoak izateaz gañera, dira doatsueraz beteak, eta maitagarriak txit; zeintzuk ematen dituzten ondasun andiak



ugari ta oparo, beñere aspertu bage. Zuaitz eder galant askorekin beste gauza balioso anitzez landara, nolako larre gozo indartsuak ematen ez dituzte abere samalda andiak bazkatzeko? Eta, nork daki zenbat berar sendagarri ta osasungille egongo diran mendi oetan, billatzera saiatu bagez, inork oraindik ezdakitzanak?

Aloñako mendian arkitzen dirade, bada, Plinio jakintiak billatuak, berak ontzat emanak, eta izendatuak berreun ta geiago berar mueta sendarri ta sendagille oetakoak; zeintzuk izan oi duten txit jaso andia Españaiko osasungilletegi askotara.

Baldin Aloñako mendi bakarrean topatu bazituen Pliniok ainbeste berar mueta sendarri ain eragilleak nork daki zenbat geiago eta zer balio-takoak billatu izango ote zituen, ibilli izan balitz Aralarren, Urbian, Alzarian, Udaltxan, Arranbizkarren, Izarraitzen, Hernion, Aiamendi, eta beste onelako asko Gipuzkoako mugapean arkitzen direanetan?

Orain ere, bada, Plinio bezalako gizon jakintsu bat jarriko balitz gogoz mendi oek azterzera, billatuko lituzke beretan gauza balio andiko asko oraindik inork arkitu ez dituenak. Lanbide oneretsu oni ekin bear litzaiozkake jaioterriko Zaldun gazte jakinti aberats ondo bizi diran aeta-koak beren maizter prestu, eta erritar ondraduai bizimodurako on dituzten gauza balioso asko argitaratzeko. Bañan oetako zenbaitek naiago izaten dute Franzia, Inghaterrara, Rusiara, Turkiara, Asiara, Txinara, eta nork daki nongo Akelarretaraño? joanik, beren ondasunak ondatuaz, osasuna galtzeko bide amilkorretan gazte denpora guztia igaro, ezen, ez jaioterriko mendi gozo aberats garbietan, naierara, egurastuaz, eguntxo bat bakarrean ere ibilli, izakiak munduaren asieratik ifiniak dauzkan gauza obetandezkoen billa.

Ez det esaten nik, ez eta esan nai ere, Erbesteetako zenbait gauza-
ren barri jakitea ez dala on; bañan bai, bere jaiot-errikoak nondik nora-
koak, eta zer gisatakoak diraden ondo ezagutzea, preminazkoa dala txit
gai askotarako. Edozeñek daki, bada, bearragoa dala askoz ere, nork bere
aziendaren mugak, nondik nora dauzkan, eta gozatzen dituen etxe, baso,
ta mendiak non ta nola arkitzen diran jakitea, Paris, Londres eta beste
Erriburu askotako Karrika zirkullurik txikarretetako barri ikastea baino.

Gipuzkoatar prestu zintzo ta argiak,
Gogoz maitatu ondo Erriko mendiak;
Beti izango dira guztiz naigarriak,
Beretan daudelako ondasun andiak.

LAUGARREN KAPITULUA

*Zeñetan jarriko dedan, Gipuzkoan beren izen Euskarazkoekin
ezagutzen diraden berarren argibidea.*

Ikusten degun gauza da argiroki, nola Probinzia onetako mugapean jaiorik, bertan azi eta batutzen dituzten berarren izenik ere, Euskaraz esan nai ezdutela gizonik jakintsuenak, edo beinzat ezdakitela. Bein baino geiagotan egon izandu naiz sendagin eta osagille Euskaldunetara begira, nola eri dagoenaren aurrean ari oi diran beren erdara mordolloan sisi-basa ezin adierazorik, zer berar muetarekin ura egosi, edo zauria lotu bear zaion. Eta gaitz erdi litzake berak ez jakitea, edo ezin asmatuz egotea, baldin ausardi andian esango ez balute, ez debala izenik Euskaraz berar oentzako. Jakin bezate, bada, gure anaia prestu oek, eta osterontzeko guztiak ere, ezen, badituela Euskara zintzo ernaiak; berarrentzako izen egoki bere berekiak; zeintzuketako banaka batzuk ifiniko ditudan abezekiro, bako-txari dagokion erdarazkoa alboan eskuiko aldetik debala. Izen oetan badi-
ra zenbait, Erdarazkoak diralako ustean dabilzkanak, Euskararen odol garbitik jaiok, eta oei jarriko diotet *E* bat, zeñak esan naiko deban, Euskararena dala.

Aiena, *Rodrigon*.

Aienmetua, *Codadura de vid*.

Aindurria, *Almaro*.

Aingeruberarra, *Angelica*.

Akara, *Nardo*.

Albaka, *Albabaca*. E

Alegeria berarra, *Ajonjolio*.

Alegustrea, *Aleguste*. E

Alkaparra, *Alcaparra*. E

Alkarabea. *Alcarabea*. E. Izen oni dagokion esakera bat badegu Euskaldunak, zeña dan Jaungoikoari nai dakiola oregano izatea, eta ez, Alkarabea.

Allorbea, *Albolba*. E

Alpiste, *Triguera*.

Amamo berarra, *Amomo*. E

Ameloa, *Amelo*. E

Angurria, *Balaria*. Bada, *Melon insipido*.



Anisa, *Anis*. E
 Arbia, *Nabo*. Astarloak esaten du ezik, Euskarazko itza dala *Naboa*.
 Arbitxikia, *Ruiponce*.
 Argi-berarra, *Lucernula*.
 Arioa, *Saradona, Laurcola*.
 Arminka, *Bermellon*.
 Arraiana, *Arrayana*. E
 Arrautsi-berarra, *Salsafra, Salsifras*.
 Arrinloa, *Coca*.
 Arteria, *Enea*.
 Asensioa, *Axenjo*. E
 Askia, *Gramma*.
 Astabostusa, *Albargama, Ruda silvestre*.
 Astaillarra, *Abaca, Aphaca*.
 Astakañabera, *Cañabeja*.
 Astalbaka, *Albahaca silvestre*. E
 Astamatsa, *Nuera, vid silvestre*.
 Astamenda, *Mastrazon, hierba buena silvestre*.
 Astatipula, Basakipula, *Cebolla silvestre*.
 Astatixitxiroa, *Astragalo, garbanzo silvestre*.
 Astaza, *Lampsana*.
 Astazafraia, Basazafraia, *Azafran silvestre*. E
 Astoregana, *Tragorigano, Oregano*.
 Astorkia, *Onobryche*.
 Asturaza, *Cerraja, o lechuga silvestre*.
 Atauskia, *Sideritis, sideritide*.
 Atxarioa, *Camedros*.
 Atzberarra, *Escabiosa*.
 Autsaria, *Calafraga*.
 Aza, *Col, berza*.
 Azafraia, Azafran. E
 Azakoba, *Repollo*.
 Azaloretsua, *Coliflor*.
 Azamiña, *Zabila, Zabida*.
 Azarimatsa, Uba de raposo.
 Azitraia, *Axedrea*.
 Azuntza, *Epidemio*.
 Azuzena, Auzuzena, *Azucena*. E

Baberruma, Maillara, *Allubia, Judia*.
 Bakaismiña, *Escordio*.
 Bakara, *Bachara*. E
 Balsamiña, *Balsamina*. E
 Balsamua, *Balsamo*. E
 Barakatza, Baratzuria, *Ajo*.
 Baratzuri berarra, Barakaitz berarra, *Aliaria*.
 Basafracia, *Alazor*.
 Basara, *Nardo silvestre*.
 Bitxaleka, *Xaramago*.
 Bitxileta, *Bonina*.
 Bitxilora, *Manzanilla, camamilla*.
 Bilorria, *Bellosilla*.
 Biola, Bioltxo, *Violeta*. E
 Biriberarra, *Pulmonaria*.
 Basarraiana, *Brusco*.
 Basastoa, *Onagro, asno silvestre*.
 Batanitza, *Estaki*.
 Berdalatza, *Allico correbuela*.
 Berdana, *Verbena*. E
 Berenjena, *Berengena*. E
 Berigarria, *Seseli*.
 Bermidorra, *Tapsia*.
 Berroa, zarra, *Berro*. E
 Betarokia, *Mielga*.
 Betibizia, *Siempreviva*.
 Basakardebera, *Ajongera, Aljongera silvestre*.
 Basamatsa, *Vid salvage*.
 Basaoloa, *Bromo*.
 Basaperegilezka, *Orcoselino, Ajoiomontano*.
 Basarbia, *Bumo*.
 Bizuaga, *Bizuaga*. E
 Bolligoia, *Espargama*.
 Bortusaia, *Ruda*.
 Bostonaza, Mustarda, Zeapea, zerba, *Mostaza*. E
 Batata, *Batata*. E
 Bostorra, *Cinco en rama*.
 Bedaspilla, *Berdura gallofa*.
 Beerriñak, Berezerinak, Otariak, Larrarteak, *Breñas*. E



Beibegiberarra, *Bustalmo*.
 Beiraberarra, *Sosa*.
 Berarbedeikatua, *Valeriana*.
 Berarlatza, *Allico correbuela*.
 Berarmiña, *Artemisia*. E
 Beltxoria, *Anchusa*.
 Berarakia, *Oruga*.
 Buminka, *Mastuerzo*.
 Burdilinda, *Filipendula*.
 Buruiskea, txillarra, *Cabezuela*.
 Karbia, *Carvi*. E
 Kardabera, *Cardo*. E
 Kardaberatxa, *Cardencha*. E
 Kardaberaiska, *Cardillo*.
 Kapelaberarra, *Sombrerera*.
 Katuberarra, *Gatera*.
 Zekalka, zikirioa, zekela, zekelea, *Ceteno*.
 Zedoaria, *Zedoaria*. E
 Zerba, *Acelga*. E
 Zerpola, *Serpol*. E
 Zeta, *Lino muy delgado*.
 Txabarkoia, *Panplilla*.
 Txaboiberarra, *Jabonera*.
 Txarrangilla, *Barrila*. E
 Txarrangilla garaiska, *Culantrillo*.
 Txauruztia, Txauruztea, *Abxanxengi*.
 Elturberarra, *Panychia*.
 Txebilotserrea, *Camelca*.
 Txixtareberarra, *Abrotano, Lombriguera*.
 Txipraia, *Clavel*.
 Txillarkia, *Alcarceña*. E
 Txillarra, *Yervo*.
 Txiribia, *Chirivia*. E
 Txirritxura, Falanjio, *Falangitu*.
 Txortaloa, *Polco*.
 Txutesikia, *Salgada*.
 Txuzendia, *Mirabel*.
 Ziaberarra, *Galio*.
 Zialora, *Acanthio*.

Zigiboilla, *Mahabisco*.
 Zigiña, *Malva*.
 Ziorlatxa, *Romaza*.
 Ziorria, *Mausa, escandice*.
 Zitorrigorria, *Martagon*.
 Ziza, zuza, susa, *Seta, Setas*.
 Kukusberarra, Ardiberarra, *Zaragatona*.
 Kukutseria, *Calacanto*.
 Kuiandiarriña, *Chilacayote, especie de Calabaza*.
 Kuia, Korkobita, *Curcubita, Calabaza*.
 Edaskia, *Ranunculo*.
 Egililia, Egilitxa, *Calamenta*.
 Elturberarra, *Panychia*.
 Emasalberarra, *Matricaria*.
 Enadaberarra, *Celidonia*.
 Eraberarra, *Beleño*.
 Erbezgorra, *Ehtiopide*.
 Erbioña, *Pie de liebre*.
 Ereñoskia, *Camedaphuc*.
 Ereñotza, *Mostajo*.
 Eriotzorria, *Adelfa*.
 Eritsitona, *Telesio*.
 Erluzea, *Crocodilio*.
 Erraboilla, *Cebolla en las plantas*.
 Errarñoa, *Onagra*. E
 Errozerba, *Betarraga*. E
 Errolatxa, *Remolacha*. E
 Erromeroa, *Romero*. E
 Errosta, *Genciana*.
 Erruibarbo, *Ruibardo*. E
 Ersukaia, *Farfara*.
 Esparragoa, *Esparrago*. E
 Espikamiña, *Cantuesso*.
 Espilikua, Belatxeta, *Espliego*.
 Eskiluntza, *Campanilla*.
 Estelaria, *Alchimilla*.
 Ezamillua, *Eneldo*.
 Ezkaia, *Tomillo*.
 Ezmurτια, *Paralio*.



Eznabedurria, *Peplo*.
 Garaiska berarra, *Cidronella*.
 Garia, *Trigo*.
 Garoa, Iñastorra, *Helecho*.
 Garoiska, *Polipodio*.
 Gireguzkia, *Girasol*.
 Goraza, *Llanta, especie de berza*.
 Gotxerreoa, *Regaliz*.
 Goroldioa, oroldioa, *Mobo, Muesgo*.
 Girlanda, *Amaranta*.
 Guztorria, *Biengranada*.
 Hirrori, Minkatxa, *Aleluya*.
 Hirusta, *Trebol*.
 Itxabalkia, *Melilota*.
 Itxarra, *Rubia*.
 Idibegia, *Albihan ojo de Buey*.
 Idimia, Oreinmia, Bildotsmia, Txakurmia, *Lengua de Buey, de Cierbo, de Cordero, de Perro*.
 Eznaberarra, *Lecetrezna*.
 Gaituna, *Pimpinela*.
 Galanga, *Galanga*. E
 Galapa, *Xalapa*. E
 Galarta, *Triguero*.
 Galtxuria, *Escanda, Escandia, Escaña*. E
 Galkidea, *Colleja*.
 Garadaiska, *Armuelle*.
 Garagarra, *Cebada*.
 Garagar berarra, *Herren, Alcaner*. E
 Igaberatxa, *Anagalide*.
 Igeberarra, *Nemifar*.
 Ilara, *Tito, legumbre*.
 Illarlatza, *Almorta*.
 Illarra, *Alverja, Arveza, Alverjana*.
 Illasuna, *Lelosina, Galiopsis*.
 Ipurukia, *Nebrina fruto*.
 Iraberarra, *Aconito venenoso*.
 Irriberarra, *Sardonía*.
 Isatsa, *Retama*.
 Itsasubanarea, *Alga*.

Iyamea, *Bejuco*.
 Iyurdintsua, *Paja de meca*.
 Izarberar ezea, *Estrellamar*.
 Izarberarra, *Hierba estrella*.
 Latxaskia, Orrotxeta, *Eupatorio, Agrimonia*.
 Latxortena, *Aliso mata pequeña*.
 Lapa, *Cadillo*.
 Lapatxikia, *Amor del hortelano*.
 Lapaza, Lapaberarra, *Lampaço*.
 Laraiña, *Albeli*.
 Laranja, *Toronjili*.
 Larrarrosa, *Mosqueta rosa*.
 Larrosa, Arrosa, *Rosa*. E
 Lasturrina, *Calamo aromático*.
 Lekazia, *Legumbre*.
 Lekuziberarra, *Marrubio*.
 Likurusna, *Hyperico*.
 Lilipa, *Narcisoflor*.
 Linoa, *Lino*. E
 Liñorkia, *Linaria*. E
 Lindingorria, *Tomate*.
 Lirioa, *Lirio*. E
 Liringoria, *Acoro*.
 Loberarra, *Ababol, Amapola*.
 Loerazlea, *Dormidera*.
 Lolloa, zoragarria, *Ballico*.
 Lorastunkia, *Floripondio*.
 Loratartxa, *Escomonea*.
 Luisalea, *Escaramujo y su fruto rojo*.
 Lubeazuna, *Centaurea*.
 Lutxarbia, *Rabano*.
 Lupuberarra, *Cescorpion*.
 Luzokermiña, *Cobombrillo, amargo silvestre*.
 Luzokerra, *Cobombro*.
 Matxalatxa, *chirle, Uba de vid silvestre, sin ninguna sustancia*.
 Mardarrosa, *Camelunca*.
 Martorria, *Culantro*.
 Mastxuria, *Torrortes*.
 Masusta, *Zarçamora*.



- Matsaiena, *Vid*.
 Matsikia, *Trago mata pequeña*.
 Matslarra, *Uba espina o crespá*.
 Mausea, Osilapikoa, Audura, *Yezgo mayor*.
 Meagarza, *Magarza*. E
 Meliria, *Epehemero*.
 Meloia, Melaka, Meloio, *Melon*. E
 Mendasamurra, *Sandalo, especie de hierba buena*.
 Menda, Basana, *Hierbabuena*.
 Mendaskia, *Sisimbrio*.
 Mendarora, *Ahonoraduz*.
 Milatra, *Hinojo*.
 Mineta, *Acedera*.
 Minterra, *Sabina*.
 Murriona, *Borraja*.
 Murruntza, *Cimbalaria*.
 Naslokia, *Anemona*.
 Negakiña, *Palomilla*.
 Neüda, *Nibeda*. E
 Odarra, *Correguela*.
 Ollaberarra, *Cenizo*.
 Olleznea, *Leche de gallina*.
 Oloa, *Abena*.
 Olosoilkia, *Egilope*.
 Orburuiska, *Argemone*.
 Oregana, Moregana, *Oregano*. E
 Orikaiberarra, *Gualda*.
 Origorria, *Mermejo*.
 Ormaberarra, *Doradilla*.
 Ormerroa, *Cazuz*.
 Ormeska, *Folio*.
 Orriburua, Orburua, *Alcachofa*.
 Orriteskua, *Altramuz*.
 Ositxeka, *Sanicula*.
 Osiña, Osina, Asuna, *Ortiga*.
 Ostatxea, *Chocho*. E
 Ostaiska, *Vellorita*.
 Ostamiña, *Glaucio*.
 Ostaza, *Gordolobo*.
 Ostepa, *Estepa, muy poblada de ojas*. E
 Ostertxuria, *Escarola, Chicoria, o Endibia*. E
 Otalora, Othona. E
 Otea, Ota, Elarra, *Argoma mata espinosa*.
 Otseria, *Anapelo*.
 Otzerri berarra, *Cicuta*.
 Papiroa, *Papuro*. E
 Peonia, *Peonia*. E
 Perraizta, *Perifollo*.
 Perretxikua, *Seta mayor*. Ontoa, Ontiba, Gurittoa, Gibelurdiña, Gibeloria.
 Perrejilla, *Peregil*. E
 Sugulberarra, *Dragoneta*.
 Perrejil ezea, *Apio*.
 Pillamina, *Colochytida*.
 Piñuska, *Pinillo*. E
 Piperra, *Pimienta*. E
 Pita, *Pita*. E
 Pitusgarria, *Sen, Sena*.
 Pitzigorka, *Saponaria*.
 Porrostia, *Gamon*.
 Porrua, *Puerro*.
 Saguberarra, *Alsine oreja de raton*.
 Salbia, *Salbia*. E
 Sandía, *Melon de agua*.
 Sapalarra, *Tribulo*.
 Sarrimentua, Sarmentua, Tximentua, *Sarmiento*. E
 Sasilarra, *Abrojo*.
 Sendikusa, *Euphasia*.
 Sendopokia, *Escorzonera*.
 Sengibrea, *Sengibre*. E
 Sentinodia, *Sanguinaria*.
 Serpillo, *Serpola*. E
 Suagaritsua, *Xuagarlo, arbusto espinoso*. E
 Sugería, *Betonica*.
 Tabakoberarra, *Nicociana*.
 Tanteznea, *Camesyse*.
 Tartikua, *Tartago*.
 Tea, Txea, *Cha, o Te*. E



Tellatuberarra, *Uba de gato*.
 Tipula, Kipula, *Cebolla*.
 Torbiskoa, *Tornisco*. E
 Trajioa, *Tragio*. E
 Tuisarra, *Pata de leon*.
 Tulipaia, *Tulipan flor*. E
 Ubitazia, *Espondilio*.
 Ugarioa, *Camedrys de agua*.
 Ugazkarria, *Albohal silvestre*.
 Umanzelorria, *Esteb, Steba*.
 Untza, *Yedra, Hiedra*.
 Urdinberarra, *Glasto*.
 Urdingorria, *Hisopo*.
 Urraza, *Lechuga*.
 Urriloa, *Mandragora*.
 Ursina, Molo-orrika, *Acantbo*.
 Usaigaitzberarra, *Zuzon*.
 Usgozeilla, *Vara de jesse*.
 Uzainberarra, *Alisma*.
 Uztaberarra, *Alcara*.
 Uztapikua, *Breba*.
 Uztargiberarra, *Iris*.
 Yaroa, *Barba de Aaon*.
 Yuka, *Yuca*. E
 Zainberarra, *Llantel*.
 Zainoria, *Cenoma, Pastinaca*.
 Zaliba, *Aloc, Acibar*.
 Zalizteikia, Zaliztunkia, *Sanzgatillo, Agnocasto*.
 Zalkea, Lolloa, Iraka, *Zizana*.
 Zerba, Betarga, *Acelga*. E
 Zarzaparrilla, *Zarzaparrila*. E
 Zarporria, *Tormentilla*.
 Zizallea, *Xixalo, muy de gusto para obejas*.
 Zizaña, *Vallto*.
 Zokoba, *Zocoba*. E
 Zolda, Ositxeka, *Consolida, consuelda*.
 Zoragarria, Lolloa, *Joyo*.

Zornurrina, *Almicele*.
 Zorriberarra, *Hierna piogera, Albarraz, Uba taminia*.
 Zulla, *Zulla*. E

*Nor izango da orain esango debanik
 Euskarak ez debala berarren izenik?
 Naita ere sinistu ezin nezake nik,
 Jaioko ere dala alako gizonik.*



BOSGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako Arrobi baliosoen ugaritasuna, eta berak ematen dituzten arri bitore ikusgarrien doaiak.

Probinzia onetako mugape guztia da Arrobi eder naigarri anitzekin guztiz erara eta txit ondo janzia. Egia garbiro au autortu izan dute argiroki, lanbide onen gañean izkribatu izan duten gizon jakinti arrotzak ere; esaten dutelarik, ezen, Gipuzkoako Eliza, Jauregi, Etxe, Plaza, Murru, Gaztelu, Karrika, eta gañerontzeko Ekida ikusgarriai begiratzea aski dala ezagunmendura erorteko, zenbaterañoakoa dan bertako Arrobi ederran ioritasuna. Beragaitik andizkatu izan dituzte bada ainbeste bider Probinzia onetan arkitzen diran arrizko Egitade ederrak. Egiazki alaxen dira izatez ere! Eta ditxa andi au zor zaio, Izakiak Gipuzkoari oparo eman izan ziozkan arrobi bikain begitangoai.

Ez da bada arkituko Erri bat bakarra ere Gipuzkoa guztian, arrobi ugaritsu oetakoren bat bere menpean ez debanik, ez eta ere, beretako arri ederrakin egindako Ekida ikusgarriren bat edo geiago, agirian ez dauzkanik. Izendatuko ditut bada arrobi oetako berezituena, non ta nola eta zer gisatakoak diraden.

Artxipi deitzen zaion mendi Errenteriakoan dago arrobi bat, nabarri ederra ugari ematen debala; zeñetatik ateratako arriakin egiña arkitzen dan Erri bereko Elizan dagoen Aldare nagusiko Erretabloa. Egitade ikusgarri au egin izan zeban Don Franzisko Asurmendi Gipuzkoatarak, izen andiko Don Bentura Rodriguez'en buruz; eta azkenengo apaindura eman izan zion, edergarri askorekin, Don Alonso-Bergaz Maisu andi San Fernandokoak.

Oiarzungo mendietan badira arrobiak, Nabarri ederra, eta Kisu ona iori ematen dutenak. Andrerregia esaten zaion Elizatxoaren aldamenan dago arri bat emakume baten idurinekoa anzinaerako letraz betea; eta jendea oi dago sinistpen osoan, ezik, toki berperean izan zala lurperatua Julio Zesarren emaztea. Andrerregiak esan nai du Euskaraz, Andre-Erregiña, eta izen onek adierazten du garbiroki, ezen, Erregiñaren baten autsak estalitako arria dala au. Erri bereko Eliza nagusiaren Epistola aldeko orman ikusten da arri bat guztiz miraritsua, zeñetan dauden otallatuak Aballa, eta Lanzak, gure asaba maitagarriak irabazi izan zituzten batalla andi anitzen oroitpengarri. Beragaitik dauzka, bada, Oiarzungo Eliza txit

anziñakoak ain maitaro gordeak, Kantauritarren Eskutarma joia oek. Beste leku batean ezarriko ditut argi eta garbi Eliza onen asiera, bizitza, eta mirariak noizdik, nondik, eta nola diran; eta orain jarraitu bear diot Arrobie sailari.

Lezoko mendi guztia da arrobi areatsuz ondo josia; zeintzuk ematen dituzten ugari, arlanza eder naierakoak, eta eotarri galant aukerakoak.

Usurbilko mugapean ere ateratzen dituzte eotarri bitoreak toki askotarako; baita txorrotxketarakoak ere, iñon ere diran oberenetakoak.

Astigarragako Santiago mendian arkitzen dira Maskorra idurin duten arriak. Milla sei eun larogei ta irugarren urtean arkitu izan zan mendi onetan, balio andiko arriarekin egindako giza-buru bat; eta sinistaturik Santiagorena zala, jarri izan zuten maitaro, beraren izeneko Elizan Aldare nagusiko nitxo batean; non arkitzen dan geroztik agirian, inguromaiko jendeak jaiera andia gordetzen diola.

Donostiako mugape guztia da arrobi areartsu aberatsez betea. Begiratzea baizik ez da, denpora labur baten epean berriztatua dagoen Uri gogoangarri onetako Etxe ederrai; bertako plaza zar ta berri bitoreai eta batez ere, Batzartoki gain gañekoari; zeintzuetan agiri diran garbiroki, jakinduria andiko Maisu Gipuzkoatarren bidez, ondo landu eta egoki ifinitako arri eder galant begitango anitz, guztiak bertako mugapean atereak. Eta ez dira gitxiagoakoak batere, Uri onetan lenago egiñak arkitzen diran Murru sendo goitutuak, eta Santa Mariako Eliza nagusi andientsua. Murru oek egiten asi izan ziran milla bosteun ta amaseigarren urtean; eta bukatu zituzten milla bosteun berrogei ta bigarrenen. Santa Mariako Eliza berria da egiten asia milla zazpireun, berrogei ta irugarren urtean, eta bukaera eman izan zioten milla zazpi eun irurogei ta laugarrenean. Eliza onen azala ta barrua arkitzen dira, gizonak arrian egin litzakean edergarri guztiaz gaindiroki apainduak. Arri areatsu au dalako berez ateratzen ain eroso, eta landutzen txit gozoa; zeña luze laburrean, zabal medarrean, eta lodi mean txit erraz ifinten dan neurri guztietara, irteten da merke, eta beragaitik izaten du jaso andia beti toki askotara. Milla zortzi eun, ogeita amabigarren urtean eraman zituzten Donostiatik Puerto Rikora, bertako karrikak apaintzeko, berrogei milla arlanza, lau aldeetara iru oñeko neurria betetzen zutenak; bakotxa amasei erreal pagaturik, ontzira sartu baino lenago. Eta oezaz landara nork daki zenbat arri kaka-oa zeatzeko, eta txorrotxketarako eramaten dituzten ontziak betean itsasoz urrutietara? Errazki esan diteke bada, ezen, urrezko meatzeakin berdintzen direala Gipuzkoako arrobiak.



Hernaniko mugape guztia da, karearri piñakin ondo janzia. Ez da urte asko oraindik arri ikatza ere arkitu dutela Erri onetan bertako biztanleak, eta jarraitzen diote gogoz lanbide balioso oni, baliatzen diralako berarekin ondo karobia egosten, eta beste gauza geiagotan.

Urnietan ere badute kara-arri bikañenekotik naiko guztia; zeñarekin egindako Etxe eder galant anitz ikusi izan ditugun Erri onetan, erreki txarra eraman badute ere milla zortzi eun, ogei ta emezortzigarren urtean guda gaiztoen bidez.

Andoaingo mugapean badira arrobi asko, Nabarri ederra ugari ematen dabeenak. Beretatik ateratako arriakin Azpeitiko seme Don Franzisko Ibero Maisu andiaren buruz egiña arkitzen da Erri onetako Eliza nagusi bitore begitangoa. Eliza berriztatu onetan aurrenengo Meza eman zeban Urrietako Erretore jaun Don Juan Baupista Adarragakoak, milla zazpi eun, irurogei ta amaikagarren urteko otsaillaren bian, Ama Birjiña Kandel egunean, eta itzaldiatu zeban, bertako seme Apaiz Don Sebastian Arizkun jaunak. Billera gogoangarri onetara batu izan zan alderrietatik guztiz jende asko, eta oen artean kontatu izan zituzten (jai egun andia zalarik) irurogei ta zortzi Apaiz.

Amasa Billabonako mendi Loazu esaten zaion batean, Erritik iru legua-laureneko bidastian arkitzen da arrobi bat, Nabarri beltz bikañenetakoa iori ematen debana; eta beste asko, karekizko arri urdin ederra ugari ematen dutenak.

Zizurkilko mendian badira arrobiak karegaia ugari ematen dutenak. Erri onetan aiñ eroso arkitzen da arri mueta an, ezik, non nai, soroaren aldamentxoan karobizuloa egin eta egosten dute, lurrak ongarrizteko bear ainbat kare. Kisua ere badute ugari eta guztiz ona.

Asteasuko mugapean ere badago kisua iori; baita kare-arria ere txit eroso.

Tolosako mendietan arkitzen dira arrobi asko, karezko arri eder piña naiko guztia ematen dabeenak; zeintzubeetatik ateratako puska bikañakin egiñak ikusten direan Erri onetan, Ekida bitore anitz, beste gauza begitango askorekin batean.

Leaburuko mugape guztia da, arbela ta kisua iori ematen dituzten arrobiz josia. Erri onetako jendearen irabaz-biderik erosoena da kisuarekiko lanbidea. Ain gertu, eroso ta ugari daukatelako arri mueta au, eta izanik berez, ateratzen txit erraza, eta egosten neke gitxikoa, edozein base-ritarrek bere etxe-inguruan dauka prestaturik, lanbide onetarako leku egoki aukeratua, non bear bezala landurik, eramaten duten beren abere-

tan Erri andietara txit modu onean; iru edo lau errealean ifinten dute beste ainbeste legua bideko Erribilduetan.

Aldaba mendian arkitzen dira arkantoin batzuk erpiñ zorrotzak; beste asko, leiarraz beteak; baita arritik askatuak dauden leiar zatitxo txau garbiak ere txit ugari, Boloniako meatze Semniskoan arkitzen direanen idurin berperekoak, eta bardin bardiñak; zeintzun gañean itzegiten dan garbiro ta luzeki, Bergarako Euskaldun Lagunkidak mill zazpi eun irurogei ta amaseigarren urtean zabalduetako izkribuetan.

Albizturko mendi Urtis izendatuan dago arrobi bat, Nabarri beltz bitorea ugari ematen dabena; eta beste bat ori-gorri eder bikaña ateratzen zaiona arkitzen da, Azkuendaran deitzen zaion mendi Erri berekoan.

Goiatz Bidanietan badira, karezko arri urdin piña iori ematen dabeen arrobiak. Damurik arkitzen dira toki desegokian, berezaz jendea baliatzeke.

Errezilko mendi Mauria eta Loteburua deitzen direanetan badira arrobiak Nabarri ederra ugari ematen dabeenak; zeintzubeetan lana izan oi duten bertako Argiñak geiñean, eta irabazten dituzte alogera onak txit, lekuko barri ondo ikasiak daudelako.

Zestonako mendi Izarraitz, eta Ertxina deitzen zaioenenetan badira arrobiak kolore mueta guztietako Nabarria iori ematen dabeenak; zeintzuk izan oi duten guztiz jaso andia.

Azpeitiko mendi ospatsu Izarraitzkoan arkitzen dira arrobi balio andiko asko, eta beretatik ateratzen dituzte ugari Nabarri lasto kolorekoa, auts-antzerakoa, arretarakoa, eta ozpin iduriñekoa. Arauntza mendian ere badira auts-koloreko Marmol-arri pin ederrak. Arri bikain oetakoakin egiñak dira Erri onetako Eliza nagusiaren sarreran arkitzen dan Egitade begitangoa, eta Loiolako Ekida andi bitore gaiñ gañekoa. Ainbesterañoko aomena ta jaso artu dute Azpeitiaren mugapeko arriak, ezik, ifini dituzte bi lantegi urarekikoak Nabarria zerratzeko, eta landutzen dituzte berean, lodi ta me, luze ta zabal, nai dan neurri guztirakoak.

Azkoitiko mugapean ere arkitzen dira, kolore askotako Nabarria iori ematen duten arrobi aberatsak; eta oetatik ateratako arriakin egiña arkitzen da Loiolako Aldare nagusiko Erretablo eder ikusgarria. Erri onetako mendietan badira beste arrobi mueta anitz ere, ondasun asko ematen dabeenak.

Zumaiako Indo deitzen zaion mendian arkitzen dira arrobiak, Nabari ederra, areatsu ona, karezko piña ugari ematen dutenak.

Debako mugapean ere badira arrobiak karezko arri urdin pin ederra iori ematen dabeenak.



Motrikuko mendietan arkitzen dira arrobiak karezko arri urdin begitangoa ugari ematen dutenak; zeintzuk idurin duten, ondo landutakoan, Nabarri eder pin piña. Kisua ere ateratzen da mendi oetan, iñon ere dan oberena.

Elgoibarko Galdaramuño deitzen zaion mendian badira arrobiak, karezko arria, eta areatsua iori ematen dutenak.

Eskoriatzako mugapean arkitzen dira arrobiak, kisua eta arbela naroro ematen dabeenak.

Mondragoiko mendi guztiak dira arrobi baliosoz beteak; zeintzubenatan ateratzen dituzten kolore guztietako Nabarri eder anitz; baita arri areatsua ere ugari. Guztien gañekoa da Udalako aitz, zeñaren oñetik asi eta bururañoko guztia arkitzen dan, Nabarri pin ederrez apaindua. Aitz ikusgarri oni kendutako arri bikain ederrakin egin izan dira Ekida begitango asko, eta oen artean bat guztiz begiragarria, Erri bereko Batzar-etxe ospatsua, zeña egin izan zuten milla zazpieun, berrogei ta amargarren urte inguruan.

Aretxabaletako mugapean ere badira arrobiak Nabarri ederra ematen dutenak.

Oñatiko mendi andietan arrobi asko dira txit, Nabarri ederra, eta kisu oberenetakoa iori ematen dabeenak. Euretatik ateratako arriakin egindako egitate bikain anitz ikusten dira Erri onetako mugapean. Guztien gañekoa da, Eliza nagusiko Dorre berri goititu bitorea; zeña arkitzen dan eun ta larogei ta amar oñean jaso, autsanzerako Nabarri illun garbi txauaz egiña guztia, aomen andiko Maisu Don Manuel Karreraren buruz. Ekida andi onen asierako lurra iriki izan zuten milla, zazpi eun, irurogei ta emeretzigarren urteko apirillaren amabostgarren egunean, eta bukaerako laburua ifini zioten erpiñean milla zazpieun larogei ta irugarren urteko urrillaren ogeita bederatzigarrenean. Lan andi onen balio igo izan zan, ogei ta amabost millatik berrogei milla dukatetaraño. Aldare nagusiaren aurreko Apaiztokia dago Elizaren bardiñetik bederlatzi oñean goratua; zeñaren anditasun itzaltsuak eta bukaera egokiak edertzen dabeen Elizan txit asko; bai ta lagundu ere irozgarri sendo irmetzat. Bederlatzi oñetan gora igotzeko dauzka amabost malla arrizko, bakotxa amabostna oñ luzekoak, eta guztiak puska osokoak. Ekida ikusgarri eder au arkitzen da Nabarri beltz pin ondo landuakin egiña guztia.

Legazpiko Erriaren mugapeko mendi Aitzgorrikoan arkitzen dira arrobiak, Nabarri ederra, eta karezko arri urdin piña ugari ematen dabeenak. Brinkola deitzen zaion baserri etxetik, Urolako ibaia jaiotzen dan tokira bitartean dago arrobi areatsu bat guztiz aberatsa, eta txit aomen

andikoa; zeñaren erraietatik ateratako arriakin egiñak ikusten direan Erri onetako Eliza nagusia, eta beraren atari-aurreko leorpe begitangoa. Arrobi onetako arriakin milla zortzieun, ogei ta seigarren urte, eta urre-nekoan egiña arkitzen da Zumarragako Elizaren aurreko estalpe bitorea. Lakirolako mendiaren aldatsean dagoen izen bereko baserri-etxearen alboan arkitzen da arrobi bat, eotarri eder galant anitz ateratzen zaiozkana. Aizeleku esaten zaion mendian ere badago beste arrobi bat, arri areaitsu bikañenetakoa ugari ematen dabena.

Billarealko mendi goititu Irimo izendatuan badira arrobiak Marmolarri piña, eta areatsu ona iori ematen dabeenak.

Zeraingo mendi Hoa deitzen zaion artan ere badira arrobiak areatsu arri ederra ondo ematen dutenak.

Idiazabalko mugapean badira arrobiak, karezko arri piña, eta areatsu ona naiko guztia ematen dabeenak.

Ataungo mendietan arkitzen dira arrobiak, karezko arria, eta areaitsu iori ematen dutenak, baita arroka oberenetakoa, eta zorrotz-arri ederrak ere ugari.

Zaldibiako mendietan badira arrobi mueta anitz. Ernaitzaga esaten zaion baserri-etxearen ondoan dago bat arri areatsuaarekikoa, bañan garbitzen neke andikoa, aspaldiko urteetan lurrikara andiak gañera erori izan zaiozkalako. Gaintzola deitzen dan tokian arkitzen da arrobi bat, pizarri piña guztiz ugari ematen dabena ateratzeko neke bage. Albitzeta mendian beste bat, karezko arri ederra iori kentzen zaiona. Zuazolarekin Zubietako Errota inguru guztia da arri urdiñetarako lasai bigun gozandetsuz josia; zeña atera ta landu egiten dan kare arria baino errazago askoz ere, biak kolorez alkar idurin arren. Arbela eta arroka ere badira mendi oetan. Gauza arrigarria da, Erri onen mendiak arriz josiak diralarik, plaza inguruan ain gitxi arkitzea.

Amezketako mugape guztia da kare-aitzez betea, non ateratzen duten arri mueta onetatik, neke andi bage, edozein lanbidetarako bear duten guztia.

Abalzisketako mendian ere badira arrobiak karezko arri urdin piña ugari ematen dutenak.

Isasondoko mugape guztia da, Arbel, ta Tupaarriz osotoro janzia; non ateratzen dituzten aixa aski, arlanza eder zabal galantak, eta landu bear andirik ez dutenak.

Legorretan ere badira arrobiak, karezko arria, eta, Lapitza ematen dabeenak.



Aipatu bage lagatzen ditudan Probinziako Erri banaka oetan ere ez da ariaren bagetasunik, beren bizimoduari dagozkion arrizko lanbideak egiteko.

*Gizon arrotzak ere gure ondragarri
Autortu izan dute argi eta garbi,
Gipuzkoan dalako arria ugari,
Etxe ederrak non nai dirala agiri.*

SEIGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako Meatzeak non ta nola eta zer gisatakoak diraden.

Guztiz ezagunak eta txit aomen andikoak beti izan dira Gipuzkoako Menastak, berenez diralako beste toki askotakoak baino piñagoak, aro obeagokoak, eta balio geiagokoak. Probinzia onetako Menastaz itzegitean esaten ditu Batxiller Zaldibiak bere izkribu gogoangarriaren bigarren kapituluan, itz gozo indartsu oek.

«Estrabon, Diodoro, Sikulo, Solino, Ponponio, Osorio, eta beste askok, jarri izan zituztenean España beste guztiai gañeraturik, etzan bestegatik, ezpada, lurbira onek ematen deban ugaritasunagatik. Galdetzen det nik nork arkituko du España toki bat, beruna, burnia, kobrea, burnarria, alzairua, urrea ta zillarria ain ugari guztitik dariola diarduanik; Egiztatzenean ere deban bezala Pliniok, izakiarekiko kondairan 3garren libru ta kapituluan, menasta, beruna, burnia, kobrea, eta Plinio beraren libru 4garrengoan, 20garren kapituluaren bukaeran? Ez da bada sinistgarri billa ibilli bearrik ere, ikusten dalako argiroki, bi Probinzia oek bakarri (Gipuzkoa, ta Bizkaia) ematen dutela burnia España guztirako laña, ez ezik, beste Dierra askorentzako ere, zeñarekin egiten diran gudarako eta lur-lanarako arma ta erremientak; eta ez da mirestekoa Pirineoko mendiak ain gertu daudenean, zeintzuk izen au artu izan zuten, oñazkar ta tximistak botatzen dituzten su lodietatik; zergaitik Greziako itzkeran *Pirok* esan nai deban *Sua*, Isidorok dionez itzen jaiozako libru 13garrengoan 8garren kapituluan, asitzen dira oek goratzen, Ondarribiaren gertuan eta Diodorok libru 3garrengoan zabalkiro diarduanek, sualdi luzarokoak mendiai irazekerik, denpora askoan jariotu zuten erreka urre ta zillar naste; eta menasta au bertako jaiotarrak, Greziako merkatariak erosirik gauza balio gitxiko-



en truke, Greziara eramenez batu zituzten ondasun andiak».

Gipuzkoako ondasunen gañean itzegitean esaten du aipatu dedan Batxiller Zaldibia berak 3garren kapituluan onela.

«Gauza bat euki diteke jakintzat garbiro, ezen, Erromatarren etorrera Españara izan zan baino lenago, jendadi askok zebala joera toki artara, menasta'en ugaritasunaren bidez; beragaitik oi zetozen gizon samalda andiak, bertako ondasunen ots andia enzunik; orobat gertatu izan zan Zeltiberian; zeñagaitik Juanes Kamerziok adierakietan Luzio Florori, beraren aberastanuz itz egitean, esaten ditu berba oek. "Nondik igarri ditekean, ezik, Zeltiberiren dierria izan zala urre ta zillar bitorez sarritzatua eta ioritsua, kanpoa arras solla izan arren"».

Aurkille geiago ere izendatu nitzake, premina balitz, Gipuzkoako menasta aberatsai gaiñ gañeko andizkatzeak egin izan diezatenak, berbaz eta izkribuz; bañan ez degu anziñako gizon jakintien sinistgarri bearrik, begien aurrean garbiro dakuskun gauza agirikoaren azaldurea egiteko.

Probinzia onetako mendietan unetik unera or emen arkitzen dira menasta balio andikoak ateratzen gure asaba maitagarriak egindako zulo luze zabal txit izugarriak; zeinzuk beren ezagungarri egiazkoekin adierazten duten garbiroki, zertarako egiñak diraden, eta zer ematen zuten. Egiazko ezagungarri oek begien aurrean ez bagenduzka ere, gure Ama zintzo Gipuzkoak bere gordeleku zuzenean badauzka argibide sinistgarrikoak, nola beraren mugapean atera oi zuten beruna, burnia, kobrea, burnarria eta zillarra ugari. Menasta balioso oek zein tokitan, eta zer nolakoak dauden, adierazoko dizutet garbiro.

Irun-aranzungo mendietan atera oi zuten beruna, burnia, kobrea, burnarria eta zillarra. Egia garbiro onen argibide zuzenak arkitzen dira Erri onetan zintzoro gordeak; eta ikusten ere ditugu, neke ta diru askoren gustuz egindako meatze zulo andiak.

Oiarzungo mugapean badira meatzeak beruna, eztañua, kobrea, burnarria, ta zillarra ugari atera izan zaiotenak, batez ere Aiamendian; non topatzen diran txit zulo asko ta andiak, lanbide onetarako egiñak. Beragaitik gizon andizki aberats anitz alkarturik, ekin izan zaiozka berri-

ro mendi oni txit portizki, beren itz onorezkoaren azpian argi bide irme indartsua eginik; zeñaren asiera edo burezardea dan modu onetan.

«Escritura de la Sociedad para la Esplotacion de las minas de Oyarzun y otras.

«En la Ciudad de San Sebastian á treinta de Julio de mil ochocientos veinte y nueve, ante mi el Escribano público de su Magestad numeral de ella y testigos infraescritos el Señor Conde de Villafuertes y Don Manuel Joaquin de Iguerabide vecinos de la villa de Tolosa, y Don José Lorenzo de Lavaca que lo es de esta Ciudad, por sí y en representacion de los Señores Marques de Pontejos vecino de Madrid, Jonh Coekevill, Nicolas Maximiliano, Lessoinne, y Felipe Adolfo Lessoinne del Comercio de Lieja en Holanda, por quienes los tres primeros prestan voz y caucion de que aprobarán, este instrumento y cuanto en su virtud se practicare, digeron que tienen resuelto formalizar una compañía para el completo laborio de dos lunas de plata y otros metales, situadas en territorio del Valle de Oyarzun, de otra que se halla en la villa de Irun, ambas de esta Provincia, y de otras en que acaso pondrán la mira en lo sucesivo, teniendo por ahora denunciadas las tres primeras en la Diputacion de la Provincia Delegada por la Direccion General de Minas de Madrid, y á este fin han invitado tambien por medio de un prospecto que han circulado, á los que quieran subscribirse, y adherirse á esta compañía manifestando sus bases, y reduciéndolo á efecto en este instrumento la establecen en los términos siguientes. Nota; el nombramiento de Director de esta Compañía se ha hecho en Don Pedro José de Anitua residente actualmente en Bilbao. Esta escritura se otorgó por testimonio de Don José Ellas de Legarda Escribano público y del número de la Ciudad de San Sebastian».

Indar andiko lagunkida itzaltsu au ekin zitzaion gogoz lanbide balioso oni, berari zegozkion prestamen guztiak erara ifinirik, bañan, Españako Talde-agintearen gañean ustez ustekabe gertatutako naspilla ta



goibetze andien bidez, denporarik oberenean izandu zan laga bearra guztiari beingoan.

Errenteriako mendietan badira meatzeak burni gaia ugari ematen dabeenak, oen artean izendatuenak dira Arbitarte, Urteta, Oberan, Suerrin, eta Garostegikoa, zeintzuk dauden Gabiolarekin Yanzi bitartean.

Urnietako mendian arkitzen da zulo bat guztiz miraritsua, zeña dagoen aitz bizi bizian modu onetan. Aitzaren oñetik erpiñara bitarteko lau zatietatik iru igarotzean, dauka inziritu bat kare-arri pin piñean, zeñetatik gizona jatxi ditekean eroso lasaitasun guztiarekin. Ataka onetatik ondorañoko luzetasuna dauka zuzenean, ogeita lau oñean; eta zabaltasuna, ifarraldetik eguerdi-alderontz dauka berreun ta berrogei oñ; sortaldetik sartaldera irurogei. Beraren barrunpeko uts-uneak egiñeratzen du gela andi baten idurineko artzulo bat; goi guztia ta alboak dauzka, kare aitzari ixurten zaiozkan ur iragazietatik sortutako leiar distiatu ikusgarriariakin ederki apainduak, zeña dan lurruspe guztiko gaia.

Zizurkillo mendian arkitzen da meatze zulo bat guztiz bide luzean ondoa daukana. Zulo andi onetan lan asko egin oi zalako entzuer a bade-gu, zer menasta mueta ateratzen zuten garbiro ez badakigu ere.

Asteasuko mendietan arkitzen da kobrea; non, azaleko ibill-arriai ere arkitu izan diozkaten menasta onen apurrak iori.

Anoetako Irumendin arkitzen da meatze zulo andi bat, ondoa baino ere are ondorangoan, ur asko beti daukala; zeñaren erraetatik atera oi zuten denpora batean likurta ugari.

Elduaiengo mugapean ateratzen dan menastarekin ornidutzen dira iru ola burnigintzan ari direanak, zeintzuk diraden Ollokiegi, Plazaola, eta Ameraun.

Berastegiko Erriak badu burni-meatze ugaria txit, Biskotx deitzen zaion toki eroso batean.

Aralarko mendi andi guztia da meatze baliosoz ondo janzia; zeintzuketan diraden beruna, eztañua, burnarria, burnia, zillarra, urrea, eta batez ere kobrea guztiz ugaria. Mendi onetan, Arritzaga izendatzen dan tokian, ezagutu izan ditut neuk bi ola, kobrea launtzen ari direala. Lantegi balioso onetatik egunoroko ogia ta alogera ateratzen zituztela ezagutu izan nituen, gutxienaz, irureun gizon bederik era batera, beren meza emallearekin. Bi olaen inguruan zeukaten egiñaturik Alde-erri txiki bat, bere Elizarekin; bañan tellarik batere bage, zeñaren orde z pipolakin estaliak zeuzkaten Eliza ta etxeak. Sarritan joan izandu nintzan lantegi au ikustera, beste eginkizun bage, bai ta sartu ere bi aldiz, menasta ateratzen zuten zuloan azkenengo kaboraino, iru legua laureneko bidastian, aitz gogor

biziaren azpian. Zulo gogoangarri onetan ikusi izan nituen gauza miraritsua guztiak zearo azaltzen denpora geiegi igaro ez dezadan, lagatzen diet beren oñean. Meatze aberats au agertua izandu zan, milla zazpieun ogei ta amalaugarren urtean, eta jardun zeban gelditu bage, milla ta zortzi eun urte ingururaino, eta geroztik arkitzen da, illa balitz bezala; ez, kobrea gitxitu zitzaiolako, ezpada, bestelako joan-etorrien bidez. Lantegi oni laga zitzaion egunetan bertan lanean ari ziran gizonai entzun izan diotet, topatzen zutela menasta atzerapen bage, bañan meatzaren jabeak alkarren artean ondo etzetozelako, lantegi artan etzegoela buruzpide eta eraen onik ezertarako. Azkenerako jarri zirala langilleak, nor kontu artu izan bagez, bearra egiteko ustean meatze zulora sartu eta lanen pitinik egin gabe aste osoak jokuan igarotzen zituztela. Orra zeren bidez lagatua arkitzen dan, ainbeste ondasun ematen ikusi izan degun Aralarko meatze aomen andiko aberatsa. Entzun izan diet gizon jakintiai, ez dala Españako Erresuma guztian topatzen Aralarko kobreak alderatzekorik. Beragaitik izaten zeban onek ain jaso andia España barrura, ikusi izan ditugun bezala askotan Dunba andiarekiko mando erreskada luze Gaztelakoak, Arritzagan atera eta landutako kobre txapa ederrakin dijotzela. Aipatu dedan meatze aberats onezaz landara ere arkitzen dira Aralarko mendian, zulo andi izugarri anitz noizbaiten ere gizon ernaiak, lurraren azpiko aitz portizak epakirik ondasun baliosoak beretatik ateratzeko egiñak. Gizon argi gauza izkutukoen barri jakin naieko zenbait, jatxi izan dira inoiz lurruspe oetara, eun ta geiago oñeko bidean, beren biziak gordetzeko gogora aldakizkioten prestamen guztiak arturik, zeintzubei entzun izan diotedan, ezik, guztiz arrigarriak dirala zulo ezkutapetsu oetan arkitzen diran gauza ikusgarri miraritsua.

Zaldibiako Erriaren mugapean, Aitzarte esaten zaion tokian arkitzen da kare-aitz erro bat, zeñari milla zazpieun, larogei ta zazpigarren urtean, kendu izan zioten urre garbi pin piña. Denpora artan Erri onetan bikario zegoen Don Josef Ignazio de Etxabe jaunak, ikusi izan ziozkalako aitzari, urre izar pikorta apur banakaren batzuk, erakarri zeban Aralarko meatzean kobreak ateratzen ari zan Maisu-nagusia, amasei langillerekin; zeintzuk jardun izan zuten aitzari menasta billatzen bi illabete igaroan, eta kendu zioten urre txau piñak pisatu izan zeban iru onza ta erdi eta bi otxaba. Urre zatitxo au erabilli izan neban eskuetan, bein baino geiagotan; zeña bere jabe Etxabe bikarioak maitaro gordea oi zerabillen erakutsiaz eta esanaz, non aterea zan, eta nola kosta izan zitzaion berrogei onza urre bezalatsu. Egia da urre pitin au kosta izan zala berak balio zeban



alako amabi, edo benturaz geiago, bañan esango ere ezin du iñork izen-datu dedan aitzak urrerik ez daukala.

Ataungo Arzate-erreka deitzen zaion aitzean badira meatzeak beruna, eztañua, kobrea, kupritsa, menaslorra, bermejoia eta likurta ematen dituztenak. Milla, zazpi eun, ogei ta emezortzigarren urtean Lagunkida bat alkaturik, asi izan zan gogoz menasta billa mendi onetan; bañan aberastutzeko lainbat beingoan ematen etzebalako, laga izan zioten lanbideari, asko nekatu bage. Milla zortzieun ta ogei urte inguruan asi izan ziran berriro meatze zulo oek azterzen, baita topatu ere, izendatu ditudan menasta mueta guztietako zerrenda piñak. Bañan lanbide oni ekin zitzaiozkan gizonak algo gitxikoak ziralako, eta beste alde, guda gudaren gañean sortzen zalako, utzi izan zioten guztiari bat batean. Zulo oek ikusi izan dituzten gizon artarakoak badakit esan izan dutela, ezik, atera leikeala beretan kobre piñ baliosoa txit ugari.

Zeraingo mendi Barbaria izendatzen danaren aldatsean arkitzen dira, meatze eta lurruspe zulo asko, langille anitz kabitzeko lainkeoak, eta eurentan arkitzen diraden burnigai ondar apurretatik ezagun da argiroki, noizbaiten ere, eman oi zutela menasta mueta au iori. Erri onek ifarralderontz dauzkan mendi Elustizain, Otañu, eta Aizpuru deitzen direanetan arkitzen dira, burni gaia ondo ematen duten meatzeak. Oen guztien erdian dago beste mendi bat, bere aldats ta ixuriak eguerdi alderontz eta ifarraldera dituela; zeñaren aitzetan ikusten diraden, zulo, putzu eta iriki asko ta andiak, kobrea eta burnarria ateratzeko egiñak. Milla zazpi eun, ta ogeigarren urte inguruan ekin zitzaiozkan mendi oni berriro menasta kentzen; bañan asi berrian ematen etzebalako beargilleentzako laina, utzi izan zioten geldirik. Mendi onen aldats beste-alderakoan arkitzen da burni meatze bat, berreun ta geiago urtean arras lagatua egon dana, zeñari ekin zaiozkan txit gogoz, denpora gitxiz onontzik, eta ematen ere du menasta ona ugari. Aldats beraren sort-alderontz daude, Erregiña Doña Juana la lokak Juan de Otorari eman izan ziozkan burnarri meatze ospatsuak, zeintzutatako eskubidea Otorarak artu izan zeban milla, bosteun, eta amabostgarren urtean. Meatze oek luzaro eman izan zituzten ondasun andiak, bañan egon ere dira lagatuak urte askoan, zeren bidez eta nola ez badakigu ere. Beinere ez baino bein obe dala, esaera oi dan bezala, ondo dago alere, Zeraingo meatze ospatsuetan lanean asi direanean.

Mutiloako mendi Maskor edo Benera deitzen zaion artan arkitzen da burni meatze bat, legua lauren bateko inguru guztian menasta ona ta iori ematen dabena, zeñak jaso andia izaten deban Gipuzkoako ola guztietara.

Legazpiko mugapean badira bi meatze, bata da likurta ematen dabena, eta bestea, oraindik garbiro ezagutu bagea zer muetatakoa dan, iñork ekin etzaiolako gogoz berari.

Oñatiko mendietan arkitzen dira meatzeak, beruna, eta burnia ematen dituztenak; bañan bakarrik berunezkoan diartute langilleak, lapiko ta jarroentzako likurta ateratzen. Langintza onetarako izan al leikean lurrik gozatsuen ta oberena bertan ugari arkitzen dalako, Oñatiko ontzi gauzak dauka ain jaso andia Españako toki guztietan. San Eliasko Elizatxo dagoen mendi eskargearren arrokan ikusten da Arzulo bat guztiz ikaragarria. Beste leze zulo anitz ere badira mendi arrokatu andi onetan izugarriak txit. Oetako batean, ez da urte asko, topatu izan zirala amabi edo amalau gorputz illotz gizakien ezur ta ondakiñak lurraz estalirik, ain egoki eta era onean ezarriak, nola Eliza andi batean dautzanak arkituko lirakean. Erri onetako mendietan badira lurruspe zulo geiago ere, gizaldi onetan iñork aztertu bagekoak, eta beretan nor daki zer billatu leikean?

Mondragoiko Udalatxa deitzen zaion mendi goititu andi artan badira meatzek burnia, beruna, eta lugortxeka ugari ematen dituztenak. Mendi onen sortaldeko aldatsean dago izen andiko meatze burni likurtasarena, zeñari esaten dioten Meatzekindariak, izoztua. Meatze au arkitzen da klera gorri batean, aiñ aberatsa, ezik, ateratzen dan menasta guztiak ematen du euneko berrogei alzairu garbi piña, Europa guztian dan oberentzat ezaguturik dagoana, gizon jakinduria andikoen autormenaren bidez. Milla zazpieun berrogei ta amargarren urtetik irurogeira bitartean, Don Diego Aranguren Zaldundien Buruzariak oroiterazorik, Erregeren aginduz egin izan zan frogantzaren bidez, eta milla zazpieun, irurogeita amaseigarrenean, Probinzia onek eskaturik, Errege Jaunak izendatu izan zituen Gudaburu-nagusien aurrean berristatutakoan, erabakia izan zan garbiroki, Mondragoiko alzairuari alderatzekorik ezagutzen etzala iñon ere. Masdeu jakintsuak, beste Ipinle askoren eretxiari jarraitzen diola, esaten du, ezik, Mondragoiko meatze au izan leikeala, anziñako denporan Zeltiberiatarrak eta beste jende Españakoa ornidutzen zituana, beren Ezpata irme sendo pin, aiñ izen andikotzat Kondairan aipatzen diradenak egiteko. Meatze au baino gitxi bat goitiago, eta mendiak daukan aldaparen erditsuan arkitzen da Udalako lurruspe aomen andikoa, zeña dan ustez ustekabe agertua, urte gitxiz onontz. Zulo onen ataka da medarra, eta sarrera nekosokoa; goitik berañoko luzetasuna dauka seieun oñeko bidastian bezalatsu; onen barrunpea ikusteko bear dira modu askotako argi izekiak; beraren txuntxurretik buka-ondora iragazitako urak, gatz ugaritsu indar andikoen bidez, egiñeratu ditu utsune artan izan al litezkean leiar



distiatu, eta iduririk ikusgarrienak; lurruspe onetako goi, be, eta alboak iduriri dute daudela arri bitore balio andikoakin apainduak; aih begitan-goak eta miraritsuak dira ikuskarri oek, ezen, arzulo onetara sartu izan diran gizon jakin-naiekoen gogoak ez ditu ainbeste betetzen, ez leiar mendikoak (zeñetatik ere ugari dan emen), eta ez lugortxeka baliosoak, nola bertan topatzen dituzten edergarri gaiñ gañekoak. Baldin lurruspe gogoangarri au jarri izan balu izakiak Uri bikain edo Erriburu andi baten inguruan, izango zan askoz ta askoz ezagunagoa, eta aomen andiagokoa. Zulo onetatik ateratako arri banaka batzuk biraldu izan ziran Madrillera, eta bertako Gabinete kondaira izakizkora; baita, gizon argi jakin-naieko anitzten lantegietara ere; eta beretan andizkatuak izan ziran, ezin geiagorano.

Aretxabaletako mugapean arkitzen da meatze bat zillar bizia ematen dabena.

Eskorriazako mendietan arkitzen dira burnia, ta likurta noizbaiten ere atera oi ziralako aztarna egiazkoak.

Zestoako Ertxina deitzen zaion mendian badira meatzeak leiar arrokazkoa ematen dutenak. Milla, zazpieun, larogeita bostgarren urtean mendi onetan atera zuten arri leiarrezko zuri bat, argia batetik bestera igarotzen zitzaiona, ispilluari bezalaixen. Arri onen neurri egiazkoa da, luzean kana bat, zabalean iru kanalauren, eta lodian ogei beatz igaroak. Leiarrezko arri ikusgarri eder au eraman-erazo zuten Madrillera, Erregezko kondaira izakiarenean begiragarri ifinteko. Gisa berpereko arri puskak topatzen dira Erri onetako mendi Izarraitzkoan ere.

Motrikuko San Blas mendian meatze bat agertu zutela ez da oraindik urte asko. Asi ziran bera garbitzen; bañan azalean mamirik etzeukalako, laga zioten neke andirik egin bage.

Aipatu ditudan meatze oek guztiak dirade bada egiazkoak, eta bere-tatik gure guraso zintzo beargilletsuak ondasun andiak atera oi zituztenak. Eta orain ere, baldin jarraituko baginioko geren aurreragokoai gogoz mendiak aztertzen, berak ematen dituzten ondasunak maitatzen, eta gañerontzeko eginpide guzti guztietan, ez genduke nere ustez izango kalterik batere. Begien aurrean dakusku bada argiroki, Gipuzkako Probinzia dala mendietako aberatstasunaz doaindua.

*Onenbeste meatze ain toki gitxian
Nola arkitzen diran gure Probinzian;
Engañatzen ez banaiñz nere iritzian,
Ez dira topatuko Europa guzian.*

ZAZPIGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako Iturri garbi on ugaritsuen azaldurea.

Esan al guztien gañekoak dira, Gipuzkoako mugapean arkitzen diraden iturri geza-gozen ioritasuna, eta oek jaiotzatik berenez dituzten doain maitagarri pare bagekoak. Probinzia guztian ez da arkituko legua laureneko bidasti bat bakarra ere, edari mane onetatik naiko guztia ematen ez debanik. Udako bere ta leorte andietan aih ur otza eta ugari ematen dute, nola neguko euri-jasa ta elurte luzeetan epel garbia neurri bardinean beti. Gipuzkoako jende beargilletsurik geienaren egunoroko edaria da, iturri oek oparo ematen dabean ur geza-goza garbia. Lurrarekin burruka ari oi diran nekazariak, eta baso eremuetan ikatzgintzan diarduten lagilleak ainbat neke izerdizko egiten dabenenik, eta maizago egarrizten danik ote da besterik? Geienaz ere izango da indar bearreko lanean oek bardinduko dituana, eta ez geiagokoa. Eta zer edari mueta oi darabilte lanbide gogor oetan diarduten Gipuzkoatar nekatzalleak? Ez besterik, ezpada, bertako iturri garbiak ematen duten ur geza-goza txaua, zeñetatik edaten duten gogoz, izerdia gorputz guztitik txirrian dariotela egon arren, gaixotzeko beldurrik bage.

Asko aldiz entzun izan diet gizon jakintsu ustekoai, ezen, guztiz dala kaltarkitsua izerditutako ondorean iturriko ura edatea; perretxikuen gañean are gaiztoagoa; arraina jandakoan illgarria, eta beste onelako milla astakeria. Onelako gizonetan dagoala jakinduria, sinistea ere da erakeria. Gisa onetan mintzo diraden guztiak egon ditezke bada jakinaren gañean, ezik, gure Egilleak egarria illtzeko ain eroso eta oparo eman izan zigun edari garbi doarikako maitagarri au, ez dala osasun-galgarria, baizikan egillea eta sendagarria.

Gipuzkoako iturri miraritsuen doai andiak ondo zabalduak arkitzen dira Españako Erresuma guztian. Beragaitik ikusten dira uda guztietan datozela jende samalda andiak Probinzia onetako urak artzera eun ta gei-go legua bidean. Euretako askori gertatu izan zaie, eritasun gaizto zarkoen bidez, oñen gañean txuti ezin egon direala etorri arren, iturri osasungille oetan denpora gutxi barru ondo jarririk, galgoa bezin pizkor ta arin beren etxeetara biurtzea, pozkidaz beterik. Eta oraindik are arrigarriagoak dira, arako, ezkabi lizun, legenar zikin, eta miñatza lotsagarri likits askorekin begi bietarano beteak datozen aekin, iturri garbitzalle oek egi-



ten dituzten mirari andiak. Gisa onetako gaitz eriotso gogorrakin etorritako anitz ikusi izan dira iturri oetako urak artzen dauden egun banakaetan, erdoi ta tortika likits nazkagarri guztiak arras botarik, zillar apaindua bezin eder, leun ta garbi jarten dirala.

Gipuzkoako mugapean ezagutuak dauden iturri osasungilleak eta edari geza-gozo garbia ematen dutenak, zein lekutan, nola, eta zer griñatakoak arkitzen diran ezarriko ditut emen, abezekiro Errien izenak dituztela. Arrobi ta meatzeakin ez det orrela egin, zergaitik Erri guztiak izendatu bearrik ez neba, iturriakin bezala.

A

Abalzizketako mugapean badira iturri geza-gozo onak; baita erreka ziztorrak ere.

Adunan unetik unera daude, ur garbia iori ematen duten iturriak.

Albizturko mugapean iturri on asko dira; oetako bat arkitzen da Erri-barrutik gertu, bertako jendea ornidutzen debana. Aldabako erroaitzari dautson mendi Madariaga deitzen zaionaren aldatsean dago izen andiko iturri *Salubietakoa*; zeñaren urak, eun ta irurogei eta amaika dezta-tu lerroko bidastia igarorik, sartzen diraden Tolosako mendi egoi aldeko-etatik jaxkitzen dan errekarra, eta jarraitzen debala bere joaira sortegi alde-rontz, berezitzen ditu Erri bietako mugak, alik eta, berreun ta sei dezta-tuko bidean joanik, lur-azpira kukuldutzen dan arteraño. Hernioko aitza-ren besangan egoialderontz begira dagoen mendiska, Aitzgorria esaten zaionaren oñean daude zazpi iturri, izendatzen diradenak, Atxisaeta, Erausti, Larrarte, Lizarreta, Igeran, Apaiz-iturria eta Irisarri; zeintzuben jarioak egiñeratzen duten Otsaingo ibaia. Beste bi iturri ere jaiotzen dira toki berperean, deitzen zaiotenak Lizarraga, ta Artutxa; eta urak berezitzen dituzte Urkizuko etxadiaren mugak.

Alegeriako Erri barrutik arrikada bateko bidastian dago iturri bat ur geza-gozo ona iori ematen dabena. Beste bat arkitzen da, Infermeri-errekaren esaten zaion tokian, guztiz miraritsua; zeñak ematen deban Epaillatik asi, eta Agorrilla bitarteko sei illabeteetan ur garbi ona iori, eta beste seietan ez pitin bat ere. Iturri onek ain zuzen darabiltza bere orduak, nola itsasoak marearen gora beerak. Erri onetan badira gitxienaz, zenbat base-rietxe, ainbeste iturri; baita oetatik egiñeratuak lau erreka oneretsu ere.

Alkizako mugapean badira iturri onak iori; baita bi erreka ere, deitzen zaiotenak Arraiga eta Aran-erreka.

Alzagako Erriak baditu iturriak, onak eta garbiak, bertako jendea naierara ornidutzeko laina, eta geiago.

Alzako mugapean badira iturri geza-gozo anitz, eta oen artean ugarriena ta begitangoena da, Madrigal esaten zaion tokian, itsas bazterretik gertu jaiotzen dana.

Alzo azpikoa eta goikoa, biak dira iturri garbi onakin guztiz ondo janzia.

Amasa Billabonaetan arkitzen dira iturri garbi geza-gozo on asko txit.

Amezketako mugape guztia da iturritz aberatsa; bertako mendietan jaiotzen diran urakin ari oi dira lau errota iringille, eta bi burni ola.

Anzuolako Erri inguru ta mendi guztiak dira iturri garbiz beteak; zeintzuben urak bakarrik egiñeratzen duten beraren izeneko ibai txiki pizkor, karrikaren alboari ukitzen diola igarotzen dana.

Andoaingo mugape guztia da, iturri geza-gozo askorekin txit ondo janzia; beretatik ixurten diran urak adierazten duten bezala argiroki.

Anoetan iturri on anitz dira txit; baita erreka bat ere Alkizatik datorrena; zeñak guriatzen dituen lurra naierara.

Aramako Erria laburra ta medarra bada ere, iturritz ondo ornitua arkitzen da beraren mugape zerrenda guztia.

Arriarango median iturri gez-gozo asko dira txit, baita ugaiotarrak ere; zeintzuben egiñeratzen diraden erreka ziztor anitz.

Aretxabaletako mugapean badira iturri onak; oetako bat arkitzen da karrikaren erdian, eta beste bat, bide andiaren ondoan, Erritik arrikada bateko bidastian. Badira ugaiotar sufredunak ere; oetako bati topatzen zaio zillar bizia. Ur oetatik egiñeratzen dira Erri onetan zazpi erreka; zeintzubei deitzen zaioten, Urkalu, Landaeta, San Martin, Urgitxia, Lanzubieta, Murrakio, eta Arbinzelai.

Asteasuko mugape guztia da, iturri geza-gozo on anitzekin janzia uts-unerik bage.

Astigarragako Erriaren gertuan arkitzen da iturri bat ur garbi ona iori ematen dabena; eta mugape onetako baserri-etxe guztiak dituzte bakotzak bana ta geiago.

Astigarretan daude Erriaren inguruan lau iturri, ur geza-gozo garbia naroro ematen dutenak; eta oezaz landara txit asko dira bertako mendietan; zeintzuk egiñeratzen dituzten bi erreka pizkortxoak; oetako bat igarotzen da Erriaren erditik, eta bestea, Beasaingo Erriarekin mugatzen dan tokitik.

Ataungo mugapean badira iturri geza-gozoak iori; baita ugaiotarrak ere. Erri onetako plazatik legua bateko bidastian Aitzarte esaten zaion etxadian arkitzen da ugaio-iturri bat, guztiz ospatsua; zeñari deitu oi



zitziaion anziña-eran *Iturri Santea*; eta orain esaten zaio Erremedioetakoa; beraren aldamenen ifini izan zutelako, izen onetako Ama Birjinaren Elizatxoa. Iturri onetako urak sendatzen ditu eritasun andiakiko asko, eta batez ere legenar zikin, ea maizanre likitsakin tortikaturik daudenak. Erri zabaldu onek bere mugapean dauzkan iturri ioritsuen bidez, egiñeraten dira bertan amar erreka ziztor pizkortxoak; zeintzuk batutzen diran Aralarko menditik jatxitzen dan ibai Agauntzakora.

Aiako Erri barruan arkitzen dira iru iturri, edari on garbia naroro ematen dutenak; eta oezaz landara, baserri etxerik geienak dituzte, nor bere iturri jakinak atari inguruan; zeintzubenatik egiñeraten diraden lau erreka azitxoak, ezagutzen direanak izen oekin; Gilzur-iturri, Erreka, Anzubieta, Alzolaras. Lendabizikoa dago ifarralderontz, burni ola bat, eta sei errota iringille darabiltzala; bigarrenak erabiltzen ditu lau ola, eta amairu errota; irugarrena, aurrenekoagana baturik, sartzen dira irurak Orioko atakan itsasora; eta laugarren errekatxoa, beraren izeneko etxadian arkitzen diran ola bat eta iru errota erabillirik, itsasoratzen da Zarauzko mugapean.

Azkoitiko mugapean iturri geza-gozoko asko dira txit, bai ta osasungilletzat ondo ezagutuak dauden ugaiotarrak ere bi; oetako bat sufreduna arkitzen da Larramendiko zelaiean, saiespeko oñaze eta arrimin edo usuria ezin egiñik jarten diranentzako guztiz eragillea. Iturri onetako uraren doaiak nolakoak diraden jakin nai dutenak, begiratzea daukate zintzoro, Bergarako Euskaldun Lagunkidak milla zazpi eun, irurogei ta amairugarren urtean, eta irurogei ta amalagarrengoan, egiteko onen gañean, zabaldu izan zituzten argibideetara, non ikusiko diran zearo, zuzenki, argi eta garbi, zer griñatakoak eta zein maitagarriak diraden. Bestea dago, Jaunsoroko olearen ondoan, eta da burniatsua. Erreka anitz dira Erri onetan, bertako iturrietatik egiñeratuak, eta oen artean izendatuenak, Txalongoa, eta Egurbidekoa. Onen izeneko ola bat bertan arkitzen dana, eta beste bost errota iringille naierara ornidurik urarekin, sartzen dira Urolako ibaira, Erriaren gertuan txit.

Azpeitiko Baserri-etxe geienak dituzte iturri beren berekiak, eta Erri-barruko jendearen ornidurarako arkitzen zaiozka sei, ur geza-gozo garbia iori ematen dutenak, gertuan txit. Ugaiotarra ere arkitzen da bat, Erritik legua erdiko bidastian, Zestoarako bidean Lasaoko olearen aurkez aurke. Loiolako atari aurrea, barrunpeko ibiltoki, sukalde eta gelaetaraño-koak daude, iturri eder garbiakin ondo janziak. Erri onen mugapeko mendi Izarraitzkoan dago iturri bat miraritsua txit; zeñak ematen daben uda guztian ur garbi ona iori, eta ez neguan pitinik ere. Iturri ugaritsu oen

bidez egiñeraten dira bertako mugapean erreka pizkor anitz, zeintzuk amiltzen diran Urolako ibaira. Erri leial onetako seme, beti gogoangarri izango dan Don Jose Jabier Olazabalkoak, milla zortzi eun ogeita amairugarren urtean Amerikan, guztion egille aundiak beregana deiturik, munduko gauzai buruzpide ona emateko denporan agindu izan zeban, ezik, beraren ondasunetatik egin ta ifini zitezela aren jaioterrian ogei ta lau arri lisiba eroso jotzekoak, beren estalpe edertasun andikoarekin, Erritar guztien onerako, eta beraren oroitpengarri. Gizon maitagarri onek Jaungoikoari kontu eman bezin preste, beraren emazte maitati Doña Nikolasa Megoñi ta Olazabalkoak, gaztigatu zion Azpeitiko Erriari zer ta nolako egiñikizunaren azpian arkitzen zan, eta kezka onetatik lenbait-len atera zedin, egin zekiola mesede esateaz denporarik galdu gabe, zer balio izan bear zeban, garbikeraleku bitore au bear bezala egiñik Erri guztiko jendearen naierara ifinteko. Mandatu gozo ustez ustebageko au artu bezin laster Azpeitiko Batzartar Jaunak deitu zuten Maisu andi Don Mariano Laskurain Mutrikukoa, beraren buruz egiña izan zedin Ekida aiñ ospatsua. Maisu jakintsu onek autatu zituen bi toki garbikeraleku au egiteko; bata Albergako ondoan bertako urakin, eta bestea, Enparango Jauregitik zubi berrira bitarteko zelaiean iturritzakoakin, esaten zebalarik izkribuz garbiroki, ezen, Albergako urak arzulotsuetan datozelako arretzen dirala euri pitin bat asi orduko, eta jario gitxigokoak diradelarik, garbikeralekua oekin beren inguruan egiteko bearko dirala berreun ta iru milla, larogei ta lau erreal. Bañan Iturritzako urak direala garbi sendo beñere loitutzen ez direanak; minutu bakotxean ematen dabeela eun ta amar pitxar ur; oek ekarri leizkeala aixa, izendatu dan zelai Enparan-bidekora; eta emen egin leikeala, eun ta berrogei ta bederatzi milla, eta eun ta ogei ta amabi errealletan garbikeraleku naierakoa; Albergakoa baino, berrogeita amairu milla bederatzi eun, berrogei ta amabi errealez merkeago. Emen ezarri ditudan gertakari oei ondo begiraturik, geroenean ifini dute garbikeraleku begitango guztiz ikusgarri au, lau iturri eder bitore gaiñ gañekoarekin, pillotajokuko plazaren barrenean, ikusle guztiak arritzen diran moduan.

B

Baliarraingo mugape laburrean arkitzen dira amaika iturri onak, zeintzutatik egiñeraten diran lau erreka, izendatzen diradenak, Erbeta, Lopesarasu, Gabizabaso, eta Gomentz-iturri.

Beasaingo Erri inguruan badira amalau iturri, eta beraren mendietan asko txit; zeintzutatik egiñeraten diraden zortzi erreka larritxoak, eta deitzen zaiote, Mariaras, Murua, Maleza, Errekartetxikia, Uganerreka,



Erroiz, Egurola, eta Langala. Erri onetako ostatu andi, Aranberri deitzen zaionaren ukulluan dago ifinia, abereai edaten emateko toki eroso bat, aldameneko erreka azitxotik ur garbi ona iori beti dijoakiola.

Belaunzako baserri-etxerik geienak dituzte beren iturri garbi jakiñak atari inguruan.

Berastegiko plazaren erdian dago iturri eder bat ur garbi ona iori ematen dabela, eta beste iru Erri-inguruan gertu txit; baserri-etxeak ere gitxi dira, bere iturri jakiña bagekoak.

Bergarako mugapean ezagutzen dira irureun iturri eta geiago, ur garbi ona iori ematen dutenak; baita ugaiotarrak burniatsua ere txit asko, Eguzkitzakoa dan bezalakoak. Beizaman ikusten dira ogei ta lau iturri ur garbi ona iori ematen dabeenak; beste bat ugaiotarra arkitzen da Amenalas, eta Osinalde deitzen diran baserri-etxe bien bitartean. Ur oekin egiñeraten dira erreka ziztor asko; oetako bat azitxoa, zeñari deitzen zaion Ibai-eder. Erri onetako mugapean bi errota iringille erabillirik jatxitzen dira ur oek Urrustillako etxadiara; eta emen bertara biribillatzen direanakin bat egiñik, zortzi ola darabiltzateela sartzen dira Azpeitian Urolako ibai andira.

Berrobiko mugape laburra ere ondo janzia arkitzen da, ur garbi ona iori ematen dabeen iturriakin.

Bidaniako mugapean iturri on asko dira txit; eta beretatik egiñeraten diraden erreka ziztor guziak alkargana baturik, erabiltzen dituzte iru errota iringille Erri berekoak.

Bilafrankan plazaren erdian dago iturri bat, lau txorro burniazkotatik ura iori dariola, eta abereak edan erazotzeko toki galant eroso bat inguru guztian arlantzaz egiña daukala. Erritik gertuan arkitzen dira beste iru iturri deitzen zaiotenak Iturritxo, Lorentziturri, eta Osinbiribillaga; oezaz landara ere badira Erri onen mugapean ur garbi ona ematen dabeen iturriak.

Billarrealko Erri inguruan eta baserri-etxeetan badira ur garbi ona ematen duten iturri geza-gozoak; bai ta ugaiok ere.

D

Debako Erriak baditu bere mugapean iturri onak eta asko; oen artean bat arkitzen da, ekin-aldi ikusgarriakikoa Mendaron Kilimon deitzen zaiona; zeña Kondairatzalleak aipatu izan duten maiz aski, berezko egikera eta griña guztiz miraritsua dituelako. Iturri onek ura botatzen du irrin-arte batetik purrustaka, ain iori ezen, erreka pizkor larritxo bat egiñeraturik, berak bakarrik Debako ta Elgoibarko Errien mugape berezi-

tzen dituela, ordeka zelai laban joan arren, badarabiltzki bi ola andi eta amabi eotarri arrikada bateko bidastian; oen lankai guztiak gelditzen dira iñoiz bat batean sost, iturriaren urak usterik gitxienean kukuldutzen direalak: eta orobat asitzen dira beingoan dinbi danba, urak botatzeko aldia iturriari etorten zaionean.

Donostiako Uriak bere mugapeko zazpi jaiotokitatik dakartzien urakin egiñeratua dauka plaza zarrean iturri bat, bederatzi txorro bronzezkatatik ura dariola, bertako jendearen ornidurarako. Ur oen garbiletua dago ifinia, Izoztegi deitzen zaion tokian. Izen onetakoa da zazpi jaiotokitatik lendabizikoa, zeña dagoen sort-alderontz, esan dedan garbiletutik bosteun eta larogei oñeko bidastian; onek ematen daben ura da sendoeza eta arretzen dana. Bigarrenaren jaiotokia izendatzen da Puiiu, eta dago ere sort-aldean, aipatu dedan garbiletutik bi milla, lareun, berrogei ta bost oñeko bidastian; eta beraren urak sendoak izan arren, loitutzen dira euria egindakoan ordu gitxi barru. Irugarrenaren jaiotokiari deitzen zaio Aroztegi edo Errizoko, zeña dagoan eguerdi-alderontz, eta bera izanik guztietan urrutienekoa, bi milla, zazpieun, berrogei ta amar oñeko bidastia dauka, esan dedan garbiletu Izoztegitik bera jaiotzen dan lekura; onen urak sendoak badira ere, arretzen dira Puiukoak bezalaixen. Laugarren eta bostgarrengo jaiotokiak daude sart-alderontz, zeintzubei deitzen zaioten, Aiete, eta Melodi; oek biak dira sendoak izateaz gañera, garbiak eta geza-gozo onak; eta izendatutako garbiletutik daukate milla, eun, irurogei ta sei oñeko bidastia. Seigarrena, eta zazpigarrengo orobat arkitzen dira sart-alderontz; oetan aurrengoari esaten zaio, Santa Teresakoa, zeñak daukan aipatu dedan garbiletutik milla, bosteun, irurogei ta amar oñeko bidastia; bestea da Lazkanokoa, eta onek dauka milla berreun, berrogei ta sei oñeko bidea garbiletutik jaiotokira; azkenengo bi oetako urak dira sendoak; bañan euri pitin bat egin orduko loitutzen diradenak. Izendatu diran zazpi jaiotokitako urak, Izoztegi garbiletu alkargana baturik egiñeraten dute beren errondoa, eta jarraitzen dute Urumeako ibaiaren ezker-aldeko mendiskaren oñetik murru lodi goituen gañean San Martingo etxadian berariaz artarako egiña dagoen urtokira, lau milla ta zortzieun oñen luzetasuneko bidastian; eta ur-toki onetatik, bi milla berreun ta berrogei ta amar oñ lerrokoetan joanik, Uriaren gordegarri dauden murru gogorretan bidea epakirik sartzen dira urak Erri barruan, izendatua dagoen ur-leku bakar plaza zarrekora. Emen egin dan agerkeratik ikusten da argiroki, ezen, plaza zarreko ur-lekutik Aroztegiaren jaiotokira badagoela bederatzi milla eta zortzieun oñ Gaztelako neurrikoen luzetasuneko bidastia. Ur oen anditasuna da,



neguan zazpi orkoro eta lau udan. Beren etorbide eta gordelekuak arkitzen dira era bage egiñak, ardura gutxi eta utsune askorekin. Uri onek edo beraren Batzar ondraduak ikusirik argiroki, azaldura egin dan iturri bakar Izoztegiokoaren urak direala izatez gitxi eta griñaz loituak, begiratu izan dio ardura andiarekin, ur garbia ona iori ematen deban iturri Madrigal esaten zaion tokian jaiotzen danari; zeña dagoen Loiolako etxadia buruan Urumeako ibaiaren eskui-aldeko bazterrean Alzatic Piñuetarako mendiskan aldatsaren erdian; bañan ur au Erri-barrura eramateko agertzen dira eragozpen andiak txit. Uri barrutik iturri onetara badago amasei milla oñ ta geiagoko bidastia. Bide luze au guztia arkitzen da lan gogor anitz egin bearrekoa, gañera dago iturri au guztia oso ta garbi Urumeako ibai andian igarokizuna; eta lanbide lodi oni ekiteko algorik orain orain bezala Uriari arkitzen etzaiolako, laga ditu asmo on oek guztiak, era obeagoren bat etorri dakion arteraño. Orobat arkitzen dira Antigua deitzen zaion etxadia alderontz, Igeldoko mendiaren muno andiak ixurten dituen ur garbi bitoreak iori txit; non ikusten diran argiroki, ur geza-gozo oek Uri barrura eramateko asmoan noizpaiten ere egindako lan neke andikoen aztarnak. Lanbide maitagarri au urte askoan oi dago arras lagatua, uraren ekarlekuak begitaratzen dituelako, Madrigalkoak baino ere eragozpen andiagokoak. Txofreenekoa esaten zaion beste iturri bat ere gertuan dauka Donostiako Uriak, iru txorrotatik ur garbia iori dariola.

E

Elduaingo plazan arkitzen da iturri bat ioria txit, eta Elizaren inguruan beste bi onak eta garbiak; baserri-etxeak ere badituzte ornidutzeko laina eta geiago.

Elgoibarko mugapean badira iturri onak, bañan erritik urruntxo. Plazatik iru ordu-laurenko bidastian arkitzen da bat, izendatua txit San Lorenzoko zelaiean, Aroztegi esaten zaion baserri-etxekoa. Badira ugaiotarrak ere iru, zeintzuk deitzen diran, Kaskante, Olasarraga, eta Alzola; azkenengo au da naigarriena, ur beroa, ematen dabelako.

Elgetan iturri garbi geza-gozo anitz dira txit, eta beretatik egiñerazten dira iru erreka izendatzen direanak Ubegi, Ubera, eta Aingiozar.

Errezilko mugape guztia da iturri on geza-gozoz bete; zeintzutako urakin egiñerazten dan ibai txiki pizkor bat; eta au, bi ola ta zortzi errota erabillirik jatxitzen da Azpeitiara, Urolako ibai andiarekin bat egitera.

Errenteriako Erriak badauzka iru iturri eroso txit, ura naroro ematen dutenak inguru guztiko jendea naierara ornidutzeko laina ta geiago. Erri onetako Jaun prestuak izanik bertako biztanleen onari amodiozko

naitasunarekin begiraten diotenak, iturri oekin ifini dute Erriaren sarre-rako plaza andian, Azpeitiko garbikereleku ospatsuaren idurin berpereko ekida begitango eder ikusgarria txit. Mugape onetako mendi guztiak dira iturritz josiak; eta beretatik ixurten diraden urak egiñerazten dituzte bost erreka, zeintzuk deitzen diran Pontika, Monjaetakoa, Utxaleta, Arbitarte, eta Pundibandietta.

Eskoariatzen badira iturri geza-gozo anitz; bai ta ugaiotar sufretsu, eta menasloradunak ere. Bolibarko erreka bizitxoak ureztatzen du Erri au ondo egoialdetik. Iramaingo umanzia ere guztiz da ona bertarako.

Eibarko mugapean jaiotzen dira ainbeste iturri, ezik, esan leike Erri au guztia dala iturritzko itsaso bat. Ur oekin egiñerazten dira amasei erreka pizkorrak, eta oetatik bost guztiz izendatuak, zeintzuk diran, Matxarka, Azitain, Zaturio, Urkizueta, eta Ibur. Oek dakartziten urak amalau errota erabillirik sartzen dira Egoko ibaira, zeña igarotzen dan Erriaren egoialdetik, eta jarraitzen du bere joaira Debakoarekin batutzera, Mahalzaga izendatzen dan tokiraño. Erri onek badu Debako ibaiaren bazterrean ugaiot iturri bat menasloraduna.

Ezkiogako Erri inguruan eta beraren mendietan iturri asko dira, ur garbia naroro ematen dutenak; zeintzutatik egiñerazten dan ibai txiki bat; eta au Ormaiztegiako ondoan beste batekin alkatuak jarraitzen dute biak Oriako ibai andira, berarekin gorputz bat egitera.

G

Gainzako mugape laburrean badira zortzi iturri ur garbi ona iori ematen dutenak; zeintzuk deitzen diraden Barriola, Goikogaña, Etxeberrikoa, Aranburukoa, Otaza, Erdoza, Urkidi, eta Txinkintxorro.

Gatzagako mugapean iturri geza-gozo asko dira txit; baita ugaiotar burniatsuak ere. Erri barruan arkitzen da bat ur garbi ona iori ematen dabela. Beste bat dago Erritik arrikada bateko bidastian, ur gatzduna naroro dariola, eta au daramate etxe jakiñetara, zezeneko bidea galerazorrik. Etxe oetan dauzkate bakotzak biña pazia burniazko, lendanaz jarriak; eta beretan egiten dabe, su bizi portizaren bidez, gatza, zeña ziatzen duten linazarekin. Lau orduren epean ateratzen dute, bi arroba bezalatsu, eta urte osoan zortzi milla, bost eun eta amabi anega. Beargai au izanik emakumezkoak egiten dabena, lantegi bakotxa ez oi da lanean ari, ogei ta lau aste erditan baizik urte guztian. Alaixen agintzen ere du, etxe oen eskubideak erabakitzeko ifini izan zuten legeak. Erri onetako iturrien ioritasunetik egiñerazten dira erreka anitz, bertako jendea guztiz on andiak egiten diozkatena; oetako bat jatxitzen da sortegi-aldeetik; bestea jaiotzen da



Gaztañagaztetako mugaetan; zeñaren joaira dan Arabako Probinzia-alde-
rontz. Bide andiaren ondoan, Santa Kruzko Elizatxoia lur jorik dagoen
toki goititu artan, sortzen diraden ur asko aetatik alde batekoak dijoaz,
Debako ibaira sarturik Kantauriako itsasora, eta bestekoak,
Zadorrakoagana batu ta Arabako Probinzian batetik bestera jirabira ibilli-
rik, Ebrora. Erri onen mendietan asitzen da Debako ibai andia, bere kapi-
tulu esleituan zabalkiro esango dedan bezala.

Gabiriako mugapean badira iturri anitz ur garbi ona iori ematen
dutenak; baita ugaioarrak ere. Eztanda sakona esaten zaion tokian, sor-
talderontz begira dago ura jaiotzen dan putzu zulo bat, Aztiriko ibarrean;
zeñak egunaren ogei ta lau orduetan bi aldiz botatzen daben ura bide
luzetxoan gora; aldia oetako bakotzak irauten du bi orduan bezalatsu, eta
darien bitartean ematen dau kotarri bat erabilteko laina. Iturri miraritsu
onek bere denpora jakiñetan, uda ta negu urte guztietan ematen du, ez
gitxitu eta ez geiagotu bage; eta oraindik ere geiagokoa dana, egunik euri-
tsuenetan ere gordetzen dau bere neurri din diñakoa. Putzu zulo onetan
sortzen dan urik ez du iñork edan nai izaten, kirats gaiztoa debalako.

Gazteluko mugape laburrean badira iturri onak eta asko ur geza-
gozo garbia iori ematen dutenak.

Goiazko Erri guztia da iturritz ondo janzia, eta oetatik egiñerutzen da
erreka bat pizkortxoia; zeñari ezagutzen etzaion izen berekirik.

Gudugarretako mugape txikian ere ezagutzen dira iru iturri jendea-
ren ornidurarako txit eroso daudenak, zeintzuk egiñerutzen duten erreka
txikitxo bat.

Getariako plazan arkitzen da iturri bat, lau txorrotatik ura iori dario-
la; baditu beste geiago ere baserri-etxe inguruetan beretako biztanleen
ornidurarako; zeintzutatik egiñeratutako erreka ziztor anitz amiltzen dira-
den itsasora.

H

Hernaniko Erriaren sarreran eta irte-eran txit gertu arkitzen dira bi
iturri garbiak eta ioriak. Beealderontz dagoanari deitzen zaio Txillar edo
Zillar-iturri, beinere arretutzen ez dalako. Bestea dago goierri-alderontz
Erritik irten ta bereala, iru txorrotatik ura galanki dariola; eta garbikera-
rako, ta abereai edaten emateko toki zabal eroso bat berariaz egiñik albo-
an daukala. Iturri au izanik berez aiñ ioria eta guztiz leku egokian dagoe-
na, beraren aldamenen arkitzen da arlanza ederrez egindako itxutu andi
bat, alferrik joan bear lutekean uren zati bat gordea beti bertan egon
dedin: izango balitz iñoiz edo berriz sua itzali bearra edo beste edozeiñ

gertakaritarako, eta batez ere Arategitik bota bear izaten diran likiskeria
nazkagarri guztiak arras aienatzeko; zeñaren bidez Erri onetan egiten dan
garbitasun andia txit. Ezda oraindik urte asko Erri ondradu onen muga-
pean jarri dutela, Donostiarako bide andiaren bazterrean eskui-aldetik,
abereai edan-erazotzeko toki zabal galant bat arlanza ondo landuakin
egiña, iturriko ur garbia naroro gelditu bage dijoakiola. Izendatu dituda-
naz landara ere, guztiz iturri asko dira Hernaniko mugapean; non ez dan
izango baserri-etxerik, bere iturri jakiña atari inguruan ez dabenik.

Hernaldeko mugape guztia da iturri geza-gozo ugaritsuakin ondo
janzia.

Hernioko mendian Landetxaren azpiko aldean arkitzen da iturri bat
guztiz izen andikoa, zeñari esaten zaion Iturriotz; beraren ura ona da txit
eritasun mueta asko sendatzeko, eta batez ere larmintz-azalean agertu oi
diran zanbro pikortatsu eta basasto itxusi lotsagarriak kentzeko.

I

Ibarreko mugape laburrean arkitzen dira iturri garbi onak iori.

Ikaztegiatan badira iturri geza-gozo onak, jendearen ornidurarako
erosotasun andian.

Itxasoleorrean iturri on ugaritsu asko dira txit, zeintzutatik ornidu-
tzen dan bertako jendea naierara.

Idiazabalko mugapean iturri on garbi asko dira, eta oetatik iru izen-
datuak txit; zeintzuk diraden Oiarbidekoa, Lapirokoa, eta Lardizabalkoa.
Erri onetako mendietan jaiotzen direan urakin egiñerutzen da ibai txiki-
txo pizkor bat, zeña plazaren gertutik igaroaz sartzen dan Oriara.

Isasondoko mugapean etxe gutxi topatuko dira beren atari inguruan
iturri garbi on ugaria ez daukatela, eta badira biña ta iruna dituztenak ere.
Erritik legua erdiko bidastian dago ugaio iturri bat guztiz aomen andikoa,
zeñaren egikunde onak ikusten diran sarrero miñantza mueta askorekin oi
daudenetan; eta batez ere, legendar eta giltzurrunetako oinaze portitzak
izan oi dituzten actan. Plazako bide andiaren bazterrean dago iturri bat
zurezko aska luzetxoia aurrean daukala, abereak bertatik eroso edateko
jarria; beste onelako bat arkitzen da arrikada bateko bidastian beeraixea-
go, ostatuaren aurkez aurke.

Irun Aranzungo Erri-barruaren aldetxoan arkitzen da iturri bat, sei
txorro bronzekoetatik ur garbi geza-gozo ona iori dariola. Beste bat
dago guztiz edate onekoa Elizako Janzitokian, bronzeko txorro bitatik
ura ematen beti diarduala; zeña arkitzen dan marmol arri piñ ederki lan-
duan ifinia; eta bertan bear danaz gañerontzeko ur guztia igarotzen da



Erri-barrura jendearen ornidurarako. Erritik legua laureneko bidastian San Marzialko aldatsean Aldabe deitzen zaion baserri-etxean dago ugaiotz iturri bat guztiz sendagarri ona. Osterontzeko kanpo-etxerik geienak ere badituzte beren iturri jakiñak eroso txit; oetatik egiñeratzen dira lau erreka azitxoak; zeintzuk deitzen diraden Aranzate, Olaberria, Alzubide, eta Primaut; bertako mugapean ur oek erabiltzen dituzte bi ola, eta amalau errota. Beste bat are ugariagoa da Endara-erreka deitzen zaiona; zeñak berezitzen dituen Irun aranzungo eta Lezoko mugaak, Urzango mendis-karen beeko aldetik asi, eta Bogako zubiraño.

Irurako mugape laburrean ere iturri asko dira, ur garbi ona iori ematen dutenak.

L

Larraulko mugapean iturri asko dira ur garbi ona iori ematen dutenak, zeintzutatik egiñeratzen dan erreka bat, Ibeltz esaten zaiona, eta au Erriko errota bat erabillirik igarotzen da Asteasura, non bertako erreka batekin laztandurik jatxitzen diraden biak Amasa Billabonakora.

Lasarten badira iturri geza-gozo onak; bai ta ugaiotz bat ere, Olaerrotaen ondoan.

Lazkaurko mugapean ezagutzen dira ogei ta amar iturri, ur garbi ona iori ematen dutenak.

Leaburun, Guriaga esaten zaion etxearen mugapean dago ugaiotz iturri bat, burni ur otz menasloraduna ematen dabena; zeñak osasuna ekaroten dioten buruko miñ, erraietako estura, txixa ezin egiña eta gorputz osoko oinazeakin jarri oi diran askori. Iturri geiago ere badira Erri onetan, ur garbi geza-gozo ona naroro ematen dutenak.

Legazpiko mugapean jaiotzen dira iturri garbi anitz, ur ona iori ematen dutenak; baita ugaiotz ere; zeintzutatik asitzen dan Urolako ibai andia, laster azalduko dedan bezala. Erri onetan bertako iru ola eta zortzi errota erabillirik jarraitzen du ibai onek bere bide zuzenean.

Legorretako Erriaren mugapean guztiz iturri asko dira, eta beretatik egiñeratzen dira berrogei ta amar erreka ziztor gitxienaz; zeintzuk jatxitzen diraden amilka, Oriako ibai andira.

Lezoko mugapean jaiotzen dira iturri geza-gozo anitz, ur garbia iori ematen dutenak; oetatik iru oberenatakoak arkitzen dira Erriaren inguruan gertu txit, deitzen zaiotenak, Lakosta, Puntal, eta Olazar; berak ematen dituzten urakin egiñeratzen dira ordu erdiko bidastian bost erreka, deitzen zaiotenak Zarozar, Gainza, Huronekoa, Binkuda, eta Molinos;

zeintzuk batutzen diran Lezoko ibaira. Ibai oni esan oi zitzaion anziñaeran, Oiarzungoa, Aiamendiaren erroetan jaiotzen dalako.

Lizarza guztia da iturri garbi on geza-gozo ioritsuakin ondo janzia.

M

Mondragoiko mugapean iturri geza-gozo asko dira txit; bai ta ugaiotz tarrak ere. Guztietan ospatsuena eta maitagarriena da, Erritik legua erdiko bidastian Santa Agedaren Eliz-aurre Gesalibarkoan arkitzen dan sufreduna. Izen andiko iturri onetara eun ta geiago legua bidean etortzen dira sarririo jende talde andiak osasun billa; bai ta sendatu ere iñoiz berak uste baino lenago, gaitz luze goaikarriak azpiraturik egin al guztiak lenago egin ta beren biziaz etsitako eri urrikarri anitz eta anitz; zeintzuk ikusi izan diran asko aldiz beren etxeetara doazela atsegintasunezko pozkida bete betean. Erri leial onek ezaguturik ondo, ur osangille oetara jendeak artu daberen joera guztiz dala begiramen andikoa, artu ditu neurri egokiak bertara datozenai atsegin emateko. Ifini du bide zabal eroso iturriko ondo-raño; egin dira bertan bizitegi ederrak, jendea naierara jarteko, eta apaindu ere da inguru guztia txukunki edergarri askorekin. Erri onen mugapean badira ur menasloradunak ere iori, San Franziskoko Fraileetan dagoana bezalakoak; bai ta erreka anitz ere beretako urakin egiñeratua.

Motrikuko mugapean badira iturri garbi onak iori; zeintzutako urakin egiñeratzen diran erreka pizkor anitz, eta oen artean ezagungarrienak dira Osandategi, eta Arzerain. Erreka oek biak, Mijoa deitzen zaion ibar buruan alkargana baturik, amairu errota iringille legua-laureneko bidastian erabillirik, sartzen dira itsasoan.

Mutilloako meatze-mendian jaiotzen dira iturri asko, eta beretako urakin egiñeratzen da erreka pizkor bat. Beste bat ere jatxitzen da Erri onetara Zeraingo mugapeko Aizpea-mendian sortzen diran urakin egiña.

Oikinako etxadian Manzizidor esaten zaion zubiaren alboan arkitzen da iturri bat guztiz miraritsua; zeñari urtearen aldikada batzutan jaiotzen zaion ur garbi ona neurri ta denpora jakiñik bage. Aiñ prest botatzen du purrustaran iori, nola gitxi ta pitinka. Udako bero ta leortetik andienetan ematen du iñoiz naroro, eta neguko euriterik ioritsuenetan asko aldiz batere ez.

Olaberriko mugape laburrean ere badira iturri onak iori; eta beretatik egiñeratzen diraden erreka ziztorrak amiltzen dira Lazkaura eta Iurrera.

Oñateko mugape guztia da ur garbi ona iori ematen duten iturriakin ondo janzia; badira ugaiotz ere franko, eta oetako anitzek uzten dituz-



te burnia ta berunaren aztarnak, igarotzen diraden toki guztian. Erri onetako Batzar-etxearen ondoan dago ifinia iturri bat bertako jendearen ornidurarako, zeñari deitzen zaion Iturri-zarra. Ur onen etorbide luzea zerekin egin eta nola jarri ezin asmatuz, lan nekoso balio andiko anitz alferrik egin bearra izandu dau Oñateko Erriak. Iturri au jaiotzen da Erritik ordu bateko bidastian, Aloñako mendiaren aldatsean, Anzuabar esaten zaion tokian. Ur au bere irten lekuan guztiz da ioria, otza eta garbia, eta baldin gertatzen bada Erri-barrura ekarte naikidatzen dan bezin ondo, bertako jendeari egingo litzaioke mesede andia txit. Erri onetako iturrien askotzatik egiñeratzten dira erreka pizkor anitz; oen artean indarririk andienekoak eta ospatsuenak dira, Aranzazukoa, Ubao, Olaberrieta, eta Anzuelas-erreka. Lendabizikoa jaiotzen da Artiako mendi goitituan, eta ureztatzen du beraren aldatsa sortaldetik sartaldera, alik eta arroka izugarri andi bat jo dezan arteraño, zeñaren irriñarte batetik lurperatzen dan guztia arras; arroka oni deitzen zaio Gesaltzakoa, izen berpereko baserri-etxea gertu daukalako; eta lurraren erraietan zearka mearka legua laureneko bidastia igarorik, irteten da aitz beraren beste zirritu batean, zeñari esaten zaion San Eliaskoa, Santu onen Elizatxoa arzuloaren aurkez aurke jarria ikusten dalako. Bigarrenaren jaiotokia da, Aloñako aitz eguerdi-alderakoan. Irugarrengoa dator sortaldeko mendietatik; eta laugarrenaren asiera da, Erri onen ifarralde eta sortegiko mendietan. Lau erreka oek beren joairan erabilten dituzte ogei ta iru errota iringille, iru ola, eta landiera bat.

O

Ondarribiako Uri inguruan badira iturriak, bañan ez beste toki askotakoak bezin garbiak. Uritik ordu beteko bidastian Jazkibelko mendiaren oñari dautsola, Gaitzulia deitzen dan etxadian arkitzen da iturri garbi geza-gozo iori bat, Txorrotea esaten zaiona, zeñetatik ornidutzen dan Ondarribiako jenderik geiena.

Orejako mugapean badira iturri garbi geza-gozo onak ugari.

Orendaingo Erriak baditu iturri onak iori, zeintzutatik egiñeratzten diraden bi erreka deitzen zaiotenak, Ubiaga eta Anziain.

Orioko Erri-barruan arkitzen da iturri bat, iru txorrotatik ur garbi geza-gozo ona ematen dabela. Aiñ ugaritsua da iturri au, ezik, ordu baten epean betetzen ditu irureun eta irurogei gurbil, baktxa bostna pitxarra-koak. Erri onetako baserri-etxerik geienak dituzte beren iturri jakiñak atari inguruetan.

Ormaiztegiko mugapean badira iturri garbi onak; bai ta bi erreka pizkor ere: oetako bata jatxitzen da Gabiriako mugatik, zeñari esaten zaion San Estebango erreka, eta bestea Alegeriako etxadatik datorrena.

Oiarzungo Erri inguruan badira iturri geza-gozo garbiak, jendea naierara ornidutzeko laina ta geiago; oen artean izendatuena da Urdaide iturria, zeña dagoen izen bereko etxearen mugapean, Erritik legua-laureneko bidastian. Iturri onetako urak guztiz dira sendatzalle onak eritasun mueta askorentzako, eta batez ere saiespeko oñaze, eta arri miñ edo txixaren eragozle gaitz zarrentzako; ainbesterañoko sinistpen oso betea arturik oi dago ingurumaiko jendea, nola ez daben uste iñon ere dala miñantza onentzako sendarri eragilleagorik, Urdaide iturriko urak baino. Mendi andi oetako iturrien ugaritasunetik alkargana biribillatzen diraden erreka pizkorrak egiñeratzten dute Erri onen izeneko ibai andia, zeña azaluko dedan zabalkiro, berari dagokion tokian.

P

Pasaia biak itsas bazterrean daudelarik arkitzen dira iturri on garbi geza-gozo anitzekin ondo janziak. Gauza arrigarria da itsasoak alde guztietatik inguratuak dauzkan Erri txiki oetan ainbeste iturri geza aiñ ioritsuak izatea.

Plazenziako Erriak badauzka bi iturri gertuan txit, deitzen zaiotenenak, Aranekoa eta Errekalde; oezaz landara baserri-etxerik geienak dauzkate beren iturri jakiñak atarietan; zeintzutatik egiñeratzten diran erreka azitxo anitz; oen artean izendatuena dira, Otzegietakoa, eta San Andresen ibarrekoa.

S

Segurako Erri-barruan ikusten da iturri leor bat bi txorrorekin, noizbaiten ere neke askoren bidez urrutitik urak ekarririk ifinia, zeña ezagutu izan neban, orain irurogei urte inguruan, ura ematen zebala gitxi ta txarra bederik. Erri onek bere mugapean baditu iturri onak, baña urruti txit.

Sorabillako mugape laburrean badira iturri garbi onak ugari.

T

Tolosako mugapean arkitzen dira iturri on garbi geza-gozo anitz. Erri-barru onetan unetik unera ikusten da iturri eroso naierakoa, eta baserri-etxeak ere geienak dituzte baktxak bana. Goierrri-alderontz irteteko atakaren ondoan dauka jarria, abereai edan-erazotzeko toki zabal eder bat arlanza bikañakin egiña, ur garbia naroro beti dijoakiola. Iturri oetatik



egiñeratzen diran erreka gozatsuak ongarrizten dute Erri au, naiera guztira; zeintzutatik berezituena diraden Laskuingoa, San Zipriangoa, Otsaraingoa, Uretakoa, eta Magdalenakoa.

U

Urnietako mugapean ikusten dira ainbeste iturri eder geza-gozo, ezik, ezdakit arkitu ote litekean Erri guztian baserri-etxe bat bakarra ere bere iturri jakiña bagekorik; baña, bai biña eta iruna atari aldean dituztenak ere. Iturri oetatik egiñeratzen dira erreka ziztor asko, eta beretatik dator Urnietaren izena. Anzinaeran deitu oi zitzaion Erri oni *Ur-oneta*, bere mugapean iturri onak eta asko zituelako. Orañi ere alaxen bear litzaioke esan legez ta bidez, baldin denpora doatsu artako Euskaldunak bezin maite oraingoak balute beren itzkuntz gozoa.

Usurbilko baserri-etxerik geienak dituzte beren iturri jakiñak, eta Erri inguruko etxadiaetan bizi oi dan jendea ornidutzeko dauzkate bi iturri gertuan, deitzen zaiotenak, Puntapies, eta Alzondo; zeintzuk egiñeratzen dituzten beren izenakiko erreka bi, eta oek batutzen dira, Txaparenea, Zususpe, Lasao, Mapillerreka, ta Saria esaten zaiotenakin; azkenengo onek berezitzen du Erri au Oriokoagandik; Ardumbrekoak Aia, Urdaiaga, eta Amidia esleitzen dituen bezalaxen, eta sartzen dira Orioko ibai andian Errira baino lenago.

Z

Zaldibiako Erriaren mugapean arkitzen dira berrogei iturri ta geiagor, ur garbi geza-gozo ona iori ematen dutenak; ugaio iturriak ere badira bost, zer griñatakoak diraden oraindak iñork azalkeatu bagekoak. Oetako bat jaiotzen da Anduriora igarotzeko zubiaren goiko aldetik ibai nagusiaren eskuiko bazterrean ur andian azpitik gora, eta ifinten du urdin urdin bere irteten dan ur-ondoko aitz bizi bizia, bi oñ ta erdiko inguruan bezalatsu. Beste bat Osinberdetik goraixeago ugaio burniatsua; iturri oetatik egiñeratzen diranak ogei ta bi erreka ziztor biribillatzen zaiozka bertako ibai nagusiari, zeñari deitzen zaion Osinberdeko ibaia; eta au jaiotzen da Erri onen mugapeko osin zulo andi batean, azpitik gora pill pill pill ura botatzen dabela, irakiten ari oi dan lapikoak bezalaxen. Bere jaiotokian ibai au dan baino ugariagorik, ez det uste arkituko dala Gipuzkoa guztian besterik; ez eta ere, bera ainbat bidean aiñ garbi jatxitzen danik. Legua erdiko bidastian ez da arretzen, aitz bizien tartean datorrelako. Erriko plazatik ibai onen jaiotokira dago ordu ta erdiko bidea bezalatsu, eta gitxi

gora beera onen erdia igarotzean dauka mendiska goititu bat eskuiko aldetik, Erramutako aitz esaten zaiona, zeñaren goiendea izango dan irurogei oñ bezalatsu, eta onek bere musturretik, iturri batek txorrotik bezalaxen, botatzen dio ibaiari erdi erdira purrustadan, eotarri bat erabiltzeko laina ur. Gauza begiragarria eta miraritsua da txit, aitz goititu onek bere erpiñetik ixurten daben ur garbi ain ioria nondik eta nola datorren burutartatzea. Ibai au baino amorraiz aberatsagorik, ez da billatuko Gipuzkoan andiago ez danik; ez eta ere onek bezin piñak ematen ditubanik. Zaldibiako amorraiak non nai du jaso andia, eta edozein denporatan egiñen dau librak iru erreal; aiñ jakiña eta ezagutua arkitzen da balio au, ezik, gitxiagorik eskiñiko ere ezdau iñork. Izanik bada ibai maitagarri au, urtearen sasoi guztietan amorrai piñ izokitsuak aiñ iori ematen dituen, ez da mingarri berari obeto kontu ez egitea, orain berrogei urterañoiko gizonak egin oi zioten bezala? Bai, mingarri ez ezik negargarri ere da, onelako ibai aberatsa sare, eta amu debekatuakin bidebagekiro galtzen ikustea; eta are illgarriagoa da, urak agortu, eta kare bizi ta sokaranak osin zuloetan botatzea. Guztiaz ere, sinisterazorik nago nere buruari, ezen, Erri onetako Jaun prestuak orañi arkitzen diraden lozorro astunetik irazarririk artuko dituztela bide zuzen egokiak, beren gurasoak idurikatuaz ibai goixo au bear bezala gordetzeko.

Zarauzko mugape guztia da iturri garbi eder geza-gozoz ondo janzia. Erriko Batzar-etxearen aurkez aurke dago bat, lau txorrotatik ur ona iori dariola, eta beste asko gertuan txit; baserri-etxerik geienak ere badiutuzte beren iturri jakiñak, zeintzutatik egiñeratzen diraden erreka ziztor anitz; oen artean izendatuena dira, Astarubiakoa, eta Abendañoiko errostatik datorrena; Erriaren bukaeran biak sartzen dira Iturritzako ibaitxora.

Zegamako Erri barruan badira bi iturri, ur garbi ona iori ematen dutenak, zeintzubei deitzen zaioten, Ormapea, eta Ibarreta. Erri onetako mendien oñetan arkitzen dira beste anitz ur geza-gozo ona iori dariotela; oen artean izendatuena da, Iturbegietakoa, bere ugaritasun andiagaitik; zeña dagoen Aitzgorriko mendian, laburua arkitzen dan lekutik ifarpe alderontz jatxitzean, ordu erdiko bidastian. Iturri oni uda ta negu beti neurritsu batean dario errota bat erabilteko laina ur; eta beragandik asitzen da, Oria deitzen zaion ibai andi Gipuzkoakoa, laster azalduko dedan bezala bere kapitulu. Mendi onetan badira iturri sufredunak, baita gatzdunak ere. Milla, zortzi eun ta amabigarren urte inguruan, gatz asko egin izan zuten Zegamako mugapean. Alzarian ere badira ugaio-iturriak naroro.



Zeraingo mendi, Oarrea, eta Aitzpea-erreka deitzen direanetan jaiotzen dira bi iturri guztiz ugaritsuak; zeintzutako urakin egiñerutzen diraden bi erreka izen berperekoak.

Zestoako Erriaren mugapean iturri on asko dira txit; oen artean ioritsuena da, amabi-iturrietakoa; bañan dauka uts-aldi andi bat, euri denporan loitutzen dalako prest. Anbiakoa ere, griña berperekoa da. Osin beltzekoa beti da garbia. Pagari-gastañarikoa da guztietan oberena, jario gitxiagokoa bada ere. Beste geiago ere badira jendea naierara ornidutzen dutenak, aih izendatuak izan bage arren. Urolako ibaiaren bazterrean, Erritik iru arrikadako bidastian arkitzen dira bi iturri ur berodun guztiz izen andikoak, zeintzuk sendatzen dituzten sarritan, eritasun gogor zarko ustel, eta oinaze portitz illgarri gaitz mueta askotakoakin etortzen diran anitz ta anitz. Zorioneko ur bedeinkatu oek aspaldiko urteetan egiten dituzten mirari andiak nork ez dakizki bada? Egia garbi onen argibiderako, begiratzea baizik ez da uda guztietan, eta neguetan ere iñoiz, Zestoako urak artzera biribillatzen diraden jende samalda andia. Jende askoren etorrera baino sinistgarri oberik ezin izan diteke bada, ur oen doaiak nola-koak diraden jakiteko.

Zizurkilko mugapean badira iturri anitz ur garbia iori ematen dutenak, eta beretatik egiñeraturako erreka pizkorrak badarabiltzate burniola bat eta lau errota iringille.

Zumarragoko mugapean iturri asko dira, ur garbi geza-gozo ona iori ematen dutenak.

Zumaiaren mugapean badira iturri onak eta asko, ur geza-gozo garbia naroro ematen dutenak; eta oetatik egiñerutzen da Arroako aldetik jatxitzen dan erreka azitxo.

Ikusi degu bada argiroki, Gipuzkoako mugape guztia dala iturri garbi edate gozoko, eta osasungilleakin gure Egille andiak oparo doaindua. Ez ordea edozein modutan moldakaitzkiro janzia, baizikan jendearen ornidurarako unetik unera neurri zuzen egokietan erara jarria.

*Gipuzkoan arkitzen diran iturriak
Izan ta izango dira txit maitagarriak;
Berenez diralako osasungarriak,
Gaiñ gañeko tokian daude gaur jarriak.*

ZORTZIGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako Ibai andien azaldurea, beren jaiotokiak non dituzten, zer joaira darabilten, eta nor zein lekutan itsasoari laztantzen zaiozkan.

Sei ibai andi dira Gipuzkoan; lenengoa da Deba esaten zaiona; bigarrena Urola; irugarrena Oria; laugarrena Urumea; bostgarrena Lezo edo Oiarzungoa, eta seigarrena Bidasoa. Ibai andi oetara biribillatzen dira, aurreragoko Kapituluaz izendatu ditudan iturri ugaritsu, erreka ziztor, eta ibai txiki guztietako urak, bata bestearen leian amilka txit gogoz, nor bere bide jakiñetik zuzen ta zintzoro, aur txiki bularrekoak beren ama maitatien kolko zabal gozatsuetara joan oi diran bezalako pozkida eta atsegin-tasun oso bete betean.

Modu onetan ibai andi bakotzak bere auzo inguruetatik jatxitzen zaiozkan ur zerrenda guztiak maitaro arturik, igarotzen dituzten toki ta Erriak ondo ureztatu eta gurio ongarrituaz, aurkeztutzen zaiozka itsaso ikaragarriari bere atarira, eder ta galant, pizkor ta leialkiro, seiak toki banatatik, bañan guztiak Gipuzkoako mugapean.

Zenbaitek uste duten baino begirapen andiakoak dira ur maitagarri oen griña ta doaiak. Guztiz da arrigarria oen izaera eta ibillera, oarrez begiratu ezker; zeintzuk erakusten diezaten beren Erritarrai zer egin eta nola bizi bear lutekean. Ur zorionsu oek jaiotzen dira Gipuzkoan; ongarritzen dute Gipuzkoa, beraren bazter guztietan jira-bira dabiltzala; eta azkenean itsasoratzen dira Gipuzkoako mugapean. Egiazko ispillu argi onetan ikusten da garbi, Gipuzkoako ur garbiak naspillatu nai ez dutela beñere, erbesteko belubi zakar loitsuakin. Ikust dezagun bada Gipuzkoako ibai andien jaiotza, beren ibillera, eta bukaera nondik nora, eta nola dan.

Lendabiziko ibai

Gipuzkoaren aurrenengo ibaiari deitzen zaio *Deba*, Probintziaren iru zatietatik lenengoa berezituaz itsasoratzen dalako; zeñari deitzen diote bertako jaiotarrak *Zertan-er*. Ibai au berpera da arako, anziñaerako gauza-azaldari Ponponio Mela, eta Tolomeo jakintiak beren izkribu gogoanga-



rrietan izendatu izan zutena, ark izen berperarekin, eta onek Deba deitzen diola. Aomen andiko ibai onen jaio-tokia arkitzen da Gipuzkoan Gatzagako mugapean, Pirineoen ifarraldeko aldatsean, Arabako Probinziarekin Gipuzkoaren mugaak berezitzen diraden txuntxurrean, ezagunarriztat ifinia dagoen mugarritik gertuan; bereala sartzen da zulo batean, eta andik aurrera bide-alditxo bat lurraren azpian dijoala igarorik, irteten da iru puskatan Iruerreketa esaten zaion tokian. Beste errekatxo bat, sortegialdetik jaxkitzen dana laztantzen zaio Dorlasko etxadian, eta Gatzagako Erria arrikada bateko bidastian ezkererontz lagarik igarotzen da Zarimuzko Eliz-aurrea eskuitik dabela, Gaztañariko etxadiara, zeña dan, Mazmelako Eliz-aurrea berezitzen duten bietako bat; emen arkitzen dan zubipean igarorik jarraitzen du bere joaira Ezkoriaztako Erriaren erditik, eta bertako irteeran artzen du Bolibarko ibai txikia; igarotzen da Aretxabaletan Erria eskuitara utzirik, eta badoa Mondragoiko Erriaren ezkererontz egoi aldeko lurra naierara ureztatuaz; beitiago artzen du Aramaionako ibaia, eta andik legua bateko bidastia igarotzean bereganatzen du San Prudenzioko Elizatxoaren ondoan, Oñatetik jaxkitzen dana: jarraitzen du Bergarako Errira, Anzuola bide andiaren gañean eskuirontz, eta ezkerretarako txuntxurrean Elgeta dituela; Santa Mariako etxadia ureztaturik ongarrizten du naiera guztira, eta onerañokoan bide zuzena ekarri deban ibai au, aldondutzen da Bergara eskuitara utzirik ezkererontz, eta igarotzen da Plazenziako Errira: legua erdi batez lenago batutzen zaio beste bat ifarraldetik, Bizkaiatik jatxi eta Eibarko Erria ezkerretara gertuan lagarik datorrena, eta beste aldetik sartzen zaio Elgoibarkoa, ez txit urrun: Erri au eskuitara utzirik ekiten zaio bere sallari, Markina-Elgoibarkotik barrena Alzolasko etxadiara; zeñaren mugapera iritsi ezkerro ugarotu ditekean ibai onetan; beitiago ureztatzen du Mendaroko ibarra, eta andik gertuan San Franziskoko konbentu Sasiolakoa. Geroenean, toki onetatik aurrera geldi-une andiak egiñaz igarotzen da emekiro Debako Erriaren ondora: eta au eskuirontz lagarik, Motriko legua bateko bidastian daukala, sartzen da Kantauriako itsaso zabalaren kolko gozatura gogoz ta leialkiro.

Bigarren ibaia

Gipuzkoako bigarren ibai andiari deitzen zaio *Urola*; izen au da Euskararen bere berekia, eta esan nai du *Ur-ola*, edo olaak erabilten ditu-

bana, zergaitik bera igarotzen dan Erriberan txit asko diraden. Ibai au jaiotzen da Segurako Erriaren mugapean Araia-mendian, Gipuzkoaren guenean, eta Arabako Probinziaren gertuan. Toki au zan denpora batean Seguraren mugapekoa, beste alderri txiki anitzekin batean, bañan orain Legazpiko Erriaren bere berekia da, gozatzen ere daben bezala legez ta bidez, zeñetara jaxkitzen dan ibai au lendabizi, eta gero dator Zumarraga Billa-errealetara. Bi Erri oek berezitzen ditu guztiz egoki eta txit era onean bere urakin; alako moduz ezik, bertako barri ez dakien edozeñek begiratu batean esan leike, bi Erriak bat dirala eta ibaia erditik dijoakila, zergaitik jendea batetik bestera igarotzeko beraren gañean dagoen zubitxoa beste ezagunarririk agirikorik arkitzen ez dan batere. Zumarraga gelditzen da eskuitara, eta ezkererontz Billa-erreal; lagatzen ere ditu bidastialdi batean eskuirontz Gabiria, Ezkioga, eta Ormaiztegi. Jarraitzen du bere joaira Azkoitira, eta Azpeitira: bi Erri oetako ordeka zelaia ureztatzen ditu murrak jotzeraño: lagatzen du ezkererontz Azkoitia, eta eskuitara Loiolako Jauregi ta Eliza andi ospatsu Erri bien bitartean dagoana: Azpeitiko Erriaren ondoan artzen ditu eskui aldetik Beizama, Urrustilla, eta Erreziltik jaxkitzen diran urak, eta oekin ioritu ta andizkaturik igarotzen da ausardia betean Lasako etxadia eskuitara utzirik, Aizarnaren auzoko txuntxur batean dagoen Erri Zestoakora, zeña inguratzen daben biribillerdiaren idurian; emendik jarraitzen du Arroako ibarrera, eta andik Iraetako etxadiara; Aizarnazabal, eta Oikiñaren gertutik igarotzen du Zumaia; eta emen egonaldi batzuk egiñaz Erri au ezkererontz, eta Getaria, ez urrun, eskuitara lagarik, Kantauriako itsaso gozoari laztantzen zaio naitasun bero bizi gartsuarekin.

Irugarren ibaia

Gipuzkoako irugarren ibaiari deitzen zaio *Oria*, zeña dan probinzia onek dituen guztietan ugaritsuena, eta joairarik luzeenekoa. Beraren jaio tokia arkitzen da aomen andiko Aitz-zulatuan, zeñari komunkiro esaten zaion San Adriango portua, beraren izeneko arkaitzaren zatia dalako; toki au dago Zegamako mugapean, Erritik legua bateko bidastian bezalatsu, eta ura jaiotzen dan tokiari esaten zaio Iturbegieta. Emendik asitzen dan ibaiari irteten zaiozka bidera Aitzgorriko aitzak botatzen dituen erreka anitz, eta oen urakin geiagotu, eta indarturik ongarrizten du egoialdetik Zegamako Erria naierara; eta bereala ifarraldera igarorik jarraitzen du



Segurako Errira; au eskuirontz, eta Zerain ta Mutiloa ezkerretara lagarik dijoala artzen du beitiago Mutiloako ibai txiki, izen bereko mendian jaiotzen dana, eta ekiten zaio bere bideari: Idiazabalko Erriaren gertura beraren ezker aldetik iristean, laztantzen zaio Erri onen erditik datorren ibai txiki izen berperekoa: andik igarotzen da Beasaingo Yarzako etxadiara, non sortaitz-aldeetik bereganatzen daben Aleriako ibarretik jaxitzen dan errekatxoa; lagatzen dituelarik ezkererontz bidasti aldi batean Astigarreta, Itxasoleorra, Arriaran, eta Gudugarreta, igarotzen da Beasaingo Erriaren eskui-aldeetik; andik laster itsasten zaiozka Aralarko mendi ospatsuan jaiotako ibai Agauntzako, Ataun eta Lazkau igarorik Olaberriko itur-urakin datorrena eskuiko aldetik, eta ezkerrekotik Mariarasko erreka pizkor Murumenditik amiltzen dana: iru Erri oek eskuitara utzirik, eta ezkererontz Billafranka, zeñaren ordeka zelaiak ureztatzen dituen, bere bide zuzenari jarraituaz naierara, iristen da Erri onen, eta Aramaren mugako Arkarte esaten zaion tokira; emen artzen du beregana Zaldibiako mugapean jaiorik Erria eskuitara utzi eta bere ogei ta bi erreka ziztorretako urakin jaxitzen zaion ibai pizkor amorraitsua; Erri au, Gainza, Alzaga, eta Arama eskuirontz lagarik igarotzen da Isasondora, eta au ezkerreko aldera utzirik, badoa Legorretan barrena Beroztegiko urak arturik Ikaztegieta; Erri oek biak eskuirontz lagarik iristen da Alegeriara, zeñaren eskuiko aldetik sartzen zaion Amezketatik datorren ibai bizitxoa. Erri au, Orendain, Baliarrain, Abalzizketa, eta Alzo biak eskuirontz lagarik igarotzen da Otsaingo errotaren ondora, non itsasten zaion Albiztur aldetik amiltzen dan ibaitxoa; bereala artzen du Iraramendiren ondoan, Araxes deitzen zaion ibai, Nafarroan jaiotzen da Lizazatik datorrena, eta emendik txit gertu, Elduain-aldeetik jaxitzen diraden urak bereganaturik, ingurutzen du Tolosako Erria Santa Mariako Eliza-nagusiaren azpiko aldetik; Erri au ondo ureztaturik igarotzen da bertako Arramelean bost arruztairekin arkitzen dan aomen andiko zupian, lagatzen ditubala eskuirontz Eldua, Elduaien, Berastegi, Lizarza, Oreja, Gaztelu, Berrobi, Leaburu, Belaunza, eta Ibarra. Tolosatik irten eta laster artzen ditu alde batetik Zuloagara eta bestetik Iturrallera eta Malakapiora amiltzen diran urak. Hernialde, Alkiza, Larraul, eta Anoeta ezkererontz, eta Irura eskuitara lagarik, joaten da Amasa Billabonakora; zeñaren sarreran itsasten zaion bertako menditik jaxitzen dan erreka, eta irteeran Asteasu aldetik datorrena; Billabona eskuitara, eta ezkererontz Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Sorabilla utzirik igarotzen da Andoaingo Santa Kruzko zubiaren ondora; non laztantzen zaion gogoz Leizarango ibai pizkor, Berastegiokarekin batean, Nafarraldetik datorrena: eta jarrai-

tzen du bere joaira Andoaingo Erria ukitzen dabela eskuitara lagarik. Ubalategiko atarian artzen du bertako itur-urakin egiñeratzen dan errekatxoa, eta igarotzen da Lasarteren erditik Zubietara; au ezkerretara utzirik badoa Usurbilko Errira, zeñetara iritsi ezkerro ugarotu leikean aixa ibai andi onetan; Erri au eskuirontz lagarik jarraitzen da Agiñagatik aurrera, ezkerretarako aldatsean Aia ikusten dabela, Orioko errira; au eskuirontz eta ezkerretara Zarauzko Erria bere Portuarekin legua erdiko bidastian utzirik sartzen da naitasun andiarekin, Kantauriako itsasoaren errai gozatsuetara.

Laugarren ibaia

Gipuzkoako laugarren ibaiari esaten zaio *Urumea*, zeña jaiotzen dan Nafarroako Erresuman Iruñaren menpean dagoen Basaburu txikiko ibarean Goizuetaren auzo-mendietan. Erri onen erditik igarotzen ta laster itsasten zaio erreka txikitxo bat; bereala irteten da Nafarroako lurretik, eta sartzen da Gipuzkoako Probintzian; Urrietako Erriari bidasti-aldi batean aldonduarik jaxitzen da Hernanira; zeñaren erribera luzeak ureztatzen dituen naierara, eta Erria ezkererontz utzirik igarotzen da Astigarragara; au eskuitara lagarik jarraitzen du bere joaira legua bateko bidastian Alzaren azpiko aldetik Loiolako etxadi andi ospatsura, non arkitzen dituen eroso Donostiako andizkiak gozotoro egurastutzeko egiñak daukaten etxe eder begitango anitz ikusgarriro apainduak, beren baratza bitore galant eta loretoiki bikain gain gañekoakin; oek guztiak naierara ongarriturik ekiten zaio bere bideari, eta azkenean, Donostiako Uriaren murrak ureztatuaz ezkererontz bera lagatzen dabela, Santa Katalinako zurezko zubi lau eun berrogei ta zortzi oñ luze, eta ogei ta sei zabal arkitzen danaren azpian igarorik, Zurreola esaten zaion atakan laztantzen zaio itsasoari amodioz leialkiro pozkida betean. Urumearen izena Euskaraz aditaratzen da bi modutara; esan nai du batera, *Ur-me*a, eta bestera, *Urre-me*a. Bigarren onen alde diraden gizonen eretxia da, ibai onek berekin eraman oi zebala *Urre-pikorta*; eta Garibay jakintsuak ere esaten dabela, ezen, aren denporan ibai onetan urrea bildu eta landu oi zutela Baionatarrak. Euskaldun kondairatzalle gogoangarri onek, Florian de Okanporekin batean sinistatzen zeban, ezik, Urumeako ibaia dala, anziñako Gauza-azaldariak beren izkribuetan izendatzen duten *Melasko*; bañan Don Pedro Santxez Nafarroako Erregeak milla eun eta batgarren urtean



Gipuzkoari emandako Gallaldi batean ikusten danaz, XIgarren eunkidan deitzen zitzaion *Urumea*. Felipe IIgarrenaren Erreinaldian asmoa artu zan ibai au Oriarekin bat egiñik Donostiatik Tolosara urezko ibilbidea ifinteko, saldu-erosiko gauzen eraman-ekarria merkeago izan zedin. Lanbide onen gañean, izen andiko Gomez de la Puerta jaunak eman zeban bere eretxia, beste lau gizon jakintik lagundurik, adierazten zebala argiroki, ezen, egitade andi au erara jarteko urean egin bear diran lan nekosoan balioak igoko zebala amabi milla dukatera. Geroztik ere itzpidi au aipatua izan zan berriro milla zazpi eun irurogei ta amabigarren urtean Hernaniko Errian Probinzia guztiarekiko Batzarrean; bañan erarik obere-nean gelditu izan zan leneko oñean.

Bostgarren ibai

Gipuzkoako bostgarren ibaiari deitzen zaio *Oiarzun*, izen onetako Erriaren mendietan jaiotzen diran itur-uretatik egiñeratzen dalako Gipuzkoaren mugapean. Mendi oetatik jatxitzen da bere Errira, eta onen ordeka zelai luzeak ondo ureztaturik bera eskuirontz lagatzen debala, igarotzen da Errenteriarra, zeñetara iritsi ezkeroztik ugarotu ditekian errazkiro; Erri au ezkererontz, eta Lezo eskuitara utzirik aurkeztutzen da Pasaiá bien erdian; non egiñeratzen deban itsas-arte bat, bai ta edozein ontzidientzako suple dan portu segurua ere; eta eskuitara lagarik San Juangoa, eta ezkererontz San Pedrokoa, menperatzen zaio itsaso andiari emekiro pozkida bete betean. Portu aomen andiko oni orain Pasaiakoa esaten zaion bezala, anziñaeran, alik eta XVgarren eunkida iritsi arte-rañoko guztian, deitu oi zitzaion *Oiarzungoa*. Batzuk ifini diote ibai oni izen berria *Lezo*, eta anziñako izkribuetan arkitzen da esaten zaiola *Lezo* baino geiagotan *Oiarzun*. Egiazki bakusku bada argi eta garbi, ibai au sortzen dala *Oiarzungo* mugapean munduaren asieratik; baita ere, bertako erribera luzeak ongarrituaz Errenteriako erribera igarorik Lezora jatxitzen dala ausarki, eta alere, ez da gauza arrigarria ibai oni ez opa izatea izen egoki gozo ain bere berekia? Beste gauza geiago ere *Oiarzungo* Erriak anziñaeran beretzat ezagutzen zitubanak, ikusten dira orain eskualdatuak bidez edo bide bage; egin izan diranak onelakoen jabe, berenak dituztelako ustean oi daude; bañan mendi ta ibaiak beti ezagungo dirade.

Seigarren ibai

Gipuzkoako seigarren eta azkenengo ibai andi zabal ioritsua da *Bidasoa*. Ibai au jaiotzen da Otanburdi, Otsondo, Ausa, Ariete, Izpegi eta Urritxikia deitzen zaioten mendi Pirineoen erroitzetan, zeintzuk ingurutzen dabeen Baztango Ibar Nafarroaren Erresumakoa. Atxuela, eta Arakan izendatzen diran mendietatik amiltzen diraden urakin loditu eta pizkortzen dabelarik bere joaira, igarotzen da ifarraldetik sartaizara, eta egiñeratzen dira bi erreka, zeintzuk banakaturik joaten diran bidasti-aldi batean ifarralde ta sortegitik sartaizara ondo ureztatuaz Maiako Erria, eta Errazu; alkarganaturik gorputz bat egiten dira gero Arizkunekin Azpilkuetaren bitartean; au eskuitara, eta hura ezkererontz gelditzen dirala. Baztango Ibarrean bertako Erri batzuk ezker eskui laga eta beste zenbaiten erditik igaroaz batetik bestera jira-bira dabillen bitartean deitzen zaio *Baztan-zubi*; Askapeko eztarrian estututzen da anitz, Oronoza iritsi baino lenago, zeña lagatzen daben ezkererontz. Ernazabal, Arzesia, eta Belateko urakin ioritzen da galanki; eta erreka oetatik egiñeratzen dira bi ibai; zeintzuk, Irurita eta Almandoz igarorik batutzen diraden alkargana Zariaiako zubian, Oronoz baino beitiago Mugariko landetxan, Baztango eta Bertizarango muga bi ibarretakoak Baztan-zubirekin berezitzen diran tokian; andik badoa, Reparazeako Jauregiaren ondora; emen artzen ditu indar berriak ugari, eta igarotzen da bertan daukan arrizko zubiaren azpian, nondik asitzen zaion *Bidasoaren* izena, Bertizko Erriarekin mugatzen diraden mendiak izen berperekoak direalako; jarraitzen du San Esteban Leringoaren ibarrera, eta emen, bost Erri menditarretatik datozen erreka pizkorrak bereganaturik loditu eta ibai zabal andi egiñik sartzen da Gipuzkoan, Endarlasa igarotzen dabela. Iristen da Irun aranzungo Errira, zeña lagatzen deban ezkererontz, Nanderran ugarte ospatsua egiñeratzen dan tokitik ez urrun; eta jarraitzen du bere joaira Gipuzkoako Probinzia, eta Franziaiko Erresuma berezitzen dituela argi eta garbi, bere ur iori oparoakin. Geroenean, Ondarribiako Uria ezkererontz, eta Endaiakoa eskuitara utzirik, Olearsoko Munoaren ondoan, edo Higerren bukaeran sartzen da Kantauriako itsaso indartsuaren bizi-leku zabalera, atsegintasun ezin andiagokoa. Bidasoak esan nai du Euskaraz, bide Oeaso, edo Olearsorakoa. Ondarribiako mendia, eta Higerko Gaztelua izen onekin bakarrik ezagutzen dira denporarik anziñakoenetik gaurko-egunerañokoa Errian eta Erbesteetan, bertako jaiotarrak itzez eta Kondairatzalle arrotzak izkribuz; ikusten dalako millaka urteak igaro



arren argi eta garbi, ibai au datorrela beti bere bide zuzen jakiñean euretarontz. Egia onen sinitspen osoa artu nai debanak begiratzea dauka Iruñeko Apaizaitagoaren mugaak erabakitzeko Errege Don Santxo Andienak agindurik, milla ogei ta zazpigarren urtean egindako argibide ospatsu Sandobal, eta Moretek azaldutakoa;

non ikusiko daben argiroki, dagoela ezarria *Bidasoa* bere ezagugarri guztiakin, garbiro eta zuzen. Ibai au anziñaeran Españarena zan guztia osoturo, esaten duten bezala egiazki, Gipuzkoako gordeleku zuzenean topatzen diraden argibide eta sinitsgai asko ta askok. Probinziak luzaro eutsi izan zion bere eskubideari irme ta sendoki; bañan nork esan nolako jazarra gogor eta auzi aserretsuak egin izan zituen Urtubiako Etxejaun andi, eta Endaiaiko Erriaren asmo biurri kaltarkitsuen kontra? Despita amorruzko oen bidez gertatu izaten ziran sarrero odolgirozko eriotza izugarriak, errazoiak baino indarrak geiago agintzen zeban era ta tokietan. Alde askotatik dakigu bada seguru Españak beretzat ezagutu ez ezik, berak bakarrik gozatu ere oi zebala Bidasoako ibaia. Gaztelako Errege Enrique IVgarrena, eta Franziaiko Luis XIgarrengo milla lau eun, irurogei ta irugarren urtean adiskidetasun andian alkar ikustera eta beren ixil gauzak bata besteari adieraztera etorri izan ziran Ibai onetara, Erresuma andi bien mugakoa dan bezala; eta emen beren gozarotsuko egon-aldian pozkidaz beterik jostaldiatzen gabarrarekin urean arontz onontz zebiltzala gertatu zan itzpide gogoangarri bat. Bein batean Errege biak Franziaiko alderontz ibaian zijoatzela leorrera irteteko denporan, Gaztelakoak oñ bata gabarran eta bestea Franziaiko ur bazterrean jarria zeukala esan zion, ezik, *nerre lurrean nago oraindik*. Eta autortu zion Luisek egia zala. Errege bi oen arteko itzaldi gozo begiramen andiko au adierazten du garbiro Garibay jakintsuak.

Ibai onen jabetasunaren gañean sarrero gertatu oi ziran eztabaida guztiak beingoan betiko bukatzeagaitik, Errege fededun biak eginkizun andi oni zegozkion eskubideak emanik, izendatuak izan ziran erabakitzalle, Españakoagandik Lizenziadu Kristobal de Akuña Gaztelako batzarrekoa, eta Franzisko Tellez de Ontiberos Korrejidore Gipuzkoakoa; eta Franziaikoagandik Maestre Modot de la Martonie Burdeosko Dianagusia, eta Gillermo de La-Dux Baionako ule-kontu eskatzallearen ordekoa. Lau gizon eldu itzal andiko oek alkarren artean ondo baiendurik eman zuten beren epaia milla bosteun eta amargarren urtean Done Juango Errian adierazten zutelarik inkimako bage zuzen ta garbi, ezen, Portua eta Bidasoako ibaia, beraren urak, Franzia aldeko bazterrean ukitzen zuten mugape guztiarekin izan zitezela lenago ziraden bezala aurrera ere beti

Ondarribiako Erriaren menpekoak. Erabaki ospatsu gogoangarri au ondo egiaztua eta zuzenkiro gordea izan zan urte askoan txit. Gipuzkoako Korrejidorea, Ondarribiko Alkatea, eta Probinzia bere Batzar guztiakikoan autaturik, kanpora ateratzeko gauzen kontu-artzalle Irun aranzungo Errian ifinten deban Buruzaria, beren agintaritzako zigor jasoakin ibilli oi ziran ibai onek Franziaiko aldetik daukan joaira guztian; eta Gipuzkoako Eskribauak ere ur onen alde artako bazterrean egiñaturik sinitsgarrirrotu oi zituzten beren langintzari zegozkion agerkai eta argibide guztiak.

Orra zer eskubide andi ta gozoak
Lenago oi zituen Ama Gipuzkoak;
Maitaro izan ziran gorde ta jasoak,
Bizi ziran denporan gure Gurasoak.



BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*Gipuzkoako Baso zabal andi eta zuaitz lirain galanten barri
zuzen egiazkoa.*

Gipuzkoako mugape guztia da, baso edo oian galant begitango anitzekin osotoro josia, eta zuaitz mardul lirainaz ondo janzia. Berenez jaio ta aziak dira ugaritsuenak, bikañenak, eta baliorik andienekoak. Probinzia onetako lurrak bere grinaz ematen dituen zuaitzik ezagutuenak dira Aretxa, Pagoa, Artea, Zumarra, Agiña, Lizarra, Ametza, Elorria, Alza, Gorostia, Urritza, Lertxuna, Zumalikarra, Ezkia, Astigarra, Makala, Ostaturia, Kurkutxa, Intxusa, Ezkerraina, Likabra, Erika, Elotriska, Itsasa, Zurbeltxa, Artanozka, Gurpitxa, Zamandorra, Maalza, Otea, Sosatsa, Zumea, Zaika, Aiena, Nekosta, Arantza beltza, Arantz-zuria, Arkasatza, Txillarra, Erramua, Ziga, Ezpela, Gañabera, Kotala, Udalatxa, Zurikotxa, Friskua, Ziurza, Lekeltorra, Biñorria, Karraska, Urkia, Otsalzarra...

Izendatu ditudan zuaitz oen artean ugaritsuenak, bikañenak, eta ondasunik geiena ematen dutenak dira Aretxa ta Pagoa; zeintzuk izan oi duten jaso andia txit lanbide askotarako, eta batez ere itsasoz ibilteko nai ta nai ez bear diraden ontzidiak, arraunak, eta pipa-olak egiteko. Probinzia onetako barri ez dakienari ezda erraz buruan sar-eragiten, zenbat eta nolako zubage eder lirain galantak ateratzen diran baso edo oian oetatik kanpo-errietarako; eta oraindik are nekezagoa da, ikatz-gai, eta ezkurrarekin ematen duten aberastasuna zenbaterainokoa dan, bear bezala adieraztea. Guztiaz ere azalduko ditut agirieneko banaka batzuk, erdizka motzka bederik, Gipuzkoaren ondrarako, eta Erbestekoen adigarri.

Nere eskeñi oparo au enzutean izan leike nor edo nor esango dabe-na, ezik, zer bada? Gipuzkoako zuaitzen errazoi egiazkoa ez da arkitzen zearo eta garbiroki ezarria Españako Itztegi Kondairazko ta Luzeazaltar Nafarroako Erresuma eta iru Probinzia Euskaldunak aditaratzen dituen izkribu gogoangarri aomen andikoan? Egia da izendatuak daudela toki berperean, Gipuzkoaren mugape guztian zenbat zuaitz, zer gisa ta sasoi-takoak arkitzen diraden, bakotxa bere eran egoki ifiniak; bañan guztiz daude utsaldi andiak jarriak, laster ikusiko dituzuten bezala.

Gipuzkoako baso maitagarriak nolako ondasunak eman izan dituzten ezagunmendura etorzeko, agirian dauzkagu egiazko sinistgai asko ta

asko; oetako bat ezagungarriena da Probinzia labur onen mugapean zenbat onzitegi, non ta nola eta noiztik nora ezagutzen diraden jakitea. Beragaitik izendatuko ditut emen denporarik anziñakoenetik gaurko eguneraño Gipuzkoan ezagutu izan diran onzitegiak.

Irun aranzungo Errian ezagutu izan da onzitegi ospatsua, eta gaur ere izen onekin deitzen zaio toki berari.

Erreterian baziran iru onzitegi gain gañekoak, beti lanbide artan ziardutenak Erregerentzat eta Merkatarientzako; non egin oi zituzten laurogei toneladakoak asko ta asko. Denpora aetan izanik saldu eresia aña baliosoa eta oneretsua baziran Erri onetan eta beraren auzo inguruan bi milla ta geiago itsasgizon ugarotariak. Egia garbiro onen argibide sinistgaituak gordetzen dira Erreteriarako erriaren gordeleku zuzenean.

Lezoko Erriari arkitzen zitzaiolako toki zabal eroso lanbide onetarako, milla bosteun, laurogei ta amazapigarren urtean Errege Jaunak agindu zeban, ezik, ifini zitezela bertan onzitegiak: eta emen milla sei eun, eta bederatzigarren urtean egin izan zuten, arako, aomen andiko ontzi *La Capitana del Oceano* deitu izan zitzaiona; bai ta beste amabost ontzi andi ere gelditu bagetanik bereala.

Pasaia bietako onzitegietan egin izan dirala ontzi andi ospatsu anitz, badaki mundu guztiak. Milla sei eun eta irurogeigarren urtean Pasaian egiña zan, Europa guztian ondo ezaguna izan zan *La Capitana Real* milla bost eun ogei ta bi toneladako; eta au ikustera etorri izan zan Felipe IVgarrena Madriletik beste eginkizunik bage. Erri onetako onzitegien artean bat esleitua zan, Pilipinasko merkataritzak bear zituen ontziak egiteko bere gain zeukana.

Donostiako Santa Katalinan eta inguruko ondartzetan ezagutu izan dira onzitegi ospatsuak, esaten ere duten bezala garbiroki, anziñerako argibide askok, eta batez ere Erregiña Doña Juanak milla bost eun ogei ta amalagarren urtean emandako txartel batek. Jorge Barraunen izkribuan arkitzen dan Donostiaren andigarri milla bost eun irurogei ta amaseigarren urtean moldizkidatuak ere adierazten du garbiro, nola Uri onen ikuskeran gertu txit ari oi zerala ontziak egiten. Milla sei eun berrogei ta amar urte inguruan baziran onzitegiak Ergobiako zubiaren aldetxoan, Urumeako ibai bazter, Donostiarekin Hernani eta Astigarraga mugatzen diraden tokian. Denpora aetarako geiegia zan Donostiako inguruan egin ta prestatzen zituzten ontzidi andien kopurua; zortzi eun tonelada, eta bederlatzi eunekoak ere egin oi ziran asko. Felipe IIIgarrena eta bere Alaba maite Doña Ana Franziko Erregiña begira arkitzen zerala bota izan zan urtara, *Santa Ana* deitzen zitzaion Almirante andi ospatsua; zeña-



ri Erregiña gogoangarri onek ifini zion izen bere bereki au milla sei eun eta amabostgarren urtean. Europa guztian aomen andikoa izandu dan ontzi oroitpengarri onen barriak emango ditut zearo, garbi eta zuzenkiro, Gipuzkoatarrak itsasoz egindako guda gogor portitzen azaldurako Kapituluian.

Usurbilko Agiñagan beti ezagutzen dira bi onzitegi zabal eroxoak, zeintzuetan egiten diraden ontzi eder ibilte andiko guztiz naierarakoak.

Orioko Erriaren gordeleku zuzenean arkitzen dira argibide egiazkoak, esaten dutenak, ezen, bertako kaia izanik aiñ era onekoa, bazirala onzitegi egokitsuak, eta egin oi zirala oetan, Erregeren izeneko ontzidi andi gudarakoak eta merkataritzarakoak txit asko, bai ta zillarbizitarakoak ere.

Zarauzko Erriari Txiliku esaten zaion tokitik *Mirador* izendatzen dan etxearen inguru bitartean baziran onzitegiak, lan asko egiten zutenak; nondik irten oi ziran ontzi andiak, bitarteak, eta txikiak naroro; bai ta iñoiz sei eun toneladakoak ere pleitarako.

Debako Erriak ere bazituen anziñacera onzitegiak, bere izeneko ibaiaren bazterrean; zeintzuetan egin oi ziran ontzidi andi asko, egia onen argibide anitzek adierazten duten bezala garbiroki.

Gipuzkoaz landara beste Probinzia batean, eta toki aiñ laburrean non topatuko lirake ainbeste onzitegi, nola nik emen izendatu ditudan? Eta zein lekutan egin izan dira beretan ainbat ontzidi eder galant ospatsu, guztiak erri-barruko gaiakin, eta bertako jaiotarren eskuz? Lanbide onetan Gipuzkoari alderatuko zaionik izango ere ez dala uste det nik. Eta Probinzia onetako mugapean egin izan diran ontzidi andiaz gañera nork daki zenbat zubage lodi lirain eraman izan dituzten Gipuzkoako baso aberatsetatik Santander, Ferrol, Koruña, eta beste tokietara ontzigitako? Eta oen ostean zenbat pipol, arraun, allere, barrika ta tonel landuak eta landubagekoak igorritzen dira Erbeste urrunekoetara ontziak betean? Ez da asmatzen erraz! Zertxobait badira beraz!

Kanpoetara biraltzen diran zubage oen guztien balioa deus ez da Errirako ematen dituzten ondasunen aldean. Zerekin berdintzen dira, bada, baso maitagarri oetatik ateratzen direan ontzidi ta etxegintzako zubage eder galant, ol zabal piñ, Elizaetarako abe luze kateatu, dolareetako ardatz liraiñ portitz, olaetan bear diran gabi lodi indartsu, ikatz-gai balioso, karobi egur iori, ezkur gozo, ostu berde, orbel igar, eta beste etekiñ geiago? Beren aberatstasuna zenbaterañokoa dan ondo jakiteko, ifini-kotitut ezagungarri banaka batzuk agiri agirian.

Laurogei eta amasei ola bezalatsu kontatzen dira gaurko egunean ere Gipuzkoan, eta lenago askoz geiago. Oetako bakotzak naiko ura dabela,

egingo ditu astean berrogei ta amar kintal burni seiña arrobakoak; eta kintal burnia ateratzeko bear dira bost zama ikatz gitxi gora beera. Burniola oezaz landara badira Gipuzkoan laureun, berrogei ta amar sutegei bezalatsu, nekazari lanerako ermentari, perragin, iltzegille, txispagin, ainguragille, eta gudarako iskillu mueta guztietakoak egiten ari direanenak; sutegei oetako bakotzak bear du lan-egun guztietan zama ta lauren ikatz. Nekazaritza zerbait ondoto darabilletakorik txit gitxi izango da Gipuzkoan, urtean karobi bat txiki edo andi egosiko ez debanik, berak darabiltzan lurak gurietzeko; badira biña ta iruna egiten dituztenak ere, beren alorrak ongarritu eta gañerontzekoak saltzeko. Tella, kisu, eta auski erretzen ere egur asko esekutatzen da Gipuzkoan. Sukaldeetan desegintzen danaz ez dago zer esanik batere; zergaitik, Probinzia onetan sarririo igarotako gizon andizki arrotz askok autortu izan duten garbiro, ezen, neguaren biotzean Gipuzkoako ostatu garbi txukunetan egiten diran sualdi galanten ondoan artzen diraden gozaldi oso beteak, ez dirala pagatzen diruz. Orra zenbaterañoko ikatz ta egurtzak esekutatzen diran Probinzia labur onetan. Guztiaz ere, beraren mugapeko Erririk geienetan erosten da amabi erreali dagokala zama ikatza, eta oni dagokion moduan egurra.

Nere irakurle Euskaldun prestuai adierazo nai izan diotet gitxi gora beera, Gipuzkoan zenbat ola diran; oetako bakotzak naiko ura dabela zenbat burni dagikean: kintal burnia ateratzeko zenbat ikatz bear dan; Ermentari sutegetan zenbat bezalatsu erretzen dan; karobi, arrao, tella, auski eta kisu egosten, nolako egurtzak esekutatzen diraden: eta su-gai oen balioa noraño igotzen dan. Eta zeren bidez jarri dedan au guzia, berealaixen dezute ikusia.

Milla, zortzieun, ogei ta amargarren urtean Barzelonan moldizkidatutako Itztegi Luzeazaltar mundu osoarekikoaren laugarren liburuan, irureun, irurogei ta amargarren orrikatik aurrera, Gipuzkoako burnigintzaz itzegitean esaten ditu itz oek.

«Lurbira meatzeak ematen du gaiñ gañeko doaia daben burnia naiko guztia, baldin gai guztiak balirake bear ainbat, *besoz, egurrez, olaz, eta uzearlez*; meatze oetako menasta izanik aiñ gozatsua, eskillosa mueta guztietarako da arras egokia; bañan urte oro ateratzen dan burniaren pisu guztia dator izatera, 233.200 arroba».



Itztegi aomen andiko artan Kapitulu au irakorten dabeenak, sinisturik egongo dira uste oso betean, ezik, beso, egur, ola, eta uzearleen bage-tasunen bidez ez dala Gipuzkoan egiten burni geiago. Nork ezagutu ote du bada Probinzia au azal ta barru, esateko aïñ biribilki, ezen, bertako mugapean burnigintzarako ikusten dala, izendatuak dauden lau gauzen bage-tasuna? Baneuka arterañoiko bizia ta osasuna. Ha zer ondasuna! Eta suertez ere ez ote da urte osoan egiten Gipuzkoako ola guztietan ogeita emezortzi milla, zortzi eun, irurogei ta sei kintal eta lau arroba burni baizik? Gañerontzekoak baneukazki! ez nengoke gaizki! Paperetan ifinten da bost onelako; bai ta sinistu ere egiak diralako; ordean Gipuzkoan lanbide onetarako, badira beso, egur, ola eta urontziak franko.

Aipatu dedan Itztegi ospatsu onek badakartzi Gipuzkoako Kapituluau beste gauza geiago ere, egiakoak ez diran moldakaitz itxura bageak, zeintzuk azalduko ditudan bakotxa bere leku egokian; eta bitartean jarraitu bear diot asitako sallari, zeña dan Gipuzkoako baso edo oia-nen aberatstasuna argitaratzea. Onetarako ekin bear natzaio beste Itztegi bati; ikusiko dezute zergati.

Milla zortzi eun eta bigarren urtean, Madrilleko Ikasola Erregezkoak argitaratu izan zeban Itztegi Luzeazaltar Kondairazko Nafarroa eta iru Probinzia Euskaldun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa aditaratzen dituanaren lenengo liburuan, Gipuzkoako Kapituluau, irureun ogei ta zortzigarren orrikan dago ezarria, Probinzia onetako zuaiz guztien errazoia, zar ta gazte, txiki ta andi, bañan ez ongi.

Ara emen garbiro Itztegi aipatu dedanak toki berean ematen daben errazoiaren zati bat, akastuna dala edozeñek dakiena.

Alamos

Jóvenes: 102

Sazonados y viejos: 196

298

Olmos

Jóvenes: 92

Sazonados y viejos: 608

700

Alisos y chopos

Jóvenes: 71

Sazonados y viejos: 128

Beraz, Gipuzkoako mugape osoan arkitzen diran Ezkiak, zar ta gazte eta sasoiko guztiak 298 baizik ez dira. Kontatzallea nora ote zegoen begira? Joan izan balitz Aralarko mendira, arkituko zituen bertan nork daki zenbat milla? Usterik gitxienean agertzen da gauza moldakaitzki egiña!

Zumarrak, gazte, sasoiko eta zarrak 700 bakarrak direala Gipuzkoako mugape guzian, sinistuko daben gizonik ez da nere iritzian.

Eta 199 baizik ez Ostotxuri eta Alzak. Orra nolako gauzak, leunak diralako ustean latzak, ifinten diran inoiz paperetan; bañan nork ez daki mene-menetan, ugariagorik badala Gipuzkoako erreka bazterretan?

Izendatu dedan liburu andi artan Gipuzkoa guztirako jarriak dauden Ezki, Zumar, Ostotxuri, eta Alzak baino askoz ta askoz geiago, beren mugape bakarretan dauzkaten baserri-etxeak izango dira Probinzia onetan, gitxienez laureun edo bost eun. Desberdintasun aïñ andi egiaren antzik ere bageko au, mundu osoaren aotan ibiltea, mingarri ez ezik lotsagarri ere da Gipuzkoako baso ospatsu aberatsentzako.

Itztegi beraren irureun, ogei ta zazpigarrengo orrikan bukaeran arkitzen dira itz oek.

«Mendi batzu dira alako ditxakikoak, ezen, berak bere-
nez ematen dituzte zugazti andiak, gertatzen dan beza-
la Gatzagako Errian, Lenizko ibar errealean, eta
Hernioko mendietan».

Kapitulu au egiñeratu zebanak etzekien ondo, nere ustez, Gipuzkoako basoen barri. Baldin jakin izan balu bada zergatik bear zituen utzi aipatu bage txokoan Aralar mendiko baso andiak, Errenteriako Erriarenak, eta beste geiago, Probinzia onetako mugapean diraden ugarrienak, oberenak, andienak, eta aberatstasunik geiena eman izan dabeenak? Zer dute bada zer ikusi oen aldean Gatzagako, Lenizko, eta Hernio-mendikoak? Ez gauza andirik! Edozeñek daki bada, gisa onetako Kondaira bat azaldu bear danean, gauzarik begitangoenak lenengo mallan jarri oi dirala, bañan Gipuzkoako basoen Kapituluau ez da ikusten ala.

Ez det esaten nik, ez eta esan nai ere, Gatzagako mugapea, Lenizko Ibarra eta Hernioko mendia ez daudela zuaizte ondo janziak, baizikan, badirala Gipuzkoan baso ugariagoakiko tokiak, kondaira andi ark izenda-



tzen ez dituanak. Egia garbi onen argibiderako ifiniko ditut bertan eza-gungarri agirikoak.

Milla zazpi eun laurogei ta amabigarren urte inguruan saldu izan ziran beingoan Aralar-mendiko basoetatik, bederlatzi eun milla zama ikatzen gaiak, bakotxa zortzi marabedi ta erdiren balioan, zeñean zetorren erreal bat lau zamarentzako. Beretatik atera izan zan diru andi onen bidez ixildu ziran Amezketakoko Erriaren kontra Unioko beste amairuak, bost eun ta geiago urtean zerabiltzaten auzi ots andiko kaltarkitsu guztiak. Mendi onetan egon izandu naiz eguzkiak argi egiten dabela egunaren erdian basora sarturik gora begira jarri arren, zerurik eta odeirik agiri ez dala zuaitzen ugaritasunaren bidez. Ikusi izan det bertan aretxa, bost gizon-ek eskuak alkarri eman eta besoak zabaldurik, beraren gerriko loditasuna ezin iritsi dutela. Beste onelako bat, edo are geiagokoa ezagutu izan neban Elgetako Erriaren mugapean. Aretx onen barruan zeukaten arizko mai andi bat jarria, Erriko Buruzari ta andizkiak egurastu nai zutenean bera zegoen tokira joanik, alkarrekin atsegintasun andian bazkari gozortsuak egiteko. Mai ikusgarri oni begira nengoela esan izan zidaten bertako jaun prestu bik, ezen, jan aldi bakotxean amabi lagun kabitzen zireala bertan, lasaitasun andian eseririk naierara, eta iñoiz bai amasei ere.

Don Pedro Manuel Ugartemendiako Maisu andi jakintsuak, beinbatean Gipuzkoako basoaz itzegiten biok geundela kontatu zidan, ezik, nola bere eginkizun baten bidez izan zeban milla zortzi eun eta amalaugarren urtean, Errenteriako Erriaren basoetara joan bearra; eta beretan arkitu zituela, orduraño iñon ere ikusi ez bezalako zugaztiak. Beragaitik, edertasun aiñ zoragarriari begiratu izan ziola arreta andiarekin txit gogoz, eta bere iritzian bazerizkiola, baso aetan arkitu zituen zuaitz eldutakoakin bakarrik egin zitezkeala zortzi eun ontzi andienetakoak.

*Gipuzkoan arkitzen diraden basoak,
Ugariak dira txit, eta erosoak;
Emango lituzkete ondasun gozoak,
Baldin bear bezala balende jasoak.*

AMARGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako mugapean bildu oi diran garauen errazoi.

Probinzia onetako lurra ematen dituen garaurik ezagungarrienak dira Gaztaña, Sagarra, Matsa, Intxaurra, Udarea, Gerizia, Ginga, Arana, Muxika, Albertxigua, Pikua, Urra, Mizpira, Irasagarra, Masusta, Baixakarana, Zidroña, Larantía, Almendrua, Mingrana, Marrubi, Ziza, Onto, Amoroto, Gidelurdin, Gidelori, Zizori, Zizgorri, eta ezkur mueta balioso anitz.

Garau maitagarri oen artean ugariena ematen dabeenak eta baliorik geienekoak dira Gaztaña, Sagarra, Intxaurra eta Ezkurra. Ikusten da bada argiroki, Tolosaz beerontzeko Erri eta itsasbatterrekoetan sagarra ta matsa biltzen dala ioriago, goierritan baino; eta oetan gaztaña ta intxaurra askoz geiago, aetako aldean. Eta baldin galdetzen bazaiote bi aldeetako nekazariai, desberdintza au zeren bidez datorren, erantzungo dute itzetik ortzera itxu itxuan, ezik, lurraren berezko griñatik datorrela, eta ez beste-tatik; bañan badu onek zer ikusi, abuntun itzegin bagetanik.

Goi-errietako lurra aiñ ondo ematen dituzte sagar guri mardulakin mats ezadetsu gozoak, nola bealdekoak; baita oetakoak ere, aetakoak bezin gaztaña galant biguñak eta intxaur pin mamitsuak. Beraz etzaiote bear atxakia egotzi lurrai, zergaitik ez diran artarako gai; bañan beste gauzaren bati bai; esango dizutet jakin nai dezutenai.

Begiratzea dago bada Goi-erriko Etxalde Purubetar anziñakoetara, eta ez da arkituko bat bakarra ere, bere dolare eder galant erazkoak ez dauzkanik. Gauza jakiña eta sinistgarria da, bada, dolare oek dirala ifiniak noizbaiten ere, sagardoak egiteko; eta edari gozo osasungille au egin oi zala iori anziñaceran Gipuzkoako Erri guztietan. Egia ziertoro onen sinist-penerako ifiniko dizutet begien aurrean argiro, gure Ama maite maitagarri Gipuzkoak bere lege zarretako liburu gogoangarrian XXIgarren tituluko kapitulu lenbizikoan jakintsuro ezarria daukan Erabaki zuzen bidezkoa.

«Probinzia onen Erri guztietako sagastien kopurua izanik aiñ andia beraren zumua sagardotara biurtzeko, zeña saldutzen dan euretan, bertako etxetar geienen bizikaitzat, eta sagardo edari au bere izatez dalako indar gitxi-koa, urik egotzen etzaiola ere, eta onek kemen bagetu-



rik maluskatzen dabelako; begiraturik ondo, sagasti jabeen gutziak kaltarkitu ez dezan, sagardo edarira jarriak dauden guztien ona, ur asko edo gitxi ezarriaz, zeñaren gañean ezin izan leikean neurri zuzenik, jabeak asmo garbiarekin egin nai baluteke ere. Agintzen eta erabakitzen degu, ezen, orain ta beti gaurtik aurrera iñork ere Probinzia onetako biztanle eta ez etxetarrek ezdegiola egotzi urik saltzeko egiten dan sagardoari, lagatzen zaiola eskubidea nork bere etxean morroi, neskame ta osterontzeko etxetarakin edan bear dabena nai debana egiteko, sei milla marabediren nekepean bakotzak, eta gañera izango dabela galdua, ura emanik saltzen daukan sagardoa; zeintzuben iru zatietatik bat emango zaion Erregeren Ganbarari, beste zatia salatzalleari, eta irugarrena epaia ematen deban Ekadoiari: eta Probinziako Alkateak, Batzartarrak, eta Auzoak onela bete-erazorik gorde-eragin dezatela zuzenki; eta Agintari ta Buruzariak jarri ditzatela berpeltatik aginde oek bear dan bide zuzen egokian irozotzeko moduan, ogei dukaten nekepean, baldin iñor zabartzen bada, lenago esan dan gisan irunaka zatiak ematen dirala».

Begien aurrean dakusku bada argiroki sagardo on txauak egin oi zirala Gipuzkoako Erri guztietan; ez alere bertarako lainbat a-ten konten, baizikan, kanpoetara ere biraltzen zirala, eta Erbesteetatik onera ekartea eragozten zala. Itzbide oni dagokion argibide bat ezarriko det emen, aipatu dedan liburu Gipuzkoaren lege-zarretakoan arkitzen dana.

«Probinziako mugapeko sagarrakin egiña ez dan sagardorik, ezin bertara ekarri diteke saltzeko, emengo garauakin egiña, kanpora ematea zillegi bada ere». Tit. 21. Cap. 2. pag. 269. c. 2

Badakigu bada ziertoro, Probinzia onetatik eraman oi zituztela sagardotza andiak Erbeste urrunekoetara ere; Franzian eta beste toki askotan egiten dituztenak baiño bitoreagoak diradelako. Ameriketatik ere eskatu izan dute iñoiz edari garbi gozo osasungille au, non oi daukaten gaiñ gañekotzat.

Gipuzkoatarrak beren ontzi andiak irten oi zireanean Terranoba eta Groelandiara baleak arrapatzera, eraman oi zituzten sagardotza andiak, arraintza mueta onetara zijoatzenen ornidurarako, zeñaren bidez aserre andiak, eta leia gogorrak izan oi ziran Franzia Euskaldun Labortarrakin Gipuzkoatarren artean. Milla seieun, eta amabostgarren urtean, bale arrapatzera joan ziradenetik etorri bitartean arraintzale oek bakarrik edan izan zituzten iru milla, seieun, laurogei barrika sagardo bakotxa iruna zamakoak.

Izendatu ditudan denpora joanetan Gipuzkoako sagardoaren ugaritasuna aiñ andia bazan ere, egia da bi, edo iru gizaldi oetan sagardogitea arras lagatua egondu dala Tolosaz goitiko Errietan; zeñaren bidez dirutza andiak balio izan dituen sagarrak bealdean aspaldiko urteetan. Bañan orain Goierriko nekazariak sagardoaren balio andiaz (noizbaiten ere bear da), oarketurik, ekin zaiozka berriro sagastiak ifinteari; eta baldin ogei urtez onontz ari diraden bezalako gogoarekin aurrera jarraitzen badiote lanbide oni, denpora gitxiren epean ikusiko dira Gipuzkoako aldats, aitzarte, eta lur arro guztiak sagastiz beteak. Eta orduan zer gertatuko da? Lenago ikusi izan dana berpera.

Gauza jakiña eta egiazkoa da txit, Erri txiki sakabanatuetakoa sagarjabeak ezin baliatuko dirala beren sagar ta sagardoaz, Erri bildu andiak gertuan dauzkatenetakoak bezala. Ara zergaitik eta zeren bidez.

Erri andien inguruko nekazariak beren etxetako dolareetan edariak egiñik eramaten dituzte erostunetara, nork bere abelgorrikin txolarteetan lanik galdu bage, eta baliorik goienengoan emateaz gañera, gelditzen zaio te etxean pats gutzia doarik, abereak negu beltzean naicrara bazkatzeko. Bañan goialdeko Erri txiki barraiatuetan ez dago onelako ditxarrik, zergaitik eraman bear duten sagarra osorik, eta bide luzean Erri andietara, baldin dirutuko badute, eta geienak besteren abelgorri alogerakoetan. Modu onetan saldutzen dan sagardoaren balioa, orain diru asko egiten daben denporan zertxobait izan arren, ugaritasunak merkatzera dakarrenean, utsera biurtzen da Goierriko sagar-jabeetara iritsi orduko. Eta baldin beren Errietan sagardoak egiteko asmoa artzen badute, bealdean bezala, are gaizkiago irtengo zaio te askoz ere. Esango det nola.

Edari maitagarri onekin ondo baliatzeko gauzarik bearrena da upela asi, eta bereala saltzea: bestela galdurik gelditzen da gutzia. Bertako jaiotarrak besterik ez dabillen Erri txiki batean nola saldu al diteke, bada, goizetik arratsera ez ezik, aste bat, bi, iru ta lauean ere upela sagardoa? Iñork ezin uka dezake bada bide onez, zergaitik dan gauza jakiña, guztiak ekiten zaiozkan lanbideak laka gutxi eman oi dabela. Bada auxen berpera



gertatu izan zala uste det nik, Goierrietan sagardoak egiteari lagatu zioten denporan.

Badira zenbait txoriburu uste dutenak, ezik, Tolosaz beetiko Erri, sagardo anitz orain egiten dituztenak idurikatzen asi dirala Goierritarrak. Ezda ordea ori egia, ez egiaren antzekoa ere; zergaitik goialdeko Erri txiki mendi-ondoetakoak askoz lenagokoak diraden, bealdeko Erri bildu andiak baino. Oen izenik ere inork etzekien denporan, egin oi ziran sagardoak aetan, eta berai ikasia dute langintza zorioneko au, zeñari zor dioten bealdeko nekazariak beren izate guztia. Milla zortzi eun ogei ta amabigarren urtean, Donostiako baserri-etxe Goiatz-txiki deitzen zaionaren mugapean golde bat lur betebageko tokian badakit bildu izan zirala laurogei sagar ondozkotatik, laurogei ta bi zama sagardoren gaiak, eta oek saldu izan zirala zama bakotxa berrogei ta amabi errealean balioan, zeintzuk dakarten lau milla berreun irurogei ta lau erreal. Golde bat lur bete bageko alorrean, eta neke geiago egin bagetanik, atxurkintzan diarduanik, ez maizter eta Etxe-jaunik, ainbeste diru artu izan dabenik, inon ere dela ez det uste nik.

Goialdeko Erri txiki sakabanatuetan asi dira egiten bealdeko sagardorik oberenai ezer ere zor ez diotenak, edo geiagokoak. Ormaiztegiko Errian bertako sagarrakin Don Martin Etxezarretakoak beren etxean egindako sagardoa ikusi det Bitoriako kafean, iru txikiko bonbilla zazpi errealean saltzen. Jaun prestu oni eskatu izan niozkan sagardo beretik bi bonbilla Donostian bizi nintzala bertako iru edo lau andizkiri erakustea-gatik; egin ziran mesede biraltzeaz, eta arriturik gelditu izan ziran frogatu zutenak beraren indar eta gozotasunaz.

Maietarako jan sagarrak ere badira Gipuzkoan, beste lekuetan eza-gutzen ez dituzten gisakoak. Oetako bati deitzaio, Panpanduja, zeñak deabal aixal mea, mami guria, eta jate gozarotsua txit; bai ta usteldu bage egoteko iraupen luzekoa ere, eta beragandik zabaltzen dan urriñ gozoak ez du minberatzen burua, geza-gozoen geiegiak bezala. Sagar mueta oek, eta beste aixal medun asko goierrietakoak ez dira aiñ ustelkorrak, nola bealdekoak. Urte osoan, eta bian ere irauten duten sagar mueta anitz nekez biribillaturik ifini ditu Don Joakin Aldamarko jaunak bere mugape zabaletan ugari txit, zeintzuk daukaten jaso andia maietarako. Sagar oei izena jarri zaiote, *Aldamar-sagarrak*: beretakorik gitxi agertzen da merkatu agirikoetara, Garaizuma sartu arteraño; eta nola denpora artarako osterrontzekoen geienak usteldu oi diran, Aldamar-sagarrak orduan datoz plazara guztiz ezadetsu eta guri guri sasoirik oberenekoak. Uste det bada, ezen, urte gitxi barru zabalduko dala Gipuzkoako Erri guztietara sagar

mueta piñ, gozo, iraunkor oen txertakera, zeñaren bidez urte osoan izan-gu ditugun iori sagar eder bikain mamitsuak.

*Aberatsak dira ta gozatsu eztiak
Gipuzkoan arkitzen diran sagastiak;
Gure asaba onak oparo utziak,
Arras maitagarriak dirade guztiak.*

Matsaren doaiak

Gipuzkoaren mugapeko lurak matsarentzako aiñ onak dira, nola sagarrarentzat. Argibide gogoangarri askotan arkitzen da ezarria garbirioki, matsdi andi ugaritsuak izan oi zirala anziñaeran Probinzia onetan; eta beretan bildutako zumu gozadetsuarekin egiten ziraden txakolin-ardo guztiak edan edo aitu arteraño, etzala zillegi erbestekorik ekartzea, eta are gitxiago oetakorik Gipuzkoa barruan saltzea. Ara zer esaten daben, bada, lenago izendatu dedan Itztegi Luzeazaltar Nafarroa eta iru Probinzia oetakoak Kapitululu Donostiakoan, irureun berrogei ta bederatzigarren orrikatik aurrera.

«Anziñaeran Donostia inguruko uztabiltzerik geienetako zana *txakolina* non nai deitzaion ardoarena, zeña beratxoa eta gorputz gitxikoa izan arren, bazkatzeko aiñ ona zan, nola Kabretongoa, Kastrokoa, eta Gipuzkoako beste Erri itsas bazterrekoetan biltzen dana. Egiazki, guztiz zan andia Erriko ardo onen salera, eta Errege Fedariak 1489garren urtean ontzat emandako Donostiaren aginde anziñakoak debekatzen zuten besterik sartzea, alik eta txakoliñak bukatu zitezzen arteraño, zeña gertatu oi zan Maiatzeko illean; eta oraindik goarnitzalle zeuden soldaduai ere ifini izan zitzaizten eragotzpen batzuk, Felipe II eta IIIgarrenaren aginduz, erbesteko ardoaz oitza egiteko, Errikoak kaltarkitu etzitezzen. Ortik dator bada, urruneko denpora artan mats-jabeak beren ardauaz egin oi zuten merkataritza, petxa guztietatik aterarik, beste tokietara eramanaz; ikusten danez argiroki, Santxo



IVgarrenak Apirillaren 3an 1286garren urtean emanda-ko gallaldia batean; ortik Podatarien anziñako anaiata-suna, izenak adierazten daben bezala jardun oi zutela matsdiak podatzen, zeñari baiendu ziozkan bere agin-deak Erregiña Doña Juanak Balladolin 1509garren urteko Maitzeko illaren 7an, eta anaikidara goratu zeban Aita Santu Sixto Vgarrenak. Gaurko egunean eroria dago arras atxurkintza lanbide au, eta bakarrik irauten dute nolapait matsdi banaka batzuk, besteen aztarnak ikusten diralarik ondar mordo moldakaitzetan, zeintzuk aspalditik onara altxatu diran ez arian pitinka Uliako aldean, aizeak bultzatuaz, eta itsasoaren betiko leia ta ekiñaren bidez».

Gure Ama on Gipuzkoak ere aditzera ematen du argiroki, lege zarretako bere liburu maitagarrian, matsdi andiak oi zirala noizbaten ere Probinzia onetan. Beragaitik debekatzen du Tit, XL, Kap, 1322garren orrikan abereak matsdietan sartzea eta erabiltea. Podagiñen izen Euskararen bere berekiak ere argitaratzen du garbiro, mats asko podatu oi zala Gipuzkoan. Izen ondra andiko onekin ezagutzen ziran anziñaeran baserri-etxe purubetarrakin mendietako Buruzari edo agintariak. Izen onek irauten du oraindik ere Donostiako Uriaren paperetan, eta beraren mugapeko baserriarren artean; bañan ez agindeak, eskatu izan badute ere asko aldiz beren eskubide legezkoa. Askotan ifini oi dituzte Erriak beren naierako lege berriak, zeñaren bidez galtzen diran oitura maitagarriak!

Ezlitzake bada kalterik orain ere, anziñaeran bezala baleude Podagiñak matsdiak ifinteko; zergaitik Nafarroara biraltzen dan dirutza andiaren erdia bederik geldituko litzakean Errian. Ez du bada iñork ere zer atxakiarik eman Gipuzkoaren mugapeko lurrai. Ikusi degu argiroki, gure asaba maitagarriak anziñaeran, matsdi ioriak ifinirik txakolin-ardantzaz andiak egin oi zituztela; eta badakusku orain ere garbiro, bertako itsas-bazterretako Errietan biltzen dala edari onen gaia ugari; bai ta ere gure Ama oneski Gipuzkoak petxarik eraztea nai ezdabela beñere beraren mugapean egiten dan gauzari. Ditxa andi ezin obeagoko oek begien aurrean daudela zer eragozpen arkitzen da, bada, matsdiak lenago bezala ez ifinteko? Batere ez nere ustez. Beraz asi ditezke Gipuzkoatarrak gogoz matsdiak ifinten beren lur gozoetan Asaba maitagarriak idurikatuz, sagasti eder galantak berriro jarteari ekin zaiozkan bezalaixen.

*Anziñako denporan Gipuzkoan matsak
Badakigu zirala guztiz aberatsak;
Bide bagez galtzera onelako gauzak,
Mingarri da uztea gizonaren antzak.*

Gaztañaren ontasuna, eta ondasunak

Gaztañak ematen daben garau maitagarria, sagarra ta matsa baino ere askoz ohea eta berragoa da Gipuzkoarako, zergaitik negu beltzaren zatirik andienean berarekin bazkatzen dan bertako langillerik geiena; eta ori, biltzen dutenaren erdia, edo irutatik bat plazan saltzen dutelarik. Au da janari mueta bat aih merkea, goseiltzalea, eta osasuntsua, ezik, gatz pitin bat egotzi eta beste gozagarri bage, berarekin bakarrik dago prestatua noiz nai otordua. Ez eo bearrik dauka, ez laka emankizunik, eta ez beste arazorik batere, ezpada morkotsetik artu, pazian egosi, edo zartanean erre eta jan zaka zaka. Gai guztietara ondo begiratu ezker, nekazariak ez du lurrean ifinten landare oberik, ondasun geiago ematen dabenik, eta erosoago datorrenik, nola dan gaztaña. Edozein zoko une eta sasi bazterretan alea edo sapia sartu eta txertatzearekin bakarrik, neke geiago bage artzen ditu beragandik garau eder galant ugariak prest aski. Sagardi ta matsdiak bezalako laguntzarik izaten ez dute gaztañadi ontsu oek ez ongarriz eta ez lanketaz. Eta zer litzake baldin lagako balioeteke ondoan, berak botatzen daben orbela gosea elikatzeko? Nekazariak bera datzan oe-aurrea ta gela ez ditu erratzarekin aih ondo garbituko, nola eskuareaz soildurik utziko deban gaztañaren inguru guztia, arkitu aldezan zabarra ta sas guztia okullura daramala.

Esan ditudan gutiperiak baizik etzaio bada egiten gaztañadiari, alik eta ale eder galantak ematen asi dedin arteraño, eta orduan ere ara zer ta nolako palagu gozo eta leunketa eztsuakin egingo zaiozkan, bere erraie-tatik oparo eskintzen daben janari ain maitagarria (eman nai ez balu bezala) nai ta naiez gogorrean kentzen. Zardai andiakin erasotzen diote goien bean dinbi danba portizki, bere erpin maite, eta muskil mimerakorrak zatitu ta urratuaz amiltzen diozkatela urdurikerian lurrera morkots mar-dul ale gizenez ondo beteak. Eta oek bildutakoan? Agur besteraño!

Guztiaz ere, zuaitz mueta au da aih ondradua, eta opaia, ezik, bate-re zapuztu bage ematen du bere garau baliosoa gogoz; eta oraindik ere geiagokoa da landare onen ontasuna. Arras zartu, eta barrunbeko mami



guztia arrak janik dagoela ere, azal uts utsa txutik daukan arteraño ematen du alea. Eta azkenean ezin bizituz erorten danean ere, berarekin egi-dan dan ikatza da oberena ermentarientzako.

Gipuzkoan badira etxeak, asko ta asko alere, beren mugapean bildutako gaztañatik sei edo zazpi illabeteko goiz arratsetan naierara bazkatu-rik, txiki arki guztia abereai jan-erazo, eta gañera irurogei anega ta geiago azokean saltzen dituztenak. Probinzia onetako mugape guztia da gaztaña tokia; eta onen ale gozo eldurik jalkia, bera da janari ta jakia.

*Gipuzkoako maizter, ta Etxe-jabeak
Ezdira alfer, nagi, ardura bageak;
Osoto gorderik alor, ta larreak,
Gaztañadi galantak danzkate pareak.*

Intxaurraren etekinak

Zuaitz mueta onek nai den dituen tokiak dirade, bada, ibai ertzakin erreka-ondoak, eta nola dan Probinzia onetako mugape guztia aiñ gurio ureztatua, gogoz ematen du oetan beren garau maitagarria. Beragaitik ikusten dira Gipuzkoako ur bazter eta arkaitzarte ezadetsuetan intxaur eder galantak ain ugari. Zuaitz oetatik badira asko ta asko, anega bana ale ematen dabeenak, eta batz-beste anega erdi bana geienak urtabe onean. Sasoi duten arte guztian eman alak eman ta ere, azkenean balio izaten dabe zubagetakoa bikain arkiak bost eun bana erreal ta geiago; et osterontzekoetatik ere geintsuak, erdia bederik, intxaur olak jaso andia dabelako beti gauza askotarako.

Gipuzkoako nekazari zintzo beargilletsu argiak ezaguturik ondo landare onek ematen dituela ondasun andiak, ekin zaiozka gogoz bera ifinteari istingadi eta urnegar leku guztietan; eta uste det ikusiko dirala urte gitxi barru erreka ondo ta ibai ertzak, ematen dituztela askorentzat, ale mamitsuakin ol balioso beltzak.

*Intxaurrak izatea Errian ugari,
Eskerrak zor zaiozka bertako lurrari;
Eta gütxiago ez batere urari,
Ditxa on au Jainkoak eman zigun guri.*

Ezkurraren mirariak

Ezkurra da garau mueta bat guztiz etekin andiak ematen dituen, eta anziñaeran are andiangoak eman oi zituena. Gizon jakinti askok esaten dabe, ezen, zuaitz mueta anitzek txertatu ere bage berenez dakartziten garau ugaritsuakin bazkatu oi ziradela abereak ez, ezik, gizakiak ere munduaren lendabiziko asieran; bai ta oraindik, gure Aitalenen Tubal Euskaldun garbia bere etxetarrakin Españara etorri ezkeroztik ere. Anziñako denporan gizakiak ezkurra jan oi zutela entzuteaz, ez du zer miretsi inork ere; zergaitik gaurko egunean ere askok eta askok artzen degun gauza ontzat txit gogoz ezkurra egotzitako txokolatea, ezjakiñean bada ere. Inork ere ezin uka dezake, bada, lurrari erraiak idikitzen gizona asi baino lenagoko denpora doatsu aetan, Gipuzkoatik ezkur anitz eramian oi zutela Erbeste urrunekoetara. Beragaitik zeban Probinzia onek anziñaeran ezkurraz txit kontu andia. Begiratzea dago, bada, gure Ama maitati Gipuzkoak bere Fueroetako liburu gogoangarrian XLgarren Tituluan, Kapitulu Ian 323garren orrikan ezarria daukan legeari, non arkitzen dan argi eta garbi, ezen, Ama Birjiña Aboztukotik Eguerri bitartean besteren ezkur lekutan ezin sar dezakela inork ere abererik bazkatzera. Orra zer kontu andia zuten ezkurraz gure gurasoak, orain arras aztua badago ere. Esan al guztien gañekoak dirade, bada, Probinzia onetan ezkurak eman izan dituen ondasunak. Anziñako denpora zar igarotakoen billa ibilli bage, geren egun laburretan ere ikusi izan degu argiro, garau maitagarri onek aberatstasun andiak eman izan diozkala Gipuzkoari. Nere jaioterrian ezagutu izan ditut nekazariak, ezkur urte onean, Aboztuko illaren erdi alderontz bost edo sei zerri-ama beren umeakin erosi, Aralarko basoetara bazkatzera bota, eta Eguerrietarako irureun bana dukaten irabazia artu izan dabeenak, zaintzalle bat bakarra iru edo lau zerri-jaberen artean ifini, eta beste neke ta kasturik bage. Nekazariarentzat zer izango da irabazi eroagorik au baino? Beragaitik bear litzaioteke, bada, ondo kontu egin Gipuzkoako basoi, ikatzgilleai ainbeste eskubide eman gabe. Oek bein sartzen diran basoa, illa gelditzen da betiko; bañan ezkurak urteoro ematen daben laka da sekula guztirako.

*Zuaitzak aizkorari diola beldurra,
Sinistatu bear da, ez dala gezurra;
Baldin artzen espada denporaz ardura,
Agur gure basoak, ta agur ezkurra!*



Gerixa, Ginga, Alberetxigu, Aran, Udare, Muxika, Piku, Mizpira eta osterontzeko garauak ere, aih ederrak, gozoak eta galantak izan oi dira Gipuzkoan ugari, nola beste edozein tokitan, edo benturaz guriagoak, piñagoak, eta osasungilleagoak, gizon jakinti anitzek autortu izan dabeen bezala.

Baratza berarrak

Gipuzkoako baratzaetan egiten dan janari gauza guztia da begitangoa, guria eta gozarotsua txit. Tokirik aurrengoetan mairik andienetara agertu oi diran berar mueta guztietatik da ugari Probinzia onetan. Beragaitik aih merke berdura ikusten da Erri-bildurik andienetan ere. Donostiako plaza izanik garestienetako bat, egunik geienetan erosiko da bertan zortzi edo amar librako azaburu bildua sei edo zazpi koartotan; bai ta lau edo bost urraza-buru galantak ere txanpon batean. Esparrago mardul biguñak, azaloratu guri ederrak, orbura begitango gozoak, tomate leun mamitsuak, zainhori bikaiñ lodiak, borraja egostbera eztitsuak, tipula ezadetsu galantak, baratzuri pin gogorrek, piper me pizkor ta gizen gezarotsuak, eta osterontzeko baratza berar guztietatik egiten da Gipuzkoan ugari. España guztiko Erri-burua dalarik Madrill, urterik geienetan eraman erazo izaten dituzte bertara esparrago samalda andiak Probinzia onetatik aste Santurako. Gizon prestu goienengo zenbaitek aldeurrez kontuan ifinirik, biraldu izan ditut neronek asko aldiz. Sebillako Zaldun gazte aberats bat ikusi izan det Donostiako plaza berrian esparragoak erosten, osoba maite bati bere jaioterrira igorritzeko, zeñari entzun izan nion, ezik, ibilli izan zan tokietan etzebala arkitu mardulago ta ederragorik; eta nai ziela adierazo osoba jaun ari eta bere lagunai, ezen, aek uste baino gauza bikañagoak egiten dirala Gipuzkoako arkaiztarteetan. Sarritan gertatu oi da, bada, iñork usterik gitxiena daben tokian, gauzarik oberenak arkitzea. Ez da, bada, oraĩndik urte asko auxen berpera gertatu dala azaburu-bilduakin Probinzia onetan. Esango dizutet nola, non, eta zeren bidez.

Aralarko mendi goititua elurraz janzia ikusi oi dalako sarritan, etzizaion iñori bururatzan amesetan ere, aih toki gogorrean baratza gauzak ezer eman al zezakeanik; bañan alabearrak nai debanean uste bageko gauza asko agertu oi dituen bezala, au ere argitaratu izan zan utskerria

batetik. Zaldibiako Miranda-etxean gaur bizirik arkitzen dan artzaiaren emazteak senarrari arto-iriña mendira biraltzeko zeuzkan anekatxoak arkitu izan zituen urratuak, eta une artan arabatzeko betarik etzeukalako, jarri zituen zuloen iskarri, aurreragoko egunean sukalde bazterrera botarik zeuzkan azalandare kaiska banakaren batzuk: eta oek gizonak mendian anekak ustutzeko denporan arkitu zituen ustez ustekabe. Artzain oni ez nondik eta andik alabearrak ekarri zion burura, azalandare erdi igartu oek txabola inguruan landatzea, eta ifini ere zituen lurrik oberenen zerizkion tokian. Beraren txabolako lagunak farra ta ixeka egiten zioten, azalandareak Aralarko mendi tontorrean jarri zituelako, bañan ikusi zutenean egin zireala beretatik azaburu bildu galantak, mendi guztiko artzainak erori ziran kontura, eta geroztik Aralarko mendian egiten dira arrigarrizko azartzak. Mendi onetan badira artzainak beren artizkuna inguruan egindako azarekin laureun bana erreal artzen dabeenak. Guztiz jaso andia izaten du mendi onetan egindako azaburu bilduak, Erriberaetakoa baino biguñagoa, guriagoa, kizkurragoa, piñagoa, ezadetsuagoa, eta gozoagoa dalako askoz ere; eta doai eder oezaz gañera du beste ditxa bat ona txit, zeña dan lurrean ifini ta egun gitxiren epean burubildurik anditu, eta bear bezala eldutzekoa. Milla zortzi eun, ogei ta amaikagarren urtean biraldu zidan neuri Zaldibiako adiskide batek Donostiara Aralarren egindako azaburu bildu bat emezortzi libra pisatzen zituana, esaten zidalarik, ezen, beraren landarea lurrean ifinia izan zala Garagarrillaren ogei ta irugarren egunean, Mendibil deitzen zaion sarobean, eta kendu zutela toki beretik, Urri-illaren bostgarrenean. Eun ta lau egunen barruan ain mendi goitituan egindako garau ikusgarri eder galant au, erakutsi izan nioten Uri bereko andizki askori, jakin zezaten garbiroki, ezen, erriberaetan bezin gauza onak edo obeak eta piñagoak badirala arkaitz tarteetan, billatzera saiatu ezker. Aralar-mendiko azaburu-bilduen agerkera zorioneko au zorko zaiote, bada, izendatu dan Miranda-etxeko senar emazteai. Gertakari onen barri ez dakiten askok esango dabe menturaz, Kapitulu au luzegia dijoala, eta ez dala aibesteraño aintzat artzekoa; zergaitik azaburu galanten bagetasunik ikusten ez dan Gipuzkoan. Ordea bear zaie begiratu beste gauza geiagori ere. Gauza jakiña ta egiazkoa da txit, toki baterako ona dan eguraldia, besterako izan leikeala kaltarkitsua. Udako egun luzeetan eguzkia goienengo mallara igotzen danean, beraren berotasunak kiskaltzen ditu Erriberako baratzaetan arkitzen diran aza guztiak, burubiltzeko lekurik eman bagez arroturik lagatzen dituela; bañan Aralar-mendikoak orduan ta geigo irabazten dabe, eta mardulago ta guriago agertzen dira. Beragaitik izaten du mendi-aza onek ain jaso andia uda azkenean. Legorte urtean



ikusi izan det Billafrankako merkatuan aza onetatik saltzen arroaka, libra bakotxa lau koartoren balioan. Garesti saltzeaz gañera daukate aza onen egilleak beste ditxa bat ezin andiagokoa. Doarik daukate bada mendian, nai duten ainbat kanpo baratza ifinteko. Eta nolako lurra? Ongarritu bearririk ez dabena; zergaitik beren ardiak egindako zimaurre pisakin guriaturik ondo, arkitzen zaiozkaten txabola inguruan, nai baino ere geiago, esitu eta landarea ifintea beste lanik ez dabeenak. Zer izango da, bada, bere artaldearekiko lanbideak egindakoan, mendian geldirik egon bear daben artzainarentzako au baino irabazbide eroagorik aĩ denpora gitxirako? Nork sinistuko zeban, bada, orain ogei ta amabost urte inguruan, aza buru bildu eder galantak egin zitezkeela Aralarko mendi goitituan? Inork ere ez, nik derizkioanez. Beragaitik nai izan det, bada, ustez ustekabeko agerkera berri au jarri zearo ta garbi.

*Aralarko mendia izanik aĩñ latza,
Nor asiko zan bertan landatutzen aza?
Inori gogoratzen etzũtzaion gauza!
Orain non arkitzen da alako baratza?*

Lore begitangoakin, usan berar gozoak

Gipuzkoako loretokei eder txukunki apainduetan arkitzen dira, Europa osoan arki al ditezkean mueta guztietakoak, aĩñ bitoreak, ikusgarriak, eta usai gozodunak, nola beste edozein lekutakoak; eta gizonaren laguntzaren bidez ugaritzen diran berar begitango oezaz gañera da Gipuzkoako mugape guztia berenez bertan jaiotako lore eder kolore askotakoakin txit ondo janzia. Mendi goititu, arkaitzarte, basozakon, erreka-ondo, ibai-aldamen, itur-inguru, bide-bazter, eta tokirik izkutue-nekoak arkitzen dira Probinzia onetan berar gozarotsu ta lore ikusgarriz arras beteak. Eta oraindik are geiagokoa da, errolla, luepaki, erreten, zingidadi, aldats ta malloetan sortzen diran arantza-beltz, laarzuri, sarats, ezkerain, txillar, zume eta oen lagun askok, alkar maitaro laztandu ta bata besteari irme josirik, egiñeratzen dituzten sasi andien nabardade ederra eta coera miraritsua. Arbiak garatzen diradenetik gaztañak bildu arteraño zortzi illabeteetan ikusten da lore ederrez janzia Gipuzkoako mugape guztia, eta osterontzeko lau-illetan ere berde berde irauten dute, abereak negu beltzean bazkatzeko lurak berez ematen dituen gorosti,

agin, ota, erramu, isats, untz, eta beste zenbait orni mueta, zeintzuben edertasunak alegeraturik pozkarritzen dituen mendiak, abereak, eta gizakiak.

Esan al guztien gañekoa da, bada, Gipuzkoako mugapean berenez jaitzen diran berar ta lore eder usai gozokoen ugaritasuna; eta oraindik are geiagokoa izango litzake, baldin Oñatiko jaun prestuak bezalako gogoa beste zenbait andizkik balute, toki urrunekoetatik landare ta aziak biribilaturik beren baratzaetan ifinteko. Erri onetan arkitzen dira Asiatik, Siritatik, Armenia, Ejipto, eta beste Probinzia Europaz kanpokoetatik nekez eskuratutako landare mueta asko, bertako lurak ondo arturik, eder ta galant, sasoirik oberenekoak. Lore ta berar Erbesteko oek, beren jaioterriko izenakin deitzen dituzte Oñatian, euskarazkorik oraindik ez dute-lako. Ara nola.

Alelia
Anemon
Arrayan
Chauta de Brasil
Chopo de Lombardia
Ebano
Estramonio
Fitolaca
Heliotropio
Hierva Camin
Igotunaco
Jalapa
Jazmin
Magey
Palo Santo
Pasionaria
Perpetua
Pita
Solano
Talay
Tilo, Tila o Cinanomo

Oen guztien gañekoa beste landare bat ezagutu izan da Oñatiko baratza batean, zeñari deitzen zitzaion *Mimosa sensitiva*, nork daki nondik eta nola eskuratu?



Landare miraritsu au azi izan zan urte bete barru iru kana laurenen luze-tasunera, eta beraren orri ederrak gorputz bat egiñik, artzen zuten zabal-tasunean kana-erdiko ingurumaia. Lore onen nabardade ederra izanik ain ikusgarria, beragana begira jarten ziraden guztiak gelditzen ziran zoratu-rik. Bañan nondik eta nola etzekitela gertatu zan, ezbearren baten bidez edo bestela, alako landare bitore maitagarria izkutatzea bat batean, bera- ren azirik gordetzeko ere lekurik bage.

Borraja loreak ere biltzen dira Oñatiko mugapean iñon ere bezin onak, edo obeagoak; eta berakin egiten dan goixo gordegarria izanik aiñ bikaña, eramaten dute Españako Erresuma zabalaren tokirik geienetara, zeintzubetan ezagutzen dabeen ondo berezko guritasun ezadetsutik, eta Erriaren izeneko txarrotxoetatik.

Begien aurrean dakusku bada argiroki, lore mueta guztietara dirade- la saiatuak Oñatiko Etxejaun ondraduak; baita ere, emengo lurrean zapuztutzen ez dirala Asia inguruko landareak. Beragaitik uste det bada nik, ezen, Gipuzkoako mendi, aitzarte, txara, eta basoetan izan ditezkea- la menturaz, toki urrunekoetatik erakarri diran landareak bezalakoak, zer- gaitik berrogei ta amar urtez onontz gertatu izan dan Beasaingo Errian lanbide au berpera. Ara nola eta zeren bidez.

Europaz kanpoko Erresumarik izendatuenetan gauza begitangoen billa zebillen gizon andizki Franziako batek ekarri izan zituen, beste gauza geiagorekin batean, landare ikusgarri batzuk Persiatik, Europa guztian alakorik arkitzen etzalako ustean: eta sinitspen oso bete onetan erregalatu ere ziozkan Errege Franziakoari. Onek, aiñ toki urrunekotik zetozkion landare ospatsuak maitaro arturik, beretako batzuk igorri ziozkan oparo Españako Erregeri. Landareak Madrillera zeramazkien Franzes mandatariarekin batu zan Irun aranzungo ostatu batean gauaz On Joakin Irizarra jauna, eta beren ezaguerak alkarri emandakoan jalki zitzaion francesari zeren bidez zetorren Española. Irizar jaunak entzun zebanean nondik norakoak ziraden landareak, egin zitzaion beretako baten gutizia; baita aditzera eman ere Franzesari guztiz modu-ezti andian, baldin eman al bazezakean; eta onek ikusirik aren prestutasu- nezko arpegiera ona, eman zion landare bat Erregerentzakoaz ostean bere adiskide mamientzat zeramazkienetatik; zeñari esker andiak ema- naz gelditu zan Irizarra jauna bere landarearekin pozkida bete batean. Bigaramun goizean goiz landare au biraldu zion bere arreba Doña Mariari Beasaingo Errira Irun aranzun arkitu zeban oñezkorik azkarre- narekin, esaten ziolarik izkribuz, nondik norakoa zan eta zer bidetatik eskuratu izan zeban ustez ustekabe aiñ gauza begitangoa; eta beraren

baratzen arkitzen zan tokirik eguteraenekoan ifinierazo zezala denpora- rik galdu bage. Etxe-andra andi onek anaiaren mandatuarekin landarea artu bezin prest, erakarri zeban bere maizter nekazari bat etxera, zeñari adierazo zion garbiro anaiak gaztigatzen zeban guztia, eta zer egin bear zeban. Maizter zintzo ernaiak landarea eskuan artu orduko esan zion Doña Mariari, nere Etxeandra ona; ez da landare au bedorren anai ja- nak uste deban bezin bakana. Nola ez? eranzun zion Doña Mariak. Eta maizterrak; zergaitik Beasaingo txaraetan dauzkagun onelakoak ugari. Doña Mariak Ha gizajoa! ez daukazu burua leku txarrean! zoaz bereala baratza, eta landare au ifini ezazu tokirik obeenean, anaiak gaztigatzen dabean bezala. Maizterrak; bai andrea, egingo det gogoz bedorrek agin- tzen didana. Esan ta egin, jarri zeban landarea baratzen arkitzen zan tokirik alaienean, eta joan zan bere etxera. Andik urte betera bezalatsu Irizarra jauna etorri zan Beasaina, eta arrebaren etxera sartu bezin laster galde egin zeban berak igorritako landareaz, zeñari erantzun zion Doña Mariak, beatza jasota baratza alderontz ifinirik, ara non dagoen eder ta galant, lurra maitaro arturik sasoiekoa txit. Bereala joan ziran anai arrebak landarea zegoen tokira eta bera ain mardul begitangoa arkitu zebalako zoratu nai zitzaion Irizar jaunari pozaren pozez; eta asi zitzaion arrebari kontatzen landare arekiko gertaerak, lenago izkribuz gaztigatu zion baino luzeago. Mirari andi aek entzuten zegoela oroitu zan Doña Maria landarea landatzera erakarri izan zeban maizterren atera-aldiaz, eta esan zion Irizarri. Ez dakizu esan zidala landare au ifini- erazo nion maizterrak, ezik, onelakoak ugari bazeudela Beasaingo txar- raetan? Ixekazko algara andi bat egin ondoan Irizarrek galdetu zion arrebari non bizi da Astolapikotzar ori? Emendik ez urrun, erantzun zion arrebari, eta nai badezu erakarriko det. Anaiak, datorrela bada. Bereala gaztigatzen diote maizter gizajoari etorri dedilla prest; eta bada- tor au estura larrian, zer bear ote dioten ezin asmatuz. Baratza iritsi ta arratsalde onak emanaz ongi-etorria egin orduko, Irizarrek galdetzen dio maizterri, ezen, non ikusi izan dituzu zuk landare au bezalakoak? Erantzun zion maizterrak; jauna, Beasaingo txaraetan ugari. Au enzu- tean irazeki zitzaion Irizar jaunari su ta gar, eta bere berotasunarekin eraso zion goien bean maizter zintzoari, asmatu-al guztia esanaz; Ea uste al zeban Beasaingo mugapean, ez ezik, Europa osoan ere arkitu al zitekean aren landarea bezalakorik? Ea zeri dagokala eta zeren bidez esaten zituan ezkaida aek? Ea lotsatzen ere etzan farragarrikeri aek iñork entzutea? Ezagun zebala ondo, Astoa ispillu iduritzen zaioten basatieta- koa zana... Maizter gizagaixoak burua makurturik oek guztiak entzun-



dakoan esan zion emeki; jauna, bedorrek ala uste ez badu ere, egia gar-biroa da nik esan dedana, zeña on egingo diodan bigar ordu onetarako, baldin Jaungoikoak oñen gañean banau eta Beasaingo mendiak bitar-tean ondutzen ezpadira. Au esan ta irten zan maizterra arras mindurik aserre bizi bizian, eta Irizarrek ixekaz esaten ziola, oa, oa, buru gogor-tzar ori, ez aiz nekatuko alfer gaiztoan. Bigaramun eguerdi-alderontz maizter prestu argi au badatorkio Irizar jauanri, landare pillá andi bat bizkarrean dabela; zeñaetan zekartzien, batzuk pipitadunak, besteak loratzen asiak, asi bagekoak bere orri, besanga ta sustraiakin, zar ta gazte, txiki ta andi gisa guztietakoak, urtearen sasoiak suertez alan agin-tzen zebalako. Eta beraren aurrean sorta botatzearekin batean esan zion maizterrak emekiro, Jauna, ona emen non dauzkan bedorren landare ospatsu toki urrunekoetatik ekarritakoaren senide egiazko garbi garbiak, Beasaingo menditik dakartzidanak; eta begira begie ondo berai, astoa ispillu iduritzen ote zaidan edo ez. Irizar Jaunak ikusi zebanean maizte-rra arras mindurik menetan zebillela txit, eraman-erazo zeban bere sorta pillá andiarekin baratzako landarearen ondora; zeñarekin bekaldu zituen maizterrak ekarriak bat banaka; eta nola etzeban ikusten beretan des-berdintza agirikorik, así zan purrustaka bein batari imurtxi, gero bestea tximikatu, zañak eten, besangak ausi, azalak zanpatu, mamiak miaztu, loreak usandu, orriak igortzi, pipitak otzkatu, eta beste asmakari burura ekarri al zitzakean guztiak egiten, beraren landare Persiatarraren antze-korik ere, Beasaingo mendian ezin izan zitekealako uste oso betean; bañan etzuten deus balio izan aren aztalka guztiak, zergaitik mueta bate-koak zituzten sustrai ta aziak. Beasaingo andizki-arki eta Apaiz jaunak zekitelako Irizarrekin maizterraren arteko auziaren barri, eta ikusirik biak argurion zeudela baratzan, joan ziran beretara; zeintzuk erabaki zuten garbiro, ezen, Irizarren landare Persiatarra, eta maizterrak Erriko txaraetatik ekarriak, ore bateko senide egiazkoak zireala, *Otsalixarra* dei-tzen zaioten garbi garbiak. Geroenean erori zan kontura Irizar jauna, eta gaztigatu izan zion Parisera landareamateaz mesede egindako gizon prestuari, berarekin zer gertatu zitzaion. Orobat izkribatu zeban Madrillera ere, bañan etzioten jaramonik egin, ez batetik, eta ez beste-tik.

Orra nolako gauzak agertu oi diran iñork usterik gitxiena daben tokietan. Beragaitik nai izan det, bada, gertaera au ezarri zero ta zabalki, jakin dezan mundu osoak, Gipuzkoan badirala basoak, iñon ere bezin gozoak.

*Probinziako aitzak dauzkate gordeak
Landare ederrakin berar ta loreak;
Txuri, beltz, urdin, gorri, berde ta moreak,
Zer nai gauzatarako non dira obeak?*



AMAIKAGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako abereen izaera, eta berak ematen dituzten etekiñak.

Gipuzkoako mugapea beti ezagutu izan da aberez ondo janzia, zeintzubei zor zaioten bertako jendearen zoriontasunik geicana; ez bakarrik berenez dituzten etekin baliosoak oparo ematen dituztelako; bai ta ere tokiaren laztasun geiegikoaren bidez neke andiko lan gogor asko egiten gizonari leialkiro laguntzen diotelako.

Probinzia onetan komunkiro jaio ta azi oi diran abere eskurakoak dira abere txea edo geria, abelgorria, abere zamari edo zamarakoa, etaazienda beltza esaten zaion aberea.

Abere txe edo geriaren izenarekin adietutzen dira Ari, Moixo, Aritxikiro, Ardi, Bein-ardi, Bildots, Arkume, Aixuri, Umerri, Aker, Akertxikiro, Auntz, Auntztika, Auntxume, eta Arteliari dagozkion gañerontzeko guztiak.

Abelgorria esaten zaiote Zezen, Idi, Zekor, Idisko, Idigai, Bei, Bigaintxa, Txal, Bigain, Aretxe, eta Beitaldeari darraizkion osterontzekoak.

Zamariaren izenaz ezagutzen dira, Garaino, Gañezari, Gegua, Beor, Beoka, Zaldi, Zaldiño, Moixal, Potxo, Mando, Mandaeme, Mandako, Asto, Astoeme, Astokume, eta beste abere zamarako direanak.

Azienda beltza deitzen zaiote, Apote, Bargo, Bargasta, Ordots, Zerri, Zerrama, Arkotx, Zer-ardi, eta gañerontzeko Zerri-abereari dagozkietenak.

Lau abere mueta oek Euskarazko itzkuntzan orobat dituzte bako txak bere izen jakin txit ezagunak, ernari jarteko sasoiak arrapatzen dituen denporan, nor nola eta zeren eske dauden adierazteko. *Arkeru* dago, entzutea beste bage daki edozein Euskaldunek, ardia dala umea artu nairik dagoena. *Susara* dago, esaten bada, gauza jakiña da abelgorria dala. *Yel* dago, aditzearekin bakarrik daki, zamarietakoa dala. *Irausi* dago, esatea aski da,azienda beltzetakoa dala jakiteko. Orra zein erraz, egoki, ta garbiro adierazten daben gure Euskara jakintsuak, beste itzkuntzak ez bezala, abere mueta oek, esan dedan sasoiara iristean, nor nola arkitzen diran. *Arkeru*, *Susara*, *Yel*, *Irausi*, lau izen bakar oetatik dakite Euskaldunak, ardia, beia, beorra, edo zerria dan ume eske dagoena, erdarak bezala esan bage-tanik, *la obeja está alta; la baca está alta; la yegua está alta; la cerda está alta.*

Abere txea, Geria edo Ardi-elia

Gipuzkoako mendi goititu zorionekoak beren jatorrizko doaiaren bidez ematen dituztelako larre piñ gozarotsu indar andikoak ugari, ezagutu izan dira beretan beti aberetxe geri, edo ardi-eli samalda andiak; eta iñoiz ere baino geiago urte oetan. Probinzia onetako nekatzalle zintzo argiak jaiotatik dira mendirakoak, eta ikusirik garbiro ardi-abereak ematen dituala ondasun andiak, ekin zaiozka gogoz beretako talde andiak ifinirik, geiago ta geiago ugaritzeari. Egiazki, guztiz da arrigarria Gipuzkoako mugapean gaurko egunean arkitzen dan ardidia, eta ez da gitxiagokoa berak modu askoz ematen dabeen lakaren balioa. Lanbide onen gañean ifiniko dizutet begien aurrean argi eta garbi Gipuzkoako Erri txiki bateko izaera doatsua.

Zaldibiako Erri labur ta medarrean (zeña dan nere jaio-tokia) arkitzen dira eun ta amalau etxe. Oetatik laurogei ta amasei, nekazaritza darabiltenak, eta beste emezortziak dira, plaza-etxe lurrik ez darabiltenak eta baso bagekoak; zeintzubetan bizi diran milla ta irureun arima bezalatsu; eta oek badarabiltzate mendian eun artaldetan, amar milla ardi, eta bi milla bildots urte betenakoak, gitxi gora bera. Artalde bako txak kontatzen da komunkiro eun ardi eta ogei bildots urte betekoakin. Samalda oetako bako txak urterik geienetan izango ditu laurogei ardi umegitekoak, beste ogeiak lagatzen diralarik antzu eta illurtu gertatzen direanentzako. Laurogei arkume jaiot-berrietatik, ogei ta amar bezalatsu utziko ditu Artzainak aurrerako azitzen, leneko oñean artaldea iroso dedin, eta osterontzeko berrogei ta amarrak gelditzen zaiozka berritan saltzeko. Udako bost illa beteetan egingo ditu Artzain bako txak bere artaldeak ematen dion esnearekin berrogei ta amar arroba gazta bezalatsu. Bi motxaldietan amairu arroba ille gauza gitxi gora bera kenduko ere diozka. Gazta egiten daben denpora guztian gazurarekin bazkatuko ditu gururo bost edo sei zerrikume beren amarekin. Uda-azkenean amar bat ardi zar izango ditu saltzeko, artaldea leneko oñean art-gazteakin ornidurik lagatzen dabela.

Agertaratu det, bada, garbiro artalde bako txak zenbat etekin, zer nolakoak ematen dituen; eta ikusi ere bear degu Erri txiki onetako eun artaldean obariak pilla batera batu, eta noraño igotzen dabeen.

Bost milla arkume berritan saltzekoetatik ezbearren baten bidez, artalde bako txean lau galtzea gertatzen



dala ere, gelditzen dira lau milla ta sei eun, eta oek batatz beste seina erreal egiten dutela dakarte ogei ta zazpi milla eta sei eun erreal: 27.600

Bost milla arropa gaztaetatik artzai bakotxari bi arropa uzten zaiozkala bere galdu-gordeetarako, gelditzen dira lau milla ta zortzi eun arropa; eta oek arropa ogei ta bost errealean balioan dakarte eun ta ogei milla erreal: 120.000

Milla ta irureun arropa illeak bakotxa ogei ta emezortzi errealean balio dute berrogei ta bederatzi milla eta laureun erreal: 49.400

Zerri samalda bakotzak gazurarekin bazkatzen dan denporan ematen daben irabazia da amar dukat bezalatsu batatz beste, eta guztien balioa dator amaika milla erreal: 11.000

Milla ardi zarrak bakotxa ogei errealean ogei milla erreal: 20.000

Igaburutzen dute errealak: 228.000

Guztiak batera jorik, igotzen dira berreun, ogeita zortzi milla errealetarano; zeña dan Zaldibiako esku artaldeak urte oro ematen dituzten etekiñen balioa. Ardi aberearen barri dakiten guztiak ezagutuko dute garbiro, ifinia dagoela apaiñgarri bage, eta ez dakitenak ere ikasi dezaten, nai izan det ezarri zearo lanbide au, zeñari arkitzen diodan beste obari bat ere aipatzea merezi dabena. Bañan nor da gai bear bezala erabakitzeko zenbaterañoak diraden eun artalde oek egindako zimaurtza andiaren bidez Zaldibiako buztin lur gozakaitzak ematen dituzten ondasunak? Erri onetako artzaiak eta artzain ez diranak ere txit gitxi izango dira, asto ta zaldi txikitxo bana edo biña ez dauzkatena, menditik altxeria ekarteko; eta baldin onekin ez balituzteke ongarrituko bertako lur elkor gogorak, ez litzake artuko biltzen dan laborearen laugarren zatia ere.

Abere mueta onek modu askotara ematen daben aberatstasuna ikusirik dala aiñ andia, Gipuzkoako biztanle ernaiak berari jarraitzen diote gogoz ta zintzoro. Eta gauzarik arrigarriena da, zenbat eta geiagotuzten dan ardi-abere au, orduan ta geiago balio izatea berak eta berai kentzen zaiozkaten etekiñak. Orain irurogei urte inguruan Gipuzkoako mugapean ez oi zan, gaurko egunean ikusten diran ardi erdirik; eta alere ezagutu izan nituen gizonak ifinten zituztenak artalde osoak erdirako izenarekin, ogeita biña errealeko balioaren oñean bakotxa, eta zenbat buru, ainbeste

erreal beste irabazirik bage urte guztirako. Denpora artan arkume berritakoak erosten ziran launa errealean. Gazta ere bai libra bost koartean. Ardi-larruak zortziña koarto; Arkumeenak bostna; Illea emezortzi erreal arropa. Bañan ikusten da orain noraño igo diran oen balioak.

Oroitzen naiz, bada, Probinzia onetako ola, burni, eta langilleaz itzegitean nola esan nizuten, Itztegi Luzeazaltar Barzelonan moldizkidatuari, Gipuzkoako kapituluaren arkitzen niozkan utsaldi andiak agertaratuko nintuela zein bere toki egokietan. Ara emen beretako bat, lenago ezarri nebana baino ere agiriagokoa.

Abere eliarri dagokanaz, berak ematen daben laka bekaldutzen da.

Zekorak: 2.100

Arkumeak: 14.400

Antxumeak: 584

Zerriak: 1.227

Illea: 9.800 ar.

Eta oraindik are geiagokoa dana esaten du Itztegi onek kapitulu berean ausardi andiarekin, egia balitz bezala.

«Probinzia onetan dala arkumeen bagetasuna, zeñetara batzuk sartzen diran Nafarroa eta Franziatik».

Baldin aomen andiko Itztegi onek Gipuzkoako Kapituluarekin baino azertada oberik egin ezpadu beste Probinziaetakoetan, badagoke txokora bazterturik ixil ixilla.

Gipuzkoako barri dakitenak nola sinistu al dezaketeke bi milla ta eun zekor baizik jaiotzen ez dala urte osoan bertako mugape guztian? Kontura bedi, bada, nor nai, Probinzia onetako arategi eta etxe berezietan urtearen buruan iltzen dituzten abelgorriak; baita ere Nafarroara, Arabara, Errijoja eta beste tokietara eramaten dituztenaz; eta ezagutuko dau argiroki, egiagandik zein urrun dabillen izendatu dedan libru andi ospatsua. Begira izan ez lezakean Gipuzkoak bere mugapean Erri bat bakarra ere, bi milla, ta eun zekor jaiotzen zaiozkana urte barruan.

Amalau milla, ta laureun arkume dirala esaten dau Gipuzkoan urte osoan jaiotzen direanak, zeñari erantzuten diodan, gezurtatzeko beldur bage, ezen, Amezketa, Zaldibia, Ataun, eta Idiazabal, lau Erri Probinziako oetan diraden ardiak, urte bakotxean egiten dituztela ogei



milla arkume, gitxi gora bera. Eta zenbat onelako osterontzeko Erri Gipuzkoaren mugapekoetan?

Bost eun laurogei ta lau antxume dirala, dio, urteoro jaiotzen diradenak Probinzia guztian. Uste det bada nik, ezen, Idiazabalko mugapean bakarrik jaiotzen dirala kopuru au ta geiago; eta ori, Gipuzkoak debekatu daukalarik, nork bere lur esituetan baizik, auntzak erabiltea.

Milla, berreun, ogei ta zazpi zerri bekaldutzen ditu urtean Gipuzkoaren mugape guztirako; eta badakit seguru oek baino geiago jaiotzen ta azi egiten dirala Ataun, Zaldibia, eta Idiazabal, iru Erri oetan bakarrik bestera bage.

Esaten ere dau, ezik, bederatzi milla, eta zortzi eun arropa ille biltzen dirala Gipuzkoan. Bere itzetik arrapatzen da, bada, Kondairatzalle au, zer ifinten zeban etzekiela jardun izan zebala Gipuzkoako Kapitulua ezarten; eta egia garbiro au jarriko dizutet begien aurrean argiroki. Ara zein erraz, eta ondo ezagutzeko moduan.

Ardi bakotzak batatz beste ematen daben illeak pisatzen dau iru libra; eta bederatzi milla ta zortzi eun arropa ille batutzen diran tokian, nai ta naiez bear dute izan laurogei ta bat milla, sei eun, irurogei ta sei ardi bezalatsu; eta kopuru au ardi bezalatsu daban lekuan, jaioko dira gitxienez, irurogei ta bost milla, berreun, laurogei ta sei arkume. Izanik, bada, au aiñ gauza jakiña nola izango ez da arrigarria, Itztegi aomen andiko artan ifintea amalau milla arkume jaiotzen dirala, bederatzi milla ta zortzi eun arropa ille biltzen dala berak autortzen daben Probinzia? Illearekiko pisu onen gañean ere arkitzen det desberdintza, bañan, nola ez dan aiñ andia, lagatzen det bere oiñean.

Azkenik esaten dau, ezik, ez dala izaten Gipuzkoan bertarako lainbat arkume, eta Nafarroa ta Franziatik etorten direala. Auxen da, bada, itsasoko uren bagetasuna, leorretik dijoatzen ibaiak ornidutzen dutela esatea bezalaixen. Egia da Eguerrietako denporan iñoiz edo berriz, arku-me banaka batzuk ekarten dituztela Nafarroatik erregalo Gipuzkoako Andizkietara, bertakoak udaberrira artean jaiotzen ez diralako. Eta geienara jota ere zenbat izango dira onela datozen arkumeak? Berrogei edo berrogei ta amar buru burutik. Bañan nork ez daki, Pazkua garaizumakotik asi ta ondorengo illabete ta erdian, mando erreku osoak betean arku-meak millaka eramaten dituztela Nafarroara? Nere ustez ez du, bada, inork ere gogoan, arkumeen bagetasunik ikusia Gipuzkoan. Gaztaren gañean ez digu ezertxu ere esaten Itztegi andi ark; iñolaz ere usteko zeban esne bageak dirala Gipuzkoako ardiak.

*Zer nai gauza jarten da paper berrietan,
Argaitik nago, bada, orain errietan;
Mundu guztiak dakuts bere begietan,
Arkume asko dala gure mendietan.*

Abelgorriak

Esan al guztien gañekoa da Probinzia labur onetan jaiotzen, azi, eta gizentzen dan abelgorri taldea, baita berari eragiten zaiozkan neke andikolan gogorrak, eta denpora berean oparo ematen dituan etekin baliosoa ere, eta ez da gitxiagokoa batere azkenean larru ta aragitan lagatzen daban aberastasuna. Beragaitik ikusten da Gipuzkoako nekazari jendea ari dala aiñ goaltzu, abere mueta au geiagotuzteko bide zuzenak iriki ta zabaltzen. Badakizkit Probinzia onetan baserri-etxeak, lenago bei bat bakarra doi doi bazkatzen zutenak, orain uzta-idi galaren galakoa, eta iru edo lau bei txaldun naierara ornidurik dauzkatenak. Desberdintza andi au zeren bidez etorria dan, nai dizutet adierazo kapitulu onetan.

Nere adiñeko Gipuzkoatar guztiak badakite irurogei urtez onontz abelgorria ugaritu dala Probinzia onetan txit asko, eta batez ere, Erribildu andien ingurumaian. Izendatu dedan denporaren aurretik, eta geroago ere, ikusten ziran argiroki, nolako abelgorri samalda andiak sartzen zituzten Franziatik txit sarriro, Probinzia au aragiz ornidutzeko. Beragaitik emengo arakiñak zillegi zuten diru jakin bat lanbide onetarako Franziera eramatea. Bañan geroztik gure Ama zintzo Gipuzkoak bere mugapean ikusirik abelgorria ainstesteraño ugaritua, artu izan zituban bereala bere seme langilletsuen onerako bear ziran bide zuzen egokiak.

Milla zortzi eun ogei ta bederatzigarren urtean Tolosako Erri leialera biribillatutako Batzar guztiakikoan, Ama jakinti onek erabaki zeban garbiro, debekatzan zebala Franziatik abelgorria sartzea Gipuzkoa barrurako; eta bertatik eskubidea ematen ziola edozeñi, Probinzia onetan jaiotzen ta azitzen diranetik nora nai eramateko. Eginbide onetatik ezagun da argiroki, abelgorritz dagoala ondo betea Gipuzkoako mugapea.

Giza-aldi onetan ikusi dira Gipuzkoan bi gertakari gogoangarriak txit; zeintzuben bidez etorri izan dan nere ustez, mugape onetako abereen ioritasuna. Gertaera oetako bata da Donostiako merkataritzaren batetako erortea, eta bestea guda kaltarkitsuak oi dakartzien ausiabantza gaiztoai arpegi emateko Erri leialak beren otadi mardul, txillardi zabal, itsasti andi,



eta beste zenbait mendilur gozo saldu bearrean arkitu diralako. Itsumustuan jauzitako lanze oek biak izan dira Gipuzkoako nekazarien-tzat, etorrera baino ondore ohea erakutsi dabeenak. Askotan gertatu izan da sendatzea barrunpeko gaitzak, gogo bage artutako edari minkaitzak. Bada auxen berpera ikusten da Gipuzkoan, izendatu ditudan bi gertakariakin. Esango det zeren bidez ta nola.

Donostiako merkataritza irabazi eroen bidez beroturik pill pill irakiten zegoen denpora ospatsu aetan, bertako nekazaritza arkitzen zan arras eroria, eta alde Errietakoa ere zabuan zinzilika; zergaitik irabazi berriaren billa langille guztiak amilka zijoatzen. Gauza jakiña da, bada, nekazari gain gañaeen ez dauden guztiak atxurra, laia eta osterontzeko lankaiak zokora botako dituztela egunoroko irabazi apurragaitik. Donostiako saldu-erosia goienengo gailurrera igoa arkitzen zan denpora txintzarri andiakiko artan, beraren mugapeko baserri-etxerik geienetan etzan arkituko bei txaaldun bat bakarra ere. Baziran zenbait etxetan uzta-idi banaka batzuk, kaia, portu, eta karrika lanetarako zeuzkatenak, eta beren oekin itzaiak irten oi ziran eguna argitzen asi orduko lan billa Urira; baita etxetarrak ere otarra ta iritaia arturik errolla bazterretara idientzako janari eske. Zalantzako irabaziaren pozean zijoatzen itzaiak, baldin arkitzen bazuten lanbidea, ekingo zitzaiozkan berari bero beroan portitzki, bai ta jardun ere goaltsu, beren lagunari aurrea artu nairik ito itoka, idi gaixoak lertzeko zorian zerabiltzatela, ibil-aldi bat geiago arrapatzeagatik. Eta baldin ez bazuten irabazbiderik, idiak edozein bazterretan nola nai utzirik, sartuko ziran sagardotegietara, non igaroko zuten egun osoa barbullerian ta jokuan bakallao kiskaldu ta sardin gaziak janaz, sagardoaz bete bete egin arteraño; eta oek zeramaten diruagana begira egongo ziran beren emazte ta alabak, etxetarren afaria ifinteko. Arrastegian guztiak alkargana biribillatutakoan, baldin itzaiak diruaren ota zirrin zarran eragiten bazion zizkuari, pozkida betean sagardoaz aserik guztiak jarriko ziran dantzari. Bañan eramaten bazeban itzpide luzea eta irabazi motza, gau artan izango zan sagardo gitxiarekin apari otza. Eta jakiten bazuten itzaiaren sagardotegiko egona, gizonetako kopetak zimur ta illun, eta andreak txipiritona. Alako bizi-modua nekazari-etxerako ez da txit ona!

Merkataritzako irabazi ots andiko aek iraun zuten arte guztian, nekazaritza onik egin izan etzan Donostiako mugapean. Egia garbi onen ezaungarri agirienetako bat, ifiniko dizutet begien aurrean argiro. Gaur bizerik arkitzen diran gizonetatik asko ta asko dira Gipuzkoan, ikusi izan zituztenak Donostiako Uri-barruan zimauro pilla andiak karrika bazterretara atera, eta beretan inor itsumustuan sartu ta zikindu etzedin, inguru

guztirik esituak zeuzkatela, baserritarrak beren lurretara doarik ere eraman nai etzituztelako. Gertakari onetatik ezagutu diteke bada ondo, nola-ko nekazaritza egin al zitekean, ongarriari aña aixa lagatzen zitzaion tokian. Onela oi ziran orduan Donostia inguruan nekazari anitz bizi, beren langintzari ziotelako utzi; zorroa alzoepen, eta laborea azokean. Bañan orain bestera; goazen ikustera.

Merkataritza erori bezin laster, nekazaritza asi izan zan altxatzen. Gaur emen, bigar an, eta etzi Akelarren oi dabillen irabazi apur airekoak iges egin zebanean, ekin zitzaion nekazaria, oberik etzekutsanean, denpora ta leku guztietan beti balio deban, eta balioko ere daben atxurkintza ondrosoari. Bereala bata bestearen leian abiatu ziran, lenago arras lagatuak zeuden soroak ondeatu, zelaiak atxurtu, ondartzak itxitu, aldapak berdindu, sasiak erre, errollak garbitu, luberriak atera ta ongarritu, eta beste onelako lanbide ikusgarri eder asko eginaz, laboreta andiak bildutzeaz gañera, abelgorriz bear bezala jantzitzeko pozean. Eta beren asmo zuzen bidezkoak ikusi dira ondo beteak uste baino ere lenago.

Gizonaren neke izerdizkoari ondo erantzuten dakien lur leial maitagarria asi izan zan fite, beraren errai garbietan ifinten zituzten azi mueta guztietatik garau baliosoak oparo ematen; eta langilleak ezagutu zutenean garbiro, merkatarien atzapar utsietatik noizean bein atera oi zuten diru pitiñaren aldean, ondasun andiak kentzen ziozkatela lurrari, egunean baño egunean goaltsuago jarraituaz berari, Donostiako mugape guztia ikusten da gaur abelgorriz ondo janzirik nekazaritza gain gañekoa egiten dala. Ez du orain inork arkitzen zimauro pillarik Uri-barruan lenago bezala karrika bazterretan esituak daudela, doarik ere eraman naiezik. Gaurko egunean Donostiako baserritarrak alde aurrez ematen dabe dirua zimauroragaitik, bata bestearen leian; ez bakarri gorotza beren etxetan seguru egiten dabeenai, baita karrikaetan bildutako satsakin gero noizbait izango dutelako asmo utsean daudenai ere.

Milla baserri-etxe bezalatsu kontatzen dira Donostiaren menpekoak, eta guztiak merkataritzako denporan arras eroriak egon izan ziran bezala, orain arkitzen dira goratuak. Beretako bat ezagutu izan det *Ginitzenea* esaten zaiona, orain dalarik irurogei urte, alogerarako zaldi bat bakarra beste abere muetarik izaten etzezana; zeñetan ikusi izan diozkadan bertako maizter Jose Gil de Etxaberi milla zortzi eun ogei ta amabostgarren urtean, uzta-idi galanta soro lanetarako, urte biñako zekor pareta salmentarako, iru bei txaaldun, bat anzua, eta bi zerri gizenduak; eta gañera esan zidan nekazari beargilletsu onek, ezen, abere oek, eta amabi lagun etxetarrek bazkatuak, ogei anega arto bazeuzkala saltzeko. Guztiz begiragarria



dan desberdintza andi au, abuntun ezarri dedala iñork uste izan ez dezan, aipatu ditut egikari au gertatutako baserri-etxea eta bertako maizter gaur bizirik arkitzen dana.

Ikusi degu, bada, argi eta garbi Donostiako merkataritza ospatsua erorteaz, kalte baino mesede geiago izan zebala nekazaritzak. Eta goazen orain, Erri leialak beren estukuntza andietan saldu izan dituzten lur, mendi, ta basoen buruzpideari arretaz begiratzera.

Erriai erositako tokietan berrogei urtez onontz Gipuzkoako mugapean egiñeratuak arkitzen dira baserri-etxe asko, berai dagozkieten alor, baso, berardi, eta abere mueta guztiaz ondo janziak, zeintzuk ematen dituzten ondasun andiak, bertako jaiotar beargilletsuen neke izerdizkoaren bidez. Esan al guztien gañekoa da, bada, erostura oen bidez Gipuzkoako nekazaritzak egin daben aurrerapena, eta bertako atxurlariak artu duten lasaitasuna. Eun baserri-etxetaraño izango dira Oiarzungo mugapean erostura berri oetan egiñak; eta Azpeitia, Azkoitia, eta beste Erri askotan nork daki zenbat? Guztiz da, bada, begiramen andikoa, lenago abereentzako larre pitin bat beste etekiñik ematen etzuten lurretan, orain aberatstasun andiak artzen erritarrak ikustea. Egitura berri andi oek guztiak egin izan dituzte bertako jaiotarrak, eta gozatzen ere daude berak. Beraz lur oekin ez da gertatu beste gauzarik, ezpada kolkotik eroria magalean gelditzea.

*Lurrak ematen daben ondasun garbia,
Goieneneko mallan oi dago jarria,
Izan ta izango da txit maitagarria
Nekazaria ongi bizī dan Erria.*

Zamari edo Zama-abereak

Abere mueta au, ez geiagotu eta ez gitxiagotu beti neurritsu batean, eta gisa batekoa ezagutzen da Gipuzkoan, zergaitik beraganako ez daben ifinten nekazariak ainbeste ardura, nola abere txe, abelgorri, eta azienda beltzetara, ikusten duelako anziña anziñatik argiro, obeto baliatzen dala oekin, arekin baino. Gauza jakina ta egiazkoa ere da, Probinzia onetako jaiotarrak naiago dutela jardun nekazaritzan, ikatzgiten, mea ateratzen, burnigintzan, itsas lanetan, eta beste beargai nekosoetan, ezen, ez ibilli zaldi mutil eta mando zaintzan. Beragaitik ez dira izan berak aiñ zamari

zaleak, nola beste leku askotakoak, naiago ere dituztelako idi ta beiak lan gogorretarako, zaldi ta mandoak baino.

Guztiaz ere, bide andiak arrapatzen dituen Erribilduetan arkitzen dira zamari mueta guztietakoak zer nai lanbidetarako, eta edozein gizon prestu bere naierara serbitzatzeko. Osterontzeko Erri txiki sakabanatuetan dauzkaten zamariak dira menditik olara ikatza eramatekoak, altxeria etxeratzekoak, errotarako laborearen eraman ekarrirakoak, gazta ta arto gariak azokera eta etxera erabiltzekoak, eta beste onelako txirri mirri beren bizimoduari dagozkionetarakoak. Oetako geienak dira zaldiño gazte, beokatxume, eta asto txikitxoak, zeintzuk diraden balio gitxikoak, eta beren lan jakiñak egiteko zaldale bearrik ez dabeenak. Zamari oek aproposak dira txit Gipuzkoako mendi goititu arkaitztartetsuetan ibiltzeko. Amil-biderik gaiztoen, eta aldatsik pikoenetan aiñ zuzen, zintzo ta seguru oi dabiltz, nola ordeka zelai zabaletan, eta are arrigarriagoa da beren lanbide guztiak nola egiten dituzten aiñ ondo, kabresturik, txalmarik, ubalik, eta perrarik bage, bizkar soill garbian soka batekin zama lotu, ta geiagoko laguntzarik egiten etzaiola.

Bertako mugapean jaiotako zamari txume oetakoak Gipuzkoako Erririk geienetan arkitzen dira txit ugari. Nork daki, bada, zenbat zaldiño, moixal, ta beka eramaten dituzten Probinzia onetatik Arabara, Bizkaira, Erriojara, eta beste lekuetara? Gipuzkoan ezagutzen dira gizonak, zamari txume oetakoak bertan erosi, eta Erbestetan saldu, urtearen zatirik geienan beste egiteko bage dabiltzanak. Eta guztien gañekoa da Santa Luzia egunean Zumarraga Billaerrealetara batutzen dan zamari txiki oetako samalda andia. Beragaitik esaten zaio, bada, bi Erri oetan egun artan izaten dan merkatuari *Moixalen Feria*.

Kapitulu au irakurtean izan leike benturaz nor edonor esango debana, ezik, zaldiño, beoka, eta moixalak aiñ ugari diran Probinzian, gauza arrigarria dala, galaren galako zaldi eta mando andietakorik bat bakarra ere ez jaiotzea; eta oetakorik batere ez dan tokian ea nola izan al ditezkean aetakoak aiñ iori? Argurio mueta au ifinten dabeenai erantzuten zaiote, ezik, ez dala Gipuzkoan zaldi ta mando andien bearrik, España barruan bezala, lur gogorrek ondo irikirik bear bezala landatzeko, eta mendi-bide txiorretan zama andiak nora nai erabilteko. Neke andiko lanbide oek egiten dira Gipuzkoan idi, zekor, ta beiakin, Gaztelan ta beste toki askotan zaldi mandoakin egin oi dituzten baino lasterrago, errazago, merkeago, eta obeto askoz ere. Eta zerekin ordaintzen da zaldi, mando, eta idi beiak zaturik, edo bestelako ez bearren baten bidez, ezin egiñera etorten direanean, berai azken bukaeran billatzen zaioten desberdintza andia?



Lanbide onen gañean izkribatu izan duten gizon jakintsuak esaten dute, bada, garbiro, obeago dala askoz ere Gipuzkoan bezala abelgorriakin lurrak iriki ta landatzea, ezen, ez zamariakin España barruko modura. Itzbide balioso au adierazten du zabalki eta ondo Don Gaspar Meltxor de Jobellanos ernaiak atxurkintzako legearen gañean argitaratu izan zeban Vgarren liburuan.

*Lurrari agertzeko barrungo mamiak,
Ez dirala ain onak mando ta zaldiak,
Jobellanosek ditu esaten egia,
Obeak diradela beiak, idiak.*

Azienda beltzak

Azienda-beltza esaten zaion zerri-abere au Gipuzkoan ugaritu da txit asko gizaldi onetan, lenago izendatu ditudan bezalaixen. Denpora batean baserrietan bakarrik izan oi ziran zerrikumeak; bañan orañ Erribilduetako aiton-umeak ere ekin zaiozka azitzeari, berakin ondo baliatzen diralako. Ez da oraindik urte asko Franziatik ekarten zituztela zerri talde andiak Gipuzkoako merkatuetara, bañan merkataritzari nekazaritza gañera igo bezin laster gelditu izan zan Franziaiko azienda-beltzen etorrera, abelgorriena bezalaixen. Begiragarria izateaz gañera da arrigarria txit, urte guztiko asteazken, eta laurenbatetan Billafrankara, eta Tolosara Gipuzkoako Errietatik biribillatzen dan zerri gazte sail andien kopurua. Ogei gizonezko bederik gaurko egunean Probinzia onetakoak badira, izendatu ditudan bi Errietako merkatu guztietan zerriak erosi, eta Gipuzkoaz kanporako tokietan saldu, beste egiteko bage beti lanbide onetan dabilzanak. Eta oezaz landara, Santiago egunean Segurako merkatutik, San Andreskoan Azkoititik, Santa Luziaz Zumarraga Billaerreetatik, eta San Tomasetan Azpeitian, Seguran, eta Mondragoiko Errian egiten direanetatik nork daki zenbateraño zerri samaldak eramaten dituzten Bizkaitar, Arabatar, Erriojatar eta beste askok berariaz artara etorririk?

Erbestetar oek oituraz dakite, bada, ondo, Probinzia onetako mendi-zerriak obeak dirala, Erriberaetakoak baino. Beragaitik izaten dute aiñ jaso andia urtearen sasoi guztietan; eta baldin iñoiz edo berriz Nafar-zerri banakaren batzuk agertzen badira, aipatu ditudan merkatuetara, belarrie-

tatik ezagutzen dituzte dirala Gipuzkoakoak. Gauza jakia da belarri txiki zutituek dituen zerria, ez dala izango lodi ta andia.

Zerri gazte samalda andia aurrerako azitzen dituztenaz gañera, Probinzia onetan gizentzen dira ordots, irindu, eta txer ardi txikiratuak guztiz asko ta txit pisu andikoak, zeintzuebatik eramaten dituzten Nafarroara ugari, bizitan ez ezik, gazitutako urdaitan ere, koipatsuagoa eta gozoagoa dalako au, angoa baino. Badakit Azpeitiko Errian Don Bizente Alzibarko jaunak bere etxean gizendutako zerriak pisatu izan ziola ogei ta lau arroba, eta zortzi libra. Don Juan Franzisko Jauregi Bikario Zaldibian zegoela, beraren etxean gizendutako zerria ikusi izan det pisatzen ogei arroba eta bost libra. Erri onetako errotari Franzisko Nazabalek urterik geienetan gizentzen ditu amaseina eta amazapina arrobako zerriak. Ez dira amar urte orañdik, Beasaingo etxe batean Ignazio Maria Muxika deitzen zaionak gizendu ditubala txer-ama bat, eta beraren bost ume; zeñean amaikana illabete zituzteneko, bost umeak pisatu izan zituzten amabostna arroba bataz beste; eta amak ere bai amairu igaroak.

Gipuzkoako zerrien ugaritasun andi au irakurtean zer esango ote dabe, Barzelonan moldizkidatutako Itztegian egiazat ezarria dagoela ikusten dutenak garbiro, Probinzia onen mugapeko zerrien kopurua milla, berreun, ogei ta zazpi baizik ez dala?

*Sinitspen osoa da gizon andietan,
Gezurrik ez dutela jarten paperetan;
Bañan iñoiz arkitzen dirade beretan,
Andienetako bat ona emen bertan!*

Beste gauzatxo bat ere badakar Itztegi andi ark, ixilik uztekoa ez dana. Gipuzkoako laboreaz itz egitean esaten du, bada, ezik, beraren mugapean egiten dirala berreun, ta laurogei, eta amar milla anega gari; eta artoa, berreun, ta irurogei, eta amaika milla anega. Beraz garia geiagi biltzen da emeretz milla anegataraño, artoa baino! Onelakorik entzun ez degu orañdano! Utsaldia bat aiñ andia, arras ezaguna ta txit argia, gizon jakintsuak dutela azaldu, eta mundu osoan zabaldu sinisteak ere lan du! Itzbide onek zer esan luzea du, eta ez det nai denporarik galdu; Gipuzkoak beredinbat arto ta gari badu.



Auntzak

Orain datorkit bada auntzen itz-aldia,
 Bañan andizkatzea oen larru, esne, ta mamia,
 Zenbait gizonentzat da txit bekatu andia.
 Guztiaz ere esan bear det nere iritza,
 Izango bada ere bazterrean utzia;
 Auntzak askori ematen dio bizia,
 Berari ipini arren iltzeko sententzia;
 Nolakoa ordea?
 Gaitzgillerik andientzako gordea,
 Ken dakiotela auntzai kordea,
 Suausarekin balaz
 Egunaz ere bai ta orobat gauaz,
 Kanpoan dabiltzan guzi guziaz arras.
 Da gauza jakiña,
 Auntza ere dala gizonarentzako Jainkoak egiña;
 Batzuentzat gozoa; eta besteentzako samiña,
 Errapea bezin ona ez duelako agiña.
 Ezin ukatu leike, bada, dituztela auntzak,
 Guztiz zorrotzak
 Agiñakin ortzak,
 Baita ere errapeak
 Esnez ondo beteak,
 Eta uda ta negu bazkatzen guztiz merkeak.
 Onen ugari gozoa ematen duten auntzak,
 Nola utzi ditzake nekazariaren antzak?
 Baldin egiten badute kaltea,
 Ezarri muskillarekin katea,
 Artarako ipinia dago Alkatea.
 Auntz jabeari ematen bazaio zakelan miñ,
 Aren auntzak ez dezake zuriketa asko egin,
 Zergaiti bera kontuan egongo dan ernai, zintzo, ta pin.
 Beldurrak gordetzen debala mastia,
 Esan izan zebana etzan gezurtia!
 Nekazariaz artzen dala urrikia,
 Guziari eman dakiok erabakia.
 Ez da, bada, ain nekeza artzea neurriak,

Gorputz bat egingo balirake Erriak;
 Bañan auntzen etsaiak diralako erdiak,
 Poztu egiten ditu oen illberriak.
 Auntzak eta basoak ezagutu izan dira beti
 Munduaren lenbizi biziko asierati.
 Eta orain zergatik
 Ez degu bear auntzik
 Ez gitxi ta asko?
 Basoak galtzen dizkigutelako!
 Utzi zizkiguten, bada, geren gurasoak
 Txit ugari eta erosoak
 Auntzakin basoak,
 Utsaldiarik bageko oso osoak.
 Bañan geroztik dijuaz,
 Auntzak gitxituaz,
 Eta basoak txikituaz.
 Aek ill ta oek ebaki
 Egin dituztelako ausarki,
 Modu onetan ezin diteke basorik jaiki.
 Egia da landareen eritzallea dala auntzaren ortza
 Eta basoen iltzallea?
 Aizkora zorrotza!
 Ikatzgiña sartzen dan basoan
 Eta beraren inguruko auzoan,
 Akullu gairik ere ezta ikusiko gizaldi osoan.
 Bañan auntzaren ausapaia izan arren gazia,
 Baldin basoa arkitzen bada zertxobat azia,
 Eder ta galant, berde ta mardul egongo da guzia.
 Ez det luzeagotu nai nere esankizuna;
 Auntz gaxoai
 Eta baso goixoai,
 Jaungoikoak diela betiko osasuna;
 Gipuzkoak izan dezan ugari ondasuna.



Abere basati edo Lar-abreak

Gipuzkoako mendietan ezagutu izan diran abere basati edo lar-abreak dira Katamotza, Otsoa, Artza, Basurdea, Azkonarra, Orena, Basauntza, Azeria, Pitosa, Katardea, Muixarra, Udoa edo Untxarta, Erbiñurea, Lanixarra, Kikirioa edo Trikua, Basakatua, Puña-lepotxuria, Puña-lepaoria, Erbia eta Igaraba.

Milla zazpi eun, ogei ta amabost urte inguruan Aralar mendian Zaldibiako bi baserritar eiztarik ill izan zuten Artz andi bat elurte batean. Eiztari oetako bat omen zan Markes de Balmedianoren maizter *Ursugoena* deitzen zaion baserri-etxean bizi zana. Etxejabe andi onek jakin zebanean Artzaren illberria, gaztigatu ziokean bere maizterrari, ezen, eiza larrurik kendu bage zegoen bezala gurdian ifinirik, etxeko uztar-idiarekin eraman zezala beraren Jauregi Billafrankakora. Maizter Ursugoenekoak mandatu au artu zebanean, bere eiztari-lagun *Gorrienea* izendatzen dan baserrian bizi zanari esan ziokean nagusiak zer gaztigatu zion, eta biak alkarturik eraman omen zioten artza oso osorik Markesari bere etxe-atarira, Ursugoenekoaren semea itulari zutela bertako idiakin. Eiz andi au Billafrankara zeramatelako barria inguruko Errietan zabaldu izan zalako, batu omen zan bertara, Santa Ana egunean pestara bildu oi dan jendea baino geiago, Artza ikustera; eta billera zoragarri onen atsegiñerako Markesak ifini-erazo omen zeban Artza altxagarriakin lau oñen gañean bera berez bizirik bazegoen bezalaixen, eta gisa berperein euki ere omen zuten, jendea bakandu zan arteraño. Arrastegian barrunpeko mami ta ezurrak larruari arras kendu eta au lasto zeatuz ondo beterik, jarri-erazo omen zeban Markesak bere Jauregiko ezkaratzean sartu eta eskuirontz dagoen Orman esekirik buruz beera. Artzaren larruari kendu ziozkaten aragi ta ezurrak pisatu omen zuten amazazpi erralde eta lau libra. Eiztari biai eman omen zien Markesak bazkaria bere maiean eta zortzi dukateko bana etxerako; bai ta itulariari ere bost ezkutuko bat. Artza ill zebanaren seme itulari au bizirik arkitzen zan nik ogei urte nituen denporan; zeñari entzun izan nion gertaera au bein baino geigotan, emen ezarri dedan modu berperein.

Artz andi aren larrua berrogei ta geiago urtean ikusi izan neban neronek Baldemiano jaunaren ezkaratzean zinzilika zegoela bere mustur, belarri, beso, anka, atzapar, atzeki, eta osterontzeko zati azaleko guztiak

osotoro berekin zeuzkala; bañan ogei ta amasei urte bezalatsu izango dira, larru gogoangarri hura ezkutatu zala, ezdakit nora eta zeren bidez.

Guztiaz ere, Artza nork ill izan zeban ezagungarri txiki bat gelditu zan Zaldibian. Balmediano jaunak bere Jauregian Artzaren larrua aiñ maitaro zeukalako, beraren maizter eiztariari jarri zioten izengoitia *Markesa*, zergaitik eiz andi hura Ursugoenean lenago egon izan zan Billafrankako Jauregian baino. Geroztik eiztari andi ari, beraren semeai, eta oen semeen semeai ere etzaiote Zaldibian beste izenik esaten, ezpada, *Markesa*; eta beragaitik Erri onetan ume txikietarañoakoak dakite izen ondroso au zeren bidez datorkioten.

Milla zazpieun, irurogei ta amaseigarren urte inguruan, Katamotz izugarri bat arrapatu zuten Idiziabalko artzaiak zepoan Aranzazu mendian; zeña ikusi izan neban Zaldibiako nere jaiotetxean, larrua kendu baino len bere aragi ta guzti zaldi gañean zerabilte alderrietako artzaien artean atzitze-sari eske. Eiz kaltarkitsu au ikusirik aiñ andia, nere aitak pisatu izan zeban gizon askoren aurrean bera irurogei ta emezortzi libra. Iduritzait oraintxen ere, begien aurrean daukadala Katamotz ikaragarri aren itxura. Guztiz zeban kolore gorri oritarako ederra, bere pikort beltz distiatuakin unetik unera or emen txit egoki apaingarritua; bañan beraren ortz agiñak, sudurmintzetako bizar lodi gogorrek, eta azkazal luze kaktu zorrotzak ikusi ta beste bage, ezurretarañoako ikara sartu zekiokan edozeñi.

Otsozar gaitzgiliek, basoak ugariago ziran denpora doatsu aetan ainbat ezpada ere, ardi jabeak nai baino geiago agertzen dira Gipuzkoako mendietan. Urte guztietan arrapatzen dituzte beretako asko zepoetan, batez ere, Oñate aldeko mendietan. Otsoen etzin-lekuen barri dakiten artzaiak izan dira Aralarko mendian, janari billa beretakoa noiz irteten dan kanpora kontuan ixiltxorik egon, eta otsakumeak zortziña, ta amarna apian dauden tokietatik arturik beren etxetara ekarri izan dituztenak. Gisa onetan atzemandako otsakumeak askotan ikusi izan ditugu, otarratxo batean darabiltzate bizirik Erriz erri, atzitzesari eske. Nere jaiotterrian ikusi izan det gizona, sari-eskatzalle oetakoari otsokumea erosi, eta bere etxean umeak eginda zeukan txakurrari azieragiten; bañan iru illabete zituaneke adierazo zeban garbiro, beraren griña gaiztoa zertarako zan. Ekin zitzaion bere etxe eta auzoetan arrapa al zitzaion ollo ta arkumeak izotzeari. Guztiaz ere naiago zeban jabeak kalteak pagatzea, ezen, ez gelditu otsoa bage; bañan goiz batean arkitu zan bere etxe-atarian buru guztia puskaturik, ez nork eta ark, illa.



Basaurdeak ugari dira txit Gipuzkoako baso ta mendietan. Berak arrapatzera joan oi dira askotan andizkiak alkaturik, aste osorako janariak abereetan dituztela beren morroiakin, pesta andi batzuketara balijoaz baino ere atsegintasun geiagoan.

Modu onetan egin izan dituzten irten-era aldietan ekarri izan dituzte iñoiz, zortzi edo amar basaurdetaraño; eta oen artean ikusi izan da zortzi arroba pisatzen dituen ere. Milla zortzi eun ogei ta amargarren urteko elurte andi luzaroko artan, Andurio deitzaion mendi-adar Ataun, Zaldibia, eta Lazkauren mugapekoan, arrapatu zituzten bost basaurde, eta ogeita amasei basa-aunz bertako nekazari jendeak makilla utsakin su-armarik bage.

*Lar-abere asko zan orduan erori,
Alere sortu dira nondikbait iori;
Kalte anitz diote egiten iñori,
Bañan ezin diteke sendatu miñ ori.*

AMABIGARREN KAPITULUA

*Gipuzkoan ezagutzen diran egazti, eta pistia guztien errazoa,
Euskarazko izen beren berenkiakin.*

Probinzia onetan azitzen diran egazti eskurakoiak dira Ollarra, Olloa, Kapoia edo Gankoia, Ollaiskoa, Ollandea, Txitoak, Usoa, Usakumeak, Ataa, Antzarra, eta Indiollarra bere Olloakin. Beretako mueta guztitik arkitzen da ugari Gipuzkoan. Mugape onetako tokirik garestiengan ere erosten da ollorik oberenetakoa lau errealetik bostera bitartean; ollanda ollaisko pareta ere bai, olloaren balio berperean, edo merkeago askotan; Usoa ta usakumeak, are gitxiagoan; kapoi pare bikañe-netakoa izaten da amabi erreale dagokala; ataa, antzar, eta indiolloak, garestiago ez batere. Erbesteetatik Probinzia onetara etorri izan diran gizon andizki goienengoak esan izan dute toki askotan, ezen, iñon ere ez dutela jan izan egazti guriagorik, ezadetsuagorik, eta gozoagorik, nola Gipuzkoako mai andi txukunetan. Probinzia onetako kapoiak beragaitik izaten dute, bada, aiñ jaso andia Madrilko Erriburu andira eta beste leku askotara, berak balio duten alako bi ta geiago eraman-saria pagatzen dala.

Eliz-egazti, eta pistia mueta askotakoak dira ugari Gipuzkoan. Itsasoak arontz onontz igaroaz udaberri ta uda azkenetan ibilli oi diran aetakoak ere, egon-aldi luzeak egiten dituzte Probinzia onetako baso ta mendietan, beren toki jakiñ artuak dauzkatelako, negutarrak bazkatzeko, eta udakoak umeak ateratzeko. Beragaitik ezagutzen dira emen beren izen egoki Euskarazkoakin; zeintzuk ezarriko ditudan Abezekiro, bakotxari ifinten diodala alboan erdarazkoa, ikusi dezaten garbiro uste ez duten askok, Euskarak badituela txori ta pistiaentzako ere izen beren berenkiak, beste gauza guztientzako bezalaixen. Banaka batzuk izango dira erderaz izenik ezagutzen ez diotedanak.

Adiakaria, *Antillo*.

Alkoia.

Antxulauta, *Sison*.

Antzarra, *Ganso*.

Anzandabuia.

Anzarzeta, *Zarceta*, *Zarzeta*. Izen oek dira Euskararenak.

Arbitxoria, *Harpya*. Euskara



- Ariztxoria, *Babari*.
 Arranbeltza.
 Arrano, *Campisa, Aguilucho bastardo*.
 Arranoa, *Aguila*.
 Arrano-gaintza, *Aguila real*.
 Arrano-nabarra, *Planga*.
 Arrano-urdina, *Gerifalite*.
 Astorroa, *Onocrotalo*.
 Ataa, Ahalea, *Pato, Anade*.
 Atabeltza, *Fnsca, especie de Anade*.
 Atalarra, *Alcaraban*.
 Atameankaria, *Meauca*. E
 Aturria, *Falaris*.
 Aunzendorlea, *Chota cabras*.
 Aztorea, Azorea, *Azor*. E
 Azurtxearia, *Quebranta huesos*.
 Baratza-txoria, *Hortelano*.
 Basa-txoria, *Ave silvestre*.
 Basollarra, *Abucasta*.
 Belaiska, *Chova, Bidarisco*. E
 Belatxaua, *Graja*.
 Belatxia, *Grajo*.
 Belatxingea.
 Belaza Azorearen antzekoa.
 Belea, Belaa, Erroia, *Cuervo*.
 Bele-alortia, *Merendero*.
 Beltxarga, *Cisne*.
 Berdasa.
 Berdoria, *Oropendola*.
 Bilta, *Gansaron*.
 Birigarroa.
 Bordoia.
 Bulargorria.
 Burubeltza.
 Bururdiña, *Pelicano*.
 Buzoka, Saika, *Buitre*.
 Buztangorria.
 Buztanikara, *Chiribia*. E
 Buzturkulloa, *Rabibordado*.
 Egabeltxa.
 Egabera, *Avefria*.
 Egagorria, *Cardenal*.
 Eganagisa, Luztarra, *Abutarda*.
 Egatxuria.
 Egazoria, *Volanton*.
 Egazterrena, *Pavon, Pavo Real*.
 Egazti-ankaluzea, *Flamenco*.
 Egaztiarraparia, *Oximaco, Alfaneque*.
 Egaztierikaitza, *Zabareno, Bravo*.
 Elaia, Enada, Ainhara, *Golondrina*.
 Emaloroa, *Cataluica*.
 Eperdikara.
 Eperkumea, *Perdigon*.
 Eperra, *Perdiz*.
 Eperta, Txarta, *Benarrixa*. E
 Errekaxori.
 Erretxiñoleta, *Ruiseñor*.
 Erruntaria, *Curruca*. E
 Eskilaso, Eskinsua, *Arrendajo*.
 Etxaxoria, *Pipo*.
 Eulastia, *Doral*.
 Eulijalea, *Muscicapa, Cazamoscas*.
 Gabiraia.
 Gaioa, *Patin*.
 Galdollara, *Gallocresta*.
 Galeperra, Pospolina, *Codorniz*.
 Gartza, Garza. E
 Gaugatxoria, *Ganga*. E
 Gautxori arraparia, *Ave nocturna*.
 Gautxoria, *Ptingue*.
 Gautxoriaina, *Alucon, Mochuelo*.
 Gautxoriaia, *Galgulo*.
 Gautxorisorgiña, *Estrige*.
 Giltxoria, *Gulloria*. E
 Gita.
 Giyoia.
 Gorrioltza, *Oriol*. E
 Gotzurria, *Morfex*.



Guarza.
 Indiollarra, *Pavo*.
 Indiolloa, *Pava*.
 Intxusatxoria.
 Iskinusoa.
 Istingorra, *Chorlita*. E
 Itsasarranoa, *Halieta*.
 Itsasbelea, *Mergo*, *Cuervo marino*.
 Iturritxoria.
 Iyatzekia, *Rabo de junco*.
 Iyuntxuria, *Zarapito*.
 Kaiabeltxa, *Laro*.
 Kaioa, *Gaviota*. E
 Kaiomorea, *Guincho*. E
 Kardintxa, Karnaba, *Jilguero*.
 Kardintzarrea, *Pardillo*.
 Kaskamorra.
 Katatxoria, Aotzilaria, *Pico*, *Pito*.
 Ketzalea, Quetzale. E
 Koarzarria, Ugoraria, *Gorcero*.
 Kukua, *Cuclillo*.
 Kukurusta, *Abubilla*. E
 Lapurtxoria.
 Larrapatxalea, *Selencide*.
 Lepitxulia, *Torcicuello*.
 Lertzuna, Kurrulloa, *Grulla*.
 Loro buztanluzea, Loromotela, *Guacamayo*.
 Loroa, Kotorra, *Papagayo*.
 Martineta, *Ispida*. E
 Masustatxoria.
 Matstxoria.
 Mendi ollarra, *Coyujada*.
 Mikea, Mika, Urraka, *Hurraka*. E
 Mirantza, *Harpa*.
 Mirotza, *Halcon*, *Guvillan*. E
 Mirua, *Millano*.
 Mirumotza, *Cernicalo*.
 Miruska, *Esmerejon*.
 Mokitaia, *Ibis*, *Fabinelo*.

Mozolloa, *Bubo*.
 Nanderra, *Faisan*.
 Negutxoria.
 Nutxitxoria, *Oenatbe*.
 Okilla.
 Ollagorra, *Becada*. E
 Ollanda, *Polla*.
 Ollapaboa, *Gallipavo*.
 Ollarra, *Gallo*.
 Ollaskoa, *Pollo*.
 Ollaskotzarra, *Pollastro*.
 Ollatea, *Gallareta*.
 Olloa, *Gallina*.
 Ondartxoria, *Heleyon*.
 Ontza, *Lechuzga*.
 Orantxoria, *Lugano*.
 Otatxoria.
 Ozpiztia, *Oxymel*.
 Pagusoa, *Zorita*, *Zurita*. E
 Paguso-egarioa, *Picacureba*.
 Pikoiska, *Papafigo*.
 Pikutxoria.
 Pipi, *Pipi*. E
 Poistarika, *Matacilla*, *Aguzanieve*.
 Saguxarra, Gauendea, *Murcielago*.
 Saiea, *Avestruz*.
 Sakerea, Sakerrea, *Sacre*. E
 Sapelatsa.
 Sasitxoria.
 Sasizozoa, *Merla*.
 Sorbeltxa, *Vencejo*.
 Sorgintxoria, *Bauza*, *ave nocturna*.
 Sugeistarkumea, *Cegoñino*.
 Sugorria, Kataraña.
 Sukudaria, *Ophimacho*.
 Sunzuna.
 Tomintxoa, *Tominejo*.
 Tondartxa.
 Torina.



Txantxagorria, *Mozçareta*.
 Txepetxa, *Abadejo*.
 Txikirrisa, *Herreruelo, Cerrojillo*.
 Txioa.
 Txirita.
 Txirmisela.
 Txitaldia, *Pollazon*.
 Txitoa, Ollaskoa, Ollandea, *Pollico*.
 Txitutxa.
 Txoaberdea, *Chamuriz*.
 Txoarrea, Kurroka, Ormatxoria, Parratxoria, *Gorrión*. E
 Txoka.
 Txorabilla, *Paro*.
 Txoria, *Pajaro*.
 Txoriandra-andia.
 Txoriandra-bitartea.
 Txoriandra-tontorduna, *Cugujada*.
 Txoriandra-txikia.
 Txoriandrea, Calandria.
 Txorierlejalea, *Avejeruco*.
 Txori-itsua, *Avechuco*.
 Txorikanaria, *Canario*.
 Txorioinbagea, *Manucodiata*.
 Txortxa, *Chocha*. E
 Txortxinta, *Pinçon*.
 Txulunta, *Francolin*.
 Ugarrantza, *Trullo*.
 Ugolloa, *Gallina de río, Gallineta*.
 Ugolloa, *Zaramagrillon*.
 Ugollo-andia, *Gallineta grande*.
 Ugollo-bitartea, *Gallineta mediana*.
 Ugollo-lepandiduna.
 Ugollo-txikia, *Gallineta pequeña*.
 Untxitxoria, Oenathe.
 Urdiluma, *Guardario*.
 Uritxoria, Pluvial.
 Urraka.
 Urtxoria.
 Urzozoa.

Usajarraia, *Palumbario*.
 Usakarlea, *Cimill cimillo*.
 Usamandoa, *Paloma torcaz*.
 Usatortola, *Tortola*.
 Usoa, *Paloma*.
 Utegazia, Igeregazia, *Avecubar*.
 Utxorigorria, *Calamon*.
 Zaida, *Zaidar*. E
 Zaletorkia, *Recreida*.
 Zata.
 Zerzetea, *Cerceta*. E
 Zoritzarra, *Pajarrazo*.
 Zozabarra, *Estornino*.
 Zozarrea, *Picafigo, Fiadula*.
 Zozoa, *Tordo*.
 Zozoarrea, *Zorzal*. E
 Zunbakaia, *Zumaya, Zumbaya*. E
 Zunbakaioa, *Engaña pastoril*.

Emen izandatu ditudan Eiz-egazti, eta Pistietakoak, urtearen buruan asko erorten dira Gipuzkoako mugapean, bertako jaiotar ernaiak eizerako griña andia zañetik dutelako. Probinzia onetako giza-semeak mendi ta pistia tartean bizi diralako, geienak edo guztiak dituztela ere esan diteke, beren su-arma onak eizerako, eta beste gertakari asko, ustez ustekabe iñoiz izaten dituztenetarako. Eta oek.

Eizagana ifinten badute begia,
 Zuzen aski artuko diote neurria;
 Dala Arranoa ta naiz txantxangorria,
 Lurrera izango da plostetz eroria.



AMAIRUGARREN KAPITULUA

Gipuzkoaren mugapeko itsaso, eta ibaietan arrapatzen diran arrain gozo balio andikoen azalduera.

Gipuzkoako Probintzia jaiotzatik da, bada, beraren serbitzorako bear diran gauza guztiaz gure Egille andiak ondo janzia. Ikusten da argiroki, nola España barruko Probintzia askotan, baldin itsas-arrain pitin bat jango badute, eraman bear dutela Gipuzkoatik; eta emen izaten degula asko aldiz doban ez, eta artan. Arrainari dagokan aldetik Probintzia onek ezin naikidatu dezake, daukan baino ditxa geiago; zergaitik ibai andiak erreka zistorretaraño guztiak dituen ezkalu mazkar, aingira ta amorraiz osotora josiak.

Probintzia au dalarik ain leku laburra, begiratzea baizik ez dago itsasoak zenbat Erritaraño jotzen dituen beren etxeatarietara irten bezin prest arrantzan daudenak; eta oraindik are geiagokoa da, Erri oetako gizonak nor bere sukaldetik amuarekin arrain eder galantak arrapatutik, zartagiara bizirik dakartzitela ikustea. Amairu erritaraño badira Gipuzkoan, esan dedan moduan itsasoaren ertzean daudenak, zeintzuk diraden Irun Aranzu, Ondarribia, Lezo, Erreterria, Pasaia biak, Donostia, Orio, Zarauz, Getaria, Zumaia, Deba, eta Motriku. Nere ustez esan ditek, bada, ezen, Erri oek eta beretako biztanleak arraintzako lanbideari zor diotela beren zorientasunaren zatirik andiena. Urtearen egunik geienetan ikusten dira Erri oetan España barruko gizon asko beren mando talde andiak arrain eske etorririk, eta iñoiz topatzen dute eraman al dezaten baino ere geiago; zeña eskabexaturik gordetzen duten guriro, ez aldietan saltzeko. Izaten dira egunak asko ta asko eun ta geiago mando erroselez beteak Donostiatik irteten diranak; eta Uri au ez dalarik arrainik geiena arrapatzen dan tokia. Nork daki, bada, urtearen buruan Gipuzkoaren itsas bazterreko Errietatik zenbat arrain eramaten dituzten Nafarroara, Aragoira, Arabara, Errioja, Gaztela, eta beste lekuetara?

Milla zortzi eun ogie ta seigarren urte inguruan Motrikutik arrain berria Madrilko Erriburu andira eramateko ifini izan zituzten berariatz egindako kotxe aproposak; zeintzuben bi egunetik batean eramaten zituzten uts-aldiarik bage eun ta geiago arroba, laurogei legua bide igarorik berrogei ta amasei orduren barruan, eta iñoiz iritsi izan ziran berrogei ta lauean ere. Itsasoan arkitzen dan arrainik gozandetsuena dalako Izokia,

beretakoak biraldu oi diozka gure Ama Gipuzkoa leialak bere Errege mai-teari Aste Santu guztietan opairo. Españaiko andizkirik goienengo askok arkitu izan dute Gipuzkoara bidea Izokia bear dutenean, ikusiaz dakitelako ondo, Probintzia onetako itsas bazter guztiak dirala arrain mueta onezaz beteak. Egiazki arrigarria da txit, itsasoari lagarik emengo ibai andi geza-gozokoetara Izokiak duen joera.

Debako ibaian igotzen dira Mendaroraño samalda andiak; Urolakoan orobat, Iraetara; Oriakoan Usurbilla ugari txit, eta Andoaina ere bai askotan; Urumeakoan Astigarra igarorik Hernaniraño; Oiarzungoan ezin igo dira Erreteriaz gora, ur-arka goitituak arkitzen dituztelako; Bidasoan igotzen dira Nafarroan barrena ere, eragozpenik arkitzen ez dutelako. Lenago esan dedan bezala, guztiz sarrera andia dute Izokiak Gipuzkoako ur geza-gozoetara, batez ere umeak bota bear dituzten denporan. Sei ibai andi oetakoetan ugariena izaten dira Bidasoan, baita galantenak ere, zergaitik lasaitasun geiago arkitzen duten toki berean beste bostetan baino. Ibai berean arraintza aldi batez arrapatu izan dituzte berreun ta geiago Izoki galantak, Irun aranzungo mugapetik irten bage.

Aipatu ditudan sei ibai andiaz landara ere badira Gipuzkoan erreka txiki banaka batzuk, itsasoak jotzen dituanak, zeintzuben arrapatzen diran ugari zirlak, ostreak, otarrainak, txangurruak, lapak, iskirak eta beste asko oei darraizkietenak; eta azaleko txiri miri oezaz gañera nork asmatu zenbateraño ondasunak kentzen diozkaten arraintan Gipuzkoatarrak itsaso ezopeari? Ez da erraz alderatzea ere! Bañan ifini bear dizkitzet emen begien aurrean argiro, Probintziatarrak itsasotik eta Erriko ibaietatik ateratzen dituzten arrain gozarotsuen izen Euskarazko garbiak, jakin dezazuten zuen atsegiñerako, ezen, itzkuntz jakinti aberats onek ez dabela auzora joan bearrik soñeko zirzillen eske, bear bezala txukunkiro apaindurik eder ta galant noranai agertzeko. Arrain oen izenak ezarriko ditut, Egaztienak bezalaixen, dakitzadan erdarazkoak alboan dituztela.

Abixoia.
Alakoa.
Albanu.
Andeja, Meroa, *Mero*. E
Antxarraina, *Craba*, *Cabra*.
Antxarrain-arrokakoa.
Antxoa, *Anchoba*. E
Aolatza, *Mustela*.
Armiarraina, *Arana*.



Arraiandrea, *Pexemuller*.
 Arraingaroa, *Garó*. E
 Arraingorria, *Escarbo*.
 Arrainzala.
 Arraizpata, *Espada*. E
 Arraztekoa, *Saxatil*.
 Astuna, *Grave*.
 Atuna, *Atun*. E
 Atun-berria, *Tonina*.
 Atunjaioberria, *Condyla*.
 Atunkumea, *Pelamide*.
 Atuntzikia, *Amia*, *Bonito*, *Bonitulo*.
 Aztarraina, *Ezcaro*.
 Bakallaoa, *Abadejo*.
 Balea, *Ballena*. E
 Barga, *Barboa*, *Barbo*. E
 Barnariña.
 Beltxarraina, *Negrilla*.
 Berdela, *Salpa*.
 Bitsarraina, *Mugil*.
 Boga, *Boga*. E
 Bokarta.
 Bollarraina, *Rueda*.
 Budiona, *Budion*. E
 Burtaiia, *Liza*.
 Dabeta.
 Deitua.
 Donzaila, *Doncella*. E
 Egatzibia, *Calamar*.
 Errodaballoa.
 Errosela, *Besugo*.
 Erroselbegigorria, *Breca*, *breque*.
 Erroseltzikia, *Pagel*.
 Eskallua, *Jaramuyo*.
 Esparloia.
 Ezkalua, *Bermejuela*.
 Fraidearraina, *Fraille*.
 Galtza, *Lixa*.
 Geldarria, *Remora*.

Gelpea, narra, *Tardo*, *Torpe*.
 Goizkata, *Esturion*. E
 Ilisatsa, *Escorpina*.
 Iotua, igotua, *Maza*.
 Iskira, *Camarron*.
 Itxasbarakullua, itxasmaskullua, *Caracol*, *choncha marina*, *retorcida*.
 Itxasotsoa, *Lobo marino*.
 Itxastrikua, *Echino*.
 Itxaszaldia, *Caballo marino*.
 Itxaszapoa.
 Ixildonga, *Callaputa*.
 Izokia, *Salmon*.
 Izokisemea, *Salmonete*.
 Izurda, *Delphin*.
 Jibarta, *Lamia*, *Feleter*.
 Karamarroa, Txangurrua, Amarra, Amarratza, *Cangrejo*.
 Karpa, *Carpa*. E
 Karrakela.
 Katuarraina, mitxa, mielka, *Mielga*. E
 Koloka, *Sabalo*.
 Korkoia.
 Lametia.
 Lanparda, *Lamprea*. E
 Lanperna, *Apancora*.
 Lantaia.
 Lapa, magurria, *Lapa*. E
 Lapaberdea, *Verderal*.
 Lapagorria, *Murice*.
 Lapamagurria, *Marisco*.
 Larlatza, *Cazon*.
 Lazuna, *Albur*.
 Legatza, *Merluza*.
 Lengoradua, *Lenguado*. E
 Lerda, nagia, *Lerdo*. E
 Lupia.
 Marigora.
 Maskorta, utallarra, *Galapago*.
 Masopa.
 Merua.



Miruarrina, *Millano*.
 Mixera.
 Morea.
 Mujoia.
 Muskullua.
 Nagia, *Remolon*.
 Negalea, *Mena*. E
 Olagarroa, *Pulpo*.
 Ongrioa, *Congrio*. E
 Orratza.
 Ortzerrosela, *Denton*.
 Orzka.
 Ostrea, *Ostra*. E
 Otarraina, *Langosta*.
 Paluixa.
 Paneka.
 Patutxa.
 Perloia.
 Pinpiñeka.
 Pota.
 Pulpulua.
 Sarauslea.
 Sardin-igarra, *Arenque*.
 Saubia.
 Siluroa, *Siluro*. E
 Sortarraina, *Torpedo, pececillo*.
 Sutarraina, *Purpura*.
 Tenka, *Tenca*. E
 Turbotea, *Rodaballo*.
 Txabaloia, *Caballa*.
 Txalburua, Igeltoa, *Renacuajo*.
 Txaloitxikia, uerka txikia, *Sarda*.
 Txangurrubarda.
 Txardiña, *Sardina*. E
 Txardintxoa, txardieta, *Sardineta*. E
 Txeutxa.
 Txibia, *Jibis*.
 Txilibitua.
 Txintxiña.

Txipiroia, *Chipiron*. E
 Txiria edo Txirria.
 Txirla, *Almeja*.
 Txitxardiña.
 Txitxarroa.
 Udarraina, *Lampuga*.
 Udilista, *Pamplina*.
 Ugotsoa, *Sollo*.
 Urrearraina, *Dorado*.
 Urtxala, *Rosmaro*.
 Zapatariarraina.
 Zarboa, *Cotofite*.

Arraintzako lanbidean ere Gipuzkoatarrak izan dira gain gañekoak, beste gauza guztietan bezalaxen. Gipuzkoatarrak ziran, bada, Baleen ilkintza eta bakallo-arrapatzea asmatu izan zutenak, eta langintza gogoangarri oni lendabizi ekin zitzaiozkanak, argibide anitzetan arkitzen dan bezala. Milla, berreun, ogeita amazapigarren urteko Agorriaren emezortzian Errege San Fernandok Zarauzko Erriari Burgosen emandako Fuegoak esaten du garbiro, nola Erri artako biztanleak Balea iltzen zutenean eman oi zioten Erregeri zati bat, burutik asi ta atzekirañokoa, eta mingaña oso osorik Eliza, San Pedro, edo beste Santu artu bati. Esan diteke, bada, Fuero au dala, Baleen ilkintzaz itzegiten daben lendabiziko itzkribua; eta arritzekoa da txit, beraren aipamenik inork ez egitea, orain berrogei urte ingururaño, sinitsgarri aiñ baliosoarekin agirian jarria lenago egon bear zeban, Gipuzkoatarrak beren buruz asmatutako lanbide onen anziñaera guztiz urrunekoa.

Egiako argibide askoren bidez dakigu ziertoro, Gipuzkoatarrak asi izan zirala lenbizi Baleak iltzen; eta baldin anziñako itzkribu sinistgarriak ezer esango ez balute ere, Probinzia onetako erri itsasbazterrekoetan arkitzen dira ezagugarri agirikoak, zeintzuk adierazten dabeen garbiro, Bale asko arrapatu oi zituztela beretako biztanleak. Ondarribiako Uriaren Etxarmetan ikusten dira бага berdeak ontzi bergatuarekin Bale arpoitua azpian daukala. Getariako Erriarenetan ikusten da Bale bat illa, eta gañera arkitzen dira Erri onen gordeleku-zuzenean, bertako itsasgizonak Bale asko arrapatutako argibide egiazkoak. Motrikuko Erriarenetan berriz kanpo urdiñean dago txalupa bat, eta onen barruan gizona, Baleari arpoia iltzaturik, adierazten dabelarik garbiro menderatua daukala.



Esan al guztien gañekoak dirade, bada, Bale ilkintzarekin Bakallo arraintzaren gañean Ingeles ta Franzesen kontra Gipuzkoako Probinziak bakarrik egin izan dituen jazarra andiak; zeintzuk arkitzen diran zearo ta garbi ezarriak, lenago izendatua daukadan Itztegi Luzeazaltar Españaikoaren liburu lenengoan, Gipuzkoako Kapituluian, irureun ta ogei ta amargarren orrikatik aurrera.

*Bale arrapatxalle azkar ta zintzoak
Gipuztarrak ziraden lendabizikoak;
Bide bage kenduri oei itsasoak,
Ingeles ta Franzesak dira gerozkoak.*

IRUGARREN ZATIA

**GIPUZKOAKO BIZTANLEEN ERLIJIOA, DOAIN, GRINA,
LANGINTZA, JOSTALDI TA OITURAK, BEREN GURASOAK
EGINDAKO AZAÑA ANDIAKIN**



LENENGO KAPITULUA

Gipuzkoatarren erlijioa zer ta nolakoa dan.

Munduaren lenengo adiñetik Euskaldunak adoratu izan dute beti arimako begiakin baizik ikusten ez dan zeru ta lurren Egille andia; zeñari deitzen diogun aoa bete beteko izen gozo ezin egokiagoarekin JAUN-GOIKOA. Euskal-erriaz landarako toki guztietan adoratuak izandu dira gezurrezko Taiu ustelkor modu askotakoak. Persia ta beste Erri anitzetan adoratzan zuten *Sua*, Jaungoikotzat, Eternen izenarekin. Ejiptokoak eta Greziatarrak *Lurra*, Gea ta Titearen izenarekin. *Ura* askok, Neptunoren izenarekin. Batzuben *Aizoa*, Eolorenarekin. *Eguzkia*, *Illargia*, *Izurrak*, *Abereak*, eta azkenik *Landareetaraño*koak ezagutu izan zituzten Jaungoikotzat munduko gizon arro, itsu ez jakiñak. Bañan Gipuzkoatarrak ez dute adoratu izan beintxu ere beren Jaungoiko ill-ezkor egiazko bakarra baizik; eta sinitsmen onetan irme beti izan zirala-ko, Jesukristoren Ebanjelioa entzun bezin laster gogoz laztandu izan zuten aiñ gozotoro.

Denpora berean Españako Erresuman bizi ziraden Euskaldunai San Saturnino lenbizi adierazo izan zien kristauen ikasbide egiazkoa, zeña etorri zan eginkizun onen bidez Tolosa Franziaotik Iruñera, non limurtu zeban prest bereganontz Fermin gaztea, bere guraso ta etxetar guztiakin. Gazte odol oneko au kristautzarako bidean eskolatzeko, berari etxean utzi zion Apaiz Honesto; zeña gelditu zan atsegintasun andian, Fermini onbideak emanaz, jende talde andiari Jesukristoren ikasbide zuzena erakusten; eta San Saturnino, Ebanjelioa laztantzeko Euskal-erria aiñ sasoi onean arkitu izan zebalako pozkidaturik, biurtu zan Franzia.

Gauza jakiña da Santu oni naitasun andia artu izan ziotela Euskaldunak, eta batez ere Gipuzkoatarrak. Egia garbiro onen sinistmen-erako begiratzea baizik ez da Nafarroarekin mugatzen dan Erri txiki Zaldibiakora; non ikusten dan argiroki, bertako biztanleak mendi ondoan lendabizi egin izan zuten Elizatxoan, Jaungoikoarekiko bitartekotzat artu izan zutela San Saturnino; zeñegana joaten dan Erri guztia jainera andiarekin premiña ordu guztietan; eta beraren izen gozoa ifinten ere diezate seme ta alaba askori, Santu andi onengan fede oso betea dutelako. Beragaitik ezagutzen dira Zaldibian ainbeste Saturnino ta Saturnina; baita ere izen bereko Elizatxoaren ondoan bi etxe purubetar deitzen zaiotenak

batari *Saturdia*, eta besteari *Eleizegi*; zeintzuben adierazten daben argi eta garbi, ezen, Erri onek bere Santu Godartaritzat autatu izan zebala, Euskal-erria Ebanjelioa aurrena ekarri izan zeban San Saturnino, eta izen onekin arkitzen dan Elizatxo dala, Zaldibian lendabizi egin izan zana.

Begien aurrean dakusku, bada, argiroki, ezen, Ebanjelioa Gipuzkoatarrak entzun izan zuten une berean laztandu zutela gogoz, eta geroztik, amodiozko naitasun bero bizi gartsua diotela berari. Egia zier-oro onen sinistgarririk garbiena ta indarrik andienekoa da gure Ama maite maitagarri Gipuzkoak bere Furoetako liburu andi baliosoan, berrogeita batgarren Tituluaren lenengo Kapitulan, ezarria daukan lege zar zuzen bidezkoa; zeñetan arkitzen dan erabakirik garbiro, ezen, kristau ez diranai, ez ezik, egin-berriai ere, ezin emango zaiotela bizilekurik Probinzia onetako mugapean.

Eliza Ama Santari dagozkion gauza guztietan dira Gipuzkoatarrak begiramen andikoak txit. Errietako Alkate jaun, eta gizonik aurrenengo-ak jai egun guztietan joaten dira Meza nagusi ta mezperak entzuteri; bai ta lete, illeta, ondra, eta beste billera agiriko guztietara ere. Elizako egin-kizun Jainkozkoak dirauten arte guztian itxiak egon bear dute, Ama Gipuzkoaren aginduz ta oituraz, ardandegi, sagardotegi, denda, eta beste toki saldu-erosiko guztiak; eta are gitxiago plaza agirikoetan ibilli diteke iñor pillotan, palankan, danzan, eta beste edozein jostaketa modutan, alik eta Elizako eginbideak bukatu arteraño.

*Erljio Santua Gipuzkoatarrak
Maitatzen dute anitz gazte, eta zurrak;
Doai on au emanik Jaungoiko bakarrak,
Zer nai gauzatarako dirade azkarrak.*



BIGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako biztanle prestuen doai, griña, izuera, eta eginbideak.

Gipuzkoatarrak jatorriz dira, Españatar are lendabiziko etorkien ondoko odol garbikoak; berenez ondraduak, leialak, oparoak, alaiak, ernaiak, langilleak, jostatiak, azkarrak, portitzak eta bulardetsuak. Doai gain gañeko oek guztiak dituzte Gipuzkoatarrak beren berenkiak, eta ez beste jaiot-errikoetatik erantsiak, egiztatu dedan bezala bertan aixa aski. Euskaldunak gerala eta Euskaraz itzegiten degula on egitea asko da, Españara lendabizi etorri izan ziran Etxetar ondraduen odolgarbikoak gerala adierazteko. Gipuzkoatarrak ondraduak, oparoak, langilleak, alaiak, eta jostatiak dirala, gizon arrrotz jakinti askok agertaratu izan dute beren izkribu gogoangarrietan. Gipuzkoatarrak leialak, ernaiak, azkarrak, portitzak, eta bulardetsuak denpora guztietan izan dirala, Españako Errege guztiak autortu izan dute nork bere txandan, egiazko naitasun andia iragarritzen diotelarik Probinzia oni. Andizkatze oek legez ta bidezkoak dirala ezagunmendura etorzeko, aski da begiratzea, Errege Don Fernando eta bere Alaba Doña Juanaren aginduz, gure Ama maitati Gipuzkoak bere Eskutarmaetan ifinirik agiri agirian dauzkan amabi kañoi andietara, zeintzuben kondaira jarriko dedan zearo berari dagokion tokian.

Edozeñek daki, bada, Probinzia onetako jaiotarrak berenez dirala gorpuztuz liraiñ, galant, larmintz me zuri-gorri ederrakiko osasuntsuak; erbestekoai arpegiera ona egiten dakitenak; soñean garbitasun andian txukunki jazten diradenak; eta jai arratsaldeetan plaza agirikoan beren oiturazko jostaldi erritarkietan olgatu naikoak. Beragaitik Igande ta jai andi guztietan batutzen dira plazara zar ta gazte, txiki ta andi Erri barruko geientsuak: non bertako Alkate jauna, eta Arimazaitzallea begira daudela, jostaldiatzen diraden naierara onestasun andian, batzuben danboliñaren soñuan dantzan, besteak pillotan, palankan, bolan, saltoka makillarekin, eta makilla bage, idiskoakin, iskintxoka, txotx aldaketan, atxi atxika, zama jasotzen, pulsuan, indar leian, burruka, azpiraketan, burumutxika, txingoka, bilinbolaka, makillurtika, makillaka, makillaz-aldaketan, jomuga edo terreroan, eta beste onelako egikera, gorpuztuzaren azkardade indar ta arintasunari dagozkietenetan, igarotzen dituzte jai arratsaldeak Erri guztia pozkidatzen dutelarik ezin geiagorañoko atsegintasunean.

Izendatu ditudan jostaketa oiturazko oezaz landara, beste bat badu jatorriz Gipuzkoatarrak guztiz miraritsua eta txit atsegingarria; zeña dan itz-neurtuak kantuz zortzikoan edo beste edozein neurritan, supituan aotik aora alkarri ematea, anziña anziñako denpora doatsu actan Arkadiatar ospatsuak egin oi zuten bezalaixen. Oitura gogoangarri onek irauten du Gipuzkoan gaurko egunean ere, bere sasoirik oberenean bezin irme ta sendoki. Sarritan ikusten dira, bada, Gipuzkoako plaza agirietan itz-neurtuluriak apustu andiak lendanaz eginik jokatzen buruz buru, bi bitara, eta lau lauren kontra ere, erabakitzalle gizon adietuak ifinirik. Birjiliok esaten du, bada, bere Artzain-jolas edo Eglagaetako batean, nola Tirzi eta Damon alkarren kontra ikusi izan ziran itz-neurtuetan apustu andi bat jokatzen, Platon erabakitzalle zutela; eta onek itz-neurtuan eman izan zebala bere epaia, jokalaria biak berdinean uzten zituela. Greziatarrak denpora batean zuten bezalako gogo, Gipuzkoatarrak balute beren oitura jatorrizkoak jasotzeko, ikusiko lirake goienengo mallara igoak, mundu osoak begirune alaiarekin begiratzen diezatela. Bañan, nork eskua eman ezdalako, arkitzen dira arkaiztarte oetara bazterturik arras ezkutuan.

Probinzia onetako barri ez dakitenentzat, guztiz arrigarria eta txit sinistgaitza da, bertako jaiotarrak itz-neurtuak kantuz egoki emateko duten doai berenezkoa. Letra bat bakarra ere ezagutzen ez duten artzain, atxurlari, ikazgin, eta oen gisako asko ikusten ditugu sarriro, edozein gauzaren gañean ematen zaioten itzpidea, erabakitzen dutela kantuz bersoetan zuzen ta garbiro, gizon jakintsuak arritzen diran moduan. Iñongo eskolatan beñere sartu bageko Gipuzkoatar oen esacra egoki, eta epaira zorrotzak baldin zabalduko balira Kebedo eta beste askorenak bezala, ikusi naiko nuke norenak izango ote lirakean txistagarrienak, jostalluenak, eta geiena zor zaiotenak. Bañan Euskaldunai gertatzen zaikuna da, gauzarik bikañena ta ederrena ere, Euskararen izenekoa baldin bada, ostikoperatzea geiago bage bera azaletik bedere ezagutzen ez duten txoriburu puztuak. Dana dala, Gipuzkoatarrak arkitzen dira ondra andiarekin, Arkadiatarren anziñako oitura itz-neurtuak ematekoa, millaka urteak igarota ere maitaro gordetzen dutelako.

Munduaren lendabiziko adinetik jarria da plaza agirikoetan itz-neurtuak kantuz emateko oitura gozo Euskal-errietako au, zeña dan gizon ernaietatik sortua, eta askok uste daben baino miraritsuagoa. Denpora doatsu actako guraso zintzoak, beren seme alaba ta ondorengoai lege zuzen bidezkoak erakutsi eta gogoan euki-erazteko, izkriburik etzutelako asmatua da, beren esakari onak bersoetan egoki ifinirik kantuz ondo adierazteko. Nork ez daki, bada, bersoetan ederki apaindurik jarten dan edo-



zein itzpide lasterrago ikasi, eta luzaroago bizi izaten dala? Egiazko ispi-llu argi au begien aurrean dakusku Euskaldunak, eta batez ere Gipuzkoatarrak; zeintzuk gorde dituzten maitaro, anziña anziñako gurasoak ateratako itz-neurtu aldi asko beren tonu jakin berezituakin, izkriburik bage buruz bata besteari erakutsirik. Oetako zenbait beren musikarekin argitaratu nituen milla zortzi eun ogei ta seigarren urtean, *Gipuzkoako soñu zar eta itz-neurtuen* izenarekin, lau milla ta geiago urteren buruan Probinzia onetako mendi-zelai, ta plazaetan kantatzen eta dantzatzuten ere diradenak, izkribuz ezarriak izan ezbadira ere, esan dedan urte ogei ta seigarreneraño. Gizon jakintiak esaten dabe, ezik, Jubenalek asma-tu izan zebala musika, burni apaintzen ari ziraden mallukarien otsetatik; bañan burnia sortu baino askoz ta askoz lenago ere, kantatu eta dantzatu ere oi zituzten Gipuzkoatarrak soñu zar izendatu ditudanak. Txilibituagatik esaten du Madrilko Ikasola andiak, Probinzia onetako jostaketaz itzegitean, *Instrumento propio y peculiar del País que algunos autores creen ser la famosa Vascatibia de los antiguos, como si dijéramos la flauta de los Vascongados* (Dic. geog. de España, tomo I pag. 326).

Gizon jakintsu anitzek, beren iritzian, lendabiziko soñu edo oslan-kaitzat daukate *Txilibitua*; eta au sortu baino lenago ere, Euskaldunak plaza agirikoetan dantzatu oi zituzten aipatu ditudan soñu zarrak, beren itz-neurtu gozo adigarriak aoz kantatu, eta danbolin-arratza makillatxoarekin joaz. Soñu anziñako oek, zortzikoak bezala neurri batekoak ez diralako, eskatzen dute jakinduria geiago, bear bezala dantzatzeko; eta ikusi nai debanak zeren bidez ta nola, begiratzera dauka, *Gipuzkoako dantza gogoangarrien* izenarekin milla zortzi eun ogei ta laugarren urtean agertaratu neban liburuaren eun ta zortzigarren orriatik aurrera; non arkituko dituen beren izenakin garbiro bat banaka ezarriak, bakotzak zenbat zati eta zenbatna konpasekoak dituen, eta berak ondo dantzatzeko bear diran argibide guztiak.

Itz-neurtuak ifinteko, eta soñu zar miraritsuak dantzatzeko Gipuzkoatarrak jatorriz dituzten doai ta griña maitagarriak ez lirake egongo dauden bezin baztertuak, baldin ezagutuko balirake ondo, berak adierazten dituzten anziñaerako gauza balioso goi me diradenak. Gure asaba ernaiak ifini izan zituzten oitura guztiak dira miraritsuak; eta beretako bi begiragarrienak ezagutzen ditut, eskolatu bageko nekatzalleak supituan itz-neurtuak aiñ egoki ta zorrotz ematea, eta soñu zar konpas desberdiñetakoak utsaldiarik bage dantzatzea. Dantzarekiko lanbide au ez da erraza adieragiten soñu zarrak beren bersoakin ez dakizkitenai; zergatik zortziko, kontrapas, bolero, bals, kontradantzak, minue, rigodon, baile

Ingles, eta beste soñu askok konpas jakiñak dituzten bezala, aek diraden zati askotakoak, eta konpas desberdiñak dituztenak. Zortziko bat, bolero bat, edo beste soñu berri oetako edozein ondo dantzatzuten dakienak, dantzatu ditzake beretakoak milloika; bañan ez soñu zarra, bakotzak zenbat zati, eta zenbana konpasekoak dituen, bat banaka ikasi bage. Egia onen argibidea ikusi nai debanak begiratzera dauka oarrez ta artezaz lenago izendatu dedan liburu dantzaetakoaren eun ta zortzigarren orriatik aurrera, non ikusiko daben argi eta garbi, soñu aek ondo dantzatzeko dituenak, gorputz biguñ, belaunak indartsu, eta anak ariñ izateaz landara, bearko dabela buru ona ta zintzoa txit, konpas guztien kontua zuzen eramango badu.

Euskal-erriaz kanpora beste tokietan ezagutzen ez diran oitura gogoangarri oek biak, baldin balirake Franziakoak, Ingalterakoak, Turkiakoak, edo Akerlakoak, or ibilliko lirake paperetan edergarri askorekin apaindurik munduz gauza anditatz txit; bañan anziña anziñakoak eta Euskaldunen izenekoak diradela enzutea aski da zenbait aizebelatsek ostikoperaturik aintzakotzat ez artzeko. Ez al dute, bada, uste suertez ere txori buru oek, aipatu ditudan itz-neurtu eta soñu zarrak ez dute la serbitzatzuten beste gauzatarako, ezpada, menditarrak moldakaizkiro jostatzeko? Bai, nere anai maite euskaldun prestuak! Oitura miraritsu oek adierazten dituzte jakitea on lirakean gauza balioso asko, baldin bera arretaz ondo alde guztietara begiratu balitzaioketeke. Aur txikitxo gaixorik dagoenari botikako sendagarria goixo tartean artu eragiten zaion bezala, Euskaldunak beren humeai onbideak emateko jarriak dira ezin obeagoko oitura maitagarri oek, askok eta askok uste ez badute ere. Eta zergaitik ori? Ez bestegaitik, ezpada, aurtxoak goixo tartean artzen duten botikakoa baino geiago, oitura ezkutapetsu oen barrunpeko onbidea ezagutzen dez dutelako.

*Probinzia onetan guztiz ondrosoak
Beti izan dirade dantza ta bersoak;
Idurikatuz ongi geren gurasoak,
Gorde bear ditugu maitaro jasoak.*



IRUGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako biztanle beargilletuen langintzarik aurrengoak.

Probinzia onetako jaiotarrak gazte gaztetanik dira neke izerdizkoe-tara gogoz jarriak, eta saiatuak. Jendadi maitagarri onen langintzarik aurrengoak eta ezagutuenak dira artzaintza, atxurkintza, ikatzgintza, burnigintza, eta onekin egiten diran su-arma, baioneta, ezpata, matxite, aingura, nekazaritzako erremienta, eta beste lankai asko bear bezala landurik ondo apaintzea. Badakite ere Gipuzkoatarrak, berak beren eskuz Erriko zubageakin egindako ontzidi andietan sarturik, itsasoz mundu osoari jira ematen, besterik iñork oartu baino lenago; baita arraintza andiak egiten, eta itsas lapur txar asko aienatzen ere. Zeren bidez, nork, eta nola, azalduko ditut garbiro Gipuzkoatarrak itsasoz egindako azaña andiaz itzegitean.

Izkribu gogoangarri anitzetan irakurten da, gizonak lendabizi artu izan zeban lanbidea dala *Artzaintza*; ezagutu izan zebalako mugaz, abere guztietan dan eskurakoiena, zaintzen errazena, eta lakarik geiena ematen dabena dala *Ardia*. Egiazki, alaixen da izatez ere! Eta baldin onelako argi-biderik izkribuz iñork ezarri izan ezpalu ere, Gipuzkoako artzain prestuak beren itzkuntza ederrarekin batean maitaro gordetzen dituzten oitura oneski gozoak, eta berak darabilten langintzari egokidatzen zaiozkan izen bere berekiak adierazten dabe argi eta garbi, artzaintzako lanbidea dala txit anziñakoa, guztiz garbia, eta arras ondradua, laster azalduko dedan bezala bere zati guztiakin zearo.

Euskara zintzoak, lendabiziko itzkera dan bezalaixen, gorde izan ditu osotoro ta zuzenki, beste erdara-mordolloen kutsurik txikarrena ere bage, ardiak izan oi dituzten eritasun eta miñatza gaiztoen izenak; berak ematen dituzten etekin mueta guztienak; belarrietan ezagungarritzat ifintzen zaiozkaten marra miraritsuenak; artzainak bere langintzarako bear dituen erremienta guztienak; berarekin bere artaldearen etzauntza-tokie-nak, eta beste gauza askorenak, zeintzuk jarriko ditudan bakotxa bere eran obeto adierazteagaitik.

Ardiak izan oi dituzten eritasun eta minatza gaiztoen izenak

Albatamiña.
 Armuñekoa.
 Atzartekoa.
 Enpatxua.
 Ermuñekoa.
 Erreneria.
 Erruñekoa.
 Galkordea.
 Gorrentzia.
 Gozaña.
 Illurtua.
 Nafarrerria.
 Okallea.
 Oñitoia.
 Pikortalla.
 Sabeleria.
 Zibela.
 Zoramarroa.

Ardien eta berak ematen dituzten etekinen izenak

Aixuria.
 Ardia.
 Aria.
 Arkumea.
 Artanzua.
 Artgaztea.
 Beinardia.
 Bildotsa.
 Eznea.
 Eznorea.
 Eznotza.
 Gatzagia.



Gaztaia.
Gaztanbera.
Gazura.
Guria.
Mamia.
Matoia.
Txikiroa.
Umerria.
Urtebildotsa.

Ardi jabeak nork bere artaldeko ardiai belarrietan ifintzen diezaten marra ezagugarrien izenak

Bakar bakarri bost izenekiko marrakin ezagungarritzen dituzte artzainak mendirik andieneko ardi guziak, ez ezik, beste geiagotakoak ere. Bost izen oek dira; *Pitzatua*; *Txuloa*; *Urkullua*; *Laiategia*, eta *Akatsa*. Eta oek ardien belarrietan bein bata aurrera, eta gero bestea atzera erabilliaz, daukate egiñeratua utsunerik bageko adieragarri txit zuzena, izkribua sortu izan zan baino ere are lenagotanik Euskaldunak asmatua. Jarriko dizuet, bada, emen anziñako artzain izkriburik ezagutzen etzutenak erakutsitako eskola zerrenda bat, gaurko egunean ere Gipuzkoan irauten dabena; eta ardiakin artzainak diran arte guztian biziko ere dana.

Ara zer gisatakoa dan eskola mueta au.

1. Ardijabe batek bere artaldeari ifintzen diozka ezagugarri, belarri bietan *Pitzatu* bana.
2. Eskuiko belarrian bakarrik *Pitzatua*.
3. Ezkerrekoan bakarri *Pitzatua*.
4. Belarri bietan *Txulo* bana.
5. Eskuiko belarrian bakarrik *Txulo* bat.
6. Ezkerrekoan bakarrik *Txulo* bat.
7. Belarri bietan *Urkullu* bana.
8. Eskuiko belarrian bakarrik *Urkullu* bat.
9. Ezkerrekoan bakarrik *Urkullu* bat.
10. Belarri bietan *laiategi* bana.
11. Eskuiko belarrian bakarri *laiategi* bat.
12. Ezkerreko belarrian bakarrik *laiategi* bat.
13. Belarri bietan *akats* bana.

14. Eskuiko belarrian bakarrik *akats* bat.
15. Ezkerreko belarrian bakarrik *akats* bat.
16. Belarri bietan *pitzatu* biña.
17. Eskuiko belarrian bakarrik *pitzatu* bi.
18. Ezkerreko belarrian bakarrik *pitzatu* bi.
19. Belarri bietan *txulo* biña.
20. Eskuiko belarrian bakarrik *txulo* bi.
21. Ezkerreko belarrian bakarrik *txuko* bi.
22. Belarri bietan *urkullu* biña.
23. Eskuiko belarrian bakarrik *urkullu* bi.
24. Ezkerreko belarrian bakarrik *urkullu* bi.
25. Belarri bietan *laiategi* biña.
26. Eskuiko belarrian bakarrik *laiategi* bi.
27. Ezkerreko belarrian bakarrik *laiategi* bi.
28. Belarri bietan *akats* biña.
29. Eskuiko belarrian bakarri *akats* bi.
30. Ezkerreko belarrian bakarrik *akats* bi.
31. Belarri bietan *pitzatu* ta *txulo* bana.
32. Eskuiko belarrian bakarrik *pitzatua* ta *txulo* bat.
33. Ezkerreko belarrian bakarrik *pitzatua* ta *txulo* bat.
34. Belarri bietan *urkullu* ta *txulo* bana.

Ikasbidea eman dedan modu berperean, bost izen oek banaka ta biñaka batetik bestera erabilliaz, ezagungarritzen dituzte mendi guztiko artaldeak, eta are geiago ta geiago balirake ere. Beste marra mueta bat ere ezagutzen da artzaian artean, ardiari ifintzen zaiotena, bañan ez bide onezkoa, baizikan ardi-ebatsitzaleak beren gaizakeria estaltzeko asmatua, zeñari esaten zaion *Lapur-marra*. Izen au ematen zaio, belarri biak ondolik epakiak dauzkan ardiari; zergaitik ardia ostutzen dabena egiten deban aurrenengo lana dan, belarri biak kentzea, jabeak edo beste edozeñek egiazko marraetatik ezagutu ez degion. Beragaitik dute, bada, ardi belarri bageak jakintsuro ifinitako izen egoki txit bidezkoa, *Lapur-marra*.

Gipuzkoako artzainak beren langintzarako dituzten erremienta, eta beste zenbait gauzen izenak

Anekak.
Apatza.



Apazkoa.
 Arsugatsak.
 Asuna.
 Burrutzia.
 Elkorra.
 Epaikia.
 Estugarria.
 Eznarriak.
 Garneroa.
 Gatzagipotoa.
 Gatzontzia.
 Gaztanaska.
 Gaztanola.
 Iragazkia.
 Kaikua.
 Kirtenbikoa.
 Malatxa.
 Mutxitaia.
 Potoa.
 Taloburnia.
 Txantxilla.
 Txurka.
 Urie.
 Zalia.
 Zumitza.

Artzainen bizileku mendikoari deitzen zaio *Txabola*, zeña egiten dan zotal, zarbazta, arba, tantai, aizkorol, eta gisa onetako gauza txeakin, beraren izenak adierazten daben bezalaixen. Mendietako bizi leku oek dira etxeak baino askoz ta askoz lenagokoak. Etxearen izenak berak adierazten du garbiro, txabola baino gai andiangoakin egiña dala; beragaitik esaten zaio *Ez-etxea*.

Txabolaetako lo-tokiari deitzen zaio *etxamutza*, eta emen ifinten dituzten biguñgarriai *txillarrak*; oñen euskarri jarten duten zutoiari *idulkia*; eta estalgarriari *burusia*.

Ardiak jatzitzeko tokiari esaten zaio artizkunea, euri jasa andiak erortean eta gauaz leorpera sartzeko lekuari *billorra*; mendiak elurrez estaltzen diraneko ardientzako bazka gordetzen duten lekuari *saletsea*; janaria-ri *saralea*; jakiari *zaldalea*; eta oek ifinteko maiari *lizjipua*.

Gutziz da arrigarria eta miraritsua txit, lendabiziko artzain Euskaldun garbietatik datozen izen ezkutapetsu oek, ainbeste urteren buruan zuzenki ta osotoro Gipuzkoako mendietan gordetzea; eta ez da gitxiagokoa batere Probinzia onetako artzainak alkarri dioten amodiozko naitasun irazekia; zeintzuk beren oitura maitagarriakin adierazten duten argi eta garbi, nolakoa zan anziña anziñako gizonen bizimodua. Gipuzkoako barri ez dakienari ez da erraz sinisteragiten, bertako artzain samalda andiaren izaera gozoa nolakoa dan. Guztiaz ere, esan bage ezin laga nezake, aurreragokoetatik dakidan apurra, eta nere denpora guztian Aralarko mendian ikusten dedana.

Mendi onetara batutzen dira berrogei milla ardi bezalatsu, eta zortzi eun artzain txiki ta andi gitxi gora beera. Txabola baktxera biribillatzen dira iru edo lau artzain bizitza banatakoak alkarrekin izatera; eta senideak balira bezalaixen igarotzen dituzte urte ta urteak beñere aserratu bage. Bizileku txikitxo onetan eukitzen dituzte agiri agirian beren janariak, egiten dituzten gaztaiak, eta izaten dituzten diru apurretarañoak, aiñ seguru ta osotoro, nola burniazko kutxa lodi giltza askorekiko batean gordeak izango lirakean. Artzain oetako edozeñi bukatzen bazaio iriña edo beste janari gauzaren bat uste baino lenago, edo beraren etxeakoi gertatzen bazaio bear orduko ezin biraldua, goserik ez du nozituko, txabolako lagunak duten arteraño. Eta baldin beretako edozeñi etxetik igorritzen badiote urte sasoiak dakarren gauza berri bikañen bat, edo txeremoniaren batzuk, txabolako lagun guztiak jango dituzte alkarrekin, gorputz bat balira bezalaixen. Lagun amatu oen arteko edozeñi gertatzen bazaio egun batzuetarako nora edo ara joan bearra, edo eritasun batek eraso eta gaxorik oean gelditzea, onen eginkizun guztiak egingo dituzte beraren txabolako artzain lagun leialak aiñ gogoz, egoki, eta kontu andian, nola ardi-jabeak berak osasunarekin dagoela egin izan al-litzakean, edo obekiago benturaz.

Mendi osoko artzainen artean suertatzen bazaio iñori adu txarren bat, dala otso edalle gaiztoak artaldera sartuta; ikatztoki eta putzu zuloe-tako ur zikin ustelak eran ta okallatzea; nafarrerri gaitz eriotsuak arrapatu-rik, edo bestelako gertakari gaiztoren batekin ardiak gitxiturik, edo bate-re bage gelditzea; artzain lagun guztiak alkargana baturik, bakotxak ardi bana ematearekin ifinten diote bertatik len zeban ainbateko artaldea; zeñari aztutzen zaiozkan atsekabe guztiak, bere lagun amatuen ondribide aiñ oparoa ikustearrekin.

Larrebide galduetan oi dabiltzan ardi erratuak, aurrena arkitzen dituen artzainak artzen ditu bere artaldera, baita kontu egin ere zuzenki,



aliko eta jabe egiazkoa agertu dedin arte guztian. Bereala zabaltzen da barria mendi osoan, onelako edo alako marra belarrietan dauzkan ardia noren artaldean dagoen, eta ditxekana ezagungarri egiazkoekin etortean eramango du bere ardi erratua, eukitze ta kontu egite saririk eman bage.

Gipuzkoako mendi luze zabalak igaro bearra izaten deban edozein gizon erbestekori, gertatzen bazaio iñoiz edo berriz bideak utsegitea, uste baino len illuntzea, gorputzeko txar-aldiaren batek ematea, edo bestelako ezbearren bidez ezin joanik beretan gelditzea, aurrena ikusten duen artzainak maitaro arturik, eramango du bere txabolara, eta emen gozarotuko du egin-al guztian, adiskiderik amatuena balu bezalaixen. Bazkatuko du mendiko gisara gaiak agintzen dion moduan, alik eta bere bideari ekiteko ondo jarri dedin arte guztian; eta orduan saririk eskatu ez ezik, eskaintzen badio ere, artu bage lagunduko dio leialkiro, bide zuzen erosoan ifini dezan arteraño; non lenago alkar beñere ikusi bageko gizonak adiskide mami betiko egiñik, banakatzen direan nor bere eginkizunetara, bata besteari amodioz esaten diotelarik *Agur ta Agur*.

Ha zein gauza ederra ta maitagarria dan gisa onetako eginpide ondraduk egiten bere Erritarrak ikustea! Gipuzkoako mendi gogoangarrietan bizi diran artzain prestuak dirade, bada, bere asaba doatsuetatik jatorriz darraizkioten oitura gozo oneski oek gordetzen dituztenak zuzenki.

Ez du, bada, inork ere zer uste izan, apaingarri ustelakin edertu nai dedala Gipuzkoako artzain leialen ondradutasuna, baizikan sarritan ikusten diran eginpide egiazkoekin; eta baldin izango balitz nor edo nor sinistu nai ez dabena, ditxidatzen det bertatik Aralarko mendira, non ikusiko daben argi eta garbi artzain doatsu oen ontasan pare bagekoa.

Beste doain andi bat ere arkitzen da artzain oen artean guztiz maitagarria. Lenago esan dedan bezala, batutzen dira mendi onetara, txiki ta andi zortzi eun artzain bezalatsu. Gizon samalda andi onek ez du izaten mendi guztian ez Alkaterik, ez Alkateordekorik, ez Amamerurik, eta ez oen eskubideakiko beste agintaririk. Guztiaz ere, despita, aserre eta burrukarik bage igarotzen dute beren denpora guztia, amodiozko naitasunaren bidez alkaturik pakea oso betean. Artzain oneski oen pakeazko bizi modu garbia ondo ikusteko, ez da ispillu obeagorik Aralarko mendira begiratzea baino; zeñetan bizi oi diran ainbeste gizon, millaka urteak igaro ta ere, Alkate ta Alkateordekorik bage. Eta zer litzake gizon samalda andi au guztia Erri batekoa baldin balitz? Gitxienaz izango dira amalau edo amabost Erritatik alkargana biribillatuak, eta anaiatasun maitagarria beñere ausitzen ez dutenak. Iñoiz edo berriz ardiakiko saldu-erosiaren gañean artzen badute eztabaidaren bat alkarren artean, gizonik eldue-

netako bana edo biña alde bakotxetik ifintzarekin, berealaixen daukate zuzendua okerbide guztia. Beragaitik izkribauen lantegietan ez da topatzen Gipuzkoako arzainak alkarren artean erabilitako auzi-paper anitz.

Gai guzti guztietara da zoragarria txit artzain doatsu oen mendieta izaera gozatsua. Goizean goiz beren artaldekin irteten dira larrebide-rik oberenetara, ojuz ta kantari egaztiak bezalaixen, sasiak, zelaia, basoak eta aitzak pozkidaturik erantzuteraño ifinten dituztela; eta ardiak janlekuari onetsi degioten artean, an ibilliko dira berak, bata txilibitua jo, besteak bolingoza, au dantzan, hura saltoka, atxi atxika, itzulamilka, makilurrunean, arriurtika, indarlean, eta beste onelako egikari anitzetan jostaldiatzen dirala atsegintasun andian. Modu onetako olgantza gozatsuetan asper aldia bat artzean, biribillatzen dira nor bere txabolara, udan taloarekin eznea, eta neguan gantzarekin egositako baba jatera. Arratsaldean egiten dute etzanaldi andia. Illunabar-alderontz ardiak artizkunara biribillatu ta jatzi, eznea iragazi, ta gatzagia emandakoan kantari asirik, ez dira ixiltzen alik eta gatzaiak egin ditzaten arteraño. Bereala eznarri gorituakin gazura erosirik, irteten dira berarekin txabola-atakara, apatzetik apatzera goi goitik bee beera boteaz irabiatuak oztutzera. Orduan dira adigarriak txabolatik txabolara ojuz ta irrinziz alkarri adierazten diezaten hitz jostallu gaitzik bageko pozkidatsuak, batzuben itz-neurtuan, eta besteak itxumustuan. Azkenean amodiozko naitasunarekin gau onak bata besteari emanaz, joan oi dira nor bere etzauntzara.

Orra zein garbia eta gozarotsua arkitzen dan, bada, gaurko egunean ere, Gipuzkoako artzain doatsuen bizimodu zorionekoa. Baldin suertez ere izango balitz iñor, kapitulu au luzetxo iduritzen zaiona, bertatik nai det kontuan jarri amodioz, ezen, begiratzen badio lanbide oni alde guztietara ondo, topatuko diola gaia, geiago ta geiago esateko ere.

*Gipuzkoako artzain zintzo ta argiak
Izan ta izango dira gogoangarriak;
Maite dituztelako oitura garbiak
Beren guraso onak anziña jarriak.*



LAUGARREN KAPITULUA

*Nekazaritza noiztik eta zeren bidez asia dan.
Langintza onetarako bear diran erremientaen izenak; lurrari ken-
tzen zaiozkan etekiñenak, eta eguraldi mueta guztiari dagozkio-
nenak beste gauza askorekin.*

Gauza jakina ta sinistgarria da nekazaritzako lanbidea dala artzain-
tzaren ondorengo, eta burnia sortu ezkeroztik asia. Gizon jakintsu asko-
ren iritzia da, mendi ondo oetan aurrengo arkitu izan zala burnia egite-
ko gaia, baita bera landutzeari ekin ere. Beraz esan ditekete segurutzat bur-
nia sortutako tokian asi izan zerala lendabizi lurrari erraiak irikitzen.
Bañan oraindik bidezko iritzi au dan baino ere ezagungarri indartsuago-
ak badauzka gure Euskara zintzoak bere etxapean zuzenkiro gordeak,
nekazaritzari dagozkan gauza asko adierazten dituztenak izen beren
berenkiakin argi eta garbi.

Milla zortzi eun ogei ta amabigarren urtean Donostiako Urian bizi
nintzala, deitu izan ninduen Madriltar gizon Andizki batek, Don Bizente
Binuesaren etxera, Euskarazko itzkuntzaren gañean jardun aldia bat egi-
tera; zeña arkitzen zan itzkera onen alde ta kontra izkribatu izan diran
liburuak ondo irakurria; eta lendabizi asi zitzaidan atakatzen Maians,
Arnesto Osorio, Traggia eta oen lagunai ikasitako galdeera desegokiakin.
Beragaitik uste izan neban lenego artan, Euskararen etsai andiren bat zala,
nola erdaldunik geienak, edo guztiak, ala izan oi diran. Ekin nitzaion nere
erdara mordolloan al-nuben modurik oberenean. Egin genduen jardun
aldia bat gogorra txit Binuesarekin bere semearen aurrean; bañan geroe-
nerako egin giñan biok adiskide mami bizi geran arte guztirako; eta autor-
tu ere zidan garbiro, errazoi andia gendukala Euskaldunak, geren itzkun-
tza maite izatea. Erakutsi ere ziran paper pillá andi bat Euskarari zego-
kiona berak biribillatua; esaten zidalarik, ezen, Europako gizon jakinti
asko jarri zaiozkala begira itzkuntza oni, eta orain aldian igo bearra dala
Euskara odeiaz goiti, edo botako dutela arras beera. Itzaldia oetako
batean galdetu zidan, ea nekazaritzako erremientak Euskarazko izen gar-
biak zituzten; erantzun nion, baietz, eta esan ere niozkan bat banaka,
gogoratu zitzaizkidanak. Orduan jalki zitzaion, ezik, erremienta oen ize-
nak beste itzkuntzaen kutsurik bage arkitzea dala sinistgarririk oberena,
Euskara lendabiziko itzkeratzat ezagutzeko.

Gisa onetako galderik berriz inork egingo balu ere, jarriko ditut
emen artzaintzako lanbideari dagozkionak lenago ifini ditudan bezalai-
xen, nekazariak eskuartean oi darabiltzan gauza guztien izenak.

Gipuzkoako nekazariak eskuartean oi darabiltzaten erremienta eta gauzen izenak

Aiotza.
Aizkora.
Akullua.
Akullueztena.
Ardatza.
Arilkaia.
Arraskea.
Arratzaldea.
Arrazkoa.
Arrea.
Arreetxea.
Arzea.
Aspilla.
Atxurra.
Auts onzia.
Azkonarra.
Berarsardea.
Besarea.
Besaresardea.
Biurrak.
Endaia.
Ereak.
Eskuarea.
Gaintzerua.
Galbaia.
Ganbela.
Garba.
Garosardea.
Goldartea.
Goldea.



Goldetxea.
 Gorotzatxurra.
 Gurdia.
 Gurtaga.
 Gurtarasak.
 Gurtaratza.
 Gurtesia.
 Gurteskalla.
 Gurtetxea.
 Gurtezpata.
 Gurtibuña.
 Gurtolak.
 Gurtorraziak.
 Gurtpertika.
 Gurtubala.
 Idikatea.
 Iraburaria.
 Irabureskua.
 Iraburrak.
 Iraburzigorra.
 Itaia.
 Jorraia.
 Kabillak.
 Kakoa.
 Kanpaza.
 Karrama.
 Kodeña.
 Kopetakoak.
 Kurpillak.
 Laiak.
 Lakaria.
 Lardaia.
 Lauortza.
 Lurtzibuña.
 Lera.
 Liñagabia.
 Linaia.
 Lisibatxorroa.
 Markautzarria.

Marra.
 Matazurkia.
 Matxardea.
 Nabaribuña.
 Nabarra.
 Ondeotxurra.
 Otajakia.
 Otasardea.
 Otaska.
 Otatxurra.
 Sardea.
 Saskia.
 Sugatza.
 Taketak.
 Txabatilla.
 Txandeoak.
 Txarrantxa.
 Txaukurrak.
 Txinolak.
 Txurrillea.
 Ubarukoa.
 Uztarria.
 Zapioa.
 Zega.
 Zegaarria.
 Zegaeraztuna.
 Zegakirtena.
 Zegamallua.
 Zegantxingura.
 Zegapotoa.
 Zekaia.
 Zillaia.
 Zorroa.

Edozein Euskaldunek badaki ziertoro, emen ezarri ditudan erremienta guztiak izen berperakin ezagutzen dituztela Gipuzkoako nekatzaileak. Eta Euskaldun ez diran guztiak jakin bezate gogoz edo gogo bage berak nai den bezala, ezik, izen oek argi eta garbi Euskararen bere



berekiak diradela; eta ez atzo ta egungoak, baizikan nekazaritza lendabizi asi izan zan denporakoak, aldeenera jota ere.

Modu onetako argibide asko anziñacrakoak txit, gorde ditu Euskara zintzoak zuzenkiro aitzarte oetan. Gauza jakiña da, bada, nekazaritza asmatu izan zuten gizon ernaiak, lurrari begiratuko ziotela ondo zein tokitan nolakoa zegoen, zer griñatakoa zan, eta ugariena non ematen zeban; baita ere beragandik oparo artzen zituzten gauza baliosoak zer ta nolakoak ziraden. Oen guztien izenak ikusten zaiozka Euskarari garbiro beste itzkuntzaren kutsurik bage. Ara zein egoki ta bere berekiak.

Nekazariaren langintza, berak darabiltzaten lur, eta oek ematen dituzten ondasunen izenak

Aiena.
Aldapa.
Aldatsa.
Alea.
Allorbea.
Alorra.
Altxerria.
Amiltokia.
Añoa.
Arana.
Arbia.
Arbileorra.
Arbilorea.
Aretu.
Artatxikia.
Artoa.
Artobizarra.
Ataka.
Atxurkintza.
Auka.
Aza.
Baba.
Baratzuria.
Barrutia.

Basara.
Basoa.
Berardia.
Besaretu.
Bidetxiorra.
Buztinlurra.
Egutera.
Elkarra.
Erein.
Ereiñgarria.
Errekiña.
Erretena.
Errolla.
Erue.
Esatea.
Esia.
Ezkurra.
Ezola.
Galondoa.
Garagarra.
Garea.
Garia.
Garoa.
Gaztaña.
Gerezia.
Gibeltza.
Gorotza.
Gortetxa.
Illarra.
Iñastorra.
Iñaurkiña.
Iratzka.
Izutuitza.
Jorratu.
Kematu.
Kortaitza.
Koskola.
Labakia.
Laiotza.



Langa.
Langamalla.
Langatea.
Larraña.
Lastoa.
Laurtu.
Lubakia.
Lubberia.
Luerloa.
Lukiteza.
Lurra.
Lursarea.
Maikola.
Malloa.
Marrubia.
Masalastoa.
Masusta.
Matsa.
Mizpira.
Muixika.
Muñoa.
Nekazaritza.
Oiana.
Okellua.
Okuntza.
Oloa.
Ongarria.
Orbela.
Ordeka.
Orma.
Ormaleorra.
Orria.
Ostoa.
Otrolloa.
Pagatxa.
Pertika.
Piperra.
Porrua.
Sagarra.

Sakona.
Satsa.
Sekaña.
Sokilla.
Sokorra.
Soroa.
Sorobarrena.
Sorogoena.
Tipula.
Txara.
Txermena.
Txertatu.
Txixirioa.
Urgalda.
Zalgea.
Zelaia.
Zikirioa.
Zimaurra.
Zingida.
Ziza.
Zoia.
Zotala.

Izen oek eta beste onelako asko nekazaritzako lanbideari dagozkionak, inork ezin ukatuko diozka Euskarari, anziña anziñatik edo are lendabizitik bere bereak dituela.

Eta oraindik, nekazaritza asi baino are lenagokoak ere gordetzen ditu itzkuntza maitagarri onek bere kolko zabal gozatsuan zuzenkiro txit. Izan al leikean gauzarik egiazkoena da gizonak munduaren lenengo adiñetik eza-gutzen dituela zerupeko odeien ibilliak eta eguraldiaren gora beera andiak; zeintzuben izenak lendabizitik ifiniak diradela, ezin uka dezakean inork ere. Ikust ditzagun, bada, oek Euskarazko itzkuntzak nola deitzen dituen.

Zerupean dabilzan gauza miraritsuakin, eguraldiaren izenak

Abazuza.
Aintzigarra.
Aizea.



Aldagoia.
 Argea.
 Argia.
 Arindu.
 Arriabarra.
 Ateri dago.
 Atertu.
 Aterunea.
 Ausi abartza.
 Berotu.
 Bisutsa.
 Bustitea.
 Edatootsa.
 Egoia.
 Eguna.
 Eguraldia.
 Egurastu.
 Eguzkia.
 Ekaitza.
 Elurbildua.
 Elurbisutsa.
 Elurbustia.
 Elurlapatsa.
 Elurmarota.
 Elurpikorta.
 Elurra mara mara.
 Elurra.
 Elurtia.
 Epeldu.
 Eraso.
 Erauntzia.
 Euria.
 Gaba.
 Giroa.
 Goibel.
 Ifarlausoa.
 Ifarra.
 Igortziria.
 Illargia.

Illuna.
 Iñatazia.
 Indriskea.
 Intza.
 Iñusturia.
 Iurtzuria.
 Izarkia.
 Izarrak.
 Izkiota.
 Izotza.
 Izotzbeltza.
 Jasa.
 Jela.
 Kalerna.
 Kazkarabarra.
 Kazkarabitoa.
 Lanbroa.
 Lañoak.
 Launbero.
 Lausoa.
 Leortea.
 Leortu.
 Ludardara.
 Luikara.
 Luizia.
 Lurbeltztu.
 Lurmendu.
 Lurzuria.
 Negua.
 Neguazkena.
 Negubeltza.
 Odeiak.
 Odotsa.
 Okertu.
 Oñazkarra.
 Oñaztargia.
 Oñaztarria.
 Oñeztua.
 Orma.



Osteleuria.
 Ostgarbi.
 Ostia.
 Ostotsa.
 Ostreliaka.
 Ozitu.
 Oztu.
 Pisutu.
 Sargori.
 Truina.
 Turmoia.
 Tximista.
 Txingorra.
 Txukatu.
 Uanibillak.
 Uarreak.
 Ubilduak.
 Udaberria.
 Udarraskia.
 Udia.
 Ujola.
 Uztargia.
 Zakartu.
 Zaroa.
 Ziargia.
 Zizarkora.
 Zuzendu.

Nork ez daki, bada, munduaren lendabiziko adiñetik diradela emen ezarri ditudan izenakiko gauza guztiak? Eta oen argibide zuzena nork emango du aĩn garbi ta zearo, nola Euskarazko itzkuntzak? Gisa berperean topatzen zaiozka itzkera maitagarri oni edozein gauzaren gañean, bere anziñatasun itzal andikoaren ezagungarri egiazkoak millaka, iñork ere ezin ukatuko diozkanak.

*Gauza askoren izen txit anziñakoak,
 Maitaro gorde ditu Euskara zintzoak;
 Berenez diralako ezñitsu gozoak,
 Gutizia andia diote anzoak.*

BOSTGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako Erri askotan nekazariak alkarren artean egiña daukaten anaiatasun pare bagekoaren azaldurea.

Probinzia onetako nekazaririk geienak gordetzen dituzte, oraindik ere, beren anaia artzain onraduai ikasitako oitura oneski maitagarriak. Jende leial onek bere bizimodurako ifiniak dauzkan alkardade gozoak dirade, bada, ezin obeagokoak. Beretakoren bati gertatzen bazaio iñoiz edo berriz, adu txarren baten bidez uztarriko abelgorririk elbarritu edo illtzea, lagunkida guztia alkargana baturik, jarriko diote ordaña berpertatik. Baldin suertatzen bada nekazari oetakoren bat edo beste edozein abelgorririk ez daukana, eritasun gaiztoaren batek arrapatzea, onen soro ta alorrrak landuko dituzte beraren aide, adiskide, eta auzoak, beren berenkiak balituzketeke bezin ondo, mugaz eta txukunki alogera ta sasirik bage; eta geienak, nork bere etxean jaten dabela. Nekazari maitati oek badute beste oitura bat are geiagokoa.

Baldin gertatzen bada iñoiz langille prestu oen arteko seme alabaren batzuk, alkarganako duten amodiozko naitasunaren bidez gaztelimuriturik, bear ez litzakean aztaporen batean irristatuta erorte, eta berai ezpazaiote une artan arkitzen etxe bazter bat alkargana baturik beren langintzari ekiteko, oen gurasoak atsekabeturik lotsa andian ixil ixillik daudela, osterontzeko aideak, auzoak, eta adiskideak alkarturik batutzen dira jai egun batean Erriko etxera, galai irristalariarekin batean: eta emen beren txurruta edaten daudela, asten da gizonik elduenetako bat itzegiten, esaten dabelarik, ezen, Jaunak, gure gaurko billera gozo au zeren bidez eta zertarako dan, nai dizutet adierazo al dedan modurik oberenean, eta uste det nere eskariak entzungo dituzutela gogoz, aide onetsi, auzo onradu, eta adiskide leialtat ezagutzen zaituztedan bezala.

Begien aurrean dakusku, bada, argiro, gure odol garbiko gaztelimuritu oek arkitzen dirala, orain orain bezala, izan al ditekean egoitzarik negargarrienean, eta baldin nork lagundu ezpadute, gelditu bearko dutela betiko urrikarri, Erri osoaren farragarri, eta aide guztien desondragarri. Ez degu, bada, zer miretsi zoragarritutako gazte argal oen aztapoaz. Badakigu gerala guztiok Adanen zañetik sortutako geldo aul irristalariak. Beragaitik egin bear degu, bada, al dezakegun guztia, gaztelimuritu oek, Ama Eliza Santeak agintzen daben bezala lenbait len alkarri joerazorik,



beren bizimodu onean ifinteko. Onetarako, badakigu etzaiotela arkitzen orain orain bezala, ez non nekatu, eta ez zer jan; bañan asiera on baten bidez izan litezke zorionekoak berak eta beren seme alabak gure odoleko guztien ondrarako. Eta atsegintasun andi oni begira egunen batean egon gaiten, guk orain aide guztien artean egin bear deguna da, berentzako labaki andi bat zillegi lurretan jo, atxurtu, erre, esitu, eta garia bertan ereñik ifintea, lendabiziko aboztua artu dezaten gure izenean, gero beren lanbideari gogoz jarraitzeko; eta bitartean ere zer jan izan dezaten bear diegu eman, bakotzak al dezakean moduan, gari, arto, bigantxa, txekor, zerri, ardi, bildots, auntz, auntztika, ollo, ollanda, ollasko, eta beste zenbait gauza bizitza berriari dagozkionak.

Itzgilte ondradu onek bere otoiz-aldia bukatzean, aurrenengo eskiñiko du onelako edo alako gauza ezkondu bear dutenentzako. Bereala asiko dira besteak, bata emango dabela onelako, besteak orrelako. Modu onetan egiñeraten dute Gipuzkoako atxurlari prestuak oituraz, buruzpide txarrean iñoiz arkitzen diran gaztelimurituak beren bizimodu onean ifinteko bidea. Senar-emazte aldia asko ezagutu izan ditut nere jaio-tokian eta auzo-errietan, gisa berperean alkarganatuak, eta beren seme alabai buruzpide ona eman izan diezatenak. Beragaitik, eta izendatu dedan moduko billeraetan bein baino geiagotan nerau izan naizalako, ezarri nai izan det Gipuzkoatarren oitura gozo au aiñ luze ta zearo.

Guztiz maitagarriak dirade, bada, Gipuzkoako nekazariak jatorriz dituzten oitura miraritsuak; iñork aintzakotzat artu bagez, bazterturik txokoan ixil ta geldi badaude ere, ez balira bezalaixen. Eta zergaitik ori? Ez bestegaitik, ezpada anziña anziñakoak eta Euskaldunenak diralako, eta Euskaldunak Euskarazko itzkuntza garbian agertaratu nai ez dituztelako. Badakit nik, txorotzat emango nautena askok eta askok lanbide onetan ari naizalako; baita ere, Euskaldunak izango dirala maixiatzalle oek. Ordea zer da ansi, erausle oek eman al degikidaten atsekabe apurra deus ez baldin bada, oitura maitagarri oezaz itzegitean nere barruak artzen daben pozkida betearen aldean?

Esan bear det, bada, beste oitura bat ere txit anziñakoa, eta bera irozotzea guztiz ondo dana. Mundu negargarri iduripen utsa baizik ez dan onetatik, betiko leku pozkidatsura gure Egille andiak deitzen gaituen denporan, eta berari kontu estuak emandakoan ere, oitura jatorrizko maitagarriak gordetzen dira Gipuzkoan ardura andiarekin txit.

Gaixorik arkitzen danean bat, Sendagiñak etsipena emanik Elizako gauzak artuta, beraren aide, auzo, eta adiskideetakoak etzaiozka aldamentetik kenduko asnasa deban arte guztian, gau ta egun alkarri txanda ema-

naz serbitatzen dutelarik leialkiro, berari dagozkion gauza guztietan; eta pozkidatzen ere dute txit asko, munduari utzi bearrak burura ekarri leizkiokean atsekabe samiñak desegiten diozkatelako arras, lanze estu artan berari egiten diozkatzen eskeñi oparoakin. Baldin aur txiki askoren gurasoa bada gaixorik arkitzen dana, eta oen bizimodurako ezer gitxi lagatzen dabena, esango diote bere aideak, eta aiderik ezpadu, auzo edo adiskideak, ezen, ez dezala aurren ardurarik eduki; bertatik izango dirala jasopak, lagunduak eta ondo begiratuak, oitura dan bezalaixen. Eta oraindik are geiago egiten dute, eri dagoenaren atsegiñerako. Deitzen dituzte beraren aurrera aur txiki lanerako adin bageak, eta aideren batak esaten du; onako mutiltxo au nik artuko det nere etxera, aziko det ondo, erakutsiko diot lana egiten, eta bere bizimodua artutzeren datorren denporan lagunduko ere zaio dagokion moduan. Besteak artuko du neskatzatxoren bat eskuetik, eta esango du; au nere alabatzat ezagutuko det onezkero, eta bertatik daramat nerekin batean gerorako utzi bage.

Gisa onetako eskeñi oparoak bere seme alabaentzako entzutean, jarten da eri gaixoa indartsu erioari darraizkion etsai portitz guztiak garaiturik, Jaungoikoaren arpegi ederra ikustera lenbait len joateko pozean. Eta mundu deserritu onetatik beti betiko tokira joatean ere, beraren aide leialak egiten diozkate arimaren onerako Elizagandik egin al dagizkiokean laguntza guztiak.

Beste oitura bat ere gai oni dagokiona eta anziñakoa txit, ezagutu izan da Gipuzkoan milla ta zazpieun urte ingururaño. Euskal-errietako Jauregi, eta Etxalderik aurrenengoak, beretako Nagusi Etxekoandreak Jaungoikoak beregana deitzen zitueneko ifinia oi zuten legezko oitura, nori bere ondasunak agintzen zioten modukoa, nork daki, ordea, noizkoa? Illtzen zanaren gorputzarekin batean eraman oi zituzten Elizako ate nagusiaren ondora, batarentzako uzta-idi galaren galakoa txintxarriz beterik; bestearentzat zekor galanta adarretan lore ta errosetak zituela; ark ari andia; onek txikiro gizona; egaztiak, sagarrak, gaztañak, eta beste gauza asko, nor nolako emankizunaren azpian arkitzen zan, gisa berperean bear zeban erantzun utsaldiarik bage. Iñork asierarik billatu ezin leikion oitura onetatik atera litezke gauza balioso asko, anziña anziñako denpora doatsuari, eta Euskaldun zorionekoai dagozkietenak; zeñak adierazten daben argiroki, Elizak gogortzen asi baino lenago ere, Euskaldunak begiramen



andia zutela Jaungoiko egiazko bakarraz oroitzeko, beren guraso, aide, auzo, ta adiskideak mundu onetatik bestera igaratakoan ere.

*Bižian ta illean Gipuzkoatarrak,
Alkarri laguntzeko txit dira leialak:
Ikusi dira ondo beren egin-alak,
Ditxa andia bait du emen biži danak.*

SEIGARREN KAPITULUA

Gipuzkoatarrak plaza agirikoetan jokatu oi dituzten pillota-partidu, idi-tema, eta beste apustu mueta askoren errazgoia.

Gizon jakinti askok autortzen dute garbiro, Euskaldunak sortua dala pillota, eta pillotako jokua; Euskaldunak dirala pillotako lanbidean beste guztien buru ta nagusi; eta Gipuzkoatarrak jatorriz direala pillotari gaiñ gañekoak, eta jostallu gozarotsu onetara guztiz eresia andia dutenak. Jobellanos jakintsuak España guztiko jostaldien gañean izkribatu izan zeban liburuan, pillotariaz itzegitean esaten du onela.

«Tambien en esto se distingue el pais Bascongado. No hay puebli considerable en el que no tenga su juego de pelota grande, cómodo, gratuito, y bien establecido y frecuentado; y asi como juzgamos que los bailes públicos influyen en el caracter moral, hallamos tambien en ellos, y en estos juegos la razon de la robustez, fuerza y agilidad de que están dotados aquellos naturales».

Egiazki ikusgarria da txit pillotariak plazan oi darabilten pizkortasun, azkardade, eta arintasuna. Probinzia onetako jaiotarrak jai guztietan jostaldiatzen dira pillotan Andizki eta Apaizetarañoakoak langilleakin batean. Erriak Erriai, Probinziak Probinziaz, eta azkenik Franzesai ere, Gipuzkoatarrak jokatu izan diezate pillotan dirutza andiak asko aldiz. Ez ordea ustekabezean alkargana biribillaturik, baizikan gizon prestu gisa, aldeurrez batak besteari gaztigatu, eta bide erdira irtenik adiskidetasun andian erabakitzen dituztela garbiro, zenbat diru jokatu, zein egunetan, nongo plazan, nolako pillotakin, zenbat jokutara, eta lanbide oni dagozkion argibide osterontzeko guztiak.

Modu onetan egindako pillota-partidu ondra andikoetan ikusi izan dira onza urreak millaka jokatzen.

Hernaniko plazan lau Nafartarri, beste lau Gipuzkoatarrak jokatutako pillota-partidu batean, ikusi izan ziran oe osoak beren janziakin, eta kosna ta koltxoi bakarretarañoakoak ere, bertako jendeak Erritarren alde balio jakiñaren truke ifinirik pillota jokuaren aldameneko zumar gañetan itxekita zinzilika zeudela, partidua bukatu arte guztian. Pillotako partidua



andi au jokatu izan zatekean milla zazpi eun eta ogeigarren urte inguruan. Gertatu omen zan Gipuzkoatarrak irabaztea; bañan txit estutik eta etsi ezkerokoa. Gipuzkoatarrak sei joku, eta Nafartarrak amar jarri omen ziran amaikarako. Oek partidua irabazitzat biraldu omen zuten mandataria beren Errietarontz. Bañan Erribera deitzen zitzaion Oiarzungo galai gazteren bat arras mindurik, asi omen zan sakatzen pillota andia, eta Jesus-garrengo ziplatu omen zien Nafarrai partidua. Denpora aetan eta geroztik ere oitura izandu da Gipuzkoan, partidu andi bat irabazitakoan itzneurruak ifintea, beretan adierazten dirala oso ta garbi, pillotariakin plazan igarotako gertakari guztiak, ondorengoak are gogoan izan zitzen, aurreragokoak egindako azaña andiak, oraiñ zer-nai gauzaren barriak paper moldizkidatuetan zabaltzen diraden bezala. Oitura maitagarri Euskal-errietako au noiztik eta zeren bidez datorren esanik daukat lenago, zeñari bere kolkoan arkitzen zaiozkan askok eta askok uste duten baino gauza miraritsuagoak.

Izendatu dedan pillota-partidu Hernanikoa irabazitakoan, Gipuzkoatarrak ifini izan zituzten bersoetako iru ezarriko ditut emen, Probinzia onetako edozein atsok gaurko egunean ere kantatzen dituenak, eun ta ainbeste urteren buruan, atzo ateratako berri berriak balirake bezalaixen. Berso oek dira iruna puntukoak, eta beren okasta edo tonu berezitu ederrean, txit egoki datozenak.

Amar joku ta sei zeudenean
 Erriberaren kopeta,
 Bazirudien bazekarrela
 Elurrarekin tormenta;
 Elizaraño sakatzen zeban
 Zortzi onzako pillota.

Baztandarrak itzak eder
 Malmotea kolkoan
 Erraz irabazi uste zuten
 Partida galdutakoan,
 Negarra mardul egiten zuten
 Hernanin Eliz-ondoan.

Astigarran mutil txiki bat
 Probestuaren semea,

Non billatzen da errestorako
 Bera dan baino obea?
 Ikaraturik biraldu bait du
 Nafarroako jendea!

Pillotara ezezik beste apustu mueta askotara ere zaleak dira txit Gipuzkoatarrak. Eta batez ere, idi-tema, aizkol-joku, balenka-partidu, ari-joku, pulsuak, saltoka, lasterka, eta beste onelako apustu, gorputzaren azkardade, aritasun, eta indarleiari dagozkionetara.

Iru urtez onontz Azkoitiko plazan idi-apustu batean jokatu dira eun ta irurogei milla erreal igarok; eta dirutza andi onen zatirik geiena edo guztia, begira izan etzitekean errenta pagatzen dutela bizi diran maizter jende nekazariena. Apustu onen ondoren bereala beste bat jokatu dute Bergarako plazan, uzta-idi galaren galakoak egindako arraiaren kontra bederatziz gizaseme Gipuzkoatarrak; baita irabazi ere aixa aski. Idiak bi ordu ta erdian egindako marra, gizonezkoak ondu omen zuten iru ordu-laurenean; eta bederatziz lagunetatik bi kendurik, beste zazpiak nai omen zuten bereala jokatu apustu berpera. Irureun arroba igarok omen zan, apustu artan erabilli zuten frogarria.

Idi eta bei-tema oek Gipuzkoan jokatzen dira sarriro txit. Beragaitik dute Probinzia onetako nekazariak eresia andia, abelgorriak aiñ gurio, gizen ta indartsu azirik, plaza agirikoetan erakusteko. Askotan ikusi izan dira mugape onetan jaio ta azitako idiak, eun bana erralde ta geiago pisatu izan dutenak. Albururko Errian ikusi izan da urte gitxiz onontz, sei illabeteko txaalara ogei ta amabi erralde pisatzen. Beasainen ere, Franzisko Maria Mujikak bere etxean jaio ta azitako zekorria izandu du, amasei illabeterekin berrogei ta bi erralde aragi, eta laurogei libra sebo pisatu dituen. Beia ikusi det Donostiako baserri Amara deitzen zaion etxean, sei pitxarra ta erdi ezne ematen ogei ta lau orduren barruan. Gisa onetako gertakariak millaka kontu nitzake, Gipuzkoako nekazari zintzo saiatuen artean igarotzen direnak; bañan uste det, ezarri ditudan apurrik badirala, jendadi maitagarri onen eresia ta griña zer ta nolakoak diraden ezagutzeko lainbat; eta jarraitzera noa nere saillari.

Baso-abereakiko indarleiaren ere, gaiñ gañekoak dira Gipuzkoatarrak. Amezetako plazan S, Bartolome arratsalde batean Errizezena jokatzen zebillela, esan zukean Ataungo etxejaun Arzelus deitzen zitzaionak, ezen, beraren Errian bazala emezortzi urte bete bageko mutila, plazan zebillen zezen ari adarretatik itsatsirik buruaz lurra jo-erazokoziona. Erronka andi au zezen jabearen belarrietara iritsi zanean, eman



omen zion arpegi Arzelus jaunari, eta biak gizon prestu gisa egin omen zuten apustua bostna onza urre bigaramun arratsaldean plaza berean zezen arekin Arzelusek ifinten zeban mutilak jokatzeko. Ordurako bazukean Arzelus jaunak entzuer, bazala beraren Errian mutila, *Amilleta* deitzen zaion etxe batean, basa-beiak ankatik eldu ta ardia bezala gelditurik, eznea edan oi ziena nai zeban guztian; bai ta ere, bestek ezin atzeman zituen sasi-bei ta idisko izuak, adarretatik oratu eta menderatu oi zituela. Uste oso onetan apustua egin izan zeban bezala, bertatik joan zatekean gabaz Amilletara mutilaren eske, eta beraren gurasoak esan omen zioten, ezik, etzala gabaz etxerutzen, neguko elurte andietan baizik; eta nola etzeban txabolarik eta etzanleku jakinik ere, alper alperrik irtetea zala beraren billa, alik eta eguna argitu artean. Atera omen ziran, bada, goiz-alderontz mutilaren eske, beraren aita, anaia bat, eta Arzelus jauna. Oen ojuetara agertu omen zan, noizbaiten ere, baso illun batetik, bañan ikusi zebanean Arzelus gizon arrotza, onen ondora ez omen zeban alderatu nai iñolako moduz ere. Geroenean ere, aitak eta anaiak ondo esanaren bidez limurtu omen zuten ekartea berentarontz, zer esan nai zioten aditzera, eta entzun zebanean Erri-zezen bat bear zebala menderatu Amezketako plazan, pozkidaturik, jarri zatekean gogoz joatera; zeñari atsegintasan geiagorako Arzelusek eskiñi omen zion, mendi artan zebillen beirik oberena erosirik emango ziola beretzako, baldin apustua irabazten bazeban.

Mutil gazte au guztiz omen zan ederra ta galanta, eta orduraño plaza inguruko lagun-artetara beñere jatxi bagekoa. Beragaitik janzi modu onekorik ez omen zitzaion arkitzen, toki agiriko batera aurkeztutzeko, eta denporarik nola etzegoen berriak egiteko, alabearrez Lazkaun omen zegoen egun aetan Bikario gizon lodi andiren bat; eta onen alkandora ta frakakin abarka mantarrak janzi, eta beste soñekorik bage joan omen zan Amezketako plazara, apustua jokatzera.

Arzelusek eta zezen jabeak jokurako bost onza urreak bertako Alkate jaunaren eskuetan ifinirik, izendatu ere omen zituzten itzal andiko gizon eldu biña, despitarik izaten bazan erabakitzaile. Oiturazko argibide oek guztiak bear bezala zuzendutakoan atera omen zituzten zezena ta mutila plazara, hura, okulluan akulluarekin ziritatuaz arras aserra-erazorik, eta au, jaten ondo eta edaten bere moduan emanik alaitu ta pizkorturik txit. Mutil au jaiotzetik omen zan itzegiten tatalea, eta zezenari ots egiten omen zion plazaren goen-aldetxotik, *Atol*, *Atol*. Begira zeudenetako askok esaten omen zuten Ai au mutilaren guri mardul eder galanta! Negargarria da txit zezen likits orren adarretan beraren gorputz liraña ikusi bearra! Zezena omen zebillen plazan bazter batetik bestera jira ta bira, eta muti-

la beti ere beragana alderatuaz, deitzen ziolarik bere izkera tatalean guztiz gogoz eta txit sarrir, *Atol onala Atol*. Noizbait bear ta alakorik batean, zezena aserreturik arrabia bizian omen zijoakion erasotzera, eta kolpea emateko burua makurtzearekin batean, oratu omen zion adar bietatik irmeki. Lenengo abantadan zezenak altxatu omen zeban gora mutila; bañan onek, beera jatxitzean oñak lurrean ifini bezin prest, lepoa biurriturik jo-erazo omen zion buruaz lurra, bein alde batera, eta gero bestera; eta lurrera botarik azpiratua zeukala galdetzen omen zeban bere tatalean *Ein bealiot geio?* Esango bazukean bezala *Egin bear diot geiogo?* Bereala lau Erabakitzaileak plaza guztiarekin batean eman omen zioten apustua irabazitza legez ta bidez Ataungo Amilletako mutil emezortzi urte bete bagekoari. Apustu gogoangarri au jokatzen Amezketako plazan ikusi izan zuten gizon zarretako askori, nere gazte denporan entzun izan nioten gertakari au, emen ezarri dedan modu berperean. Izendatu dedan mutil Ataungo au, geroztik izan omen zan toreatzallerik oberenetakoa; zeña laurogei ta geigo urterekin ill zatekean ni jaio ezkeroztik.

Probinzia onetako plazaetan jokatu oi diran bertako baso-idiskoak arrapatzen ere, guztiz portizak eta txit azkarrak dira Gipuzkoako mendi mutilak, beste gauza guztietan bezalaixen. Ez da oraindik urte asko, Debako mugapean gertatu izan dala lanze bat adigarria txit, eta gogoan ondo eukitzekoa. Tolosako plazan jokatzeko lau zezen arrapatzera joan ziatezkean mendira Lasturko bost mutil gazte bei eziak arturik, oekin batean etxera ekarteko asmoan, beste askotan bezala. Begiztatuak zeuzkaten lau zezenetatik irurak atzemanik, ifini omen zituzten bei eziakin batean etxerako bidean; bañan laugarrena izanik besteak baino indartsuagoa, pizkorragoa, eta ibiltari geiagokoa, sartu omen zitzaien txara andi batean. Ordurako arras nekatuak arkitzen omen ziran zezen arrapatzaileak. Guztiaz ere bost mutiletako batek artu omen zeban asmo sendo bete, ezik, zezen izu igestuari etziola laga bear, alik eta atzeman zezen arteraño. Jarraitu omen zion berak bakarrik, txara zabal andia igarorik mendi zulo guztiak barrera atxi atxika; eta noizpaiten ere, zezena beragana jirarik jarri omen zitzaion aurkez aurke erasotzeko moduan. Bereala alkarganatu omen ziran biak bat batean, kolpea nai erara emateko lekurik zezenak etzeban unean, eta oratu omen zion mutilak adar bietatik portizki; bai ta eutsi ere irme, zezena arras aunatu zan arteraño guztian. Ordu bian bezalatsu iraun omen zeban jazarra andi onek. Mutilak ez omen zeban besterik egiten, ezpada, adarretatik irme eustea; bañan zezena nekatu zatekean arras, aiñ karga pisua beregandik ezin kenduaz. Geroenerako, zezena kemen bageturik erori zakean lurrera, eta berari



utsiaz zegoela, asi omen zan mutila lagunai ojuka, eta nekez bederik biribillatu omen zituen beretako bi bei ezi batekin, zeñari loturik eraman omen zuten ardi malsoa bezin humill etxera laugarren zezen indartsu ibiltari andi hura. Jazarra gogoangarri au zezenarekin egin izan zeban gizona, oraindik bizirik arkitzen omen da Lasturren.

Milla, zazpieun, berrogei ta amasei urte inguruan, Ataungo plazan bertako mutil batek esku utsik egin izan omen zion burruka, artzakur andi bati. Erri bereko artzain batek omen zeukan zakur indartsuren bat mendian ardiai kontu egiteko, otsoak ere burrukatzen zituena. Artzain au bere zakur andiaren ipuinak kontatuaz erronka zeriola egon oi omen zan iristen zan toki guztietan. Beingo batean Ataungo ardangelan jardunki berperean ziarduala, jabetu omen zitzaion bertako mendi-mutil gazte indartsu bat, esaten ziolarik, ezen, aren artzanora andiari bera jarriko zitzaiola atzapar utsak beste erramientarik bage Erriko plazaren erdian, baldin zerbait ondotoxoa jokatu nai bazeban. Bereala egin omen zuten apustua, onza bana urre eta amarna ardi jokatzeko, urreneko Igande arratsaldean beren Erriko plazan. Mutil onek eragin omen zeban plazaren barren-aldetxoan arrizko eser-aulki bat, al zeban indar guztia bizkarrarekin atze-alderontz egin arren mugitzen etzala. Apustu onen barria zabaldu omen zan goierri guztian, eta ikustera batu zatekean guztiz asko. Jokatu bear zan denporan jarri omen zan mutila bere esertoki arrizkoan, eskuiko belaun-burua larrugorriturik zakurragana begira zebala, eta deitu omen zion zakur jabeari, bota zekiola bere artzanora andia. Esan ta egin, bota omen zion aixeatuaz, eta mutila, belaun-buru larrugorrikoa aurrera zebala, berarekin ari omen zitzaion zirika. Artzanoratzar orrek iritsi bezin prest oratu nai ziokean belaun-burutik; bañan, aoa al zeban guztia zabalduzik ezin ondo moldatuz ari zan bitarte labur artan, mutilak artu omen ziozkan ao sapaia biak esku banaetan, eta egin zion batetako indar portitzaren bidez, iriki omen ziozkan masalla-egur biak arras, alde banaetara; non gelditu izan zatekean artzain erronka andiak boteaz zebillena, onza urrea eta amar ardiak galtzeaz gañera, ainbeste maitatzen zeban zakurra bage. Nere aitak ikusi omen zeban apustu au jokatzeko, zeñari, eta aurreragoko gizon askori entzun izan nioten gertakari au bein baino geiagotan.

Gisa onetako azaña andi Gipuzkoatarrak egindakoak, badira ezin kontatu ainbat; bañan bertako jaiotarrak nola ez duten gogorik beren itz-kuntza ederrean ezertxu ere izkribatzeko, guztiak daude arras illak giza-aldea bat igaro orduko, baldin ezpadira itz-neurtuetan ifiniak. Aberekiko indar leian ez ezik, gizonak gizonen kontra egin izan dituzten jazarra andietan ere, Gipuzkoatarrak beti izan dira gañi gañekoak, eta beñere

inork azpiratu ez dituenak. Oen azaña gogoangarriak azalduko ditut argi eta garbi, España barruan izandu diran guda gogor portitzaz itzegitean.

Gauzarik arrigarriena, et ondrarik geienekoa da, izendatu ditudan apustu andi oek jokatzeko denporan, Gipuzkoatarrak alkarren artean irozotzen duten pakeazko anaiatasun maitagarria. Probinzia barruko Erri askotatik batutzen dira plaza agirikoetara gizonak millaka. Beretako geienak baserritar atxurlariak izan arren, nolako txukuntasunean eta zein ederki janziak orde? Bakotxari bere langintza ta bizimoduak agintzen dion eran, ezin egokiago apainduak ager litezkean bezalaixen. Jendadi maitagarri onek soñean daramazkien edergarri guztien artean ikusgarriena da beren emazte ta alaba zintzoak etxeko liñoarekin egindako alkandora zuri eder taldea. Gipuzkoako baserritarrak jatorritik dute oitura, txamarrak janzi bage bizkarretik zinzilika dituztela, mauka-utsean plazan egotekoa; eta beretako geienak edo guztiak izan oi dituzte alkandora zurien gañetik gerriko gorriak. Bost edo sei milla gizonazko langilleak plaza agiriko batera biribillatuak ikustea apainduak aña garbiro ta txukunki, txuri ta gorri ta kikirriki, nork ez du bear gogoan iduki, beren izaera gozo pozkarria beti? Agirian daramazkiten soñeko alegereaz bezin ondo janziak joaten dira Gipuzkoako nekazariak partidu ta apustueta, ixil zizkuetan ezkutuan oi daramazten zortzi dukateko: zeintzuben ikusten diran maiz aski, beren neke izerdizkoa beste etorritik inondik ere ez dutenak izan arren, onzako urreak bostnaka, amarnaka, eta ogeinaka ere ifintzen, nork bere gogokoaren alde. Dirurik une artan arkitzen etzaiotenak orobat jarten dituzte idiak, beiak, mandoak, zaldiak, auntsak, ardiak, eta beste edozein gauza esku artean darabiltzatenak. Ikusi izan ditugu plaza agirikoan gizonak beren soñetako txamarra ta gerrikoak ifintzen, batak bataren, eta besteak bestearen alde.

Probinzia onetako barri ez dakiten gizon arrotzai, inoiz edo berriz suertatu zaiotenean partidu edo apustu oetakoren bat jokatzeko ikustea, arri ta zur eginik gelditu izan dira bertako jendearen prestutasunaz. Partidua jokatzeko dabillen bitartean plazako jende guztia ikusirik, ojuz ta deadarka dagoela nor bere gogokoaren alde egin-al guztian, esan izan diezate kanpotar oek aldameneko lagunai, ezen, partiduak dirauela edo bukatutakoan, nai ta naiez izan bear dutela plaza artan, aserre gogorrek, burruka andiak, eta eriotza negargarriak ere. Bañan gero, beren galdu gordeak egindakoan ikusi izan dituztelako alkarrekin daudela anaiatasun andian, batak bestea gonbidatuaz berriz jokatzeko partiduren bat moldatzen, autortu izan dute garbiro, ezen, bere begiaz ikusi ez dabenak, ezin



sinistu dezakeala zenbatetarañokoa dan Gipuzkoatarren gizabidezko ondratasun pare bageko maitagarria.

*Gipuzkoako jende leial eta piña,
Onean goixoa da, gaitzean samiña;
Plazan egin arren nork bere alegiña,
Alkar maitatzeko du jatorrizko griña.*

ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Gure Ama on maitagarri Gipuzkoaren bizitza doatsua;
Aitalenen Tubal Euskaldun garbia Españara etorri izan zanetik
oraindañoko guztian, berak ekarrirako itzkuntza ederra eta oitu-
ra gozoak zeren bidez irozotu izan dituen, eta oek osotora gorde-
tzeko egin izan dituen jazarra andien argibide egiazkoak.*

Mundu guztiak daki; bada, Gipuzkoako Probinzia txit leial eta guztiz argidotar au dala, Españaren zatirik aurrengoetakoa, gauza askoren bidez; eta batez ere, Erresuma andi onetara lendabizi etorri izan zan itzkuntz eder guri gozoa oso ta garbi gorderik, Franziako muga iriki balio-soari zintzo ta ongi konta egin izan diolako estura larri askotan.

Gauza jakina da, Probinzia labur onek lau milla ta geiago urteren epean izan dituela joan etorri asko, gora beera andiak, gertakari samiñak eta ausi-abartza kaltarkitsu izugarriak. Bañan atsekabe garratz, estura portitz, eta larritasun illgarri guztiai arpegi emanik, arkitzen da bere gazte denporako edertasun distiatuarekin oso ta garbi. Egia ziertoro au arkitzen da agiri agirian, iñork ere ezin ukadezakean moduan.

Españako Erresuma andia Tubaltar Euskaldun garbiaz betea arkitzen zala, bertako urre ta zillarrak arrapatzera etorri izan ziran, eskubiderik bage, Zeitikakoak, Feneziatarrak, Kartajinesak, Erromatarrak, Arabeak, eta Godoak.

Zeltikakoak zuten itzkuntza beren berekia; zeñari, esaten zitzaion Zeltikoa; Fenizioak itzegiten zuten Fenizia edo Hebrea orduan, edo beintzat beraren itzkundeetako bat; Kartajinesak Punika; Erromatarrak Latina; Arabeak Arabiga; eta Godoak Gotika. Itzkuntza oek dira txit eza-gunak gizon jakintien artean; zeintzuk autortzen dtrten garbiro, Euskaragandik arras urrun dabiltzala.

Izendatu ditudan Dierria arrotz oek urre ta zillarren ondoren etorrita, beraren zatirik geienetako jaun ta jabe egiñik, egon izan ziran urte askoan, bakotxa bere txandan; bañan Gipuzkoako Probinzian etzuten izan eskubiderik ezertarako ere; zergaitik bertako jaiotar zintzo ernaiak botatzen zituzten alderatu bezin prest, astinaldi gogorrek emanik an ta emen. Arraza gaizto oek Españako lurrean berendu zituzten toki guztietan erein izan zituzten nork bere itzkuntzaren aziak; bai ta gogoz erne, eta guriro azi ere ugari txit; bañan Gipuzkoako mugapea azaro onean



arkitu etzutelako, gelditu izan ziran uzta txarrarekin. Begien aurrean dakusgu, bada, argi eta garbi, aipatu ditudan etsai indartsu, goseti, amorratu guztien esker gaiztoan bada ere, beretako itzkuntzaen kutsurik txi-karrena ere bage arkitzen dala gure Euskara eder gozoa bizirik, iñork ere menperatu izan ez dituen arkaitzarte oetan.

Euskarazko itzkuntza oso ta garbi bizirik arkitzea aski da, Euskaldunak iñoren uztarripean beñere egon izan ez dirala onegiteko. Guztiaz ere, Gipuzkoako Probinziak ainbeste urteren buruan igaro izan dituen lanzerik estuenetakoak ezarriko ditut bat banaka, berari zor zaion ondra andiaren argibiderako.

*Erromatarren etorrera; eta oekin Gipuzkoatarrak
egin izan zituztena jazarra andien azaldurea*

Zelta, Fenizio, eta Kartagoen ondoren etorri ziran Erromatarrak Españara, aurrekoen azgarriak, eta are gosetiagoak, Jesu Kristoren jaiotza baino ogei ta sei urtez lenago, eta Tubalen etorreratik bi milla, eun ta irurogeigarren urtean, Octaviano Augusto agintari zutela. Buruzari ots andiko onek beretuak zeuzkan denpora artan mundu osoko Probinziarik geienak, *Suetonio Tranquilok* bere bizitzako ogeigarren kapituluan esaten dabenez; adierazten dabelarik, ezen, garaitu ere zituela *Mario Antonio* eta *Elio Patra*. Gertakari oen aipamena egiten du *Apezpiku Jerundensek* ere, *Paralipomenon Españakoan*, jarraitzen dielarik *Lucio Floro*, eta *Justinori*. Gizon jakinti oek eta beren lagun askok esaten dute, ezik, Augusto Agintaria egun aetan arkitzen zala arroturik berez betea eta arras uanditua, aiñ denpora gitxiren epean ainbeste batalla sonatu irabazi izan zituelako; eta Kantauritarren mugape labur, iñork ere ezin beretu zeban au, menperatutako ondra audia bestek eraman etzekion, berak etorri nai izan zebala, Euskaldun ospatsuak aixa eta prest eziko zituelako uste oso betean; bañan etzitzaiozkan ondo irten bere asmoak.

Esan ta egin, etorri zan Octabiano Italiatik iru Martizti andi arturik, oen Buruzari *Autistio*, *Firmio*, eta *Mario Agripa* zituela, Españaren ifarraldeko bazter txiki onetan pakea oso betean bizi ziraden Kantauritar Euskaldun garbi apurrak, egun gitxiren epean buruaz beera ifinirik bere-tuko zituelako pozean.

Agintari ots andiko onek bere etorreran egin zeban aurrengo lanbidea izan zan, Gipuzkoako Probinzia itsasoz ta leorrez inguru guztitik, martizti samalda andiak in esiturik ifintea. Bereala eraso zion alde

guztietatik su ta gar, Leoi amorratuaren gisa barautsa ta pitsa zeriola, guztia beingoan kiskaldu bear bazeban bezalako ausardiarekin; bañan Gipuzkoatar ernai bulardetsu leialak, ustez ustekabeko lanze estu artan arkitu ziranean, irten ziran beren betiko gordeleku mendi goituetara; zeintzabetatik egiten ziozkaten Augustoren martizti andiari kalte izugarriak, beraren indar ezopeaz ixekaturik. Etorberri artan jarraitzen zien mendi-mutilai portizki, asmatu al zitzakean sorteari guztiakin egin al guztian bero bero; bañan geroenerako arras ozturik, beraren soldadu guztiak jarri ziran, bide andiaz kanpora oinkada bat bakarra ere eman nai etzutela.

Augusto gudari andiak ezagutu zebanean ezin zebala lakarik atera Gipuzkoatarretatik, ez goitik ez beetik, zearka ta zuzenka, eta aurkez aurke ere; beartu izan zan, putzu-zulo eta erreten-aska andiak iririk, gorde tokiak unetik unera or emen egitera, esaten duten bezalaixen Isidorok amazpigarren liburu itzkundeetakoan zazpigarren Kapituluan; Nebricensek bere itztegian; eta Juanes Camerciok Lucio Florori egiten ziozkan aomartzeetan. Eta baldin anziñako gizon jakintsu oek argibide oetakorik batere ifini izan ezbalute ere agiri agirian arkitzen dira gaurko egunean ere, Aldaba deitzen zaion mendi txuntxurrean, Mauriakooan, eta Hernio inguruan, Erromatarrak beren gordegarri, ustez segurutzat, etor berrian egin izan zituzten luepaki luze, eta sotaskazulo andieu ezagungarri egiazkoak.

Octaviano Augusto urgallosoak, berrogei ta bi urte aurreragokoe-tan irabazi izan zituen batalla andi guztiak etzeuzkan ezertan, Gipuzkoako mugape labur au bost urteren buruan ezin menderatu zebalako bere soldadurik oberenakin. Iraiñgarrizko lotsa andi onen bidez atsekabeturik, irabiatu zitzaion bere gorputzeko odol guztia, eta gaitzaldi gogor andi batek eraso zion portizki. Bere burua ikusi zebanean estura larrian, Marco Agripari eskubide guztiak emanik, joan zan Tarragonara osasunaren billa; bañan ez berari zegokion lasaitasunean. Gipuzkoako mendi gogor luzeak egunaz igarotzeko guztiz beldur andia zeukalako, autatu izan zeban gau illun trumoidun bat, eta Zegamako mendian San Adriango aitz-zulatutik aurrera gordegarri onakin ixiltxorik zijoala, oñazkarrak ill zion bere serbitzallerik maiteenetako bat; eta esker-rak gaugiroari, berak bizia gordetzeaz.

Tarragonan zuzpertzten asi ta laster biurtu zan Octaviano ostera Gipuzkoara, zeñetan zeukan bere ardura guztia, non arkitu zituen, lenago mundu osoa beldurraz ikara larrian zeukaten bere gudari ots audiko-



ak erkindu, koldartu, eta milikaturik, Errietan gordegarri eginta zeuzka-tokietatik irten ere nai etzutela.

Augustok bere soldaduetan ikusi zebanean ainstesterañoeko etsipe-na, jarri zan zorabiatuik zer egin eta zer asmatu etzekiela. Ordurako artu zituen mandatu garratz asko Erromako Senaduagandik, esaten ziolarik, ezen, Asia, ta Afrika aiñ denpora gitxiren epean menperatutako Gudari gaiñ gañeko batek, Probinzia labur au bost urteren buruan ez beretutzea, sinistu ezin leikean gauza dala. Senaduaeren errenkura samiñ zorrotz oei erantzun zien Augustok, ezik, Kantauriako jendea ez dala, beste tokietan arkitu zeban bezalakoa, baizikan ernaiagoa, errutsuagoa, eta bere jaiote-riarekin jatorrizko oiturak bizia baino ere maiteago dituena.

Egun aetan Zesar Augusto arkitzen zan estutasun andian, bere ondra baliosoaren edergarritzat zer sortu etzekiela; bañan geroenean ere, gizon jakintiak bezala, asmatu zeban bere aomen andia irozotzeko bide zuzen egoki ezin obeagokoa. Mendietan zebiltzan Gipuzkoatarrai gazti-gatu zion Octavianok, ezik, guda luze kaltarkitsu hura batalla ondradu baten bidez beingoan bukatua izan zedin, jatxi zitezela ordeka zabal batera, bata bestearen indarrak gizon prestu gisa frogatzera, eta garait-pentsu irteten zanaren borondatera erabakiko zirala egiteko ari zegoz-kion baimendeak. Gipuzkoatarrak erantzun zioten mandatu gozo oni pozkida betean, baietz; buruz buru irtengo zirala Errezilko zelaiera, berak autatzen zeban egunaren edozeiñ ordutan.

Esan ta egin, Augustok esleitu zeban une bererako, mendi-mutilak an ziran prest Errezilko zelaiean, beren lizarrezko dardai andien erpiñe-tan burni zorrotzak zituztela, zeintzuk ziraden denpora artan gudarako armak. Batalla balioso au emateko ziran izendatuak, irureun Erromatar indartsuenean kontra, irureun Gipuzkoatar. Jazarrari ekiteko aurrean mendi-mutilak egin zuten lendabiziko lana izan zan, beren eskuiko oiñe-tako abarkak erantzirik jarrea, lurrari portitzkiago irmaturik, beren inda-rraz obeto baliatu zitezzen.

Modu onetan prestaturik nor bere tokietan jartean, Agintarien otse-ra eraso zioten alde bietakoak alkarri gogorkiro eginak guztian; eta bost-garren ordulaurenerako, arras txeatu, abarrakitu, eta azpiratuak izan ziran Erromatar aiñ ots andikoak, Gipuzkoako mendi-mutilak gelditzen zira-larik kanpoaren jabe ta garailari ondra andiarekin.

Arri ta zur egiñik gelditu zan Augusto, lenago mundu osoa ikaratu izan zuten soldadurik oberenetakoak ikusi zituenean aiñ aixa ta fite porrokaturik menperatuak, bera buru ta nagusi zutela, mendi-mutil ez jakin iñora ere irten bageko batzubetatik. Uste bageko gertakari onen

bidez arkitzen zalarik Octaviano ezin andiagoko atsekabe samiñarekin garraturik, Erromako Senaduari gaztigatu zion, nola Errezilko ordeka zelaiean irureun mendi-mutil Gipuzkoatarrak menperatu zituzten bera-ren Martizti andian arkitzen ziraden irureun soldadu indartsuenak. Bañan mandatu iraiñgarri au Senaduak etzeban ontzat artu izan.

Erromako Batzar andientsu ark erantzun zion Augustori, ezen, etzala arritzeko gauza, eta are gitxiago ikaratzekoa, Gipuzkoatarrak beren Errian batalla irabaztea; bada Erromatarrak ere beren lurrean, oro-bat egingo ziezatela Gipuzkoatarrai: eta baldin joan nai bazuten eun Gipuzkoatarrek Erromara, beste eun Senaduak ifiniko zituenen kontra peleatzera bertako Batzartar andientsuen aurkezean, promestutzen ziola Senaduak bert bertatik Gipuzkoako Probinziari itz onorezkoaren baitan, ezik, baldin gertatzen bazan Erromatarrak garailari irtetea, Gipuzkoa izan zedilla Erromako Agindearen menpean, mundu osoko beste Probinziak bezalaixen; eta suertez ere Gipuzkoatarrak irabazten bazuten baza, izango zirala berak, Erromako Agintaritzta andiarekin adiskidetasu-nean anaiaturik betiko laztanduak; eta gozatuko ere zituztela lenago bezalaixen, anziña anziñako eta are lendabiziko etorkitik legez ta bidez zituzten beren oitza ta oitura onetsiak eskubide guztiakin.

Senaduaeren promes ta eskeñi ondradu au Augustok Gipuzkoatarrak adierazo izan zienean, Probinzia onetako biztanleak zar ta gazte, txiki ta andi guztiak pozkidatu ziran, esan al guztien gañeko atsegintasunean; zergaitik beren baitan arkitzen ziran irme, Errezilko zelaiean bezin aixa menperatuko zituztela Erromatarrak euren Errian ere.

Bereala, Oiarzungo Lartaungo semea Buruzari zutela prestatu ziran eun Gipuzkoatar bata bestearen leian, batalla ematera Erromara joateko, eta beste lagun askorekin batean Cesar Augusto berekin zutela, ekin zitzaiozkan gogoz beren bide luzeari, Senaduari izkribaturik, nola ta zer-tara zijoztzen.

Erromatik onontz legoa bateko bidastira irten ziran Senaduko jau-nak, Augustori eta Gipuzkoatarrai ongietorria egitera; eta beren agurrak alkarri egitean, Augustok esan zien Batzartar bere adiskideai, beatza jaso eta berarekin erakusten ziela; Ona emen non dituzuten, Erromatarren kontra peleatzera datozen Gipuzkoatarrak; zeintzuk diraden, lenago gaz-tigatu nizuten bezala, Afrika, Asia, eta Europa menperatutako nere sol-daduai Errezilko ordekan batalla irabazitako mendi-mutil Kantauritarrek. Senaduko jaunak erantzun zioten Augustori, ikusi ta



ondorean sinistuko degu ori; laster izango da eguna, ziertoro jakingo deguna, Errezilko zelaia bezin ona, izango ote duten Erroma.

Egun batzuketako atsedena Gipuzkoatarrak emandakoan, Senaduak izendatu zituen batallarako eguna ta tokia; baita esleitu ere eun soldadu, Erromako martiziti andien artean arkitzen ziran indartsuenak. Jazarra onetarako seinalaturik zegoen lekua zan *Tiberico* ibaiak egiten daben urbitartea, zeñari esaten zaion *Transtiberi*; non arkitzen zan kanpo zabal bat esolaz itxitua, peleatu bear zutenentzako berariaz egiña. Ugarte onetara ezin joan zitekean besterik, ezpada, alkarren kontra peleatu bear zuten berreun gudariak. Gabarra batean joan ziran aurrena Senaduak autatutako eun Erromatarrak, eta bereala bestean eun Gipuzkoatarrak. Oek leorrera irteteen lendabizi egin zuten lana izan zan, berak igaro ziran gabarra zulaturik, uraren ondarrera botatzea. Erromatarrak ikusirik egin-bide arrigarri au, galdetu ziezaten Gipuzkoatarrak, ea zeren bidez edo zeri zegokala urari eraso zioten gabarra? Erantzun zuten, ezik, etzutela aren bearrik geiago; an arkitzen zala Erromatarrena osorik, zeñaren jabe egingo ziran laster, eta bera askoko zutela, ostera Erromara biurtzeko. Ausardia onezaz ikaratu ziran begira zeuden guztiak, eta ez gitxiena, beren kontra peleatu bear zutenak.

Alde bietako gudariak beren dardai andi burni zorrotzdunakin alkargana begira aurkez aurke jarri ziradenean, batallari ekiteko keñua Senaduak egitearekin batean, Gipuzkoatarrak eman zuten lenengo kolpean bota zituzten lurrera laurogei Erromatar, zutik ezin jarri zitezkean moduan arras eroriak beti betiko; eta beste ogeiak ere gelditu ziran erituak zauri andiak. Gipuzkoatarretatik etzan erori ogei baizik, eta laurogeiak irten ziran garaipentsu, kanpo gogoangarriaren jabe egiñik, batalla aini ospatsua aixa ta fite irabazitako ondrea andiarekin.

Erromako Senadu andientsua arriturik gelditu zan, Gipuzkoako mendi-mutilen ausardia ta azkartasun parebagekoa ikustean. Bereala deitu zituen bere aurrera garailari oek, eta esan zien amodiozko naitasunarekin; Zuek zerate, bada, jaio ziñaten Erriari asko nai diozutenak; jatorrizko oiturak irozotzeagaitik bizia galtzera gogoz jarri izan zeratenak; eta zuek zerate azkenik, oraindaño mundu osoa beldurturik iduki duten nere soldadurik indartsuenak azpiratu dituzutenak, nerau begira nagoela. Beragaitik, erabaki det nere Batzar guztiakikoan, ezik, *Transtiberi*ko kanpo zabala izan dedilla betiko zubentzat eta ondorengoentzako, legez ta bidez irabazi dezuten bezala. Gogoan ere daukat, batalla au ematera Erromara etortterako aurrean eman izan nizuten itz onorezkoa, zeña nai dedan bete izan dedin osotoro gai guztietan; eta orduan promestu neban beza-

la, Gipuzkoako Probinzia izango da gaurtik aurrera Erromako Aginde andiarekin adiskidetasunean alkartua, jatorriz dituen oitza ta oitura eta eskubide guztiak lenago bezalaixen gozaten dituela. Eta guztien gañean, Senaduak ezaguturik zeratela zuek odol garbikoak, prestuak, leialak, eta gudari indartsuak, laztantzen zaituzte berpertatik beren seme egiazkoak baziñate bezalako naitasunarekin; eta amodiozko alardade onek iraun dezan beti, oberena izango litzakeala derizkio, Erromatarrakin aideturik bertan gelditzea. Eta baldin gure iritziari ondo baderizkiotzute, emango dizkitzutegu emaztetzat gure alaba maite oniritziak.

Eskeñi ondradu onen bidez Gipuzkoatarrak limurtu ziran Erromako andizkien alaba maitatiakin ezkondurik, batalla irabazi izan zuten toki Transtiberikoan bizi izaten gelditzera. Oen izengain ezagutuenak ziran *Lartaun*, *Ursina edo Urbina*, *Muru*, *Ursuan* etc. Guztiak Euskarazkoak, iñork ezin uka dezakean bezala, eta gaurko egunean ere Erroman, etxerik aurrenengotzat ezagutzen diradenak. Gipuzkoatar oen jatorria Transtiberiko Ugartean ugaritu izan zan txit asko denpora gitxiren epean.

Erromatarrakin Gipuzkoatarren arteko joan etorri gogoangarri oek gertatu ziran Jesukristo jaio baino ogeirenbat urtez lenago; eta geroztik ere luzaro iraun izan zeban beren arteko aidetasun, eta alkarri zioten leialtadeak; eta oraindik ere, Erroman ta Gipuzkoan agiri agirian arkitzen dira ezagungarri bi, beren arteko aidetasun egiazkoari dagozkionak. Laster azalduko ditut zer ta nolakoak diraden.

Jesukristo gure Jaun ta Jabea Judu biurri gaiztoak gurutzillzatutako ondorean, beraren Ebanjelio Santua erakutsita laztantzeko Elizak ifinten kristauak asi izan ziran denpora zoriontsu artan, Oiarzungo Lartaungo nagusiak, gudarako egiñik zeukan Gaztelua zan, gaur Erri berean arkitzen dan Eliza nagusia; zeña eman zion gogoz Etxejaun prestu ark Erriari, lenago gorputzen gordegarri izandu zan bezala, gero arimen zaintzalle izan zedin. Oiarzungo Erriak bere Santu godartari edo Patroitzat autatu zeban San Esteban, eta Elizari jarri zioten izena, San Esteban de Lartaun Protomartir. Eliza au da Kantaurian aurrenengo egin edo ifini izan zana; zeñetara anziñako denporan biribillatu oi ziran Kantauritar guztiak, beren auzi eta osterontzeko lanbide balio andikoe-tan ziñeztutuzera.

Eliza onen barria zabaldu zan bazter guztietan, eta Erroman bizi izatez gelditu izan ziran Gipuzkoatarren ondorengoak jakin zutenean, Oiarzungo Lartaungo nagusiak emandako Gazteluan ifinia arkitzen zala, San Esteban de Lartaunen izenarekin; eta, zekitelako ziertoro, etxe bere-



ko semea eun Gipuzkoatarren Buruzari joan zala Erromara, bertako beste eun soldadu oberenen kontra peleztera, egin zuten Gipuzkoatarren jatorri odol garbiko oek. Eliza berri bat Erroman berak beren kontura; zeñari izena ifini zioten San Juan de Letran de Lartaun; eta eskutarmatzat jarri ziozkaten San Pedroren giltzak. Aurreragoko gurasoakin beren eta ondorengo guztien ondrarako ta oroitgarri egin izan zuten Eliza oni ifinitako Eskutarmak biraldu ziozkaten Oiarzungoari, bien arteko aidetasun urkoaren ezagungarritzat; eta onek, bere odolekoen erregalo maitagarria naitasun andiarekin arturik, igorri zion Erromakoari, ordaintzat, beraren jaiotetxearen izenak garbiro adierazten daben *Laarrezko* koroia.

Eliza oek biak deitu ditudan izen berperakin, arkitzen dira Oiarzunen, eta Erroman gaurko egunean ere, Gipuzkoako jatorriak diradela adierazten duten argibide askorekin. Oiarzungo Elizan Ama Birjina Errosariokoaren aldaretik, San Nikolas de Barrirena bitartean arkitzen da orma nagusian arri eder bat estukitua izkribaturik urrezko letrak in Latin itzkuntzan onela.

«Santissimo in Cristo Papa Pio quinto, et Catholico Philipo Hispaniarum Reje imperante in hac sua olim Cantabricoe regionis ecclesia antiquissima magnis omni illustrata miraculis divi Stephani á Lartaum Protomartiris ecclesia quo omnes cantabri in litibus juramenta sua prestaturi olim convenire solebant. Reverendissimus Doctor Dominus Sebastianus á Lartaum antiquissima hac domo natus, fuit in episcopum consagratus per Reverendissimum Dominuru Didacuni Ramirez Sedeño á Fuenleal Episcopum Pampilonensem; asistentibus Reverendissimis Dominis Alphonso á Valera Seydomense, et Gundisalvo á Herrera Laudicense episcopis, Domino Joanne ab Acuña Fontarribidi Governatore, et Domino Doctore Peralta Prefecto Cantabrice Pretore cuni suis uxoribus, domibus, et curiis, et pluribus sex milli aliis equitibus, et illustribus cantabris hominibus asistentibus; decimo septimo die mensis Augusti anno millesimo, quingesimo, septuagesimo primo.

Euskaraz

Milla bost eun irurogei ta amaikagarren urteko Abuztuko illaren amazpigarren egunean, Jesukristogan Aita Santo Pio bostgarrena zala, eta Errege fededun on Felipe Jaunak Españaetan agintzen zebala beraren Elizarik anziñaeneko orain Kantauriako Errian arkitzen dan onetan, Eliza argidotarra ta sonatua Kristandadearen lendabiziko eunki edo sigloetan Done Esteban Lartaungo Onkeriola edo Protomartir-en mirakulu asko ta andien bidez, zeñetara biltzarkidatu oi ziran anziñaeran kantauritar guztiak auziai zegozkieten lanbideetan beren zinegin edo juramentuak betetzera; Beakurgarriko Jaun Erakusle On Sebastian Lurtangoa Etxerik anziñaeneko onetan aurreragoko jatorrietatik jaiotako bertako semea izandu zan donekidatua edo konsagratua Apezpikutarako guztiz beakurtsu On Diego Ramirez Fuenleal Iruñeko Apezpiku edo Obispo Jaunagandik; arkitzen ziralarik begira Alfonso de Valera Apezpiku Seidonense, eta Gundisalvo de Errera Apezpiku Laodicense; On Juan de Acuña Eronle Ondarribiako, eta irakustun Juan Peralta buruzari Kantauritarrena beren emazte ta etxetarrakin, kuria eta beste sei milla ta geiago gizon zaldun argidotar lagon zituzteta.

Lartaungo seme onek Obispo zegoela, gaztigatu izan zion izkribuz Garibai jakintsuari Madrillera, ezen, nai zituzkeala jakin zearo, beraren jaiotetxearekin Oiarzungo Elizaren barriak; baita ere, Erromako Transtiberin Gipuzkoatarren jatorriak San Juan de Letran de Lartaunen izenarekin ifini izan zutenarenak, eta egin zegiola mesede esateaz, egiteko onen gañean zekien guztia garbiro.

Obispo oni Kondairatzalle andi ark biraldutako erantzueraren izkribu moldizkidatuetako bat nere eskuetan arkitzen da, nekez biribillaturik maitaro gordea; zeñetan ezarriak dauden itz erazko oek.

Copia de la carta que Esteban de Garibay y Zamalloa Historiador y Coronista mayor del Serenissimo Rey Don Felipe II de España, escribió al Ilustrissimo Señor



Doctor D. Sebastian de Lartaun, Obispo del Cuzco, del Consejo de su Magestad, al Valle de Oyarzun, ele la Provincia de Guipuzcoa, desde la Villa de Madrid, año de 1571.

Ilustrissimo y Reverendissimo Señor.

En uno con este recado he recibido la carta que V. S. Ilustrissima dice, que he escrito mucho en respuesta de la que escribí con Mathias de Arrazque, y assi no podré hablar sobre lo que en ella venia en esta de agora. Diceme V. S. que recibió el sello que yo le embié, y que para perfeccion de él le faltaba una corona de laurel ó zarza, y mas dice V. S. que si el nombre de Lartaun corresponde á lo de Letran de Roma, que es argumento, que la casa de Lartaun depende de la Iglesia, y no la Iglesia de la Casa, y otras cosas que á esto concurren. Digo quanto á lo primero de la Corona, es verdad, que el Escudo, que está en la Iglesia, assi está; y es de Rey, para denotar que en relacion del Pueblo, le fué perteneciente á los Reyes de manera, que cuyas armas son el Leon, y assi está en las puertas de Pamplona. Quanto á lo demas de la dependencia la una á la otra, digo; que es devaneo y muy gran desden, que la casa depende de la Iglesia, porque si esso fuera, la Iglesia no se nombrara de la casa, si no la casa se nombrara de la Iglesia, y digera, Lartaun de San Esteban, y no San Esteban de Lartaun, mas tan antigua es la casa de Lartaun, copio todas las demas de su Comarca, y del Pueblo. Luego si la Iglesia es mas antigua, que la casa de Lartaun, tambien será mas antigua que todo el pueblo, y por consiguiente se puede decir, que todo el pueblo segun el tiempo fué de la Iglesia, y assi que debía ser Abadengo, lo cual es facilísimo, y deroga la nobleza y antigüedad de todo el pueblo de Oyarzun decir; que la casa ele Lartaun, es dependiente de la Iglesia, antes la Torre que está en el Sello del pueblo, fué, y es, de la casa de Lartaun, y esto nuestra bien el nombre de Rodear; pero particularmente lo muestran las zarzas que la rodean, y la primitiva institucion de la Iglesia de San Esteban de

Lartaun, y que el dueño que fue de la casa de Lartaun, dio su Torre para la Iglesia, la cual torre, y casa de Lartaun, está fundada en donde agora la Iglesia, y el se abajó á donde esta agora la casa, y solar de Lartaun. Quanto á la dependencia de San Juan de Letran de Roma, digo; que San Juan de Letran de Reina, es de dependencia de la casa, y solar de Lartaun, y no el nombre de Lartaun de Letran de Roma, y assi suelgo oír desde mi niñez, que el nombre de la casa, y solar de Lartaun está en Roma; y muestralo bien en armas del Escudo que está en la Iglesia, que son las llaves de San Pedro, y el Caliz de San Juan de Letran, y la Torre de Lartaun, y el Leon, de manera es de saber como puede ser esto, que el de Roma, y de la casa de Lartaun se comunicassen en el nombre y en las armas. V. S. Ilustrissima sabrá que la Iglesia de San Esteban de Lartaun es antiquísima, hecha, y fundada en el tiempo de los Discípulos, y Apostoles de Jesu-Cristo Nuestro Señor, y muestralo bien ser así, en ser Iglesia juradera, á donde los de Navarra, Aragon, Alava, y Vizcaia, y Castilla, y Lapurdi del Reino de Francia y los demas de las Montañas, ivan, y concurrían ha hacer sus juramentos ante la Imagen del Bienaventurado San Esteban de Lartaun Proto-Martir, de manera, siguessse que es la mas antigua que hay en Roma, de las Iglesias catholicas, y juraderas, y fueron todas las iglesias juraderas fundadas antes que hubiesse Leyes y canones, por donde dicen los casos, solían juraren tales Iglesias y assi suenan y dicen las historias de los doce pares de Francia, de manera, que quanto á ser antiguas ambas, y ser juraderas, corresponden bien la Iglesia de Renta y la del Valle de Oyarzun. Bien es verdad que la Iglesia de San Esteban de Lartaun es dependiente de la de Roma; y assi la Iglesia de Roma embió á la de Oyarzun sus mismas armas, que son las llaves de San Pedro y el caliz de San Juan; pero en el nombre, la Iglesia de Roma depende de la casa de Lartaun y esto estasse claro y manifiesto, y cosa provable, porque lo uno, el nombre es Bascongado, y lo otro, como V. S. es de



Lartaun, y en esto es como si mas no se hablase, y assi es dependiente de aqui, y no es de allí. Pero es de saber, cuando se transplantó, el nombre de la casa de Lartaun á Roma, sabrá V. S. Ilustrissima, que diez y ocho años antes que naciese Jesu-Cristo Nuestro Señor, los Cántabros cierto número de ellos pelearon contra los Romanos dentro en Roma, y los Cantabros salieron vitoriosos, y los Romanos hicieron en Roma dándoles sus hijas los mas principales que avia en ella, por donde se sigue, que el Capitan de los que fueron á Roma entonces sería el hijo de la casa de Lartaun y que hecha su Victoria se casaría en Roma con la que heredó el palacio, que de entonces se le quedó el nombre de Letran, donde agora esta fundada, y fabricada el templo del Benerable San Juan de Letran, y que este capitan quedó en Roma, y sus dependientes de él se comunicarian con el Dueño, y casa de Lartaun, como buenos deudos, y cristianos generosos de Dios, el uno en Roma, y el otro en Oyarzun; y darían sus Palacios, para que en ellos se hiciessen estas dos Iglesias, y parecelo assi de concierto, cuando el de acá tomó por su Abogado al Señor San Esteban Protomartir, que se sigue despues de Navidad, y el de Roma el segundo día, éste que es de San Juan Evangelista. Esto es, Señor, lo que tengo que decir, y apuntar de este negocio en mis obras, y á V. S. en el ínterin, para si solamente, y no para comunicarlo asta que salga á luz. Y este ser de la casa de Lartaun, y su renombre, es el mas memorable, y antiguo que ay en toda la España, y pocos podran mostrar ninguna antigüedad como esta casa tiene, sin que jamas aya faltado sangre propia de la misma casa de Varones. Nuestro Señor guarde á V. S. Ilustrissima con los acrecentamientos que merece é yo deseo. Madrid 7 de Setiembre de 4574. B. L. M. de V. S. Ilustrísima.— Esteban de Garibay y Zamalloa.

Transtiberin ezkontzaz gelditu izan ziran Gipuzkoatarrakin Erromatarren aidetasunaren bidez, Gipuzkoa eta Erroma alkartu ziran adiskidetasun ezin andiagokoan; eta gerozko joan etorri guztietan eutsi

izan zioten alkarri, bata besteari lagunduaz leialkiro, Wisogodoak Españara sartu ziran arteraño guztian. Lanbide oni dagozkan gertakari asko ta andiak zearo jakin nai dituenak begiratzea dauka, Batxiller Zaldibiak izkribatutako Kondaia Gipuzkoakoaren ogei ta zazpigarren kapitulura; non, beste gauza adigarri askoren artean, arkituko daberen zerrenda bat modu onetan.

«Los Caballeros Transtiberinos se glorian diciendo, que su dependencia es de los invictos Cántabros superiores, que son los Guipuzcoanos, y Vizcaínos y que son los mas nobles y los mas antiguos caballeros de Roma, y dicen mas que la casa *Ursina*, que es principalissima de Roma, como es la de los Colonas, que proceden de los Cántabros; y esta tradicion y memoria antiquissima tienen los dichos caballeros de Transtiberi, que es todo contra la opinion, que algunos tienen, diciendo, que toda la Cantabria fue vencida por Cesar Augusto; lo cual sí fuera verdad los Romanos plantáran en Guipuzcoa, y Vizcaía sus Romances, sus leyes sus habitos, y armas por aquella tierra, é assi bien sus tributos, y armas como en otras partes; y es de saber que las últimas armas, que en todo el Orbe se pacificaron fueron las do aquella tierra por el modo que es dicho. Y en aquel tiempo en Roma se cerraron las puertas de Jano y salió aquel edicto de Cesar Augusto, estando él en Tarragona, para que todo el mundo se empadronase ó se describiese, y en este tiempo de la universal paz nació el Salvador del mundo».

*Gipuzkoako jende Euskaldun garbia
Aurrekoetatik da zintzo ta argia
Erabakirik ondo guda galgarria,
Erromatarretara izan zan jarria.*



ZORTZIGARREN KAPITULUA

*Wisogodoak, Sueboak, eta Alanoak noiz ta nola elorri izan ziran
Españara.*

Jesukristoren jaiotzatik laureun ogei ta zazpigarren artean Theodosio gaztea Erroman Agintari arkitzen zala, Wisogodoak, Sueboak, eta Alanoak eraso izan zioten Españari portizki; bai ta beraren jaun ta jabe egin ere, Euskal-erri, eta Asturias ez, beste toki guztiaz, Jacobo, eta Philipok esaten dabeenaz *Eragolaburren Utsbetandean* bederatzigarren liburuan; zeñetan dauden ezarriak itz erazko oek berperak.

«Despues los Wisogodos, Suebos Y Alanos tomando á Lusitania, y la España Tarraconense, y la Aquitania desde el Río Ligeri ocuparon todo hasta Cartagena, ecepto algunas Provincias, es á saber, Cantabria, y Asturias, y por su constancia conservaron la gente de guerra de los Romanos. A esto de tener fidelidad, y constancia con quien firmaron amistad, convida mucho á esta gente la estima, que hacen de su limpieza, y linage, de que se precian hasta los tráficos, y pastores; en especial se jactan mucho de haber siempre sido apartados de Heregias con Judios, Moros, Neofitos ni otros infieles, nunca mezclados; y haber siempre guardado puro el nombre cristiano, y si algun judío por negocios fuese á aquella tierra, no seria lícito tardar en un lugar mas de tres días, y no en toda la Region mas de trece, de donde se siguió, que en oyendo los muchachos el nombre de judío se espantaban no menos que si fuera de otra especie, que la humana; y aun tienen privilegio, para que ninguno de los nuevamente convertidos á nuestra Santa Fe, pueda morar en su tierra».

Godoen etorreran Erromako Senaduak, lenago baino ere, naitasun andiagoa artu izan zeban Gipuzkoatarretara, jendadi maitagarri onen leialtadea ezagutu izan zebalako beste guztien gañekoa, anaiatasuna egi-

nik zeukatenaren aide. Beragaitik, Erromatarrak beren estura larrietan oik erabiltzkiten Gipuzkoatarrak aurrenengo. Gipuzkoatarrakin kontatzen zuten beren eginkizunik baliosoenetarako. Gipuzkoatarrak jarten zituzten kantuz ta dantzari beren jostallu pozgarri agirikoetan. Itz batean; aidetasun amodiozkoarekin batean, betiko alkardade adiskidetzakoa egin izan zuten ezkerozko guztian, Gipuzkoatarrak izan ziran Erromako Aginde andiaren kutunik maiteenak; zergaitik ikusiaz ezagutu izan zeban argi eta garbi, Euskaldunak ziradela beren jaioterria, jatorrizko oiturak, eta ematen dabeen itza gordetzeko munduan besterik ez bezalakoak. Gipuzkoatarren iru doai andi ondragarri oek autortu izan dituzte Erromatarrak, ez ezik, Godoak eta ondorengo guztiak ere; martizti samalda andiak etorri arren Probinzi au ezin berendu izan dutelako; ikusten dan bezala argiroki, bere jaiotzako itzkuntza ederrarekin oitura onetsiak gozatzen dagoela oso ta garbi, lendabiziko egunetan bezalaxen.

*Naitasuna dionak jaioterriari,
Jarraitu bear dio leialtadeari;
Denpora guztietan ixil ta agiri,
Berak gorde izan du Gipuzkoa garbi.*



BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*Arabeen etorrera, eta Godoen ondamentia noiz eta nola izandun.
zan.*

Arabeak Españara sartu ziranean, arrasatu zuten Erresuma andi onen zatirik geiena, bañan Gipuzkoatarrak beren lurrera alderatzen ere etziezaten utzi izan. Beragaitik Probinzia onetan etzuten Arabeak izan eskubiderik batere; zeña gelditu izan zan lokabe ta garbiro ondamen kaltarkitsu, eta jendadi itsusi nazkagarri argandik, Lenapezpiku On Rodrigo Toledokoak laugarren liburuko lenengo Kapitulan esaten daben beza-laixen.

Godu urguloso mundu inguruaren irabazkindariak, ainbeste urteren epean Españako silla andian beren jarlekua izan bazuten ere, geroenean, Jaungoikoak alan nai izanik, nozitu zuten ondo beren arrokeri neurririk bagekoa, Jesusen jaiotzatik zazpi eun, ta emeretzigarren urtean, patu txarreko Errege On Rodrigogok errinatzen zebala.

Errege au menderatu zutenean Arabeak, jabetu ziran berak Españako tokirik geienentsuaz. Andik amabigarren urtean, zeña zan Kristoren jaiotzatik zazpi eun, ogei ta amaikagarrena, Kantauriako Dukearen seme Fededun Pelaiu lendarbiziko Errege Españakoa, ondamenti aiñ gaiztoak ikusitakoan, asi zan bere Erritarrakin batean Asturiaskoak lagun zituela, Mairu beltzak eta Arabe itsusiak Españatik kanpora botatzen. Zorioneko asiera Pelaioren au izandu zan Asturiasko mendietan; zergaitik Arabeak beren beldur andiarekin Kantauritarretara alderatu nai etzuten; eta asmo on au izandu zan ezin obeagokoa. Pelaiori Gipuzkoatik eta aldamenetako Euskal-errietatik biraltzen zitzaiozkan gazteria samalda andiak laguntzalle aldian sarri; eta bere estutasunik larrietako batean joan zitzaion mendi-mutil talde andi batekin, bear bearreko, On Alonso Kantauriako Duke On Pedroren seme ernai azkarrak; zeñaren bidez porrokatu zituen Pelaiok aldi artan iritsi al zitzaiekan Arabe zikin likits guztiak. Alonso au ezkondu zan gero Pelaioren billoi batekin; zeñari deitu izan zitzaion *El Católico*, eta bera izandu zan izen onetako Errege lendarbizikoa; baita ere jarraitu izan ziona bere sallari portizki, Mairu nazkagarriak kenduaz bidebage berenduak zeuzkaten toki ta lur asko.

Denpora artan, eta askoz geroago ere, Erribildurik ez oi zan Gipuzkoako mendi inguruetan, ezpada, baserri-etxe purubetar barraiatuak; eta Arabeak jakiñaren gañean zeudelako, toki goititu latz oetara igotzeko asmoa artu izan zuten guztiak, lenago zer gertatu izan zitzaie; etziran azkortu izan, berai erasotzera, ez ezik, begiratzen ere. Arabeen erkintade au ezagutu zebalako joan zan Pelaiu Asturiasko mendietara, beretatik Mairuak zirikatzen.

Pelaiu ta beraren ondorengoak ikusi izan ziranean indar andiak artuaz zijoatzela Asturiasko mendietan, irten zan Nafarroan Pirineoko arkaitz tartetara Bigorrako Baroiaren seme leial Inigo Arista Euskaldun gazteria talde andi batekin, Arabei erasotzeko bideak Asturiasko gisa berperean prestatzera, Jesukristoren jaiotzatik bederati eun ta amabigarren urtean, zeñari deitu zitzaion ondorean, Errege Nafarroakoa.

Godok azpiratu eta Arabeak gañeratu izan ziranetik, Inigo Arista azaldu bitartean igaro ziran eun ta laurogei eta amairu urte. Denpora luze onetan lenago ta ondorean ere, Gipuzkoatarrak guda gogor portiz bizian jardun zuten, alik eta Mairu billau itsusien kutsua arras aienaturik España osotoro garbi garbi ifinia izan zan arteraño guztian. Ez ordea bakarrik beren mugapea ezin gordez, ezpada, Nafarroako ta Arabako muga inguru eta auzoerrietan Arabe likitsai gogorkiro erasorik, irabaziaz lur zelai asko ta andiak. Guda luze goiakarri onetan Gipuzkoatarrak azaña andiak egin izan zituzten beren Erriaz kanporako toki askotan.

Anziñaerako denpora doatsu aetan Gipuzkoako mendi-mutil guda-riak oi zerabiltzaten armak ziran ballestak, lanziak, geziak, eta dardai eta pordon andi erpiñetan burni zorrotzdunak. Soñekoak ere garbiak eta ariñak txit, gorputzeko jonturaen neurrian din dina egindakoak, zinzilika zabuan oi dabiltzan egal aize-artzalle aetakoen zantzurik ere bagekoak. Etsaiari erasotzeko asmoa artzen zutenean, aurreneño egin oi zuten lana zan, Martiztiaren gordetzalle beraren ondoren zijoan samaldatxoagana, tokirik amilkorenetakoa batean aldra andi bat ojuz ta kantari bat batean sartzea; eta aurre aldetik zijoatzenak oetara irauli orduko, an izango zan prest beste aldetik talderik gogorrena; non igesbiderik bageko lekuan erdian arturik, porrokatu oi zituzten Erribilduetatik iñoiz edo berriz irteten ziran Mairu beltz igingarriak.

Modu onetako azaña andiak egiñaz, mendiz mendi zebiltzan Gipuzkoatarrak jakin zutenean, nola Nafarroan altxatu zan, lenago aipatu dedan Inigo Arista, bereala onekin alkartu eta bat egiñik, zeatu ta abarraitzen zituzten, iritsi al zitzaiekan Arabe nazkagarriak; bai ta geroenean biraldu ere España guztiatik igesi, berriz etorteko gogoak kendurik.



Noizpaiten bear ta, gure Egille andiak alan nai zebalako. España guztia garbitu zan Mairu arraza gaizto kaltarkitsuetatik. Bañan etsai arrotzak urte askoren buruan neke andien bidez kanpora bota baziran ere, etzeban iraun izan luzaro Españan pakeazko bizimodu gozatsuak. Gizonaren arrokeriazko andizkatu naiak askotan urratu izan ditu lege zuzen bidezkoen katerik sendoenak. Auxen berpera gertatu zan, bada, Españan, kanpotarrak aienaturik Erritarrak bakarrik gelditu ziradenean.

Bereala asi ziran indarrak geiena zeukaten Probinziak gitxiagokoak menperatzen. Bañan gure Ama ernai zintzo Gipuzkoak, ezaguturik gosity aen asmo galgarriak, aldeurrez artu izan zituen neurri zuzen egoki ezin obeagoak. Ikusirik, bada, Nafarroako Errege Garcia Jimenez indarretan ugarituaz zijoala, berarekin adiskidetasun andian alkaturik egin zan bat Gipuzkoa, Kristoren jaiotzatik zortzi eun ogei ta bostgarren urtean. Amodiozko anaiatasun au leialkiro gordetzeko itz onorezkoak alkarri ematean, erabaki zituzten garbiro ondorean gertatu al zitezkean etorkizunak modu onetan.

Gipuzkoako Probinziak serbitzatu bearko zebala Nafarroako Erregea, gudarako gizon bearrean arkitzen zan denpora guztietan. Nafarroak orobat lagundu bearko ziola Gipuzkoari, baldin atakatzera iñor etortzen bazitzaion. Gañera, Probinzia onek jaiotzatik dituen bere oitura ta eskubide guztiak gozatu bearko zituela oso ta garbi, akatsik txikarrena ere egin bage. Eta suertatzen bazan noiz edo noiz alkarren arteko desegokiren baten bidez, edo beste edozein gertakari uste bagekoengaitik anaitasun au autsitzea, Gipuzkoako Probinziak izan zezala eskubidea, berak autatzen zeban Buruzariagana jarteko, edo bazerizkion, bera bere gaiñ gelditzeko, jatorriz bere berekiak dituen Erri, etxe, mendi, baso, lur, ibai, abere eta osterentzeko ondasun guztiakin.

Modu onetan beren arteko joan etorriak garbiro erabaki eta gogoz alkar laztanduak izandu ziran urte askoan, eta oraindik, milla ogei ta bostgarren urtean ere, Nafarroaren egopean arkitzen zan Gipuzkoa. Garzia Aznarez eta bere emazteak San Juan de la Peña Olazabalko Bakarlekuaren alde egin zuten doariak eta Moretek aipatzen daben gallaldia batek adierazten dute argiroki, ezen, Gipuzkoa ta Nafarroa beren arteko alkardadea urratu bage zeudela milla irurogei ta seigarren urtean.

Milla irurogei ta amaseigarren urtean Errege On Santxori Peñalenen, bere anaia On Ramonek eta beste urritarrak bortxazko eriotza gogorra eman izan ziotelako, asalatu zan Nafarroa portizkiro, eta Gipuzkoatarrak ikusirik odolgirodi aiñ itsusi bide bagekoa, Nafarroagandik aldendurik, jarri ziran On Diego Lopez Konde

Bizkaikoaren babesera, lenago Nafarroarekin egiña zeukaten gisan, beren eskubide guztiak oso ta garbi gordetzeko itz onorezkoaren azpian. Bizkaiarekin egindako anaiatasun onek iraun zeban berrogei ta zazpi urtean zeña ausia izan zan atsekabezko gertakari baten bidez. Ara nola eta zergaitik.

Milla eun ogei ta irugarren urtean Aragoiko On Alonso Batallariarekin Doña Urraka Kastillakoaren arteko ezkontza gozarotsua samindurik, bizialargutzara biurtu zalako, gertatu ziran, ustez ustekabe, naspilla eta goibeetze andiak txit. Katranbilla itsusi oren bidez sortu zan Aragoirekin Gaztelaren artean guda portitz bat. Iñigo Konde Bizkaiaokoa jarri zan On Alonso Batallariaren alde; bañan Gipuzkoak lanbide onetan sartu nai izan etzeban ez bataren eta ez bestearen alde; eta Bizkaiaandian aldendurik biurtu zan ostera Nafarroagana, lenago berarekin egon izan zan modo berperean; eta alkardade azken aldiako onek iraun zeban irurogei ta amazapi urtean.

Esan al guztien gañeko pozkida betean gelditu zan Nafarroa, Gipuzkoa beragana biurtu zitziolako; zergaitik ondo ezaguturik arkitzen zan Probinzia onetako jaiotarren pizkortasuna eta leialtadea ziradela ezin geiagoak. Ez ordea bakarrik, berarekin alkartua egondu zan denpora guztietan ondo serbitzatuia izan zalako; bai ta ere Gipuzkoa bera bere gaiñ zegoelarik, Nafarroari gertatu izan zitziotzkan estura larri askotan, laguntza andiak egin izan ziozkalako, auzo-erri leialaren gisa. Gertaera oetako bat izandu zan gogoangarria guztiz, Nafarroarentzako ezin obeagoa, eta Gipuzkoarentzat ondra andikoa txit.

Errege Aragoiko, Balenziako, eta Kataluniako batek azaldu zion guda gogor bat Nafarroako Erregeri; eta au, batalla andi batean garaitu eta atzemanik artu izan zeban are bere menpera. Bañan Gipuzkoatar leial erru andikoak jakin zutenean, beren auzo-erri Nafarroako Erregea arkitzen zala Aragoi, Balenzia eta Kataluniakoak azpiraturik itsaspendua, bereala irten ziran garailari oei erasotzera kanpo zabalera, sinistu ere ezin leikean bezalako ausardiarekin, eta martizti garailaria zegoen tokira nai baino nekezago iritsirik, jarri zitziotzkan bere aurreko aldean batalla eskatzen ziotela; non ordu gitxiren epean guztia zatitu, urratu, eta abarriturik menperatu ondoan, biurtu zuten Nafarroako Erregea bere lengo jarleku andientsura, adierazten ziotelarik mundu osoari zenbaterañoko indarra zuten Probinzia onetako mendi-mutilen dardai erpin zorrotzak. Egia onen argibiderako Baziller Zaldibiak Gipuzkoako Kondairaren ogei ta zazpigarren kapituluaren esaten du onela.



«Hay muy gran argumento para ser creído en que los Guipuzcoanos, de antiquísimo tiempo acá, tienen puesto en su Escudo de Armas al Rey que libertaron sentado en su Escano, y con su Corona en la cabeza, y su espada desnuda de punta arriba en la mano, en la señal que le libertaron, y le restauraron, y pusieron en su Trono y Reino. Y en el privilegio y título de Armas de la Provincia se dice como tenían por Armas antiguas al Rey como arriba se refiere».

Orra nolako mesede ta laguntzak egin izan ziozkan Gipuzkoako Probinziak Nafarroari auzo-erria zebalako naitasunarekin; eta beragana alkartua egon zan denporan, batez ere azken aldiako irurogei ta amazapi urteetan, guztiz asko nekatua izandu zan Gipuzkoa, Nafarroako Erregeak eta beren Erriburutarrak egiten ziozkaten bidebagekeriak ezin eramanaz. Bañan nola ez dan munduan eperik betetzen eztanik, oni ere iritsi zitzaion bere azken ordua, usterik gitxiena, eta preminarik geiena arkitzen zitzaion egunetan.

*Gipuzkoak luzaro zintzoki eta piñ
Serbitzo asko zion leialkiro egin;
Bañan azkenerako artzen zebala miñ,
Asperturik zegoen Nafarroarekin.*

AMARGARREN KAPITULUA

*Gipuzkoako Probinzia noiz ta nola, eta zeren bidez
Nafarroagandik aldendurik jarri zan Gaztelako Erregeagana.*

Milla ta berreungarren urtean On Santxo Santxez indartsua Nafarroako Erregea zala, berari arpegi emanik esti eragitera etorri zan Gaztelako Errege On Alonso zortzigarrena Bitoriako ondoraño; baita Uri au ertsitu ere alde guztietatik. Egun berperean Nafarroak eskatzen zion laguntza Gipuzkoari, estura larrian arkitzen zalako; bañan Probinzia au izanik ernaia ta zentzu andikoa, oroitu zan zori onean, nondik eta nora zeukan biderik erosoena, Nafarroak egiten ziozkan txarkeri ta billaukerietatik igesturik, begirune alaiagoarekin begiratu izango zan Errege ondra andikoagana jarteko.

Esan ta egin, era doatsu ezin obeagoko au ikusi bezin laster, Gipuzkoaren mugapeko Alkate jaun guztiak batu ziran Mondragoiko Erri leialera, beren Batzar guztiakiko andientsua egikaritzera, non erabaki zuten gogoz Nafarroari lagarik, Gaztelarekin alkartu eta pakea oso beteian bizi izateko.

Bereala Batzar itzal andiko ark, mandatu balioso onekin igorri zituen Bialkiñak Alonso zortzigarren Gaztelako Erregeagana Bitoriako ondora, zeñari ustez ustekabeko albiste pozgarri gozo andiko onek zabaldu zion biotza ezin geiagoraño atsegintasun oso bete beteian; zergaitik Gipuzkoako Probinzia bere alde izatea guztiz asko naikidatzen zeban lenagotanik ere, eta ez gitxiago estura larrian arkitzen zan egun berperetan.

Errege au pozaren pozez bera etorri zan Mondragoiko Erri arkitzen zan Gipuzkoako Batzar guztiakikora; eta emen, amodiozko naitasunaren bidez laztandurik josi zitzaiozkan alkarri adiskidetasun andian; erabakitzen zutelarik garbiro, ezen, Gipuzkoak lagundu eta serbitzatu bearako zituela leialkiro eginal guztian, Gaztelako Erregeak beren premina eta estura larrietan; eta Errege oek gorde bearako ziozkatela Probinziari, jaiotzatik bere berekiak dituen oitura eta eskubide guztiak oso ta garbi, akatsik txikarrena ere egin bage; eta baldin gertatzen bazan noiz edo noiz, alkarri eman ziozkaten itz onorezko oetakorik alde batetik edo bestetik ausitzea, Gipuzkoari utzi bearako zitzaiola bere mugape, oitura, eskubide,



eta ondasun guztiakin lokabekiro berak nai deban buruspidea artzen, ezertan ere eragozpenik ifini bage.

Gipuzkoako Probinziak bere nai izatez, iñork ere beartu bage, Gaztelako Errege Alonso zortzigarrenarekin egindako alkardade au ondorengo guztiak ere ikusi zezaten argi eta garbi, egin zuten Mondragoiko Errian milla ta berreungarren urteko Urri-illaren zortzigarren egunean sinisgarritzat agerkai ziñezkoa, zeña ezin uka dezakean gizon fede onekok, ikusten dalako ainbeste urteren buruan arkitzen dala bizirik bere oñean.

Amodiozko alkartasun maitagarri oni zegozkion gauza balioso guztiak beren zuzenbidea emandakoan, Alonso Erregea, Gipuzkoako Ekautu guztiarekin batean, igaro zan Beloagako, Ondarribiako, Donostiako, Iturriozko, Ataungo eta beste gaztelu Probinzia onen mugapean arkitzen ziradenetara menpetasuna artzera, eta zer gisatan zeuden ikustera. Geroztik irauten du alkartasun zorionsu onek urratu bage, etsai ozpindu txar askoren esker gaiztoan bada ere. Guztiz baliosoak, eta txit gogoangarriak dirade, bada, sei eun berrogei ta geiago urteren epean Gipuzkoako Probinziak Gaztelako Erregeai egindako mesede, serbitzo, eta laguntza andiak. Baita ere, oen saritzat Gaztelako Errege ondraduak Gipuzkoako Probinzia leialari eman izan diozkaten gallaldia maitagarriak, eta autormen gozo pozgarritsuak.

*Errege ondraduak gizon prestu gisa
Badakite gordetzen emandako itza;
Lege on bidezkoak zuzen badabilta,
Izan ta izango da Españaren ditsa.*

AMAIKAGARREN KAPITULUA

Gipuzkoatarrak Gorritiko Gaztelua noiz ta nola artu zuten; eta egikera onen bidez izandu zan Beotibarko batalla gogoangarriaren azaldurea.

Gipuzkoako Probinzia Gaztelako Erregeagana jarri izan zalako, Nafarroa mustardaturik aserratu zan portizkiro; eta berperatik asi zitzaion Probinzia oni, asmatu al zitzakean kalte ta bidebagekeriak egiten. Gaiztakeria modu askotako oek egiten zitueneko igesleku ta gordegarri ifini zeban gaztelu bat, Gipuzkoarekin mugatzen dan Nafarroako Erri Gorritikoan, berariaz autatutako mendi erpin batean, bertara iñor ere kanpotarrik ezin igo zitekealako uste oso betean, zeñak iraun zeban Gipuzkoatarrak arras mindu ziran arteraño.

Nafarrak noizean bein gauaz ixilltxorik Probinzia onetako auzo-errietara etorritik egiten zituzten beste gaiztakeria mueta askorekin batean, lapurreta andiak eta eriotza odolgirodiak ere; eta ingurumaiko Gipuzkoatar apurak oartu ta alkargana batutzen asi orduko, lister oek sartzen ziran koisketz beren gaztelu Gorritikora.

Ezin eraman alako bidebagekeri oezaz ainbesteraño berotuak arkitzen ziran Gipuzkoatarrak, ezik, promestu zioten alkarri, berendu bear zutela gaztelu kaltarkitsu hura, ill edo bizi. Asmo sendo onekin bear bezala prestaturik, eraso zioten ausardi andian portizkiro Nafarrak gordeleku segurutzat zeukaten Gorritiko gazteluari; bai ta menperatu ere ordu bat eta erdigarrenge, eta bertan arkitutako Nafarrak etzuten laga bat bakarrik ere bizirik. Egikera andi au gertatu zan milla irureun, ogeita batgarren urteko agorrillaren zortzigarrenge egunean. Gau artan berean iritsi zan Iruñera barri au, zeñaren bidez asaldaturik irakin zitzaion Nafarroa guztiari, bere onetatik aterarik ezin donariotu zan moduan, eta bereganatu al zitzakean indar guztiak biribillaturik, artu zeban asmo irme sendoa, Gipuzkoako Probinzia erre ta kiskaldurik soilldu bear zebala arras, bere oñean geiagoren geiago ezin jarriko zan gisan. Egiteko balioso onen gañean itz egitean Batxiller Zaldibiak amaikagarren kapituluaren esaten du onela.

«Nafarrak Martiziti andi bat bildurik sartu ziran Probinziara guztiz arrotasun andian, eta beren sarre-



ran zer gertatu izan zan jarraitzen da emen, Probinziaren anziñako liburuaren asieran ezarria dagoena, eta izkribaturik arkitzen dana Nafarroako Erririk aurrengoetako Puente de la Reinako Elizan, Jesusen jaiotzatik milla irureun ogei ta batgarren urtean; izan zedilla etorria Franziatik On Ponce Morentana Vizconde de Oña, eta Eraonle Nafarroa guztiakikoa, Santa Kruz Agorrekoaren pesta aurreko aste azken egunean albistea artu izan zeban, Gipuzkoatarrak berendu zutela Gorritiko Gaztelua; bereala Buruzari izendatu dan ark agindu zeban batu zedilla al zitekean jende guztia; eta au etzan bestetarako, ezpada, Gipuzkoa abarrakiturik arras ondatzeko; Agintari au irten zan Iruñetik jende samalda andi batekin Santa Kruz bezperan Igande egunarekin: bigaramunean, zeña zan Santakurutz eguna, zabaldurik alde-errietara ibilli ziran jendea biribillatzen; batu zituzten Nafarroatik, Gaskoi, eta Franzesetatik irurogei ta amar milla jazarlari, eta sartu ziran Gipuzkoan San Matheoren pesta aurreko ostirala egunean; erre zuten Berastegiko Erría, eta bertako Elizan egin zuten kalte asko; eta bigaramunean, zeña zan laurenbat eguna, iritsi ziran Beotibarreraño, non Gil Lopez de Oña Larreako Etxenagusiaren jaun ta jabe denpora artan Amasan bizi zan pizkor alaiak zortzi eun Gipuzkoatarrekin banatu zeban Probinzia onen kontra zetorren jendadi guztia, eta lotu zeban Martin de Aibar itzal andiko gizon Nafarroa guztiak asko nai ziona, zeñak esaten zeban petxatu bear zituela Gipuzkoatarrak eguzkitan berotu nai zutelako, eta salduko zebala eguzkia dirutan; irugarren egunean ill zituzten Juan Lopez de Urroz Merio mendietakoa, Pedro de Oibar, Martin de Euso, esan dedan Martin de Oibarren semea, Pedro Sotes, Pedro Garcia, Juan de Urti, aipatu dan Perezen semea; baita ere berrogeita amazapi zaldunki, eta beste jende asko, eta Don Migel Sanz Alvarez, D. Martin Hiertiz, Don Martin de Ronkal, eta beste jende asko urikoak izan ziran lotuak eta illak, Rosenil Jauna, Juan Corboran, Juan Martinez

Medrano, Juan Enrikez, eta illa izan zan Gobernadorearen anaia, eta Bernat Caritut, eta Don Martin Pelena; eta Gil Lopez ta beraren lagunak biurtu ziran ondrea andian, batalla gogoangarri onetan berendu zituzten etsai, abere, arma, eta beste gauza askorekin: zeintzuben balioa igotzen zan eun milla librataraño; eta Gobernadoreak iges egin zeban alkan-dora utsean, eta gañerontzekoak izan ziran illak eta itsaspenduak; eta egikera andi au gertatu zan laurenbat egun esandakoan, milla irureun, ogei ta batgarren urtean; beragaitik Nafarrak artu izan zioten gorroto andia Beotibarko tokiari, zeñetan izandu zan batalla, eta beren anziñako esaera da, *Beotibar Beotibar, hik daukake Martin de Oibar*. Eta denpora artako kanta Euskarazkoak esaten du; *milla urte igaro ta ura bere bidean Gipuzkoatarrak sartu dira Gazteluko etxean, Nafarrakin bildu dira Beotibarren pelean*. Erdaldunak beren itzkuntzan esango balute bezala, *Al cabo de años mil, buelbe el agua a su quibil; assi los Guipuzcoanos han buello á ser Castellanos, y se han topado en Beotibar con los Navarros*.

Batalla andi au izanik aiñ ospatsua, Gaztelako, Aragoiko, eta Nafarroako Kondairatzalleak argitaratu izan zuten beren izkribu gogoangarrietan, zeren bidez eta nola gertatua izandu zan. Eta Tolosako Erri leiala gerozko urte guztietan bere Batzartar eta Elizako Kabildu osoarekin, Pardon-dantzariak arturik, irteten da Igarondora, Beotibarko batalla irabazirik zetozenai ongiatorri goza pozkidatsua egitera joan izan ziran asaba maitagarriak idurikatuaz; zeñaren bidez berriztatutzen dan urteoro azaña andi aren oroitpena; eta gertakari onen argibide geiagorako, Tolosako Errian Tingladua esaten zaion tokian arkitzen dira jazarra artan peleatu izan ziran gizonen iduriñak, denpora artako janzi, arma, eta beste ezangarri askorekin.

*Batalla onetako itzibide andiak,
historia askotan daude ifiniak,
Utsaldiarik bage garbiro egjak,
Denpora berpereko gizon jakintiak.*



AMABIGARREN KAPITULUA

*Tolosako Erri ernaiak bere auzo-erri banaka batzubekin batean
Nafarroaren menpeko Erri Leiza, ta Areso noiz ta nola artu
izan zituen.*

Gipuzkoako Probinzia baino, irureun ta amabi urtez geroago Nafarroa jarri zan Gaztelagana; eta bitarteko denpora luze onetan guztian Probinzia onek guda bizia iduki zeban Nafarroarekin. España guztia, eta Franzia ere, arriturik zeuden Probinzia labur onek Nafarroako Erresuma andiari arpegi emateaz. Eta, zer zan arpegi ematea, baldin Erri osoak ere kentzen baziozkan?

Errege Don Juan bigarrenak Aragoiko, eta Nafarroako Erregeakin guda zeukala gertatu zan, Tolosako biztanleak auzo-erri banaka batzubetako Gipuzkoatar adiskide leialen laguntzarekin batean, beren arma indar andikoen bidez Nafarroako lurrean sarturik, Leizako Erria, eta Aresokoa garaitu, irabazi, ta berendutzea; zeintzuk jarri zituen Tolosako Erriak Gaztelako Erregearen koro itzalsuaren azpian. Errege onek naitasun andiarekin pozkida betean egin zion bere eskuerakutsia Tolosako Erriari modu onetan.

«Don Juan por la gracia de Dios Rey de Castilla, de Sevilla, de Córdoba, de Murcia, de Jaen, de los Algarbes, de Algeciras é Señor de Vizcaya, é de Molina. Al concejo, Alcaldes, Regidores, é oficiales de la villa de Tolosa de Guipuzcoa, salud é gracia. Sepades, que vi una peticion, que por vuestra parte ante mi en el mi consejo fué mostrada, por la cual me embiasteis decir, que durante la Guerra, que lo habia con los Reyes, é Reinos de Aragon y de Navarra, que bosotros conquistaredes, é ganaredes por guerra y en guerra, entre otros Lugares, dos Lugares, que llaman al uno Leiza y al otro Areso, que son en el Reyno de Navarra, que los dexastes rendidos por míos, é como míos para la mi corona Real, é que dexastes estar en ellos á los mismos vecinos, é moradores que estaban en ellos, para que allí morasen, é que tubiesen los mis-

mos lugares por míos, é que guardasen el mi Señorío Real, é obedeciessen mis cartas, é mandamientos, como de su Rey, é Señor natural, coma esto, y otras cosas largamente diz, que pasaron entre vos, y ellos por instrumento público, é despues de ello lo os fecho y fize merced de los dichos lugares, ó de cada uno de ellos con sus derechos, é pertenencias é de la Justicia civil, é criminal, e de todo lo otro, que á mi me pertenecía en los dichos Lugares, é en cada uno de ellos, á vos el dicho concejo, reteniendo en mi el Señorío maior, é de alcavalas, para que me acudiessen con ellos, segun todo ello mas largamente es contenido en la mi carta de merced, que sobre esta razon vos fize, por virtud de la qual diz, que vos el dicho concejo subisteis, é habedes tenido, é defendidos los dichos Lugares de Leiza, y Areso por vuestros, é como vuestros, y aora diz que despues otorgué, é firmé la tregua á los dichos Reyes, ó Reynos de Aragon, é de Navarra, los vecinos é moradores de los dichos lugares, que aora en ellos viven que han traído, é traen algunas maneras, ó algunos colores para se tornar Navarros segun antes eran, é apartar de mi Señorío Real é desampoderar de ellos al dicho Concejo, en lo qual si asso obiese de pasar de mi, diz, que recibiria deservicio, é á vosotros gran daño, é que me pediades por merced, que proveiesse sobre ello en la manera que entendiesse cumplía á mi servicio, é Señorío; mandovos tenerla, é guardar; é defender los dichos Lugares só el mi Señorío para la mi corona Real; pues los tomasteis é conquistastes en el tiempo de la dicha guerra; é por quanto al tenor de los tratados de las dichas treguas los dichos lugares, é cada uno de ellos deben estar por mí, é só el mi Señorío Real, que vos el dicho Concejo los debedes tener por mí, é en mi nombre por virtud de la dicha merced por mi á vos fecha; Por ende tubelo por bien, y es mi merced, que vos el dicho Concejo, hayades é tengades, é poseades los dichos Lugares, é cada uno de ellos, segun, ó en la manera, que subisteis, é defendisteis, é poseísteis hasta el dia, que yo otorgué



treguas á los dichos Reyes de Aragon, é de Navarra, porque vos mando, que amparades, é defendades los dichos Lugares, é cada uno de ellos en la tenencia, y la posesion de ellos con todos sus pechos, é derechos, é con la Justicia civil, é criminal, segun que fasta el dicho dia de la tregua teniades, é defendiades, é poseiades como dicho es; é si para los defender menester ovieredes ajuda, ó favor, por esta dicha mi carta mando á Diego Perez de Sarmiento mi repostero maior, é mi Alcalde de la dicha mi tierra de Guipuzcoa; é á Fernan Perez de Ayala mi Merino maior, é á sus lugarestenientes, é á todos los Comisarios, Alcaldes, Reidores, Prebostes, Caballeros Escuderos mis vasallos, é á otros qualesquier oficiales de todas villas é personas de todos los lugares, é villas de la tierra de Guipuzcoa, que vos den, é hagan dar poderosamente todo favor, é ajuda, que menester hubiades cada y cuando por vos fueren requeridos en tal manera, que vos podades tener, ó tengades la dicha pesesion de los dichos dos Lugares, segun, é en la manera que dicho es; é los unos, ni los otros no lágades, ni fagan ende al so pena. Dada en Salamanca á veinte y siete días de Septiembre año del nacimiento de Nuestro Señor de mil quatrocientos é treinta años.—Yo el Rey.— Yo Diego Romero la fize escribir por mandado de Nuestro Señor Rey.— Acordada en el Consejo Real.— Registrada».

Tolosako Erri Argidotarrak bere auzo leialakin egindako azaña andi au, Gaztelako Erregerentzako izandu zan txit pozgarria, Gipuzkoarentzat guztiz ondragarria, eta Nafarroarentzako arras mingarria.

*Tolosatar pizkorrak arin ta garboso,
Nafartarren lurrean sarturik eroso;
Artu zituztelako Leiza ta Areso,
Fama andia zeban Gipuzkoak jaso.*

AMAIRUGARREN KAPITULUA

Gipuzkoako Probinziak noiz ta zeren bidez, eta zer egoitza modutan arkitzen zala, biraldu izan zituen bi milla ta geiago bere seme azkar ondo armatuak, Portugalko Erregek ertsiturik zeukan Burgosko gaztelua lokabetzera.

Milla laureun, irurogei ta amalaugarren urteko abenduko illean, Errege Don Fernando bostgarrena eta bere emazte Doña Isabel egin ziran Gaztelako Koroiaren Jaun ta Jabe, Fede Santuaren gordetzalle eta Españaren zorionerako. Denpora berean, Portugalko Errege Don Alfonso bostgarrenak eta Franziko Ludobiko amaikagarrenak artu zuten asmo sendoa, Gaztelako Erregeak beren jarlekutik bota bear zituztela nai ta naiez. Bereala, Portugalkoak ogei milla ta geiago gudarirekin eraso zion Españari Estremadurako aldetik; baita Franziak ere berrogei millako Martiztiarekin Gipuzkoako mugaetatik, *Aman Señor de Labrit* Buruzari zutela.

Portugaltarrak etorri ziran Burgosko ondoraño; bai ta ertsitu ere bertako gaztelua inguru guztitik. Bañan Gipuzkoako Probinzia leialak bere seme azkarrakin bakarrik, kanpotarren laguntzarik batere bage, Irun-aranzungo mugan Franzes samalda andiari irme eustea asko ezik, bi milla ta geiago mendi-mutil bertako jaiotarrak biraldu ziozkan Gaztelako Erregeri Burgosko ondora, Portuges kaiskarrak astindurik uixatzera; baita bota ere ariñ aski Burgosko ingurutik, ez ezen, Toroko ta Zamorako Urietatik, eta beste Erri beren izenean zeuzkatenetatik, ostera biurtzeko gogoak kendurik.

Gaztelako Erregea estura ta larritasun oetatik lasaitzen asi zanean, irten zan egurastutzera egun batean eizera, eta beraren etorrerak illundu ta geroixeago ere luzatzen zebalako, soldaduai beren ordu jakiñean agindu zitzaian, nor bere etzauntzetara joateko; baita ixil ixilik joan ere lotara Gipuzkoatarrak osterontzeko guztiak. Bañan oek etzuten nai izan sartu etzinlekuetan, alik eta beren Erregeren buruzpidea ikusi zezaten arteraño. Esan ta egin, beraren billa atera ziran Gipuzkoatarrak bakarrik ojuz deadar egiten zutela *Daca mi Rey*; eta idoro zutenean biurtu ziran Errira beren arekin arroturik atsegintasun andian kantari Euskarazko itz-kuntz garbian onela;



Gure Errege Jauna
 Billatu degu basoan,
 Goizean eizera joana
 Pozkida bete osoan,
 Berak dituelako ikusi,
 Batzuk ill ta besteak bizi,
 Portugesak amilka igesi.

Gaztelako Erregeri biotzaren erdi erdiko mamiraño iritsi izan zitzaion, Gipuzkoatarren amodiozko leialtade andi au, eta lenago ere bai ta geroztik geiago, Gipuzkoatarrakin kontatzen zeban bere eginkizun balioso guztietarako; batez ere, Toroko batalla andian ikusi izan zituelako Gipuzkoako mendi-mutilak ausardi andiarekin bata bestearen leian etsaia zegoen tokira sartu, eta gogorkiro erasorik, nola porrokatu zuten Portugalko Martiziti guztia. Lenago izendatu ditudan bi milla gudariaz gañera Probinzia onek biraldu izan ziozkan mutil samalda aridiak Gaztelako Erregeri; zeintzuben bidez beretu zituen Granada, eta Napoles. Egia garbiro onen argibideak nai dituenak ikusi, begiratzea dauka oarrez ta artezaz Gipuzkoako Fueroen liburuan ezarria arkitzen dan emezortzigarren Tituluko Kapitulu lenengora, non ikusiko dituen erara ta zuzenki, zearo ta garbi, Gaztelako Erregeak Gipuzkoako Probinziari bere serbitzo, ta leialtadearen bidez egindako saristatze, eta autormen gozo pozzarritsu maitagarriak ugari txit.

Esan dedan bezala, Gipuzkoatarrak beren gogoz Gaztelara joanik egin izan zituzten azaña andi oek baino ere askoz geiagokoak ziran, denpora berean Probinzia barruan bertako jaiotarrak bakarrik, Franziatik Portugalko Erregerekin alkaturik zetorren Martiziti izugarriari eman ziozkaten astinaldi gogor portitzak. Lenago izendatu dedan Aman Señor de Labritek bi urte igaro zituen berrogei milla gudarirekin Irun-aranzungo arraia ezin ausiz; eta Ludovico Franziakoa aserratu zan txit, beraren jende samalda aña andiari Gipuzkoatarrak eusten ziotelako, Gaztelara Portugesen kontra mutil talde andiak igorritzeaz gañera. Beragaitik, milla, laureun, irurogei ta amaseigarren urtean berriro etorri ziran Franziatik Martiziti andiak, Labrit, Andet eta Agramont jauna Buruzari zituztela, Probinzia labor au bereala azpiratzeko uste oso betean; bañan etzitzaiozkatzen baliatu beren asko galdu amesetakoak.

Franzes samalda andi oek bi aldiz ertsitu zuten Ondarribia, arteraño esitu txiki batzuk aldamenetan baizik beste murrurik etzeukala, eta bertako gazteluaren zaintzalle Don Juan de Ganboa Gipuzkoatarra bere

erritar banaka batzubeekin barruan arkitzen zala. Ekinaldi bietan Franzesak izan ziran uixatuak zauri galantakin; eta etsi zutenean berenduko etzutela Ondarribia, Labrit eta Agramont samalda andi batekin joan ziran egun batean Donostiako ondora berari ekiteko asmoan, ustez, Ondarribia bezin gogor arkituko etzutelako; bañan ezagutu zuten prest, Uri au arkitzen zala gudarako bear ziran prestamen guztiaz orniturik, Gipuzkoatarrez ondo janzia; eta biurtu ziran fite Irun-aranzungo arraian zeuzkaten lagunetara.

Franzes oek guztiak alkargana biribillatzean jarri ziran beren Erri alderontz begira, eta besterik eziñean artu zuten asmoa beren amorruz, Probinzia onetako Erri iriki banaka batzuk bederik erre bear zituztela Franzia iraulterako. Etorri ziran Erreteriarraño; erre zuten Erri au guztia, baita Oiarzungoaren zati bat ere. Bañan usandu zutenean beretara zetorrela Gipuzkoa barruko jendea bata bestearen leian, zegoanari zegoan bezala lagarik abiatu ziran igesi beren Erri alderontz; eta Irun-aranzuna iritsi ziradeneko, gañean zituzten Gipuzkoatarrak su ta gar, non Franzes Martiziti andiareu zatirik geiena porrokaturik abarrakitu zuten Gipuzkoako mendi-mutilak; zeñean jazarra gogor onen barriak eramateko lainbat, doi doi sartu ziran bizirik Franzian.

Guztiz arrigarria izandu zan, bada, Don Juan de Ganboa Ondarribiako gaztelu-zaintzalleak bere erritarrakin Irun-aranzungo arraira irtenik, Franzesai egin zien illtkintza. Gipuzkoatar prestu gudari gañ gañeko au guztiz izandu zan aomen audikoa, eta Españaiko Erregeak naitasun andia ziotena. Batalla onezaz itzegitean Batxiller Zaldibiak amazpigarren kapituluan esaten du onela.

«Este Don Juan de Ganboa fué muy pribado del Rey Don Juan de Aragon Padre del Católico Rey Don Fernando, por su gran valor, de quien dice Siculo Marineo lib. 47 hablando de como la gente del Rey Don Juan huía en Parolada assi mismo en aquella tan grande ventura y afrenta de la honra, y de la vida y de las vidas, muchos Capitanes y Caballeros del Rey mostraron á maravilla el grande esfuerzo de su ánimo, y fuerzas aventajadas de su cuerpo, señalándose en sus personas, de los quales un Don Juan de Gamboa natural de Guipuzcoa, con muy grande denuedo resistió á los enemigos, peleando contra muchos como un bravo Leon, de los quales mató con su lanza tres



Caballeros, y heridos otros muchos muy varonilmente, el qual se salvó finalmente de entre todos los contrarios á público con once heridas, quedando muerto su caballo; á este armó el Rey Don Juan Caballero, é le dió por armas las suyas propias, como el mismo las trahia, é le hizo del su Consejo, é Noble de Aragon, é le casó con Doña Leonor de Castro, é le dió largo para sustentar la honrra, que le habia dado.

Venido pues, el exercito y cercado Fuenterrabia, Juan Lopez de Lazcano Señor de la casa de Lazcano, valeroso Caballero dió apellido por Guipuzcoa, é habiendosele juntado casi todos los de la tierra, que armas podian tomar, teniendole Caudillo fueron con ellos al socorro de la Villa, y escaramuzo con los Franceses muchas veces; y como recibiesen mucho daño, se alzaron el cerco, é bolbieron á Francia afrentados con gran daño; y los Reyes Catolicos estimando cassi por perdida la Villa, por no la poder socorrer tan presto, tubieron aquel servicio por mui señalado; De esto hay un cantar en el Bascuence que dice

Juan de Lazkano beltzarana
Gipuzkoako Kapitana
Franzes osteak jakingo du
Ura Ondarribian zana.

Que quiere decir, Juan de Lazcano el moreno Capitan de Guipuzcoa, acordaranse los Franceses de que él llegó á Fuenterrabia.

AMALAU GARREN KAPITULUA

*Milla bosteun, eta amabigarren urtean Franzesa zeren bidez elorri
zan Nafarroara eta Gipuzkoako Probinziara, eta bietatik zer
kaisatan biraldua izandu zan ariñ aski, bideak galdurik eta
armak utzita.*

Izendatu dedan urte milla, bost eun, eta amabigarrenean, Errege Fededun Don Fernando Jauna egin zan Nafarroako Erresuma guztiaren jabe, Palacios Rubios Erakusleak bere egitade *Obtentione et retencione Regni Navarrae*koan, eta Antonio Nebricensesek *Errege Fededumen Kondairan* esaten dituzten gauzen bidez.

Errege Don Juanek bere burua ikusi zebanean eskubiderik Nafarroan etzeukala, ondo etzerizkion lenago bera Jaun ta Jabe, buru ta nagusi zan tokian, besteren menpean egoteari; eta jarri zitzaion buruan, Franziera joan ta indar andiak bildurik berakin batean osteria etorri eta beretu bear zebala Nafarroa. Asmo oek arturik Franziera abiatzeko denporan, Don Juanek bere adiskide ta lagun Iruñeko Uritarra eman zien itza, ezik, egun gitxi barru etorriko zala Franzes talde andiak, Nafarroako Erresuma bereturik, Gipuzkoako Probinziari astinaldi onak ematera.

Bereala igaro zan Franziera, eta batuerazo zituen Erresuma andi artan arki al zitezkean soldadurik oberenak; oekin egiñeratu zituen bi Martizti audi gain gañekoak; beretako bata biraldu zeban Pirineo aldetik Iruñeko Uria ertsitutzera, eta besteari agindu zion, sartu zedilla Gipuzkoan Irun-aranzundik barrena, Ondarribiari lagarik, Donostiari su ematera, eta aldameneko errietan al zeban kalte guztia egiñaz atakatu zitzala Gipuzkoatarrak, beretakorik joan etzedin Nafarraí laguntzera.

Esan ta egin, Carlos Duque Borbongoa, bere Erregek agindua betetzera, etorri zan Franziatik Martizti andi batekin Hernanirraño, esan dedan urte milla bosteun, eta amabigarrenean azaroko illaren amalauetan. Andik iru egunera, zeña zan azaroaren amazpigarrena, Borbonek ingururu zeban Donostiako Uria, leorrezko toki guztietatik soldadu eta sutunpadi askorekin; eta lanbide oni dagozkion prestamen guztiak bere naierara ifinirik, eraso zion Donostiari su ta gar Leoi amorratuaren gisa. Bere kanoi asko ta andiak Surriola aldeko murrurik argalenetik iriki zeban barrurako sarbidea; eta irrinate au egin zebalako pozez arroturik,



ekin zitzaion barruna sartutzeari bein ta birretan baino ere geiagotan. Ordea Plazari kontu egiten zeuden Gipuzkoatar ernai azkarrak, ataka urratua beren gorputz bulardetsuakin itxirik, bertara zetorren Franzes guztia botatzen zuten illotzik.

Carlos Duque Borbongoa eta beraren lagunak arri ta zur egiñik ikara larri gorri bizian gelditu ziran Gipuzkoatarren ausardi aïñ beldur gitxikoa ikustean; eta itsas bazterrera biribillatzen asi ziran. Gipuzkoako ontziak, Gazteluko La Plazako sutunbadiakin batean, are kalte andiagok egingo ziozkatela beldurturik, Donostiari zegoen zegoenean laga, ta igo zan Borbon bere soldadu ta prestamen guztiakin, Oriamendiko gañera; zeñari irazeki zitzaion lazki, Donostiako suan irten zalako gaizki, eta artu zituen asmo berriak Probinzia barruko Erri irikietara joanik ordaindu bear zituela, Gipuzkoatarrak Donostia inguruan egin ziozkaten kalte andiak; bañan etzitzaiozkan baliatu bere ames galgarriak.

Asmakari oek ondo ezin moldatuz buru ausitzen Oriamendiko gañean zegoela, jakindu zeban nola Gipuzkoako Erri guztietan Aitarren seme jendea batutzen ari ziran, berari erasotzera etorteko. Barri atsekabetsu au artu bezin fite jarri zan Borbon Franziera begira, eta bere Martizti erdi galduarekin eman zion igesari, esan dedan azaroko illaren emeretzi garren egunean. Franzes erkindu oek beren arrabi gaizto gositya ase bage Gipuzkoatik zijoatzelako, etxerakoan ekin zitzaiozkan, bide inguruko Erri ta baserri-etxeai su emanaz, beretan topatzen zituzten abereak eta beste gauza asko ebatsitzeari. Bañan Ondarribiako Gazteluaren gordetzalle zeuden Gipuzkoatarretatik irten ziran Irun-aranzungo arraira sei konpañiatatik esleitutako mendi-mutilakin iru Kapitan, zeitzuk ziraden Anbulodi, Azkue, eta Inigo Martinez de Zaldibia. Oek eta oen babesera biribillatutako Irun-aranzungo jaiotarrak bidera atera eta Franzesari arpegi emanik luza erazo ziotelako, Probinzia barrutik zetorren jende samalda andia iritsi zan bear bearreko, eta eraso zioten Franzesari guztiak beingoan aurkez, atzes, goitik, beetik, zearka, ta zuzenka arras portizkiro; nonnai ta naiez laga bear izan zituen, Gipuzkoan lapurtuak zeramazkien abere ta ondasunak, ez ezik, bere bagajeko gauza balioso asko ere, eta ala ere etziran aserre Franzisko lurrean erdiak bederik sartu ziradenean. Azaña andi onen aipamena egiten du Erregiña Doña Juanak, Gipuzkoako Probinziari bere mugaperako Eskribauak autatzeko eskubidea eman izan zion gallaldian; zeña arkitzen dan Gipuzkoaren Fueroetako Titulu amalagarrengoan, leneago Kapitulan.

*Borbonek Donostis zebanean itxi,
Ez omen zerabilen arrotasun gitxi;
Bañan nai zebanikan etzeban iritsi,
Bostgarren egunean joan zan igesi.*

Lenago esan dedan bezala, Pirineo aldetik Nafarroarako bidean jarri izan zan Don Juan de Labritek bere alde zekartzien adiskide mami, eta Monsieur de la Palizaren kontura zetorren Franzes Martizti andiak ertsitu zuten Iruñeko Uria inguru guztitik osotoro; eta Nafarroarekin Gipuzkoaren mugako atakarik estuenetan jarri ziran Franzes talde andiak, Probinzia onetatik iñor bazijoan Nafarran alde, eragozteko. Modu onetan aldearez, kaltebide guztiak beren uestez ondo seguruturik Franzesak sutunpadi andiarekin asi zitzaiozkan Iruñeko Uriari erasotzen portizkiro; bañan Uri onen gordetzaille barruan arkitzen zan Duque de Alva lendabiziko Erregeorde Nafarroakoak beldur bage garbo andian gogor egin zielako, laga bear izan zioten fite asmo artan asi etzuten lanbideari.

Izendatu dan urte milla bosteun eta amabigarrenean azaroko illaren ogei ta amargarren egunean, Labritek, eta Monsieur de la Palizak etsirik arras ezin zekaketekeala ezer egin duque de Alvaren kontra; Jarri zituzten begiak eta oñak Franziera begira. Denpora berean Españako Errege Fededuna arkitzen zan Logroñon, nondik zabaltzen zituen bere aginde zuzen bidezkoak Erresuma guztira; eta jakinda zebanean Iruñeko Uriari bere oñean lagarik, etxe alderontz abiatzeko asmoetan zebillela Franzesa, Errege Fededun onek Gipuzkoako Probinziari izkribatu zion Logroñotik abenduko illaren lenengo egunean, esaten ziolarik, nola Franzesa arkitzen zan igesari emateko zorian, eta lenbaitlen beragana irten ta mendietako bidetxigorak, egin zegiola al zezakean kalte guztia, egun gitxiz aurretik Duke Borbongoak Gipuzkoako Erri Erreterria ta Oiarzungoan erre izan zituen etxe baliosoen ordaingarri. Erregeren gatzigu gozo au Probinziari iritsi zitzaion illaren irugarren egunean, eta bostgarrenerako batu ziran beren Ama maite Gipuzkoaren otsera iru milla ta bosteun gizon bertako jaiotarrak, nor bere armarekin bear bezala prestatuak; eta oek gañerontzeko lagunai itxoroten egon bage, luzapenaren bidez Franzesa bere lurrean sartu etzekioten, joan ziran atxi atxika Nafarroako Erri Bera, ta Lesakatik barrera Baztango Ibarreko mendiak igaroz, Belate ta Leizondoko arkaitzerrera abenduko illaren zazpigarren goizerako; non arkitu zituzten igesi estura larrian aztapoka zijoatzen Franzesak. Bereala bata bestearen leian Gipuzkoatarrak Franzes Martizti



andiarri goien beean erasorik portizki, abarrakiturik elbarritu zuten iritsi alzezaketekean Franzes guztia; kendu ziozkaten beste gauza balioso askorekin batean, amabi kanoi andi, eta oek bertatik zuzenean Gipuzkoatarrak eraman ziozkaten Duque de Alva Nafarroako Erregeordeari Iruñera, esaten ziotelarik, ezen, ona emen non dakartzigun, Franzesari nai ta naiez Belateko mendian kendurik, Uri maitagarri oni su gogorkiro egin dioten kanoi andiak, gure Ama leial Gipuzkoaren izenean, Españako Errege ta Erregeordeak maitaro gordeak goza ditzaten urte askoan; eta baldin Franzesa berriz etorriko balitz Uri ondradu au asaldatzera, berari Gipuzkoatarrak kendutako kanoiakin eraso dakion portitzkiro.

Gipuzkoatarrak egin izan zuten azaña andi onen oroitpenerako, Errege Fededun Don Fernando eta bere alaba Doña Juanak agindu zuten, Gipuzkoako Probinziaren Ezkutarma anziña anziñakoetan berriro ifini zitezela, bertako jaiotar bulardetsuak Franzesari Belateko mendian jazarra gogorra eginik, irabazi ziozkan amabi kanoi andiak, ezagun-garri oek bizi zitezen mundua mundu dan arte Gipuzkoako Probinziaren ondragarri, Franzes ostearen mingarri, eta España guztiaren pozgarri. Egiatzko gertaera andi onen bidez Españako Erregeak Gipuzkoako Probinziari emandako Gallaldia ezarriko det emen mundu osoaren sinitspenerako.

«Doña Juana por la gracia de Dios Reina de Castilla, de Leon, de Granada, de Toledo, de Galicia, de Sevilla, de Córdoba, de Murcia, de Jaen, de los Algarbes, de Algeciras, de Gibraltar, de las Islas de Canaria, de las Islas Indias, é tierra firme del mar Oceano, Princesa de Aragon, de las dos Sicilias, de Jerusalem, de Navarra, Archiduquesa de Austria, Duquesa de Borgoña, é de Brabante, Condesa de Flandes, é de Tirol, Señora de Vizcaia, é de Molina. Por quanto á mi é todos es público é notorio, que en el mes de Diciembre del año pasado de mil quinientos y doce al tiempo que el exercito de los Franceses autores y favorecedores de la Cisma, en que habia mucho número de Alemanes, é otras naciones, alzaron el cerco de sobre la ciudad de Pamplona, que es en el nuestro Reino de Navarra, los Fijosdalgo vecinos é moradores de la mi Noble é muy Leal Provincia de Guipuzcoa, que á la

sazon se fallaron en la tierra, aunque la mayor parte de los hombres de guerra de dicha Provincia andavan fuera della en mi servicio, especialmente en dos armadas de mar, la una mía, y la otra de los Ingleses, que yo mande proveer, y en otras armadas de mar, y de tierra, se levantaron esforzadamente, é salieron á ponerse en la delantera de los dichos Franceses, é los fallaron en el lugar llamado Velate, é Leizondo, que son en dicho Reino de Navarra, donde varonilmente pelearon con ellos, é desvaratarónlos, é matando muchos de ellos, les tomaron por fuerza de armas toda la artillería, que llevaba, que era doce piezas de metal con que batieron, y combatieron á la dicha ciudad de Pamplona, á la qual los dichos Guipuzcoanos, que assi ganaron la dicha artillería la llevaron á su costa, y con la gente que la gano, y la entregaron al Duque de Alva nuestro Capitan General que allí estaba, para que aquella artillería, que primero le ofendió, y le tubo cercado en la dicha Ciudad, fuese dende en adelante en favor, é de ella, é quedase, como quedó, para nos, é para nuestro servicio. Y porque es razon que de tan señalado servicio quede perpetua memoria, y entre las otras hondras, y mercedes, que por ello la dicha Provincia merece, tenga la dicha artillería por armas. Por la presente acatando lo susse dicho é porqué á la dicha Provincia quede perpetua memoria de ello, y los ahora son, y serán de aquí adelante, tengan voluntad de guardar, y acrecentar su honra en los fechos de armas, que se recrecieren, y otras tomen exemplo, y se esfuerzen á facer semejantes cosas; Doy por armas á la dicha Provincia las dichas doce piezas de artillería, y les doy poder, é facultad para que juntamente con las armas que ahora tienen, que es un Rey asentado sobre la mar, con una Espada en la mano, puedan poner la dicha artillería en sus escudos, armas, y sellos, banderas, y obras, é otras cosas, en que se hubieren de poner sus armas, las quales han de ser de la manera, que en este escudo van pintadas. (Aquí se ponen las armas.)



«E mando al Ilustrissimo Príncipe Don Carlos mi muy caro é muy amado fijo é á los Infantes, Perlados, Duques, Marqueses, Condes, Ricoshomes, Maestres de las Ordenes, é á los del mi Consejo, Oydores de las mis Audiencias, Alcaldes, Alguaciles de la mi Casa, y Corte, é Chanchillerias, é los Priors, Comendadores, SubComendadores, Alcaldes de los Castillos, Casas fuertes, é llanas, é á todos los Consejos, Justicias, Regidores, Caballeros, Escuderos, Oficiales, é homes buenos de todas las Ciudades, é Villas, é Lugares de los míos Reynos, é Señorios, assi á los que ahora son, como á los que serán de aquí adelante, é cada uno, é qualquier de ellos, que guarden é cumplan, é fagan guardar esta mi Carta de Privilegio, é todo lo en ella contenido, é que en ello ni en parte de ello, no opongan ni consientan poner embarazo, ni impedimento alguno ahora, ni en algun tiempo, ni por alguna manera, so pena de la mi merced, é de mil doblas de oro para la mi Cámara é Fisco, é cada uno que lo contrario ficiere, é de mas mando al homo que les esta mi carta mostrare, que los emplace que parezcan ante mi en la mi Corte, do quier que yo sea, del día que los emplazare fasta quinze dias primeros siguientes, so la dicha pena, so la qual mando á qualquier Escribano público que para ello fuere llamado, que dé el que gelo mostrare testimonio signado con su signo, por que yo sepa en como se cumple mi mandado. Dada en la villa de Medina del Campo á veinte y ocho dias del mes de Febrero año del nacimiento de Nuestro Señor Salvador Jesu Christo de mil quinientos y trece años.— YO EL REY.— Yo Lope Concilios Secretario de la Reyna nuestra Señora lo fize escribir por mandado del Rey su Padre.»

Egoki ezarriak zuzenki neurrian, Gipuzkoaren armak daude agirian, Amabi kanoi galant ondrea andian, Franzesari kenduak Belate mendian.

AMABOSTGARREN KAPITULUA

Milla bosteun ogei ta bigarren urtean Irun-aranzunen Franzesakin Alemanen kontra Gipuzkoatarrak egindako batalla andian azaldurea.

Errege Franziakoa guztiz gorroto gaiztoan zegoen Gipuzkoatarretara, beraren menpekoai oek kalte andiak egiten ziezatela-ko itsasoz ta leorrez egun guztietan. Aserre minkaitz onen bidez, esan dedan urtean, biraldu izan zituen iru milla Alemanekin beste ainbeste Franzes ta geiago Monsieur de Chanfarron buruzari zutela, Gipuzkoako mugape goixoaren zati bat bederik kiskaldurik bellakatzera. Beren asmo galgarriak betetzeko ustean agertu ziran Irun-aranzungo ondora milla Franzes bezalatsu, Gipuzkoako Probinzia itsumustuan zegoela; eta alere, sei gizon bakar bertako jaiotarrak egun bat osoan eutsi zioten aiñ samalda andiari. Bigaramunean, Franzes ta Aleman guztiak gorputz bat egiñik, sartu ziran Erresuma biak mugatzen dituen Bidasoako ibaitik Irun-aranzungo lurrera; bañan Erri onetatik, Oiarzundik, eta Erreteriatik atxi atxika alkargana batutako irureun Gipuzkoatarrek gogor egiñik iduki zuten bertan Martiziti andia, aurrera igarotzen laga bage, alik eta Probinzia barruko jendea biribillatu zan arterañoeko guztian.

Bereala, Gipuzkoako Ekautu zintzo ernaiak bere mugapeko Erri guztietara zer gertatzen zan gaztigaturik, batu zeban jende taldea gudarako bere Buruzari aurengoarekin igorri zeban Irun-aranzunen zeuden Franzes ta Alemanai erasotzera. Eta Gipuzkoatar oekin batean, joan zan Erregezko Buruzari Donostian zegoen Don Beltran de la Cueba bere soldadu apurak arturik.

Moda onetan alkaturik etsaietara iristeko zaletuak zijoztela, Irun-aranzungo lurrean sartutako gauean Gipuzkoatarrak lendabizi egin zuten lana izan zan arbazta txotx pilla andiak or emen toki askotan ifinirik, berai irazeki eta su izugarriak egitea, etsaiak ardura guztia beretara jarri zezaten. Su-leku oei gar bizi bizian iraun eragiteko lainbat lagun bertan utzirik Gipuzkoatarrak gau erdian igo ziran San Marzial deitzen zaion mendiaren txuntxurrera Anbulodi, eta Azkue Buruzari zituztela. Bigaramun goizean eguna argitzean, Alemanak eta Franzesak beren buruak ikusi zituztenean alde guztietatik ertsituak arri ta zur biurturik, ikara larri gorri bizian jarri ziran, ez zeri ekin eta ez nora jo ezin asma-



tuz; eta oberik etzekusatenean abiatu ziran ill edo bizi aldatsgora bidea irikitzeke asmoan Gipuzkoatarrak zeuden tokira. Ala bearrean ez leku txarrera bizkarrak berotzeko!

San Marzialko gañean Gipuzkoatarrakin batean zegoen Erregezko Buruzari Don Beltran de la Cuebas ikusi zituenean Alemanak eta Franzesak aldapa gora zijoazkiola beraganontz eltxoa samaldaka bezin ugari, ikaraturik arras, agindu zeban ez sutan asitzeko, alik eta Probintzia barrutik jende geiago biribilla zedin arteraño. Bañan Gipuzkoatarrak garratzkiro mindurik erantzun zioten, ezik, etzirala berak egongo etsaiari eraso bage inolako moduz ere. Mendi-mutil oek aín beldur gitxiko ausardiarekin arras berotuak ikustean pizkorturik arrotu zan Don Beltran Jauna, eta esan zien berai, ondo egingo zutela etsaiari gogorkirotu ekitea; eta bera ere gogoz jarriko zala aín jatorri argidotar leialakin batean bizia galtzera, ezen, ez koldar txar beldurti txaldanaren izen lotsagarriarekin betiko gelditzera.

Esan ta egin, Gipuzkoatarrak Don Beltranekin batean ekin zitzaiozkan portizkirotu erasotzen Franzes, ta Aleman samalda andiari; zeña banaturik arras porrokatu zuten uste baino ere lenago. Ain gogorra eta oroitpengarria izandu zan batalla andi au, non Alemanetakorik bat bakarra ere gelditu izan etzan ill edo lotu bage; eta bizirik gelditu ziran banaka oek Gipuzkoatarrak eraman ziozkatzen Erregeri Gaztelara, berak nai zebana egin zegiela. Franzesetatik ere asko ziran txit illak eta erituak. Oñai eragin al zekiote apurrak sartu ziran beren lurrera nai baino nekezago Senpereko Jauna ez besteak, zeñas naiago izan zeban Gipuzkoatarren menpean gelditu, Franzia igei lotsagarriro joan baino. Gertakari onen ezagugarri egiazkoak gaurko egunean ere arkitzen dira San Marzialko mendian, non, atxurkintzari ekiten zaiozkan nekazariak topatzen dituzten orduan gelditutako gizonen ezurrak ugari.

*Aleman ta Franzesak alkarri jarraio,
San Marzial gañera ezin ziran igo;
Ha Mondieu! esana negarra jario,
Gipuzkoatarrentzat deus etzuten balio.*

AMASEIGARREN KAPITULUA

*Milla, bosteun, ogei ta laugarren urtean, eta urrenekoan,
Gipuzkoatarrakin Franzesen artean izan ziran gertakarien azaldu-
rea.*

Esan dedan urte milla, bosteun, ogei ta laugarren urtean, Franzes Martizti andi bat etorri izan zan Ondarribiara, eta beretako sei eun kaskoi tokiko barri ondo zekitenak irten ziran, illargi ederra zegoen gau batean, Oiarzungo Erria erretzeko asmo oso betean; eta Elizalde deitzen zaion plazara iritsi bezin prest, oen etorreraz oartu zan gauerdian emakume bat, zeña izanik aín ernai ta azkarra, al zeban lasterrena Eliz atzetik barrena joan ta ezkillaren sokari itsatsirik egin zitzaion danba danba bera joaz erriko jendea irazartzeari. Franzesak ezkillaren otsa entzutean ingurutu zuten Eliza, eta sokari tiraka topatu zuten emakumeari epaki zioten eskuiko besoa arras matxetearekin, bañan alferrik. Bereala, Oiarzungo Easotar pizkorak asi ziran batutzen alkargana, eta oen bilerara alerta bezin fite larritu ziran Franzesak, zergaitik lendanaz zekiten ondo, erri onetako jendearen ausarzi pare bagekoa nolako zan; eta erio-suar igesari eman zioten muturrak austeko zorian, bañan etzitzaioten baliatu. Franzesak Ondarribia alderontz eginal guztian bazijoatzen ere, ordu erdi bateko bidea igaro zuteneko, gañean zituzten Oiarzuntarrak, zeintzuben portizkirotu goien becan erasorik abarrakitu zituzten aixa ta prest. Sei eun kaskoietatik bi bakar bakarrak ziran iges egin zutenak Ondarribiako ondora, berariaz bezalaixen beren lagunai kontatzeko, zer gertatu izan zitzaien; gañerontzeko guztiak izan ziran elbarrituak, illak eta atzemanak. Oiarzungo Errian itsumustuan batutako jende apurraren ausardi aín andia ikustean, Franzes Martizti guztia arras ikaraturik, geiagoko bage biurtu zan Franzia.

*Oiarzun erretzeko egiñik promesa,
Gauaz ixil etorri izan zan Franzesa
Bañan izanik bertan aín jende arteza,
Gaizki irten zitzaion orduko amesa.*

Milla bosteun ogei ta bostgarren urtean, Francisco deitzen zitzaion Errege Franzia Martizti andi batekin joan izan zan Pavia Italiakora,



toki berean denpora artan zeuden Españaiko soldaduak erasotzera; zeintzuben batean arkitzen zan Gipuzkoatar samalda bat ona, eta oen artean Juanes de Urbietan Hernaniko semea Don Hugo de Montacaren lagunkidan. Españaatar oekin Frazesen artean izandu zan batalla gogor bat, zeña irabazi zuten Españaiko soldaduak Gipuzkoatarrakin batean, eta izendatu dedan Juanes de Urbietan Hernaniko semeak portizkiro peleatu eta gizabidez garaiturik, atzeman zeban Francisco lenengoa Errege Franziakoa España guztiaren ondra andirako. Eta oraindikan are geiago egin zeban Gipuzkoatar gogoangarri onek, Errege Franziakoa menperatua zeukala. Ikusirik Urbietak bere Konpañiako Alferez bat, Franzesak inguruturik estura larrian zerabilteela, egin zeban lanbidea izan zan, garaitua zeukan Erregeri ezagungarritzat aoko ortz akastuak erakutsirik, arma artu eta Alferezari laguntzera joatea; zeña atera zeban fite estutasun andi artatik. Azaña au egiñik Urbietan biurtu zaneko itsaspendua laga zeban Erregerengana, beraren aurrera arkitu zituen Españaiko soldadu eta agintarietako anitz despitan alkarrekin zeudela. Batak esaten zeban ark atzeman zebala Erregea. Besteak oju egiten zeban berak garaitu zebala. Oen errierta bide bagekoak entzuten ixill ixilla zegoen Errege Urbietak atzema, noiz bañan noiz bera agertuko ote zan zaleturik, eta berarengana zetorrela ikusi zeban bezin prest ezaguturik deitu zion Urbietari alhora; eta berarieskuaz bizkarrean ukitzen ziola esan zeban Errege itsaspenduak, auxen berpera da ni garaitu nabena, eta ez besterik iñor ere; eta egia garbiro onen ezagungarri, orra non daukan berekin legez ta bidez niri irabazitako Estoke odolez ondo gaiñtzotua; eta ikusten ere diozkat argiroki, Alferezari laguntzera joaterako, ezagungarritzat agertu dizkidan bere aoko ortz akastuak. Erregeren autormen egiazkoa enzutean, beraren aurretik alde egin zuten lenago jabetzen zitzaiozkanak, eta gelditu zan, legez ta bidez garaitu zeban bezala, Juanes de Urbietaren menpeko. Egikera andi onen saritzat Enperadore Don Carlos zorionekoak eman zion Juanes Urbietakoari Santiagoko Gomendaritza; eta albiste gozatsu onekin batean ikusmenera joan zitzaion Urbietari, berak garaitutako Errege Franziakoa; zeñak alegin asko egin izan zion Franziaiko lurrean gelditzeko; bañan esker onak eta asko berari emanik joan zan Italiara, bere Errege Españaikoa serbitzatzera.

*Etsaiari zñola portizki eraso,
Ondra andia zeban Urbietak jaso;
Batallan txit aurrera sarturik garboso,
Franzesai artu zñen Erregea preso.*

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Gipuzkoatarrak Franzesak in zenbat aldiz, buruz buru ta bat banaka, alkar disidaturik egin izan dituzten pelea gogorren azaldurea.

Lenengo disida

Amalagarren Kapitulan esan dedan bezala Errege Don Juanek milla bosteun eta amabigarren urtean, Iruñeko Uriá ertsiturik zeukala, beraren Martizian arkitzen zan soldadu indartsu arro bat, zeñari arpegi ematekorik topatzen etzan Franziaiko Erresuma guztian. Soldadu urgulloso au, beraren Agintari eta lagun guztiak zeuden sinistatuak irme, ezin izan zitekeala beste bat iñon ere, berari esti eragingo zionik. Uste oso onetan, Franzes uanditu au bein batean jarri zan Iruñeko Uri barruan zeudenai keñuz ta deadarka adierazten zielarik, ezen, beretako gizonik bulardetsuena irten zedilla kanpora kazotele ta pikarekin buruz buru peleatzera; zeñari atera zitzaion Gipuzkoako seme Pedro de Tolosa (beste izen batez Pedro de Obineta deitzen zitzaiona). Franzes Martiziti osoa, eta Uri barruko Españaatar guztiak begira zeudela, portizkiro peleatu ta garaiturik, epaki zion burua Franzes parrastelariari Pedro de Tolosa edo Obineta Gipuzkoako jaiotarrak; zeñaren bidez Franzesak atsekabatu ziran lazki, eta ertsituak pozgarritu txit. Duque de Alva jaunak sarisatu zeban gogoz baza irabazitako Gipuzkoatarra.

Bigarren disida

Milla bosteun berrogei ta laugarren urtean, Monsieur Chanfarron deitzen zitzaion Franzes Zaldun aomen andiko bat, bertako Erresuma osoan agertzen zitzaiozkan kontraritzalle guztiak azpiratzen zituelako arroturik, etorri zan Irun-aranzundik Ondarribiara bitarteko itegira; nondik ojuz aupadaka adierazten zeban, irten zekiola, peleatzera arma bardiñakin Gipuzkoako Probinzian arkitzen zan gizonezkorik errutuena; zeñari itxorongo zion zortzi egun ondorengoetan toki berperean. Bañan luzaro egon bearrik etzeban izan kontrarioaren begira, eta are gitxiago



Probinzia guztian ibilli bearrik izandu zan burrukaririk oberenaren eske, Chanfarron autulariaren arrokeri andia ixiltzeko. Kapitan Juan Perez de Azkue, Ondarribiako semea, irten zitzaion prest arma bardiñakin peleartera Chanfarron andiari. Jazarra sonata au ikustera etorritako Franzes samalda andiaz estalia arkitzen zan Tellatuetako gañetik mugara bitarteko mendi guztia zeituzubek beren Erritar Chanfarron pizkor erazirik alartu naiean deadarka ixildu ere etziran, alik eta Kapitan Juan Perez de Azkue Ondarribiatarak ezpatarekin burua arras epakirik, beren Erraldoi andia lurreen zetzala ikusi zuten artean. Bañan uste etzuten gertakari au beren begiaz argiro ikustean, bat batean mututurik buruak makur makur zituztela joan ziran Franziaara, beren kutun maite gudari andia Gipuzkoan utzirik; zeñaren bidez, mundua mundu dan arteko gelditu zan Euskarazko kantaera bat onela.

*Monsieur Chanfarron jaun andia,
Irun-aranzun datza illik ezarria.*

Badira onelako gertaera geiago ere Franzesakin Gipuzkoatarren artean izanak, bañan ez luzatzeagaitik lagatzen ditut izendatu bage.

*Franzesak eldu ziran bi aldiñ onara,
Laster irabazteko pozean jazarra;
Bañan uste ez dala samintzen da farra,
Izan ezkerro kontra Gipuzkoatarra.*

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Milla, bosteun berrogei ta emezortzigarren urtean San Juan de Luz Franziaiko Erri aberatsa nola ta zeren bidez errea izandu zan. Monsieur de Bandemari Gipuzkoatarak ekin zioten zemui edo erresistenzia andia, eta Gravelingasko batallan gertatu izan ziran joan-etorrien errazoaia.

Gipuzkoatik Franziaara sartutzean arkitzen dan lendabiziko erri Sari Juan de Luz edo Done Joanekoa iandu da beti Franziaiko Erregeak txit asko maite dutena, eta guztiz ondo gozarotua, zergaitik bertako jendea dan aiñ saiatua, ta azkarra gudarako, eta batez ere itsasoz; non geienean oi zebiltzan korsuan gauza errazen billa; eta anziñako denpora lasai actan aixa biribillatutako ondasunakin aberasturik, egin izan zituzten etxe eder eta egitade gaiñ gañeko asko.

Modu onetako irabazi eroari ederiritsirik, beren langintza bidebagekoari jarraituaz zebiltzala, erre zuten Indiaetara bidean Errege Españañoaren erri bat, gauza on aurki balioso guztiak aldeareuz ebatsirik; eta bertako biztanle gaitzik bagekoak ifini zituzten itsaspendurik beren menpean, baldin ordain bearrik gertatzen bazitzaien, oekin baliatzeko.

Españaño Errege Fededun D. Felipe IIgarren maitagarriak jakindu zebanean bidebageko egikera odolgirodi onen barri, arras mindurik aserre bizian agindu zeban, kiskaldu zedilla San Juan de Luzko erria bereal-bereala, bertako jaiotar errebes biurriak egin ziozkaten kalte izugarrien ordaintzat. Esan ta egin, aipatu dedan urte milla, bosteun, berrogei ta emezortzigarrenean, Don Beltran de la Cueba Duque de Albuquerque Erregeorde Iruñekoa bere soldadu ta Nafartar anitzekin, Don Diego Carbajal Jodarko jaun Erregezko Buruzari Donostian zegoena bere gudariak arturik, eta Duque de Gandia, izen onetako etxe ta Loiolakoaren jaun ta jabe, Doña Lorenza de Oñez Etxeandra Loiolakoaz ezkondukoaren seme argidotar Don Juan de Borja Probinziako jaiotarren Koronel iru milla mendi-mutil bertakoakin jarriarik, sartu ziran Franzian itsasoz ta leorrez garbo andian beren Errege Jaunak agindua egitera, gogoz ta leialki. Nafartarrai aurrea arturik, Gipuzkoatarak lenengo iritsi ziran San Juan de Luz edo Done Joaneko errira; zeintzuk beren arma indartsuen bidez erriaren jabe ta agintari egiñik, bota zituzten bertako biztanleak kanpora ariñ aski; eta ondorean, Duque de



Albuquerque Nafarroako Erregeordearen aginduz erria erre, eta alorrek soildurik laga zuten San Juan de Luz larrugorrian. Modu onetan, Errege Don Felipe Jaunak naikidatzen zeban guztia egiñik, biurtu ziran Gipuzkoatarrak Nafarrakin batean nor bere tokira atsegingarriko pozkida gozatsu betean. Bañan Franzesak etziran gelditu unore onean.

San Juan de Luzko erri eder aberatsa ikusi zutenean Franzesak arras lurra joa, mindu ziran lazki, batez ere Gipuzkoatarren kontra, eta oezaz mendekatzeko artu zuten asmo sendo oso betea. Bereala Monsieur Bandoma de Labrit Bearueko jauna Martiziti andi bat sutunpadi izugarriarekin arturik, etorri zan Irun-aranzungo mugaraño, Probinzia barruko erri irikiak kiskaldu ta soildurik lagatzeko ustean. Bañan Gipuzkoatar zintzo ernaiak arkitzen ziralako allert, Franzesen mugida guztiai kontu ondo arturik, joan ziran bear orduko Irun-aranzungo arraira bost milla Probinziatar ondo armatuak, Franzesai zegokioten ongi-etorri modua egitera. Bandoma jaunak etzeban uste arkituko zebala eragozpenik Beobiako sarreran; eta ikusi zebanean muga inguru guztia Gipuzkoatarrez itsia, irauli zan etxealderontz ixil ta motz, Beobiako ataka iriki ote zakean edo ez, saiatzen ere asi bage. Egia da D. Beltran de la Cueba Erregeorde Nafarroakoa bere soldaduakin Iruñetik irten zala Gipuzkoatarrak laguntzera; bañan oek Tolosako errira iristerako, Franzesa etorri zan bidean aienatu zan, zertara etorri izan zan adierazo bage.

D. Diego de Carbajal Erregezko Buruzari Donostian zegoena, eta beste geiago ere baziran nai zutenak, Franzesari Probinzia barrura sartzen lagatzea, gero berai biurreran kalte geiago egiteagaitik. Ordea Gipuzkoatarrak, bidezkoagoa izateaz gañera, zeukaten ondra andiagotzat, Bidasoako ibaia igarotzen utzi bage biraltzea, beren erkinkeria ta lotsa beltz geiagorako; eta alaixen egin ere zuten.

Urte artan berean gertatu zan onelako beste egikera bat edo are geiagokoa, Gipuzkoatarrakin Flandesen. Monsieur de Tormes Galeskoa sartu zan jende askorekin Gravelingas alderontz (zeña dagoen Flandesen) eta erre zituen inguru artan arkitzen ziran erri ta toki anitz Españaiko Erregerenak; baiñan denpora labur aren epean nozitu zeban ondo bere gaiztakeri bidebage egindakoak.

D. Diego de Carbajalen seme D. Luis itsasozko Buruzari guztiaki-koak bere kontura zerabillen onzi andi Flandesko Baiaetan zeukanetik sei eun Gipuzkoatar banaan banakoak aterarik, biraldu zituen Erregezko jende leorrean arkitzen zanarekin batean Franzesari erasotzera. Esan al guztien gañekoa zan, bada, Gipuzkoatar oek artu izan zuten pozkida

gozo betea, beren Buruzariak agindu izan zielako Franzesetara peleatzera joateko.

Gipuzkoatarrak jazarrarako tokira bide luzea igarorik nekatuak iritsi baziran ere, ekin zitzaizkan goaltsu ta erruz, Franzes samalda andia banaturik urratzeari; eta Españaiko zaldizkoak ikusi zutenean Gipuzkoatarren azkardade ta pizkortasun aiñ guztizkoa, sartu ziran jazarrra gogorkiro; bai ta irabazi ere batalla arin aski. Zortzi milla Franzes illak gelditu ziran kanpoan, eta Monsieur Tormes Calesko Gobernadorea atzemanik itsaspendua izandu zan zaldun andizki askorekin batean.

*Gravelingas ondoan gazte eta zarrak,
Ongi ezagun ziran nor ziran azkarrak,
Oñak arin zituzten, gogor atzaparrak,
Franzesak porrokatzen Gipuzkoatarrak.*



EMERETZIGARREN KAPITULUA

Milla sei eun ogei ta emezortzigarren urtean Ondarribia ertsiturik egon izandu zan egunetako gertakari andien errazioia.

Esan dedan urte milla sei eun ogei ta emezortzigarrenean, Españako armak garailari izan ziran etsai anitzen kontra Italian, Flandesen, eta Brasilen egin izan zituzten pelea andietan. Bañan guztietan gogoangarriena, eta Españako Errege Don Felipe laugarrenaren naierakoena izandu zan Gipuzkoako Probinziarekin Ondarribiako biztanle errutsuen leialtade eta pizkortasun pare bagekoa. Beragaitik Errege onek bere esku indar andikoaz izkribaturik agindu zion D. Juan de Palafox ta Mendozari, ezen, Españako armak urte artan egin izan zituzten azaña andien kondaira izkribitu eta argitara eman zezala, Ondarribiako ertsitze eta laguntzako izenaren azpian, esaten ziolarik modu onetan.

«Los sucesos de este año de 58 han sido varios con mucho crédito de mis armas; sea nuestro Señor bendito. Dareme por servido que los recojan todos con el sitio y socorro de Fuenterrabia, y de todo fiareis una relacion fiel y verdadera, tal cual de vos me prometo; y antes de imprimirla me la traeréis para ver si falta ó sobra alguna cosa de monta».

Izanik, bada, kondaira gogoangarri au aña egiatzkoa eta adigarria, moldizkidaturik Erregeren aginduz, bein baño geiagotan agertaratua arkitzen da izen onen azpian.

«Sitio y socorro de Fuenterrabia, y sucesos del año de 1658, escritos de órden y en virtud de Decreto puesto todo de la Real Mano de la Magestad del Señor D. Felipe IV. Por el Ilustrísimo, Excelentísimo y Venerable Siervo de Dios Don Juan de Palafox y Mendoza, de los Supremos Consejos de Indias y Aragon, Obispo de la Puebla de los Angeles, y de

Osma, Arzobispo electo de Mégico, Virrey y Capitan General de Nueva-España &c».

Mundua mundu dan arte gogoangarri izango dan kondaira egiatzko onek adierazten du argi eta garbi Gipuzkoatarrak jaioterriari dioten amodiozko naitasuna, beren Errege bidezkoarengana duten leialtade piña, eta etsaiari gogor egiteko jatorritik darraikioten griña portitz pizkorra zenbateranoak diraden. Esango dizkitzutet, bada, bidenabar, Ondarribia ertsiturik egon izan zan egunetan igarotako gertakari banaka batzuk, berrizaturik gogora erakartzeagaitik gure guraso on ta senide leialak egindako azaña andi ondragarriak.

Izendatu dedan urteko Uztaillaren ogei ta batgarren egunean Endaiatik Irun-aranzun alderontz agertu zan Franzes Martizti andi bat goizean goiz, eta toki berean igaro zuten egun osoa aurreratu bage. Bigaramunean *Príncipe de Condé* amasei milla soldadu oñezko eta bi milla zaldizkorekin, itsasoaren urbeera aldian Bidasoako ibaia bost lekutan igarorik, sartu zan Irun-aranzura. Don Diego Isasi Koronela bi milla erritarrekin ekin zitzaion Franzesari portizki, sarrera au eragotzi naiean; bai ta ill ere jende asko Ondarribiako sutunpadiarekin batean; bañan geroenerako ezaguturik D. Diegok ezin eutsi zegiokela bi milla erritar ondo prestatu bageakin emezortzi millako samalda andi, ill edo bizi sartu bearrean zetorrenari, laga zion orduko jazarrari, era obeagoa etorri zekion arte. Bereala artu zituen Franzesak Irun-aranzun inguruko tokirik oberenak, Ondarribiako sutunpadiak iltzen ziolarik jende asko. Urreneko egunean artu zituen Franzesak eragozpenik bage Oiarzun, Erreterria, eta Lezo. Bigaramunean Pasaiera igaro eta portuaren jabe egiñik, beraren gordezalle soldadu talde andi bat ifini ta biurtu zan Irun-aranzu alderontz, Ondarribiari erasotzera. D. Diego Isasi bere erritarrakin, jarri zan Hernanin, bertan indartzeko erabakirik, bidez Probinzia barruko jendea Aitarren seme batutzean.

Uztaillaren laugarren egunean Franzesak ertsitu zeban Ondarribiako plaza leor aldetik; eta itsasoz arkitzen zan guztiz era nekezean laguntza emateko. Plaza barruan zegoen Gobernadoreak iru egunetz aurretik biraldu zeban D. Migel de Ubilla indar eske D. Diego Isasigana; eta beraren etorrerak luzatzen zebalako, igorri zeban illaren bostean txalupa bat Donostiara laguntzaren eske. Txalupa onekin etorri ziran Andres de Izurraín, eta Alonso Laredo Kapitana, itsas-ur biziak baliaturik; eta bigarren ordurako iritsi zan D. Migel de Ubilla eun ta irurogei ta amar gizon Tolosa, ta Azpeitikoakin. Franzesa ari zan portizki barrurako



bideak epaiten, plazari su ta gar erasorik, eta San Nikolasko ate aurrean egindako irikiak ikustean, irten ziran barrundik berrogei ta amar gizon Sarjento batekin, Franzesak egiten ari ziran luesitura; non porrokatu zituzten ogei soldadu ta langilleen maisua eta oen kapote, ezpata, eta beste gauza geiago jaso al zitzatenakin biurtu ziran plazara. Bañan are, arrabia andiagoan ekin zitzaiozkan Franzesak beren lanbideari. Illaren amaikagarrengo arratsaldean Don Juan de Beaumont Buruzari zutela, irten ziran eun ta berrogei ta amar gizon, luesituak egiten ari ziran Franzesari erasotzera; baita ill ere, lenengo sarreran arkitu zituzten langille guztiak; baziran gizonak iruna Franzes ill zituztenak; bañan biurtu bearra izan zuten prest plaza barrura, etsaia oarturik samalda andiak zetoziotelako beretara atxi atxika. Uztaillaren amariugarrena egun gozoa izandu zan plaza barruko jendearentzat, Don Migel Perez de Ejea eun ta berrogei ta amar gizonekin laguntzalle etorri zitzaielako itsasoz, beste bederatzi kabo ta Kapitan jakinduri andikoakin batean. Oek plazara iristerako, Franzesak epakia zeukan murrobiako bidea berrogei oñ ez beste guztia; eta etsaiari bere lanbidea eragozpendurik luzaeragiteagatik asmoa artu zuten laurean gizon bertako biztanle eta soldaduetan esleiturik, kanpora berakin irten eta lanean ari ziran Franzesai erasotzeko. Esan ta egin, Uztaillaren amalaeuan eguna argitzen astearrekin batean, luesitu gañean zeuden Franzesai eraso ziezaten portizki, eta alde bietakoak egin zuten pelea andi bat, zeñetan etsai samalda izugarria arras triskaturik, biurtu ziran plazara amabi illak eta amar erituren galduan.

Uztaillaren amabostgarrenetik ogei ta baterañoakoan Franzesai eraso zion Plazari portizki, egunean amabi, amalau, eta amasei bonba ifiniaz erri barruan. Urraturik lurreratuak zeuden Ondarribiako bizitoki guztiak, Eliza ta Gazteluaz ostean gordeleku segururik iñon ere etzekautela. Guztiaz, ere ordu eta uneoro Franzesari illtzen ziozkaten langille asko, batez ere bertako biztanleak makurka ta iskintxoka bazterrik bazter zulo kuntza ta babesak arripaturik. Uztaillaren ogei ta laugarren egunean euri jasa andia asi zalako, aldegin bearra izan zeban etsaiak trintxeraketatik; eta era onezaz baliaturik, Gobernadoreak biraldu zeban Alferes Juan de Roa berrogei gizonekin, luesituari kontu egiten gelditu ziran Franzesai erasotzera, eta pelea gogorra berakin egiñik arras porrokatu ondoan, irauli ziran plazara berrogeiak oso ta bizi. Uztaillaren ogei ta seigarren gauean Franzesak zur pilla andi bat Magdalena aldeko murrundora eramane, oen babesean ifini zituzten gizonak arbolandearen kanpo aldeko jaraitora epaiten; eta plazaren kontu artzalle zeuden zelatariak oartu ziranean erri barruko jendeari adierazorik, oek joan ziran

bereala murrundora gañera etsaiari erasotzera, non ekin zitzaiozkan arri andiak, bonbak, granadak, ur irakiñak botatzen, zeintzuben bidez lanean ari ziran Franzesak illik, eragotzi ziezaten une artan asi ziran lanbidean jardutea. Illaren ogeita zazpigarrenean jarri zeban Franzesak bateria berria Magdalenako kortinaren aurrean iru sutunparekin, eta gau artan berean ifini zeban itsas aldetik zurezko lankai edo artifizio bat, zeñarekin zulatzen zeban murrua; bañan Ondarribiako Alkate D. Diego Butron bere erritarrakin bakarrik toki beldurrik andieneko ari kontu egiten zegoenak, erru andiarekin portizki erasorik, biraldu zituen ariñ ta prest leneko lekuetara.

Plaza barruko jende apurra neke andiaren azpian arkitzen zan lazki, Franzes Martiziti izugarriari gau ta egun ezin eutsiz, laguntza noiz baino noiz etorriko ote zitzaion pozean. Españako Errege Don Felipe laugarrenak artu zituen bear ziran neurriak Ondarribiari laguntzera jendea itsasoz ta leorrez biraltzeko; bañan toki urrutietatik biribillatu bear zutelako beren etorrerak luzatzen zeban asko, eta bitartean etsaiak uste zeban plaza beretu. Aboztuko illaren seigarren gauean Don Migel de Ubilla irureun gizonekin irten zan Donostiatik itsasoz Ondarribiarako asmoan, eta bide galduetatik irrisku andian zijoala, gertatu zan ustez ustekabe norbaiti ere alkabuza disparatzea, zeñaren bidez etsaia gañean zutelako, biurtu ziran txaluparik geienak Donostiara; baña Don Migel de Ubilla irurogei ta amabost soldadurekin sartu zan Ondarribiara; zeñak berekin eramane zeban, Erregek Erri oni Madrildik izkribatzen zion karta gozoa, esaten zebala modu onetan.

«El Rey, Concejo, Justicia y Regimiento, Caballeros Hijosdalgo de la Muy noble y muy leal villa de Fuenterrabia; el Maese de Campo Don Miguel Perez de Egea me ha dado cuenta del amor y fineza con que procedeis, para que los intentos del enemigo no sean de ningun efecto, mostrando vuestra mucha fidelidad; y esto es en mí de tal estimacion, que he querido advertiros, que en ello recibo grato servicio; en todas ocasiones le reconoceré, y no solo asistiré á manteneros, como lo merecen tan buenos vasallos, y á socorreros, como se procura por todos los medios posibles, pero de mas de satisfaceros los gastos que hicieredes con la guarnicion de la Plaza, y los daños que el enemigo os causare en vuestras casas, de que os doy



mi palabra Real, os haré muy particulares mercedes, como es justo las reciba quien tan singularmente obra en lo que tanto importa, De Madrid á diez y ocho de Julio dé mil seiscientos treinta y ocho.— Yo el Rey.— Por mandado del Rey nuestro Señor.— Don Fernando de Contreras».

Ondarribiako biztanle leialak ikusirik laguntzaren etorrera maitagarria, eta denpora berean entzunik ezagutu zutelako zenbaterañoakoa zan Errege Jaunak agertaritzen zien naitasun egiazkoa, beren neke gogor eta atsekabe samina azturik, alaítu, pozkidatu, eta indartu ziran lazki, nai zebanik egiten etsaiari ez lagatzeko asmo oso bete arturik; zeñean, emakumeak eta mutil txikietarañoak samaldaka zijoatzen lan eske Agintarietara. Modu onetan Plazari bertako jendeak eusten zion bitartean, Almirantea ari zan bere Martiztia egiñeritzen Gaztelako batallotik, eta iru milla Gipuzkoatar Probinziak deiturik biribillatuakin, bertako Diputadu Don Pedro de Ipiñarrieta, eta bere lagun Don Pedro de Idiakenez ziradela.

Franzesak ikasirik berari erasotzeko jendea batutzen ari zala Gipuzkoa barruan eta beste toki geiagotan, estututzen zeban lazki Ondarribiako plaza gau ta egun gelditu ere bage; bañan bertako biztanleak izanik ain leial ta azkarrak, aldian sarri plazatik irtenik, ematen ziozkaten astiñaldi gogorren bidez luza eragiten zioten asko. Aboztuko illaren zortzigarren egunean estratako atetik aterarik, eraso zioten berreun gizonek portizki etsaiari, baita bota ere beren tokietatik, talde andiak tris-killaturik. Jazarra onetan atzemandako Franzes batek aboztuaren bederatzigarren egunean esan zien plaza barrukoai, ezen, iru lekutan epakia arkitzen zala murrua lurraren azpitik, beingoan su eman ta guztia osotaro uixatzeko; eta asmoa zebala ere etsaiak, ogei ta lau sutunpa ifinteko Txumarraga esaten zaion tokian, Gazteluari erasotzeko; eta lanbide oei ekiteko Principe Conde zegoela sei milla soldadu zar Franziatik laguntzalle zetozkionai itxoroten. Bigaramun goizean, zeña zan aboztuko illaren amargarrena, esan dedan toki berean ogei ta lau kanoiak jarririk, Franzesa asi zitzaion erasotzen Gazteluari, itsaspendurik zeukatenak aurreko egunean esan bezalaixen, zeñean disparatu izan zituen egun artan zazpi eun sutunpada. Bañan bertako biztanleak emakume ta mutil txikietarañoak soldaduakin batean, orduan ta gogo geiagorekin ekin zitzaiozkan batere beldurtu bage, luepaki berriak gordegarri plaza barruan egiteari, esaten zutelarik, *geldi gaitean murruakin bakarrik, eta gal-*

bedi osterontzeko guztia, etzaikeu ardura. Quedemos con las murallas solo, y pierdase lo demas, que no importa.

Abostuko illaren amargarrenetik amalaurañoakoa Franzesak bere sutunpadi andiarekin gelditu ere bage eraso zion Plazari, eta egun onetan iñoiz ere baino arrabia geiagorekin Magdalena aldeko zatia urruturik botatzen zebala; bañan Erriko jendeak etzeban etsitzen batere; orduan ta gogorrago jarten zitzaiozkan etsaiari, esaten zutelarik bertako emakumeak, ezen,

*Ez gaitu gu izutzen balak;
Deus ez dira Franzesen eginalak.*

Zeintzubek, ain portizki nola gizonak, laguntzen ziezaten sutan ari ziranai murru gañera polbora, bala eta beste gauza asko eramaten; eta elbarrituak maitaro bildurik, illtzen ziranai lurra ematen, aiñ leialkiro ta garbo andian beren senar, anaia, ta semeai, nola soldadu eta Agintari atzeai.

Plaza barrukoak beren buruak estura larri artan ikusirik, gaztigatu zioten Almiranteari aboztuko illaren emezortzian, zer ta nolako buruzpidetan arkitzen ziraden, eta lenbaitlen etorri zedilla etsaiari erasotuera. Mandatari leial azkar onek Ondarribiako irteera ta sarrera igeri irrisku andian igarorik, ekarri zeban bigarren egunean, zeña zan illaren ogeigarrena, mandatuaren erantzuera izkribuz Almiranteagandik, promestutzen zebalarik, ezen, egun gitxi barru joango zala bere jendearekin, Franzesai portizkiro ekiñik astinaldi onak ematera.

Aboztuko illaren ogei ta bigarren egunean iritsi zan jende zartada bat Oiarzuna, eta oetako berreun gizon gauaz igo ziran Jaskibel mendira, su ta ke andiak egiñaz, Ondarribiako plaza barruan zeudenai adieraztera, ezik, berai laguntzera zetoze; zeñaren bidez arras pozkidaturik toki itxituan arkitzen ziradenak, egin ziezaten mendikoai ongietorri maitagarria sei sutunpadi disparatuaz aldian sarri; ifinten zutelarik leen agiriakoan Erriaren bandera jaso; bai ta menditarrak ere berena, plazakoari zegokion bezala. Bereala Oiarzunen zeuden soldaduak aurreratu ziran Ondarribia ikusten dan gañera; eta toki onetatik Jaskibelmendira bitarteko ordekatxoan ifini zituzten beren jarleku ta prestamenak; zeñean Santa Barbarako Elizatxotik etsaia zegoen tokiraño guztian egun oro izandu zan pelea gogorra.

Probinzia barrutik jendea zenbat eta alderatuaz zijoakion etsaiari, anbat eta onek portizkiago ta estuago erasotzen zion ertsitua zeukan pla-



zari, lenbaitlen menperaturik, beraren jaun ta jabe jarri naiean. Beragaitik Franzesak eman zion su, gerorako laga bage estu estuka itokarrean berpertatik, murre azpian irikirik zeukan zulo andi bati, goi guztiak beea joko zutelako uste oso betean; bañan etzitzaion ondo irten bere asmoa; zergaitik etsaiak su emandako zuloarekin bat batean zuzen zuzen beste bat plaza barruan irikia zeukan D. Diego de Butron Ondarribiako Alkateak bere erritar leialakin eta zulo onetatik atera zan arriz ta lurrezko sutokari andibat, zeñak puskaturik aidatu zituen zazpi gizon lanean bertan ari ziradenak. Tiro onen indarrak geiena etsaiaganontz irauli izan zalako, kalte andiak berari eginik ill ere ziozkan soldadu asko. Franzesak arratsalde artan Ondarribiako plaza artuko kutela aiñ ziertoro, sinistatuak arkitzen ziran, ezik, emakume anitz etorri izan ziran Endaia Franzia kotik, sakeoko gauzak erostera.

Ikusirik etsaiak zulo onetako su ematea irten zitzaiola gaizki, asi zan beste iru lekutatik murre azpia epaiten; lenengo bietan itsasoko urak eragotzen ziolako laga bear izan zion lanari, eta irugarregean zuaje ta pres-tamen askorekin lur amilkorra eutsiaz, zulatu zeban murre azpia, plaza barrukoak eragotziko etziotelako ustean, bañan guztiz ditxa andian iriki zuten oek plaza aldetik bidea, etsaiak kanpotik zeraman zuloaren aurkez aurke, su eman ta ere murruari kalte andirik ezin egin zegoiekan moduan.

Abostuko illaren ogei ta irugarren egunean etsaia asi zan Erregiñaren baluarte aldamenen bi tokitan murrua pikatzen, plaza barrukoak gau ta egun gelditu bage arrikadaz, kañonazoka, eta ur irakiñakin jende asko iltzen bazioten ere. Gau onetan egin zeban etsaiak musketeakin salba guztirakoa, Mendeloko kuarteletatik asirik: eta plazan zeudenak sinistaturik, beren laguntzalle zetorren Martizdiarekin pelean ari zala Franzesa, joan ziran murre gañetara zer gertatzen zan ikustera. Jarraitu zion etsaiak salbari beste kuartel guztietatik, eta Endaiatik ere; bereala asi zuten sutunpadia, eta orduan ezagutu zuten plazakoak pestaren bat andizkatzeko zala alborada ain agiria, zeren bidez bigaramuneraño ez bazekiten ere.

Aboztuaren ogei ta laugarrean, San Bartolome egunean. Marques de Gebrek luesituetatik esan zien plazakoak, bezpera gaueko salba egin zutela, gure ontzidia Getarian erre zebalako Burdeosko Apezpiku edo Obispoak. Markes onek galde era bat egin zien barrungoai moda onetan, *¿que era lo que pretendían hacer?* A que respondieron los de adentro; *que defenderse ó morir*. Replicó él; *que el morir era bien cuando se seguía algún fruto en ello; pero cuando no ¿para que?* Y el Capitan D. Daniel respondió *que para morir con honra*.

Esan nai da eusearaz: *¿er zan egin nai zutena?* Eta erantzun zioten barrukoak; *gorde beren buruak edo ill*. Markesak esan zien; *illzea ondo zala, ¿erbait ona uste zanean, bañan uste ezpazan, ¿ertako ill?* Don Daniel Kapitanak eratzun zion; *ondrarekin illtzeko*.

Abostuko illaren ogei ta bostean arkitu zuten plazakoak bigarren lupobia, eta ibilli ziran onekin txit kontu andian, gertatu etzekiote lenengoarekin igaro zitzaiena berpera; zeñaren kontrako ataka andi bat iriki zuten, etsaiak ezin itxi izan zeban bezalakoa, eta suponpa ta barrika anitz ifinirik zulo muturra arintxo estutua zegoela, eman zion Franzesak su arratsaldean, bañan etzeban iritsi izan beste gauzarik, ezpada, Bernardo Bardones deitzen zitzaion soldadu bat, suak zeraman aizearen indarrak murruez kanpora erriaren sarrerako atearen ondora botatzea. Soldadu errutsu onek arte zeban plazarako bidea, zeñari Franzes batek eman zion txuzokada bat, eta alere sabeleko esteai ezku bat az eutsiaz igerritan epaki zeban plazara bidea, non sendatu zitzaion bere eritasuna. Egun artan berean Endaiko jendeak eman nai izan zien plaza barrukoai burutara, ezen, obe zutela errendatu Franzesagana berpertati, guda gogor kaltarkitsu ari azkenengo mallara igotzen laga bagetanik; eta agindu zeban Plazako Buruzariak, ezik, etzebala inork zer erantzun itztxo bat bakarra ere, ill edo bizi Erria gordetzeko erabakia zegoen ezker.

Aboztuko illaren ogei ta seiean egiñeratu zeban etsaiak beste galeria lurrez betetako barrukakin; zeñari plaza barrukoak eutsi zioten lenda-bizian musketeriarekin; eta Alferes Lesakak eizerako alkabuzarekin murre gañetik agirian zegoala, ill zituen ogeita amar Franzes baino geiago, eta oen artean jende kontu andikoa. Ikusirik plaza barrukoak Magdalena aldea inor bage lagarik, Erregiñaren baluarte ondoan asi zala etsaia murrua zulatzen; illaren ogei ta zazpigarrean gogoratu zitzairen barrungoai, ezen, Franzesa Magdalena ondoko utsunera bihurturik ekin zekiokela murre azpia zulatzeari. Bereala plazakoak ekin zitzaiozkan Erregiñaren baluarte gañean zeuzkaten prestamenak eta sutunpadia Magdalenako ondora eramanik, kanpotik epaiten zuten bidearen kontrako lubetatutzeak egiteari. Iru egunen epean egin zituzten lan andi oek guztiak plaza barrukoak, emakumeen laguntzarekin batean; zeintzuek joaten ziran gogoz lanera, inork deitu bage. Irri ere zuten oek Magdalenako murre lodian ekixulo bat kanoi erdi bat ifinteko, etsaiak jarria zeukan galeriari erasotzeko, eta lubetatuaren gañean zegoen zeste-rategiaren espaldan jardun zuten kanoi andi bat ifinteko tokia egiten, etsaiari bere asmoak gal eragiteko. Egun beretan etzuten izan plazakoak Almirantearen gatzigurik, eta arkitzen ziran estura larrian jakin nairik,



laster etorriko ote zitzaien edo ez laguntzarekin. Beragaitik Don Migel de Ubilla biraldu zuten Almiranteagana, adierazo zegiola berari, zer egoitzan arkitzen ziraden plaza ta plazakoak; urrituaz zijoatzela plaran burriazko dadoak, eta estañua gordetzen zutela alkabuz ta musketeakin punterian tiratzeko; egunetik egunera zijoala etsaia bere lanbidea aurretatuaz; eta lenbaitlen artu zezala berari erasotzeko asmoa. Mandatu balioso au Almiranteari igorritzearekin batean, ifini zuten plazakoak Magdalenan sutunpadia, baita ere Erregiñaren baluartearen kanoi osoko bat; zeintzuben bear bezala ifinten jardun izan zuten arreta andiarekin Buruzari Don Juan de Urbina eta Andres de Izurrainek.

Bitarte onetan Franzesa bere galeriarekin bidea epakiaz zetorren, Magdalenara begira plazakoak jarria zeukaten zestotegira, au guztia osotoro beingoan urruturik, odeietara altxatzeko asmoan; bañan plazakoak beti eutsi izan zioten toki oni irmeki, nondik gure sutunpadi eta musketeriak ill ziozkan etsaiari, asi aldi onetan, milla ta bosteun gizon igaroak.

Abostuko illaren ogei ta zortzigarrenean Ondarribiatik irten zan esan dedan D. Migel de Ubilla soldadu bat lagun arturik Almiranteagana; bañan Franzesaren bealariak oartu ziralako, biurtu bearra izan zeban ostera plazara. Egun artan eta urrenekoan etsaiak bere galeriarekin eraso zion murruari epaki naiean bala ta bonba askorekin; bañan plazakoak eragotzi zioten suponpa eta arriakin soldadu talde bat illaz; ifini ere zituzten plazakoak estakada bi Erregiñaren baluartearen ondoan, baldin suertez ere murrua irikirik, Franzesa barrura abiatzen bazan, berari zegokion etorrera musketeriarekin egiteko. Zuaje samalda ardia ekarririk, etsaia asi zan San Nikolasko ondoan murrua epaiten; baita plazakoak ere beraren kontrazuloa irikitzen. Gau artan Buruzari D. Naniel luesituan zegoanak esan zion Franzesari onela: *si traían los calzones largos, como solían*; dijeron *ke sí*. Preguntándole *ke porke lo dezía*; respondiotes el Kapitan, *ke para abisarles ke buskasen tijeras para kortarlos, porke siendo tan largos, no sabia como habian de huir*.

Esan nai du euskarak; *ea ote zekartziten fraka luzeak, oitura zuten bezala?* Eranzun zuten *baiez*. Esan zioten, *zergaitik zan galdera hura?* Eta Kapitanak eranzun zien; *kontuan ifinteagatik billatu zitzaizen guraizeak frakak moztuzeko; bada ain luzeak bazenuzkaten, etzekiela nola iges egin zezaketen*.

Aboztuko illaren ogei ta bederatzigarrenean plazakoak asi zuten espalda berri bat, etsai kanpoaldetik zestotegira irekitzen ari zan zuloaren eragozpenerako. Egun oetan beldur andia zegoen, sutuko zituela Franzesak epakirik zeuzkan zuloak, Beragaitik, Gobernadore D. Domingo de Egiak agindu zion D. Juan Esain Kapitanari, bere jendea-

rekin jarri zedilla Erregiñaren baluarteke estakadan, eta toki au lagatzen zebala berarekin Kapitan D. Juan de Beaumonten kontura; zeintzuben laguntzalle ifini ere zeban estakada berean Kapitan Nicolas de Bransolo, ekarri zeban jende eta beste berrogei biribillatu zitzaiozkanakin. Bai ta ondo kontu egin ere gizon azkar errutsu oek beren gordelekuari, alik eta plazan laguntza sartu zan arterañoko guztian.

Aboztuko illaren ogei ta amargarren goizean Principe de Condé Franzesen agintariak biraldu zeban atabalero bat Ondarribiako Gobernadore eta soldaduengana, zeña artu zuten Errian, eta sarreran begiak estalirik jaso zuten Gaztelura; zeñetara igo zan Gobernadora, Erria, Sarjento nagusia, eta Kapitanak; eman zeban atabalero mandatarik paper bat Franzes itzeuntzan izkribatua, Españako itzkerara iraulkiturik esaten zeban onela.

«El Príncipe de Condé, mi Señor, General de las armas del ley, su Soberano Señor.

Habiendo reducido á Fuenterrahia á estado de tener necesidad da su bondad, por la fuerza de sus armas, y por medio de muchas minas que están aparejadas para volar, cuyo efecto le dará la entrada en la plaza, y deseando que no se siga una ruina, cual de ordinario sucede en las plazas, que se ganan por asalto, su Alteza envía este tambor á notificar al que manda la Plaza, para que la resigne en sus manos, conforme las capitulaciones que gustase otorgarles, así al Gobernador, como á los soldados de la guarnicion y sus vecinos, ofreciéndoles para que vean el peligro que corre la dicha villa de hacer reconocer á los que se señalaren para este efecto de parte del dicho Gobernador el estado que tienen las ruinas. Despues de lo cual su Alteza les declara no esperen alcanzar ninguna gracia de él, antes todo el rigor que la hostilidad de la guerra hace sufrir á los que una ciega obstinacion lleva hasta aguardar el último trance. Ademas que han de pensar que han hecho todo lo que gente de bien y fieles vasallos deben hacer; y que las tropas que han venido para socorrerles, están imposibilitadas de hacerlo por razon de su flaqueza, y las grandes fuerzas y trincheras que les tiene á su oposicion, mostrándoles sus designios; lo



cual su Alteza tambien ofrece hacer ver; fuera de que la armada naval, y los hombres que están en los bajeles destinados para el socorro de la dicha Plaza, están todos desechos. En el campo á 30 de Agosto de 1638».

Gobernadoreak, Kapitanak, Alkateak, eta Ondarribiako biztanleak etzuten denpora asko igaro, zer erantzun bear zitzaion erabakitzen. Ez nekearen geiegitasunak; ez Franzesas aurreratuak zeuzkan zulo irikien beldurtasunak; ez berai laguntzera etortzeko zeudenen luzatasunak; eta ez beste gauza ezertxok ere zioten errendatzeko iduripenik txikarrena ere burura ekarri; eta guztiak iritzi batera jarririk, erantzun zioten modu onetan.

«El Maese de Campo Domingo de Eguia, Gobernador de Fuenterrabia.

La de V. A se ha recibido de este tambor, y queda entendido lo que contiene, y agradecidos de la advertencia que V. Alteza nos dá, habiendo consultado con la Villa, Sargentos mayores, y Capitanes que hay en ella, lo que hemos resuelto es, que V. Alteza vuele las minas cuando mandare, y disponga en ellas y en lo demas como le pareciere, que aqui estamos resueltos á resistir, y hacer lo que se debe á lealísimos vasallos de nuestro Rey y Señor D. Felipe IV (que Dios guarde) en cuyo Real nombre y servicio, en defensa de esta Plaza, todos, mugeres é hijos estamos dispuestos á morir antes que entregarla á V. Alteza, ni á otro que tubiese el gobierno de las armas del Cristianísimo Rey de Francia; y en órden á ello V. Alteza disponga lo que fuere servido. Guarde Dios á V. Alteza felices años».

Paper au Principe Condéri biraltzearekin gelditu ziran Plazakoak meatxatuak, eta aboztuko illaren ogei ta amaikagarren eguna argitzerako gureak ifini zuten plazan berrogei librako pieza bat Erregiñareneko baluartera begira. Arreta andia iduki ere zuten txit, Erria gordetzeko bear ziran prestamenak zuzendurik balak egiten, baldin bretxa naierara iriki-rik, etsaia barrura abiatzen bazan bertan porrakatzeko.

Agor illaren lenengo egunean goizeko zortzi orduetan plazakoak ulertu zuten suaren arrastoa, eta une berean, Erregiñaren baluartearen aurrean ogei ta bi oñ lodiko orma urraturik altxatu zeban airean. Guzti-az ere, etzeban iriki izan plazara aixa sartu al zitekean ainbateko ataka, eta gelditu zan etsaia murrurekin barrungo kontraminaren bitartean. Bereala plazakoetatik samalda andi bat aurreratu zan murru irikiari eus-tera, eta are geiagoko talde errutsua joan zan kontraminara, ikusi zutelako Franzesa zuloa azitzera zijoala berriro, non peleatu ziran egun artan portizki; eta ezagungarrituak izan ziran jazarra onetan D. Juan de Esain, beraren Alferrez Domingo Balardi, eta Kapitan D. Daniel, zeintzubenk pelleburu andian kontraminara sarturik polboraren ke illun, eta kirats gaiztoaren tartean peleatu ziran etsai anitzen kontra txit gozorkiro, alik eta Sarjento nagusi Osoro jende berriarekin laguntzalle etorri zitzairen arteraño. Ezagundu ere izan zan egun artan Kapitan Adrian Pulido, sei orduan jardun izan zebalako sutan bere lagunakin batean Franzes asko illaz, kontraminaren ataka itxi zioten arte guztian.

Modu onetan, gau ta egun gelditu ere bage ari zan etsaia al zeban guztia egiten, itxian zeudenari kanpotik laguntza etorri baino len plaza beretzeko asmo oso betean. Bai ta barrungoak ere sinistu ezin leikean bezalako garbo, ardura eta erruarekin, Franzesak irikitzen zituen minaren kontrarako zuloak egiñik luepaki ta zestotegi andiak ifinten, barrura abiatzen bazan bertan porrokatzeko.

Plazako jende leial au, eta batez ere bertako biztanle maitagarriak, promesturik erabakiak zeudelako beren biziak galtzera, ezen ez etsaiaren menpera errendatzera, etzituen, bada, beldurtzen ezertxuk ere; aiñ gogoz ta pozkidaz beteak zijoatzen Franzesa bretxan ikusi orduko berari eraso-tzera, nola beren naierarako pesta gozatsu batera joango ziazketekean jostaldiatzera. Gizonak, emakumeak, atso zarrak, eta aur txikietañoeo-ak airatzen zuten batak bestea etsaiari erruz ekiteko pelleburuari begira-tu bage. Esan al guztien gañekoa zan, bada, Ondarribiako biztanleak Franzesaren kontra pelezeko zeukaten amurru bizia. Bear ordu guztie-tan prest ziran beti zer nai gauzatarako, iñork ere deitu bage. Noiz eta gertatzen zan estatusunik larriena, orduan ta alaiago ta pizkorrago lagun-tzen ziezaten soldaduak, beren denpora guztian etsaiarekin burruka ibi-lliak bazirakean bezalako garboarekin.

Errege Don Felipe Jaunak ezaguturik ondo Ondarribiako jendearen leialtadea zenbaterañokoa zan, eta beren neke gogor geiegikoaz kupida-turik, Almiranteari egunoro bialtzen ziozkan mandatu zorrotzak, irten zedilla biribillatu zitzaion jendearekin lenbaitlen etsaiari portizki erasorik,



Ondarribiako plaza maitagarri baliosoa leneko oñean ifintera. Geroenean ere, noizbait bear ta, agorrillaren bigarren egunean Almirantea martiziti zati lodi batekin igo zan Jazkibelko mendira, etsaiak bereturik zeuzkan toki kanpokoak gau artan atakaturik plazari laguntza emateko asmo oso betean; bañan Jaungoikoak ala nai izanik gau berean bota zebalako eurizko, aizezko, lañozko eta kazkarabitzko ekaitz ikaragarria, zeñak atertu bage iraun zeban bere gogortasunean urrenge egun guztian ere, soldadu berri ondo ezi bageak estalperik etzegeoen toki agirikoa eguraldi ain gogorra ezin eramanik, armak eskuadroian ifini eta beren banderai lagarik zabaldu ziran leorpe billa al zuten tokietara. Ain gogor ta erioitsua izandu zan ekaitz andi au, ezik, mendian gelditutako soldadu banakaetatik arkitu izan ziran zenbait, beren pika eta musketeen gañean illak. Ito ere ziran zaldi asko; eta agorrillaren irugarren goizean, zeña izendatua zan plazari laguntza emateko, Almiranteak bere martiziti-ko jendea kontatzean zazpi milla soldadu igaroak arkitu zituen gitxiago.

Ikusirik, bada, Almiranteak, eguraldi gaiztoaren bidez gertatutako ezbear andi au, deitu zituen bere lagun ta ondorengo agintariak batzar-rrera, zeintzuben nor bere iritzia batak besteari adierazorik alkar artu zuten, ezik, etsaiari erasotzeko ezin konta zitekeala soldadu berri ondo ezi bageakin, zeintzuk sakabanatu ziran eguraldi gaiztoaren aitzakian, beren Buruzariaren agintea ausirik; eta baldin plazari laguntza emango bazitzaion, bearko zala batu jende gaitz ikusiagoa, ekaitzak izutzen zituen gudari makalak baino. Almiranteak bereala gaztigatu zion Errege Jaunari zer gertatzen zan argi eta garbi; baita ere, aurrerako artu zituen asmo berriak nolakoak ziraden.

Denpora berean Principe de Condé Franzes taldearen Buruzariak ikusirik Españako soldaduak artu zuten buruzpide galgarria, eta gañera, murrua sutu eta airatzeko zulo andia egiñik bretxa irikitzean jendea barrura botatzeko prestatuak zeukala, erabaki zeban plazakoai biraltzea izkribuz, azkenengo mandatua beste atabal jotzalle batekin modu onetan.

«El Príncipe de Condé, mi Señor, General de la armada etc.

Envía por estas portreras este tambor al Gobernador, gente de guerra y vecinos de Fuenterrabia para decirles, que el ejército del Rey de España, destinado para su socorro, está retirado como lo ven, y las tropas de su Alteza están alojadas dentro de sus bastiones como lo saben; teniendo la compasion que debe tener un

Príncipe Cristiano, y de sus partes de los desórdenes que se seguirán en la toma de la dicha villa por asalto donde la honra de las mugeres, y la vida de los inocentes están espuestas al furor de los soldados; y estando, los modos de tornar la villa dispuestos, dándole lugar para entrar cuando él quisiere, no obstante esto les ofrece toda razonable composition, tal como puedan y deban esperar de un Príncipe de su calidad; declarándoles que si no se aprovechan de esta ocasion, y se aguardan á obtenerla, liados en los reparos que puedan tener para las retiradas, no les será otorgada alguna en aquel estreno. En el campo 3 de Setiembre».

Plaza barruko jendea une artan arkitzen zan esturarik larrienean. Ikusten zituen murruren zati luzeak zeudela eroriak; bazekien indarturik zegoala etsaia lur azpian irikiak zeuzkan zuloetan; lezoi edo fosoaz eko ja beturik arkitzen zala, asalto ta mina berriak egunoro berriztutzen zituela; barrungoetatik illak irureuntaraño bazirala; laguntza iñondik etorteko este laburrak zeudela; eta baziran batzuk aditzera eman nai zutenak, ezen balaen bukaera ere ur urrean zebillela txik. Baña Ondarribiako Alkate Don Diego de Butron erru andiko azkar animotsuak, entzutean epeltasun oek, esan zeban, ezik, baldin iñori jalkitzen bazitzaion errendatzeko zantzuaren itzik, berak bere atzaparrak kenduko ziola bizia bertan, gerora begira egon bage; bazejela oraindik plaza gordetzeko lainbat tirakai, eta bukatzen ziradeneko jarriak zeuzkala prest, emezortzi milla erreal zortzikoak, zeintzuk emango zituen gogoz urtu ta balak eginik, etsaiari tiratzeko. Gizon erritarki leial onen eskañi ondradia entzule guztiak laztandu zuten maitaro pozkida betean, eta Principe de Condé urgolosoari erantzun zioten onela.

«El Maese de Campo Domingo de Eguia etc. El escrito de su Alteza el Señor Príncipe de Condé se ha recibido, su fecha 3 de este mes de Septiembre, de mano de este tambor; y comunicándole con los Señores de la Villa, Sargentos mayores y Capitanes que hay en ella, lo que responden es, que para defender la plaza no necesita ella de socorro alguno de gente, ni municiones de fuera, ni se aguarda á ninguno; y Su Alteza puede dar los asaltos que fuere servido, que aqui esta-



mos resueltos á aguardarlos. Guarde Dios á V. Alteza. Septiembre 5 de 1638».

Erantzuera au artutako arratsalde berean Principe de Condék arrabia andiarekin erre zituen Irun-aranzungo ondoan Españaiko soldaduak utzitako barraka guztiak; eta eginpide au ikustean atsekabetu ziran plaza barrukoak, zergaitik etzekiten, beretan ikusitako gure jendeak zer buruzpide artu zeban. Beragaitik arkitzen ziran guztiz ardura andian, etsaiak zer asmo zerabiltzkien ezin asmatuz; zeñak agorrillaren laugarren goizeko bost orduetan sutu zituen bi mina, eta murruaren zatia airaturik iriki zeban bretxa plazara saltatzeko era onean. Bereala ogeita amar Franzes garbo andian abiatu ziran bretxan gora igotzen; bañan barrungoak arrika ta musketazoka bota zituzten andikan beera ariñ aski. Andik laster bi Konpañia Franzes beren Kapitanakin asi ziran bidea leunduaz bretxan gora igotzen berriro, plaza barrukoak ikusi etzitzaten keatza lodiak egiñik; bañan Sarjento nagusi Osoro bere pikadunakin aurrera sarturik, eraso zion portirki Franzes soldaduakin zetorren Kapitanari, zeña zan Burdeosko Presidentearen semea, eta berari lepoan gordegarrri zekarren golarekin morrionaren tartetik pika gogorkiro sarturik, bota zeban bretxan beera ulipurdika. Bereala abiatu zan etsaia jende geiagorekin bretxara; bai ta plazakoak ere gogor egitera. D. Juan de Esain Kapitana eta beraren Alfereza beroturik aurreraegi sartu zirako, gelditu ziran illak musketazoe ariñ urruti, ezen, egunaz ezin jaso zitezkean tokian; guztiaz ere artu zituzten barrara gauaz. D. Franzisko de Heredia ere pelea onetan izandu zan illa kañonazo batekin. Kapitan Diego Butron, eta beraren kuñadua Juan de Urbina Kapitana izanik ain errutsu, eta garbo andikoak, bertako jendearekin batean eutsi zioten irme bretxako ataka irikiari. Alkate Pedro Izquierdo ere peleatu zan lazki etsaiarekin bretxan ill edo bizi. D. Alonso de Mendiguren, Esain Kapitanaren konpañiako Kapillaba, bere karabina ta pikarekin jazarran txik aurrera sarturik, ikusgarria zan etsaiari atzera egiten pelleburuaz oroitzen ere etzala. Lizenziado D. Franzisko de Asturriaga apez Orioko jaiotarra, zeña bere gogoz sartu izan zan Plazara bertako jendearen laguntzalle D. Migel Perez de Ejearekin batean, asalto onen asieratik bukaerañoko guztian peleatu zan gogorki etsaiaren kontra. Jazarra portitz onek irauñ zeban lau orduan, plazako jendea agiri agirian zegoela beren trintxera ta baterietara.

Neke gogor au arindu zedin, eta Erria gordetzen parte guztiak izan zezaten, Gobernadore Domingo de Egia jaunak agindu zeban, ezik, San

Nikolas aldeko murrua izanik pelleburu andikoa, ingurutu zezatela bertako biztanleak eta Alferez Cigarroak; oen laguntzalle jarri zedilla D. Martin de Elizalde ogei ta amar musketero Tolosakoakin, eta beretara etorri ere zedilla Kapitan Diego de Butron estakadatik etsaiaren pinazai arpegi ematen zegoena. Etsaiak ikusi zebanean Butron bere jendearen zatirik geienarekin San Nikolas aldera zijoala, eraso zion estakadari gogorki; bañan D. Migel de Ubilla jende talde batekin bertara joanik, etzion utzi Franzesari nai zebanik egiten. D. Migel eta D. Martin bi Kapitanak egon ziran etsaiaren bateri aurrean aurkez aurke, kanoiko ezpalkolpe batek ukituagaitik asko ikaratu bage. Gauzarik arrigarriena izan zan, ariñ denpora luzeko batalla gogorrean, ainbeste naspilla, ardura ta pelleburu eta armen ots izugarrien artean emakumeak ikustea, gizonak bezin alai ta goaltzu, metxa irazekiak, polbora, bala eta pikak gaztelutik murrura eramaten batzuek, eta besteak sutunpadiak puskatutako eri ta illak jasotzen, beren senar, guraso ta anaiak jardun zezaten etsaiari erasotzen nor bere tokia galdu bage. Kapitan ta Alkate Diego de Butronek ikusirik Gobernadore Domingo de Egia etsaiaren bateri aurrean zebilela bere berotasunarekin agirian txit, esan zion berari, ezik, izan zezala bere burua gordetzeko ardura geiago, eta begira zegiola ondo begien aurrean arkitzen zan lanze estura larriko ari, baldin gertatuko bazatekan bala batek jorik bera erortzea, zer buruzpidetan gelditu al zitezkean plaza.

Egun au izandu zan guztiz ikaragarria. Etsaiaren bateri guztiak jardun zuten sutan portizki gelditu ere bage. Indar andiak arturik bretxaren goienera igorik zegoen etsaia kanpora bota zuten arterañokoan, ill ziran barrungoetatik ogei ta geiago gizon eta beste amabi igaroak gelditu ziran elbarrituak beso ta ankarik bage. Franzesetatik erori ziran illak lezoi edo fosora eun ta berrogei ta amar igaroak.

Agorrillaren bostgarren egunean etsaia etzan mugitu izan ezertara ere; bañan plazakoak egun osoan egon ziran armatuak ernai ta zintzo. Illuntzearekin batean ekin zitzaion etsaia bretxarako bidea garbitu, berdindu, eta orraztutzeari, eta mina txiki bat egin ere bazeban gau artan, bigaramun goizean berriro asaltoa emateko asmoan. Plazakoak berebat jardun zuten gau guztian lanean, kontrazuloak egiñaz eta espaldak berrizaturik irmetuaz, etsaiari eragozpenak ifinten. Errian bertako biztanleak ziraden gauazko lanbide ori geiena jarraitu ziotenak. Banaan banako gizon errutsuait deitu izan zitzaioten toki estuan eginkizun asko zegoen beargai onetara; zeintzuben buruzari jarri ziran Diego Butron Kapitana, beraren Alferez Cigarroa, Joanes de Elizalde, Joanes de



Cigarroa, Joanes de Azaldegi, eta Andres de Izurrain, zeña lanean ari zala ill zuten musketazo batez.

Agorrillaren seigarren goizean txit goiz abiatu zan jendea etsaiaren trintxeractara azaltzen ugari, eta goiz bereko sei orduetan asi ziran soldadu talde andiak bretxan sartzen. Denpora berean plazakoak zestotegian jarria zeukaten sutunpadiarekin portizkiro erasorik, ostiko andia eman zioten Franzesari. Asaltoa asi baino lenago izandu zan musketazo batez eritua Alferuz Juan de Roa gizon balio andikoa. Eman zeban geroenean ere asaltoa martiziti guztian arkitzen ziran soldadurik bikañenakin Marques de Jebraeren illoba batek bere Tenientearekin gobernatzan zebala. Plaza barrukoak garbo andiarekin aurreratu ziran bretxan barrena, eta batez ere Sarjento nagusi Osoro, zeña peleatu zan Franzes agintari batekin, nor bere pikaz eskuz esku, eta eritu zebanean eskatu zion kuartela, bañan eranzuten ziolarik *ex da orain denpora*, urrengo kolpean bota zeban bretxan beera amilka Monsieur jauna. Sarjento au peleatu zan guztiz irrisku andian Franzesetara sarturik, eta amasei musketazoz ukitua izan bazan ere, irten zan eritasun begiragarrikorik bage.

Berritotik jo zeban Franzesak ekinaldi txit bizi bat, eta asi zeban irugarren ta azkenengo asaltoa bere martiziti andian zituen soldadurik bikañenakin. Plaza barrukoak beren pikakin irten zitzaiozkan ongietorria egitera Gipuzkoatarrak aurrenengo zirala, eta Sarjento nagusi Osorok Tolosako sei mutilekin lendabiziko kolpean ill zituen zortzi Franzes, eta Osorok bere pikarekin kendu zion lumazko gaildurra Franzesak agintari zekarten Maese de Campori.

Plazako trintxera guztietatik peleatuziran gogorkiro, ain beldur bage ta goaltsu, non beren tokietatik irtenik jarraitu zioten etsaiari ausardi andian, Plazatik kanpora gordegarri egiñak zeuzkan trintxeractaraño.

Jazarra balio andiko errutsu onetan geiena ezagungarrituenak ziran Pedro de Ibarruzte ta Erriko jendearen gudari-agintaria Diego de Miranda, Tomas de Arsu, Antonio de Belui, Martin de Alberro eta Joanes de Argaiz, zeña errena bazan ere aurreratu izan zan bretxaren erdiraño Franzesai jarraio peleatuaz portizki. Erregiñaren baluarteari eta beste leku perebullurik andienekoai Kapitan Juan de Urbinak eutsi izan zien irme garbo andian. Murrua ingurutu zuten Erriko ogei ta amar mutil txiki baino geiagok, zeintzuketakorik bat bakarra ere arkitzen etzan amabost urtez goitikorik, eta guztiz izandu zan arrigarria zaldun gaztetxo oei ikusi zitzaienten alkabuzakin jokatzeko maña. Asalto onetan Alonso Moralkoak bonba batekin ill zituen ogei ta amar Franzes ta geiago, zeintzuket estali ziran zoko batean. Ekarri zan gero anziña-

ko ziadia modura egindako barrika zurezko bat, eta beraren barruan arriak eta beste barril txiki polboraz betea, zeña bota zuten bretxako eskiñatik, eta izanik au aiñ astuna, Franzes samalda andi bat eraman zeban berekin batean, eta lertu zanean irazeki zitzairen etsai musketerolak zekartziten fraskoai, alako moduan, ezik, kiskalduak izan ziran bertan geienak, eta bizirik gelditu ziran barraka aek beren buruak nolabait bederik bota zituzten lezoi edo fosoko urtara, suaren berotasuna gozarotu al bazezaketekean.

Bi sutunpa Plazaren gordegarri ifiniak zeudenakin etsaiari egin zioten guztiz kalte andia, eta kanoi erdiak bala ta burni-puskakin azkenengo bota zeban tiro errutsuak abarrakitu zituen, alkargana bildurik ustez leen seguruan zeuden berrogei ta geiago Franzes, zeintzuketakorik bat bakarra ere agertu etzan tiroa egin zan ezkeroztik. Egun onetan ill zituzten irureun ta geiago Franzes bikain arkienak. Lau Kapitan gelditu ziran illak bretxan eta beste bat anka bata bidean utzirik arrastaka biurtu zan estura larrian. Gisa berean asalto onetatik erretiratu zan etsaia, gizon talde andia galdurik, eta arratsalde artan ta gau berean Plazari laga zion pakean, bretxan illik gelditu ziran Kapitanak jasotzera ere ausartatzen etzala.

Franzesak bere asalto portitzakin plaza barruko jendea estura larrian zerabillen egun berperetan Españako Errege Jaunaren gaztiguak izkribuz iritsi ziran Gaztelako Almirante, eta Marques Velezkoagana, arras mindurik esaten zielarik, ezen, bereal bereala etsaiari gogorki erasorik, laguntza eman zekiotela Ondarribiako plaza balio andikoari, zeña gordetzeagan zegoen España guztiaren zoriona. Begira zezatela ondo, plaza maitagarri au Franzesak bereganatzearekin zenbateraño indarrak artuko lituzkean; baita ere beste Probinzia asko irikiak daudenak zer buruzpidetan arkituko lirakean, eta Españako Jaun ta jabe eta Buruzari aurrenengoa dan bezala, bere al izate andiaren bidez agintzen dabela eraso dekiotela etsaiari ill edo bizi ordurik galdu bage; eta baldin ez bazuten egiten berpertatik ark agindu bezala, etzirala entzunak izango asmau al zitzaketekean aitzaki edergarri eta apuko estalgarriak.

Almiranteak eta Markesak artu zutenean Erregeren aginde aiñ zorrotza, larritu ziran lazki, eta begien aurrean zekutsaten eragozpen gogor ta pelleburu andiaz oroitu ere bage, erabaki zuten garbiro, eraso bear ziotela etsaiari bigaramun goizean goiz, zeña zan agorrillaren zazpi-garrena Ama Birjiñaren jaiotzako mezpera eguna, beraren laguntza andiaz kontatzen ere zutela. Esan ta egin, nor, nondik, eta zer gisatan Franzesari ekin bear zitzaiozkan aginde zuten egokiak beren martiziti



osoari emanik, goiz artan eguna argitzearekin bat batean eraso zioten etsaiari portizki, goaltsu, eta erru andian txit, Jaizkibel mendian, Irun-aranzu inguruan, eta Ondarribiako ondoan gordegarrri egiñak zeuzkan jarleku guztietan. Ain zorrotza ta uste bagekoa Franzesarentzat izandu zan batetako sarrera gogor izugarri au, non arkitu zan itsumusturik zer egin eta zeri ekin etzekiela. Lendabiziko topoz topoan nai zukean gogor egiñik bere toki artuak gordetzea, eta asi ziran agintariak soldaduak dea-darka alaiturik pizkor erazo naican; bañan ikusirik Almirantearekin Marques Velezkoaren gudariak leoi amorratuen gisa su ta gar beroturik zetozela berai erasotzera, bidean ta gordeleketan billatzen zituzten soldaduak garaituaz, puskatuaz, eta illaz, kuartelik iñori ere ematen etziote-la, arras beldurtu eta erkundurik, eman zioten igesari beren Erri alde-rontz, armak, musketeak eta pikak eskuetatik erorten zitzaiztelarik bidean amillka.

Principe de Condé, Valetako, eta San Simongo Dukeak, Forzako, eta Jebreko Markesak, Agraneko Kondea, eta Arzobispo Burdeoskoa, zeintzuk ziraden Franzes martiztiaren buruzari aurrengoak, arkitu ziranean estura larri ezin geiagoko artan, ikusirik beretarontz gure soldadu errutsuak bata bestearen leian zeramaten lasterra, ezagutu zuten fite galduak zirala arras, eta beren arma, bagaje ta ondasun guztiak bertan utzirik, zorabiratu ta naspillatuak gabarraetan amillka sarturik, igaro ziran nolapait Zokoa deitzen zaion Ziburuko portura. Jazarra onetan gelditu ziran milla ta bost eun Franzes illak, eta itoak bi milla erriberan, zergaitik samalda ugaria beldur andiarekin igesi zijoalako lasterrago billatzen zeban illtokia, gordelekua baino. Franzes martiztiaren beste zatia gau artan biurtu zan bere Errira, Mendelo, ta Irun-aranzunen zeuzkan kuartelen babesean, Beobiako atakatik, zeñetatik egun batzuez lenago sartu izan zan Gipuzkoara, Ondarribia fite menperaturik, España barrara zuzenean jarritzeko asmo oso betean arroturik, ustela irten bazitzaion ere bere ustea.

Gauza ziertorotzat oi dago, bada, baldin D. Pedro Giron bere jendearekin agindua izan balitz Irun-aranzun inguruko kuarteletan arkitzen ziran Franzesai igesbidea epaiteko, izango zala arrigarritzko illtkintza eta odol askoren garaitpena; bañan etsaiaren batetako igeste au izanik uste bagekoa, etzitzaion iñori gogoratu, aiñ urgullutsu Ondarribiari erasotzen gau ta egun ordurik galdu bage ari zitzaion indar andiko etsaia, beingoan erkindu ta guztiari lagarik abiatu bear zebala Franziera sudurmintzak autsitzeko zorian itzul-amillka.

Utzi zituen, bada, Gipuzkoan ogei ta iru pieza artilleriako, berrogeita amar bandera ta geiago, bagaje osoa, bazka ta munizio guztiak.

Artilleriako pieza oen artean arkitu zan kanoi bat, zeña zan irabazitako guztietan oberena eta muniziorik andienekoa, berez kanoiaren egi-nera moldakaitzekoa bazan ere; eta zeuzkan letrak esaten zuten onela *Le Cardinal Richelieu, Ratio ultima Regum*; zeintzuetan adiarazitzen zuten, berak emandako guda bidebagekoa izateaz landara, izen onorezko onekin nai zutela beren gaiztakeria estali, eta ondorengoai erakutsi brontzearen gogortasunean ezarririk, despatak erabakitzeke zeukaten modua zala kanoia.

Gutziz balio andikoak ziran jazarra gogoangarri onetan etsaiari irabazi zitzaiozkan ondasunak. Gertaera au sinistatutzetik aiñ urruti zeuden Franzesak, ezik, etzuten igaro ezertxu ere Franziera beren buruak baizik, eta oek ere esan al guztien gañeko estura larrian armak botarik lasterka, utzi zituzten Gipuzkoan beren kanpo-dendak, eta arropa, pagamendu irikiak, dirua, zillarrerria, ta rekamara Principe de Condérena, eta osterontzeko andizki ta zaldunen janziak, alajak, paperak, Erregeren agindeak eta beste gauza balioso asko, zeintzuben bidez aberastu izan ziran soldadu anitz. Gertakari onetako naspilla eta atsegintasunaren artean, ikusten ziran Españako musketedunak Monsieurez ederki janziak kapote ta granazko kapa baliosoakin, saltzen ere zituztelarik ezer gitxiren truke. Gelditu ere ziran bi milla Franzes atzemanak, eta beren artean ofiziale asko ta jende banaan banakoa. Gureetakoak etziran iritsi euneta-raño illak, eta beste ainbeste erituak.

Etsaia arras banatu eta garaiturik, sartu ziran gure banderak Ondarribiara; non, guztizko ongietorri maitagarriarekin pozkida betean laztanduak izan ziran Gaztelako Almirantea eta Marques Velezkoa, beren martizti guztiarekin batean. Eta oek plaza barruan agiri agirian arkitzen ziran ausiabarra andiak ikustean, arri ta zur egiñik, alabatu zuten guztiak Gobernadore Domingo de Egiak bertako biztanle ta soldaduakin Erria gordetzeko artu zeban neurri egokia, eta etsaiari erasotzeko izan zeban erru andi parebagekoa. Begien aurrean zekutsaten, bada, argiro, edozein bretxa murruetan irikia zegoenetan igotzen zirala zaldizkoak ain aixa, nola ateak zabalik zeudela Erri barrura joango ziazketean. Nork neurtu al ditzake zuzenki, eta azaldu bear bezala, Ondarribiako jende leial errutsuak irurogei ta bederatzi eguneko ertsitu gogorrean nozitu izan zituen atsekabe, estura larri, eta gaitzbideak? Egun negargarri oetan Plazara bota izan zituen etsaiak amaika milla kañonazo ta geiago, eta laureun bonba; airatu zituen sei mina, eta zazpigarrena ere prestatu zeban su



ematea beste eginkizunik etzeala; iru asalto eman zituen jende guztia-rekikoak; irureun gizon ill zituen plaza barrukoak, milla ta zazpieun berari ill ziozkatenen ordaintzan. Kapitan, kabo ta soldaduak guztiz naitasun andiarekin jardun zuten plaza irazotzen gogoz ta portizki, beren semeak, emazteak, eta ondasunak gordetzeko bezin eresia eta arreta andiarekin; eta bertako jaiotarrak peleatu ziran, beren denpora guztian guda gogorretan soldadu ibilliak bazirakean bezalako trebande, pizkortasun eta garboarekin, non, egiazki ikusi izan ziran gizonakin batean emakume eta aur txikietarañoakoak etsaiari erasotzen beren eginak guztian, beldurren kutsurik bage. Ondarribiako biztanle bulardetsuak erakutsi izan zioten mundu osoari, nork bere jaioterria nola gorde bear daben, eta gogo sendoarekin etsaiari gogor eginak zenbat balio deban.

Franzia guztian zeukaten segurutzat Ondarribiako plaza berendutzea. Principe de Condé Buruzari martiztiarenak Irun-aranzungo Errian laga zituen paperen tartean arkitu zan, berari Cardenal Richelieuk aboztuko illaren ogei ta iruan izkribatutako karta, esaten ziozkalarik errazoi oek.

«Señor mío; tengo por tan importante el municionar y fortificar á Fuenterrabia luego que se hubiere tomado corno si se hubiese de volver á sitiar el día siguiente, que despacho al portador con cuarenta mil libras para emplearlas en este efecto, sin que se puedan divertir en otra cosa».

Eta kartaren azkenean esaten da onela;

«Es tanto el deseo que tengo de que Fuenterrabia se ponga en estado de no temer los esfuerzos que los enemigos podrian hacer para recobrarla, que envio al Señor Obispo de Nantes con un Ingeniero para hacer trabajar á prisa en ella, y para hacerla abastecer de todo lo necesario; y para que el dicho Obispo lo pueda hacer mejor, no tendrá otro cuidado, ni se meterá en otra cosa. Por la eleccion que he hecho de su persona, juzgareis el afecto con que cuido de las cosas que miran á vuestra reputacion y vuestra gloria».

Gauza begiragarria ta arritzekoa ere da txit, Ministro aiñ jakinti ernaiak dirutza au biraltzea guztia gure soldaduentzako; zeña oso osorik arkitu zan Principe de Condé Irun-aranzunen laga zituen ondasunen tartean. Eta ez da gitxiagokoa batere, Erljioaren kontra bidebagekiro Franzia ainbesteraño beroturik, Arzobispoak Jeneralakin, eta Obispoak langille-maisuakin hereje samalda andiak berekin zituzteta, Probinzia fededunetara etorriarik gaiztakerian ibiltea. Gauza egiazkoa da, bada, Obispo Nanteskoak Ama Birjiña egunean Ondarribiako Elizan predikua egiteko sermoia paperean ezarriarik buruz ikasia zeukala, plaza artuko zutelako uste oso bete betean; bañan beren gozo ta atsegiña biurtu zitzaizen garratz ta samiña.

Monsieur de la Forza hereje Kalbinistak aurreragoko egunetan euki zeban kuarteltzat Ama Birjiña Guadalupekoaren Elizatxo, eta bertan arkitzen ziran Santuen irudin guztiak erabilli zituen lotsabagekiro txit gaizki ostikopean zanpatuaz arrabia andiarekin, fede bageko desleialen gisa, eta beraren setako Apez batee sermoia egin zezala agindu ere zeban, deadarka esaten zebala itz oekin: *Que moriría ya contento de haber oído dentro de España su predica*. Gertatu izan zan, bada, sermoi au egin zeban Kalbinista Gipuzkoan atzeman gelditzea, eta ondo merezitua zan bezala, pozkida betean urkatu rik erreko zutena, nor zan jakin bagez zabarturik, bigaramunean bere burua ill edo bizi urari erasorik igaro zan Endaiara, beldur andia zeukana bezala; bai ta Monsieur de la Forza ere estura larri andian Franzia, ez sermoia entzundako pozkidaz, eta ez Ondarribia utzitako atsekabez; ezpada ill nai etzebalako, lenago baietz esaten bazeban ere.

Azaldu dedan modu berperean, Ondarribiako plaza berendutzean, España barrura aixa igarotzeko asmo oso betean arroturik, Gipuzkoako mugapean oña ifini izan zuten Franzes arraza guztia, batzuben ill, besteak elbarritu, samalda andia atzeman, eta gañerontzekoak beren armak ta ondasunai lagarik, estura larrian atxi atxika igesi biraldutakoan, Gipuzkoako Probinziak, Almiranteak, eta Marques Velezkoak gertakari balio audiko onen barri on pozkidatsua Errege Jaunari ematera biraldu zuten D. Bernardino de Aiala, Conde de Villalvako. Neurri bagekoa zan, bada, zoriontasun au entzutean Beraren Majestadeak artu zeban atsegintasun gozatsua; eta orobat Conde-Duque, Ministro guztiak, eta Gorteko andizkiak pozgarritu ziran txit asko. Madrilko Erriburu andian pozaren pozez zoraturik zebiltzen batetik bestera ezpata narrugorrikoakin deadarka, *viva el Rey, viva España*. Joan ziran Jauregira eta Beraren Majestadearen, ta Conderen gelaetan sarturik, etziran gelditu alik eta



beren Errege maitagarriaren arpegi alaia ikusi izan zuten arteraño; zeñean guztia zabalik arkitzen zan sar zitezen andizki lodi, eta me beeragokoen desberdintzari begiratu bage. Bereala leio guztiak bete zituzten argi izekiz; karrika guztiak josi ziran jendez, eta guztien biotzak zabaldurik, jarri ziran atsegintasun andian. Errege Jaunak eta Conde-Duquek gau berperean biraldu zioten Duquesa de Medinari albiste gozatsu au Marques de Aitonarekin.

Bigaramunean janzi zan Gorte guztia galaz, eta modu ezti andiarekin pozkida betean joan ziran Jauregira Ministro ta andizkiak Errege Jaunari bere esku biguñ indartsuan muñ egitera, zeñak arpegiera alaiarekin txit gogoz luzatu zien bere beso zabal maitagarria. Bereala lagunkida goienengo au guztia joan zitzaion Conde-Duqueri bera zegoen gelara, zeñari eman zituzkaten esker andiak eta asko, Ondarribiako plaza gordetzeko artu zituen bide zuzen egoki, eta egin izan zituen alegin ezin geiagokoen saritzat.

Gisa onetako zorientasun agirikoak eta garaitpen andiak iristeko izanik gauzarik oberena Erljio Santuari naitasun egiazkoarekin begiratzeten dioten Prinzipeak biotz garbiarekin Jaungoikoari laguntza eskatzea, gure Errege Jaunak agorrilleko Ama Birjiña egunaren bezperan komunio Santua arturik, agindu zeban, Gorte guztian eta osterontzeko tokietan erregutu zekiola debozio onarekin guztia dezakean Egille andi Zeru ta lurren Jabeari, Ondarribiako Plaza baliosoa gorde zezala arren ta arren, etsai amorratuaren atzapar garratzetara erortzen utzi bage; eta gai onen gañean itzegiten Conde-Duquerekin zegoela, esan ziozkan itz oek.

«Conde, hasta ahora he suplicado á nuestro Señor, que fuese servido que mis armas defendiesen á Fuenterrabia, y que nos diese luz, y medio para conservarla; ahora ya la he entregado toda á su Divina Magestad, sin quedarme con parte alguna de ella».

Biotz onarekiko eskaera bidezko au eta bere uste oso betea irten zitzaiozkan nai bezalaixen, bada, Erregek plaza Jaungoikoaren eskuetan ifini izan zeban une berperean, Jaungoikoa zegoen Ondarribiari kontu egiten, etsaiari erasotzen, Plaza eskudatzen, eta Erregeri ematen. Baldin D. Felipe IBgarrenak bezalako naitasunarekin Erljio santua maitatuko baluketeke munduko Errege ta Erregegai guztiak, ez lirake izango ainbeste guda odolgirodi, nola ikusten diran maiz aski bidebagekiro, pakean bizi bear luketekean jende ezaguerakoen artean.

Guztion Egille andiak Españako koroari egindako mesede andi onen saritzat, berari esker on ugariak ematera gure Errege Jauna zaldiz joan zan Ama Birjiña Atotxakoagana, Gorteko andizki guztiak, Conde-Duque, Cardenal Borja, Jaen ta Espinola lagun arturik, zeintzubei, eta Konsejukoai lendanaz igorri zien gaztigua bakotxari bat banaka, erabaki modu onetakoarekin.

«El suceso que Dios nuestro Señor ha sido servido dar á mis armas, habiendo los Franceses levantado el sitio de Fuenterrabia, le reconozco unicamente de su poderosa mano; y deseando que con demostraciones públicas se den gracias á su Divina Magestad por tan singular beneficio, á su bendita Madre, y al Apostol Santiago, de cuyo patrocinio esperé siempre esta victoria, he resuelto que todos mis consejos, cada uno en su día aparte, celebren fiesta en hacimiento de gracias en las Iglesias de Atocha y San Gerónimo, por la particular devocion que tengo á las Santas Imageries que hay de nuestra Señora en estos Conventos y en la Iglesia de Santiago, hallándose presentes en sus dias cada Consejo; y que en las mismas Iglesias se doten perpetuamente estas fiestas en sus octavas, aunque sin obligación de asistir los Consejos, para que mi reconocimiento á Dios de la misericordia que ha usado con estos Reynos, sea perpetuo, y se implore con toda humildad por la intercesion de su bendita Madre y del Apostol Santiago su auxilio y amparo. Tambien deseo que por todos mis Consejos en los dias de sus fiestas se funden perpetuamente el casar tres huerfanas, y el rescate de tres cautivos, buscándose medios de donde acudir á esto en memoria de favor tan singular, y con que espero se establecerá la conservacion y seguridad de mis Reynos. Y he mandado se lleve á la Iglesia mayor de Santiago una lámpara que perpetuamente arda en memoria de esta victoria, demas de las fiestas que se han de celebrar allí, como en las demas Iglesias de España. Fio de ese Consejo, que en la parte que le tocara obrará con el cuidado y afecto que acostumbra, y que lo dispondrá todo de manera, que se egecute



con suma puntualidad. En Madrid á 14 de Septiembre de 1638».

Gure Errege onaren liberaltasuna eta Erljioa izanik aih oso beteak, Ondarribiako biztanle maitagarriak amodiozko naitasun bero bizi gartsua arturik, beren leialtade piñ eta garbo andiaren saritzat eman zeban erabaki edo dekreto gogoangarri bat modu onetan.

«El valor, fidelidad y constancia de los de Fuenterrabia en la defensa de aquella Plaza ha sido tan grande, que por el eemplo se debe conservar en la memoria, encaminándose á su mayor beneficio las obras pias, que en nacimiento de gracias de la merced que Dios nuestro Señor se ha servido hacernos, he mandado se funden; y asi he resuelto que en primer lugar sean preferidas á todas, las hijas de Fuenterrabia para la colocacion de huerfanos; y ni mas ni menos en la redencion de cautivos los que fueren hijos de la misma Villa; en segundo lugar, las hijas de los soldados de las fronteras de Africa, y los que estándome sirviendo alli fueren prisioneros de Moros; en tercero hijas de soldados y marineros perdidos peleando, en la dotacion de huérfanos, y ellos en la redencion de cautivos, y en cuarto en ambos géneros entrarán criados de mi casa; en esta conformidad se declarará y egecutará. En Madrid á 22 de Septiembre de 1638».

Beraren Majestadeak agindu zeban bereala bildu zitezela batzarrera Ministroak eta Gorteko Andizirik aurrengoak, Plaza aih balioa zintzoro gorde zeban Ondarribiako Erriari eta bertako jende leialai legez ta bidez zor zaiozkaten mesede ta eskuerakutsien gañean itzegitera. Esan ta egin, gizon goienengo zentzu andiko oek Errege Jaunarekin Conde-Duqueren iritzi bide onekora gogoz jarririk, guztien artean erabaki zuten garbiro beste gauza geiagorekin batean, eskañi gozo maitagarri emen ezartzera noan oek Beraren Majestadearen izenean egitea, modu onetan;

Errege Jaunak lendabizi egin zion mesede Ondarribiako Erriari, Uriaren izen andiarekin goienengo mallara jasotzea, agintzen zebalarik deitu zekiola *La Muy Noble, Muy Leal, y Muy Valerosa Ciudad de Fuenterrabia*.

2. Eman zekizkiola eun milla dukat bera ongitu, zuzendu, eta bear bezala indarturik ifinteko.

3. Beobiako igarolekuan zegoen gabarra jarri zedilla Ondarribia aldetik; baita Alkate Kanporatzekoen edo aterazekoena ere.

4. Korreo nagusiaren lantegi Irun-aranzunen zegoena jarri zedilla Ondarribiako Urian, onen laguntzarako izan zitezten, are ematen zituen etekinak.

5. Elgoibarko Elizako Patronatoa emateaz egin zion mesede Ondarribiari, berrizaturik apaindu eta osterontzeko emankizunentzat betiko izan zezan.

6. Uri onetan gertatzen diran pena kamarakoak goza ditzala berak, auziak apelaturik Aditzaña goiagokoetara joanagaitik.

7. Jantzun zekizkiotela Uriari eta bertako biztanleai nozitu zituzten kalteak, eta beren alaja taaziendaetatik Plaza gordetzeko eman zituzten gauza guztien balioa; bai ta ere beren etxeak leneko oñean ifinteko bear zan dirua; eta biztanle bakotzak egin zezala izkribuz izandu zituen kalteen eskaria, eta oen ordaintzat gauzarik oberena berarentzako zer izan al zitekean; zeñari ondo begiratu ta bear zan moduan neurriturik emango zitzaion zegokion buruzpidea.

8. Eskaerarik iñork egin baino len eman zitzaiozkan Ondarribiako etxetar buruzari bakotxari bost milla sei eun ta amar marabedi Erregeren beingo eskuerakutsizat, izan zituzten gasturik bearrenekoen laguntzarako.

9. Plaza gordetzen ill ziran gizonen emazte alargun gelditu ziradenai eman zitzaien bakotxari emezortzi milla ta zazpi eun marabedi, preminarik estuenak ornidutzeko.

10. Alargun oek ifiniak izan ziran oñezko soldaduen listan, dotatzen ziralarik bizi ziran arteko, oei egunoro eman oi zaten sariaz.

11. Ondarribiako Plaza ertsitua egondu zan denporan illdako aitaen ume zurtzak baldin iristen baziran arma artzeko adiñera, eman zekiotela soldaduaren alojera, eta ezin bazkatu zitezkeanak baziran, sueldo bat jantzuteko ez buru guztiai ezpada etxetar bakotxari.

12. Baldin Ondarribiako biztanleen batzuben kontra gaiztakerien-gaitik badago erabakia emanik kondenatzen dirala pena kamarakora, eta justiziako gastuetara, barkazioa ematen zaiotela berai, parterren baten kaltean ez dala.

Guztien gañean, Errege Jaunak ondratu zeban Ondarribia, ezartera noan karta gozo pozkidatsu maitagarri onekin.



«EL REY. Concejo, Justicia, Regimiento, Caballeros Hijosdalgo de la muy noble y muy leal villa de Fuenterrabia; por lo que ha escrito el Almirante de Castilla en 7 de Septiembre sé ha entendido como despues de haber acometido al enemigo aquel día, fue nuestro Señor servido de dar tan feliz suceso á mis armas, que pudo aquella noche entrar en esa Villa, despues de haber rompido y puesto en huida al enemigo con grande pérdida de su gente, banderas, artilleria, municiones y bagage, con que salió esa Plaza del aprieto en que se hallaba, habiendo con vuestro valor resistido por discurso de sesenta y nueve días el sitio que puso sobre ella, llevando las incomodidades que en este tiempo se ofrecieron con tal bizarría, que sin reparar en las haciencias y vidas, mantuvisteis la reputacion de mis armas con la fidelidad que siempre lo habeis hecho, dando egemplo á todas las naciones vuestra constancia y valor, de que hare siempre singular estimacion, como merece servicio tan singular; pues en él consistió la gloria de tan feliz suceso. Y aunque todo viene de mano de nuestro Señor, reconozco la parte que en él habeis tenido, que es mui conforme á vuestras obligaciones; y asi lo manifestaré haciendolos grandes mercedes; y si bien tengo resuelo algunas, me direis las que se os ofrecieren, que sean de mayor conveniencia vuestra, para que tome resolucion en ellas; y desde luego ofrezco la pronta reedificacion de vuestras casas, y he mandado al Almirante me envíe relacion de lo que importa este gasto, para que se provea sin dilación, y que se dé á cada vecino por ahora el socorro que de él entenderéis. Tambien he mandado me informe los que se señalaron en esta ocasion, á quien se deban dar ventajas sobre cualquier soldado, por que tan buenos basallos queden remunerados, y haya memoria en todos tiempos de la fineza con que habeis perseverado y resistido en la oposicion del ejército del enemigo; pues hasta las mugeres acudieron á todo lo necesario, gobernándose con tal valor, que no escusaron las acciones de mayor riesgo, de que me doy

por muy obligado, y de lo mucho y bien que obrasteis en este sitio, así en daño del enemigo, corno en vuestra defensa, y es cierto no olvidaré el amor y perseverancia con que os habeis espuesto á la fuerza del enemigo, pues habeis tenido tanta parte en que mis armas conserven el crédito que han adquirido en todas partes y excusado otros inconvenientes. De Madrid á 15 de Septiembre de 1638.— Yo el Rey.— Por mandado del Rey nuestro Señor.— Don Fernando Ruiz de Contreras».

Konde-Duke jaunak ere, egun berean, ara nolako karta pozgarria izkribatu izan zion bere eskuz sobre-eskritorañoeko guztia Ondarriabiako Erriari.

«A la muy noble, muy leal, y muy valerosa villa de Fuenterrabia.

Su Magestad (Dios le guarde) escribe á Vm. dándole las gracias del valor y constancia con que se ha defendido en el discurso de tan largo sitio, de que se ha dado por muy servido, como lo mostrará en las mercedes que hará á Vm. y merece tan justamente, que serán mayores que su deseo mismo de Vm.; las cuales solicitaré yo con mucho gusto, quedando, contensísimo de este suceso, asegurando á Vm. que me tendrá siempre muy á su servicio, y tan suyo, que nada quisiera sino haber nacido hijo de esa Villa, pues ha sido la honra de toda nuestra nacion. Dios guarde á Vm. con la felicidad que deseo. Madrid 15 de Septiembre ele 1638 años.— Don Gaspar de Guzman».

Zer izango da, bada, gure Ama maita maitati Gipuzkoarekin beraren seme prestu leialentzako gauza ondra andiagokorik, atsegingarriagorik, eta pozkida beteagokorik, beren Errege oneski eta Conde-Duque aña biotz onekoagandik autormen gozo ezin geiagoko oek entzutea baino? Iñork ere ezin uka dagiozkakean onorezko janzi galoso oekin ederki apaindua arkitzen da, bada, Gipuzkoako Probinzia aspaldiko urteetan.



*Anziña anziñatik oi dago jarria,
Goieneko mallan Fuenterrabia,
Jatorritik dalako leial ta garbia,
Nork maitatuko ez du alako Erria?*

OGEIGARREN KAPITULUA

Milla ta zazpi eun eta emeretzigarren urteko gertakarien barria.

Izendatu dedan urte onetan etorri zan Franziatik Martizti andi batekin Duque de Bervich Donostiako ondoraño, Gipuzkoatarrak erdi ezjakinean zeudela edo bear bezala prestatuak arkitzen etziralak; zergaitik guda onen otsak etziraden izan aiñ aserretsua, nola lenagokoak, eta beragaitik jazarra onetan etziran gertatu, beste askotan izandu diran bezalako ausiabantza eta odol-ixurteak.

Gipuzkoako Probinziak uste bageko etorrera Franzesaren au jakin bezin laster ajindu zeban, Donostian murrupuan zegoen Korrejimenduko aditzaña bere gidari guztiakin igaro zedilla bereal-bereala Tolosara, egiteko andi oni zegozkion neurri egokiak, toki zabal iriki onetan, etsaiaren beldur bage artzera. Esan ta egin, bertako Sakristiara biribillatu ziran mugapeko Alkate guztiak eta erabaki zuten garbiro, Probinziako jendea aitarren seme osotoro irten zedilla, biziaren nekepean, etsaiari goien becan erasotzera; eta Errege Jaunari berpertatik eman zekiola aditzera, Gipuzkoak itsumustuan artu zeban asmo pseudo oiturazko au. Zeñean Beraren Majestadeari biraldu zioten gaztigu au izkribuz Don Joseph Areizaga Corralakoarekin, esaten ere ziotelarik, Probinzia onen egoitza negargarria esturarik larrienean arkituta ere, bertako jaiotar guztiak zeudela prest eta gogoz txit, beren bizi ta ondasunaz oroitu ere bage, aren Mesedea lanze gogor artan serbitzatzeko asmo oso bete betean. Karta onen erantzura, Errege Jaunaren izenean Cardenal Alberoni jaunak egiñik ekarri zeban Areizaga jaunak Tolosan jarria zegoen Gipuzkoako Batzar andientsuagana. Eta esaten zeban, guztiz naitasun andiarekin artu zebala Beraren Majestadeak Probinzia leial onen mandatu zintzoa, zeñagandik etzeban gitxiagorik uste; eta ikusirik bertako jaiotar erru andikoak arkitzen zirala etsaiari erasotzeko aiñ gogor jarriak, gelditzen zala ezin geiagoko atsegintasun betean pozkidatua, zergaitik bere aurreragokoetatik zekien ondo, Gipuzkoatarren leialtadea, pintasuna, eta garboa diradela aiñ gain-gañoekoak, nola iñork ere ez dituen berdindu izan gertatu zaiozkaten lanze estura larriko guztietan.

Errege Jaunaren amodiozko naitasun andi au irakurtean, esan al guztien gañoekoa zan, Gipuzkoako Batzar andientsuak artu izan zeban atsegintasuna; eta berpertatik bere mugapeko Erri guztiai adierazo zien,



zenbaterañoako kariñoarekin Errege Jaunak maitatzen deban Probinzia au, andizkatzen ere dituelarik bertako jaiotarrak ezin geiagoraño; eta beragaitik lanze estu artan egin bear zala iñoiz ere baino geiago, Franzesa leinbaitlen botarik geren bizileku goixoa garbiro gordetzeko.

Gipuzkoako Probinzia asmo sendo onekin bere prestamenetan ari zala, Duque de Bervich jaunak biraldu zion karta bat, Tolosan zegoen Batzar audientsuari, tronpeta jotzalle batekin, esaten ziolarik, ezen, Gipuzkoako Ekautu jaunak errendatu, eta obediturik aurkeztu zekizkiola denporarik galdu bage beren eskari bidezkoak egitetera, eta izango zirala amodioz entzunak eta ondo begiratuak; zeñari erantzun zion Probinziak bear zan moduan, ukatzen ziolarik garbiro errendatzea eta beraren menpean jartea. Bereala Errege Jaunari, eta D. Diego Alarcongoari eman zien aditzera Gipuzkoak, zer gertatzen zitzaion, nolako buruzpidean arkitzen zan, eta zer ames zituen. Ikusirik Beraren Majestadeak Probinzia onen leialtade pare bagekoa, erantzun zion naitasun andiarekin, ezen, etzedilla aiñ guztiz estutu Franzesaren orduko etorreraz, zeña biurtuko zan bere tokira denpora laburraren epean. Andik egun batzuetara jakin zeban Gipuzkoak, nola Duque de Bervich jauna arkitzen zan Franzia iraulteko asmoan bere martiztiarekin Marques de Silliren kontura kanpoa lagarik; aginde estua berari emanik, ezen, begira zegiola ondo Probinzia oni, eta beraren Fueroak gorde zitzala osotoro akatsik txikarrena ere egin bage. Markes onek, Bervichen esana zuzenkiro egiñik, Franzia joan bearra izan zebanean gaztigatu zion Gipuzkoari lendanaz, nola Probinzia onetatik bere Errira zijoan, eta guztiz asko naiko zebala, baldin beraren banderako soldaduetakorik igeska sakabatatzen bazan, bertako Errietan lekurik ez emateaz; zeñean ifinten zeban bere aldetik eginkizun onetarako kontu artzalle Monsieur Belrieu. Mandatu gozo pozgarritsu au artu bezin prest Gipuzkoako Probinziak bere mugapeko Alkate guztiak jarri zituen kontuan, baldin Franzes soldadu igestariarik joaten bazan beren Errietara, bereal-bereala atzemanik eraman zegotela Monsieur Belrieu jaunari.

Guziagoko bage biurtu ziran Franzesak beren tokira etorraldi onetan, iñoiz bezalako ausiabantza eta odol ixurterik egin bage.

*Guda au izan arren labor ta ariña,
Ezagutua dago Franzesaren griña;
Ez du atzo ta egun sartutako miña
Gipuzkoa betiko beretu ezina.*

OGEI TA BATGARREN KAPITULUA

*Milla zazpi eun laurogei ta amairugarren urtean Españarekin
Franziaren artean sortutako guda zeren bidez eta nola izandu zan
errazoa.*

Mundu iduripentsu onetan ezagutzen diran gauzarik oberen eta maitagarrienak iñoiz edo berriz neke askoren bidez ozta ozta igo izan badira goienengo mallara, eroriak izan dira bat-batean arras iñork ustetarik gitxiena dabenean. Ez da, bada, ikusten historian Agintza baten andizkatze ta atsegintasun beteak iraun izan dabenean berreun urte jarraituetan ausi bagetanik. Egia ziertoro au begien aurrean dakusku, bada, argi eta garbi, iñork ere ezin ukatu dagikean moduan.

Franziako Erresuma andia milla zazpieun laurogei ta bederatzigarren urtean arkitzen zalarik gai guztiaz orniturik ezin geiagoraño goratua; urte bereko uztaillaren amalagarren egunean sortu zan beraren mugapean zegarrera, iskanbilla ta genaste guztiz ikaragarria. Beren Errege Luis amaseigarrena eskubide guztiak kendurik ifini zuten bere etxetarrakin Parisen toki ertsitu batean, eta emendik igesi zijoala, Alemaniako ondora iristean atzemanik, kendu zioten bizia plaza agirikoan gillotinarean azpian milla zazpi eun laurogei ta amairugarren urteko illbeltzaren ogei ta bigarren egunean. Andik bereala orobat ill zituzten Erregiña, eta Erregeren Arrebak ere. Ondorean arrasatu zuten bakaronda edo monarkia. Esleitu zuten Talde-agintza eta jarri ziran agintari arki al zitezkean gizonik odolgirodienak; zeintzuek illerazo zituzten Erregeren aldedari guztiak. Ikaragarritzko gertakari onen bidez mindu zan lazki Europa guztia, eta Franzesa bere beldurrarekin asi zan jendea zabaltzen mugaurpe guztietara.

Gipuzkoako Probinziak ezaguturik Franzesaren asmo galgarriak, Españaren aurrenengo atakan arkitzen zan bezala, lanbide balio andiko oni begiratu izan zion urreratu baino lenago. Elgoibarko Errian egindako Batzar guztiakikoan itzegin zeban, bere mugaurpea gordetzeko lendanaz artu bear ziran neurrien gañean; baita gaztigatu ere Errege Jaunari, zer igarotzen zan, zer gertatu zitezkean eta Beobiako ataka indartzeko nolako premina zegoen, eta Gipuzkoa guztia arkitzen zala prest Beraren Majestadea serbitzatzeko, azkeneko odol malkoa ixurteraño. Egiteko au berpera Debako Batzarrean jardunik, berriztatu zion Probinziak Errege



Jaunari, bañan etzeban izan Gipuzkoak armatzeko ez agindurik eta ez baimenik.

Geroenean ere agindu zion Erregek Gipuzkoari, ezen, bertako jaiotarrak armaturik ifini zitzala prest, oitura dan bezala, etsaiari gogor egiteko. Bereala Probinziako Alkate guztiak Azkoitiko Errira biribillaturik, egin zuten Batzarra milla zazpi eun laurogei ta amairugarren urteko otsaillaren azkenengo egunetan, eta erabaki zuten, Beraren Majestadearen serbitzorako eta Gipuzkoaren gordegarri prestatu zitezela berpertatik lau milla ta sei eun mutil ezkongaiak, bereziturik iru zatitan, Probinziak deitzen zituen denporan berari leialkiro jarraitzeko egon zitezzen bear bezala irakasiak. Oen Sarjento nagusizat autatuak izan ziran Batzar berean Izquierdo, eta Irizar; eta gudari zegozkion eginkizunetarako Ekautu edo Diputazio berezitua ifini zeban Probinziak Hernaniko Errian. Gipuzkoak Azkoitiko Batzar andientsuan artu zituen neurri bidezko oek, eta beste asko aipatu bage lagatzen ditudunak, Errege Jaunak ontzat eman zituen atsegintasun bete batean.

Esan dedan urte milla, zazpi eun, laurogei ta amairugarrenaren marzoko illean, Españak eta Franzia agertaratu zioten guda alkarri. Bereala igaro ziran Irun-aranzungo mugara Erregeren soldadu-talde Gipuzkoako errietan zeudenak; baita Probinziako mutil prestaturik aurkitzen ziranen iru zatietatik aurrenengoa ere beren agintariakin; eta oek jarriak izan ziran etzauntzaz mugaurpeko baserri-etxeetan; zeintzuben mugako ibaiaren ertza zaintzen zuten aldizka Erregeren soldaduakin. Orobat egiten zuten serbitzo berpera, Españako lurlean zeuden bateria eta beste toki mugaurpeko guztietan, uraz Franzia aldera igaro bagetanik.

Jeneral Caro jaunak bere samaldako soldaduakin batean nai zituzkean eraman Gipuzkoako mutilak, Franzia lurrera egiten zituen sarraetan; bañan Probinziak erantzuten zion, ezin ausiko zebala Errege Jaunarekin egiña zeukan bainandea, eta an arkitzen zirala prest beren mugaurpeari eginal guztian kontu egiteko ill edo bizi. Bidezko errazoi indar andiko au bere arpegira ematean miñkaiztu zan lazki Jenerala; eta agindu zeban, ezik, Gipuzkoako irurki edo terzioai etzekiotea eman Erregegandik artzen zuten egunoroko ogia eta bitanza.

Bidebageko egikera onezaz arritu zan Gipuzkoa, eta bere mutillai gaztigatu zien, ezik, Jeneralak egindako laburtasunari begiratu bage jarraitu zegotela beren eginkizunari zintzoki alaitasun andiarekin, alik eta Probinziak beste gauzarik agindu arteraño. Alaxen egin ere zuten Gipuzkoaren seme obedituak beren Ama onaren esana, ibai ertzeko uberaetan ardura andiarekin kontu artuaz bear-ordu guztietan zuzenkiro.

Denpora onetan izan zan Irun-aranzunen ustekabeko alboroto bat iduripenezkoa. Nafarroako mendietan turmoitik ixluritako euri jasa andi baten bidez egiñeratutako ujolak Bidasoako ibaian zekartzien aritz ta pago oso andien burrundara eta ospe izugarria gau illun batean iduritu zitzaien Beobian zegoen guardiari, ezen, Franzesak zetozeala urean gabarrakin. Geiagoko bage asi zan deadarka laguntzaren eske, eta lanze aña estura larrikoan aurren aurrenengo iritsi ziran Beobiara Gipuzkoako mutilak. Jeneral Caro jaunak ikusirik oen azkardade, beldurbagetasun ta leialtadea, esker onak eta asko berai emanik begiratu izan zien geroztik lenago baino obeto.

Aipatua dagoen laurogei ta amairugarren urteko uztaillaren bigarren egunetan Gipuzkoako Probinzia batu zan Erreterriako Errira, Furoan ezarria daukan bezala, oiturazko Batzar guztiakikora; zeñetan itzegin zan ezagera andiarekin geldiro bertako terzioen buruzpidearekin, Jeneral Caro jaunak eskatzen zituen gauzen gañean. Eta Probinzia au beti nola izan ta izango ere dan Errege serbitzatzeko eta bere eskubideak gordetzeko aña zintzoa, zuzena ta leiala, ikusten zeban argiroki beraren terzioak etzeudela armetan ondo trebatuak, tropako soldaduakin batean Franzesari su egiteko atake andietan; beragaitik erabaki zeban Batzar andientsu ark, ezen, Gipuzkoako Erri guztien kostuz egiñeratu bear zala Batalloi bat, gordetzalle azkarren izenarekikoa, zazpieun ta berrogei ta amar gizonaz bertako jaiotarrakin, eta oek gudak iraun arte guztirako soldaduakin batean serbitzatzan jarriarik, terzioak biurtu zitezela beren etxeetara.

Probinziaren asma onarekiko eskaña ondradu au izandu zan Jeneral Carorekin Errege Jaunarentzako guztiz naierakoa, eta Beraren Majestadeak biraldu ziozkan Gipuzkoari, Batalloiko Agintarientzako bear ziran txartel edo patenteak.

Bereala ifini zeban Gipuzkoak esan dan Batalloia bertako jaiotarrakin, zeñaren agintari edo Komandante jarri zeban Teniente Koronel D. Juan Carlos de Areizaga, eta Sarjento nagusi D. Gabriel de Mendizabal, biak gudaritar onak eta ondra andiko gizonak, zeintzuben beren jendea-ri armen erabillera erakutsirik fite, jarri izan ziran egun gitxiren barruan Batalloiarekin erru andian etsaiari erasotzen, martizti osoa arritzen zan moduan, eta Jeneral Caro jaunari bere naikida betetzen ziotela, zeñak agirian alabatzen zeban Gipuzkoako Batalloia onore ta garboa guztiz asko.

Batalloi au, gelditu ere bage zebillen Bideaturekin Tellatuetagaiñ inguruko mendietan, estura larriko lanze eta irriskurik andienetan aurre-



nengo beti. Sarritango neke gogor eta pelea portitz askoren bidez gaixotu, elbarritu eta iltzen ziran Batalloi onetako anitz; zeintzuben ordañak ifinten zituen Probinziak bereala, bere seme leial errutsu bakotxari onza urreak amazapina, emezortzina, eta ojeiña ere emanik. Guztiz dirutza andiak eman bear izan zituzten Gipuzkoako Erriak, Batalloi indar andiko au bere oñean irozotzeko. Erri batena bakarrrik esatea aski da, beste gañerontzekoaz oroiturik ezagunmendura etortzeko. Oiarzungo Erriak Batalloi onetarako zituen ifini bearrak ogei ta zortzi gizonezko, eta oei beren sariak emateko, badakit iru milla ezkutu euneko lauen korrituan, beste bi milla euneko iru pagatzekoan arturik, gañera ogei milla erreal Erriko garien gordeleku edo positotik atera izan zituela, Errege serbitzatzarekin Gipuzkoari kontu egiteak atzerapenik izan etzezan.

Egiazki esan al guztien gañekoak ziran izatez ere Batalloi onek zera-mazkien neke gogorak, eta egiten zituen azaña andiak; zeintzuben bidez Jeneral Caro jauna zaletu zan, lenago ezertan etzeuzkan Gipuzkoako terzioaz, eta Probinziari izkribatu izan zion guztiz emekiro, ezen, Españaren mugako arraia gordetzeko arkitzen zala jende leialaren bearran, eta egin zegiola atsegin biraltzeaz beren Agintariakin lenago bezala etxeetara irauliak zeuden mutil ezkongaiak. Bereala Probinziak bere Erri guztiak deitu zituen Batzarrera bigarren aldian Azkoitiara; non erabaki zeban, aipatu dan urte laurogei ta amairugarrenaren azaro illaren azkeneko egunetan, terzioak mugaurpera joateko; zeintzuben abenduko illaren asierako egunetan jarri ziran prest Irun-aranzunen beren armakin, D. Esteban de Biguri, eta D. Luis de Oiarzabal Sarjento nagusi zituztelarik Izquierdo eta Irizaren ordean. Gizon ondra andiko oek biak terzioen Agintari bigarren aldian jartetik erretiratu ziran, ez, beldurriak eta desleialak ziralako, ez, etsaiaren kontra pelezteko gogorik etzeukatelako, ez eta ere, Errege Jauna eta Probinzia serbitzatzan beren biziak irriskuan ifintea damu zutelako, baizikan aurreragoko txandan Beraren Majestadearen Buruzarietatik ikusi izan zituzten begirune illun ta laburtasunen bidez, beren biotz nobleak minberatuak zeuzkatelako.

Otsaillaren bostgarren egunean Jeneral Caro zortzi milla gizonekin sartu zan Franziera Irun-aranzun aldetik; baita D. Jose de Urrutia Teniente Jenerala ere iru millarekin Berako ondotik. Sarrera onetarako eskatu zituen Caro jaunak mugaurpean zeuden Gipuzkoako Terzioak laguntzalle, Franzesari irabazten zitzaizkan gordelekuak desegindurik lur jo eragiteko; Españatarrik elbarritzen bazan Irun-aranzuna ekarteko, eta beste eginkizun anitz gertatu zitezketeketanarako estalkiaren azpian.

Esan ta egin, Gipuzkoako mutillak ziran balatardean Tellatuetako gañera aurrenen aurrenengo igorik Franzesaren bateriak artu izan zituztenak; zeñean azaña andi oni begira San Marzialko gañeti egon izan nintzan neu beste Gipuzkoatar askorekin batean pozkida bete batean.

Denpora onetan Jeneral Caro bere troparekin sarriro sartzen zan Franzia lurrera etsaiari erasotzera, eta beti Gipuzkoako batalloia aurretik zebala, zeñak nozitu zeban txit anitz; baita Probinziako Erri leialak ere au bere oñean irozotzen. Jazarra gogor oetako batean eritua izandu zan grabekiro batalloi beraren Agintari D. Carlos de Areizaga.

Modu onetan estura larriko lanze asko igaroaz iritsi ziran laurogei ta amalagarren urteko marzoko illera. Egun beretan Franzia aldetik zetozen barriak etziran naigarriak; zergaitik ikusten ziran Rosellon, Vende, Bretaña, eta leku askotatik republikanoak zekaztela soldadu talde andiak Gipuzkoako arraia ausitzera.

Atsekabezko entzueran minkaitz onekin arkitu zanean Jenerala, gazitatu zion Probinziari biraldu zitzala iru terzioak batean bere mugaurpeari kontu egitera. Bereala Gipuzkoak bere mugapeko Erri guztiakin egin zeban Batzarra Donostiako Urian, eta erabaki zeban, terzio guztiak osotoro berperetatik aurkeztu zitezela Irun-aranzungo arraira, eta baldin lanze gogorragoa iristen bazan, Gipuzkoako biztanle guztiak aitarren seme irteteko etsaiari erasotzera, aitzakiarik entzuteko lekurik ifiori eman bage.

Batzar andientsu onek agindu bezalaixen jarri ziran iru terzioak beren mugaurpeari kontu egiten, tropako soldadu ta oen Agintariak begiratu onik egiten ezpaziezaten ere Españatar garbi Euskaldun prestu beren anaia maitagarriai. Gisa onetan despita bidebageko galgarriaz atsekabeturik erretiratu zan Jeneral Caro uztaillaren erdian, bere ordeze Marques de Castelar utzirik, alik eta Conde de Colomera Nafarroako Erregeorde eta Pirineoetako martizti guztiaren Buruzaria etorri zedin bitartean.

Uztaillaren ogei ta bostgarren egunean goizeko bederatzi orduetan Gardeko mendia igarorik jatsi zan Españako soldadu bat igeska Oiarzuna, zeñak ekarri zeban barria Franzesa Beran sartu zala. Bereala jakindu zan beste anitz estura larrian zetozenetatik, Baztango Ibarren jabe Franzesa egin zala.

Oiarzungo Ibar leialak atsekabezko barri minkaitz au entzun bezin laster ezkillak errepikaturik batu zeban bere mugaperko jende guztia pillota jokuko plazara, eta emen, aitarren seme irteteko nori bere izenak izkribuz artzen ari zirala, etorri zitzaien Farnesioko soldadu zaldizko bat



Jeneral Castelarren pliegoarekin, non esaten zeban, ezik, Oiarzungo jende gudaria igaro zedilla bereal-bereala Igerko Gaztelura, Suizoen Brigadier ta Koronel Redin jaunak agintzen ziotena egitera. Mandatu onen bidez Oiarzungo gizon ta mutilak, txiki ta andi, zar ta gazte, arma jaso al zezaketekean guztiak etsaiari erasotzera joateko prestatzen ari zirala, jatsi ziran Nafarraldetik mendiak beera igesi Oiarzungo Elizaldera iru milla Españaatar soldadu tropakoak beren Agintariakin arratsaldeko zortzi orduetan; eta oei beren janari ta etzauntzak zuzentzen zebiltzala ikusi ziran gurdidi talde luzeak kanoi, kartutxo, eta beste gauza asko gudarako bear diranakin beteak Irun-aranzundik erretiraturik, Gipuzkoa barrura zijoatzela, zeñean ustebageko ikuskari onezaz arriturik zegoen, batez ere, Oiarzungo jendea.

Bigaramun goizeko ordubietan Irun-aranzundik etorri zitzairen ordena bezpera arratsaldean Nafarraldetik jatsitako soldaduai, ezik, bereal-bereala aurkeztu zitezela mugaurpera guztiak osotoro; eta oei jarraio joan ziran berreun gizonezko Oiarzungo jaiotarrak armaturik Igerko Gaztelura, Jeneral Castelar jaunak esan bezalaixen, Redinek agintzen ziena egitera. Lagatu ere zituzten Errian beren lagun asko armatuak, bertako etxe eta biztanleen gordegarri ta laguntzalle, Españaoko tropatik igesturik litxarrerian zebiltzan soldaduai beren asmo galgarriak eragozteko, eta bear orduan deitzen zitzaioten tokira etsaiari erasotzera joateko.

Izendatu ditudan berrean Oiarzuntarrak Igerko Gaztelura iristean, Redin jaunak begirune alaiarekin begiraturik, egin zien berai ongietorri guztiz maitagarria, esaten zielarik, ezen, atsedean zezatela donarioz egun artan, zeña zan uztailaren ogei ta seigarrena. Bañan estutasunak bearturik jarri ziran arratsalde berean Bidasoako ibaiaren ertzean berari konta egiten, Franzes baterien aurkez aurke, eta oek sutan gelditu ere bage ari zirala, egon ziran bertan garbo andiarekin bigaramun goiz arterañoko guztian, alderatzen zitzaiozkaten etsaiari tiroka erasoaz. Ikusirik Redin jaunak Gipazkoatar etorberri oen ausarzi ta pizkortasun aini arrigarria, biraldu zien berai egun artan Igerren ondoko baserri-etxe batera, bere errejimentuko lau soldadurekin txaal bizi bat, eta zagi-ardoa, beraren ize-
nean jan ta edan egin zitzaten.

Jeneral Castelar jaunak jakindu zebanean Franzesa sartu zitekeala aixa Baztan aldetik Oiarzungo mendiak barrena, agindu zeban, ezik, berreun Oiarzuntar oek, terzio ta beste laguntzarik bage joan zitezela beren Erriko mendietara, eta jarri zitezela Aritxulegi eta Biandiz bitartean Franzesari kontu artzen. Oiarzuntarrak beren Erriko mendi Aritxulegikora, Jeneral Castelarek agindu bezala, iritsi ziradenean, lagun-

tzalle joan zitzaiozkaten Andoaingo, Urnietako, Hernaniko, eta Astigarragako gizon ta mutilak armaturik; bai ta tropako miliziano bana-ka batzuben ere Marques de la Romana buruzari zutela.

Uztailaren ogei ta zortzigarren egunean Lesakako D. Ignazio Jazinto de Aldunzin Apaiz Kapillaua etsaiaren igesi etorri zan Oiarzunga, eta onek soldadu Baigorritarren agintariari entzundako barria ekarri zeban, ezik, Franzesak zebala asmoa egun beretako batean atakatzeko Españaoko tropa, Beobiatik, eta Baztan aldetik mendiak beera Oiarzunga jatsirik erdian artzen zutela. Alde aurrez artutako barri balioso au gazti-gatu zitzaion berpertatik Sarjento nagusi Oiarzabali, eta D. Ramon Maria de Moya Konsultore Probinziakoari, baita oek ere denporarik galdu bage Jeneral Castelar jaunari eta Diputazioari; zeñak ordurako emanik zeukan ordena Gipuzkoako Erri guztietara, aitarren seme armatzeko. Bigaramun eguerdirako, zeña zan uztailaren ogei ta bederatzigarrena, etorri zan Kolomera jauna Irun-aranzuna, eta jarri zan Arbelaizen etxean Caro Jenerala egondako leku berperean.

Urrengo egunean etorri ziran zortzi milla gizon Irun-aranzundik Oiarzunga, gau hura bertan igarorik bigaramun goizean, zeña zan uztailaren ogei ta amaikagarrena, Aritxulegi mendira igotzeko asmoan; bañan abiatu bezin laster, euri jasa andi bat asi zalako aitzakian biurta ziran osterira Oiarzunga.

Abuztuko illaren lendabiziko goizean txit goiz Franzes martiztia asi zan mugitzen, eta atakatu zituen Españaoko soldaduai, Aldunzin Lesakako Apaizak esan zeban toki berperatik, eta batez ere Bidasoako ibaiaren me-une eta zubitik, zeña utzi izan zuten Españaoko soldaduai osorik, desegitea gogoratu ere bage. Alde bietatik beingoan erasotako estutasun onetan, guztia zan iskanbilla, zegarrera, ospea ta naspilla. Irun-aranzungo bateriak tiratzen zuten erruz; bañan etsaia nondik nora zebillen bear bezala ikustea bisuts ta laño itxiak eragozten zutelako, ezin izan ziran baliatu nai zuketeketan bezala. Nazako aldean zeuden Suizoak eta terzioak iru aldiz eragin zioten esti alde artatik zetorren Franzes samaldari; bañan laugarren ekinaldian, etsaiari indar berriak laguntzalle etorri zitzaiozkalako, izandu ziran menzutuak; errendatu ere zituzten armak Suizoak, bañan ez terzioak; zeintzuben beren aekin lasterrean joan ziran, ibai ertzean, tiroka bizi bizi ari zirala ikusten zituzten anaia maiteai laguntzera.

Españaoko tropa, ezin zezakeala deus egin etsirik, erretiratzen asi ta geroz, Gipuzkoako mutilak bakar bakarrik ari ziran Franzesari su egiten, zer irriskutan zeuden ezagutu bage, alik eta aurrealde ta espaldatik etsai



talde andiaz inguruturik beren buruak ikusi zituzten arterañoako guztian. Eta orduan, zegoanari zegoen lekuan lagarik, beren azkardade ta pizkortasunaz fio ziralako, aldondu ziran Ietegi ta menditarreak barrena batzuek Oiarzuna, eta besteak Lezora. Orobat egin zuten Igerko gazteluan zeudenak.

Tropa adrertuak samaldaka zijoatzen bide andian Oiarzundik gora Hernani alderontz. Oetako batzuek zetozen etsaiari noizik beñ arpegi emanaz; eta berriz beste asko, etxeetan sarturik kutxa, armario, eta osterontzeko gordeleku guztiak puskaturik beretan arkitzen zuten gauza onarkia lapurtzen zutela, eta bidean topatzen zituzten aur txikienerañoakoi ere, diru ta janziak kentzen ziezatela, beste gaiztakeri asko egiñaz. Eta oraindik are mingarriagoa zan gaizgille biurri oen abotik enzutea, ezen, pozkida bete betean zijoatzela España barrura, Franzesaren menpean Gipuzkoa ikusten zutelako. Zeñean, Oiarzundik goragoko etxe batean arkitu zuten guztia ebatsirik zijoatzela, gisa onetan mintzotu zan soldadu bati bertako mutil gazte batek burduntzia tripatik sartu ta espaldan igarorik, leiotik saltaturik iges egin izan zien. Nai zuketekean etxe au erre, bañan etzuten izan betarik. Nork sinistu bear zeban, bada, Españaiko arraia gordetzera etorritako soldadu erritarkiak izan bear zutela aiñ esker gaiztoko billau odolgirodiak?

Aritxulegi mendian zegoen jende apurrak ere lendabiziko atakan izan zeban erretiratu bearra, Franzes martizti ikaragarria goizeko sei orduetan gañera sartu zitzaielako. Itz batean, Hernaniz beetiko Erri Gipuzkoakoak gelditu ziran Franzesaren menpean. Erri oetako jende bikaiñ arki oña jaso altzezan guztia, beren etxe ta bizimoduai lagarik, irten zan Goizueta, Arano, Tolosa eta Azpeiti alderontz.

Franzesa Irun-aranzunen sartu bezin laster sakabanatu zan Españaiko tropa beren buruzaririk aurrengoetatik; eta Jeneralak aboztuko illaren irugarren egunean Tolosan, ozta ozta biribillatu zituen lau milla soldadutaraño. Oek egin zituzten iru edo lau irteera Billabona alderontz iduripengarri, bañan bereala igaro ziran Tolosatik zuzenean Nafarroara, Gipuzkoa buruzpide negargarrian lagarik.

Probinzia leial aiñ maitagarria arkitu zanean Españaiko martiztiagandik laguntzarik bage gaztigatu zion Errege Jaunari, zer igaro zitzaion, nolako egoitza estura larrikoan arkitzen zan, eta Beraren Majestadeak esan zegiola zer bide artu bear zeban. Erantzun zion Erregeren izenean beraren Ministro Duque Alcudiako jaunak, ezik, Gipuzkoako Probinziaren leialtadeaz esker ondua arkitzen zala Beraren Majestadea,

eta egin zezala egiñal guztia, edozein moduz, bere mugape goixoa garbiro gordetzeko.

Bereala Gipuzkoa batu zan Batzar guztiakikoa egitera aboztuko illaren amalaugarren egunean Getariako Errira, D. Fernando Jose Romero ta Etxabeko jaun Diputadu nagusi orduan zegoena bertan arkitzen zalako, zeña zabartu bagetanik asi zan egun oetan Errege Jaunarekin Probinziaren serbitzorako bear ziran zuzenbideak artzen, Arabako Probinziari, eta Bizkaiko Jabedeari laguntza eskatuaz, laka andirik atera ezbazeban ere, Franzesa alderatuko etzitzaiotelako uste oso betean.

Batzar andientsu au egin zeban Gipuzkoak Franzesak zekiela; zeñari adierazo zioten aldeaurrez, egin bear zutela guda kaltarkitsu onen zuzenbidea, beren Fuero onetsi maitagarriak osotoro gordetzen zituztela, al zitekean modurik oberenean. Probinziaren asmo bidezko au ontzat eman zeban Franzesak; eta Batzarrak lendabiziko egunean izendatu zituen bere arteko gizonik jakintienak, eginkizun balio andiko au zer gisatan antolatu al zitekean beren iritzia ifinteko. Bigaramunean irakurri zan Batzarrean Jaun oek izkribuz egiten zuten azaldurea, zeñari guztiak oniritzi eta gorpuz bat egiñik biraldu zioten Ekautu edo Diputaduakin Franzes Agintariari; eta onek Probinziaren eskaririk geienak ontzat ematen bazituen ere, laga zituen beste zenbait gauza bear bezala erabaki bage.

Gipuzkoako Probinziak, bere gauza guztiak garbiroki nai zituenak bezala, igorri zituen Diputaduak ostera Franzesagana, onek illunpean utzitako gauzen argitasunaren billa; bañan ekarri zuten barria, ezik, Pinet Agintaria bere eginkizunetara joana zalako, luzatuko zebala erantzuerak egun batzueban. Beragaitik Batzartar jaunak nor bere etxeetaratu ziran, alik eta Diputazioak berriz deitu arteraño; eta izan ziran otsegiñak berriro aboztuko illaren ogei ta bostgarren egunerako leneko Erri Getariakora.

Egun berperean Batzar guztiakikoa irakurri izan zan Pinetek Gipuzkoako Probinziari egiten zion erantzuerak; zeñetan ifinten zituen gauza batzuek Gipuzkoak ontzat ezin artu zitzaiekanak, esaten zebalarik, ezen, ogei ta lau ordu barru eman zekiola berari aditzera, Probinziak zer asmo artzen zeban aren Agindearen baitan.

Batzar andientsu au arkitu zanean Pineten aginde gogor aiñ epe laburrekoarekin, itzegin zeban bere artean, ezik, luzapenaren aitzakiarik izan etzedin, erabaki bear zutela itzbide balioso au bigaramunean zuzenkiro. Bañan etzuten izan lekurik, zergaitik goiz bereko sei orduetan



Batzartar jaunak beren ostatuetan zeudela arrestatuak izan ziran Pineten aginduz, Franzes talde andia gauaz ixilik apropos Getariara etorririk.

Berpertatik, ezertarako ere betarik eman bage ekarri zituzten Hernanira, non igaro zuten illaren ogei ta seigarren gaua. Emendik eraman zituzten urrengo gauerako Done Juaneko Errira, eta andik bigarar mun eguerdirako, zeña zan aboztuko illaren ogei ta zortzigarrena, Baionako Gaztelugaitz edo Ziudadelara.

Itxitegi iraingarri onetan sartu zituzten, bada, Gipuzkoako Batzartar jaun prestuak, munduko gizonik biurrien ta errebesenak bazirakean bezalako gogortasunean, zeren bidez eta zertara zeramazkitenik aipatu ere bage; bañan egun gitxi barru Pinetek eman zeban argitara paper moldizkidatuan, esaten zebalarik, ezen, Gipuzkoako Diputazioa, bere mugapeko jaiotarrak armaturik, Españako tropa ugaritu bitartean, saldukeriaz luzaerazo naican zebilkiolako oarturik, arrestatu izan zebala bertako Batzar osoa Baionako ziudadelara.

Denpora onetan guztiz barri txarrak zetozen Franziatik Gipuzkoako Batzartarrentzako. Aoa bete betean esaten zuten, bada, ezik nai zutela Pinetek, eta Cavaignactek Gipuzkoatik eramandako Batzartar guztiak baionetaz josirik bertan lagatzea; eta baldin Robespierri bizia kendu izan ez balio gillotinaren azpian egun aetan, alaxen gertatuko ere zala. Bañan gizon urguloso odolgirodi au, esan dedan gisan illik, beraren orde moderatzalleak Agintari jarri izan ziralako edo beste zuzenbideren batez, Gipuzkoako Batzartar jaunak urte bereko urri illaren zortzigarren egunean presondegitik libre ifini eta pasaporteak emanik biraldu zituzten beren Errietara, zeintzuben izenak eta bizilekuak ezarriko ditudan emen bat banaka.

Donostiakoa: D. Fernando de Garaioa.

Tolosakoa: D. Juan Ignazio de Amiama, eta D. Juan Aszensio de Garagarza.

Azpeitiakoa: D. Franzisko de Enparan, eta D. Antonio de Urdapilleta.

Azkoitiakoa: D. Jose Joakin de Iturbe.

Segurakoa: D. Jose Luis de Agirreburualde.

Bergarakoa: D. Jose Franzisko de Moya.

Debakoa: D. Jose Joakin de Ormaetxea.

Motrikokoa: D. Juan Bautista de Andonaegi.

Getariakoa: D. Juan Bautista de Elizondo.

Ondarribiakoa: D. Rafael de Kaikuegi.

Errenteriakoa: D. Fermin de Iparragirre.

Villafrancakoa: D. Martin de Berroeta.

Zestoakoa: D. Juan de Irure.

Zumaiakoa: D. Jose Manuel de Alzolarai, eta D. Pedro Ignazio de Zinkunegi.

Zarauzkoa: D. Lorenzo de Asteasuinzarra.

Hernanikoa: D. Jose Antonio de Zabalo ta Agirre.

Andoingoa: D. Juan Bautista de Argote.

Berastegikoa: D. Martin Jose de Garziarena.

Elduaiengoa: D. Migel Joakin de Agirre.

Beasaingoa: D. Jose Hilarion de Maiz.

Asteasukoa: D. Jose Antonio de Zabala Konporta.

Billabonakoa: D. Martin Jose de Ameztai.

Albisturkoa: D. Franzisko Ignazio de Etxabe.

Alkizakoa: D. Jeronirno de Alkizalete.

Alegeriakoa: D. Pedro Joakin de Berakoetxea.

Ataungoa: D. Juan de Arrondo.

Idiazabalkoa: D. Blas de Oiarbide.

Oriokoa: D. Jose Antonio Azkue.

Usurbilkoa: D. Martin Jose de Iarza.

Oiarzungoa: D. Ignazio Bizente de Sarasti.

Abalzizketakoa: D. Migel de Barriola.

Pasaikoa: D. Juan Jose de Kasares.

Gainzakoa: D. Juan Bautista de Olano.

Probinziaren konsultore Don Ramon Maria de Goia, eta Don Joakin de Mendizabal, eta Sekretario Don Domingo de Egaña.

Jaun prestu maitagarri Gipuzkoaren gordetzalle oek beren Errietan ikustean, bertako biztanleentzat izandu zan atsegintasun bete ezin geiagokoa. Bereala Franzesaren menpean etzeuden Errietako Buruzariak Batzar guztiakikora biribillaturik egiñeratu zuten bigarren batalloia bertako jaiotarrakin; eta izendaturik ifini ere zuten Diputazio berria, Fueroari dagokion bezala. Zeintzuben ongi armaturik joan ziran Billarreal, Bergara, eta Elgoibar inguruan arkitzen ziraden soldado Jeneral Rubiren tropakoetara, eta andik laster, Jeneral Cresporenetera. Gipuzkoako batalloi berri onek lendabiziko sualdian Franzesari Sasiolako ondoan eman izan zion astinaldia, guztiz izandu zan gogorra ta andia.



Gipuzkoatarrak modu onetan Franzesari erasotzen or emen kiski kaska asi ziradenean, Bizkaiko Jabea eta Arabako Probinzia ernaitu ziran, noizbait bear ta, etsaia urreratuaz zijoakiotela ikustean, eta lenago Gipuzkoako Diputazioaren gaztiguaz jaramon andirik egiten ezpazuten ere, Franzesa ogei leguaz urruti zegoelako, gero artu zuten asmo sendoa, beren Errietako jendea armaturik Aizpa maite Gipuzkoarekin batean etsai iguindua lenbaitlen botatzeko. Bañan Españako troparen Buruzariak beste bideren baterako aginde ta ideak zituztelako, erretiratuaz zijoatzen Gaztela alderontz iru Probinzia oetan jostatzen Franzesari lagarik.

Buruzpide negargarri onetan Gipuzkoa arkitzen zala, eta batez ere Franzesaren menpean zeuden Errietako jende leial urrikigarria, aboztuko illaren irugarren egunean arratsaldeko lau orduetan, zeña zan San Esteban Protomartir Oiarzungo Santu Godartari edo Patroiaren eguna, Erri onetako jendea bezperak emandakoan Elizaldeko plazan zegoela, ikusi zan Franziatik zetorrela oi ez bezalako korreo bat, bera eta beraren zaldia erramu-besanga ostodunakin beterik pozkidaz oju egiten zebala *Pakea Pakea*, zeña sartu zan bertako posta-etxean. Bereala Alkate ta Andizkiak joan zitzaiozkan galdetzera zer barri zekarren, zeñak eranzun zien, ezik, Franziarekin Españaren arteko pakea egin zala Baléne (Basilea) uztaillaren ogei ta bigarren egunean, Paristik Baionara apropos biraldutako korreok segurutzat adierazo zebanez; eta gaztigu pozkarri onekin zetorrela bera, Españako lurrean arkitzen ziraden Franzes tropai albiste gozo au ematera.

Bereal-bereala, ixil mandatari Oiarzunen ifiniak zeudenakin, igorri zitzaizen atsejingarrizko barri balioso au Iruñeko Erregeorde edo Birreiarri, eta Gipuzkoako Diputazio berriari, zeintzuek illaren laugarren goizean goiz artu zuten pozkida bete ezin maitagarriagoa.

Andik egun gitxi barru Franziatik izan zuten Gipuzkoatarrak, pakea zer gisatan egin izan zan errazoia, modu onetan.

Tratado de paz.

Su Magestad Católica y la República Francesa animados igualmente del deseo de que cesen las calamidades de la guerra que los divide, convencidos intimamente de que existen entre las dos naciones intereses respectivos, que piden se restablezca la amistad y buena inteligencia; y queriendo por medio de una paz sólida y durable se renueve la buena armonía que tanto tiempo

ha sido base de la correspondencia de ambos Países, han encargado esta importante negociacion, á saber, Su Magestad Católica á su Ministro Plenipotenciario, y enviado extraordinario cerca del Rey, y de la República de Polonia Don Domingo de Iriarte, Caballero de la orden de Carlos tercero, y la República Francesa al ciudadano Francisco Barthelemi su Embajador en Suiza, los cuales despues de haber cambiado sus plenos poderes, han estipulado los artículos siguientes:

1. Habrá paz, amistad, y buena inteligencia entre el Rey de España, y la República Francesa.

2. En consecuencia cesarán todas las hostilidades entre las dos Potencias contratantes, contando desde el cambio de las ratificaciones del presente tratado; y desde la misma época, no podrá suministrar una contra otra, en cualquiera calidad, ó á cualquier título, que sea, socorro ni auxilio alguno de hombres, caballos, víveres, dinero, municiones de guerra, navíos, ni otra cosa.

3. Ninguna de las partes contratantes podrá conceder paso por su territorio á tropas enemigas de la otra.

4. La República Francesa restituye al Rey de España todas las conquistas, que ha hecho en sus Estados durante la guerra actual; las Plazas y Países conquistados se evacuarán por las tropas Francesas en los quince días siguientes al de las ratificaciones del presente tratado.

5. Las Plazas fuertes citadas en el artículo antecedente se restituirán á España con los cañones, municiones de guerra y enseres del servicio de aquellas Plazas, que existan al momento de firmarse este tratado.

6. Las contribuciones, entregas, provisiones, ó cualquiera estipulacion de este género, que se hubiese pactado durante la guerra, cesará quince dias despues de firmarse este tratado; todos los caidos ó atrasos, que se deben en aquella época, como tambien los billetes dados ó las promesas hechas en cuanto á esto serán de ningun valor. Lo que se haya tomado ó percibido des-



pues de dicha época se devolverá gratuitamente, ó se pagará en dinero contante.

7. Se nombrarán inmediatamente por ambas partes comisarios, que entablen un tratado de límites entre las dos Potencias. Tomarán estos en cuanto sea posible por base de él respecto á los terrenos contenciosos antes de la guerra actual, la cima de las montañas, que forman las vertientes de España y Francia.

8. Ninguna de las Potencias contratantes podrá, un mes despues del cambio de las ratificaciones del presente tratado, mantener en sus respectivas fronteras mas que el número de tropas, que se acostumbraba tener en ellas antes de la guerra actual.

9. En cambio de la restitucion, de que se trata en el artículo cuarto, el Rey de España por sí, y sus subcesores cede, y abandona en toda propiedad á la República Francesa toda la parte Española de la Isla de Santo Domingo en las Antillas, un mes despues de saberse en aquella Isla la ratificación del presente tratado, las tropas Españolas estarán prontas á evacuar las Plazas, Puertos, y establecimientos, que allí ocupan para entregarlos á las tropas francesas cuando se presenten á tomar posesion de ella.

Las plazas, puertos y establecimientos referidos se darán á la República Francesa con los cañones, municiones de guerra, y efectos necesarios á su defensa, que existan en ellos, cuando tengan noticia de este tratado en Santo Domingo.

Los habitantes de la parte Española de Santo Domingo, que por sus intereses, ú otros motivos prefieran transferirse con sus bienes a las posesiones de su Magestad Católica, podrán hacerlo en el espacio de un año contado desde la fecha de este tratado.

Los Generales y Comandantes respectivos de las dos naciones se pondrán de acuerdo en cuanto á las medidas que se hayan de tomar para la egecucion del presente artículo.

10. Se restituiran respectivamente á los individuos de las dos naciones los efectos, rentas y bienes de cual-

quier género, que se hayan detenido, tomado ó confiscado a causa de la guerra, que ha existido entre su Magestad Católica y la República Francesa; y se administrará tambien pronta justicia por lo que mira á todos los créditos particulares que dichos individuos puedan tener en los Estados de las dos Potencias contratantes.

11. Todas las comunicaciones, y correspondencias comerciales se restablecerán entre España y Francia en el pie, en que estaban antes de la presente guerra hasta que se haga un nuevo tratado de comercio.

Podrán todos los negociantes Españoles volver á tomar y pasar á Francia sus establecimientos de comercio, y formar otros nuevos segun les convengá, sometiéndose como cualquiera individuo á las leyes y usos del país.

Los negociantes Franceses gozarán de la misma facultad en España, bajo las propias condiciones.

12. Todos los prisioneros hechos respectivamente desde el principio de la guerra, sin consideracion á la diferencia de número y de grados comprendidos los Marineros ó marineros tomados en Navíos Españoles y Franceses, ó en otros de cualquiera nacion, como cambien todos los que se han detenido por ambas partes con motivo de la guerra, se restituirán en el término de dos meses á mas tardar despues del cambio de las ratificaciones del presente tratado, sin pretension alguna de una ni otra parte, pero pagando las deudas particulares, que puedan haber contraído durante su cautiverio; se procederá del mismo modo por lo que mira á enfermos y heridos, despues de su curacion.

Desde luego se nombrarán comisarios por ambas partes para el cumplimiento de este artículo.

13. Los prisioneros Portugueses, que forman parte de las tropas de Portugal, y que han servido en los egércitos, y marina de S. M. Católica serán igualmente comprendidos en el sobredicho cange.

Se observará la recíproca con los Franceses apresados por las tropas Portuguesas de que se trata.



14. La misma paz, amistad y buena inteligencia estipuladas en el presente tratado entre el Rey de España y la Francia, reinarán entre el Rey de España y la República de las Provincias unidas aliadas de la Francia.

15. La República Francesa queriendo dar un téstiuonio de amistad á Su Magestad Católica acepta su mediacion en favor de la Reyna de Portugal, de los Reyes de Nápoles y Cerdeña, del Infante Duque de Parma, y de los demas Estados de Italia, para que se restablezca la paz entre la República Francesa, y cada uno de aquellos Principes y Estados.

16. Conociendo la República Francesa el interes, que toma S. M. Católica en la pacificacion general de la Europa, admitirá igualmente sus buenos oficios en favor de las demas Potencias beligerantes, que se dirijan á él para entrar en negociacion con el Gobierno Frances.

17. El presente tratado no tendrá efecto hasta que las partes contratantes le hayan ratificado, y las ratificaciones se cambiarán en el término de un eres, ó antes si es posible, contando desde este dia.

En fé de lo cual nosotros las infraescritos Plenipotenciarios de S. M. Católica, y de la República Francesa, hemos firmado en virtud de nuestros plenos poderes el presente tratado de paz, y de amistad, y le hemos puesto nuestros sellos respectivos.

Hecho en Basilea en 22 de Julio de 1795. Cuatro Thermidor año 5.º de la República Francesa (Lugar del sello). Domingo de Iriarte. (Lugar del sello). Francisco Barthelemy.

Fueron ratificados los diez y siete articulos de este tratado, á saber, por la Conveucion Nacional en 16 del Thermidor; y por Su Magestad Católica en 4 de Agosto de 1795.

La Plenipotenciaria del Rey nuestro Señor se dió en 2 de Julio, y la de la Junta de la Salud pública en 21 del Floreal (10 de Mayo) del dicho año.

La publicacion de la paz se hizo en Madrid el dia 5 de Setiembre del mismo año ele 1795.

Orra zeren bidez ta nola izan ziraden guda onen asiera, eta bukaera! Probinzia onek guztiz kalte andiak izan bazituen ere, beraren mugapeko Erri batzubetan Franzesak oña ifini zebalako, are miñgarriagoko atsekabeak eraman izan zituen, etsai iguindu onen sarreran, eta bera kanpora botatzen auzoak lagundu etziotelako, askotan oei berak lagundu izan dien bezala leialkiro eta portizki, anaiarik maiteenak balituzke bezalero naitasun egiazkoarekin. Guztiaz ere

*Gipuzkoan baziran Erriak txit asko,
Franzesak etzebanak bururikan jaso,
Gogor ziotelako beretan eraso,
Gorde izan ziranak garbi eta oso.*



OGEI TA BIGARREN KAPITULUA

*Milla zortzi eun ta zortzigarren urtean Napoleonek saldukeriaz
Españan sortu zeban guda kaltarkitsu bidebagekoaren azaldurea.*

Gure Errege maite maitagarria Karlos laugarrenak bere seme nagusi Fernando zazpigarrenari España guztiko agintza, eskubideak eta koroia gogoz edo gogo bage emandako egun oroitzagari aetan bertako biztanleak pozkida betean arkitzen zirala, Napoleonek bere jakinduria andi ezkutapetsuaren bidez artu izan zituen asmo estali galgarriak miruak txituari atzaparra ezarteko egin oi dituen bezalako jira birakin, Erresuma gain gañeko au zorabiatu eta nasiturik bereganatuzeko.

Españaren onerako adiskidetasun andian zetozelako iduripenean, martizti izugarriak etorri ziran Murat agintari zutela. Napoleonek beste gauzarik gogoan zeukala, sinist eraso zeban, ezik, Españako portu ta gaztelurik aurrenegoetan bere tropak kontu-artzalle ifinirik, beretara etortzea galerazo bear ziola Ingelesari, artu-eman ta saldu-erosien aitzakian zerabillen ibillera sarritangoa Franziarekin Españarentzako guztiz kaltarkitsua zalako.

Gizon jakinti somari au egiazko naitasunarekin leialkiro zebillelako uste oso betean, Españak obebearrez Plazarik bikañenak utzi ziozkan bere eskura; eta oen jaun ta jabe egindakoa, zirriki marraka asi zan bere barrunpe lizunean zeukan matxura gordea agertaratzen, beraren asmo galgarriaz inor ere oartzen etzalako ustean. Bañan Españan baziran gizon ernaiak, Napoleonek guretzako gauza onik etzerabillela ezagutzen zutenak, oen argitasunak eta onbideak denpora illunpeko artan asko balio ezpazuten ere.

Napoleonek Paristik gaztigatu izan zion, bada, Fernando zazpigarrenari Madrillera, ezik, España guztiaren onerakoak ziraden gauza balio andiko anitz zeuzkala berarekin bakar bakarrean itzegin bearrekoak, eta irten zekiola Bitoriara beraren zorientasunari zegozkion onbideak artzera.

Fernando Jauna etorri zan Bitoriara, Napoleonek izendatu zion egunerako, bañan au gelditu zan Baionan, eta emendik biraldu zion mandatua berriro, esaten ziolarik, ezen, bere eginkizun neurri bagekoak eragotzen ziotela Bitoriaka etortea, eta joan zekiola bertara, non itxoroten zegoen beraren etorrerari.

Fernando zazpigarrenak bere alboan zeuzkan Ministroai bigarren aldiako gaztigu au adierazo zienean, ezagutu zuten oek garbiro, Napoleonek asmo onik Españarentzako etzerabillela, eta esan izan zioten beren Errege maiteari, biur zedilla berpertatik Madrillera bere goienengo jarlekura, nondik Napoleoni entzungo zitzaiozkan bere esakariak. Bañan Fernando Erregeak etzituen ontzat artu Ministroen esanak, eta erabaki zeban itsu itsuan Baionara joatea. Azkenik, kotxea bear bezala prestaturik arkitzen zala, Errege Baionara abiatzeko une berperean Bitoriako jende leialak, bertan geldierazoko zutelako uste oso betean, ubalak epakirik kendu ziozkatzen mulak kotxeari, bañan onbidezko eginak oek guztiak etzuten deus balio izan.

Geroenean ere, Fernando zazpigarrena Españako Errege Buru ta Agintari bera zan bezala, joan zan Baionara Napoleonen atzapar garra-tzetara, jarraitzen ziotelarik leialkiro beraren Ministro, Probinzia askotako Diputadu, eta beste Andizki anitzek, zer gertatu bear ote zitzaioten ezin somaturik beldur andian atsekabez beterik. Bereala Napoleonek beregana deitu zeban Fernando bakarrik; zeñari bertan utzierazo ziozkan, inorekin ere egoteko lekurik eman bage, Españako koroia, eskubide ta agintza guztiak arras, gelditzen zebalarik bera Franzian, alik eta egiteko onetatik gertatu al zitezkean okerbide guztiak zuzendurik beren oñean ifini bitartean; eta onen orde zarten zebala Jose Napoleon bere anaia España guztiaren Jaun ta jabe, nagusi ta Errege, bear zituen eskubide guztiakin. Orra zeñ aixa eta ausardi andian Fernandori Españako koroia bere berekia kendurik, Napoleonek eman izan zion bere anaia Joseri, jatorritik berari legez ta bidez bazetorkion bezalako urgulluarekin.

Fernando gaitzik bagekoa ustez ustekabeko buruzpide negargarri onetan arkitu zanean, joan zitzairen bere Ministro, Diputadu, eta Andizki Españatik jarraitu ziotenai esatera, zer gertatu zitzaion Napoleonekin, eta egin zezatela al zuten modurik oberena, Españako jende leialaren artean odolik ez ixurteko. Arri ta zur egiñik Jaun prestu oek gelditu ziran, bada, Fernandoren aotik barri aiñ galgarria enzutean, eta ezin gogorra-goko lanze estura larriko artan toki arrotzean arkitu ziran, zer asmatu eta zer egin etzekitela.

Guztiaz ere, bigaramunean Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko, eta Nafarroako Diputadu jaunak alkaturik aurkeztu zitzaiozkan Napoleoni, esaten ziotelarik, ezen, Jauna, gure Errege Fernando zazpigarrenak adituzera eman digu, Españako Erresuma andiaz jabetu dala bedori. Beragaitik gatoz, bada, Bedorren Mesedea jakiñaren gañean ifintera, gure lau Probinzia berezituak noiztik; zeren bidez, eta zer itzen azpian jarriak



dauden Gaztelako Erregearengana; eta uste oso betean arkitzen gera, entzungo dizkigula gogoz ta donarioz geren esakari bidezkoak. Eskatu bezalaixen eman zien leku Napoleonek lau Diputaduai itzegiteko; zeintzuben ifini ziozkaten begien aurrean argi ta garbi eta zearo, beren denpora guztian gozaten zituzten gallaldia maitagarri, jatorrizko oitura, eta eskubide beren berenkiak, Españako Erregeak zuzenkiro beti oparo gorde izan diezatenak.

Diputadu oei beren esakuntza entzundakoan Napoleonek erantzun zien, ezik, Españako Probinziak jatorriz dituzten oitura ta eskubideak galtzeko asmorik etzebala artu izan beñere, ez eta artuko ere; eta berperatik jarriko zebala gizon jakintsunakiko Batzar bat, gauza oen sustraia nondik nora zetorren ondo ikusirik, berari kontu emateko itzaren azpian; eta oek beren eginkizuna bear bezala betetakoan, gordeko zitzaiola nori bere eskubidea utsaldiarik bage. Españako Koroia aín erraz Fernandori kendu izan zion Napoleon andia bere indar guztiakin etzan ausartatu, Probinzia oei beren oitura eta eskubideak ukatzera, gogoaz bestera bazan ere.

Napoleonek bere anaia Joseri Españako koroia emandakoan ere ezagutzen zeban argi ta garbi, gertatu zekizkiokeala okerbide andiak bertako jendeak artuko zeban atsekabetasunaren bidez; eta biztanle leial oek palakuz txurikaturik nai zeban guztia egingo zebalako ustean, asmatu zeban beste sortzari bat, esaten zebalarik, ezen, Jose Erregearen serbitzari guzti guztiak izango zizala Españako jaiotarrak, eta ez Franzesik bat bakarra ere. Bañan etzitzaiozkan asko baliatu bere asmakari zalagartuak.

Españako jende ondrea andikoa mindu zan lazki Napoleonek bere gogoz ta eskuz artu izan zituen neurri bidebageko oezaz; eta beraren kontra asaldatu ziran Erresuma andi onetako Probinzia guztiak.

Gipuzkoatar leialak arkitzen zirelarik aurrenen aurrenengo atakan, bertako Plaza, Gaztelu, eta Erririk bikañenak Franzesak bere menpean zeuzkala, irten ziran mendi goituetara samaldaka, gerora begira egon bage lendabizikotik, al zuten kalte guztia etsaiari egitera. Mutil oetakorik eunetatik bat ozta izango zan, mendira joatean su-arma zebanik, zergaitik Franzesak aginde gogorren azpian bildu izan zituen kanibeta zar akastun erdoituenetarañoko guztiak lendanaz. Bañan guztiaz ere, mendimutil oek zelata-lekuetatik etsaiari zintzoro kontra eginik, era egokia zetorkiotenean berari portizkiro eraso ta kentzen ziozkaten armakin jarten ziran gudari errutsu jesusgarrengo.

Franzesak ikusi zebanean Gipuzkoako jendea zeren bidez eta nola gogortuaz zijoakion, Españaren lendabiziko atakan zegoelarik, artu

zituen asmatu al zitzakean neurririk ezopeenak, mendi-mutilak beren etxeetara erakarriko zituelako uste oso betean. Mutil oen guraso, senide, eta aiderik urrenekoak arrestaturik, sartzen zituen ziega illunetan. Eta menditarretakorik iñoiz edo berriz gertatzen bazan etsaiaren eskuetan erorte, bereala ill, ta ifinten zituen zinzilika jenderik geiena zebillen tokian bide andiaren ertzean geiagok ikusteagatik. Gisa onetako illkintza bat edo beste egiten zutenean, beraren aide ziega illunean zeuzkatenak eramaten zituzten Franzia sekula beteko.

Oek eta beste onelako odolgirodi bide bageko anitz eginaz, Napoleonek nai zituzkean Gipuzkoako mendi-mutilak beldurtu eta ikaraturik beren etxeetara erakarri erazo; bañan bere jakiuduria andi eta indar guztiakin ere etzeban atera izan lakarik. Napoleonek zenbat eta gogorrago artzen zituen Gipuzkoatarrak, oek anbat eta geiago ta goaltsuago mendietara zijoatzen beraren kontra. Gizon jakinti ernai txit argi onek etzeban ondo ikusi, eta are gitxiago ezagutu bear bezala, Gipuzkoatarrak beren bizileku goixoa garbiro gordetzeko jatorritik duten eresia portitza. Baldin begiratu izan balie oarrez ta artezaz anziñako gertaera gogoangarriai, beretan ikusiko zeban argiro, Probinzia leial au jarri izan eztala gogorrean beintxu ere erbestekoen uztarripean. Ordea Napoleoni bere arrokeria andi eta urgullu geiegikoak sinist erazo izan zion bazitzakeala egin, munduko gizonen oraindaño egin ez dituen gauzak. Beragaitik, denpora batez leoi panparroiak kirkir ele kemen gitxiakoaz ainbat ardura, Napoleonek artzen zeban Gipuzkoako mendi-mutilak; bañan azkenean ari igaro zitzaiona berpera, gertatu izan zitzaion oni ere.

Gipuzkoatarrak beren oitura beti betikoaren bidez gizon ta mutil samalda andiak mendietara igorik, denpora laburren epean egin ziran erru andiko Soldadu. Egiñeratu ziran iru batalloitarraño, lenago esan dedan moduan, Franzes soldaduai or emen kendutako armakin ondo ornituak. Jarri zuten Diputazio berria berari dagozkion eskubideakin, zeñari obeditzen zioten Gipuzkoako Erri guztiak, batzuben agirian eta besteak ixillka. Franzesa lendabizitik asi izan zan mendi-mutilen zuzenbidea gal eragiteko asmatu al zitzakean gogortasunakin egin guztiak egiten, Briganteen izen lotsagarria ematen zielarik, beren jaioterri onetsia eta jatorriko oitura gozoak oso ta garbi gorde naiean legez ta bidez zebilltzen gizon ta mutil ondrea andikoai. Itz bide onetxek oroit erazo dizkit esakera bi anziña anziñakoak, Euskaldunen artean txit ezagunak, eta gaiari guztiz egoki dagozkionak.



1. Gure katuak buztana luze
Nor bera bezala besteak uste.

2. Nork nori?
Pazia zarrak pertzari,
Ken adi ipur beltz ori.

Gauza jakina da, bada, baldin Napoleonek bere ibillera bidebagekoai begiratu izan balie ondo, *Briganteen* izenik Gipuzkoatar prestuak etziela emango. Ordea, indarrez bidebagekiro goititurik, urgullu andiarekin arkitzen zalako, iduritzen zitzaion, beraren erranak eta egitadeak ziradela egiazkoak, eta onak baino ere are obeagoak.

Iduripenezko asmakari oen bidez eraso zion Probinzia oni, beste España barruko guztiai baino ere portizkiago, Franzieren lendabiziko muturrean zegoelarik obeditzen etziolako, eta guztia beingoan arras iruntsirik aixa menperatzeko uste oso betean. Bañan Gipuzkoatar artezak ez diralako aketsak, gezurtatu zituzten Napoleonen lozorro ames traktetsak.

Probinzia onetako mendi-mutil errutsu azkarrak, lenago ere baita, iru batalloitarano igo ziran ezkeroztik, Napoleonen Martizti ezopeaz ixekatzen ziran non nai. Franzesa aurren aldetik beartu izan zan, Gipuzkoako mugapean bide andiaren inguruan arkitzen ziran zuaitz guztiak botatzera, oen babesetik menditarrek kalte andiak egiten ziozkatelako; ordea, toki soil agirikoetatik ere orobat erasotzen zioten Gipuzkoatarrak. Ikusirik, bada, etsaiak, lanbide onekin etzebala asko aurreratu, somatu zeban, bereala, Erri batetik besterako bide luze samar goituetan Gaztelu sendo irme gogorrek egiñaturik, beretan soldadu talde andiak ifintea; baita jarri ere esan bezalaixen, bañan alperrik. Zergaitik, mendi-mutill gogorrakin ezin buruatu zutelako, igestu bearran arkitu ziran Erri andi-arkietara, bide bazterretako Gaztelu portitz egin berriai zeuden zeuden bezala lagarik. Gisa berperean, Gipuzkoako Erri txiki Gaztelurik bageko guztietatik ere, bota zituzten ariñ aski, bertara berriz joateko gogoak kendurik; eta jarri ziran mendi-mutillak beren Diputazioarekin noranai ardura bage zebiltzala, eta nonnai jendea, zer jana, eta osterontzeko gauza preminazko guztiak, Probinziako Fuero ta oituraz batera, ateratzen zituztela, legez ta bidezko eskualde guztiak berekin zeuzkatelako. Denpora berean Napoleonen soldadu zinzarri andiakikoak Gipuzkoako mugapean ikusi izan ziran bide andiaz kanpora oinkara bat bakarra ere eman nai etzutela menditarren beldurrak.

Ustez ustekabe sortutako guda luze kaltarkitsu au ikusitako guztiak badakite ondo, nola Kadizen urrerañoko Probinzia guztietara Franzes samalda andiak iritsirik, beretan arreatutako soldadu Españatar anitz ekarri oi zituzten bide askoan Gatzagako gañeraño osotoro; eta mendi tuntur onetatik Irun-aranzungo arraiaraño, ozta ozta eramaten zutela ogeitatik bat, eta zenbait aldiz bat bakarra ere ez; zergaitik Gipuzkoako mendi-mutil errutsu azkarrak unetik unera or emen Franzes talde andiai bidera irtenik, portizkiro eraso ta arras banaturik kentzen ziezaten España barruan atzemanik zekartziten soldadu urrukigarriak. Oetako zenbat eta zenbat ikusi izan ziran Probinzia onetan, bertako menditarren ausardi pare bagekoaz zoraturik gelditu izan ziranak bertan, emengoakin batean Franzesari ekiteko pozkida betean?

Gisa onetako azaña andi askoren bidez Gipuzkoako mugapea lasaiturik, bertako mendi-mutilak joan izaten ziran beren bizitokiaz kanporako Probinzia askotara etsaiari erasotzeko leku erosoak billatzeko pozaren pozez; eta beretan esturirik larrinean arkitzen ziraden asko ta asko atera izan zituzten lanze gogor irrisku andikoetatik.

Egia garbiro onen sinistmenerako galdetu baizik ez da Araban, Bizkaian, Nafarroan, Santoñan, Santanderren, Asturiasen, Galizian, eta Aragoi; zeintzuek autortuko duten argi eta garbi, bertako Erri ta mendietan egin izan zituztela Gipuzkoako iru batalloiak Napoleonen soldaduen kontra jazarra andiak. Guztietan gogoangarriena, nere ustez, izango da, Aragoiko mugapean arkitzen dan Erri *Sos* deitzen zaionak esan dezakeana; zeñak bere izate guztia Gipuzkoako mendi-mutillai zor dien, oek gauak egun egiñaz, bide lazean ariñ-ariñka joanik, ta gallendua zegoen Franzes talde andia menperatu zutelako.

Aipatu ditudan itzpide guztietan arrigarriena da, Franzieren lendabiziko atakan arkitzen dan Probinzia labur onetako mendi-mutillak, Napoleonen indar ezopeaz ixekaturik, beren jaioterri maitagarria lasaitasun andian ifini, eta beste Probinzia askotara joanik, azaña aiñ oroitza-riak egitea. Izendatu ditudan egikera andi oek ikusi bageko edozein gizonen esan dezake errazkiro, ezin izan leikean gauza dala, Gipuzkoako menditarrek beren bizitokiari lagarik Galiziarano, eta Nafarroa guztia igarorik Aragoira joatea. Ordea, ikusi izan genduenak badakigu ziertoro egiazkoak dirala Gipuzkoako iru batalloiak egindako ibillera nekoso eta egikera andi oek. Asko aldiz gertatu izan zan, bada, menditar oek gaur Nafarroara bazijoatzen, bigar Bizkaia, eta etzi Santanderko ondoan aurkeztutzea, nondik nora zebiltzan eta zer asmo zerabilten, Napoleon jakintsuaren morroirik ernaienak ezin somatu zutela. Geroenerako bata-



lloi oek jarri ziran kanpo agirikoan, billatzen zuten Franzes guztia porratzen zutela, esaera dan bezala.

*Franzesaren sarrera
Arroa ta ergela,
Urtutzen da bereala!*

Jose Napoleon ere Errege-izen bidebagekoarekin etorri zan Españara, dunba andiari zirrin zarran ots izugarria eragiñaz; bañan bostgarren urterako, berreun milla ta geiago gizon bertan iges egin bearra izan zeban Franziaira ixiltxorik.

*Gipuzkoako seme leial menditarrak
Alkar maite dute txit gazte eta zarrak,
Jatorriz diralako prestu ta azkarrak.
Egin izan zituzten alako jazarrak.*

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

*Milla zortzi eun ogeita amairugarren urtean, Errege Fernando
zazpigarrena Jainkoak beregana deitu zebanean, beraren anaia
Karlosek, eta alaba Isabelek Españaako koroiaz jabetzearen
gañean, alkarren artean artu zuten despita andi negargarriaren
azaldurea.*

Gertakari kartalkitsu onen bidez, Españaako jendearen erdia bertako tropa guztiakin jarri zan Isabelen alde eta beste erdia Karlosengana. Ez naiz ni sartzen errazioa zein aldetakoak zuten erabakitzeraz, zergaitik ezagutzen ez ditudan legeak, itsu egiazkoak koloreak baino geiago. Ez eta ere, sei urtean iraun daben aserre mingarri onen saiets guztietako zauriak agertaratzera; zergaitik dakidan, itzbide oni dagozkion argibideak izkribatzen ari dirala gizon jakinduria andikoak bata bestearen leian, España ez ezik, Franzian ere, eta ziertoroagoa izango da oen egitade andi obetandezkoak zabaltzea lenago, ni ari naizan txiki maiskar au baino. Guztiaz ere, berak esan al dizaketekean gauza balioso gogoangarriai ezertxu ere kendu bage, ezarri bear ditut emen, Gipuzkoako erri txiki Ormaiztegikoan jαιο eta azitako On Tomas Zumalakarregikoak Euskaldun mendi-mutilakin egin izan zituen azaña andi guztiz oroitzarriak.

Alkarren arteko errierta luze au lendabizi asi zan Araban, Bizkaian, ta Gipuzkoan. Bereala, aize piñ lasterkari au igaro zan Nafarroara, eta beretatik zabaldu zan España guztiko Probinziaetara, berotasun desberdiñarekin ta lañopean bederik.

Arabar ta Bizkaitarrakin batean Gipuzkoatarrak irten ziran itsu-itsuan zarrapastaka tropa guztien kontra, zegitena zegiela, eta zetorkiotena zetorkiotela beste buruzpide bage. Bañan Nafartarrak, denporari leen geixeago emanik, Buruzaritzat artu zuten Gipuzkoako seme ernai *On Torras Zumalakarregi*; zergaitik lendanaz ondo ezagutua zeukaten bera, soldadu gaiñ-gañekoa izateaz landara ere zala gizon prestuari dagozkion doai eder guztiaz bear bezala janzia. Etziran, bada, gezurtatu bera esleitu zutenak!

Euskaldun leialak alkargana biribillatu ziradenean berpertatik jarri izan ziran menditar guztiak beren anaia Zumalakarregiren eskura; eta onek gogoz artu izan zituen beregana, makilla utsak beste armarik erdiak baino ere geiagok etzutela. Soldadu izatea, ez ezik, izena ere bear bezala



etzekiten menditarrak ifini zituen Zumalakarregik fite, troparik gogorre-
nai nonnai erasotzen ziotela. Aurren aldi artan, España Jeneral ots
andikoak bata bestearen leian zetozen mendi goñitu oetara, beretan
zebiltzan mutilai baza irabazitako ondra andia bestek eraman etzegioten.

Mundu guztiak daki, bada, nola etorri izan ziran asmo oso bete
onetan Euskal-errira Sardsiel, Quesada, Butron, Valdes, Rodil, Mina,
Espantero eta beste geiago, nor bere txandan tropa andiak arturik,
Zumalakarregi bere mendi-mutilakin aixa garaituko zutelako ustean;
bañan ekinaldi guztietan irten izan zan ongi Zumalakarregi.

Gipuzkoako seme leial errutsu pare bageko au mendi gozarotsue-
tan indarturik, beretatik jatxi, eta asi zan ordeka zelaietako Erri andi itxi-
tuak atakutzen gogorkiro; eta beraren kontra egilleak arras indarturik era-
karri zituzten Ingelaterratik, eta Franziatik soldadu talde andiak beren
agintariakin, diru askoren kostuz beren gordelekuai kontu egiñik,
Zumalakarregiri erasotzeko. Bañan au bizi izan zan artean, etzuten deus
balio izan kanpotarren laguntza eta eginald guztiak ere.

Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, eta Nafarroan, Donostia, Bitoria,
Bilbao, eta Iruñez landara, Erri gitxi gelditu ziran Zumalakarregik bere-
tu bage; eta lau Probinziaetako Plazarik andientsu oei ere, inguru guztiak
ertsiturik, ekin zitzaizen erasotzen portizkiro.

Bilbaoko Erriari lanbide onetan gogorki ari zitzaiola bala erdi gal-
duren batek zankoan ukitu ta geiagoko bage izan zan illa, edo ez dakit
illerazoa, aiñ azaña andiak egiñaz zijoan On Tomas Zumalakarregiko
jaun prestua; zeñaren izen gozo Euskararen bere berekia bizi izango dan
mundua mundu dan arterañoiko guztian.

Gipuzkoako seme maitagarri au bizi zala, oroitzen naiz irakurri izan
nituela Franzia paper agiriko batean, bertako Euskaldun ernaien batek
bere itzkeria ederrean ezarritako itzneurtu gozoki oek.

*Zumalaren izena
Eta haren omena
Hurrin da bedatzen;
Erregeren gorthetan,
Hiri eta kanpanetan,
Nourk ez du aditzen
Zumalaz mintzatzen?*

Napoleonek egindako azaña andiak mundu osoari adierazten ari
diran Franzes jakintiak, orra zenbateraño igotzen zuten
Zumalakarregiren izen gogoangarria.

Franzian badira gizon argiak esaten dutenak, ezik, Napoleon baino
gitxiagokoa etzala Zumalakarregi; zergaitik Napoleon indarrez, armaz
eta diruz ezin geiagoraño janzia jarri izan zan Erresuma askotako buru
ta nagusi; eta guztiaz ere, Españaatik eta Rusiatik biraltzeaz ostean, galdu
zeban azkenengo batalla andi Waterlokoa, martizirik ugarien eta obere-
nai berak bere jakinduri andiaz agintzen ziela; eta geroenean gelditu zan
arrestatua Ingelesen menpean, asnaseak iraun zion arteraño. Bañan
Zumalakarregi, makilla soillakiko bere anaia Euskaldun garbiakin dirurik
bage, eta mendi latz goitituak beste gordelekurik etzebala, Erri ta Plaza
guztiak berenak zeuzkaten tropa izugarri anitzen kontra asi bazan ere,
berari bazarik irabazi izan etzion inork ere. Pare bageko ondra gain gañe-
ko onekin Zumalakarregi joan zan mundutik, zeñaren izen gozoaz oroi-
tuko diran Euskal-errietako mendiak, mundua munda dan arte guztian.

Jaungoikoak beregana Zumalakarregi eraman izan zebanean,
Euskal-erri guztiak atsekabetu ziran arras; batetik, beraren aulkirako
beste alako bat topatu ezin zezaketekealako, eta bestetik, gizon on iduri-
ko askoren barrunpe lizunak ikusten zituztelako zeudela galkitatuak, eta
sendakaitzak txit.

Berpertatik abiatu ziran, Zumalakarregiren ordeaz, agintari nor ifi-
niko ote zuten ezin asmatuz. Gaur autatzen bazuten bat, bigar hura ken-
durik, ifinten zuten bestea. Gisa onetako naspilla moldakaitzakin zala-
gardatu nai izan zituen zenbaitek, orduraño bear bezala apainduak zeu-
den bide zuzen egokiak. Eta ori, ikusten zutelarik argi eta garbi aurrera
zijoatzela Euskaldunak beti; zeintzuben ausardi andian igaro izan ziran
Madrilko ondora, eta España barruko beste Probinzia askotara. Bañan
biurto ziranean beren tokira, arrestatuak izan ziran mendi-mutil oetako
azkarrenak lotsagarriro, gaitzillerik andienak bazirakean bezalako man-
txarekin.

Gertakari oek eta beste onelako geiago igarotakoan, agertu zan
Euskal-errira Marotoren Etxeko izenarekiko gizon argidotar bat,
Euskaldunen zorionerako Zerutik Aingeruak biraldua bazan bezalako
otsarekin. Eta bazan miresteko lainbat ere. Ikusirik, bada, itsasoaz
arontztik zetorrela bere gogoz Euskal-erriari laguntzera inoren ere bear
etzan gizona, Euskaldunik ezagutzen etzebana, eta Euskaraz itztxo bat
bakarra ere etzekiena, nork maitatuko etzeban bera? Lore eder ugari



ondo janzitako gizon Amerikatik etorritako onek, Euskal-errian egin izan zeban leen mendi-mutil guztien Buruzari bera jarteraño.

Marotok eskubide au beregana zebanean, ibilli batzuben egin zituen Zumalakarregik irabazitako tokietan; bañan oezaz aurrera etzan igaro izan beñere. Mendi-mutilakin ondo zeukan txit, zeintzubei egiten zitzen eskuerakutsi andiak, eta altxatzen ere zituen odeietan gora, batez ere Gipuzkoatarrak; ezagutu zituen oek ondo, beste guztien gañekoak zirala, eta argatik zeukan berakin beti ongi.

Modu onetan batera ta bestera zirkun zarkun zebiltzala, Euskaldunen leialtade piña eta errutasun pazebagekoa ondo ezagututakoan, beretatik gogorrean lakarik ezin atera zitekeala ikusirik argiro, Maroto eta Espartero alkargana baturik bien artean somatu zuten, guda luze kaltarkitsu hura beingoan gelditzeko oberen oherena izango zala, Euskaldunakin amodiozko pakea irme iraunkorra egitea; lagatzen zaiozkatelarik oei, jatorriz dituzten Fuero, oitura, eta eskubide beren berekiak osotoro, akatsik txikarrena ere egin bagetanik.

Esan ta egin, itz onorezeo oen azpian iru Probinzia oetako mendi-mutil azkar leialak milla zortzi eun ogei ta emeretzigarren urteko aboztuko illaren ogei ta amaikagarren egunean, beren armakin ausardi andian Esparteroren aurrera aurkezturik, egin zuten alkardadezko pakea ondradua Bergaran; zeña firmatua izan zan segurantza guztiakin beren armaen jabe zirala.

Amodiozko anaiatasun maitagarri au erabakitakoan, biurtu ziran mendi-mutilak beren etxelanetara jatorriz dituzten Fuero, oitura, ta esku-bideak, oraindano bezala aurrera ere, naierara gozatzeko pozkida bete betean. Bergaran alkartutako egun gozo zori oneko au izandu zan, España guztiaren atsegintasun andikoa, eta Marotorekin Esparterorentzako guttiz pozgarria.

Erromatarren denporan Gipuzkoatarrak egin izan zituzten azaña andiak egiazkoak dirala sinistatu dezake aixa, Zumalakarregi bere anaia menditarrakin tropa izugarrien kontra peleatzen ikusi izan debanak, eta Gipuzkoari bere Fuero onak galdu bage ezagutzen diozkanak.

*Erabaki naiean itzpideta garbi,
Esana eta esaten aspertzzen ez naiz ni;
Mundu guzti guztiak orain ela beti,
Gogoan izango du Zumalakarregi.*

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

Zeñetan kontatzen diran Gipuzkoatarrak itsasoz sarritan egindako azaña gogoangarriak.

Ezin kontatu al ainbat, eta sinistatzen ere errazak ez diran bezalako azaña gain-gañekoak egin izan dituzte Probinzia onetako seme azkarrak itsasoz. Beretako banaka batzuk ezarriko ditut emen, gure Ama on maite maitagarri Gipuzkoaren ondragarri eta beraren biztanle leial guztien pozgarri izan ta izango diradenak.

Milla bost eun ogei ta seigarren urtean, Erreteriarako seme ontzikapitan Martin de la Renteria deitzen zitzaiona bore Galeonarekin Levante inguruan zebilela, urte bereko Pazkua Espiritu Santukoaren mezperan Alicantetik irten zan Siziliarako asmoan; eta Ibizako Ugartearen ondoan arkitu zan Barbarrojaren ontzidi Arjelko Erregeren izenekoarekin, zeñaren menpean zegoen Arjel. Ontzidi au konpontzen zan amazpi Fustarekin, eta oen artean baziran bost Galera. Turkoak aiañ eraso arkitu zutenean Galeon bakarra, lasterrean zijoatzen beragana burniz ta kazo bertan loturik gelditzeko uste oso betean. Bañan Martin de la Renteriak gogor egiteko asmo sendoa arturik, itxoron zien Turkoai donario ederrean. Bere Galeoneko jende guztia zeban Gipuzkoatarra, zeña alaiturik pizkortu eta beldurbagekiro jarri zeban bear bezala prestatua, etsaia urreratu zitzaioneko. Bereala alde batekoak bestekoai eraso zioten portizkiro. Egin zituzten iru jazarraldi ezin gogorragoak sutunpadi anitz tireaz, eta pelea garratz onek iraun zeban egun bat osoan. Bost gizon bakarrak ill ziozkaten Galeonari Turkoak, eta eritu ogei ta amalau; oetatik sendatu ziran lau ez besteak. Erre zioten mastil nagusia, zeña bela ta jarzia guztiakin bota zuten urtara: popa puskatua zioten arras; eta alere, Kapitan Renteriak bere Erritarrakin alkabuz ta sutunpak tireaz amazpi ontzi eta beretako jende talde andiaren kontra egun bat osoan peleaturik, nork daki zenbat Turko ill izan zituen? Eta geroenean ere, Turkoak gauaren illuntasunaz baliaturik igestu bearra izan zuten lotsa gorrian, beren Fusta Galera ta guzti Ibiza alderontz; zeintzuben Martin de la Renteriaren menpean gelditu bearko zuten, baldin bere Galeonak osasuna izan balio.

Gipuzkoatar gogoangarri au arkitu zanean norekin peleatu etzebala, biurtu zan barah barah Balenziako Urira, Galeona arabatzera ta eriak



sendatzera. Beraren etorrera ikusi izan zuten guztiak arri ta zur egiñik gelditu ziran etsai talde andiaren atzapar garratzetatik aiñ ontzi elbarriarekin salbatzeaz.

Aipatu dedan Martin de la Renteria onen seme Juan Perez de la Renteriak, urreneko urtean, are azaña andiagoa egin izan zeban Galeon berperarekiñ. Galeon au bear bezala antolatuturik Yacako kargalekuan lanbideari itxoroten aingurak botarik Juan Perez zegoela, San Blancantoko Baroiaren izeneko Franzes ontzi bat etorri zan esan dan kargategira, lenago ondo irteten oitua zegoen bezala, gauza errazen billa. Franzes ontzi onetako Kapitana zan Griegoa, eta beti korsuan zebillen itsas lapurrik andienetakoa; zeñaren izenak ikaratzen zituen itsasoz zebiltzan guztiak, eta buruz buru, ez ezik, indar geiagorekin ere, iñor etzitzaion ausartatzen arpegi ematera. Bañan Juan Perez Gipuzkoatarrak ikusi zebanean Yacako kargaleku alderontz zuzenean zetorrela, bere Galeon arabatuari aingurak altxaturik, irten zitzaion bidera, eta eraso zion goien beren gogorkiro. Peleatu ziran portizki, eta jazarra berean ill zuten Kapitan Griegoa, baita beste gizon asko ere berarekin zetozenak. Ontzia artu zuten Gipuzkoatarrak nai ta nai ez, eta beren arekin pozkida betean biurtu ziran Yacako kargategira. Juan Perez de la Renteriak berrogei ta amar gizon arrestatuak biraldu ziozkan Erregeorde Siziliakoari Galeraetarako. Gertaera gogoangarri au zearo ta luzeago ezarria arkitzen da Enperadore Don Carlos Jaunak Kapitan Errenteriakoari azaña andi onen saritzat eman izan ziozkan Eskutarmaetan.

Juanes de Isasti Errenteriako semea Mairuakiko gerran Españako Errege serbitzatzen ontzi bitako Kapitan zebilela, gertatu zan beste egikera bat guztiz oroitzarria. Españako Erregek nai zukeana zan, Tripolko Uria Mairuai kentzea; eta eginkizun andi onetarako bear ziraden prestamenai zuzenbidea ematen ari zan bitartean, Juanes de Isasti Gipuzkoatarra bere ontzi biakin, zer asmo zerabillen iñori ere esan bage, Tripolko ondora joanik eraso zion Uriari gogorkiro; bai ta irabazi ere Mairuai iru Bandera iru dorretan zeuzkatenak. Zeñean, azaña onen oroitpenerako Andre Erregiña Doña Juanak milla, bosteun ta amaikagarren urtean Juanes de Isastiri bere Eskutarmaetan ifini ziozkan iru Bandera aek beren iru dorreakin.

Ontzi-Kapitan Martin Perez de Irizar Errenteriako semea bere Galeonean merkaderia arturik Cadiza zijoala topoz topo arkitu zan itsas zabalean korsuan zebillen Franzes Juan Florin otsandikoarekin; zeñak ezurretaraño beldur-ikara emanak zeuzkan beren bizimoduaren billa itsasora irteten ziraden guztiak. Franzes urgullusu au zebillen bi ontzi

ondo armatuakin, eta beretan naiko jendea zebala. Itsasoan arkitzen zeban txiki ta andi guztia osotoro ebasten zeban larrugorrian ifinteraño; eta lanbide lotsagarri onetan egindako ondasun bidebagekoakin aberastua zegoen txit, denpora laburraren epean guztiak laga bearrean arkitu bazan ere. Lenago oitua zegoen bezala, garailari irteteko ustean aurkeztu zitzaion Galeonari ausardi andian, bañan Martin Perez de Irizarek bere Galeon bakarrarekin gogor egin zien Franzes ontzi biak portizkiro. Peleatu ziran erruz, odol asko alde bietatik ixurteraño; eta azkenean Gipuzkoatarrentzat gelditu ziran Juan Florin otsandikoaren ontzi biak beren jende eta armadi guztiakin. Korsukoetatik ogei ta amar gizon ziran illak, eta berrogei ta geiago erituak. Juan Florinek ogei milla dukat eman nai ziozkan Irizar Kapitanari libre lagatzeagatik, bañan alperrik egin izan zeban bere eskaria; zergaitik gizon argidotar onek bere ondra maiteago zeban, munduko diru guztiak baino ere. Eta alaxen irauli zituen Cadiza berrogei ta amar gizon arrestatuak bi ontzi irabaziakin; zeñaren leialtade piña saristatua izandu izan bear bezala. Enperadore Don Carlos Jaunak agindu zeban, urkatu zedilla Juan Florin itsaslapurzat; eta Kapitan Martin Perez de Irizarek bere Eskutarmetan izan zitza, ondorengo guztien oroitzarri, Galeona eta batallan irabazitako Bandera ta arpoiak; zeintzuek jarri zituen milla bost eun ogei ta zazpigarren urtean.

Milla bost eun ogei ta amabostgarren urtean, Enperadore Don Carlosek Tunezko Goleta ingurutua zeukala, berari asalto eman bear zitzaion egunean, lendabizi Bandera jarri zebana izandu zan Gipuzkoatar kapitan Tristan de Ugarte Oiarzungo semea, zeña Turkoak ill zuten beste zenbait Gipuzkoatar berari jarraitu ziotenakin; bañan bereala indar geiagorik, menperatuak gelditu ziran Turkoak.

Milla bost eun ta berrogeigarren urtean Don Bernardo de Mendoza Españako Galeraen Kapitan guztiakiko zegoela, peleatu zan itsasoan Caramami Turkoarekin, zeña armada lodi batekin zijoan Jibraltar sakeaturik, eta batalla portitz gogorra egiñik, Don Bernardo gelditu zan Caramami Turkoaren jaun ta jabe. Jazarra gogoangarri onetan azañarrik andienak egindakoak ziraden Kapitan Domingo de Arriola Murgia Debako semea, Kapitan Garro Donostiakoa, eta Alferrez Don Bernardino deitzen zitzaion Domingo de Irizar Errenteriakoa, zeña ill zan zazpi alkabuz-tirorekin.

Españako Errege eta Indietako Jaun Don Carlos zorionekoak ikusirik, Franzes ontzi korsuan zebiltzanak kalte andiak egiten ziezatela jendadi prestu itsasoan arontz onontz zebiltzanai, zeramaten eta zekarten guztia bidebagekiro kenduaz, gaitzgille oei beren lanbide artua gai eragi-



tera milla bost eun berrogei ta bostgarren urtean biraldu zeban Juan Lopez de Isasti ontzi-kapitan Erreterriako semea. Gipuzkoatar itsasgizon ernai au irten zan txit gogoz, Erregeren agindea betetzera, eta itsasora atera bezin prest arkitu zan topoz topo, Franzes ontzi bi armatu korsuan zebiltzanakin. Bereala ekin zitzaiozkan alkarri portizkiro; pelearu ziran erruz, eta batalla izandu zan guztiz aserrea; alde bietatik ziran illak asko; bañan geroenean ere, Kapitan Isasti irten zan garailari zeñaren menpean gelditu ziraden Franzes ontzi biak. Azaña andi au egin ta ondorean Isastik ibilli anitz egin izan zeban Franzes ontzi korsuan zebiltzanen billa, eta arkitu zituenak azpiraturik, osterontzekoak uixatu zituen ariñ aski; eta alde oetarako itsasozko ibillera balio andikoa ifini zeban denpora artan, itsas lapur txarrik agertzen etzala.

Españako gizon talde bat arrestatua Franzesak Baionako Uri barruan istegira sartua zeukala, Irarrazabal deitzen zaion etxe andiko jaun ta jabe eta nagusi argidotarrak bere Galeonarekin Gipuzkoatik berariaz joanik, Uri andi artako kate lodi burnizkoak urraturik, atera zituen ariñ aski uste artan etzeuzkaten Españatar arrestatuak; baita ekarri ere fite Gipuzkoara. Zeñean, azaña gogoangarri onen bidez Irarrazabalko etxe argidotarrak bere armaetan jarriak dauzkan Erregeren aginduz Baionan urratutako kate lodi burniazkoak Santiagoko benera birekin.

Azaña andi au egin ta ondorean laster, Irarrazabalko Nagusi berpera arkitu zan beste lanze estu batean. Gipuzkoako seme argidotar au bere Galeonarekin armadan zebillela idoro izan zan topoz topo, korsuan zebiltzan iru Franzes ontzi ondo armatuakin. Ikusi bezin prest ezagutu zuten oek Irarrazabalen Galeona; eta egun gitxiz aurretik Baionan berak egin izan zien ixeka lotsagarriaz mendekatu naican, ekin zitzaiozkan Galeon bakarrari iru Franzes ontziak bat batean; baita bera ere oei arras mindurik portizkiro. Ari ziran pelean erruz alkar ezin garaiturik eta batalla esturarik larrienekora iritsi zan denporan, Irarrazabal ernai azkarrak egin zeban bizarria izan zan batela itsasora botarik Galeoneko jendearen erdiarekin bera an sartu, eta Franzes ontzietako baten albora iristean, bere batelaren bularka burni balanka batekin urratzea; au ondatzera zijoala ikustean, bera ta beraren lagunak nai ta nai ez etsaiari gañera igo zekizkion. Ezan ta egin, batela zulodunean zeudenak oberik etzekustean, bata bestearen leian ill edo bizi saltatu ziran ontzi gañera, uste zuten ainbat gizon galdu bage; zergaitik, oen ausardi pare bagekoa ikustean arras ikaraturik kemen bage gelditu izan ziran begira zeuden Franzes guztiak. Asalto gogor onen bidez berealaixen menperatu zuten ontzi au; baita beste biak ere fite, eta Irarrazabalko Nagusi argidotarra

gelditu zan iru Franzes ontziren jaun ta jabe eginik, lenago irabazitako ondra andiaz gañera.

Kapitan Domingo de Amasa Debako semea bere ontziarekin Beleislara ustez ustekabe iritsi izan zan batean, bertako jende biurriak, gaizki tratatzeaz gañera, kendu ziozkan ontzian zeramazkian gauza eder balioso anitz; toki artako barri ondo jakin bagez, Ugartetarrak supituan gañera sartu zitzaiozkalako. Bidebageko txarkeri onek miñ andia eman izan zion lazki Domingo de Amasari, bañan une antan bere burua ardurabagetzat egiñik, ixil ixilla gelditu zan, dollorkeri hura ordaintzeko egin bear zeban gauza biotzaren erdi erdiko mamian ondo eratsia bazeukan ere. Ugartetarrak begira zeudela aldendu zan bide zati batean, bere bidajeri jarraitzera bazijoan bezalako abiaduran, eta aen begietatik ezkutatu zanean gelditurik, bere jendeari agertaratu zien, Ugartetarrak egin zioten bidebagekeria ordaintzeko arturik zeukan asmoa; zeñari guztiak ondo iritziarik jarri ziran txit gogoz, beren Kapitan ernai azkarrak agintzen ziotena egitera. Leialtadezko alkardade indartsuaren bidez alaitu eta bear bezala prestaturik bigaramun goizean egunaren antza asitzerako zegoen itsas bazterrean Domingo de Amasa bere jende armatuarekin Ugartetarrari erasotzeko prest jarria. Bereala, Galeonetik irtenik asi ziran tiroka, eta Erri barrura sarturik zuzen zuzenean joan zan Domingo Kapitana Obispoaren etxera, zeña zegoen lurbira artako Gobernadore, eta bertan arrestaturik Galeonera eraman ta beren arekin irten ziran itsaz zabalera. Ugartetarrak beren Obispo Gobernadorea itsasoan zeramatela ikusi zutenean, Galeoneko jendeari deadarrez ta keñuka aditzera eman zioten, itzegin nai zutela berarekin. Domingo de Amasak donario ederrean itsas zabalean itxoron zien bajeletan zijoazkion Ugartetarrari; eta alkarganatzean konpondu ziran, biurtzen zituztelarik oek, aurreko egunean bidebage kendutako ondasun guztiak obari geiagorekin; eta ark lagatzen zebala Obispo Gobernadorea libre. Esan ta egin, Kapitan Domingo de Amasari eraman ziozkatzen zegoen lekura berperara agindu baino ere gauza geiago, eta Obispoa irauli zan bere tokira; zeña Galeonetik irtetean eta bidean zijoala ere ezkutatu arte guztian, Kapitan Domingori bedeinkazio ta gurutzeak egiñaz joan zan atsegingarrizko pozkida gozo betean.

Gipuzkoatarrak itsasoz egin izan dituzten agerkera, azaña eta irabazkidak, guztiz dira andiak. Gipuzkoatarrak zor zaiote, bada, milla irureun laurogei ta amairugarren urtean egin izan zan Kanariaetako Ugarteen agerkera balioso, bai ta ere milla bost eun irurogei ta bostgarren urtean Miguel Lopez de Legazpiak bere lagun Frai Andres de



Urdanetarekin irabazkidatutako Filipinas eta Marianas deitzen zaioten Ugarteen izatea beste gauza geiagorekin.

Baldin suertez ere, izango balitz nor edo nor Gipuzkoatarrak itsasoz egindako azaña oek geiegikotzat dauzkana, are arrigarriagoa ezarriko det emen, inork ere ezin ukatuko dabena.

Portugalko eta Andaluziako itsasaldeak zalagardatuak zeuzkan korsuan zebillene Ingeles urgullusu batek, zeñak zerabiltzkien bi ontzi, bata sei eun toneladakoa eta bestea txikixeagoa, eta oekin ikaratzen zituen alde artan zebiltzen ugarotar guztiak. Errege Felipe irugarrenak jakin zebanean Ingelesak egiten zituen bidebagekerien barri, agindu zion D. Luis Faxardo Lisboan armadarekin egun beretan arkitzen zanari, ezen, igorri zitzala buke batzubek etsaia garaitzen oitutako buruzari azkar batekin, ezin ontzat eraman zitekean urgullu andi hura azpiratu zezan. Lanbide onetarako agintari izatea nai zutenak asko ziran onoreak irabazteagatik; bañan guztien artean autatua izandu zan Gipuzkoatar D. Antonio Okendo, ogei ta zazpi urte baino adin geiago etzebala. Irten zan, bada, Tajoko uretatik milla sei eun ta laugarren urteko uztaillaren amabostgarren egunean bi bajel Eskoziako *Delfin* ta *Dobladilla* zeritzan bost eun toneladatik sei eun bitartekoak, jendez eta osteronzeko gauza guztiaz ondo orniturik. Zenbat ibilli egin izan zeban, gelditu ere bage, San Vicente ta Santa Mariatik Cadiza arterañoan korsuan zebiltzenen billa, etzituen arkitu izan, alik eta aboztuko illaren zazpigarren goizean eguna argitzen asi zan arteraño. Ingelesa aurreratu zan sutunpadi eta alkabuzakiko karga itxi andi bat disparatzera Okendoren kontra, eta onek erantzun zion otzlankai berperakin, non geiago bage ekin zitzaiozkan alkarki erasotzen portizkiro. Alboratu zitzaion Ingelesa Okendori, eta onen barkura ere sartu zituen eun gizon, zeintzubenk etartuak izan ziraden merezi zuten ongietorriarekin. Ekin zitzaiozkan jazarra, gogorri, zeñak iraun zeban bi orduan eskuz esku peleatzen zirala. Korsuko ontzi andiak jende berria unetik unera Okendoren barrura biraldu-arrea, onek desaraitu bage jardun zeban garboso, zijoakion guztia itsasora boteaz, odol ixurte andiaren bidez bañan ere. Ingeles arrotuak ikusi zebanean bere jenderik oberena eta geientsua arras galdua, egin zituen eginak guztiak igestutzeko bañan alperrik. Geroenean ere nai ta nai ez izan zeban errernditu bearra, gelditu zitzaion jende apur eta bi ontzi korsukoarekin D. Antoniorenen menpean; zeñean, oek arturik, bere barko balaz galbaiaren gisa zulatuarekin biurtu zan ondra andian garailari Cascaesara, eta Lisboan sartu zanean, agiriko deadar gozo pozkarriakin gloriaz estalirik igo zuten odeiaz goiti ogei ta zazpi urte baizik etzeban

galai gazte Don Antonio Okendo Gipuzkoatarraren aomen gogoangarria sekula betiko. Erregeren gogoan sartu izan zan txit galai gazte onen izena. Egundun beretan gertatu zan Bizkaiko Eskuadraren zegoen Jeneral Bertendonaren illtzea, eta onen orderako Errege Jaunak autatu zeban Okendo, esaten zebalarik modu onetan. «Siendo yo informado de los buenos principios de vos D. Antonio de Oquendo por la satisfaccion que habeis dado en algunas ocasiones en que mi Capitan General de la armada del Occéano os ha encomendado Navios de ella para salir á buscar los enemigos, con quienes habeis peleado y rendíolos con valor, y echado á otros á pique á imitacion de D. Miguel de Oquendo vuestro padre, Capitan General que fue de la Escuadra de la Provincia de Guipuzcoa, y confiando que cada dia ireis procurando asemejarle mas en las obras, he resuelto hacer eleccion en vuestra persona para que governeis y tengais á vuestro cargo la Escuadra de Vizcaya».

Berealaixen izan zeban Okendok bere azkartasuna eta ondra are goiagora altxatzeko era ona txit, Holandes armada andi bat gure itsasaldeetako portuetan billatu al zitzakean bajelak erretzeko asmoan berariaz egindako injeniozko suakin zetorrena, biraldu izan zebalako astinaldi onak emanik berriz etorteko gogo bage. Egikera au egindakoan bereala izendatua izan zan Okendo Kantauriako Eskuadraren Kapitan Jeneral, zeña konpontzen zan Gipuzkoa, Bizkaia, eta Lau Erriakin. Jarduera onetan egondu zan denporan egin izan zituen serbitzo andiak eta azaña asko, naiz zala korsuan zebiltzanetatik itsas-aldeak garbitzen, naiz berak arrapatzen, naiz zala Lisboara ta Cadiza ontzidi ta Galeonai laguntzen; zeñean eginbide balio andiko oen saritzat beraren izen gozoaibi geiagotu zitzaion *General de Flotas de Nueva España*. Gitxi bat jeroixeago izandu zan Almirante armada errealeko Prinzipe Filisbertoren agindeen azpian; eta milla sei eun ogei ta bostgarren urtean egin zan Galeonen Jeneral; eta orduan Erregeren armadan izan zeban agintza arterañoa eta Galeonarekiko bidajeak bukaturik, igo zan milla sei eun ogeita seigarren urtean, itsasoetako armadaren Almirante Jeneral izatea. Toki goitutu artara igo ta laster izan zeban Okendok bere bizarriazko azañak egiztatutzeko izan al zitekean deretxarrik oberena. Milla sei eun ogeita zortzigarren urtean Mairu samalda ikaragarri batek ertsitu zeban inguru guztitik Mamorako Plaza, eta bertan Gobernadore arkitzen zan Diego Eskobedok gaztigatu zion Okendori Cadiza zer gertatzen zitzaion, eta baldin berpertatik ezbazitzaion laguntzarik joaten, galduak izango zirala nai ta nai ez Plaza ta Gaztelua. Gertakari onen barririk etzekiten Gortean batere; eta Plazaren galdu gordea aiñ irrisku andian ez lagatzeagaitik,



Erregeren agindeen begira egon bagetanik, Okendo irten zan supituan, Mairuakin peleatzeko pozkida betean. Bañan oek, bera zijoakiotela igerri zuten bezin fite, Mamora-ri zegoen zegoenean lagarik, igesari eman zioten itsumustuan. Alere Okendok eraso zien iritsi al zitzaekeanai portizki; bai ta kiskaldu ere arrapatu zituenak. Egikera andi onen bidez geiagoturik, are goiagora igoak izan ziran D. Antonio Gipuzkoatarraren garboa eta ondra; zeñari Felipe laugarrenak bere eskuz itzkribaturik esker andiak eta asko eman izan ziozkan oparo.

Milla sei eun ogei ta amaikagarren urtean Eskuadra Holandesak Brasilen Pernambucoko eta Santa guztieneko Plazak desegindurik buruz beeratuak zeuzkaten beretako jendearen saldu erosiaru lur joerazo ziotelako; eta oberik etzekustenean eskatu zioten laguntza Gorteari. Bereala Felipe laugarrenak agindu zion Okendori irten zedilla itsasora denporarik galdu bage, ongiena prestatuak arkitzen ziraden bajelakin. Esan ta egin, maiatzeko illaren bostgarren egunean Lisboatik ateratu zan amasei ontzi bakarrakin. Oetako bost andienak etzeramaten bear zuketekean jendearen erdia; beste bost irureun bana toneladan etziran igarotzen, eta bakotxak berrogei soldadu Portuges buru burutik zituen; osterontzeko seiak ere, zeintzuben ziraden *La Capitana* eta *Almiranta* etzijoatzen sarritako modura jendez janziak. Eskuadra txiki onek amabi karabeletan zeramazkien esan diran Plaza bietarako seinalapenduak zeuden sokorruak Conde Bañoloren agindera. Almirante zijoan Jeneral Vallecilla, eta tropa guztien zenbatetsua zan iru milla oñezko bezalatsu. Egun gitxiz aurretik Santa Martako Ugarteia sakeatu zeban Jeneral Holandes Adrian Hanspaterrek jakindu zeban fite, gure barku txiki indar gitxirekikoak nondik, norekin, nora eta zertara zijoatzen. Gizon urgullusu au ainbesteraño arkitzen zan arrotua, ezik, iduritzen etzizaion ondo Españatarren kontra indar geiagorekin peleatzea; eta bere armadan zeuzkan ogei ta amairu ontzietatik aldondu zituen amasei ez besteak; zeñean gureakin buruz buru berdindu arren, anditasunean eta jendez askoz geiagokoak ziraden berarenak. Bederatzi eun toneladatik millarañoakoak ziran aren Capitana eta Almiranta, eta sutunpadituak ogei ta amaseitik berrogeirañoako kanoiakin. Agorrillaren amabian urkusi ziran armada biak Brasilen aurrean emezortzi goi-mallatan zabaltasun eguerdi aldekoan Abrojostik ogei leguaz E. alderontz, Holandesak barlobento usbetetzen zebala. Conde Bañolok guda-konsellua baturik bere iritzia eman zeban, ezik, oberen-oberena izango zala, karabeletan sokorruarekin zijoan jendea ontzi gudakoetara igarorik indarrak geiagotu, eta gordezkeria seguruan jartea. Zeñari erantzun zion Okendok, ezen, iñolako modura ezin

zezakeala ark esaten zebana, bada, Errege gandik zeukan agindea zala esan dan jendea sartutzeko Pernambucon, jazarran izan litezketekean otz ta beroen irriskuan ifni bage. Onetan geiago bage La Capitana Españakoak disparatu zeban pieza bat, kontuan ifinteko osterontzeko ontziak jarri zitezela batallarako moduan. Bereala beste tiro bat disparatu zion etsaiari ataiatzan zebala peleara eta luzatuaz denpora berean estandarte erreala. Holandesak naitzat arturik, erantzun zion beste sutunpada batekin, eta Eskuadra biak bata besteagana begira jarri ziran, hi baldin baiz, ni banauk. La Capitana Holandesa beste barku andienetakoarekin aurkeztu zan Okendok zeramanaren kontra; beraren Almiranta ere zuzendu zau Españatarraganotz, zeñari egin izan zion agitz su gogorra, eta Santa Barbaran irazekirik ondoratu zan bat batean, eta Almirante Vallecilla gaizkieritua eta eskuak errerik erori zan urtara. Gertakari au ikustean Jeneral Hanspaterrek bere Kapitanarekin eraso zion Españakoari, beste lau Galeon ondoren zituela, eta iritsi zan abordatze-ara arrabi andian ezarten ziola arpoia, jarten zalarik aiñ urtean, ezik, Holandakoaren zuaitezarra edo baupresa sartzen zan gurekoaren makilla nagusi eta messanaren tartean; alako moduan ezik gelditu ziran trebesaturik alkarri josiak bezala. Etzizaion denpora asko igaro Buruzari Batavoari bere arrokeriazko sarrera moldakaitzaz damutu bage, uste bazeban ere aixa ta fite, astinaldi ona emanik, ateratu Okendoren bajeletik. Hanspater andia aiñ buruzpide txarrean arkitu zanean nai zukean aldondu, bañan Okendok kalabrote lodi batekin barkua loturik, gelditu zeban nai ta nai ez segururik; eta lemari laga zion bere erara, etsaiaren ontziak egin zegikean indarrezko astinaldi eta danbatakoarekin irabazi al bazezakean, barlobento gelditzen ziralarik Kapitana biak saietsetik saietsera alkarri lotuak. Egoera onetantxen berperean irauli ziran sua urratzera. Egia da etsaia bere indarraz baliatzeko era obean arkitzan zala, zergaitik gure Capitaneko sutunpadi beeko endanakoa ezin jokazitekean, eta beraren balak ogei ta bikoak ziran; bañan Holandesak disparatzen zituen goiko endanada eta beekoa bala berrogeiñoakoakin. Etsiak ausardi andian saltatu ziran Españakoaren Plaza armaetakora, bañan beretakorik bat bakarra ere etzan gelditu izan bizirik. Peleatu ziran ezin geiagoraño beren izateaz etsitako gizonen gisa, eta odoltzatu ziran itsasoak gorputz ill montoi erorten ziradenakin. Aserreagotu zan jazarra geiago, etsaiaren beste Galeon batek bigarren saietsetik Okendori eraso zionean, eta abordatzen zitzaiola, gelditu zan Capitana gurea su biren erdian estukiro, alde batera ta bestera ardura andiarekin arretaz begiratu bearrean. Estura aiñ larritasun gogorrekoan D. Antoniori laguntzalle iritsi zitzaion ontzi



Placeres berreun toneladakoa; bañan erratu zeban ekinera, zeñean etsaia-
ren branka biak alkarri josi naiean aurreragi sartu izan zalako, galtzeko
zorian arkitu zan jende guztia uraren gañean zebala, baldin Okendoren
azkartasunak bere Capitanera artzeko bidea fite egin izan ezbalu.
Masibradi zeritzan gure beste ontzi bat Kapitan Juan de Prado agintari
zebala soma obean eta egokiago sartu zan etsaia zirikatutik, beregana
begira ifintera, zeñak Holandes Galeona beartu zeban nai ta nai ez buruz
buru peleztera, lagatzen ziezatlarik La Capitana biai bakar bakarrean,
nor geiagokoak ziraden ikust zitezten. Itsas batalla onek iraun zeban goi-
zeko zortzi orduetatik arratsaldeko lauak arteraño. Denpora onetan guz-
tian Okendo beldur bagea ezpata eskuan zebala, eta gorputzean oialez-
ko soñeko senzilloa beste gordegarrri bage peleatu izan zan etsaien kon-
tra, ontzi-gaztelutik kendu ere bagetanik. Lanzerik gogorrenetan berari
ongiengana lagundu ziotenak ziran Sarjento nagusi D. Lazaro Egiuren, eta
bi Kapitan Martin Larreta eta D. Jose Gabiria. Azkenean gure La
Capitanak disparatu zeban pieza bat proatik Holandakoaren poparen
kontra, zeñari sartu zion sua takoarekin Santa Barbararen ateetako bate-
tik. Asi zan irazekitzen portizki, eta egin al guztiak egin arren illtzen ziran
Holandesak montoika beren seta gogorrean. Jeneral Hanspaterrek ikusi-
rik erretzera zijoaal garretan, edo arras ernegaturik, edo ta irriskuaren
igesi bota zeban bere burua urtara, non ito zan salbatu zitekeana baldin
nai izan balu Españako Capitanera igaro. Oni ere sei edo zazpi lekutatik
itsatsi zitzaion sua, etsai irazekituaren urrean arkitzen zalako; bañan ontzi
Masibradik ateratu zeban irriskutik, eta seguru jarri zeban kalabrote bate-
kin. Irabazi zan Estandarte Batavoa, Españakoa gelditzen zalarik arrain-
tzarako sarearen gisa zulatua sutunpadi eta muskete tiroakin. Ill ziran
etsaiaren aldekoak milla ta bederatzi eun gizon igaroak bakarrik La
Capitana eta Galeon bietan, beraren armada osterontzekoak galdu zitue-
naz gañera. Gureetakoak ziran illak bost eun laurogei ta zortzi eta erituak
berreun ta bat. Holandesaren ontzi gañerontzekoak ikusirik beren
Capitanaren ausiabantza ikaragarria, belak luzaturik jarri ziran igesbidean,
zeintzubei supita bizian jarraitu zitzaien gauak lekuri eman etzeban
arteraño guztian. Gure armada ere irten zan zatikatua txit, eta La
Capitanaren etzan-lekuak, ganbara ta saietsa balazoz josirik arkitzen
ziran desegiteko zorian. Bañan batalla irabazitako pozaz, eta
Pernambuco ta beste Plaza Brasilkoetan sokorruak sartutako atseginta-
sun parebagekoak, gozarotu zituzten gañez eragiteraño, jazarran igarota-
ko atsekabe guztiak. San Agustinen ongitu zan gure armada, Oztugartera
iraultzeko lainbat izan zedin moduan, eta alaiexen sartu ere zan Lisboaara

azaroko illaren ogeigarren egunean, non bere azaña andiaren saritzat
etartu zeban *consejero de Guerra* edo Gudako konsellariaren titulua.

Milla seieun ogei ta emeretzigarren urtean are geiagoko mirariak
egin izan zituen Okendok, Holandako almen guztiaren kontra. Paisés-
Bajos deitzen zaion tokikoak Franzia ta Holandaren kontra sokorru
andien bearrean arkitzen zirala, Españako konsellu batiztuak eta guda-
koak Okendo esleitu zuten estura larrian zeuden urrikarriak laguntza
emateko. Irten zan eginkizun balioso onetara bere armadarekin Cadiztik
aboztuko illean, eta Coruñaaren urrera iritsi zanean alkartu zan Don Lope
de Hocesen jendearekin. Kantauriako eta Galiziako itsasaldeak zalagar-
datuaz zebillen Franzes Eskuadra Bordeosko Arzobispoak agintzen
ziona, ezin billatuz jarraitu zeban Kanalera, zeñetara iritsi zan agorrilla-
ren amargarrenean; eta amaseigarrenean agertu zan. Dunastik amalau
leguara, amabi ontzirekiko Eskuadra Holandesa, zeñagana batu ziran
beste bost bereala. Oek ikustean Españatarretako batzuben nabarmen-
durik joan ziran lasterrean berai erasotzera, eta Okendo ikusi zan baka-
rrik bere La Capitanarekin, etsai armada guztiak ingurutua. Lanze irrisku
andikoan bazegoen ere etzan estututzen potoko esnea baino geiago, eta
beraren eginal guztia zan etsaiaren La Capitana billatzea buruz buru
peleatzeagaitik; zeña ikusten zeban zegoela kanoi tiro batekoa bidastian
beraren bajilak illargi erdiaren modura naspillatua, eta guztiak Españako
La Capitanari su egiten ziotela. Guztiaz ere, gitxika gitxika bidea epakirik
noizbait bear ta iritsi zan Okendo La Capitana Holandesaren albora, eta
ekin zitzaion sutunpa ta musketeakin portizki abordatzeko ustean; bañan
bete etzeban bere naia, bela luzaturik igestu eta aizapean zeudenen babe-
sera sartu izan zalako.

Etsaiaren La Capitana aldondu zanean ekin zitzaion Don Antonio
Almirantari, eta kanoi tiro batekin bota zion belatxo proakoa. Bereala
etsaiak, zabaldurik geiago bere belak, laga zeban jazarra, bajel bat onda-
turik bi gizon baizik salbatu bage. Egia da gure La Capitana ere, bakarrik
peleatu zalako, destresnatua gelditu zala berrogeita iru gizon illak eta
beste ainbeste eriturekin, oen tartean Quiros, Escoronzeta eta Oramoro,
irurak kapitanak. Bigaramunean illaren amazpigarrenean ikusi zan
berriro etsaia amasei ontzi geiago zituela eta emezortzigarren goizeko
ordu batean aizaldea irabazi ezker, peleari ekin zioten gureakin. Batalla
onek iraun zeban arratsaldeko lauak arteraño. «Habiendo llevado el
mayor peso, dice al Rey el mismo Don Antonio, La Capitana y
Almiranta Real Santa Teresa, y algunos pocos galeones, porque los
demas se sotaventaron».



Patu obeagoaren diña zan Almirante Mateo Blajain balientea izan-
du zan aldi onetan suerte bagea. Gizon garboso au bere ontziarekin
aurreratu zan etsaia biratzera irriskuari begiratu bage, zeñari sutunpadi-
ko bala batek eraman zion burua. Ustez ustekabeko ezbear donge au ger-
tatzean, Ujalainen ontziko jendea gelditu zan korde bagetua bezala, ez
non zegoen eta ez zer egin bear zeban etzekitela. Etsaia aiñ era onean
arkitu zalako abordaturik errendatu zeban fite eta erraz aski Ujalainen
jendea bere ontziarekin, bañan Okendok, zeñarentzako etzan ezin
egiñik, bere La Capitana prestamenak urratuarekin eraso zion berriro
etsaiari gogorki, baita oska erazo ere itsaspendua zeukan ontzia bere jen-
dearekin. Arratsaldeko lau orduak izaugo ziran Calais eta Douvres bitar-
teko goaiak eraman zutenean Okendo Inglaterrako itsasaldeetarontz, eta
gertatu zitzaion Dumas-ko portuan sartu bearra nai ta nai ez. Egoitza
doakabe onetan arkitu ziran gure La Capitana eta ontzi Santa Teresa,
iñola ere ezin ugarotu zezaketekela; eta emendik biraldu zituen
Okendok bajel batzubetan sokorruak Mardie-ra, zeñetara iritsi ziran nai
bezain ondo, eta bera zan irrisku andiko lanbide onen eginkizunik aurre-
nengoa. Gure barku urratuak arabatu bezin prest portu berera sartu zan
Holandako armada, eta bota zeban aingura aen aldamenean. Portu artan
bere armadako berrogei ontzirekin arkitzen zan Almirante Inglaterrakoa,
ez bataren eta ez bestearen alde irteteko, eta ez bere menpeko tokian
arrotzai batallan lagatzeko ifiniak dauden lege zuzen indartsuak beartu
zuten Españaikoaren eta Batavoaren erdian jarrea; bañan etzeban balio
izan oarpen ain bidezkoak, zergaitik Holandesak, indar geiagokoakin
arkitzen zalako arrotasunean, toki aiñ itzal andikoari begiratu bagetanik
eraso zion Okendori itsumustuan zegoela portu berperean. Bidebagekeri
au ikustean Don Antoniok egin zeban bizarria zan bereal-bereala portua
lagarik itsas zabalera irtetea, atakaitzen zebala etsaia baldin peleatu
naiean arkitzen bazan atera zedilla bere armadarekin kanpora. Esan ta
egin, jarraitu zion onek garaipenaz kontatzen zebala bere indar geiago-
koen bidez, zeñean zeuzkan guztitara eun ta amalau bajel, eta Okendok
ogei ta bat baizik ez. Alkarganatu bezin laster ingurutu zeban Okendo
bere La Capitanarekin erdi erdian artzen zebala, bañan damutu zitzaion
prest aski gisa artan jarria, ezin buruatu zebalako Don Antoniorekin.
Bereala ingurudeari lagarik etsaia sakabanatu zan zatika, gure bajel bana-
kakoari ekitera. Talde beetako bati lendabizi arpegi eman zion ontzi
Santa Teresa, Capitana Don Lope de Hocesena; zeñak etsaiaren zortzi
bukeri gogor egin izan zien luzaro, botatzen ere zituela beretako batzu-
bek ondora, alik eta ezbearrez ontziak su artu eta jenderik geienarekin

Don Lope bera erre zan arterañoakoan. Etsaiaren kopurua izanik ain
geiegia, beste sei ontzi ere errendatu ziran arras nekatuak, eta oen artean
La Capitana Galiziakoa, zeñaren agintari zan Feyjoo. Ordurako etsaiak
ere galdu zituen ogei ontzi bere aldekoak, eta gañera Españatarrai lena-
go arrapatuak. Armada Holandesa garaitpenaren aztarna oekin guztia
arrotu eta antasterik jarri zan, Okendo bere La Capitanarekin beste era-
gozpenik itsasoan ikusten etzebalako, eta azkenengo bere indar guztiakin
eraso zeban humanta Euskaldunaren kontra; «*caso raro! una armada entera
contra sola una fragata!*» dio kondairak. Egiteko andi au gaizki irten zite-
kealako beldurrearekin bazituen nork esanendu D. Antoniok, obeko
zebala irauli Dumas-ko portura, zeintzubei erantzun izan zien «No per-
mita Dios que con una mancha tan grande menoscabe mi reputacion.
Jamás el enemigo me ha visto las espaldas. Lo que se ha de hacer es arriar
las velas, y esperar resuelto al enemigo». Eskuadra Holandesa arritu zan
lazki, Okendoren garbo aiñ beldur gitxikoa ikustean; eta bere indar guz-
tiakin erabaki zeban, sutunpadiarekin portizkiro erasorik ez lagatzeko,
alík eta errendatzera beartu zedin arteraño. Ontzi bakarraren kontra etsai
samalda aiñ andia ikustean, sartu zitzaion izuikara gogorak gure solda-
do eta itsasgizonak jaxierazo zituen eskotillapera; eta Okendo ustebage-
ko gertakari onen bidez atsekabeturik, joan zitzaion alaitzera, eta asi
zitzaion esaten onela; «¿Que humor es, ¡oh soldados y compañeros míos!
el que vilmente discurre por vuestras venas? ¿Habeis olvidado que aun
no ha ocho días que este enemigo, estos mismos bageles y este general
que vemos delante, habiéndolo embestido con sola esta Capitana,
teniendo él 17 navios, nos volvió infamemente las espaldas? Considerad
que no tenemos mas medio que pelear; porque retirarnos no puede ser
viviendo yo. Si Dios fuese servido que en esta ocasion perdamos la vida,
moriremos en defensa de la religion católica contra tan implacables ene-
migos de ella, por el crédito de nuestro Príncipe, y por la reputacion de
nuestra nacion.... No os espante el número, que cuanto mas fueren ten-
dremos mas testigos de nuestra gloria, *Santiago y á ellos!*». Jeneral maitaga-
rri erru andiko onen itzaldi sutuak bere soldaduen biotzai irazekirik,
eskotillapetik irten ta irauli ziran nor bere tokiak betetzera. Etsaiak bere
sutunpadi guztiarekin jardun zeban sutan egun artan gelditu ere bage,
Okendo azpiratuko zebalako uste oso betean; bañan alper alperrik. Alde
guztietatik ertsitua egon arren gure La Capitana garaitezgarria, etsai
samalda izugarriari gogor egiñik gorde izan zan, mundu osoa arritu lei-
kean moduan. Batalla onetan ogei ontzi galdu ziozkan etsaiari, eta bere-
tako geienak arras ondora botatuak. Azken azkenean ikusirik



Holandesak bere indar guztiakin ezin desalaitu zebala ontzi bat bakarra, artu zeban bukaerako asmoa bere La Capitana, Almiranta, eta beste bi bukerekin aboratu bear zitzaiola Okendori; bañan etzan batere estutu gudari Gipuzkoatarra. Arazo oetan etsaia zebillela beraren indar andiaz ixekaturik itxeden zion D. Antoniok zeuzkan bela apurak jaso eta donario ederrean; eta bajelak urreratu zitzaiozkan bezin prest, bala mueta askorekiko deskarga itxi lodi batekin atzeratu zituen guztiak arin aski. Akaballako golpe erruzo onekin arras etsirik biurtu zan Holandes armada urgullusoa, burua makur makur zebala, eta beraren agintaria gelditu zan nasitua lotsa andiarekin; zeñari, batalla gogoangarri onetan igarotako gertakarien kontu estuak artu izan ziozkan Estados-Unidosetako Gobernuak; eta lanbide au aipatzeaz bakarrik artzen zeban izuikara ta lotsarekin etzeban erantzun izan beste gauzarik, ezpada itz oek; «Que la Capitana Real de España con D. Antonio de Oquendo era invencible». Itz labur oetan etsaiak berak egiten dion alabanza baino andiagoa zerekin ta nola egin al dakioke D. Antoniori? Holandes au ez ezik badira beste geiago ere, Gipuzkoatar gudari andi onek egindako azaña gogoangarriak goienengo mallara igo izan dituztenak; eta gaurko egunean ere, toki guztietan da beakurtua eta txit ezaguna D. Antonio de Okendoren izen ondra andikoa.

Gipuzkoatar oroitzarri au, Holandesai batalla irabazitako gauean, olagara ta gloriaz estalirik sartu zan Mardieko portuan, non igaro zeban negua. Bañan bere ibilliko nekeak, jazarraetako erasoak, eta berrogei egun ta geiagooan gorputzetik erroparik kendu bageak ekarri izan zion berotasunaren bidez indarrak gitxiturik beartu zan oian jartera, zeñetan zegoela begiratzen zion leio batetik bere La Capitana ta lagun maite gloriaz beteari, esaten ziolarik onela: «A mi, no me falta mas que morir despues de haber traído aquella nao y aquel estandarte con reputacion á este puerto». Emendik irten zan milla sei eun ta berrogeigarren urteko maizatzeke illean, eta Donostiaren urrera iristean, kupidaturik soldadu ta itsasgizonak ondo esate asko egin izan zioten gelditu zedilla bere etxean, alik eta zuzpertz arterano. Bañan bere lagun ondo esanai, eta jaioterrira sartutzearekin artu bear zeban pozkida beteari begiratu bage erantzun izan zeban: «La orden que tengo es de volver á la Coruña; nunca podré mirar mejor por mí, que cuando acredite mi obediencia con la muerte». Esan bezalaixen sartu zan Coruñan eta geiagotu zitzaion elgaitza; bereala eman zioten etsimena sendagiñak. Gaitzaren berotasunak erretzen ziozkan bere erraiak, eta desenganoa arturik zegoen ezkeroz eskatu zeban mesedez laga zegotela edaten baso bat ur. Eman zioten gogoz

atsegin egitearren; bañan eskuetan zeukala, izanik bera aiñ erlijioso ona, nola gudari andia, etzeban gozatu nai izan denpora laburreko atsegintasun hura; eta Jaungoikoari egin zion azkenengo eskani edo sakrifizioa, guztiz asko naikidatzen zeban edariari lagarik. «Había recibido (dio bere azkeneko orduetan lagundu zion Aita Gabriel Henao Elizagizon Kondairatzalleak) los Sacramentos de la Iglesia con religiosa devocion, y estando muy de peligro el dia del Corpus, y al tiempo que comenzaba á salir de la Iglesia la procesion solemne de esta fiesta, oyó el estruendo de la artilleria que disparaba la Real armada y escuadra de Flandes surtas en el puerto, y teniendo algo turbada la cabeza por la enfermedad, aprendió que se disparaba contra enemigos que las acometian. Hizo esfuerzo para incorporarse en la cama, pronunciando remisamente; enemigos, enemigos; dejenme ir á la Capitana para defender la armada y morir en ella. Reconocí eran los últimos alientos, y poniendo yo á su vista un crucifijo, y haciéndole las exhortaciones acostumbradas, espiró. Entré en persuasion que el ahinco para salir de la cama había apresurado la muerte.... Despues fué abierto el cadáver para embalsamarle y llevarle así al templo de la Compañia de San Sebastian, y notamos como cosa particular que el corazon era muy grande, aunque el cuerpo pequeño, y que el corazon brotaba un pelo crecido, que en heroes tan de primera magnitud que D. Antonio Oquendo es para reparado».

Henaok berak dudarik bage segurutzuten du, Felipe irugarren, eta laugarrenaren esakuntzaz batera, ezen, Españaren lendabiziko asieratik beren egunetaraño ezagutu dan Kapitanik irriskatuena, balerosoena, eta jakintsuena izandu dala, itsasorako, Don Antonio Okendo. Autormen berpera egiten dute, bada, itsasozko batallan gañean izkribatu izan duten gizon ernai guztiak.

Ikusten da, bada, argi eta garbi, gaiñ-gañoekoak eta guztiz gogoangarriak diradela Gipuzkoatarak, leorrez ez ezik, itsasoz ere egin izan dituzten azaña sarritangoak. Eta, nork somatu al dezake Juan Sebastian de Elkano Gipuzkoatar Getarian jaiio ta azitakoak zenbat ugarotu izan zeban? Bera izan zan, bada, itsasoz mundu guztia lendabizi ingurutu zebana; zeñagaitik esaten daben Indiaetako kondaira guztiakikoak berrogei ta amaseigarren orrian onela; «Grande fue la navegacion de la Flota de Salomon; un poco mayor la de estas Naos del Emperador, y Rey Don Carlos. La Nave Argos de Jason, que pusieron en las estrellas navegó muy poquito en comparacion de la de la Nao La Victoria, la cual se debía guardar en las atarazonas de Sevilla por memoria. Los peligros y trabajos de Ulises fueron nada en respecto de los de Juan Sebastian; y así él



puso en sus armas el mundo por cimera, y por letra, *Tu primus circundisti me;* que es decir; El primero eres, que me rodeaste; que conforma muy bien con lo que navegó; y a la verdad, él rodeó todo el mundo.»

Au esaten du, bada, beste gauza geiagoren artean, kondairak Elkanoren azaña andiaz itzegitean; eta berari berriro Don Carlos jaunak eman izan ziozkan kargu ondra andikoen aipamena ere egiten du argiroki.

*Mendietan ez ezik itsasoan ere,
Gipuzkoatarrak txit azkarrak dirade
Beren azañak ongi gordeak alere,
Urteak joan arren agirian daude.*

OGEI TA BOSTGARREN KAPITULUA

*Gure ama on maitati Gipuzkoak bere bular gozo indartsuarekin
guriro azitako seme leial gogoangarri anitz, nor ta non jaiok eta
zer gisatakoak izan diraden argitasun garbia, errien izenak abeze-
kiro dirala.*

Aiako Erriak seme buru oneko anitz eman izan ditu; oen artean ezaungarriena izan da Kapitán Matxin de Aia bere balore andi eta ondradutasunaren bidez, zeñaren eginbide prestuak goratu izan dituzten arrotzetarañokoak; begiratzea dago, bada, Paulo Joviok Hugo de Monkadaz itzegitean zer esaten daben, non ikusten diran argiroki beraren egikera balioso eta gizabide andiak.

Erri bereko seme Martín Arana de Etxaniz, Kapitana, bere leialtade eta errutasunaren bidez ezaungarritu izan zan Felipe irugarrenaren serbitzoan zebillela; zeñaren Majestadea denborale guztiz otz eta txit euritsuan lagundu zeban Errenteriatik Ondarribiara, biderik txarretenan bizkarrean eramatea eskinten ziola. Aiako beste seme asko izan dira leialtadean, armaetan, eta ondradutasunean, gañen gañenekoak.

Albisturko Errian arkitzen da Etxe purubetar Atodoko jatorrien sustraikia, zeñaren jabe ta nagusiak izan diraden beti leialak, ondraduak, eta serbitzo andiak egin izan dituztenak beren Ama doatsu Gipuzkoarekin Errege bidezkoen onerako. Don Fermin Atodo balerosoak gudako egikera balio andiko askotan serbitzatu izan zeban, bere bizia irriskaturik, Felipe bigarrena, eta onek naitasun ezin geiagokoa berari artu izan ziolako biraldu zeban Enbajadore Erromara, Españaiko Andizki guztien artean autaturik.

Don Pedro Atodo jende armatuarekin Errege Fededunak serbitzitzen izandu zan Granada artu bear zan denpora estura larrikoan, zeña ezaungarritu zan egikera gogoangarri artan.

Alegeriako Elizan Ama Birjiña Aranzazukoaren Aldare aurrean dago lurpetua Erri bereko seme Juan de Iria, zeñak bere ondasunetatik ifini zituen mundua mundu dan arte gogoango diraden onbideak. San Sebastianen izenarekin Elizatxo bat jarri zeban eskale bideanteentzako Arroztegi edo Hospital, gela berezitua estudianteentzat zebala, eta kapi-



llania betikoa urtean eun ta berrogei ta amar dukateko errentarekin. Erriko umezurz ta donzailla beartuai urteoro emateko utzi zituen laureun dukat. Urte guztietako Pazkuaetan Erri bereko jende beartuaren artean partitzeko eun dukat; eta bertako Eskola-maisuarentzako urtean eun ta berrogei ta amar dukat. Gizon ongille andi au ill zan milla sei eun ta amargarren urteko abenduko illaren seigarren egunean, eta bertan jaio ta bataiatua zan bezala, lurreratua izan zan Alegeriako Elizan.

Eliza berean Ama Birjina Errosarioko Aldarearen ondoan obiatua arkitzen da Erri bereko seme Irakasdun Don Nikolas Begiriztain Baldonsellako Arzediano Iruñeko Eliznagusian izan zana, zeñak ifini zeban Kapellania bat urtean eun dukateko errentarekin.

Alzo-azpiko Erriak ere badu seme bat emen ezarriko ditudanen alde-tik ezpadere txit oroitzagarria berez dituen doaiakgaitik; seme au da Joakin de Eleizegi, zeña jaio zan milla zortzi eun, emezortzigarren urteko uztailaren amargarren egunean; eta gaurko egunean luzetasunean da zazpi oñ eta zortzi onza; eta pisuan dauka amabost arroba. Ibilli da Españaiko, Portugalko, eta Franziako Erresuma osoetan, eta ez du arkitu bat bakarrik alderatzekorik ez ezik galtzarbeaz gora igarotzen zaionik ere; argatik legez ta bidez ifini diote *Erraldoi Euskaldunaren* izengaña. Aurkeztu da izendatu diran iru Erresumaetako Errege, Erregiña, eta beren jatorrikoe-tara, zeintzuk osterontzeko ikusi dabeen guztiakin batera arritu dira beraren anditasun oi ez bezalakoaz; andia izateaz landara, gai eta alde guztietara da txit egokia, zuzena, eta ondo egiña.

Amasako Erriari Larrea deitzen zaion etxe lenengoetako seme ta jaun ta jabe Gil Lopez de Oñaz bulardetsuak zortzi eun Gipuzkoatarrekin, Nafar ta Franzes talde andien kontra irabazi zeban Beotibarko batalla gogoangarria, lenago amaikagarren kapituluaz zearo ezarria dagoen bezala.

Amezketako jatorri bat Gipuzkoan jaioa izena Juan de Amezketak zebana, milla laureun ogei ta amargarren urtean Inghlaterratik Enbajadore etorri zan Errege D, Juan bigarrenarengana. Gipuzkoatar onek berari zegokion bizimodu bidezkoa zeukan Inghlaterran, Kondairak esaten debanez; eta Españara aiñ ondra andiko eginkizunera biraltzearekin dakusku argiroki, Inghlaterran gizon esleitua zala.

Andoaingo semea zan Aita Larramendi gogoangarria, zeñak agertaratu izan zituen Euskarazko itzkuntz ederraren Gramatika, Itztegia, eta beste gauza anitz gai oni dagozkionak, etsai ozipindu txar askoren esker gaiztoan alere.

Erri bereko seme argidotar D, Juan Baupista de Erro izanik jaiotzako itzkuntz gozoari amodio andia diona, azaldu ditu bi liburu, bata *Alfabeto primitivo*, eta bestea *El mundo primitivo*ren izenarekin, zeintzubetan ikusten dan argi eta garbi gure Euskara jakintsua bere gazte denporako janzi eder aberatsakin txukunki apaindurik lendabiziko egunetan zan bezin mardul, lirain, ta pizkor.

Asteasuko semea zan Aita Julian de Lizardi Jesuita, zeñak kristau fededunen erlijio Santua gordetzeagatik bere bizia galdu zeban Paraguaietan, non Mairuai Ebanjelioa predikatzen ari zala, ill zuten berak gezia edo saetakina.

Azkoitiko Erri gozatsuan jaio izan dira seme argidotar anitz arma eta letraetarako. Guztien artean agirikoenak izan dira Idiakezko etxe Purubetarraren jaun ta jabe eta jatorriak, zeintzuben beren egikera andien bidez deituak izandu diran jarlekurik goienengoetara. D. Pedro Idiakez egon izan zan Errege Fededunen Ganbarako idukitegiaren zaintzalle nagusi, zeñari, bere leialtade pin eta serbitzo andien saritzat, eman ziozkaten iru bizialdirako Alkatetza Saiazkoa, Gipuzkoako Eskribani nagusia, eta beste zenbait eskubide. Gizon gogoangarri au ill zan Napolesko Erresuman, milla bosteun ta seigarren urtean. Onen anaia D. Domingo Erresuma berean egondu zan Brindisko Arzobispo.

Felipe bigarren eta irugarrenaren denporan D. Martin Idiakez egondu zan *Secretario de Estado*; eta beraren osaba D. Juan de Zuazola Azkoitiko seme Obispo Astorgan zegoena ill zanean, egin zan Yarza eta Alzegako etxe aide nagusietako jaun ta jabe.

D. Juan de Idiakez, *Duque de Granada de Ega*, Martizti errealetoako Jenerala, izan zan Fernando seigarrenaren gorputz ta gela-zaintzalle, bera lenen edo Prinzipte zala.

Dukearen anaia D. Tomas izandu zan tropa errealetoako Teniente Jeneral, eta Andaluziako itsas-aldeetako Kapitan Jeneral, zeñak egin izan zituen serbitzo andiak.



Zuazolako etxe argidotarrak orobat eman izan ditu gizon baleroso jakintsu anitz, eta batez ere D, Lorenzo de Zuazola, zeña Pilipinaetako armadaren Jeneral zala, ill zan doakabero.

D. Tomas de Larraspuru jaio zan Azkoitian milla bosteun laurogei ta bigarren urteko abenduko illaren ogei ta amargarren egunean, zeña izandu zan Indiaetara bideko gortedadiaren Kapitan, eta ill zan milla sei eun ogei ta amabigarren urtean.

Azkoitiako Erriaren, Probinzia Euskaldunen eta España guztiaren ondra ta gloriarako jaio zan Erri onetan milla zazpieun ogei ta bederatzigarren urteko urri-illaren ogei ta irugarren egunean Don Franzisko Jabier de Munibe ta Idiakez Konde de Peñaflorida, Euskaldun Laguntza Errealaren lendabiziko ipinle ta zuzendari betikoa; ill zan berrogei ta amabost urteko adinean arkitzen zala, milla zazpi eun laurogei ta bostgarren urteko ilbeltzaren amairugarren egunean, eta izandu zan lurperatua Markinako Erriaren Eliza nagusian, zeñaren jaun ta godartari bera zan. Bere jaiot-erriari zion amodio gartsuak, lagun urkoa doatsueraz betetzeko zeban naitasun izekiak, jakintza onbidezko anitz ondorengoai erakutsi naiak, nekeaz oroitu ere bage lanean jarduteko zeban jaiera andiak, beraren argitasun eta estudio parebageak, eta osterontzeko doain eder gizonagan arkitu al leizkeanakin ondo janzia zalako, Konde de Peñafloridaren izen andia goienengo mallara igo izan dabee Dierria arrotzetarañoakoak, eta Soziedade Matritense, ta Euskal-errikoak doaindu dute asko beraren oroipen argidotarra.

Azpeitiako Erriaren ezagutu dira bertan jaiotako seme gogoangarri anitz, beren oroipena egitea merezi dutenak. Erri onetako jaiotar Nikolas Saez de Elola izandu zan Kapitan, eta ezagungarritu zan asko Peruko irabazkida edo konkistan. Azpeitiko Elizan arkitzen da kapilla bat bere kapillau, kantari, organo, zillar ta apaindurakin gizon argidotar onek ifinia.

Eliza bereko beste Kapilla batean daude Erri onetako seme Don Martin de Zurbano Tuyko Obispo eta Inkisizioako Agintari nagusi izandakoaren ezurrak atsedeten, zeña ill zan Madrillen milla bosteun ta amaseigarren urtean.

Don Juan de Uranga Erri onetako semea Obispo Kuban zegoela ill zan milla, bosteun, berrogei ta amaseigarren urtean.

D. Fr. Martin Ignazio de Loiola, San Ignazioren illoba, erlijioso Franziskoa, Obispo izan zan aurrena Paraguaian, eta gero Arzobispo Txarkasen.

Don Jose Franzisko de Enparan izan zan Martizti errealekako Teniente Jeneral, eta Kanariasetako aditzaña Erregezkoko Komandante Jeneral ta Dianagusia. Beraren anaia Don Fr, Sebastian de Enparan, bi aldiz egon zan Priore Eskorialen, eta azkenean Obispo izan zan Urjelen.

Don Jose de Iturriaga izan zan Gipuzkoako alkarkida Karakaskoaren lenengo zuzendari, eta Eskuadrako Buruzari; zeñak bere eginkizun andiai kobru ondo emateaz landara diabetatu izan zituen toki asko Orinoko ibai inguruan.

Azkenik, Azpeitiko Loiolan jaioa zan Aita San Ignazio ill-ezkorra ere, eta bera bataiatu zan Ponteoa ondo gordea arkitzen da zillarrezko txapaz guztia estalia. Santu glorioso onen izen gozoa eta beraren mirari andiak, mundu osoak daki dirala adigarriak eta arrigarriak.

Beasaingo Erriaren jaiotako seme gogoangarri anitz, beren oroipena egitea merezi dutenak. Erri onetako jaiotar Nikolas Saez de Elola izandu zan Kapitan, eta ezagungarritu zan asko Peruko irabazkida edo konkistan. Azpeitiko Elizan arkitzen da kapilla bat bere kapillau, kantari, organo, zillar ta apaindurakin gizon argidotar onek ifinia.

Bergarako semea zan San Martin de la Ascension, Agirrerren etxetarretakoa, Japonen martiritzatua milla bosteun laurogei ta amazpigarren urteko otsaillaren seigarren egunean; bañan despitatzen dio Vergarari Beasaingo Erriak, zeña urte gitxiz onontzaño iduki izan dan San Martinen jaioterrri egiazkotzat, eta gaurko egunean ere aintzakotzat dauka Gipuzkoako Probinziaren zatirik andienak.

Antonio de Rois y Rozas, Bergaran jaioak biurkeratu zituen liburu Jaungoikoren Uriaren izeneko San Agustinenak, moldizkidatuak Madrillen milla seieun ta amalaugarren urtean eta Anberesen milla seieun irurogei ta amaseigarrenean. Izkribatu zeban *Ispillu obetandezko* edo *Espejo de perfeccion* Madrillen argitaratua milla sei eun ta emeretzigarren urtean, baldin ezpada besteren bat izen berperekoa D, Nikolas Antoniok zuzumura zeban bezala.



Paulo Jose Arriaga, Jesuita, egitade batzuben aurkillea, Habanaren gertuan ito zan urrikala batean milla seieun ogei ta bigarren urtean, Indioen artean bizi izan zalarik ogei ta emezortzi urtean.

Debako Erriak izan ditu seme gogoangarri anitz, zeintzuben artean ezaungarrituena dan Andia Irarrazabalen jatorria. Odol garbiko sustrai eza-detsu onek eman ditu gizon asko armaetarako Españan ta Amerikan azaña andiak egin izan dituztenak.

Erri onetakoak ere ziran Fr. D. Juan de Espila Napolesko Erresuman Obispo, Masera deitzen zaion tokian egon zana; eta D. Pedro de Leizada Obispo Tripoliko izandua, zeñari Eliza artan eman zioten lurra.

Orobat ziran Eri bereko semeak Domingo de Amasa, eta Domingo de Arriola Murgia, biak Kapitanak eta armadan itsasoz serbitzo andiak egindako gizonak.

Donostiako Uriak gai guztietarako eman izan ditu seme argidotarrak, erarik egokienarekin tokirik oberenean arkitu izan dalako; zeintzuben izendatuko ditudan bakotxa beren saillari darraizkiola Eliztarretatik asirik.

Domingo Mancio, edo Mans izandu zan Obispo Baionan amairugarren eunkida edo sigloan.

D. Fr. Juan Esteban de Urbietta Obispo izan zan Napolesen Telleri deitzen zaion tokian.

D. Fr. Prudenzi de Sandobal izandu zan Tuy eta Iruñeko Obispo, eta Badajoz ta Zamorarako ere autatua.

D. Franzisko Seguroa, Arzobispo Zaragozan egon zana jaio zan milla bost eun laurogei ta emeretzigarren urtean, eta bataiatua izan zan Donostiako San Vicenteko Elizan.

D. Fr. Franzisko de Ganboa, Agustinoa, Teolojiako Maisu ta erakuslea Salamankan, Erregeren Predikari-nagusia, Obispo esleitua Amerikan, *de la Paz* izendatzen dan lekurako, D. Juan de Austriaren konfesorea, Obispo Koriakoa, Arzobispo Zaragozakoa, Uri artako bakiregi Santo Tomas Billanuebakoaren ifinlea, ill zan milla sei eun irurogei ta amalaugarren urteko maiatzeko illaren ogei ta bigarren egunean Torresko Markesen Etxeetan, jaioa zalarik milla sei eun ta zazpigarren urteko urri-illaren bian, eta bataiatua Santa Mariako Eliznagusian.

Donostiako semeak gitxigokoak izan ez dira Gobernuo lanetan, gudan, itsasoko lanbidean eta osterontzeko eginkizun gizonari dagozkion

guztietan. Aurrenengoen artean kontatzen da Don Alonso Idiakez Karlos Kintoren goarpelari eta lenengo konsejuko, Estremera Santiagoren ordenako Gomendaria, jarraitu zion Enperadoreari Tuneza egin zeban bidajea. Berak zekutsala egin zan milla bosteun ta berrogeigarren urtean, Españarekin Franziazen arteko alkardadea, Martiziti Enperadorearena Parisa etorri ezkerotzik, eta biraldu zeban Enperadoreak Española Prinzipe Felipe bigarrenarengana, Infanta Doña Mariarekin Duke de Orleansen ezkontza erabakitzaera, ematen zitzaiozkala dotetzat Flandesko batiztunak.

Idiakez Donostiako seme argidotar au Alemaniatic Española zeterrela Sajoniako ibai bat igarotzeko tenporan ill zuten Luteranoak milla bosteun berrogei ta amalaugarren urteko garagar-illaren irugarren egunean, zeñean eralleak izandu ziran zemaituak merezi zuten bezala Garibai, ta Sandobal jakintiak esaten dutenez. Beraren gorputza ekarri zan Donostiara, eta arkitzen da lurpetua kapilla nagusi Konbentu San Telmokoan, zeñaren eta Dominika Donostiako Antigukoan Ipinlea izandu zan bera.

Don Juan de Idiakez, seme Don Alonsorena, Felipe bigarren eta irugarrenaren goarpelari onbidekoa, Gomendari Leongo, Konselluko Dianagusi, Biralkin Genoban ta Venezian, izan zan gizon arretatsu eta oitura onakikoa; ill zan Segobian milla seieun, ta amalaugarren urtean urri-illaren amabian, eta beraren gorputza ekarri izan zan San Telmoko Konbentu Donostiakora. Uri guztia proguko modura duloz janzia irten zan beraren errezibimendura Oriamendiko gañeraño.

Don Migel Okendo, zeñari Felipe bigarrenak biraldu izan zion Aranjuetik titulu Jeneral itsasoetakoa milla bost eun irurogei ta amazpigarren urteko maiatzeko illaren amairugarren egunean egiña, jaio zan beraren izeneko etxe Purubetar Donostiako murruez kanpotik Uliako ondartzatetan gaurko egunean ere agiri dan artan. Gizon argidotar onek egindako azaña andiak kondaira askotan daude ezarriak. Beraren seme Don Antonioren egikera miraritsuak aipatu ditut lenago, guztiak osotoro ez bada ere, gudari errutsua izandu zala aditzera emateko lainbat.

Oroitpen argidotarra merezi dabena da Jeneral Don Migel bigarren Okendo, seme Don Antoniorena, zeña izan zuan ezkontzaz kanporakoa Doña Ana de Molina Andre leñargiti Torrejimenokoagan. Milla seieun, berrogei ta amaseigarren urtean Kantauriako eskuadraren Jeneral zegoe-la egindako serbitzo andien bidez izandu zan Felipe laugarrenaren gogokoa. Lanbide onetarako ekidatu zituen sei Galeon eta patatxe bat; milla seieun, irurogei ta irugarren urtean bere kontura eragin zituen beste ontzi



bi armada Ozeanokorako, zeintzubetan serbitzatu zuten Kapitan beraren bi seme Don Migel Karlos eta Don Jose Okendok.

Jeneral Don Lorenzo de Ugalde Orella, zeñaren azañak dira guztiz andiak, batez ere Filipinasetako itsasoetan milla sei eun berrogei ta seigarren urtean eta berrogei ta zazpigarrenean Holandesaren armada emezortzi bajel gudakoen kontra egindako pelea gogorra, zeñak iraun zeban arratsaldeko zazpi orduetatik bigaramun goizeraño, gizon bat bakarra ere Kapitanatik galdu bage; eta bost baizik ez Almirantetik ere. Bizarri andi au egin zebalako errezibitu zuten Manilan olagaratze andiak Uri osoak eta bertako Gobernadore Don Diego Fajardo jaunak.

Don Markos de Aranburu, galeon Indiaetakoen Jenerala, zeñak Eskuadra bat kidatu zeban Ribadeotik Lisboara milla sei eun ta seigarren urtean. Don Juan de Etxebarri Konde Villalcazarkoa, Markes Villarrubiakoa, lau aldiz galeonen Jenerala. Don Juan Domingo Etxebarri beraren anaia, Jeneral ontzidietakoa. Don Agustín Diustegi, zeña ezagun-garrítua izan zan asko Flandesa, Rochelara, eta Burdeosako bidaje eta Kartagena Indiaetakora, eta Habanara egindako irteeraetan. Don Bartolome Urdinso Jeneral eskuadrakoa milla zazpieun ta amazpigarren urte inguruan ezagutua. Don Blas de Lezo, gizon gogoangarria, Kartagena Indiaetakoa ertsitua zegoela, Almirante Vernonen kontra gordezkeratu izan zeban España guztiaren pozkida beterako milla zazpieun ta batgarren urtean. Almirante urgullusu onek ponpareriaz eranzatu zeban metallu batean Jeneral Lezo belauniko beraren oñetan jarririk ezpata eskura ematen ziola, garaipenaren segurantz beretzat kontatzen zebalako. Metallu au agertaratu zeban Maisu Florezek.

Don Antonio Alliri izan zan Almirante itsasoko Indiaetara bideko armadan. Don Hernando Martinez de Aranburu, Karabelaskoan. Filipinasetarako bidajeen lagundu zion Jeneral Don Juan Ronkillori milla sei eun ta amargarren urtean. Don Jazinto Antonio Etxebarri, Don Juan eta Don Juan Domingo Etxebarri Jeneralen anaia, irurak Domingo Etxebarri Sekretarioaren semeak, eta Pedro Etxebarri milla laureun, berrogei ta amargarren urte inguruan Nafarroako Errege Don Juan bigarrenaren goarpelari izan zanaren jatorriak. Oraindik galdu bage eta osorik zintzoro gordea arkitzen da karta bat D. Jazinto Antonio Etxebarri Almiranteari bere ama Doña Maria Ana de Loberak milla sei eun ta berrogeigarren urteko apirillaren amalaeuan egiña, esaten ziolarik menazki, ezen, bere anaia ondraduak idurikatu zitzaela eginpide guztietan. D. Antonio Isasi Gipuzkoako Eskuadraren Almirante zan milla sei eun ta

amabigarren urtean, eta egin izan zituen zuzenkiro Jeneral D. Antonio Okendoren tokian berari zegozkion lanbide guztiak.

D. Pablo Agustin de Agirre ontzi Kapitana izandu zan ezagun-garrítua iru Ingeles ontzi el Oxford, Keut, eta Lenox irurogei ta amarna kanoikori gogor egin izan zielako bere menpeko La Prinzesa bakarrarekin Ortegalko bukaeraren goiendea, goizeko zortzi orduetatik illunabarreraño guztian milla zazpi eun ta berrogeigarren urteko apirillaren emeretzigarren egunean. Gertakari au zearo ta luzeago paper anitzetan izkribaturik zabaldua arkitzen da, eta bereziki Utrextko gazeta maiatzeko illaren amaseigarren egunean, eta Felipe bostgarrenak garagarrillaren ogei ta iruan Kapitan Agirre berperari igorri ziozkan argibideetan; bai ta ere, beraren etxe argidotarreko oroitpenetan.

Kapitan D. Joakin de Agirre ta Okendo, zeñak enkargu goienengoren bidez Erregezko agindeak baturik, egiñeratu izan zeban itsasorako bear zan lege zuzena, zeñari zatirik andiñean D. Jose Mazarredo Jeneralak berriro azken esku-ukitua eman zion. Geroztik izandu zan, jarduera onetarako lendabiziko aldian esleitutako Jenerala-nagusi eta ill zan Guatemalan Dianagusi zegoela.

Don Santiago Zuazola; izkribatu zeban onek libru bat itsasoz dabil-tzanentzako balioa txit, non ifinten zituen toki guztietako izen erazko-ak, eta gudarako ondo armatua egon bear daben ontzi batek bear dituen prestamen guztienak, eta moldizkidatu zan Kadizen guardadi itsastarren ikasbiderako, zeñaren zuzendari ta kontuartzalle bera zan.

Don Migel Santos de Kamino Kapitan itsasoko ta gudakoa, Fernando seigarrenak emandako agerien bidez egin zituen serbitzo andiak Amerikako itsasaldeetan beraren erreinaldian.

Don Santxo de Leiba, Kapitan Jeneral Gipuzkoakoa, milla bosteun, berrogei ta amazpigarren urtean, beste Don Santxo de Leiba Kapitan Jeneral Gipuzkoakoaren semea, eta Don Antonio de Leiba ots andikoaren iloba bere argitasun ta jakinduariaren bidez gai askotarako izandu zan gizon andia txit.

Don Alonso Idiakez, Duke Ciudad Realkoa Birrei Nafarroakoa, Kapitan Jeneral kaballeriakoa, eta *Maeste de Campo* Milango Estaduetakoa, Komandante Jeneral eta Koronel Erregiña Doña Ana de Austria, eta Isabel Borbongoaren emoitzak Bidasoan egin ziradenean, Don Juan de Idiakez goarpelari onbidekoaren seme egiazkoa, izandu zan guztiz gogoangarria, eta Flandesko gudan eta Franzieren alkardade Hugonotesen kontrakoan agertu izan zeban balorea eta bere egikerak txit dira andiak Dierriaren Kondairak esaten debanez; eta onts-andiko diakinde edo fun-



zio Bergopzon, San Kintin, Noion, Txarleston, La Txapele, eta beste anitzekok egin zuten aomen andikoa beraren izen gozo jatorri garbikoa. Gizon andi au ill zan Milanen milla seieun ta emezortzigarren urteko urri-illaren zazpigarren egunean, eta beraren gorputza ifini zuten gordetzen Kaputxinoetako Konbentu batean, Donostiako San Telmora bere aurrekoen lurpetokira, edo Bermeoko San Franziskukora aldatzeko.

D. Juan Alonso Emmanuel de Idiakez, seme D. Alonsorena, Markes de San Damian, eta ill zitzaionean bere aita Duke de Ciudad Real, Kapitan Jeneral Galiziakoa, semetzat artu zeban Duke de Saboiak, zeñagandik izena gelditu zitzaion Emmanuel.

D. Tomas de Andaia, Mariskal ta Jeneral Manilako kanpoetako, Kapitan Jeneral Kanariasetako milla zazpieun ta amabigarren urtean D. Manuel de Andaia Obispo Oviedokoaren aita.

Irakastun Santander juriskonsulto ospatsua, Errege Fededun Don Fernando eta Doña Isabellen aditzallea. Agustin Krabaliz; milla bosteun, irurogei ta laugarren urtean izkribatu zeban España ta Franziazen lenentasun edo prezedenziaren gañeko ilkuskaia. Lizenziadu Kristobal Lopez Zandategi, Jeneral Don Antonio Okendoren aitasaba amaren aldetik, eta Luis Kruzat, zeintzubez argitara eman zuten, edo emateko moduan ifini zuten Probinziaren enkarguz beraren Fuero, lege, eta agindeen bilguma berriatua.

Don Luis Etxezarreta, Katedratiko eta Erretore Oñatikoa milla bosteun, laurogei ta amaikagarren urtean gorputz izkirazko aren zuzenbidea Felipe bigarrenaren aginduz egin zanean. Gizon au jakintsu zan txit, batez ere, Griego, Hebreo ta Latin itzkuntzetan.

Juan Kruzat, itzkunzaen azaldari edo interprete Lisboan zegoena, bazekizkien Tudeska, Polaka, Rutena, Italiana, Flamenka, Franzesa, Ingelesa, Latina, Gaztelania eta Euskara.

Domingo Lizaso, Donostiako Zuzelekuaren-zaia; izkribatu zituen bi tomo andiak titulu onekin, *Nobiliario de la Provincia de Guipuzcoa, Generalogia de sus Solares mas distinguidos*; egitate maitagarria txit bere lanbidean; zeñaren aipamena egiten daben Aita Henaok Kantauriako anziñaraetan.

Fr. Manuel Bizente Etxebarri, Dominikoa, Konde Villalcazarakoaren semea; izkribatu zeban Probinzia Gipuzkoaren ondrrari darrazkion gauza baliosoen gañean, eta milla zazpieun ogei ta amabostgarren urtean aurkeztu zion Donostiako Urira baturik arkitzen zan Batzar guztiakikoari; bañan etzan iritsi izan moldizkidatzera, beste geiagorekin ere gertatu dan bezalaixen.

Aita Agustin de Kardaberaz, Jesuita, izen andiko Misioa. Euskaraz eman zeban argitara itzkera eder bat milla zapieun irurogei ta batgarren urtean Iruñean moldizkidatua; zeñetan arkitzen diran ezarriak argi eta garbi, itzkuntz maitagarri are lendabiziko onetan zer nai gauzaren gañean gaindiro itzegiten bear diran neurri zuzen egoki edertasunik andienekoak; izkribatu ere zituen deboziazko liburu eder onak, moldizkidatu direanak asko aldiz. Aita Domingo Meagher, Jesuita, eta Teologo andia zan bezala Valladolidin goienengo mallara igoa, lotostari edo poeta oberenetakoa ere zan Gaztelaniaz eta Euskaraz. Berak moldatutako itz-neurtu askoren artean jostalluenetako bat, ardoak gizonari ematen dion atsegintasunari dagokiona, zortzikoan jarria ara emen;

*Gizon bat ardo bage
Dago erdi illa,
Marmar dabiltza tripak
Ardoaren billa:
Bañan edan ezkeero
Ardoa txit ongi,
Gizonik txatarrenak
Balio ditu bi.*

Don Jose Santiago de las Casas, zeñak milla zazpieun berrogei ta emezortzigarren urtean Madrillen moldizkidaturik agertaratu izan zeban tomo bat sorkari berria, eguzkiarekin munduak artu daben auzia erabaki naiean izkribatua.

Don Vicente Lardizabal Sendagin ospatsua; zeñak argitara eman zituen bi liburu, bata, Sargazoren indarrak nolakoak diran eskorbutoren kontra, eta bestea, itsasoan dabillen jendeak izan oi dituen gaixo ta eritasunean gañean.

Don Manuel Ignazio de Agirre, Gipuzkoako Probinziaren Goarpelari izan zana, zeñak izkribatu zeban lurrak ongarrizteko margaren gañean. Don Franzisko Jabier de Lariz, Apaiza, Katezismo Euskarazko biren aurkillea, bigarrena moldizkidatu zan Madrillen, bere iraulkera Gaztelaniazkoarekin. Don Juan Jose de Zuaznabar, zeñak izkribatu zituen paper balioso anitz, Darsena berri Pasaiako itsasarterako egin bear zanaren gañean. Juan Perez de Erzilla, milla bosteun, irurogei ta amalaugarren urtean kanoi berri bat sortu izan zebana. Andres Loide, orobat milla seieun, ogei ta seigarren urtean alkabuz bat bost tiro batetan ematen zituena egin izan zebana. Don Luis Liñan y Vera gizon jakintsu



lankaikintzan, zeñak egin zeban zurezko zubi bat Pasaiaiko itsasarteak garbitzeko.

Migel de Santa Zelai, argin-maisua, zeñak Juan de Urrutiarekin altxatu zeban San Bizenteko Eliza milla bosteun ta zazpigarren urte alderontz. Ambrosio de Bengoetxea, eta Juanes de Iriarte ere argin maisuak jardun zuten Eliza bereko Erretablo ospatsua egiten milla bosteun laurogei ta seigarren urtean. Felipe Arizmendi, Eskultore igaro dan eunkida edo siglokoa. Migel de Olarreaga, pintatzalle oberenetakoa bere langintza Errroman estudiatu ta ikasia; eta Juan de Etxaide, zeñak agertu zeban bere izeneko Portua, Euskaldun lagunkidari milla zazpieun, irurogei ta amabigarren urtean Terranobaren agertzeaz itzegitean esaten zitzaion bezala.

Elgoibarko semea zan D. Fr. Domingo de Alzola Obispo Guadalupeko España berrikoan egon zana.

Elgetako Errian jaiok ezagutu dira gizon argidotar anitz; beren artean kontatzen da Don Andres de Orbe y Larreategi, Arzobispo Balenziakoa, Inkisidore Jeneral eta Gobernadore Konseju Kastillakoa, Aigiozarko mugapean arkitzen dan baserri-etxe Orbe deitzen zaionaren jatorria.

Ernaniko semea zan Kapitan Juan de Urbietak, Pabiakoa batallan milla bosteun ogei ta bostgarren urtean Franzia Errege Franzisko lenengoa arrestatu izan zebana; zeñaren gorputza arkitzen dan lurperatua Erri bereko Eliza nagusian Ebanjelioko aldean bere obiandarekin. Erri au ondratu ere dute D. Fr. Juan Esteban de Urbietak, Obispo Telesiko Italian izan zanak, Arbiza jaun Obispo de la Puebla de los Angeleskoak eta beste geiagok.

Errezilko semea zan Aita Fr. Domingo Herkizia, zeñak nozitu zeban martirioa milla seieun, ogei ta amairugarren urteko aboztuko illaren emezortzigarren egunean.

Errenteriako Erriak eman izan ditu seme argidotar anitz; zeintzuben artean ezagungarrituenak izan dira Don Martin de Renteria Uranzu, Jeneral itsaso Ozeanokoa, bere errutasun eta jakinduariaren bidez Enperadore Karlos bostgarrenaren naierakoa txit. Don Pedro de Zubiarre edo Zubiaur, Jeneral ospatsu itsaso Ozeanokoa Felipe bigarren eta irugarrenaren denporan. Juan Perez de Renteria, goien aipatu dedan

Don Martinen semea. Juan de Isasti Kapitana. Martin Perez de Irizar Kapitana. Juan Lopez de Isasti Kapitana. Domingo de Irizar Alferrea. Don Martin de Zamalbide Jeneral itsaso Egoaldekoa Felipe laugarrenaren denporan. Don Martin de Zubietak, munduaren ziazaldari andia, zeña joan izan zan Magallanesko itsas-estuaren agerteratzera milla, bosteun, laurogei ta bostgarren urtean. Kristobal de Gamon, *Astearen* izenarekiko libruaren Aurkilea eta bi tomo poesiakoak amaseigarren eunkidaren azken-alderontz Leon Franzia Errege argitara eman zituenak, Errege Fededunaren konsejatzalle mami arkitzen zala; eta beste onelako gizon balio andiko asko txit eman izan ditu Erri onek, batez ere armaetarako.

Eibarko Errian jaiok ezagutu izan dira gizon gogoangarri anitz letra ta armaetarako, zeintzuben izenakin egiñeratu leikean lista andia bat. Oen artean guztiz argidotarrak izan dira D. Fr. Ignazio de Mallea, Obispo Rio de la Platakoa. D. Fr. Andres de Ubilla Obispo Txiapakoa. D. Fr. Esteban de Alsua Kubarako esleitua. Domingo Martinez de Orbea, Zaldun Santiagoren ordenakoa, Enperadore Karlos bostgarrenaren Tesorero jenerala. Beraren anaia Juan, gobernutari eta Tesorero jeneral Aragoiko Erresumakoa. Kapitan Juan Lopez de Aritxulueta, Karlos bostgarrenaren denporan Indiaetarako armadan Jeneral izan zana, eta bere Galeon *La Flor de Lis* deitzen zitzaionarekin azaña andiak egin zituen. Franzisko de Ibarra, Zaldun Santiagoren ordenekoa, Komisario jeneral Holandan eta Konsejatzalle gudako Felipe bigarrenarekin egon izan zana. Diego de Ibarra zaldun ordena berekoa, eta Galizia berria irabazkidatu zutenetako bat. Franzisko de Ibarra beraren illoba, eta Martin Lopez de Ibarra, Bizkai berriaren irabazkizalleak. Erri onetako Etxe purubetar anitzetan arkitzen dira beretako jatorri argidotarren ekantza edo erretratoak. Etxe Dorre Isasirenean dago Don Felipe laugarrenaren seme Infante Don Franzisko Fernandoren ekantza eiztari janzian esku-peta eskuan eta txakurra aldamenean dituela. Errege onek berak milla, seieun ogeita amargarren urteko garagarrillaren lenengo egunean Madrillen egindako txartelaren bidez, infante onen persona aziera ona emateko ifini zuten D. Juan de Isasi Idiakez Zaldun Santiagoren ordenakoa ta Erri bereko jaiotarraren eskuetan, non ill zan infante au milla seieun ta amalagarren urteko maiatzeko illaren amaikagarren egunean, eta beraren gorputza eraman zuten Eskoarialko Elizara urte bereko laurenbat santu egunean.



Gatzagako Erriak bere semeen artean kontatzen du D. Jose de Garro, zeñak Buenos-Airesen Kapitan Jeneral zegoela Portugesai artu izan zien Ugarte Sakramentukoa edo *La Isla del Sacramento* milla seieun laurogei ta bostgarren urtean, eta indartu ere zeban Valparaisokoa; gisa berean Kapitan Jeneral izan zan Donostiako Urian, non ill zan milla zazpieun ta bigarren urtean. Gizon argidotar au Mondragoin jaioa bazan ere, beraren gurasoak eta aurreragokoak ziran Gatzagakoak, non eragin zeban Jauregi bat Elizaren aurrean, ifinten ziolarik bere jatorriko Etxearen izena.

Gudugarretan arkitzen dan etxe purubetar Mujika izendatzen danaren jatorria zan D. Franzisko de Avila y Mujika Kardenal Jerusalemgo Santa Kruzen izenekoa.

Getariako Erriak seme argidotar anitz azi izan ditu. Guztien artean eza-gungarriena da lenago izendatu dedan Ugarotar Juan Sebastian de Elkano, zeñaren gurasoak ziraden Domingo Sebastian de Elkano, eta Doña Katalina del Puerto, guztiak Getarian jaioak. Juan Sebastian izan zan munduari jira osoa lendabizi eman ziona bere ontzi La Victoria deitzen zitzaionarekin, zeña milla bosteun ta emeretzigarren urtean Magallanesekin irtenik, milla bosteun ogei ta bigarren urteko agor-illaren seiean sartu zan jira egiñik San Lukas de Barramedan, eta azaña andi onen saritzat Enperadore Karlos bostgarrenak eman zion Eskutarman beti betiko ezagungarri mundu osoaren idurina izkribuz jarririk *primus circumdedisti me*. Gipuzkoatar gogoangarri au ill zan milla bosteun ogei ta seigarren urteko abohtuko illaren bostgarren egunean, Kapitan Jeneral armada-rekin Malukora zijoala; eta beraren obia arkitzen da jasoan Don Pedro de Etxabe ta Asu Zaldun Kalatrabako habitukoak milla seieun irurogei ta amaikagarren urtean. Azkenean Don Manuel de Agote Erri onetako jaiotarrak bere kostuz goratu dio tallu bat zazpi oñ luzeko irozpearekin, zeña egin zeban Don Alonso Giraldo y Bergaz, Ikasola erreal San Fernandokoaren zuzendari eta Erregeren Ganbarako Otallugilleak, eta Plaza agirikoan arkitzen da ifinia marmolezko irozpe andi goiti baten gañean iru malla zabal ederki apainduak aldamenetan dituela, eta utsunetan izkribatua dago Latiñez, Erdaraz eta Euskaraz berak egindako azaña andia; eta beraren jaiot-etxeke jaun ta jabeak eskubidea emanik egiña arkitzen da toki berean kapilla bat Santa Maria Magdalenaren izenekoa. Erregek eman zion Gallaldiak, Illkokas Irakastunak, Garibai jakintiak, eta Pedro Montesano ernaiak esaten dabe, ezik, alik eta Juan Sebastian

Elkanokoa ekarri izan zituen arteraño etzirala ezagutzen Espanñan kanella, klaboa, eta intxaur jakikaia edo *nuez de especia*.

Erri onetako semeak ere ziran Antonio de Urkiola, Erregeren ontzidi ta Galeonkintzako Benaitari nagusia eta Jeneral Kantauriako Eskuadrarena. Baltasar de Urkiola beraren seme Kapitana. Kristobal de Basurto Kapitan itsasokoa et ontzikintzallea. Lopez Martinez de Zarauz, Erregeren Konsellukoa Don Enrike laugarrenaren denporan. Juan Lopez de Ibartola, Sebillan sal-erosiko kontuak ematen ziran Etxean kontatzalle nagusi ogei ta emezortzi urtean egondu zana. Juan Lopez de Zarauz, kontatzalle armada Indiaetako guardadiarena. Juan Saez de Aranburu, orobat kontatzallea. Don Antonio de Arriola Alferez, Kapitan Don Pedro Vicuñaren, eta gero Sarjento nagusiaren Aiudante Lombardian. Juan Martinez de Asu, zeñak egin izan ziozkan Erregeri serbitzo andiak. Don Domingo de Buenetxea Kapitan ontzikoa ta Ugarteak ezagutzera joan izan zana. Beraren anaia Don Franzisko Buenetxea Kapitan Fragatakoa, urte askotan Errege serbitzatu zebana leialkiro. Juan Bautista de Buenetxea, Kapitan armada errealekoa, itsas-gizon aitua ta asko ikusia, eta Errege jaunak guztiz maite zebana. D. Franzisko Etxabe, zeñak izkribatu zeban Liman, Arzobispo bertan izandako Santo Toribioren kanonizazioaren bidez Uri ark egin izan zituen diakinde andien gañean. Zarauz deitzen zaion Etxe Purubeko seme argidotarrak izan ziran Errege Don Juan, eta Don Enrikeren Konfesoreak.

Idiazabalko Erriak oroitezgarrizko denporatik irozotzen du oiturazko gallaldia bat guztiz begiragarria, nondik norakoa, eta zeren bidez daben denporaren luzetasunak atzendua daukana, bañan arreta andiarekin zintzoki ta maitaro gordetzen dabelako, iñork ere bide onez eragotzi ezin leikiona. Pazkua Espiritu Santuko irugarren goizean ordubiak alderontz Batzartar jaunak beren Apaiz Meza esatekoarekin etxe bakoxtatik gizonetzko bat dutela, danboliña soñulari arturik, irteten dira prozesioan San Adriango aitz zulatura, eta Segurako Erri ta Zegamakoan igarotzen da bere prozesioarekin Idiazabalko Alkatea zigor altxatua eskuan dabela, eta aurretik danboliña soñulari San Ignazioaren martxa gozua joaz. Izendatu ditudan Erri bietan ezkillak errepikatzen diozkate prozesio oni, zeñaren etorrera gutxi gora beera izaten dan eguerdiko amaika orduetatik amabietarontz. Diakinde edo funzio gogoangarri au ikustera joan izandu naiz berariaz Segurara, non berari begira egon nintzan, esan al guztien gañeko pozkida betean, Idiazabalko Erri zintzoak bere aurreragoko gurasoetatik



daben oitura maitagarria aiñ zuzenki irozotzen dabelako urteak millaka joan ta ere.

Irunaranzungo Erriak izan ditu seme argidotar anitz izendatzea merezi dutenak. Don Santxo de Urdanibia Jeneral itsasokoa, zeñak dotatu zituen Kapillau, Mediku, Barbero, Botikario, eta Hospitalzaiaren plazak, eta ogei ta lau oatze Erri bereko gaixo ta eri beartuentzako.

Don Gregorio de Legia Felipe irugarrenaren konsejukoa, eta beraren Sekretario Indiaetakoan. Don Juan Bautista de Arizmendi Habanako Morro deitzan Gazteluko Gobernadora. Don Lukas de Berroa, Maese de Kanpo eta Gobernadore Ugarte Santo Domingokoan Karlos bigarrenaren erreinaldian. Don Franzisko de Berrotaran, zeña izan zan Errege onek biraldua milla seieun, laurogei ta amabigarren urtean Karakasko Uri eta Probinzia Venezuelakora Kapitan Jeneral, eta beraren serbitzo onen bidez eman zion titulu Gaztelakoa Markes del Valle de Santiagoren izenarekin. Don Bartolome de Urdinsu ta Arbelaiz, Jeneral egoialdeko armadan zala egikera andiak egin izan zituena, ill zan milla zazpieun ogei ta seigarren urtean.

Larraulko semea zan D. Franzisko de Tolosa edo Anzola, izen onetako etxe purubetar Erri berekoan jaioa San Franziskuko Erljioan Jeneral, eta Ubispo Tuin egona, ill zan milla ta seieungarren urteko agor-illaren bederatzigarren egunean, Katedral berean Epistola aldeko kapilla nagusian arkitzen dan obia estaltzen daben arlosako izkribuan irakurten danez.

Lazkauko Erriak seme argidotarrak ez, ezik, eman izan ditu Etxeandra gogoangarriak ere. Doña Maria de Lazkano Erri onetako alaba eta alar-gun D. Antonio Okendorenak milla sei eun ta berrogeigarren urtean, eta milla sei eun ta berrogei ta amargarrengoan ifini zituen bi Konbentu, bata Santa Teresa Karmen ortozekoa, eta bestea San Bernardoren ordenakoa Santa Anaren deiarekin. Etxe andra onek berak jarri ere zeban Donostian Jesuitaen dakiregia, zeñaren jatorria izanik Gipuzkoan dan argidotarrene-takoa, Erriko Elizaren alboan dauka anziña anziñako Jauregi ospatsua, eta beraren jaun ta jabe gaurko egunean arkitzen da Markes de Valmediano. Etxe ondra andiko onek eman ditu seme argidotar anitz armaetarako, zeintzubei Nafarroako Erregeak izkribatzen ziezaten lengusuen izenean. Jauregi berean zintzoro gordeak daude, bada, oraindik karta berperak.

Legazpiko semeak ziran D. Diego Aszensio de Vicuña Almirante Jeneral itsasoko ta leorrekoa; D. Tomas de Vicuña Intendente jeneral Marinakoa, Kapitan ertzgoitiko, zeñak ekarri zeban D. Karlos irugarren Jauna Napolestik Española; D. Jose de Lardizabal y Vicuña, Barzelonako adiundean aurrena salatzaile, eta gero aditzalle ta eronle, eta azkenean haziendako konsejatzalle egondu zana ill zan milla zazpieun irurogei ta amaseigarren urtean. Orobat izan zan Erri onetan jaioa, edo beintzat bertako jatorria, Jeneral ospatsu Migel Lopez de Legazpia, Filipinasetako Ugarteen irabazkintzallea.

Lezoko Erria ondratu izan dute anitz bertan jaiotako seme argidotarrak gudako egikeraetan ez ezik, letraetako lanbidean ere. Don Juan Martinez de Lezo, Eliza bereko Erretorea, izanik gizon balerosoa eta jaiot-erriagantoz amodiozko naitasun bero bizi gartsuarekikoa, milla bosteun ta ogeigarren urtean, Franzesak Ondarribi-alderontz azaldu ziradenean, Erri inguruko jendea sutunpadiarekin arturik, Olearsoko muñora igo, ta eraso izan zion etsaiari portizki, baita atzeratu ere kalte andiak zituela.

Don Domingo de Lezo, Kuzkon Obispo zegoela ill zan milla bosteun berrogei ta amabigarren urtean. Don Lope Isasti, Benefiziadu Eliza berekoak izkribatu izan zeban Probinzia Gipuzkoaren kondaira, milla seieun ogei ta bostgarren urtean, eta arkitzen da oraindik moldizkidatu bage, zeña amar onza urre pagaturik eraman izan zeban Madrillera bertan bizi izatez zegoen Euskaldun ernai batek milla zortzieun ogeita amairugarren urtean. Don Franzisko de Gainzak izkribatu zeban Irun-aranuzena, zeñari deitzen dion bere Erria, jaioa dalarik Lezon, milla seieun berrogei ta emezortzigarren urteko azaroko illaren zazpigarren egunean; beraren egitadea moldizkidatu zan Iruñean milla zazpieun ogei ta emezortzigarren urtean. Erru andiko Juanot de Villaviciosa nagusiena izandu zan Probinziako Eskuadra baten Jeneral izendatua milla bosteun laurogei ta bigarren urtean Franzesen kontra irteteko. San Migelko Ugartearen urtean egin zuten batalla, eta Juanot garaillari ill zan ondra andian bi bala alkabuzekoakin. Errege Jaunak saristatu zeban beraren balorea onen seme Don Migelengan, zeña iritsi zan Almirante izatera. Orobat izan ziran Juanot txikia ta Juanetxo, guztiak lenengoaren ondorengoak, beste geiagorekin itsasgizon ernai azkar gudari gogorrrak.

Mondragoiko Erriak seme argidotar anitz eman izan ditu gai askotarako. Don Kristobal de Mondragon eta Otorala izandu zan Flandesko gudaetan serbitzo andiak Erregeri egin ziozkana, zeñaren leialtade ta



balorea izanik gain gañekoak bere agindeko zaldidiarekin porrokatu izan zeban Konde de Maurizioena, Felipe de Nassauk gobernatzen zebana, eta ill zan milla bosteun, laurogei ta amaseigarren urteko illbeltzean, bere azaña andiaren oroitpena beti betiko uzten zebala. *Maistre de Campo* Don Jose de Garro jaio zan Mondragoin milla seieun ogei ta irugarren urtean, eta izandu zan Gobernadore Tukuman, Buenos-Aires, eta Txilen, zeña il zan Probinzia onen Presidioetako Kapitan Jeneral zegoela. *Maistre de Campo* jeneral Don Franzisko de Ezteibar zori onean izan zan Erregeren indar leorreko ta itsasokoan agintari Filipinasetan Txino eta Ingelesen kontra, non egin izan zituen serbitzo andiak ogei ta bost urtean, eta emendik biurtzen zala ill zan Verakruzen milla seieun irurogei ta bedertzigarren urteko uztaillaren emezortzigarren egunean. Jeneral Don Jose de Iramain ill zan Potosiñen milla zazpi eun ta berrogeigarren urtean. Don Migel Ruiz de Otorora, Eronle Iruñean, Dianagusi Mejikon, eta goienengo Konseju Gaztelakoa izandu zan. D. Domingo de Okariz, eta bere anaia Don Rodrigo de Okariz izan ziran Ministro, Konseju erreale berean. Don Juan de Andikano, Konde de Monterron, milla seieun, laurogei ta amaikagarren urtean izandu zan aipatu dedan aditzañakoa. Don Pablo Antonio de Ondarza konseju hazienda errealekoa. Esteban de Garibay y Zamalloa; mundu osoak daki Euskaldun garbi au zala argidotarra izateaz landara guztiz ernai. Egia ziertoro onen sinistmenerako entzun bear dezute zer esaten daben Españako Itztegi Luzeazaltar Kondairazkoak bigarren tomoan ogei ta amairugarren orrikatik aurrera.

«Esteban de Garibay y Zamalloa, el cual considerando las fábulas y consejas que afeaban y aun desfiguraban los verdaderos hechos de nuestras memorias históricas, la poca ó ninguna diligencia de los escritores en reconocer los archivos, y en ellos los documentos coetaneos, y conociendo el vacío inmenso de nuestra historia nacional, y que España, rica en acciones y acaecimientos gloriosos dignos de la posteridad, carecía de una obra metódica, trabajada con crítica sobre instrumentos legítimos y originales y que los abrazase todos, acometió el primero la ardua y gloriosa empresa de escribir el compendio historial de estos Reinos, y le concluyó felizmente en Mondragon con tanto mayor mérito, cuanto mas grandes y multiplicados fueron los obstáculos que tubo que vencer su loable constancia,

comenzando desde luego un camino no hollado ni trillado hasta entonces ; reconoció archivos, emprendió viajes, sufrió repulsas, y sin interes, ni auxilio ni protección, animado de un amor verdaderamente patriótico, y de aquel moderado deseo de gloria y honor que es lícito apetecer, perfeccionó y publicó su Historia General de España. Y aunque muchos claros varones, tomándole por modelo y dechado, trabajaron con infatigable zelo por espacio de dos siglos historias generales y particulares de nuestra nacion, la de Garibay, no obstante de ser la primera y mas antigua, deberá siempre estudiarse y consultarse por los que aspiran al conocimiento del importantísimo ramo de la historia. Tan cierto es que la de Garibay, ademas de su buen lenguaje, generalidad y método, está sembrada oportunamente de exquisitas noticias, que con dificultad se hallarán en otros historiadores. M.»

Ezta gitxi autormen au Erdaldunak egitea Euskaldunarentzako.

Motrikuko jaiotarren artean ezagungarrituak izan dira gizon argidotar anitz. Don Migel de Bidazabal Kantauriako Ozeanoko armada Errealearen Almirante izandu zan eunkida amazapigarrengean, zeñetan serbitzatu zeban ogei ta amasei urtean. Milla seieun ta amalaugarren urtean eraman zeban Flandesa Eskuadra bat ogei ta bi ontzirekikoa tropa leorreratzekoakin; milla seieun ta emezortzigarrenean Gibraltarko itsas-estuan peleatu zan Mairuen bost ontzi lodiren kontra, zeinzubek Indiaetatik zetozen aberastan andiak, eta guztiak garaitu ta bereturik eman izan ziozkan Erregeren Erarioari irureun milla dukat; urte berean arrapatu zituen beste bi ontzi. Andik laster, aipatu dan itsas-estuaren urtean, amar ontzi Españako eta amasei Flandeskoai berak agintzen zuela peleatu izan zan garagarrillaren ogei ta laugarren egunean Mairuen Eskuadra ogei ta zortzi ontzirekikoaren kontra, eta oetatik ogei ta bi garaipendurik libratu zituen milla ta bosteun kristau katibu zeuzkatenak; baita bildu ere kargamendu aberats bat Lanzaroteko Ugartetik zekartena. Eta eunkida onetan merezi dute izendatzea Don Juan eta Don Tomas Idiakez anaia biak, lenengoa, Kapitan Jeneral Martizti errealeako, eta Don Fernando seigarrena Prinziipe zala onen zaintzalle egona, eta bigarrena ere orobat



Kapitan Jeneral Martizti errealetako, Gobernadore eta Kapitan Jeneral Andaluziakoa, zeñaren oroitpena ospatsua dan Kadizen eta Portu Santa Mariakoan, toki bi oetako jendearen ornidurarako iturri geza gozo ugari ederra ifini izan zebalako. Don Antonio de Gastañeta o Iturrilazaga Teniente Jeneral armada errealekoa, eta itsasozko ibilleren gañean guztiz jakinduri andikoa; izkribatu zituen bi liburu baliosoak txit, bata ugarotarrai zegokiotena; eta bestea ontzigilleentzako guztiz bear dana, zeñak sartu zeban Españan ontzigiteko modu berri ona, eta oraindik gordeak arkitzen dira berak egindako bi molde zeintzuek adierazten dabeen argi eta garbi, gai onetarako iritsi izan zeban jakinduri andia. Euskaldun argidotar au ill zan Madrillen milla zazpieun ogei ta zortzigarren urteko otsaillaren bostgarren egunean, irurogei ta amabi urte zituen adiñean.

Mutiloako Elizan arkitzen da San Pedroren Erlikia bat bertako jatorri D, Pedro Apaolaza Arzobispo Zaragozakoak biraldia.

Oñatiko Erriak gai askotarako eman izan dituen seme argidotarrak merezi dute nor ta nolakoak izan diraden agertaraztea. D, Juan Lopez de Lazarraga Errege Fededunen Gomendadorea, zeñaren birtute onak daintzen dituen Esteban de Garibai jakintsuak bere liburu emeretzigarrengotan, amabostgarren kapituluan D, Gutierre de Kardenas Gomendari nagusi Leongoaren eriotzaz itzegindakoan, esaten duelarik onela:

«Su encomienda mayor quisieron dar los Reyes á Juan Lopez de Lazarraga, su contador, natural de la villa de Oñate, que habiendo primero servido al mesmo Comendador mayor, vino á tanta privanza de los Reyes que en estos tiempos andaba el Gobierno de la hacienda por sus manos, siendo libre de cobdicia y anibicion, y tan templado, que la encomienda mayor, ni otra cosa jamas quiso tomar, diciendo que en lo que tenia le sobraba. Por esto dando los Reyes la encomienda mayor á D. Fernando de Toledo, y queriéndole dar la contaduria mayor, como tampoco la quisiese recibir, dijole la Reina; Ya sabeis Juan Lopez tan bien como yo las necesidades del patrimonio Peal, y de verdad no se con que os dar sino sarna como Job á su muger. Este tan cristiano varon acabó sus dias en Valladolid en 18

del mes de Marzo, dia lunes del año de 1518, y fué enterrado en el insigne monasterio de la Santísima Trinidad que de monjas de la regla de Santa Clara fundó en Oñate patria suya».

Don Rodrigo de Mercado y Zuazola, Kolejial nagusi eta Katedratiko Hueskan eta gorputz bietako Irakasleari aurkeztu zioten Errege Fededunak Santa Mariako Abadia; Inkisizioko Aditzaña Santua ifinteko denporan izandu zan deitua bear ziraden neurri zuzenak artzeko, bai ta autatua ere bertarako maisu ta agintari aurreengoetatik bat; gañera izandu zan kanonigo Zaragozako, Obispo Mallorka eta Siguenzako, eta Errege-orde Nafarroako, zeñaren baratxtasun modu andikoaz baliatu izan zan Errege Fededuna, Agramontestar, eta Beaumontestarren berezkiak donarioturik bekean ifinteko, zeñaren eginkizun onetarako talde-aginteak D, Rodrigori biraldutako irakasdeak arkitzen dira Oñatiko Errian ondo gordeak; bai ta ere Luteroren fede austeak denpora berean egiten zituen kalte lotsagarri likitsen eragozpenerako, Karlos V izkribatu izan ziozkan karta maitagarriak. Bereala esleitua izan zan Abilako Obispo, gero Dianagusi Granadako, eta azkenean, esaten eta sinisten danez, Santiagoko Arzobispo izendatua zegoela ill zan Valladolidin milla bosteun berrogei ta zortzigarren urtean. Bere ondasunak utzi ziozkan, Errian ifini izan zeban Kolejioari, zeñetan zintzoro gordeak arkitzen diraden, oraindik, beraren alaja aberats anitz Apezpiku izan zaneakoak paper guztiakin; oen artean dago bulda bat txit begiragarria, non Paulo irugarrenak ematen dion Don Rodrigori meza esateko lizenzia gauza ariñ batekin baraua ausi ondoan, beraren gaixo-aldi sarritangoai begiraturik.

Aita Antonio de Araoz, Irakasle Salamankan, San Ignazio Loiolakoaren lagun maitea, zeñaren eskuetatik artu zeban Jesuitaren arropa. Izandu zan Españako Komisario Jeneral, ifini zituen bertan amabost Kolejio; bere osaba Pedro Migel Araozkoari burutara eman zion Erri onetakoa jarteko. Karlos Vren alaba Doña Juana Prinzesa Portugalkoak izan zeban bere Konfesatzalle. Esleitua izan zan Toledoko Arzobispotarako, bañan etzeban jarri nai izan iñolako modutan ere. Prinzipe Katolikoen gogokoa txit izandu zan, zeintzuek galdetzen zioten bere iritzia, gertatzen zitzaizkaten zalanza guztietan, eta ill zan Santuaren anzarekin irurogei ta bat urteko adiñean arkitzen zala, milla bosteun irurogei ta amabigarren urte alderontz.

Irakasle Don Lorenzo Asenzio Otadui eta Abendaño, Etxe Purubetar Otadui, zeña arkitzen dan Urribarruko Etxadia eta



Aranzazuko santuarioaren bitartean. Izandu zan Kolejial nagusieneko Alkalan, Katedratiko de Prima de Eskoto ikasola berekoan, Benefiziadu San Migelko Eliza Oñatikoan, Kanonigo Alkalako San Juston, Majistral Cuencan, Obispo Lugon milla bosteun, laurogei ta amaikagarren urtetik aurrera, non altxatu zeban Eliztarrentzako azitetxea San Lorenzoren ize-narekin; milla bosteun laurogei ta amalaugarren urteko apirillaren ogei ta bederatzigarren egunean ospatu zeban batzar diozestarra; milla bosteun, laurogei ta emezortzigarrenean aurkeztua izan zan Abilako Obispo, non Jaungoikoari kontu eman zion, bera datzan Obiaren gañeko arrian arkitzen dan izkribuak esaten daben egun ta urtean, zeña dagoen ezarria letra oekin:

*D.D: Laurentis Otadui et Avendaño
Episcopus Abulensis, quondam Lucensis,
Regius Consiliarius frequentissimus,
vere pientissimus pater
pauperum et patriae
Oiiit 4 decembris anno 1611*

Irakasle Don Lukas de Lazarraga, Kolejial nagusi Sancti Spiritus Erri onetakoan, eta Santa Kruz Valladolidkoan; legetako Katedratiko Unibersidade onetan eta gero Ministro Kanzillieriako Uri izendatutakoan, non ill zan pobrekiro, Ministro jakinti bear bezalakotzat jende guztiak zeukala.

Irakasle Don Juan de Lazarraga, Kolejial nagusi Sancti Spiritus Erri onetakoan eta Santa Kruz Valladolidkoan; Katedratiko Kanonesetako Unibersidade onetan; Almirantazgo errealean salatzalle; Tarragonako Martiztiaren Aditzalle jenerala, zeñaren leialtade piña eta balore andia ezagungarrituak izan ziran Uri bera ertsiturik zegoela milla seieun, berrogei ta laugarren urtean, eta azkenean Jaungoikoak beregana deitu zeban, Erregeren Etxe ta Gorteko Alkate arkitzen zala.

D. Fr. Kristobal de Lazarraga aurretik esan dedanaren anaia, Zistertarren ordenakoa, graduatua Salamankan, Katedratiko Teolojiakoa Unibersidade onetan, Obispo esleitua Txiaparako, eta konsagratua Madrillen milla seieun ogei ta emeretzigarren urtean, izandu zan goiagotua Obispo Kartajena Indiaetakora, zeñaren menpetasuna artu zeban milla seieun ta berrogeigarrenean, eta geroztik iru aldiz berak berez bigiraturik ill zan milla seieun berrogei ta zortzigarrengan, beraren adifña berrogei ta iru urtetan igarotzen etzala.

Irakasle Don Gregorio Lopez de Mendizabal, Kolejial nagusi Erri onetan, eta gero Santa Kruz Valladolidkoan; Katedratiko Kanonesetako Unibersidade emengoan; izandu zan salatzalle Kanzilleria Granadakoan; Aditzalle Gela berean, Erregeren Etxe eta Gorteko Alkate, Gaztelako Konseju goienengoan, ill zan milla seieun berrogei ta zazpigarren urtean, Ministro garbi maitagarriaren izenarekin.

Don Jose Antonio de Umerez y Miranda, izandu zan Panamako Obispo.

Don Kristobal de Gazteluondo, Kapitan Maese de Kanpo eta Teniente Jeneral Don Albaro Enriquez Kastillokoaren, izandu zan Erresuma Peruko Probinzia Mutilones, Jabalosos eta besteak agerkeraturik irabazkidatzeko Agintari-nagusizat autatua. Egin izan ziozkan Erregeri guztiz serbitzo andiak, ibillera balioso oetan desegindu zeban bere hazienda, biurtu zan Españara, eta ezagungarritua izan zan Franzesak Ondarribia ertsiturik iduki zeban estura larriko denporan, non egondu zan bere Erriko mutil armatuen Buruzari.

Don Juan Jose de Unzueta Koronel Zaldizkoetakoa, Kapitan Brigada erreal Karabineroena, guraso beartuen semea, bañan odolgarbikoena, eta Erri onetan jaio ta bizi izan direanena, soldadutza utsetik asirik bere egikera prestuen bidez igo zan malla aiñ goitutura. Kataluniako Martiztarian serbitzatu zeban lenagoko eunkidaren azken aldeko Franziarekiko gudan, non andizkatua izandu zan beraren izena ezin geiagoraño, eta batez ere Villalongako batallan, zeñaren asieran eritzea gertatu bazitzaion ere, erretiratzeko asmorik artu bage jarraitu izan zion bere lanbideari portizki jazarra bukatu arteraño guztian etsaiaren arrokeriaz beldurtu bage. Gaztigatu izan zion onek, ezagutu zezala ezin zezakeala ezer egin indar andiagoen kontra, eta baldin ezpazan errendatzen tropa guztiarekin, beronen naierara, ganibetaz igaroak izango zirala; zeñari erantzun izan zion, ezik, bazeuzkala armak eta gogoa beraren kontra peleatzeko, eta baldin atakutzen bazeban, ikusiko zala nor geiagotua ziran. Etsaiak artu zeban asmoa emateko atake guztiakikoa, eta bere tropa andiarekin joan zan gure Martiztiaren gordegari-aurreneko edo banguardia zegoen tokira, zeña arkitzen zan Liers eta zubi Molinskoan, non ill zan Don Juan Jose de Unzueta argidotar balerosoa gogorki pelean ziarduela milla zazpieun, laurogei ta amalaugarren urteko garagarrillaren zazpigarren egunean, bere oroitpena azaña andien bidez illezkor egin ezkeroztik, denpora artako paper agirikoak kantatzen duten bezalaxen. Errege Jaunak saristatu zituen Umantes andi onen serbitzo baliosoak, señalaten ziozkalarik beraren arrebari eguneko amaika erreal bizi zan arte guztirako.



Koronel Don Santos de Antia, Kapitan sutunpadi errealekoa, Erregeren serbitzoan sartu zan Zaldun berezi edo Kadete milla zazpieun irurogei ta bederatzigarren urtean. Beraren buruzpide gudartarra izandu zan, sarrirango enkargu andi eta eraman ekarriko ibillera baliosoetan; arkitu zan bera Amerika eguerdi-aldekoan egin izan zan leorreratzean, eta Santa Katalinako Ugarteian gertatutako eginkizun andietan, bai ta ere Sakramentuko erdaliriaren ertsitze eta errendatzean; Gibraltar ertsitua egondu zan denpora guztian serbitzatu izan zeban leialkiro ta portizki; Orbaizeta Eta Eugiko ekida erreale munizioetakoan zuzendari eta eraontzalle egon izan zan Erregek izendaturik, non egin izan zituen aurrerapen andiak txit. Franziarekiko guda Taldeagintzakoan San Sebastian de la Mugan zegoela biraldua izan zan Kataluniako martiztira. Guda onetan egin izan zituen serbitzo andiak guztiz dira gomendagarriak; Kol de Portelko bateria berak eragin ta agindu ere zeban Bellegarde errendatu arteraño guztian; Salzesko batallan irten zan gaizki eritua; Kol de Bañuls eta onen izeneko Erria artutzeko denporan berak agindu zeban sutunpadi: eta onen jakinduria ta bizitasunaren bidez irabazkidatu ziran Port-Vendre, San Telmoko gaztelua, eta Koliubreko plaza. Erregeren agindea etorri zitzaion igaro zedilla Asturiasa, ekida berria muniziotegiteko Sargadelosen ifintera, non iritsi ta illabetegarrenge, bere sasoirik obereanean ogei ta emeretzi urteko adinean arkitzen zala, eriotzak arrapatu zeban milla zazpi eun, laurogei ta amalaugarren urteko agorrillean; zeñaren serbitzo andiak igo izan zituzten goienengo mallara beraren Buruzariak, milla zazpi eun laurogei ta amairugarren, eta laurogei ta amalaugarrenge Gazetak esaten dabeenez; eta Errege biotz biguñak saristatu zeban seme argidotarrari zor zitzaionaz beraren ama maitea, eguneko amar erreale seinalatzen ziolarik bizi zan arte guztirako.

Oiarzungo Erriak seme argidotar anitz eman izan ditu. Don Sebastian de Lartaun Obispo de Kuzko izandu zan sansagratua bere jaioterriako Eliza San Esteban de Lartaun Protomartirren izenekoan, zeña dagoen aipatua lenago.

Don Franzisko Antonio Feloaga, Kalatrabako Zalduna, Senadore Napoleskoa, eta egitade *Enchiridion juris controversi*-ren Aurkillean, zeña moldizkidatu zan Madrillen milla seiueun irurogei ta amabostgarren urtean.

Kapitan Tristan de Ugarte, azaña andiak egin izan zituena, batez ere itsasoz. Erri onetako seme azkarrak egindako bizarria gogoangarriak

andizkatzen ditu Garibai jakintiak zortzigarren liburuko ogei ta amargarren kapituluian.

Pasaia Donosti-aldekoan jaioa zan Don Blas de Lezo, Teniente Jeneral itsasokoa, zeñak, beste serbitzo balioso anitzen artean, ontzi ta jende bere agintekoakin egin izan zeban laguntza andia Kartajena Indiaetakoaren gordezkeran milla zazpieun berrogei ta bostgarren urtean, indar andiko Eskuadra Ingeles Almirante Vernonen eskura zegoenaren kontra.

Jaun argidotar Don Agustin de Lezo Arzobispo Zaragozako, Don Blasen illoba; bere jaioterriko Elizari utzi ziozkan apaingarri ederrak beste gauza balioso askorekin.

Ondarribiako seme argidotarren artean kontatzen dira Don Kristobal de Rojas, y Sandobal, Kapillau Karlos bostgarrenarena, Obispo Oviedoko, Badajoz'ko, eta Kordobakoa, eta Arzobispo Sebillakoa, zeña egon zan Konzilio Trentokoan, eta Santidadearen aomenarekin ill zan milla bosteun ta laurogeigarren urtean.

Aita Maisu Irakasle Fr. Manuel de Kalataiud, Zistertarren ordenakoa Fiteroko bakartegian, zeñaren egitade polemika eta kondairatarrak diraden ondo ezagunak; Matxin de Arsu Jauregi ta etxe Arskuaren jaun ta jabea, bere jakinduria andi gudarakoaren bidez ezagungarritua Don Santxo el Sabioren denporan, zeñak saristatu eta ondratu ere izan zeban mesede asko ta eskutarmakin, non ikusten dan gaztelu urrezko bat gorriaren gañean goiko aldetik, eta beekotik ibai bat eta bost buru epakiak, iru lorelis urrezko bere diñakoak gazteluaren gañean, eta ertzean zortzi biozkuta berde sinoplezkoak urrezko kanpoan dituela.

D. Juan eta D. Migel Ezkibel ezagungarrituak izan ziran Moluka, eta Manilasko Ugarteak berriro artu ziradenean. D. Antonio de Ubilla, Markes Ribaskoa, Estaduko Konsejukoa, Sekretario Indietako despatxu guztirakoan Felipe bostgarrenaren denporan. Don Gabriel Jose de Zuloaga, Konde de Torrealta, berezitu zan asko Venezuelako Probinziaren gordezkeran, non Gobernadore egon zan milla zazpieun berrogei ta bigarren urtean, Ingeles anitzen galgarri.

Uri onetan izan dira beste seme asko, izen txikiagokoak badira ere, serbitzo andiak egin dituztenak leorreko martizti eta itsasoko armadaetan.

Orioko semeak ziran D. Gabriel de Hoa, Sekretario Estatu ta Despatxu Indiaetako; Irakasle Fr. Franzisko de Segurola y Ganboa Arzobispo



Zaragozako, San Agustinen Ordenakoa; M. Fr. Jose de Urtezabel, Karmendarra, izkribaria, eta D. Antonio de Arizaga, Almirante armada Errealekoa.

Tolosako Erriak gai guztietarako eman izan ditu seme argidotarrak ugari, eta oen artean aurrengo lekua betetzen dabena, eta izendatuena da Domenjon Gonzalez de Andia, Koronel Probinzia Gipuzkoakoa. Onek Ingalaterrako Errege Eduardo laugarrena tropa lagungarriakin sokorritu izan zebanean, eta lanze estura larriko artan leialkiro serbitzatu izan zebalako saristatu zeban Prinzipe ark Jarretierako ordenaren señaile ondra andikoakin, izan zitzaiz beretzat eta bere ondorengoentzat beti betiko ezaugarri, esaten daben bezala argi eta garbi milla laureun irurogei ta amaikagarren urteko abuztuko illaren ogeigarren egunean Eduardok emandako bitezarde batek, zeña kopiau zeban D, Braulio de Laga jakintiak etxe purubetar Andia, Irarrazabal eta beste geiagoren sustrai pin garbiak argitaratzean. Enrike laugarren Gaztelakoak ere eman ziozkan fuero batzuben bere naitasuna iragarritzeko milla laureun irurogeita bostgarren urteko agorrillaren ogeigarren egunean, eta milla laureun irurogei ta zazpigarreneko garagarillaren amarrean, zeintzubenk ontzat arturik Errege Fededunak eman ere ziozkaten Gipuzkoaren Batzarretako itzkribautza eta bertako *Alcalde de Sacas* izateko eskubidea, zeñean jarduera edo enpleo oek biak Erregezko gallaldiaren bidez gozatzen dituen gaurko egunean Probinziak, beraren fueroetako liburuan ezarria dagoen bezala. Eduardo laugarren Errege Ingalaterrakoarekin Gipuzkoaren artean egindako alkar-tze ta tratadu milla laureun laurogei ta bigarren urtekoan, Probinziaren Eskribau fidel arkitzen zan bezala izandu zan balio andiko itzbide ari zuzenbidea ematen, Batzar bereko kapitulazioetan Rimerrek esaten daben bezala. Probinziaren alde jarraitu zeban Aide nagusien kontra, oen genaste eta zegarrera kaltarkitsuak indarrean zeuden denporan; eta aurrengoetatik bat bera izan zan urgullutsu oen arrotasuna buruz beeratu zebana, zeñaren bidez izandu zan dunduariaturik andizkatua Erriko izkeran kantatzen ziotelarik onela.

*Sagarra eder, gezatea
Gerrijan ere ezpatea
Domenjon de Andia
Gipuzkoako Erregia.*

Anton Gonzalez de Andia, Domenjon eta Doña Katalina de Tapiaren semea, zeñarengana batu ziran Andia eta Irarrazabal etxe argidotar biak; beraren leialtadea eta balorea zenbaterañoakoak ziraden adierazo izan zeban Donostiaren gordezkeran eta Ondarribia Franzesaren menpetik milla bosteun ogei ta batgarren urtean atera zanean, ikusten dan bezala argiroki, D, Braulio de Lanak milla bosteun ogei ta amaikagarren urteko epaillaren zortzigarren egunean Debako Errian artutako billakinde argitara eman izan zituenetan. Erregiña Doña Juanak itzkribatu zion karta bat milla bosteun ogei ta amargarren urteko epaillaren amaseigarren egunean agintzen ziolarik, ezen Españan geldituak izan ziran Prinzipe Franziskoak lagunkidatu zitzala beren Erresumarako joaneran.

Domenjon Gonzalez de Andia, Antonen semea Felipe bigarrenaren Ingalaterrako joan-aldian izan zan onen jarralle ta ezkutari; eta egin ziozkan serbitzo andiaz esker-ondurik, Prinzesa Portugalkoari gomendiatu zion milla bosteun berrogei ta emezortzigarren urteko orrillaren amairugarren egunean itzkribatutako karta gozo maitagarrian.

Joanes de Yurreamendi, bere izeneko jauregiaren jaun ta jabea Tolosan, Nafarroako Santxo lendabizikoaren denporan izandu zan soldadu ta buruzari bitorea txit.

Martin Ruiz Yurreamendi jauregi berperoko jauna Errege Fededunak serbitzatu zituen Gipuzkoatik eramandako jendearekin, Granada ertsitua egondu zan denpora estura larrikoan. Tolosako seme argidotar au zan Doña Katalina Yurreamendikoaren Aita, zeñaren jatorritik datozen Duke Ciudad Realkoak.

Alberto Perez de Regil ospatsua eta ezagungarritua izan zana milla bosteun ta amabigarren urtean Belate eta Elizondoko arkaitzetan Gipuzkoatarrak Franzesa porrokatu zutenean.

Juan Perez Auziondo, Guda maisua Noaingo batallan milla bosteun ogei ta batgarren urtean.

D, Pedro de Aranburu Kantauriako Eskuadraren Almirantea, zeñak egin izan zituen serbitzo andiak.

D, Jose Franzisko de Aranburu, Kapitan Jeneral Mallorkakoa, Teniente Koronel Españako guardia Errealetakoa, Komandante Jeneral Oran, Mazargibir eta beren gazteluetakoa, berezitu izan zan milla zazpieun berrogei ta laugarren urtean Villafranka Alzakoaren aurreko lutesian emandako batalla andian, zeñaren bidez Felipe bostgarrenak saristatu zeban Konde de Villafuerteren tituluarekin.

D, Alonso Idiakex, Karlos bostgarrenaren Sekretario eta Estaduko Konsellukoa, Tolosako jaiotarra eta Donostiako biztanlea.



Martin de Gaztelu Sekretario Ordenaetako eta Patronato Gaztelakokoa, Karlos bostgarrenaren Testamentarioa, eta beraren azkenaitxoak egin izan zebana milla bosteun berrogei ta emezortzigarren urteko agorrillaren bederatzigarren egunean, zeñaren oroitpen ondra andikoa egiten duten Garibai eta Fr, Diego de San Pedro ta Ibarra konfesore Karlos bostgarrenarena, denpora artan Tolosaren menpean arkitzen zan Erri Villabonakoan jaiok.

D. Franzisko Fernando de Inarra y Atodo Isasti, seme ponteko Infante D. Franzisko Fernandorena, zeñak ifini zion bere izena, Koronel Probinzia Gipuzkoarena eta beraren Diputadu jenerala milla seieun ta irurogeigarren urtean.

D. Fr. Franzisko de Tolosa, San Franziskoren Ordenako Jenerala, Obispo Tuikoa, *Fededo ikusbide* edo *Demostraciones catolicas* izenarekin milla sei eun ta amabigarren urtean Bilbaon moldizkidatutako egitade maitagarriaren aurkillea.

Batxiller Martinez Zaldibia, jakinduri andiko letradua, izkribatu zeban liburu bat Probinzia Gipuzkoakoari dagozkion anziñerako gauza balioso asko dakarzena; zeñagaz baliatu izan zan Irakasle Gebara, Españaren ipiñera ta anziñatasuna, eta Kantauriako noblezaren iraupena argitara emateko milla bosteun laurogei ta seigarren urtean Milanen moldizkidatutako liburuan.

Fr. Franzisko de San Julian, Ministro Jeneral Trinitario Ortoz zena; argitara eman zeban egitade *Tribunal regolare* Leon Franziskoan, zeña aipatzen daben D, Nikolas Antoniok, esaten ere debala aurkillea ill zala Alkalan milla seieun irurogei ta irugarren urtean.

Migel Elizalde, Kapitan itsasokoa, zeña arkitu zan batalla Lepantokoan, eta antolatutako zeban liburu aritmetika eta jeometriakoa.

Martin de Antxieta Nafarroako Birrei D, Alonso Idiakezkoaren Sekretarioa; izkribatu zeban esakuntza bat Españako Erregiña Doña Ana de Austria eta Isabel de Borbonen emoitzak Bidasoako ibaiaren gañean milla seieun ta amabostgarren urtean zeren bidez ta nola egin izan ziran.

Don Jose Lapazakoak egin izan zeban biurkera on bat Konde de Saxe ospatsuaren Historiaren, zeña moldizkidatu zan Donostian milla zazpi eun berrogei ta amalaugarren urtean.

D. Diego de Lazkano Euskaldunen noblezaren gañeko saiakeraren aurkillea, zeña moldizkidatu zan Tolosa berean; eta Apaizbatune Galikanoak milla zazpieun irurogei ta amargarren urteko biltzarkidan liburu gaiztoen kontra kristau fidelai egindako azaldura eta gaztiguen

gañean ere izkribatu zeban; zeña dan eranzunkida eder bat Erlijio Santuaren alde.

Urrestillako semea zan D. Mateo de Urdanbidelus y Patiño, Artxiduke D. Juan de Austriaren Estada ta gudako Sekretarioa; eta erri onetan arkitzen da jauregi Antxietaan jaiok ziran Jesusen Konpañiako Jose de Antxieta misiolari ospatsua, eta bere aita Juan de Antxieta, zeña izan zan Kapitan eta Juradu Kanariasetako Ugartean milla bosteun berrogei ta bostgarren urtean.

Usurbilko semea zan D. Franzisko de Etxebeste, Filipinasetako galeraen Jenerala, Txinaren agindeko Tunkingo Erregerengana Enbajadore joan izan zana, Priore ta Konsul España berrikoa, zeñak bere gustuz eragin zeban Elizako ezkillategi berria. Migel Lukas de Iranzo Kondestable Gaztelakoa, D, Albaro de Lunaren oñ ordekoa. Badira esaten dutenak jaiok zala Belmonte Usurbilkoan. Garibaik esaten du zala Belmontekoa baka-rrik, geiago erantsi bage; beste askoren iritzia izanik Ondarribiako jatorria zala, bera griñatzen da izan zitekeala Nafarroakoa. Edozein modutan dala *Ironzo* izengañekoak adierazten du argi eta garbi, euskararen bere berekia dala.

Villabonako semea zan Fr. Diego de San Pedro e Ibarra, Santo Domingoren ordenakoa, Karlos bostgarren Jaunaren konfesorea, zeñagandik iritsi zeban gallaldia bera jaiok ziran tokiari Erriaren izena ifinteko, eta Arzobispo Toledoko ere izan zitekean, bañan etzeban artu nai izan dignidade andi au. Esaten du, bada, Irakasle Isasti jakintsuak, ezen, Karlos bostgarren Jaunak bere konfesore Fr, Diego, Kamarako Mediku D, Esteban Zabala eta Sekretario D, Alonso Idiakezkoarekin izan zeban tratamenduaren bidez ikasi zebala Euskaraz trebe itzegiten. Gauza jakina eta egiazkoa ere da, Enperadore andi onek guztiz asko maitatzen zituela Euskaldun prestu leialak, beren itzkuntz eder illezkorra, eta Españaren lendabiziko asieratik gozatzen dituzten oitza ta oitura oneski beren berekiak. España guztiko jaun ta jabe eta buruzari-nagusi onen eginpide ondraduak adierazten dute argi eta garbi, Gipuzkoatarrak ziradela beraren biotzeko kutunak, eta amodiozko naitasun legez ta bidezko au ontzat ezin eraman zutenak asmatuak dirala, Historian arkitzen diran bi itz neurtu oek.



*Karlos kintoren baratzan
Akerrak ezpata dantzán.*

Villafrankako Erriak eman izan ditu seme argidotarrak. Aita Fr, Andres Urdaneta, Ontzigidari andia, zeña San Agustingo erlijioso egin ezkeroztik esleitu zeban Karlos bostkarrenak Luzongo Ugarteak agertaratzeko, eta bera izan zan Zebuko Uriaren ipinlea.

Don Agustin de Aiestaran y Landa Obispo laguntari Sebillan, eta gero Obispo Kordoban; onen arrebaren bi seme Don Ramon eta Don Jose Luis de Ubillos Kanonigo Kordoban.

Don Esteban Jose y Don Jose de Abaria e Imaz; bitezardetu zituzten bi dote eun ta berrogei ta amarna dukatekoak donzella beartsuentzat urteoroko.

Don Manuel Aszensio Okariz gogoangarriak bere jaioterriko beartsuak sokorritzeko utzi zeban urtean sei milla ezkutu errenta ematen daben oña edo kapitala.

Ikaztegieta semea zan Don Martin de Zelaieta y Lizarza Obispo Leonen milla zazpieun ta ogeigarren urtetik milla zazpieun ogei ta zortzigarreneraño egon zana, zeñak astitutu zeban Elizbilguma Lateranense, milla zazpieun ogei ta bostgarren urtean, Benedikto amairugarrenaren aginduz egindakora. Erroman zegoela iritsi zeban Aita Santuagandik benefizio sinple San Klementekoa Diozesea Kuenkakoa, Salamankan zegoen Kolejio nagusi Kuenkakorako, non egon izan zan kolejial, eta beraren gozamendurekin estaldu zan Kolejioaren beartasuna; zeñak milla ta bosteungarren urtean ifinia izan zanetik orduraño, etzeban izan bere gidari ta serbitzalleak bazkatzeko lainbat errenta. Obispo onen erreguz Aita Santuak egin ziozkan Leongo Elizari laguntza andiak: ifini zeban bere Katedraleko aldare nagusian Santa Zelestinaren gorputza, eta erregalatu zion beste gorputz santu bat Felipe bostgarrenari. Aita Risko ezeztatu zan *Ikaztegieta* *Leaztegieta* deitzean, utsaldi berperean erori izan zalarik D, Antonio Pons Españatik kanporako bidajearen lenengo tomoan.

Zaldibiako Errian jaio ta azia zan Fr, Pedro de Zaldibia, zeñaren ausardi, balore, eta errutasun pare bageak gogoango diraden mundua mundu dan arte, milla zortzieun ta seigarren urteko garagar-illaren amargarrenean berak egindako azaña andia izanik aiñ oroitkarria, Madrillen moldizkidaturik argitaratua arkitzen dalako, bai izkribuz, eta bai ezanza edo

estanpaetan. Egikera hura, zeñen bidez egin zan ain aomen andikoa Fr, Pedro Argaiia Zaldibikoaren izena, da Maragatoa zeritzon lapur ospatsua arrapatzea. Gizon gaitzgille lapur baztar guztiak izutu eta larritzen zituen Maragatoak egin nai izan zion, osterontzekoai oi ziena, Fraile esketan zebillenari ere, eskatzen ziozkalarik zakutoan edo alforjan zeramazkian oñetakoak; bañan Fr, Pedrok, jarri ziradenean aurkez aurke, ill edo bizi, eldu zion Maragatori besotik eta eskuan zeukan alkabuzetik; eta luzaro burruka alkar ezin benzutuz jardun ta ondorean, menderatu zeban noizbaten ere, eta ifini zeban Oropesako Alkate jaunaren eskuetan gizon kaltarkitsu hura, erakarten ziela pake andia ingurumaiko bidante guztiai, eta denpora gitxiren buruan nozitu zituen Maragato gaitzgille izugarri ark bere oker eta gaitztakeriak Madrillen, utzirik bere bizia urkamendian. Errege Karlos laugarrenak ezaguturik egikera onekin zer on andiak egin ziozkan España guztiari, batez ere Estremaduran Oropesa inguruan ibilli bear zutenai, saristatu zeban Fr, Pedroren azaña ospatsua, señalaten ziozlarik urtean zortzi milla erreal, zeintzubein bizi izan zan artean egin izan zituen, isill edo agiri, mesede ta laguntza andiak, eta limosna gogoangarriak; eta oetatik uste dabee bere erri Zaldibian artu zutela milla zortzi eun ogei ta zazpigarren urtean; bada sinistmen osoan oi daude beraren erritarrik, ezen, esan dedan urtean Ama Birjina Errosarioko Eliza berean dagoenari ez nondik eta ez norgandik etorri zitzaiozkan urrezko errosario eder galantak, Fr, Pedrok biralduak direala. Fraile errutsu aomen andiko au ill zan Arenas deitson erri Estremadurakoan milla zortzi eun ogei ta emezortzigarren urtean, arkitzen zalarik irurogei ta bat urteko adinean.

Ots andiko egikera onek badirudi bere odolekoetara ere zabaldu zebala balorea ta errutasuna; bada denpora gitxiren epean agertu zan beraren bestengusu D, Gaspar Jauregikoa, Villarrealean jaioa bazan ere, aurrekoetatik Zaldibiakoa, eta Fr, Pedroren jatorrikoa. D. Gaspar izengoitiaz *Artzaiia* zeritzana, artzaintzan zebillen mutil gaztetxoa gudara irten zalako, ondo ezagungarritua izandu zan Napoleonen kontrako guda gogorrean. Utsetik asita egiñeratu zituen iru batalloi, zeintzubein topatzen zituen toki guztietan, eman izan zien astin-aldi latz, eta gogorraz oroitzen dira gaur ere Franzesak. Bere gudako egikera gogoangarrien bidez igo zan Martiziti Errealeako Mariskal de Kanpo beste onore anitzekin izatera, eta milla zortzi eun berrogei ta laugarren urteko abenduan ill zan Vitoriako Urian.



Zarauzko Errian izandu dira gizon argidotar anitz; bertako semea zan D, Juan de Manzidor Españako Errege Felipe irugarrenaren Sekretario eta Gudako Konsellaria Flandesen. Egiñeratu zeban Erri berean dagoen San Franziskoren ordenako Konbentua, utzirik izendatuta amabost Fraile Mezako eta bost Lego bizitutzeko lainbat ondasun, gordetzen zebala beretzat, eta bere ondorengoentzat konbentu onen nagusi ta jabetza. Egiña izan zan au milla sei eun eta amargarren urtean, noiztik onara irten izan dira Etxe beneragarri onetatik ezin esan-ala misiolari jakintsu ta anima asko bide zuzenean jarri dituztenak denpora guztietan. Asi zeban Konbentuaren alboan etxe andi eder bat ere Flandeskoen antzera; bañan etzeban bukatu.

Erri onetan jaioa zan Doña Mariana de Zarauz, D, Franzisko de Bouker ta Bartonen alarguna, eta *Zarauz* deitzen Jauregiko alaba ta jabea. Andre gogoangarri onek egiñeratu zeban Erri bereko Eliza andia, zeñen nagusi ta jabe izan zan bera, eta dirade geroztik bere ondorengo ta jatorriak. Egin ere zeban Santa Klararen Ordenako Monjaentzako Konbentua amazpigarren eunkadaren asieran, eta sartu ta profesatu zeban Konbentu onetan berak bere bi alabakin, non igaro zituan bere egunak. *Zarauz* deitzen Etxe anziñako onek izan ditu denpora guztietan seme anitz ezagungarritu diradenak gai guztietan, eta zabaldu dabeenak beren izena baztar andietara; eta gaurko egunean ere Etxe au da Probinzia onetan ospatsuenetakoa, eta bereganatuta daukana Narrosko Markesadua.

D, Juan Ignazio de Aiestaran Erri onetako semeak egin zituan serbitzo txit andiak eta leialak Karlos irugarren, eta laugarren, eta Fernando zazpigarrenaren Erreina-aldian. Izandu zan Aragoiko nagusitza edo Patronatoko Sekretario aurrena, eta Gaztelakoa urrena, ematen zituala Errege Jaunak txit ontzat, aginte ta zer-egin andietarako, bere eginkizunak ala aginduta, izendatzen zituan gizonak. Jose Napoleon Erregetzat jarri zanean, onen aginduak egin nai etzitalako, joan zan Kadiza, eta emen egon zan ezertan ere sartu bage, leku andietan ifini nai izan bazuten ere, alik eta Fernando zazpigarrena bere Koroaz jabetu zan artean. Errege Jaun onek bere eskuz izkribatu zion Españan sartu ta Madrillera baño len, esaten ziolarik, ezen, ifini zitzala Gobernuo Sekretari guztiak lengo oñean, auturik onetarako onenak zerizkion gizonak. Egin zeban guztia txit ondo eta zuzenkí, Errege Jaunaren gogo betera. Milla zortzi eun ta emezortzigarren urtean egin nai izandu zeban Grazia ta Justiziako Ministro, bañan etzeban nai izan artu ondra andi au; eta urrengo urtean

ill zan Madrillen irurogei ta lau urteko adinean. Bere jaioterrian arkitzen da Etxe eder galant bat berak egiña, azkeneko urteak bere erritarrakin igorotzeko asmoan, bañan Jaunak atotsi zion lenago, bere adiskide ta ezagun ugarien miñean.

Zestoako semea zan Don Juan de Perez de Gebara y Alzolaras ospatsua, zeñak egin izan zituen amar urteren epean azaña ta irabazkida anitz Txatxapoa, eta Moiabankako Probinziaetan; eta berak diabetatu ere zeban Santiago de los Vallesko Uria Kapitan Jeneralaren izenean.

Zumarragak baditu anitz seme txit gogoangarriak; Don Migel Lopez de Legazpia Jauregiko etxean jaioa izan zan Filipinasko Ugarteak agertaratu zituztenetatik bat amaseigarren eunkidaren azkenalderontz. Erri bereko alaba zan Maria Orazandi Don Albaro de Luna Kondestable Gaztelakoaren, eta Don Juan de Zerezueta Toledoko Arzobispoaren amasaba, zeña Domingo Lizasok, *Nobiliario de Guipuzcoa*, deitzen liburuan esaten dabenez, jaio zan Etxe purubetar Urazandikoan.

Zumaiako semea eta Oikiñako Ibarrean jaioa zan Baltasar de Etxabe Ministro Tokaduna Mejikon, eta Kantauriako itzkuntzaren anziñatasunaren gañeko egitade milla seieun eta zazpigarren urtean Uri Mejikoan moldizkidatuaren aurkillea.

Gipuzkoak izandu ditu beste gizon anitz goeneneko mallan ifintea merezi izan dabeenak beren egitade, jakinduri, ausardi, errutasun, azkardade eta doai eder andien bidez; eta iñori ere ez legorrean eta itsasoan, ez gudan eta pakean, ez Elizan eta kanpoan, eta beste edozein lanbidetan ezer zor ez diotenak, bañan asko dira izendatu ditudan oek, ezagutzeko zein seme on eta andiak azitako ama dan Gipuzkoako Probinzia.

*Gipuzkoak baditu semeak ugari,
Jakín izan dutenak ekiten lanari;
Erakutsiaz garbi mundu guztiari,
Zer nai gaitan dirala buru ta giari.*

Gipuzkoako seme ta jatorriak; ara non dauzkatzuten azaldurik gure Ama on Gipuzkoaren izaera ta bizitza, bear ainbat ezpadere, nere laburtasun eta moztasunak agindu direanaño; nik orain opa dedana da, asitako lanbide andi au gizon argi ta jakinti beren erriari ondo nai diotenak, eta



gure itzkuntz gozo parebagea maite dabeenak esku-ikutu, apaindu eta edertutzea, ezagutu dezaten gizon arrotz guztiak, iñori ezer ere zor ez diona, eta besterik ez bezalako doain andi ta ederraz janzia dala Gipuzkoako orua.

*Non nekatu badute gizon jakintziak
Eman nai badituzte emengo barriak;
Bestek ez bezalako doai on andiak
Dauzka Gipuzkoako baztar maitatiak.*

AZKENA